

Euskal Autonomia Erkidegoa
MEMORIA
Sozioekonomikoa **2010**



Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea







© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 81-7. a
48011 Bilbo

Diseinu: Cuatrobarras Comunicación

Maketazioa eta fotomekanika: Laster Grafika, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-2576-11



Euskal Autonomia Erkidegoa
MEMORIA
Sozioekonomikoa 2010



Juan María Otaegui Murua
EGABko Presidentea

Enpleguaren erronka



2010eko Memoria Sozioekonomikoa Kontseiluak joan den ekainaren 30ean egin zuen osoko bilkuran onartu zen, CESen Araudian ezarritako epeen barruan, alegia; azken urteetan ezin izan dira epe horiek bete memoria egiteko eta onartzeko prozesua gehiegi luzatu delako. Horrenbestez, pozik eta esker oneko egoteko arrazoi bikoitza dugu. Pozik, memoria zabaltzeko eta gizarteari aurkezteko uztailan egingo den berariazko aurkezpen-ekitaldia gaur-gaurkoa delako eta 2010eko gai ekonomiko eta sozialen etorkizuna CESen ikuspuntutik hobeto ezagutarazten lagunduko duelako. Eta esker oneko, Batzordeak Memoriaren ezaugarri nagusi den zehaztasuna eta kalitatea albo batera utzi gabe idazkia lehen seihilekoa amaitu aurretik onartu ahal izateko gauzen norabidea aldatzeko erronka zaila aurrean izan eta erronka hori bete egin duelako. Ezbairik gabe, berebiziko garrantzia izan du Memoriaren lanak koordinatzeaz eta zuzentzeaz arduratu den Lehendakaria izendatzeak, baina ezinbestekoa izan da, baita ere, Batzordeak erronkari heltzeko izan duen etengabe hobetzeko espiritua, izan ere, horri esker erritmo zorrotzagoan eta jarraituagoan egin diren eztabaidetan partaidetza aktiboagoa sortzea ahalbidetu duten aldaketa berriak sartu dira memoria egiteko prozesuan.

Eskerrak eman nahi dizkiet, beraz, hori guztia posible egin duten pertsonen: Batzordeko Lehendakari den Inmaculada Gallastegui eta gainerako kideei, Antxon Tomasenari (CC.OO.), Eduardo Garciari (CC.OO.), Maribel Ballesterosi (UGT), Raúl Arzari (UGT), Eduardo Arechagari (Confebask), Jaime Fernandezi (Confebask), Carlos Peredari (Confebask), Rafael Arangureni (Aurrezki-kutxak eta Finantza-erakundeak), Xabier Iraolari (Nekazaritza-arloko Erakundeak), Sylvia Gayri (EHU), Javier Muñecasi (ASLE) eta Felicísimo Ayastuyk, Ignacio Barrenecheak, Aitor Bengoetxeak eta Carlos Trevillak osatutako Aditu-taldeei. Azkenik, Azterlanen eta Proiektuen Arduradun izan diren Leire Ozerini eta Arantxa Unzurrunzagari ere eskerrak eman nahi dizkiet, beren gain izan baitute memoria idazteko lana eta beren eskarmentuari eta ezagutzari esker lanen koordinazioa erraztu egin baitute.

Beste urteetan bezalaxe, CESeK analisirako lanabes baliotsu eta erabilgarria eskaintzen du Memoriaren bidez, izan ere, euskal gizartearen erradiografia egiten du egiaztatutako datuetan oinarrituta eta ondorioak gaizki bideratzera eraman dezaketen unean uneko presak alde batera utzita. Hala ere, Memoria Sozioekonomikoaren baliorik esanguratsuen hura egiteko inplikatu diren eragile ekonomiko eta sozial ezberdinen baterako gogoeta adostua lortu izana da.

Txostenak erakusten du 2009an jarduerak izandako beharakada gogorrek inflexio-puntua izan zuela 2010ean. Izan ere, 2009an BPG % 3,8 jaitsi zen, baina 2010ean 0,3 puntuko hazkundetxoa izan zuen. Geroago ikusiko dugun legez, hazkunde hori ez da nahikoa enplegua sortu ahal izateko, baina azpimarragarriak diren alderdi positiboak biltzen ditu. Horixe da EAEn hain garrantzitsua den industria-sektorearen bilakaeraren kasua, 2009an % 12,7 erori ondoren 2010ean % 0,4ko igoera izan baitzuen. Bilakaera hori azaltzeko esportazioen bilakaera hartu behar da kontuan, 2009an % 18,4ko beharakada izan ondoren 2010ean % 8,3 hazi baitziren. Baina bilakaera hori positibotzat hartu behar bada ere, ez da nahikoa enpleguaren sorreran ondorio positiboak izan ditzan. 2009ko azken hiruhilekoan langabezia-tasa % 8,7koa zen baina 2010eko laugarren hiruhilekoan, aldiz, % 10ekoa izatera iritsi zen, eta horrek argi uzten du krisi-egoerak jarraitu egiten duela enpleguaren arloan. 2010ean 13.800 pertsona geratu ziren langabezian eta 9.100 enplegu garbi suntsitu ziren.

Nabarmendu behar da EAEko erakunde eta eragile ezberdinak prestakuntza, enplegurako orientazioa eta enpleguaren sustapena ardatz duten hainbat programa garatzen ari direla, horrela enplegu-politika aktiboek duten garrantzia azpimarratuta.

Erakunde eta eragile ezberdinek parte hartzeak jarduera ugari edukitzeko eta helburu ezberdinei heltzeko modu desberdinak izateko aukera ematen du. Baina krisi ekonomikoa dagoenez eta lan-merkatuek zailtasun itzelak dituztenez, ezinbestekoa da alor horretara zuzendutako baliabideak koordinatuta eragile guztien ahalegina finkatu eta sendotzea, horrela bikoizketak ekidin eta baliabideok era arrazionalagoan eta eraginkorragoan erabili ahal izateko.

Sarrera honetan jardueraren eta enpleguaren bilakaerari buruzko aipamen berezia egin nahi izan dut, une honetan gizartean kezkarik handiena sortzen duten elementuak baitira. Baina EAEko bizitza ekonomiko eta sozialak baditu beste hainbat alderdi interesgarri eta garrantzitsu ere, eta irakurleak apurka-apurka deskubrituko ditu Memoriaren irakurketan murgiltzen joan ahala.

Espero dut orain arte bezala CESen Memoriak erabilgarritasun-eredu izaten jarraitzea herritarrentzat, profesionalentzat, gizarte-eragileentzat eta arduradun politikoentzat, guztiek ere zeresana dutelako euskal gizartearen etorkizunean, beren eguneroko lanarekin lurralde honetan gizarte justuagoa eta bidezkoagoa lortzen laguntzen baitute.



II. KAPITULUA EKONOMIA EAE-n

1. Kanpoko ingurune ekonomikoa	96
1.1. Eragile ekonomiko nagusiak	96
1.2. Bilakaera ekonomikoa arloen arabera	97
1.3. Europar batasuna. Eurogunea	99
1.4. Espainiako ekonomia	103
1.5. Autonomia erkidegoak	104
2. EAE-ko egoera ekonomikoa	106
2.1. Bilakaera orokorra	106
2.2. Barne eskaria	107
2.3. Kanpoko eskaria	109
2.4. Atzerriko inbertsioa	112
2.4.1. Atzerriko inbertsioa EAEn	112
2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian	113
3. Prezioak, kostuak eta errentak	118
3.1. Kontsumo ondasun eta zerbitzuen prezioak	118
3.2. Kostuak	119
3.3. Errentak	123
4. Sektore publikoa	126
4.1. Sarrerak	126
4.2. Gastuak	127
4.3. Aurrekontu saldoa	129
4.4. Sektore publikoaren zorpetzea	131
4.5. Erakundeen transferentziak	132
4.6. EAE-ko enpresa sektore publikoa	134
5. EAE-ko gizarte-ekonomiaren kontuak	136
6. Lan-merkatua	139
6.1. Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera	140
6.1.1. Jarduera eta okupazioa	140
6.1.2. Langabezia	143
6.2. Lan-merkatuko sarrera eta irteera fluxuak	145
6.2.1. Kontratazioaren egoera	145
6.2.2. Banakako eta taldeko irazpenen bilakaera	147
6.3. Laneko osasuna	148
6.4. Lan harremanak	149
6.4.1. Lan-gatazkak	149
6.4.2. Negoziazio kolektiboa: Soldata igoera eta lanaldia	150
6.5. EAE-ko soldatak	151
6.5.1. 2008ko soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak	151
6.5.2. Lan-kostuari buruzko urteko inkestaren emaitzak, 2009	153
6.6. Enplegu politika aktiboak eae-n 2010ean	154
6.6.1. Lan eta Immigrazio Ministerioaren Enplegu Politikak-EEZP	154
6.6.2. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Politikak	157

III. KAPITULUA BIZI-KALITATEA EAE-n

1. Familiak eta lana eta norberaren bizimodua bateratzeko premiak	164
1.1. Familia egituraren bilakaera EAE-n	164
1.2. Lana eta norberaren bizimodua bateratu beharrak	165
1.3. Familiei laguntzeko politika publikoak	167
2. Kolektibo zaugarri jakin batzuen bizi-baldintzak: ezgaitutasunak dauzkaten pertsonak	169
2.1. Datu nagusiak. Ezgaitasunaren, autonomia pertsonalaren eta menpekotasun egoeren (adina) inguruko inkestaren emaitzak, 2008	169
2.2. Lan-merkatua	172
2.3. Etxebizitza eta irisgarritasuna	175
2.4. Bizi-baldintzak eta gizarteratzea	176
2.5. Gizarte babesa eta arreta	178
3. Osasuna eta osasun sistema	181
3.1. Osasunaren egoera orokorra: adierazleak	181
3.1.1. Bizi itxaropena	181
3.1.2. Hilkortasuna	182
3.1.3. Erikortasun adierazleak	184
3.2. Osasun sistema eta prestazioak	187
3.2.1. Sarrera	188
3.2.2. Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jarduera	188
3.3. Osasun sistemaren gastua eta finantzaketa	194
3.3.1. Osasun Sailaren gastua	194
3.3.2. Laguntza-jardueraren gastua	195
4. Hirigintza eta etxebizitza	198
4.1. Lurzorua eta eraikuntza kostuak	198
4.1.1. Lurzorua EAEn	198
4.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika	199
4.2. Etxebizitza hutsa EAE-n. 2009ko datuak	200
4.3. EAE-ko etxebizitza eskaintza 2010ean	201
4.3.1. Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza eta prezioak	202
4.3.2. Alokairu erregimena	203
4.3.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa autonomia erkidegoen arabera	204
4.3.4. Eraikuntza jarduera	205
4.4. Etxebizitza eskaria EAE-n	207
4.4.1. EAEko etxebizitza beharrari eta eskariari buruzko 2008ko inkesta	207
4.4.2. Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria	209
4.5. Etxebizitza politika	210
4.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika	210
4.5.2. Foru aldundien etxebizitza politika	212
5. Aisia eta kultura	214
5.1. EAE-ko biztanleriaren ohiturak denboraren gizarte erabileran	214
5.1.1. Komunikabideen eragina	214
5.1.2. Biztanleen ohiturak denboraren gizarte erabileran: Aisia	214

AURKIBIDEA

5.2. Kultura eta aisialdiko jardueren eskaintza EAE-n.....	214
5.2.1. Bisitarien bertaratzeko kultura ekipamenduetara.....	214
5.2.2. Biltzar eta azoka jardura.....	216
5.3. Argitaletxeen ekoizpena.....	218
5.4. Finantziak eta gastu publikoa kulturen.....	220
5.5. Etxeen gastua kultura kontsumoan.....	222
6. Pobrezia eta gizarte bazterkeria.....	224
6.1. Pobrezia eta gizarte desberdintasunen 2008ko inkestaren emaitzak: pobreziak eta kolokatasunak lurraldean duten eragina.....	224
6.2. Bizi-baldintzen inkestaren emaitzak 2009.....	228
 IV. KAPITULUA	
GIZARTE BABESA EAE-n	
1. EAE-ko gizarte zebituak.....	235
2. Langabeziagatik babesa: EEZP.....	238
2.1. Prestazioen jasotzailea eta langabeziarako estaldura.....	238
2.2. Langabezia babesteko gastua eta sarrera.....	240
3. Gizarte segurantzaren prestazioak EAE-n.....	241
3.1. Kudeaketa transferitu gabe duten gizarte segurantzaren prestazioak.....	241
3.2. Kudeaketa transferituta duten gizarte segurantzaren prestazioak: kotizazio gabeko prestazioak.....	243
3.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak.....	243
3.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsekin laguntzeko pentsioak.....	244
3.2.3. MGL prestazioak.....	244
4. Txirotasunaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako neurriak EAE-n.....	246
4.1. Diru-sarrerak bermatzeko sistemako prestazioak.....	247
4.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.....	247
4.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria.....	248
4.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak.....	248
4.2. Gizarteratzea errazteko programak.....	248
4.2.1. Hirugarren sektorearentzako laguntza programa.....	248
4.2.2. AUZOLAN programa.....	249
4.2.3. Txertaketarako programen kudeaketa errazteko indartze programa.....	249
4.2.4. Txertaketarako enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak.....	249
5. Gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak EAE-n.....	251
5.1. Estalitako biztanleria.....	252
5.2. Babesaren intentsitatea.....	253
5.3. Babes erakundeak, haien dimentsio ekonomikoa.....	254
5.4. Araubide fiskala.....	255

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. EAEko JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK

1. Giza baliabideak EAE-n.....	16
1.1. Demografia eta immigrazioa.....	16
1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera.....	17
1.1.2. Immigrazioa EAEn.....	23
1.2. Hezkuntza-sustapena eta hezkuntza.....	28
1.2.1. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza.....	28
1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntza.....	30
1.2.3. Hezkuntza adierazleak.....	32
2. Produkzio egitura eta berrikuntza EAEn.....	46
2.1. Produkzio egitura.....	46
2.1.1. Enpresa egitura eta demografia.....	46
2.1.2. Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea.....	48
2.1.3. Industria.....	54
2.1.4. Eraikuntza.....	58
2.1.5. Zerbitzuak.....	59
2.2. I+G+B eta IKT jarduerak.....	68
2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak.....	68
2.2.2. EAEko enpresa sektorearen I+G+B jarduerak.....	70
2.2.3. Ikerkuntza Euskal Herriko Unibertsitatean.....	75
2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn.....	76
2.2.5. Komertzio elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak.....	81
3. Ingurumenaren egoera EAE-n.....	83
3.1. EAE-ko 2002-2020ko ingurumen estrategiaren jarraipena. Ingurumen adierazleak.....	83
3.2. Enpresa industrial eta ingurumena.....	92
3.2.1. Enpresa industrialen gastua ingurumen babesean.....	92
3.2.2. Enpresen ingurumen konpromisoa. Ingurumenaren kudeaketa.....	93

V. KAPITULUA ARAUGINTZA EAE-n	258
--	-----

VI. KAPITULUA LABURPENA ETA GOGOETA OROKORRAK	
1. Laburpena	262
2. Gogoetak	276



01

EAEko JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK



1. Giza baliabideak EAE-n

1.1. Demografia eta immigrazioa

Nazio Batuen azken datu eskuragarrien arabera, munduko biztanleak 6.800 milioi dira eta 2050ean 9.000 milioi baino gehiago izango dira, 2000an baino %50 gehiago. Hazkunde ia guztia herri txiro eta garapen bidekoetan gertatuko da; haietan egun 5.600 biztanle daude, eta 2.300 milioi gehiago izango dira. Hazkunde horren erdia bederatzi herritan gertatuko da: India, Pakistan, Nigeria, Etiopia, Estatu Batuak, Kongo, Tanzania, Txina eta Bangladesh. Herri garatuak, Estatu Batuak izan ezik, ozta-ozta igaroko dira 1.230 milioitik 1.280ra 2050ean. Izan ere, NBEk kalkulatu du haietako biztanleria 80 milioitan murriztuko litzatekeela herri txiroagoetatik iritsitako immigrazioagatik ez balitz.

Bestalde, EUROSTATEk kalkulatu du 501,1 milioi lagun bizi direla Europar Batasunean, 2010eko urtarileko erreferentzia hartuta, 2009ko urtarilean baino 1,4 milioi gehiago. Milako 2,7ko hazkunde horri esker —aurreko urtean milako 4,4koa izan zen— beste urte batez eutsi zaio 1960az geroztik gertatu den etengabeko goranzko joerari. Orduan Batasuneko biztanleak 400 milioi ziren. Beste urte batez, bilakaera positiboa immigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren %40 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkundeari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).


Etorkizuneko bilakaerari dagokionez, EUROSTATEk aurreikusi duenez, EB-27ko biztanleria 2035ean 520,7 milioi biztanle izan arte haziko da, eta harrezkero pixkanaka murriztuko da 2060an 505,7 milioi izan arte. Urteko jaiotza kopurua aldi osoan jaitsiko da, heriotzak ugaritu diren bitartean, “baby boom” belaunaldiaren zahartzea dela-eta. 2015ean hazkunde begetatiboa negatibo bihurtuko da, eta 2035etik aurrera migrazio-saldoak ez dira nahikoak izango joera horri aurre egiteko. Hortaz, biztanleria behera hasiko da.

EAEen, Biztanleen Udal Erroldak¹ 2010eko urtarileko erreferentziari buruz emandako azken datuen arabera, biztanle kopuruak 2000n hasitako goranzko bideari jarraitu

dio, hazkundea gero eta txikiagoa bada ere. Zehazki, 2010ean 2.178.339 biztanle zituen (%+0,3 2009aren aldean), hots, aurreko urtean baino 6.164 gehiago eta 2005ean baino 53.000 gehiago. Lurralde Historikoei dagozkien datuek biztanleria Araban (%+1,1 azken urtean) gehiago, eta Gipuzkoan (%+0,2) eta Bizkaian (%+0,1) gutxiago hazi dela islatzen dute.

Zenbateko horiekin batera, bestalde, EAEen erroldatutako atzeritar biztanleen pisua %7,7koa da, 2009ko urtarilaren 1ean %7,3koa zen bitartean, hots, %5,5eko bariazio erlatiboa. Epe berean, atzeritar biztanleriaren pisua ia ez da handitu Estatu osoan (%13,8tik 14ra igaro da), baina EAEko datua oraindik oso urrun dago Espainiako batez bestekotik —erroldaren azken eguneratzean 6,5 milioi atzeritar izan

I.1.1. Grafikoa. EAEko Biztanleriaren portzentajezko banaketa bost urteko adin taldeen arabera, jaiotzeko tokiaren arabera. 2010




Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

I.1.1. Koadroa. EAEko biztanleriaren azken urteotako bilakaera. 2005-2010

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	Var. 09-10
Araba	299.957	301.926	305.459	309.635	313.819	317.352	+3.533
Bizkaia	1.136.181	1.139.863	1.141.457	1.146.421	1.152.658	1.153.724	+1.066
Gipuzkoa	688.708	691.895	694.944	701.056	705.698	707.263	+1.565
EAE	2.124.846	2.133.684	2.141.860	2.157.112	2.172.175	2.178.339	+6.164

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

¹ Biztanleen Udal Erroldako zifrak ezin dira zorrotz alderatu Biztanleria eta Etxebizitza Zentsuaren zifrekin, metodologia ezberdina dutelako. Udal errolda erregistro administratiboa da eta Espainian dauden 8.000tik gorako udalei dagokie hura eratu, mantendu eta kudeatzea. Erroldako datuak udalerriko egoitzaren eta bizilekuaren proba dira eta haren ziurtagiriak agiri publikoak dira eta administrazioaren ondore gutzietarako fede ematen dute. Hala ere, Biztanleria Zentsua estatistika bat da eta Estatistikako Institutu Nazionalari dagokio hura egitea. Jasotzen dituen datuak sekretu estatistikoak babesten ditu, Erroldak ez bezala; Erroldan pertsonak identifikatu egin behar dira derrigorrez.

I.1.2. Grafikoa. EAEko proiektzio demografikoa 2020rako: Aurreikusitako hazkundera osagaien arabera

Iturria: EUSTAT. Proiektzio Demografikoa 2020.

dira— eta, batez ere, beste erkidego batzuetatik; besteak beste, Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoan eta Madrilen atzerritarrak bertako biztanleriaren ehuneko oso handia dira.

Azkenik, EUSTATEk proiektzio demografikoak egin ditu EAERako, eta begiak 2020an jarrita, biztanleriaren bilakaera orokorra eta bertan eragiten duten aldagai guztiak kalkulatu². Heriotzen, ugalkortasunaren eta migrazioen etorkizunari buruz egindako hipotesiak oinarri hartuta, epe laburrera mende aldaketarekin hasi zen hazkunde txikiaren joerari eutsiko zaiola aurreikusi da, eta ondoren biztanleriaren kopuruak egonkorak izango dira. Halaber, eta eraginezko haurrak nolabait berreskuratu diren arren, euskal gizartearen heltze eta zahartze-prozesua biziagotuko da.

Hazkunde erritmoa pixkanaka moteltzea eragile biren uztartetaren emaitza izango da: alde batetik, lehenengo urteetan saldo begetatiboa apur bat positiboa izango da, baina joera aldatuko du 2014az geroztik, orduan heriotzen kopuruak jaiotzena gaindituko baitu berriro. Bestalde,

migrazio saldoak positiboa izaten jarraituko du, baina neurri gero eta txikiagoan: 2007an 18.000 migratzaile garbi baino gehiago izatetik 2020an 4.000 baino zertxobait gehiago izatera igaroko da.

Azken bosturtekoetan gertatu den bezala, biztanleriaren bilakaera migrazio-saldoaren zeinuaren eta intentsitatearen arabera izango da batez ere. Horiek markatzen dute biztanleriaren hazkundearen abiadura. Epe laburrera, jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak mesede egingo dio hazkundeari baina ez da oso aipagarria izango. Alde horren zeinua aurki aldatuko da eta denboraldiaren amaieran saldo begetatiboa dela eta galerak sortuko dira, aurreko mendeko 90eko hamarkadan erregistratutakoak baino handiagoak. Zenbakitan, berezko hazkundeak 7.000 biztanle pasatxo ekarriko ditu 2007 eta 2011 artean, eta ia 15.000 kenduko 2016 eta 2020 artean. Saldo begetatibo gero eta negatibagoak eragindako galerak eragingo dituzte migrazioek orekatu, eta epe luzera aurreikusten da, joera horiei eutsiz gero, EAEn bizi diren biztanle guztien zenbatekoa berriz jaisteko fasean sartuko dela.

1.1.1. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera**(a) Biztanleriaren mugimendu naturala**

2009ko behin-behineko datuen arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren bariazioa, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen arabera, migrazio mugimenduak aintzat hartu gabe) seigarren urtez jarraian positiboa izan da; hori gure erkidegoan ez zen gertatu 1986az geroztik: urte horretan 20.928 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino %1,8 gutxiago, eta 19.045 heriotza, 2008an baino %2 gutxiago. Horren ondorioz, +1.883ko hazkunde begetatiboa gertatu da, hots, milako 0,8koa. EAEko hazkunde begetatiboak 14 urtez jarraian behera egiteko joera adierazi zuen eta, behin betiko daturik lortu ezean, azkenean ere badiardi 2004an gelditu egin zela. Hala ere, joera hori baieztatu egin beharko da hurrengo urteetan. 60ko hamarkadan eta 70ekoaren hastapenetan gertatu ziren saldo begetatibo indartsuen ostean, 1990a negatiboa izan zen lehen aldiz 1937tik, eta 1996an saldirik txikienera iritsi zen, urte hartan EAEk 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen.

I.1.2. Koadroa. Biztanleriaren bilakaera urte bakoitzeko, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera 1975-2020 (milakotan)

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
1975	2.071,8	1.026,7	1.045,1	237,4	119,2	118,2	1.154,8	570,0	584,7	679,7	337,5	342,2
1980	2.141,4	1.061,6	1.079,8	257,3	129,2	128,1	1.189,2	587,6	601,6	694,9	344,8	350,1
1985	2.142,0	1.056,9	1.085,1	268,3	134,2	134,1	1.182,4	581,7	600,7	691,3	341,0	350,3
1990	2.104,8	1.034,5	1.070,4	272,4	135,6	136,8	1.156,0	566,0	590,0	676,4	332,8	343,6
1995	2.099,1	1.027,5	1.071,6	281,3	139,6	141,7	1.141,3	555,9	585,4	676,5	331,9	344,5
2000	2.079,2	1.016,0	1.063,2	284,6	141,1	143,5	1.122,2	545,2	577,0	672,4	329,7	342,7
2005	2.115,4	1.033,4	1.082,0	301,8	150,2	151,6	1.127,3	546,3	581,0	686,3	336,9	349,4
2010	2.194,1	1.071,7	1.122,4	323,7	161,7	162,0	1.168,4	564,7	603,7	701,9	345,3	356,6
2015	2.225,5	1.086,3	1.139,2	335,9	167,7	168,2	1.181,1	569,6	611,5	708,5	349,1	359,5
2020	2.232,1	1.089,1	1.143,0	343,1	171,0	172,1	1.181,5	569,1	612,5	707,5	349,0	358,5

Iturria: EUSTAT. Proiektzio Demografikoak 2020.

² EUSTATen proiektzioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2008ko edizioa.


I.1.3. Koadroa. EAE-ko biztanleriaren berezko mugimendua

	Bizirik jaiotatoak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde begetatiboa	Tasa
2002	18.133	8,7	18.619	8,8	-486	-0,1
2003	19.267	9,2	19.305	9,2	-38	0,0
2004	19.594	9,3	18.684	8,9	910	0,4
2005	19.715	9,3	19.425	9,2	290	0,1
2006*	20.043	9,4	18.507	8,7	1.536	0,7
2007*	20.596	9,6	19.252	9,0	1.344	0,6
2008*	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9
2009*	20.928	9,6	19.045	8,8	1.883	0,8

(*) Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.


Iturria: EUSTAT "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta testuaren egileak egindakoa.

I.1.3. Grafikoa. EAEko jaiotza eta heriotzen bilakaera



Iturria: EUSTATen datuekin egina.

I.1.4. Grafikoa. EAEn Jaiotzen bilakaera lurraldeka eta ama ezkondu gabeagandik jaiotako portzentajearena



Iturria: EUSTATen datuekin egina.

Beraz, ikusten denez, saldo begetatiboa positiboa izan da 2009an jaiotzak heriotzak baino gutxiago jaitsi direlako: %1,8 eta -2 hurrenez hurren. Bestalde, ohikoa denez, 2009ko portaerak aldeak izan ditu lurraldeen arabera: Bizkaia, saldo positiboak berreskuratzeko atzeratuago egonda, aldatu gabe iraun du (urte horretan biztanle bat irabazi du), behin-behineko datuen arabera, Gipuzkoak eta Arabak beste urte batez euren joera positiboak sendotu dituzten bitartean, hurrenez hurren, 1.033 eta 851 biztanle gehiago izanik.

2009an hiru lurraldeetako jaiotzen bilakaeran aldeak egon dira; alde batetik, Araban 3.224 haur jaio ziren (%+0,5), eta Bizkaian, aldiz, 10.540, aurreko urtean baino %3 gutxiago. Gipuzkoan 7.164 haur jaio ziren, 2008an baino %1,1 gehiago. Emaiza horiek, EAE osorako, milako 9,6ko jaiotza-tasa dakarte, eta aurreko urtean baino neurri txikiagoan bada ere, 1995ean hasitako jaiotzaren berpizteari eutsi diote. 60ko hamarkadan milako 20tik gorakoa zen eta Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen. Gaur egun, jaitiera eman arren, EAEk estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 11,4 eta 10,9, hurrenez hurren) baino tasa baxuagoei eusten die.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeagandik jaiotako portzentajea gero eta handiagoa dela. 2009an ezkontzatik kanpo jaiotakoak

6.531 izan ziren, guztien %31,2 (%30,4 aurreko urtean). Arabak eta Bizkaia portzentaje altuagoak izan zituzten EAE osoak baino, %32,2 eta 31,4 hurrenez hurren, eta Gipuzkoak, aldiz balio erlatibo txikiagoa (%30,4). Egungo portzentajea 1990ekoarekin (%7,7) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeagandik jaiotako haurren ratioa laukoiztu egin dela. Herrien arabera, EBko portzentajeak Estonia (%59,2) eta Suediako (%54,4) mailen eta Txipre (%11,7) edo Greziako (bizirik jaiotako %6,6) artean mugitzen dira. Batasunetik kanpo, Islandiako tasa handia nabarmentzen da, 2009an jaiotako %64,4 ama ezkongabeagandik jaio baitziren.

Bestalde, EUROSTATen datuen arabera, 2009an EBn 5,4 jaiotza egon ziren guztira, aurreko urtean beste, eta 2002an baino %8 inguru gehiago, urte hartan Bigarren Mundu Gerrako garaietatik egondako mailarik baxuena gertatu baitzen. Jaiotza-tasarik handiena Irlandan gertatu da (milako 16,8), eta txikiena Alemanian (milako 7,9) eta haren atzetik Austrian (milako 9,1). Espainian milako 10,8koa da.


Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2009an joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen %77,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik ugariena 30 eta 34 urte arteko emakumeei

I.1.4. Koadroa. Jaiotzak eta heriotzak EB-n mila biztanleko 1975 eta 2009

	Jaiotzak		Heriotzak	
	1975	2009	1975	2009
UE-27	14,7	10,7	10,7	9,7
Alemania	9,9	7,9	12,6	10,3
Austria	12,4	9,1	12,7	9,3
Belgika	12,2	11,7	12,2	9,6
Bulgaria	16,6	10,7	10,3	14,2
Zipre	16,3	12,2	9,8	6,7
Danimarka	14,2	11,4	10,1	9,9
Eslovakia	20,6	11,3	9,5	9,8
Eslovenia	16,6	10,6	10,1	9,2
Espainia	18,8	10,8	8,4	8,5
Estonia	14,9	11,8	11,6	12,0
Finlandia	13,9	11,3	9,3	9,3
Frantzia	14,1	12,7	10,6	8,5
Grezia	15,7	10,5	8,9	9,8
Holanda	13,0	11,2	8,3	8,1
Hungaria	18,4	9,6	12,4	13,0
Irlanda	21,1	16,8	10,4	6,6
Italia	14,9	9,5	10,0	9,8
Letonia	14,2	9,6	12,2	13,3
Lituania	15,7	11,0	9,5	12,6
Luxemburgo	11,1	11,3	12,2	7,3
Malta	18,8	10,0	9,5	7,8
Polonia	19,0	10,9	8,7	10,1
Portugal	19,8	9,4	10,8	9,8
Erresuma Batua	12,4	12,8	11,8	9,1
Txekiar Errep.	19,1	11,3	12,4	10,2
Errumania	19,6	10,4	9,3	12,0
Suedia	12,6	12,0	10,8	9,7
EAE	19,1	9,6	7,1	8,8*

Iturria: EUROSAT eta EUSTAT.

(*) Behin-behineko datuak

I.1.5. Grafikoa. EAEn bizirik jaiotakoen banaketa amaren nazionalitate eta adinaren arabera. 2009


Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

dagokie, jaiotza guztien %43,8rekin. Bestalde, 2008aren aldean 35 urtetik gorako amen jaiotzek berdin jarraitu dute (%33,7), 25 eta 29 urte bitarteko taldearenak (%15,9) baino askoz gehiago beriz ere. Amen batez besteko adina 32,4 urtekoa izan zen, eta ama lehenerdienena 31,5 urtekoa, 2007 eta 2008en antzera. Horrela, EAEn bizi diren ama lehenerdiak EBkoak baino nagusiagoak dira. Halaber, 25 urtez azpiko amen pisua murriztu egin da, eta guztien %6,6 dira (%6,9 2008an).

Horrez gain, EInen Jaiotzen Estatistikak jaiotakoen aiten adina ere jakitea ahalbidetzen du. Haietako gehienak, %35,6, 2009an 35 eta 39 urte artekoak ziren, eta haien atzean dago 30 eta 34 urte artekoen taldea, %34,7. Bestalde, heriotzei dagokienez, 2009an EAEn 19.045 lagun zendu ziren, aurreko urtean baino %2 gutxiago; haietatik, %52 gizonak dira eta %48 emakumeak. 2009an zendutakoen %30,5 tumoreengatik hil ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, %29,3, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, %9,2³.

Era berean, EUSTATEN Heriotzen estatistikak agertu duenez, 2008an (datua eskuragarri dagoen azken urtea) gure erkidegoan hildakoen batez besteko adina 77,4

³ Memoria sozioekonomiko honetako "Osasuna eta osasun sistema"ri buruzko atalean aztertu dira xehetasunez euskal herritarren heriotzen zioak.

I.1.6. Grafikoa. EAEn zendutako pertsonen batez besteko adinaren bilakaera sexuaren arabera

Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.


urtekoa dela (76,8 2007an), 73,7 gizonezkoentzat eta 81,3 emakumezkoentzat, azkenak luzeago bizi baitira. Beraz, EAEn azken hamarkadan batez beste 3,1 urte igo da bizi-itxaropena

Europar Batasuneko datuei dagokienez, 2003an lortu zen mailarik altuena, ia 5 milioi zentze; hori milako 10,5eko tasa gordina da, EAEn urte horretan 9,2koa izan zen bitartean. Jaisteko ageriko joeren barruan EBko heriotzen kopuruek urtero gorabehera handiak izaten dituzte, hortaz, urte batzuk itxaron beharko dira joera hori baieztatzeko. 2009ko datuen arabera, 4,8 milioi pertsona hil ziren, aurreko hiru urteetan bezalaxe (milako 9,7), eta, betaz, hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) 600.000 lagun ingurukoa izan zen Batasunean.

(b) Migrazio-mugimenduak

EUSTATen 2009ari buruzko Migrazio mugimenduen estatistikak 13.254 laguneko hazkundera zenbatu du gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino %21,1 gutxiago), eta hamar urtez jarraian migrazio saldoa positiboa izan da. Lurraldeka, Bizkaiak, 7,394 lagun irabazita, migrazio saldorik handiena dauka zenbaki absolutuetan, baina %16 jaitsi da 2008aren aldean. Bestalde, Arabak 3.670 lagun irabazi ditu (%-16) eta Gipuzkoak 2.190 (%-40).

Era berean, azken 20 urteetan bigarren urtez jarraian EAEn beste erkidegoetatik iritsitako immigrazio gehiago

I.1.7. Grafikoa. EAEko migrazio saldoen bilakaera

Iturria: EUSTAT. Migrazio mugimenduen estatistika.

gertatu dira haietarako emigrazioak baino, eta horrela Estatuarekiko migrazio saldoa positiboa izan da (+3.452). Hala ere, ezin dugu ondorioztatu saldo hori aurreko urteen aldean joera aldaketa denik. Horretarako gutxienez hurrengo bosturtekoan erregistratuko diren datuen sail historikoa ikusi beharko da, horri buruzko hipotesiak egiteko.

Baina azpimarragarria da aurreko urteetako bilakaera, haietan EAE eta Estatuaren arteko migrazio saldoa negatiboa izan baita etengabe eta beti. Zentzu horretan, erreferentzia bakarra 2003-2009 saila hartuta, saldoa negatiboa da, 8.085 lagunekoa. Kopuru horiek are deigarriagoak dira EAEren eta atzerriaren arteko migrazio saldoarekin erkatuz gero, aldi berean positiboa izan baita, 98.829 lagunekoa.

Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATen datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaitiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio-mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. Bestalde, 2009an migrazio saldoa 2008an baino txikiagoa izan da, 0,8 milioi lagunekoa (-0,7 milioi); migrazio tasa gordina milako 1,7koa izan da 27-Ebrako eta milako 1,8koa eurogunerako. Saldo positibo horren %66 hiru herri dagokie: Italia, Suedia eta Erresuma Batua. Bestalde, Batasuneko zortzi herrik (Bulgaria, Alemania,

I.1.5. Koadroa. EAE-ko migrazio saldoen bilakaera

	Atzerriar Ekiko	Estatuko Gainerako Lurraldeek Kiko	Migrazio saldoa Guztira/ Kanpokoak*			
			EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2003	9.700	-3.449	6.251	1.828	3.617	806
2004	11.664	-2.640	9.024	2.955	5.168	901
2005	14.742	-1.478	13.264	3.028	7.603	2.633
2006	18.134	-3.676	14.458	3.271	8.021	3.166
2007	19.884	-2.192	17.692	4.224	9.209	4.259
2008	14.903	1.898	16.801	4.207	8.773	3.821
2009	9.802	3.452	13.254	3.670	7.394	2.190

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio mugimenduen estatistika".

I.1.6. Koadroa. Autonomia Erkidego Bakoitzeko Fenomeno Demografikoak Tasak 1.000 Biztanleko. 2009.

	Jaiotza-tasa	Heriotza-tasa	Ezkontza-tasa	Ezkontza-desegiteen tasa
Andaluzia	11,56	7,93	4,13	2,30
Aragoi	9,91	10,02	3,71	1,86
Asturias	7,86	12,08	4,81	2,62
Balearrak	11,16	7,46	4,05	2,54
Kanariar Uharteak	8,97	6,12	2,90	2,83
Kantabria	9,59	9,76	4,78	2,25
Gaztela eta Leon	8,16	10,67	4,25	1,72
Gaztela-Mantxa	10,46	8,70	4,33	1,65
Katalunia	11,65	8,24	3,79	2,61
Valentziako E.	10,40	8,08	3,63	2,48
Extremadura	9,61	9,63	4,41	1,70
Galizia	8,27	11,04	3,89	2,09
Madril	12,04	6,59	3,14	2,26
Murtzia	12,78	7,19	3,57	2,18
Nafarroa	11,15	8,51	4,08	1,85
EAE	9,91	9,15	4,10	1,92
Errioxa	10,46	8,71	3,85	1,96
Ceuta	20,08*	7,25	5,41	2,38
Melilla	20,87*	5,98	5,61	3,04
GUZTIRA	10,73	8,35	3,83	2,27

Iturria: EIN.

(*) 2008ko datuak.

Irlanda, Txipre, Letonia, Lituania, Malta eta Errumania) migrazio saldo negatiboak dauzkate.

Bestalde, 2009an, 193.084 lagunek, aurreko urtean baino %0,5 gutxiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen %8,9); mugikortasun horren %47,6 udal beraren barruan izan zen eta %23,5 EAEko bi udalerriren artean. Gainontzekoetatik, 34.486 mugimendu kanpoko immigrazio lirateke (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAE) eta 21.232 kanpoko emigrazio (jatorria EAE eta helmuga handik kanpo, haietatik 3.400en helmuga atzerrian).

Kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionez, 2009an EAEko mila biztanleko 25,8ri eragin die (Arabian milako 31,9, Bizkaian milako 26,5 eta Gipuzkoan milako 21,8); tasa horiek nahiko txikiak dira gainontzeko autonomia erkidegoekin erkatuz gero, haietan, batez beste, mila biztanleko 41 mugitzen baitira. Galizia, Kantabria, Nafarroa, Extremadura, Ceuta eta Melilla izan ezik, Estatuko gainontzeko autonomia erkidegoek biztanle gehiago ematen diote EAERI bertatik jaso baino; EAEko emigranteentzako erakarpen poloak, ordea, honako erkidegoak dira, ordenan: Gaztela eta Leon, Kantabria, Madril, Nafarroa, Katalunia eta Andaluzia. Sei erkidegoen artean EAE uzten duten pertsonen % 66 jasotzen dute.

Azkenik, 2009an atzerriko naziotasuna dutenen immigrazioak 21.403 izan dira, 2008an baino 5.112 gutxiago, eta gure erkidegorako sarreraren %62 izan dira. 2000tik, bigarren urtez jaitsi da atzerriko etorkinen EAERako sarreraren bolumena. Bestalde, kontuan izan behar da atzerriko etorkin horien %43 beste autonomia erkidegoetatik datozela, aurreko urtearen aldean 8 puntuko hazkundera.


Haien egoerari dagokienez, prestakuntza mailarik baxuenak immigrazioen %56ri dagozkie eta emigrazioen %58ri, eta mailarik altuenak, aldiz, %18ri bietan. Gainera,

immigranteen eta emigranteen batez besteko adina desberdina zen (31,5 eta 35,4 urte, hurrenez hurren).

(c) Ezkontzak

Ezkontzen Estatistikak, Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du. Estatistika aspaldikoa izanik, garai horretan eman diren aldaketa demografikoak hobeto ezagutzea ahalbidetzen du. Elizako agiritegiei esker Estatuak 1861etik aurrerako informazioa lortu du.

EUSTAEn datuen arabera, 2009an EAEn sexu desberdinetako egoiliarren 9.103 ezkontza egon ziren (eta 128 sexu bereko pertsonen artean), aurreko urtean baino 607 gutxiago (%-6,3). ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen uztailaren 1eko

I.1.8. Grafikoa. Ezkontza zibilen bilakaera EAEn

Iturria: EUSTAT. Ezkontzen estatistika.

I.1.7. Koadroa. Sexu bereko ezkontzen portzentajearen bilakaera guztien gainean, autonomia erkidegoen arabera


	2005	2006	2007	2008
Andaluzia	0,38	1,54	1,16	1,23
Aragoi	0,26	1,42	0,71	0,79
Asturias	0,63	1,45	1,00	1,28
Balearrak	0,97	3,36	2,88	2,17
Kanariar Uharteak	1,03	3,89	3,34	2,84
Kantabria	0,42	1,02	0,71	0,91
Gaztela eta Leon	0,21	0,67	0,59	0,54
Gaztela-Mantxa	0,18	0,72	0,42	0,65
Katalunia	0,85	3,37	2,46	2,65
Valentziako E.	0,83	2,39	1,86	1,74
Extremadura	0,24	0,45	0,34	0,41
Galizia	0,35	0,69	0,66	0,68
Madril	0,90	3,14	2,23	2,47
Murtzia	0,22	0,96	1,01	1,01
Nafarroa	0,48	1,30	0,99	1,22
EAE	0,71	1,61	1,01	1,09
Araba	0,62	1,10	1,06	0,72
Gipuzkoa	0,78	1,79	1,18	0,97
Bizkaia	0,68	1,62	0,88	1,27
Errioxa	0,35	0,87	0,59	0,68
Ceuta eta Melilla	0,29	0,14	0,55	0,71
GUZTIRA	0,61	2,08	1,56	1,62

Iturria: EIN.

I.1.8. Koadroa. Ezkontza zibilen portzentajearen bilakaera guztien gainean, autonomia erkidegoen arabera

	1991	1998	2001	2008
Andaluzia	14,47	17,91	19,27	36,90
Aragoi	18,99	20,55	22,92	42,59
Asturias	21,26	27,46	31,73	51,02
Balearrak	29,10	32,74	36,92	61,84
Kanariar Uharteak	28,50	32,09	35,66	60,10
Kantabria	17,94	26,34	27,02	46,64
Gaztela eta Leon	13,89	19,21	22,43	38,70
Gaztela-Mantxa	8,47	14,00	15,84	33,35
Katalunia	28,77	31,66	36,24	69,42
Valentziako E.	24,62	23,53	27,21	53,51
Extremadura	11,44	13,75	15,67	28,94
Galizia	14,41	22,55	24,86	44,96
Madril	25,65	25,76	27,89	53,21
Murtzia	16,34	16,71	19,56	35,13
Nafarroa	19,05	23,28	25,43	51,51
EAE	25,19	31,55	33,09	56,06
Araba	23,78	34,75	32,66	54,36
Gipuzkoa	24,87	33,02	34,72	57,42
Bizkaia	25,71	29,81	32,16	55,61
Errioxa	18,64	21,16	23,85	45,72
Ceuta eta Melilla	46,73	59,08	62,68	71,02
GUZTIRA	20,89	24,07	26,64	49,37

Iturria: EIN.

I.1.9. Grafikoa. Ezkontzen desegiteak EAEn: banantze eta dibortzioen bilakaeraIturria: INE. Ezkontzen balioabetasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika.
(*) Desegiteen guztizkoan eliza balioabetasunak sartzen dira.

13/2005 estatu Legearen onarpenaren hurrengo urteetan sexu bereko ezkontzek izan duten bilakaeraren eskema honela laburbil daiteke: abiatze txikia 2005ean (legea urte erdialdera onartu zen), eklosioa 2006an, jaitsiera 2007an eta sendotzea 2008 eta 2009an. Portaera hori bai EAEn bai Estatuan gertatu da, baina bigarren kasuan erritmo askoz biziagoan. Izan ere, EAE bederatzigarren tokian dago sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen rankingean, erkidegoen arabera. EAEko lurraldeen arabera, Bizkaia dauka sexu bereko ezkontza tasarik handiena.

Bestalde, azpimarratzekoa da azken urteotan elkartze zibilek izandako hazkunde handia, 1990an %23,3 izatetik 2009an %59 izatera igaro baitira. Estatu gainontzeko erkidegoen aldean, EAE bosgarren tokian dago, Ceuta eta Melilla, Katalunia eta artxipelago bien atzean.

Guztira, EAEn 2009an 5.335 elkartze zibil gertatu dira, 3.751 ezkontza katolikoen eta beste erlijioei dagozkien 17en aurrean. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan izan zuten pisurik handiena ezkontza zibilek (%64), eta haren atzean Bizkaian (%59) eta Araban (%57). Bestalde, azpimarratzekoa da 2009an ezkontza ziren bikoteen %32 elkarrekin bizi zirela ezkontu aurretik. Portzentaje hori bikoiztu egin zen 200 eta 2007 artean, %59raino iritsiz, eta nabarmen jaitsi da azken urte bietan.

Horrela, 2009an EAEko ezkontza tasa 4,1 ezkontzakoa da 1.000 biztanleko; Estatuan, ordea, 3,8koa 1.000 biztanleko, baina Europar Batasuneko baina txikiagoa da, 2008an milako 4,9koa baitzen. 2009rako behin-behineko datuekin, ezkontza tasarik handienak zituzten Europako herriak honakoak ziren: Txipre (7,9 ezkontza 1.000 biztanleko), Polonia (6,6) eta Errumania (6,3); ratorik txikiak dituztenak, aldiz, Eslovenia (milako 3,2), Bulgaria (3,4) eta Luxenburgoko (3,5 ezkontza 1.000 biztanleko) izan dira.

Halaber, amatasun-adinak gora egin zuen moduan, ezkontutako adinak ere gora egin zuen: 2009an EAEn ezkontutako gizonen batez besteko adina 33,8 urtekoa izan zen, eta emakumeena 31,8koa. 1986az geroztik, ezkontideen batez besteko adina 6,3 eta 6,9 urte hazi da, hurrenez hurren, gizon eta emakume ezkontideentzat. Hori, gehiago edo gutxiago, Europa osoan gertatu da, baina aldeak daude inguru geografikoen arabera: herri baltikoetan eta, orokorrean, Europako ekialdean, ezkontideak, sexu bietan, mende balderago baino gazteagoak dira.

**I.1.9. Koadroa. Europar batasuneko ezkontzak.
1.000 Biztanleko adierazleak**

	Ezkontzak		Dibortzioak	
	2008	2009	2008	2009
27-EB (2007)	4,9	—	2,1	—
Alemania	4,6	4,6	2,3	2,3
Austria	4,2	4,2	2,4	2,2
Belgika	4,3	4,0	3,3	3,0
Bulgaria	3,6	3,4	1,9	1,5
Zipre	7,7	7,9	2,1	2,2
Danimarca	6,8	6,0	2,7	2,7
Eslovakia	5,2	4,9	2,3	2,3
Eslovenia	3,3	3,2	1,1	1,1
Espainia	4,2	3,8	2,6	2,3
Estonia	4,6	4,0	2,6	2,4
Finlandia	5,8	5,6	2,5	2,5
Frantzia	4,1	3,9	2,1	—
Grezia	4,8	5,3	1,2	—
Holanda	4,5	4,4	2,0	1,9
Hungaria	4,0	3,7	2,5	2,4
Irlanda	—	—	—	—
Italia	4,1	4,0	0,9	—
Letonia	5,7	4,4	2,7	2,3
Lituania	7,2	6,2	3,1	2,8
Luxemburgo	3,9	3,5	2,0	2,1
Malta	6,0	6,0	—	—
Polonia	6,8	6,6	1,7	1,7
Portugal	4,1	3,8	—	2,5
Erresuma Batua	4,4	—	2,2	—
Txekiar Errep.	5,0	4,6	3,0	2,8
Errumania	7,0	6,3	1,7	1,5
Suedia	5,5	5,1	2,3	2,4
EAE	4,4	4,1	2,0	1,9

Iturria: EUROSAT, EUSAT eta EIN.

Bestalde, EINen “*Baliogabteen, banantzeen eta dibortzioen estatistika*” delakoak dibortzio eta banantzeen jaitsiera erakusten du, bai gure erkidegoan bai Estatu⁴. Zehazki, 2009an EAEn 3.899 dibortzio eta 260 banantze gertatu ziren. Baliogabetzeak batez beste 6 inguru ziren informazioa dagoenetik eta 2009an 2 izan dira. Guztira, erreferentziazko urtean 3.899 ezkontza desegin ziren, 2008an baino %13,9 gutxiago; datu horren arabera ratioa 1,9koa mila biztanleko, Estatuan, aldiz, batez bestekoaren milako 2,3 da. Desegite tasarik handienak honako autonomia erkidegoek daukate: Kanariar Uharteak (milako 2,8), Asturias eta Katalunia (bietan 2,6); haustura tasarik txikienak, aldiz, honakoek daukate: Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Gaztela eta Leon (bietako ratioa 1,7 desegitekoa da mila biztanleko).

Nazioarteko erkaketei dagokienez, dibortzio tasa gordina, azken urteetan, milako bi ingurukoa izan da Europar Batasun osoan, Maltako 0 (bertan ez da legezkoa) eta Italiako 0,9tik, Belgikako milako 3 arte.

2006az geroztik Estatuan orokorrean eta gure erkidegoan bereziki desegite horien osaketan aldaketa bat ikusten da, dibortzio kopurua hazi eta banantze kopurua jaitsi

**I.1.10. Koadroa. 100 Ezkontzako dibortzio
kopuruaren bilakaera, autonomia erkidegoen
arabera**

	2005	2006	2007	2008
Andaluzia	35,92	58,95	57,20	57,74
Aragoi	39,41	58,59	54,47	55,39
Asturias	51,20	77,59	72,05	63,32
Balearrak	65,79	93,10	77,22	74,66
Kanariar Uharteak	85,40	122,67	116,91	109,93
Kantabria	38,26	57,70	54,80	54,00
Gaztela eta Leon	34,51	56,15	49,22	48,54
Gaztela-Mantxa	30,16	48,12	46,97	44,43
Katalunia	55,27	84,22	77,80	70,99
Valentziako E.	47,83	74,25	72,19	71,38
Extremadura	61,56	47,72	47,88	43,70
Galizia	51,42	73,08	66,13	64,38
Madril	44,08	65,71	62,74	60,58
Murtzia	39,88	62,87	52,02	58,57
Nafarroa	36,81	55,09	48,17	48,71
EAE	41,44	54,20	55,07	50,56
Errioxa	43,06	57,11	58,22	49,47
GUZTIRA	44,67	68,02	63,92	61,77

Iturria: EIN.

baita, banantzeari eta dibortzioari dagokienez Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen uztailaren 8ko 15/2005 estatu Legea onartzearen ondorioz. Arau horren bidez aurrez banandu gabe dibortzioa onartzen du. Autonomia Erkidegoak erkatuta, ikusten da legea aldatu aurretik zein ondoren EAE toki neurritsuan dagoela, 2008an erregistro gutxien izandako seigarren erkidegoa izan baitzen.

EAEn banandu edo dibortziazatutako pertsonen ezaugarriak dagokienez EINen datuen arabera gehienak 30 eta 50 urte bitartekoak dira, baina emakumeak (batez beste 41,9 urtekoak) gizonak (ezkontza desegiterakoan batez beste 44,4 urtekoak) baino gazteagoak izan ohi dira. Halaber, desegindako ezkontzek batez beste 15,6 urtez dira eta kasuen erdian ezkontideek seme-alabak daukate: kasuen %31n seme-alaba bakarrek bikoteak dira, %17an bi, eta %2,5ean hiru seme-alaba edo gehiago daukate.

1.1.2. Immigrazioa EAEn⁵

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrienetakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira. 1850-1910 aldian mundu osoan lehenengo migrazio-garaia bizi bazen ere, XX. mendeko 90eko hamarkadatik Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasi zen migrazio-aldi handiaren bigarren fasean gaude.

Europar Batasuneko biztanleria asko hazi da azken urteetan, batez ere immigrazioagatik, 2009an haren ratioa gordina berezko hazkunde tasarena (jaiotzak ken heriotzak) halako bi izan baitzen. Hortaz, migrazio-mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarritzko zeregina dute. 2009ko

⁴ *Banantzeen, Dibortzioen eta Baliogabetzeen Estatistika* lehen auzialdiko, instrukziozko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.


⁵ Atal honetan aztertu ohi izan diren lan merkatuari eta immigrazioari buruzko edukiak Memoria honetako “II.5. Lan merkatua” atalera eraman dira.

urtarrilaren 1ean 31,9 milioi atzeritar bizi ziren, biztanleria osoaren %6,4 izanda. Horien artean herena, 11,9 milioi pertsona, beste herrialde kide batzuetako biztanleak ziren. Bigarren talderik handiena Erkidegokoak ez diren Europako herrialdeetatik etorritako 7,2 milioi pertsonak osatzen zuten. Horien ondoren 4,9 milioi pertsona afrikarrak ziren eta 4 Asiako herrialdeetakoak. EBn bizi diren atzeritarren %77 Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira; era berean, herri horietako herritarrak gehiengoak dira euren mugetatik kanpo bizi diren europarren artean.

Bestalde, 2001etik egun arte, Estatu kideetan bizi diren atzeritarren ehunekoa ez da asko aldatu gehienetan, Irlandan (egoiliarren %3,9 izatetik %11,3 izatera igaro dira), Espainian (%2,9tik %12,3ra) eta Txipren (%8,8tik %16,1era) izan ezik. Herrialde horietako atzeritar gehienak Erkidegoko beste herrialde batzuetako herritarrak batez ere. Beste herrialde batzuetan, aldiz, Errumanian, Frantzian, Grezian, Portugalen eta Italian, gehienbat EBkoak ez diren herrialdeetako immigranteak dituzte. Atzeritarren pisuaren bilakaera negatiboa izan duten herri bakanen artean hiru baltikoak daude: Lituania, Letonia eta Estonia. Horren arrazoi nagusia Sobietar Batasunaren erori zenetik atzeritarren nazionalizazioen kopuru handia da.

Immigrazioaren tipologia asko aldatzen da herrien arabera. Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian immigrazioarako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko immigrazioaren portzentaje handia dute. Espainian erregularizazio handiak egin ziren, eta Frantzian, Alemanian eta Herbeheretan, aldiz, erregularizazio mugatuak egin ziren etorkin talde zehatzentzat. EBn hirugarren herrietako nazionalitate talderik ugariena, 2007an, Turkiatik (2,4 milioi), Marokotik (1,7 milioi), Albaniatik (milioi 1) eta Txinatik (0,6 milioi) zetozen. Hala ere, atzerrian jaio ziren Frantziako, Suediako, Herbeheretako eta Erresuma Batuko eta antzeko estatu kideetako herritarren kopurua herrialde horietan bizi diren EBz kanpoko atzeritarrak baino gehiago dira, izan ere, immigrante ugarik hartu zituzten herrialdeko herritartasuna lortu zuten (2001 eta 2007 artean ia 4,8 milioi atzeritarrek EBko herrialde bateko herritartasuna hartu zuten).

1.1.10. Grafikoa. EBko hazkunde demografikoaren bilakaera osagaien arabera. 1.000 biztanleko ratioak



Iturria: EUROSTAT.

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gairitu ez badira ere, EAEko atzeritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera geldituz eta belaunaldien beriztatzea erraztuz, baita gizartearen jokaera berriak gehituz. EINEK, 2007ko datuekin, 2008an lehen aldiz argitaratu zuen "Encuesta Nacional de Inmigración" delakoak agertu zuenez, EAEn bizi diren etorkinak gure erkidegora, batez ere, lan hobearen bila (%42,9), familia arrazoiengatik (elkarretaratzea) (%32,1), bizi kalitatea hobetzeko (%23,9) eta lan faltagatik (%21,8) etorri zirela, erantzun bat baino gehiago eman dezaketela.

Hortaz, ekonomiari loturiko migrazio-fenomenoa da eta, Eusko Jaurlaritzaren EAEko Europar Batasunetik kanpoko immigrazioaren eragin ekonomikoa (2008) izeneko azterlanean nabarmentzen den bezala, berriki EAEko eta Espainiako ekonomiara atzeritarren lanerako indar handia gehitu izanak pilaketa-zikloa ekarri du. Ziklo horrek Europako lanaren banaketaren aldaketetan, emakume ugari lan-merkatuan gehitzean eta euroa sartzeak sorturiko pilaketa-baldintza berrietan du oinarria. Langile immigranteak barneratzea eta egokitzea ez da izan egoeraren araberrako faktorea, egiturazkoa baizik, eta gure ekonomian berriki izan dugun hazkundearen euskarria izan da.


Azterlan horren arabera, oro har, EAEko atzeritarrei atxikitako aurreikusitako gastu publiko soziala 2006an 233,9 milioi euro izan zen, gastu osoaren % 4, urte hartako biztanle immigranteen ratioaren antzekoa. Bestalde, 2006an gizarte gastua batez beste 2.905 eurokoa izan zen etorkin bakoitzeko eta 2.828 bertako pertsona bakoitzeko. Lan errentetatik datorren zerga bilketari dagokionez, kalkulatu denez, etorkinen ekarpena bertako biztanleena baino %23,5 handiagoa da edo, bestela esanda, etorkin bakoitzak batez beste gizarte gastuko 76 euro gehiago hartu zuen, baina euskal ogasunari bertako herritar bakoitzak baino 1.097 euro gehiago eman zuen zerga zametan. Alde hori immigranteek jarduera-tasa altua ikusirik azaldu daiteke eta, beraz, zergadunen portzentaje handiena hartzen dute.

(a) Biztanleen bilakaera

Udal Erroldaren datuen arabera, azken urtean EAEn bizilekua duten biztanle atzeritarrek gora egin dute. 2005 eta 2010 artean EAEn erroldatutako atzeritarren bolumena %130 hazi da. 2005ean gure erkidegoan 72.894 etorkin bizi ziren; 2010eko urtarilaren 1ean udal erroldak 167.382 zenbatu zituen, aurreko urtean baino %4,9 gehiago. Herritar etorkinen hazkunde hori biztanleria osoan duten pisu gero eta handiagoan islatzen da: 2010ean EAEn atzeritarren pisua %7,7koa da, eta Estatuan %14koa.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaia oraindik dauka atzeritar bolumenik handiena, 83.819 lagun (guztien %50), eta haren atzean daude Gipuzkoa eta Araba, 51.319 (%31) eta 32.244 (%19) lagunekin, hurrenez hurren. Arabak, ordea, immigrazio portzentajerik handiena dauka: %10,2. Bizkaian %7,3 da, Gipuzkoan bezala. Labor esanda, Bizkaian EAEko atzeritarren erdia bizi da eta Arabak du immigrazio-portzentajerik altuena.

I.1.11. Grafikoa. Etorkinak EAera eta Estatura joateko arrazoiaren arabera. Erantzun aniztuna. %. 2007




Iturria: EIN. Inmigrazioari buruzko Inkesta Nazionala, 2007

Eusko Jaurilaritzako Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) egiten duen erroldako datuen aurrerapenaren azterketak⁶, 2010eko ekaineko 34. Aldizkarian, erakusten du 1998 eta 2010 artean autonomia erkidego guztiek irabazi dutela bai guztizko biztanleria bai atzerriko biztanleria, baina batzuek bertakoa galdu dutela, besteak beste, EAEk. Horrela, gure erkidegoak, aldi horretan, bertoko 45.000 lagun inguru galduko zituzkeen eta 124.000 atzeritar irabazi.

EAEko atzeritarrak ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera: %51,7 gizonezkoak dira eta %48,3 emakumezkoak. Gainera, Ikuspegik EAEko immigrantei 2007an egindako inkesta batek zera zioen: Edozein adin-taldetan, immigrante latinoamerikarren taldea batez ere emakumezkoek osatzen dute. Immigrante afrikarren taldea, aldiz, portugaldarrekin batera, gizonezkoek osatzen dute gehienbat. Jatorriz europarrak diren artean, zein Errumaniakoen eta Frantziakoen artean, emakumeen indizeak laginarren batez besteko osoa dira gutxi gorabehera, % 45. Azkenik, Txinatik etorritako pertsonen artean sexuen arteko banaketa antzekoa da joerei erreparatuz.

Era berean, jatorrizko herriek ama hizkuntzak baldintzatzen dituzte, eta horiek, gutxienez, kasu garrantzitsu bi erakusten dituzte, hiltun kopuruari dagokionez: bata, gaztelania, emakumezko aurpegia duena, eta bestea, arabiera, gizonezko fisonomiakoa. EAEn erroldatutako nazionalitate taldeei helduz gero, latinoamerikar nazionalitateak oraindik dira nagusi, EAEn bizi diren atzeritarren %44 baitira. Hala ere, aurreko urteen aldean pisu erlatiboa galdu dute, biztanleria immigrantearen %48 baino gehiago izatera iritsi baitziren. Europar nazionalitate guztiak batera bigarren tokian ageri dira, guztien %28,7 izanik; Magrebeko jatorrizkoak, aldiz, %14,3 dira, eta Sahara azpikoak %6,6.

I.1.12. Grafikoa. Udal erroldan izena emandako atzeritarren portzentajearen bilakaera. 1998=100 oinarria duten indize zenbakiak



Iturria: EINen datuekin egina.

Hamar herritartasun garrantzitsuen artean bost herrialde latinoamerikar daude (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), Europako Erkidegoko bi (Portugal eta Errumania), Magrebeko bi (Maroko eta Aljeria) eta Asiako bat (Txina). Errumania, 15.290 lagunekin, hirugarren urtez jarraian da EAEko nazionalitate garrantzitsuen, atzeritar egoiliarren %11 izanik. Jarraian Maroko (14.386 erroldatu) eta Kolonbia (12.794) datoz, atzeritar erroldatuen %10,2 eta %9,2rekin, hurrenez hurren.

Bestalde, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuek erakusten dutenez, 2009ko abenduaren 31n, 106.658 atzeritarrek zeukaten EAEn bizilekua izateko baimena, aurreko urtean baino 10.023 gehiagok. Datuok 2010eko urtarilaren 1ean erroldatutakoekin erkatuz gero, erregularizazio tasa edo indizeak erakusten du atzeritar erroldatuen %64k bizilekua izateko baimena zeukatela erreferentziazko datan. Erregularizazio tasa hori 3 puntuz igo da aurreko urtearen aldean; gauza bera gertatu da Estatu mailan (%73ko tasa dauka, 2009an baino lau puntu gehiago), aurreko urtean tasa horiek lurralde bietan jaitsi ondoren.


Halaber, Ikuspegik 2007an egindako inkesta baten arabera, EAEn bizilekua duten atzeritar gehienak duela bi eta sei urte artean iritsi ziren erkidegora. Boliviarrak berriki gertatutako finkatze kasu oso nabarmena, haietatik %1 baino ez baitzeuden 2002 baino lehenago. Bestalde, atzeritarren %22,8k zioten egoera irregularrean zeudela eta %63,8k bizileku baimen motaren bat zeukaten data hartan. Gainerakoek Espainiako herritartasuna edo Europako beste herrialde batekoa zuten. Hortaz, Lan Ministerioaren datuak oinarri hartutako lortutako erregularizazio-tasaren emaitzekin koherentzia dagoela ikus daiteke.

(b) Elkarbizitza eta ongizatea

Ikuspegiren 2010eko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %2,8k baino ez dute berez esaten hura EAEn arazo nagusia dela.

⁶ Azterketa horretako balore absolutuak ez datoz bat behin betiko datuen balore osoekin. EINek 2010ean aurkeztutako lehenengo estimazioetatik Ikuspegik egin zuen ustiapena sartu da, portzentajeetan aldeak oso txikiak direla uste izan delako. Edonola ere, behin betiko datuek, beste urte batez, agerian utzi dute aurrerapenak gutxietsi egin zuela atzeritar biztanleriak guztizkoaren gainean duen pisua, batez ere EAEn eta zerbait gutxiago Estatu osoan.

I.1.13. Grafikoa. Atzerritarrak nazionalitate guneen arabera.
Ehuneko atzerritar guztien gainean



Iturria: Elnen eta IKUSPEGIren datuen bidez egina.

Hala ere, berezko hiru erantzunen artean laugarren tokian dago: Lehenengo tokia langabeziak hartu du, inkestaturen %82,4k aipatuta, haren atzean terrorismoa (%20,9) eta etxebizitza (%21) daude, eta laugarren tokian, immigrazioa (inkestatuen %15,4k aipatua, %12,9k 2009an).


Immigrazioak EAEko ekonomian daukan eraginari dagokionez, eta aurreko urteetan bezala, euskal gizarteak ez du immigrazioak gizartean dituen ondorio positibo edo negatiboan alde egiten, eta Otik 10erako eskalan, batez besteko puntuazioa 4,75 da (4,95 2009an).

Ekonomia sektore batzuetarako etorkinak behar direla onartzen da (%44,9), baina aldi berean uste da haiek egoteak langabezia handitzen duela Euskadin (%60,8). Era berean, aurreko urteetan baino indar eta ongura txikiagoz bada ere, uste da atzeritarrei esker, orokorrean, ekonomia hobeto dabilela, baina horren ordaina soldata mailetan ondorio kaltegarriak izatea dela (%44,1) eta gure gizarteko sektore ahulenei kalteak dakartzkietela (%72,4). Bestalde, euskal biztanleria 2009an baino gehiago dago atzeritar guztiek osasun laguntza (+3,5 puntu aurreko urtearen aldean) eta euren seme-alaben hezkuntza (+3,7 puntu) eskuratu ahal izatearen alde, baina ezohiko edo larrialdiko egoerei lotutako zerbitzu edo eskubideei dagokionez (gizarte laguntzak, BOE) aurreko urteetan baino murriztaileagoa da (etorkinek halakoak eskuratu ahal izatearen aldeko pertsonen portzentajea, hurrenez hurren, 7 eta 3,2 puntu jaitsi da).

Halaber, Barometroak erakutsi duenez, immigrazio politikari dagokionez, euskaldunen %8,6 (aurreko urtean baino gutxiago) daude etorkinak sartzeari batere oztoporik ez jartzearen alde, eta aldi berean %6,2 edonola ekiditearen alde daude. %82,6 sartzea lan kontratua izatearen truke baimentzearen alde daude, aurreko urtearen antzeko ratioa. Bestalde, Ikuspegiren 2010eko abenduak Aldizkariak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu ditu. Bertan, immigrazioari dagokionez, osasunari, bizitzarekiko ajetasunari, gizarte harremanei, bereizkeriari eta euskal gizartearen beste alderdi batzuei lotutako alderdiak aztertu dira.

Lehenbizi, azpimarratzekoa da bizitzarekiko ajetasun maila orokorra nahiko handia dela, bai bertako herritarrei

I.1.14. Grafikoa. Atzeritarrek EAEn eta Estatuan duten pisuaren bilakaera



Iturria: Elnen eta MTINen datuen bidez egina.


Oharra: Erregularizazio indizea bizileku baimena duten atzeritarren eta errolatuen arteko zatiketa da.

(7,18 10etik) bai atzeritarrei (6,40) dagokionez, eta azkenen artean, nabarmentzen dira, batez bestekoaren gaitetik egoteagatik, kolonbiar (7,30) eta boliviarrak (6,86) nazionalitatea duten pertsonak. Batez bestekoaren azpitik leudeke Sahara azpikoak (6,04), errumaniarrak (5,98) eta marokoiarrak (5,82). Dena dela, atzeritarren herenak baino ez diote gauzak nahi zuten bezala gertatu direla, hori dioten bertoko biztanleen %53en aurrean.


Gainera, gizartea hobetzeko itxaropen maila biziagoa da etorkinen artean bertakoen artean baino, eta azkenak, halaber, gehiago onartzen dute gizartea haiek bezalakoentzat hobetzen ari dela (etorkinen %52,2 eta bertakoen %35,8).

Bestalde, atzeritarrek, orokorrean, ez dute adierazten EAEn bizi izandako bizipenetan zailtasun handirik topatu izana. Lana lortzea (%65,2) eta etxebizitza erosi eta alokatzea (%56,2) baino ez dira nabarmentzen nahiko zailtzat jotzeagatik. Lana lortzeari dagokionez, kolonbiar biztanleak dira zailtasunik txikiena adierazten dutenak (%45,6), Sahara azpiko Afrikatik datozenen %81,9ren aurrean. Era berean,

I.1.15. Grafikoa. Zein dira EAEko hiru arazorik garrantzitsuenak?
(Geheinez 3 erantzun, berezko erantzunak)




Iturria: IKUSPEGI barometroa 2010eko urria.

I.1.16. Grafikoa. Etorkinek sarbidea izan behar lukete honako eskubideetara? EAE, 2010

Iturria: IKUSPEGI barometroa, 2010eko urria.

kolonbiarrek ez dute arazo handirik izan etxebizitza lortzeko (horrela adierazi dute elkarriketatuen %56,5ek), Sahara azpikoek %19,9ren aurrean.

Azkenik, bertako biztanleek etorkinekin duten enpatia eta konpromiso mailari dagokionez, orokorrean, ondorioztatzen denez, bertako biztanleek ahalegina egiten dute etorkinen egoera hobeto ulertzeko (horrela adierazi dute %64,9k), baina onartzen dute ez diela gehiegi eragiten (%58,3), ez dela beti erraza haien lekuan

I.1.17. Grafikoa. Zure ustez zein litzateke politikarik egokiena langile immigranteei dagokienez? Datuak ehunekotan

Iturria: IKUSPEGI barometroa, 2010eko urria.


jartzea eta, azken batean, haien arazoek ez dutela euren eguneroko bizimodua aldatzen.

Halaber, bertako herritarrak izateko prest dauden konpromiso maila, ikerketatik ondorioztatzen denez, tokitan dago etorkin bati laguntzeaz hitz egiten dugunean —bakarka, eremurik pribatuenean— (%90,6 horren alde ageri dira), edo taldeei laguntzeaz hitz egiten dugunean —esparru publikoan edo GKE baten testuinguru formal eta iraunkorragoan— (%35,4).

I.1.11. Koadroa. EAE-ko bertako biztanleen enpatia eta konpromisoa etorkinekiko datuak ehunekoetan adierazita, 2010

	ezer ez edo gutxi	ez asko ez gutxi	nahikoa edo asko
ENPATIA			
Etorkinak hobeto ulertzen ahalegintzen naiz haien ikuspegitik gauzak nola ikusten diren imajinatuz	16,2	18,9	1,86
Maiz etorkinei gertatzen zaizkien kontuek nahiko ukituta sentitzen naiz	30,7	27,6	41,7
Batzuetan zaila gertatzen zait gauzak etorkinen ikuspuntutik ikustea	32,9	23,5	43,6
Gehienetan, etorkinen ezbeharrek ez naute gehiegi asaldatzen	47,0	28,4	24,6
KONPROMISOA			
Lankide etorkin bati bere lanean, klaseko lanak egiten lagundu	3,0	6,4	90,6
Etorkinen eskubideen aldeko manifestazio edo protesta batean parte hartu	40,3	17,0	42,7
Etorkinen aldeko GKE edo elkarte batekin engaiatu	42,3	22,3	35,4

Iturria: IKUSPEGI, 37. Aldizkaria, 2010eko abendua.

I.1.18. Grafikoa. Gizartearen hobekuntzaren pertzepzioa. Bertako biztanleria eta immigrantea. EAE, 2010

Iturria: IKUSPEGI, 37. Aldizkaria, 2010eko abendua.

1.2. Hezkuntza-sustapena eta hezkuntza

1.2.1. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza

1.2.1.1. Ikasleen bilakaera hezkuntza mailaren arabera

EUSTATEk aurreratutako datuen arabera, EAEn 2010/2011 ikasturtea unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan (helduentzako hezkuntza kanpoan utziz) guztira matrikulatutako 341.723 ikaslerekin hasi da. Horrek berriz ere hazkundera dakar, aurten %1,1ekoa (aurreko ikasturtean baino 3.820 ikasle gehiago).

Hazkunde horren zioa beheko mailetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) -hezkuntza berezia alde batera utzita, 2010-2011 ikasturtean, EUSTATEN behin-behineko datuen arabera, 281.427 ikasle zeuden matrikulatuta (%+2,1), 93.749 Haur Hezkuntzan (%+1), 117.041 Lehen Hezkuntzan (%+3,3) eta 70.637 DBHn (%1,7) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) eta erdi mailako irakaskuntzetan gertatutako hazkundera izan da.

Horrela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo erdi mailako irakaskuntzetan matrikulatutako ikasle kopurua %4,6 hazi da. Hazkunderik handienak LHn, goi-mailako LHn (%7,4) eta erdi mailako LHn (%6) gertatu dira. Urrunago Batxilergoa dago (%2,5).

2010-11 ikasturtean erdi mailako irakaskuntzetan ikasten duten 59.229 ikasleetatik, 29.429k, hots, %50,1ek, Batxilergoa hautatu dute derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren; %49,9k Lanbide Heziketa eta gainontzekoek zereginen ikaskuntza.

EUSTATEN datuen arabera, gehien eskatzen diren erdi mailako lanbide tituluak oraindik dira Metalgintza eta fabrikazio mekanikoa, %16,5 (%16,8 aurreko ikasturtean), Osasuna, %13,9 (%13,4 aurreko ikasturtean), Elektrizitatea-elektronika, %11,4 (%11,8 aurreko ikasturtean), eta Administrazioa, %9 (%9,4 aurreko ikasturtean). Bigarren taldea ez da hainbeste nabarmentzen eta, berriz ere,

honakoek osatzen dute: Automozioa eta ibilgailuen mantentzea, %7,4 (%8,5 aurreko urtean), Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak, %7,6 (lehenago %7,4) eta Irudi pertsonala, %6,5 (%7,5 aurreko urtean).

Goi-mailako tituluen artean, honakoak nabarmendu dira: Administrazioa, %12,7 (%12,8 aurreko ikasturtean), Elektrizitatea eta elektronika, %12,7 (%12,3 aurreko ikasturtean), Metalgintza eta fabrikazio mekanikoa, %11,4 (%11,5 aurreko ikasturtean), Komunitatearentzako zerbitzuak/zerb. soziokul., %12,2 (%10,9 urtebete lehenago), Informatika, %7,1 (beheranzko bideari jarraituz) eta Osasuna, %7,1.

Lanbide ikasketetan oraindik emakumezko askoz gutxiagok parte hartzen dute gizonezkoek baino, batez ere izaera teknikoko lanbide familetan.

1.2.1.2. Bilakaera ikastetxeen titulartasunaren eta eredu soziolinguistikoaren arabera

EUSTATEk argitaratutako datuen arabera, sare publikoko prestakuntza ziklorik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza eta DBH) matrikulatutako ikasleen ehunekoak gora jarraitu du azken urteotan eta 2009-10 ikasturtean %49,2 izan da. Mailaren arabera banakatuz, ikusten da haur eta lehen hezkuntzako matrikulazio publikoa %51,6 eta %49,5ekoa dela, hurrenez hurren, aipatu batez bestekoa gaindituz. DBHn ehunekoa txikiagoa da, %45,1.

Bestalde, DBHOn %53,8koa da, eta bertan erdi mailako LHri dagokion %59,6ko ratioa nabarmentzen da.

Bestalde, hizkuntza ereduen sistema abiarazi zenetik, euskalduntze prozesuak gorako joera izan du. Horrela, 2008-09 eta 2009-10 ikasturteen artean D ereduko matrikulatze osoa (HHLrik eta hezkuntza berezirik gabe) %57,7tik %60,1era igaro da; A ereduaren, aldiz, %18,5etik %17,2ra jaitsi da. Bestalde, B ereduaren ere jaitsi da, %23,2tik %22,1era.

Horrela, Haur Hezkuntzan 2009-10 ikasturtean D ereduaren hautua matrikulatze guztien %72,5 izan da eta A ereduarena, aldiz, %4,1. Lehen Hezkuntzan matrikulatzeen

I.1.12. Koadroa. Ikasleak titulu eta mailaren arabera⁽¹⁾

	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10	2009-10 behin-behin.	2009-10/ 2010-11 (%)
Hez. bereziko ikastetxe guztiak	310.309	314.573	319.842	328.183	337.903	341.723	1,1
Beheko mailak hez. berezirik gabe	251.249	257.608	264.518	270.347	275.599	281.427	2,1
Haur Hezkuntza	81.273	84.851	88.308	91.206	92.800	93.749	1,0
Lehen Hezkuntza	100.497	103.859	107.329	110.095	113.335	117.041	3,3
Hezkuntza berezia (HH-LH)	397	404	412	423	428	442	3,3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	69.479	68.898	68.881	69.046	69.464	70.637	1,7
Hastapeneko lanbide-prestakuntzako programak (HLPP)				2.641	4.615	—	—
Hezkuntza berezia (DBH)	201	184	199	195	208	215	3,4
Erdi mailako irakaskuntzak edoderrigorrezkoaren ondorengoa (DBHO) hez. berezirik gabe	58.087	55.982	54.326	54.162	56.620	59.229	4,6
Batxilergoa	30.719	30.043	29.112	28.832	28.973	29.692	2,5
Erdi mailako LH	11.023	10.523	10.266	10.232	11.068	11.737	6,0
Goi-mailako LH	16.345	15.416	14.948	15.098	16.579	17.800	7,4
Zereginen ikaskuntza (LH. Hezkuntza berezia)	375	395	387	415	433	410	-5,3
Batxilergoaren % DBHO osoarekiko	52,9	53,7	53,6	53,2	51,2	50,1	-2,0
LHren % DBHO osoarekiko	47,1	46,3	46,4	46,8	48,8	49,9	2,1

⁽¹⁾ Erregimen orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak. Ez dira barruan sartzen ez helduentzako hezkuntza iraunkorra ez erregimen bereziko irakaskuntzak (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika).
Iturria: EUSTAT.

I.1.13. Koadroa. Lanbide heziketako ikasleak

FAMILIA		2006-07 ikasturtea		2007-08 ikasturtea		2008-09 ikasturtea		2009-2010 ikasturtea	
		Erdi maila. zikloa	Goi-maila. zikloa	Erdi maila. zikloa	Goi-maila. zikloa	Erdi maila. zikloa	Goi-maila. zikloa	Erdi maila. zikloa	Goi-maila. zikloa
Nekazaritza/nekazaritzako jarduerak	Guztira	150	141	130	126	152	145	170	156
	emakumeen %	22,0	23,4	29,2	24,6	28,9	26,2	24,7	26,9
Itsas arrantza/itsas arrantzako jarduerak	Guztira	83	144	76	127	58	138	77	167
	emakumeen %		13,2	1,3	7,9	3,4	2,9	5,2	7,2
Metalgintza/fabrikazio mekanikoa	Guztira	1.679	1.976	1.653	1.653	1.716	1.733	1.824	1.897
	emakumeen %	6,3	13,4	6,2	12,6	6,6	14,3	5,6	12,2
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1.200	2.116	1.165	1.883	1.204	1.852	1.263	2.109
	emakumeen %	4,2	9,1	3,8	9,2	3,7	7,5	3,2	7,3
Kimika	Guztira	82	643	59	517	56	435	53	463
	emakumeen %	63,4	58,0	64,4	55,3	58,9	62,1	66,0	56,4
Eraikuntza eta obrak/eraikuntza eta obra zibila	Guztira	98	672	92	690	76	706	72	645
	emakumeen %	9,2	34,4	8,7	32,2	5,3	32,4	2,8	32,9
Zurgintza/zurgintza eta altzarigintza	Guztira	243	43	231	50	240	45	220	47
	emakumeen %	9,5	20,9	8,2	18,0	9,2	15,6	5,9	17,0
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	622	680	585	616	559	585	579	592
	emakumeen %	41,8	64,9	40,0	60,6	38,1	57,9	35,9	56,9
Osasungintza/osasuna	Guztira	1.363	1.091	1.370	1.043	1.371	1.092	1540	1178
	emakumeen %	91,9	84,6	93,1	83,6	91,5	80,7	88,6	79,9
Arte grafikoak	Guztira	191	319	185	285	184	273	169	285
	emakumeen %	46,6	53,3	51,4	58,9	48,4	57,9	39,6	56,8
Auto./berez dabilzan ibilgailuen mantentzea	Guztira	925	420	878	449	871	443	818	474
	emakumeen %	2,7	2,9	2,2	4,2	2,9	3,4	3,2	3,6
Irudia eta soinua/komunik., irudia eta soinua	Guztira	66	344	73	342	64	349	80	386
	emakumeen %	57,6	42,7	54,8	37,1	48,4	40,1	56,3	37,6
Ile-apainketa eta estetika/irudi pertsonala	Guztira	842	195	823	214	772	209	716	207
	emakumeen %	98,6	100,0	99,1	99,5	98,2	99,5	98,0	99,0
Gorputz eta kirol jarduerak	Guztira	104	434	110	464	120	474	160	562
	emakumeen %	36,5	28,8	30,0	28,4	21,7	23,0	18,1	20,5
Administrazioa	Guztira	955	2.023	985	1.938	963	1.930	997	2.104
	emakumeen %	81,2	77,2	79,2	77,9	80,7	76,4	79,2	74,5
Gizartearentzako zerbitz./gizarte eta kultura-zerbitz.	Guztira	199	1.338	239	1.428	263	1.650	347	2.017
	emakumeen %	92,0	92,7	91,2	90,5	88,6	89,3	87,9	87,5
Merkataritza eta marketina	Guztira	346	837	320	824	298	790	291	818
	emakumeen %	79,5	55,1	71,6	52,4	73,2	50,3	71,1	50,0
Informatika	Guztira	571	1.807	527	1.240	499	1.151	241	1.176
	emakumeen %	20,3	25,1	20,1	23,4	17,8	22,1	15,4	20,9
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Guztira	1	71		79		75	14	69
	emakumeen %	100,0	90,1		94,9		86,7	85,7	88,4
Elikagaien industria	Guztira	28	19	10	8	9	15	76	18
	emakumeen %	28,6	68,4	40,0	62,5	33,3	66,7	39,5	77,8
Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak	Guztira	775	1.032	755	972	757	1.008	846	1.028
	emakumeen %	1,4	13,0	3,3	10,6	2,4	8,6	2,1	8,6
Energia eta ura	Guztira	—	—	—	—	—	—	0	64
	emakumeen %	—	—	—	—	—	—		6,3
Informatika eta komunikazioak	Guztira	—	—	—	—	—	—	343	0
	emakumeen %	—	—	—	—	—	—	16,0	
Instalakuntza eta mantenua	Guztira	—	—	—	—	—	—	0	117
	emakumeen %	—	—	—	—	—	—		5,1
Garraioa eta ibilgailuen mantenua	Guztira	—	—	—	—	—	—	172	0
	emakumeen %	—	—	—	—	—	—	3,5	—
Guztira	Guztira	10.523	15.313	10.266	14.948	10.232	15.098	11.068	16.579
	emakumeen %	38,6	45,2	40,2	43,8	39,1	43,3	37,4	42,2

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.

I.1.14. Koadroa. Ikasleen banaketaren bilakaera ikastetxeen titulartasunaren arabera*

	2007/2008			2008/09			2009/2010		
	Guztira	(%) Publ.	(%) Prib.	Guztira	(%) Publ.	(%) Prib.	Guztira	(%) Publ.	(%) Prib.
Guztira*	318.844	49,2	50,8	324.509	49,5	50,5	332.219	50,0	50,0
Beheko mailak	264.518	48,5	51,5	270.347	48,8	51,2	275.599	49,2	50,8
Haur Hezkuntza	88.308	51,1	48,9	91.206	51,2	48,8	92.800	51,6	48,4
Lehen Hezkuntza	107.329	49,2	50,8	110.095	49,5	50,5	113.335	49,9	50,1
DBH	68.881	44,0	56,0	69.046	44,6	55,4	69.464	45,1	54,9
DBHO mailak	54.326	52,5	47,5	54.162	52,6	47,4	56.620	53,8	46,2
Batxilergoa	29.112	52,6	47,4	28.832	52,0	48,0	28.973	52,4	47,6
Erdi mailako LH	10.266	56,7	43,3	10.232	57,6	42,4	11.068	59,6	40,4
Goi-mailako LH	14.948	49,4	50,6	15.098	50,5	49,5	16.579	52,3	47,7

*Hilrik eta hezkuntza berezirik gabe.
Iturria: EUSTAT.

I.1.15. Koadroa. Hizkuntza ereduen bilakaera

	2007/2008			2008/09			2009/2010		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Guztira*	20,1	23,2	56,1	18,5	23,2	57,7	17,2	22,1	60,1
Haur Hezkuntza	5,4	25,1	69,0	4,9	24,4	70,2	4,1	22,9	72,5
Lehen Hezkuntza	9,9	30,5	58,8	8,9	30,1	60,3	7,4	28,1	63,8
DBH	21,7	26,1	51,5	19,4	27,1	52,7	15,3	28,0	55,9
Batxilergoa	49,3	1,3	48,7	46,2	1,4	51,7	45,2	1,6	52,5
Erdi mailako LH	76,9	3,5	19,6	76,3	2,1	21,6	76,5	0,8	22,7
Goi-mailako LH	76,3	2,5	21,2	74,7	2,9	22,4	72,5	2,3	25,3

*Hilrik eta hezkuntza berezirik gabe.
Iturria: EUSTAT.

%63,8 D ereduari dagokio eta A ereduari %7,4. DBHn D eredia %55,9 da eta A %15,3. Eta Batxilergoan, hurrenez hurren, %52,5 eta %45,2 dira.

Kontrakoa gertatzen da Lanbide Heziketan. Bertan, erdi mailako LHko matrikulatueen %22,7 eta goi-mailako LHkoen %25,3 baino ez dira D ereduari gertatzen; A ereduari, aldiz, %76,5 eta %72,5, hurrenez hurren.

Euskadiko Eskola-Kontseiluaren txostenaren arabera, D ereduko lerro berriak zabaltzeko behar beste matrikulatzeak lortzeko zailtasunen aurrean, LH euskalduntzea bultzatzeko bide gisa, Hezkuntza Sailak

A ereduari modulu batzuk euskaraz irakasteko aukera ematen du, eskatzen duen ikasle kopuru nahikoa egonez gero, arlo horietan taldea bikoiztuz horretarako.

1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntza

2008-09 ikasturtean, EAEn, 63.337 lagunek egin zituzten unibertsitate ikasketak. Memoria sozioekonomikoaren aurreko edizioan aipatu lege, ikasturte horretan hasi ziren eskaintzen Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua (GHEE) eraikitzeak akordiotik eratorritako ikasketak. Graduak ikasketetan matrikula gutxi egon ziren (381)

I.1.16. Koadroa. Matrikulatutako ikasleak ikasketa motaren arabera

	2008-09		2009-2010			
	Guztira	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Unibertsitateen %	
					Publ.	Prib.
Guztira	63.337	62.773	28.293	34.480	78	22
1. eta 2. zikloetan matrikulatuak (1)	59.118	55.088	24.888	30.200	84	16
Lizentziaturak	26.410	24.775	9.205	15.570	85	15
Arkitektoak eta ingeniariak	8.058	7.510	4.942	2.568	76	24
Diplomaturak	14.588	13.816	4.015	9.801	85	15
Arkitektoak eta ingeniariak teknikoak	10.062	8.987	6.726	2.261	89	11
Gradukoetan matrikulatuak (2)	381	3.292	1.511	1.781	4	96
Graduondokoetan matrikulatuak (3)	3.838	4.393	1.894	2.499	55	45
Hirugarren zikloa edo UL doktoretza ofiziala	2.027	1.407	670	737	46	54
Graduondoko programa ofizial berriak	1.811					59
Master ofizialak	1.811	2.584	1.060	1.524	59	41
Doktoretza		402	164	238	66	34

(1) Lehenengo zikloa gainditzeak Diplomatua, Arkitekto edo Ingeniari tekniko titulua lortzea dakar. Bigarren zikloa gainditzeak Lizentziatu, Ingeniari edo Arkitekto titulua lortzea dakar. (2) Unibertsitate irakaskuntza berriak hiru ziklotan daude antolatuta: gradua, masterra eta doktorea. (3) UL (Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa) doktoretza ofizialeko programetan eta graduondoko programa ofizial berrietan (masterrak eta doktoretzak) matrikulatutako ikasleak
Iturria: EUSTAT. Prentsa oharrak.

eta unibertsitate pribatuetan baino ez ziren eskaini, eta graduondoko ikasketetan (masterrak eta doktoretzak) 1.811 matrikula egon ziren.

2009 eta 2010 artean tituluen arabera egondako matrikulen bilakaeraren azterketa oso konplexua da, GHEEtik ateratako unibertsitate irakaskuntzaren egitura aipatu berria (gradua, masterra eta doktoretza) sartzearen ondorioz; bertan, graduak 240 kreditu dauzkate eta masterrek 60 eta 120 artean.

2009-10 ikasturtean, EAEko unibertsitateetan guztira 62.773 ikasle matrikulatu dira, aurreko urtean baino %1 gutxiago, azken 15 urteotako joerari jarraituz.

Guztietatik, %87,8 1. eta 2. zikloko ikasketetan daude matrikulatuta (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniariak, diplomaturak eta arkitektura eta ingeniari teknikoak), %5,2 gradu ikasketetan eta %7 graduondokoetan (hirugarren zikloa edo doktoretza, ULren arabera (Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa), eta GHEEtik eratorritako graduondoko programa ofizialak (master ofizialak eta doktoretza).

Matrikulen %55 emakumei dagozkie eta %45 gizonezkoiei, eta emakumeak gehiago dira ikasketa mota guztietan: lehen eta bigarren zikloan (%55), graduan (%54) eta graduondokoetan (%57).

Ikastetxeen titulartasunaren arabera, ikasleen %78 unibertsitate publikora doaz eta %22 pribatuan matrikulatu da.

1.2.2.1. Unibertsitateko lehenengo, bigarren zikloa eta gradua EAEn

Lehen eta bigarren zikloko eta graduoko ikasketei helduz, EUSTATen datuen arabera, matrikulatzea etengabe jaitsi da 1997-98 ikasturteaz geroztik, eta joera sexuaren arabera bereizita ere errepikatzen da (baina emakumeen kasuan jaitsiera 1998-99 ikasturtean hasi zen).

2009.10 ikasturteari buruzko azken datuek erakusten dutenez, ikasleak, aurreko urtearen aldean, %1,9 gutxiago dira (%2 gizonezkoentzat eta %1,8 emakumezkoentzat), 58.380 ikasle, aurreko ikasturteko 59.499en aurrean.

Bestalde, EINren unibertsitateari buruzko estatistikak erakusten du 2008-2009 ikasturtean 1.391.253 ikasle matrikulatu zirela Estatuko unibertsitateetan (lehenengo eta bigarren zikloko eta graduoko ikasketetan); horrek aurreko ikasturtearen aldean %0,4ko jaitsiera dakar. EAEn, jaitsiera %4koa da. Horren ondorioz, Estatuan 2000-01 ikasturtean eta EAEn urtebete lehenago unibertsitateko ikasleen kopuru osoan hasitako beheranzko joerak aurrera jarraitzen du (estatistika sail hori 1998-99 ikasturtean hasi zen, aurreko ikasturteari buruzko informaziorik ez dagoelako). Neurri handi batean adin horietan gertatutako biztanleria murrizketak eragin du hori.

Hala ere, unibertsitateko biztanleriak 18 eta 25 urte bitarteko biztanleria osoan daukan portzentajea 2008-09 ikasturtean hazi zen berriz. EAEn, 2007-08 ikasturtean %31,2 bazen, 2008-09 ikasturtean %31,9 izan zen. Bestalde, Estatuan unibertsitateko biztanleriak 18 eta 25 urte bitarteko biztanleria osoan daukan portzentajea %31tik %31,7ra igaro da. Bestela esanda, Estatuan unibertsitateko biztanleriak 18 eta 25 urte bitarteko biztanlerian daukan pisua EAEn baino apur bat txikiagoa da baina hark ere goranzko bilakaera dauka.

EUSTATen datuetara itzulirik, matrikulatze femeninoaren proportzioa oraindik da %50etik gorakoa. 2009-10 ikasturtean, matrikulatutakoen %54,8 emakumezkoak dira, aurreko urteko ratioa baino apur bat txikiagoa, %54,9koa izan baitzen.

Zentroen titulartasunaren arabera, lehen eta bigarren zikloko ikasketetan matrikulatutako ikasleen %84k unibertsitate publikoan egin du eta %16k pribatuan.

2009-2010 ikartutako tituluak sakonki aztertuta, ageria geratzen da, EUSTATen arabera¹, honakoak izan

1.1.17. Koadroa. Matrikulatzearen bilakaera tituluen arabera

	2000-01	2001-02	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008-09	2009-10	2008-09 eta 2009-10 bariazioa
GUZTIRA (LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOA ETA GRADUA)											
GUZTIRA	80.336	75.984	74.197	71.960	69.696	66.322	63.691	61.649	59.499	58.380	-1,9
Gizonak	36.418	34.467	33.564	32.346	31.746	30.219	29.048	27.831	26.940	26.399	-2,0
Emakumeak	43.918	41.662	40.633	39.614	37.950	36.103	34.643	33.818	32.559	31.981	-1,8
LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOA											
GUZTIRA	80.336	76.129	74.197	71.960	69.696	66.322	63.691	61.649	59.188	55.088	-6,9
Gizonak	36.418	34.467	33.564	32.346	31.746	30.219	29.048	27.831	26.691	24.888	-6,8
Emakumeak	43.918	41.662	40.633	39.614	37.950	36.103	34.643	33.818	32.427	30.200	-6,9
Arkitektura	1.379	1.370	1.352	1.318	1.320	1.539	1.541	1.486	1.397	1.405	0,6
Goi-mail. Ingeniaritza	9.254	9.036	9.153	9.046	8.700	8.212	7.717	7.142	6.661	6.105	-8,3
Lizentziaturak	41.232	38.282	36.215	33.882	31.807	29.383	27.801	27.086	26.410	24.775	-6,2
Diplomaturak	17.074	15.837	15.583	15.276	15.405	15.057	14.833	14.739	14.588	13.816	-5,3
Arkitektura teknikoak			76	148	231	284	291	311	345	369	7,0
Ingeniaritza tek.	11.397	11.459	11.818	12.290	12.233	11.847	11.508	10.885	9.717	8.618	-11,3
GRADUAK											
GUZTIRA	—	—	—	—	—	—	—	—	381	3.292	764,0
Gizonak	—	—	—	—	—	—	—	—	249	1.511	506,8
Emakumeak	—	—	—	—	—	—	—	—	132	1.781	1.249,2

Iturria: EUSTAT.

¹ 11/02/22 eta 2009/12/23ko prentsa oharrak

**I.1.18. Koadroa. Unibertsitateko ikasleen bilakaera historikoa
(hirugarren zikloa, hots, masterrak eta doktoretzak, ez dira sartzen)**

	EAE			Estatua			EAEko ikasleak/ Estatuko guztizkoaren %
	ikasleak	18-25 urte arteko biztanleak	ikasleen % 18-25 urte arteko biztanleen gainean	ikasleak	18-25 urte arteko biztanleak	ikasleen % 18-25 urte arteko biztanleen gainean	
1999-2000	78.225	266.591	29,3	1.587.055	5.229.436	30,3	4,9
2000-01	74.958	257.365	29,1	1.554.972	5.158.001	30,1	4,8
2001-02	70.905	246.816	28,7	1.526.907	5.107.285	29,9	4,6
2002-03	69.386	235.747	29,4	1.507.147	5.046.474	29,9	4,6
2003-04	66.649	222.678	29,9	1.488.574	4.970.979	29,9	4,5
2004-05	64.650	210.691	30,7	1.446.879	4.835.684	29,9	4,5
2005-06	61.352	199.803	30,7	1.433.016	4.739.361	30,2	4,3
2006-07	58.313	190.092	30,7	1.410.440	4.614.791	30,6	4,1
2007-08	56.849	182.320	31,2	1.396.607	4.499.702	31,0	4,1
2008-09	54.568	170.801	31,9	1.391.253	4.391.621	31,7	3,9

Iturria: EIN.

zirela titulurik eskatuenak: irakasle ikasketak (5.579), ingeniariaritz teknika (4.941), enpresen administrazioa eta zuzendaritza (4.869), enpresa zientzietako diplomatura (3.543), industria ingeniariaritz (2.663), zuzenbidea (2.454), psikologia (2.184) eta medikuntza (1.503). Aurreko ikasturtean, lehen eta bigarren zikloko ikasketarik eskatuenak honakoak izan ziren: maisu-maistra (5.777), industria ingeniariaritz teknika (5.629), enpresen administrazioa eta zuzendaritza (5.176), enpresa zientzietako diplomatura (3.685), industria ingeniariaritz (2.882), zuzenbidea (2.657), psikologia (2.640), gizarte hezkuntzako diplomatura (1.530) eta medikuntza (1.412).

1.2.2.2. EAEko unibertsitateko hirugarren zikloa

Kontuan hartu behar da azterketak hirugarren zikloan —doktoretza ULren arabera (Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa)— egondako matrikulei heltzen diola, eta GHEEtik eratorritako doktoretzak ez direla zenbatu 2008-09 ikasturterako ez dagoelako master ofizialei eta doktoretzei buruzko informazio banakaturik. EUSTATen datuen arabera, 2008-09 ikasturtean 2.027 ikasle matrikulatu baziren, 2009-10ean 1.407 baino ez ziren izan, 649 sare publikoan eta 758 pribatuan. Hirugarren zikloko programetako matrikulatzean ULek eragindako jaitsiera horren zati bat agian GHEEtik eratorritako doktoretza programetarak mugitu da eta horrek, neurri batean, 2008-09 eta 2009-10 ikasturteen arteko jaitsiera han handia azalduko luke, baita, neurri batean, 2007-08 eta 2008-09 artekoa ere; baina horrek ez litzuke inolaz ere azalduko 2005-06az geroztik gertatu direnak.

Horrela, gure Memoria sozioekonomikoaren aurreko edizioetan adierazi dugunez, EUSTATen datuen arabera, unibertsitateko hirugarren zikloan 2001-02 ikasturtetik ikusten zen goranzko joera 2005-06an apurtu zen, eta harrezkero beherantz jarraitu du.


Zentroen titulartasunaren araberrako matrikulatzea itzulita, 2007-08 ikasturtean sare pribatuko matrikulatzea hazten hasi eta 2009-10 arte jarraitu zuen gorantz; une horretan inflexio puntua gertatu zen eta horren ondorioz, aurreko urteetan ez bezala, ikasle gehienek sare pribatuko zentroetan egin dituzte hirugarren zikloko ikasketak.

Sexuaren arabera bereizita, emakume matrikulatuak, guztien %52,4, gizonak baino gehiago dira.

Bestalde, EINek argitaratutako azken unibertsitate estatistikaren arabera, EAEn doktoretzako kurtsoetan matrikulatutako ikasle kopurua (EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea zenbatuta) berriz hazi da 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean, %16,1 (aurreko ikasturtean %–14,6 izan zen). 1.625 lagun matrikulatu ziren, haietatik 844 (%51,9) emakumeak. Bestela esanda, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira, eta Estatuan ere gauza bera gertatzen da (%51,5 emakumeak dira). Dena dela, guztizkoaren gaineko pisua beherantz doa bai EAEn bai Estatuan.

1.2.3. Hezkuntza adierazleak

Hezkuntza adierazleen Estatuko Sistema 1993az geroztik hasi zen diseinatzen eta lehenengo bertsioa 2000n argitaratu zen. Hurrengoak 2002, 2004, 2006, 2007 eta

I.1.19. Grafikoa. Hiru zikloan matrikulatutako ikasleen bilakaera titulartasun eta sexua arabera

Iturria: Eustat. Datu-basea.

I.1.19. Koadroa. Adierazle sailkapen zaharra (Hezkuntza adierazleen Estatuko Sistema)

	Aztertu beharreko alderdiak	Lehentasunezko adierazleak (Urterokoak)
Testuinguru eta eskolaratze adierazleak	Honakoak, besteak beste: demografia eta eskolaratze baldintzak, baldintza sozioekonomikoak eta kulturakoak; biztanleek hezkuntzari buruz dauzkaten jarrerak eta itxaropenak	1. Helduen ikasketa maila.
Eskolaratze adierazleak	Eskolaratzearen egoera	2. Eskolaratzea eta eskolaratzeko itxaropena 3. Eskolaratze tasen bilakaera derrigorrezkoak ez diren mailetak adinetan 4. Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea 5. Atzerriar ikasleak 6. Ikaskuntza iraunkorreko parte hartzea
Baliabideen adierazleak	Helburuak lortzeko dauden baliabideak (giza baliabideak eta materialak)	7. Hezkuntzako guztizko gastua BPGd-rekiko 8. Hezkuntzako gastu publikoa 9. Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko
Hezkuntza prozesuen adierazleak	Zentroen antolamendua eta funtzionamendua, hezkuntzako jarduna eta eskolako giroa kualitatiboak dira kuantitatiboak baino gehiago	
Hezkuntza emaitzen adierazleak	— Hezkuntza sistemaren lorpenak — Ebaluazio probak — Oinarrizko gaitasunak, jarrerak eta balioak eskuratzea — Lortutako tituluen ziurtagiriak — Adinaren egokitasuna derrigorrezko etapetan — Lan merkatuan sartzeko eta laneko diru-sarrerak	10. Funtsezko gaitasunak 15 urtean (azterketa ez da urterokoa, PISArekin batera baino) 11. Egokitasuna ikaslearen adinean 12. Eskola garaia baino lehenago lagatzea 13. Graduatze tasak 14. Matematika, zientzia eta teknologiako goi-mailako graduatuak 15. Langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera

2009an argitaratu dira. Hasiera batean 30 adierazle egin ziren, ondoren 35era zabaldu ziren eta 2004an kopurua 38tan finkatu zen. 2005ean, Ebaluazio Institutuko (EI) Kontseilu Errektoreak sistema malgutzea erabaki eta 15 adierazleko azpimultzo bat hautatzea proposatu zuen. Haiei Lehentasunezkoak deitu zitzaizkien eta aldiari-aldiari eguneratu beharko ziren, sistema osoa bi urtean behin argitaratuz. Lehentasunezko adierazleek hezkuntza sistemaren etengabeko erradiografia eta 2010erako espainiar eta europar erreferentzia mailen jarraipenerako oinarrizko informazioa eman behar zituzten.

Adierazle sistema osoa eta haren aurkezpen laburtua etengabe eguneratu beharra dela-eta, Elko Kontseilu Errektoreak beste aldagaketa garrantzitsu bat onartu zuen 2009an, 2005eko hirurteko planaren amaia eta aurreko urteetako eskarmentua baliatuz; horrela, adierazle sistema eta haren urteroko eguneratzea erraztu eta murriztu ziren. Aipatu aldagaketa, lehen aldiz, adierazleen 2010eko adizioan jaso dira, eta honakoak dira: "Testuinfurua" atala kendu egin da, aurreko edizioetan bertan jasotako adierazleak informazio zehatz eta nahikoa ematen zuten estatistika eta adierazleak egiten dituzten erakundeetatik

I.1.20. Koadroa. Adierazle sailkapen berria (Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema)

Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea	1. Eskolaratzea eta biztanleria 2. Eskolaratze tasak derrigorrezkoak ez diren mailetak adin teorikoetan (INSN 0, 3, 4 eta 5) 3. Atzerriar ikasleak 4. Ikasleak talde eta irakasle bakoitzeko Ikasleak hezkuntza talde bakoitzeko Ikasleak irakasle bakoitzeko Hezkuntzako gastu publikoa 5. Ikaskuntza iraunkorreko parte hartzea
Hezkuntza finantzaketa	6. Hezkuntzako guztizko gastua Hezkuntzako guztizko gastua BPGd-rekiko Hezkuntzako gastu publikoa Itunetarako gastu publikoa 7. Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko
Hezkuntza emaitzen adierazleak	8. Oinarrizko gaitasunak Lehen Hezkuntzako laugarren mailan 9. Oinarrizko gaitasunak DBHko bigarren mailan 10. Funtsezko gaitasunak 15 urtean (irakurmen, matematika eta zientzietan) 11. Egokitasuna ikaslearen adinean 12. Eskola garaia baino lehenago lagatzea 13. Graduatze tasak (INSN 2, 3, 5 eta 6) DBHko graduatze tasa gordinak Derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailako ikasketetako graduatze maila gordinak Goi-mailako ikasketetako graduatze maila gordinak Goi-mailako Zientzia, Matematika eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa 14. Helduen ikasketa maila 15. Jarduera eta langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera 16. Laneko diru-sarreraren arteko aldea ikasketa mailaren arabera

zetozelako, eta uste delako ez dela nahikoa haiek errepikatzea. “Prozesuak” atala ere desagertu da, hura egiten zaila izatez gain, datuak ez direlako oso sendoak, datozen ebaluazio azterlanen helburu nagusia ez delako, hain zuzen ere, hezkuntza prozesuak neurtzea. “Baliabideak” atalari Hezkuntza finantzaketa izena eman zaio, eta bertan finantza baliabideei buruzko adierazleak bildu dira, giza baliabideak Eskolaratzea eta hezkuntza inguruneak izeneko atalera —“Eskolaratzea” zena— igaro direlako. Hezkuntza emaitzak izeneko atalak bere izenari eutsi dio; bertan, lehen aldiz, Ebaluazio Institutuak, Autonomia Erkidegoen laguntzaz, egiten duen Diagnostikoko ebaluazio orokorretik datozen datuetan oinarritutako adierazleak sartu dira.

Egitura berri honek adierazle kopuruari eragin dio, 38tik 16ra murriztu baitira; haietatik 13 lehentasunezkoak dira eta 3 lehentasunik gabeak. Goi-mailako hezkuntzan sartzeari buruzko lehentasunezko adierazleak kentzea erabaki da, unibertsitatean sartzeko azterketa gainditzeko biztanleria tasa gordinari eta edozein unibertsitate ikasketatan lehen aldiz sartzen den ikasle kopuruari buruzko datuak baino ez zeudelako. *Hezkuntzako guztizko gastua BPGd-arekiko eta Hezkuntzako gastu publikoa* ere elkartu dira, *Hezkuntzako guztizko gastua* izenaren pean. Iraun duten lehentasunik gabeko adierazleak, ebaluazio nazio azterlanetan duten garrantziagatik eta epe luzerako hezkuntza emaitzengatik, talde eta irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, hezkuntza maila bakoitzeko eskolaratzea (kasu honetan *Eskolaratzea eta biztanleria* izenekoan sartu da), biztanle helduen ikasketa maila, hezkuntza mailaren araberrako jarduera eta langabezia tasa eta hezkuntza mailaren araberrako lan diru-sarreraren arteko aldeak aztertzen dituztenak dira.

Epigrafe honetan, adierazle haietako batzuk aztertu dira. Haietako bakoitza urtero aztertzen ez dugunez gero, edizio honetan aztertu ez direnen ikuspegia izan nahi bada, aurre-aurreko urteetako memoriak irakurtzea gomendatzen dugu.

1.2.3.1. Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea

Atzeritar ikasleak

Azken urteotan immigrazioaren eztanda gertatzearen ondorioz gero eta atzeritar ikasle gehiago sartzen dira gure hezkuntza sisteman egunetik egunera; hori dela-eta, gelak eta ikastetxeak heterogeneoagoak dira. Horregatik, kalitatezko sistema eta berdintasuneko politika garatzeko, maiz ezagutu behar da ikasle horien banaketa, bai hezkuntza etapen artean, bai ikastetxe sarean, azken ikasturteotako bilakaeratik ere igaroz. Horixe da adierazle honen helburua.

Elren *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txostenean jasotako datuen arabera, 2007-08 ikasturtean eta Espainiako hezkuntza sistemako unibertsitateaz kanpoko etapetan, 700.000 ikasle baino gehiago dira atzeritarak, aurreko ikasturtean baino ia 93.000 gehiago. Autonomia Erkidegoen arabera aztertuta, kontzentrazio handiena Balear Uharteetan (%14,0), Errioxan (%13,3) eta Madrilgo Erkidegoan (%13,2) dago. Haien atzetik daude Murtzia (%12,1), Valentziako Erkidegoa (%11,5), Katalunia (%11,3), Nafarroa (%8,8), Kanariar Uharteak (%8,5), Gaztela-Mantxa (%8,2) eta Gaztela eta Leon (%6,6). Ehun ikasleko 4 eta 7 ikasle artean dauzkaten erkidegoen artean, Kantabria (%6,5), Melilla (%6,5), Andaluzia (%5,4), EAE (%5,0) eta Asturiaseko Printzerria (%4,3) daude. Azkenik, 4 atzeritar ikasle baino gutxiago

1.1.21. Koadroa. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan eskolaratutako atzeritar ikasleen ehunekoa autonomia erkidegoaren eta hezkuntza etaparen arabera, 2007-2008 ikasturtea

	Gustizko Absolutua	Gustizko erlatiboa %	Haur Hezk.	Lehen Hezk. eta Hezk. Berezia	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezk. Ondokoa eta Goimailakoa Unibertsitateaz kanpo	Araubide berezia
Espainia	703.497	8,9	7,3	11,3	10,9	5,7	0,3
Andaluzia	81.892	5,4	4,6	6,5	6,2	3,2	2,7
Aragoi	23.886	10,8	10,3	14,6	12,6	7,2	2,4
Asturias	5.854	4,3	2,9	5,6	5,8	2,5	1,8
Balear Uharteak	23.641	14,0	11,7	16,6	16,3	8,8	8,2
Kanariar Uharteak	32.369	8,5	5,7	9,9	10,9	6,5	6,4
Kantabria	5.723	6,5	4,7	8,1	8,6	4,8	2,5
Gaztela eta Leon	26.085	6,6	6,5	8,7	7,6	3,8	3,2
Gaztela-Mantxa	29.574	8,2	8,1	11,0	8,7	4,2	1,3
Katalunia	143.186	11,3	8,7	14,7	15,6	7,7	0,3
Valentziako Erkid.	94.214	11,5	7,8	14,7	14,8	7,1	3,8
Extremadura	5.453	2,8	3,0	3,5	3,0	1,5	1,6
Galizia	13.375	3,2	2,1	4,1	3,5	1,6	4,4
Madril	146.568	13,2	10,4	16,7	17,2	9,7	4,7
Murtzia	33.940	12,1	10,8	15,7	12,7	7,3	4,3
Nafarroa	10.580	8,8	6,2	13,5	12,2	7,3	1,6
Euskadi	19.035	5,0	3,7	6,6	6,8	5,1	1,5
Errioxa	7.084	13,3	14,0	18,3	16,8	6,8	1,9
Ceuta	338	2,0	1,8	2,3	1,3	3,2	0,0
Melilla	1.150	6,5	6,0	7,7	5,2	4,2	10,2

Iturria: Ebaluazio Institutua, Sistema estatal de indicadores de la educación, 2010.

1.1.22. Koadroa. Ikasleen batez besteko kopurua hezkuntza talde bakoitzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan autonomia erkidegoaren arabera, 2007-08 ikasturtea

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa	Erdi mailako PZ	Goi-mailako PZ	Gizarte Bermea	Hezkuntza Berezia
Espainia	19,6	21,0	24,4	24,2	18,7	18,2	11,6	5,5
Andaluzia	21,6	21,9	26,1	28,2	24,1	22,0	12,3	4,8
Aragoi	18,2	19,2	24,0	21,6	17,4	16,4	11,2	6,6
Asturias	18,4	18,4	22,2	21,2	14,8	15,5	8,7	4,9
Balear Uharteak	21,4	23,1	23,2	23,6	15,7	14,4	11,5	4,9
Kanariar Uharteak	21,2	21,3	23,5	25,1	17,5	19,9	12,8	4,9
Kantabria	18,9	17,5	21,3	19,8	16,3	14,0	9,0	4,9
Gaztela eta Leon	18,6	17,4	22,5	20,7	17,7	16,8	11,0	5,0
Gaztela-Mantxa	19,2	19,2	22,7	22,1	15,3	14,8	11,3	5,3
Katalunia	19,4	22,8	27,8	26,9	22,2	21,5	13,3	6,5
Valentziako Erkid.	20,5	21,4	24,0	23,7	15,0	16,1	12,2	6,3
Extremadura	18,4	17,8	21,9	20,6	15,5	15,9	10,1	6,0
Galizia	18,3	17,7	20,6	20,5	15,5	16,8	8,1	4,8
Madril	18,9	22,8	25,6	24,3	18,9	19,1	12,1	5,9
Murtzia	20,7	22,3	25,8	24,2	17,7	15,5	12,3	5,1
Nafarroa	17,1	19,3	22,3	23,0	17,2	16,6	11,4	3,8
Euskadi	17,0	19,9	19,7	22,4	15,2	15,3	11,2	4,1
Errioxa	21,5	21,8	25,1	23,8	19,9	17,4	12,5	4,9
Ceuta	24,3	24,2	23,4	22,6	15,8	16,1	13,1	5,4
Melilla	24,1	25,9	27,8	23,5	22,1	20,2	15,3	5,5

Iturria: Ebaluazio Institutua. Sistema estatal de indicadores de la educación, 2010.

dutenak Galizia (%3,2), Extremadura (%2,8) eta Ceuta (%2,0) dira.

2002-03 eta 2007-08 ikasturteak erkatuta, ehun ikasleko atzeritar ikasleei dagokionez, hezkuntza etapa guztietan eta Autonomia Erkidegoetan, hazkunde handia egon da salbuespenik gabe. Haur Hezkuntzan Gaztela-Mantxa (ikasleen %4tik %8,1era izatera igaro da) eta Errioxa (%7,3tik %14,0ra igo da) nabarmentzen dira. Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian, Errioxa (ikasleen %8,1etik %18,3ra igaro da) eta Aragoi (%5,9tik %14,6ra) nabarmentzen dira. Azkenik, DBHko ehun ikasleko atzeritar ikasleen kopuruari dagokionez, bost urte horietan ikasle kopurua gehien handitu duten erkidego biak Errioxa, 11,2 puntuko bariazioarekin, eta Katalunia, 9,7 puntukoarekin, izan dira.

Ikasleak talde eta irakasle bakoitzeko

Hezkuntza talde eta irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua aintzat hartu behar da hezkuntza sistemaren funtzionamenduaren kalitatea baloratzerakoan. Egungo hezkuntza legedian ikasketak hobetzeko baliabidetzat eta irakasleei laguntzeko bidetzat jotzen da gela bakoitzeko gehieneko kopuru bat gaindituko ez dela bermatzea: 25 Lehen Hezkuntzarako eta 30 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako.

Elren informe *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txostenean jasotako datuen arabera, 2007-08 ikasturteko datuekin, Estatuan, talde bakoitzeko ikasle kopururik handiena DBHn eta Batxilergoan gertatzen da, 24na ikasle bietan; txikiena Hezkuntza Berezian, 6. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan batez beste 20 eta 21 ikasle inguru daude hezkuntza taldeko, hurrenez hurren; Erdi mailako eta Goi-mailako Prestakuntza Zikloetan, aldiz, batez bestekoa 19 eta 18 ingurukoa da, hurrenez hurren.

Gizarte Bermeko programetako taldeko ikasle kopurua txikiagoa da, 12 ikasle.

Autonomia Erkidegoetako hezkuntza mailetan alde handiak daude ikasle kopuruari dagokionez. Lehen Hezkuntzan jendetsuenak Ceuta eta Melilla dira, 24 eta 26 ikasle hurrenez hurren; kopururik txikiena dutenak, aldiz, Gaztela eta Leon eta Kantabria dira, 17 eta 18 hurrenez hurren. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan kopururik handiena Kataluniak eta Melillak dute, 28na bietan, eta txikiena EAEk eta Galiziak, 20 eta 21 ikasle hurrenez hurren.

EAEri dagokionez, taldeko ikasle kopururik handiena Batxilergoan dago, 22,4 ikasle, eta ondoren Lehen Hezkuntzan, 19,9 eta DBHn, 19,7. Bestalde, EUSTATen datuek —haren taula puntu honetan sartu da— beste era batera banakatu dituzte datuak, Lehen eta Haur Hezkuntzak Oinarrizko Hezkuntzaren izenpean batu dituelako, baina batez besteko emaitzak ildo beretik doaz. Ikasle bakoitzeko batez besteko ikasle kopuruak hezkuntza talde bakoitzeko batez besteko ikasle kopuruari buruzko datuak osatzen ditu; batez beste, ikasle kopurua txikiagoa da hezkuntza talde bakoitzekoa baino, adierazle bien azterketa konparatutik ondorioztatzen denez.

2007-08 ikasturtean, Elren *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txostenaren arabera:

- Estatuko guztizkorako irakasle bakoitzeko batez beste 11 ikasle dira. Asturiasek, Galiziak eta Kantabriak ratio txikiagoa dute, 10 ikasle irakasleko, eta kontrako gertatzen da Andaluzian, 13 ikasleekin. EAEk 10,5 ikasle dauka irakasleko.
- irakasle bakoitzeko ikasle ratorik handiena derrigorrezko etapa biak, Batxilergoa edota Lanbide Heziketa ematen dituzten ikastetxeek dute (15 ikasle irakasleko).

EUSTATen arabera, EAEn, 2008-09 ikasturtean, ratorik handiena, 2007a baino lehenago gertatzen zenaren kontra,

I.1.23. Koadroa. Ikasle/irakasleko eta ikasle/taldeko ratioak. EAE

	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08	2008/2009		
							Guztira	Publ.	Prib.
Oinarrizko irakaskuntza (1)									
Ikasle/irakasleko	12,3	12,7	12,1	12,3	12,6	12,5	12,6	10,5	15,8
Ikasle/irakasleko (AOB) (2)	12,8	13,2	14,0	13,9	14,0	13,9	13,9	11,2	18,5
Ikasle/taldeko	18,3	18,3	18,2	18,1	18,3	18,5	18,6	16,9	20,6
Bigarren irakaskuntza (3)									
Ikasle/irakasleko	9,3	9,1	8,8	8,7	8,4	8,2	8,2	6,8	10,1
Ikasle/irakasleko (AOB)	9,7	9,6	9,2	10,7	10,4	9,7	9,7	7,1	14,6
Ikasle/taldeko	21,0	20,5	20,1	19,8	19,4	19,1	19,3	18,0	20,6
Unibertsitateko ikasketak									
Ikasle/irakasleko	15,5	15,0	14,3	14,1	13,3	11,6	11,1	11,1	11,1
Ikasle/irakasleko (AOB)	18,3	17,7	16,7	16,4	15,6	13,5	12,9	12,4	14,9

(1) Oinarrizko irakaskuntza: haur eta lehen hezkuntza sartzen dira. (2) AOB: arduraldi osoko baliokidetasuna. Arduraldi osoa duten irakasle guztien eta arduraldi partziala duten irakasleen erdien batuketa. (3) Bigarren irakaskuntza: DBH, batxilergoa eta lanbide heziketa sartzen dira.
Iturria: EUSTAT.

oinarrizko irakaskuntzetan (13,9) eta horren ondoren unibertsitateko irakaskuntzan (12,9) dago. DBHn, urteen arabera, 9 eta 11 arteko bilakaera ikusten da.

ELGAK 2007ko datuekin argitaratutako azken datuek (Education at a glance, 2009) erakusten dute irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle ratioak EAEkoak baino handiagoak direla. Haur Hezkuntzan 16 eta Lehen Hezkuntzan 13, EAEn oinarrizko hezkuntzan (haur eta lehen hezkuntza) 12,5ekoa den bitartean; Bigarren Hezkuntzan 13, 9,7koaren aurrean, eta goi-mailakoan 15,3, 13,5ekoaren aurrean.

Ikaskuntza iraunkorreko parte hartzea

EBk, honela definitzen du ikaskuntza iraunkorra: “bizitza osoan ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak, ikuspegi pertsonal, zibil, sozialarekin edo lanari lotuta, hobetzeko xedez egindako ikaskuntza jarduerak oro”; eta 2010erako honako helburua ezarri da: helduen ikaskuntza iraunkorreko parte hartze portzentajeak handitzea %12,5 arte iristeko, tasa hori ezekin herritan %10etik behera gelditu gabe.

Inkestako erreferentzia aurreko lau asteetan edozein hezkuntza edo prestakuntza mota jaso duten 25 eta 64 urte arteko biztanleen ehunekoa hartzen da hura neurtzeko.

EUROSTATen datuen arabera, irakaskuntza iraunkorreko parte hartzea egonkorra da azken urteotan, eta 2009an %10,8koa zen 15EBen, %9,8koa 25EBen, eta %9,3koa 27EBen; beraz, zaila izango da 2010ean %12,5eko helburua lortzea.

Espainiar estatua, %10,4rekin, 25 eta 27EBetako batez bestekoen apur bat gainetik dago, baina 15EBen azpitik; baita erreferenteak diren Danimarka (%31,6), Suedia (%22,2), Finlandia (%22,2) eta Erresuma Batua (%20) bezalako herrietako balioetatik ere.

EUSTATEk 2010ean argitaratutako 2009ko Europar Berrikuntza Indizeko datuen arabera, EAEn 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen %13,5ek parte hartzen dute prestakuntza iraunkorreko jardueretan. Horren ondorioz, gure erkidegoak 2010erako aurreikusitako helburua lortu du.

1.2.3.2. Hezkuntzako gastua

2009an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren gastua 2.824 milioi eurokoa

izan zen, bigarren kontusailik handiena, Osasun eta Kontsumoarenaren ondoren (3.510 milioi euro). Horrek %9,1eko hazkundea dakar aurreko ekitaldiaren aldean. Zenbateko horrek %27,4ko partaidetza dauka Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuaren barruan, aurreko urtean baino 4 hamarren gutxiago. Gastu hori EAEko BPGd-aren %4,37 da. 2007. urtean %3,81 izan zen eta, beraz, haren aldean 0,56 puntu hazi da.

Bestalde, 2010eko aurrekontuetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailerako kontusaila 2.751 milioi eurokoa da. Horrek %2,6ko murrizketa dakar aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren gastu aurrekontuan %26,7ko partaidetza dauka (aurreko ekitaldian baino 4 hamarren gutxiago). Gastu hori EAEko BPGd-aren %4,18 da, 2009an baino 0,19 puntu gutxiago.

Hezkuntza Sailaren ikasleko gastu ratioa (ikasle guztiak, hots, bai araubide orokorrekoak bai berezikoak (hizkuntzak, musika, dantza...)), 2008 eta 2009 artean, hazi egin da, 5.353 eurotik 6.346 eurora, eta 2009 eta 2010 artean jaitsi, adierazlearen balioa ikasleko 6.014 eurokoa izan baita.

MECen *Las cifras de la educación en España, 2011* txosteneko datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa EAEn 2008an, 2.605 milioi eurokoa izan zen; Estatu osoan Hezkuntza Administrazioen gastua 44.401 milioi eurokoa izan zen. BPGd-ren gainean Hezkuntza Administrazioek izandako gastua %3,83koa da EAEn (%3,06 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta %0,14 unibertsitatekoan) eta %4,08koa Estatuan (%2,7 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta %0,95 unibertsitatekoan).

Ikasle bakoitzeko gastua Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan (haur, lehen eta bigarren hezkuntza; HHE kanpoan geratzen da) hazi da, 5.489 eurotik 5.840ra igaroz; baita Unibertsitatekoan ere, 4.859 eurotik 5.064 eurora igaroz.

MECen *Las cifras de la educación en España, 2011* txosteneko datuen arabera, 2008an, Lanerako Prestakuntza kanpoan utziz, Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastu publikoa (publikoa eta itundua) 7.151 eurokoa izan da EAEn. Horren arabera, gure Erkidegoak ikasle bakoitzeko gasturik handiena dauka. Estatuko batez bestekoa 5.539 eurokoa da. EAetik gertu daude Asturias (6537 euro), Kantabria

I.1.24. Koadroa. Ikaskuntza iraunkorra (parte hartzen duten 25-64 urteko biztanleen %)

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
27-EB	8,5	9,3	9,8	9,7	9,5	9,4	9,3
25-EB	9,0	9,8	10,3	10,2	10,0	9,9	9,8
15-EB	9,8	10,7	11,3	11,2	10,9	10,8	10,8
Belgika	7,0	8,6	8,3	7,5	7,2	6,8	6,8
Bulgaria	1,3	1,3	1,3	1,3	1,3	1,4	1,4
Txekiar E.	5,1	5,8	5,6	5,6	5,7	7,8	6,8
Danimarka	24,2	25,6	27,4	29,2	29,2	30,0	31,6
Alemania	6,0	7,4	7,7	7,5	7,8	7,9	7,8
Estonia	6,7	6,4	5,9	6,5	7,0	9,8	10,5
Irlanda	5,9	6,1	7,4	7,3	7,6	7,1	6,3
Grezia	2,6	1,8	1,9	1,9	2,1	2,9	3,3
Espainia	4,7	4,7	10,5	10,4	10,4	10,4	10,4
Frantzia	7,1	7,1	7,1	7,7	7,5	6,0	6,0
Italia	4,5	6,3	5,8	6,1	6,2	6,3	6,0
Txipre	7,9	9,3	5,9	7,1	8,4	8,5	7,8
Letonia	7,8	8,4	7,9	6,9	7,1	6,8	5,3
Lituania	3,8	5,9	6,0	4,9	5,3	4,9	4,5
Luxenburgo	6,5	9,8	8,5	8,2	7,0	8,5	13,4
Hungaria	4,5	4,0	3,9	3,8	3,6	3,1	2,7
Malta	4,2	4,3	5,3	5,4	6,0	6,2	5,8
Holanda	16,4	16,4	15,9	15,6	16,6	17,0	17,0
Austria	8,6	11,6	12,9	13,1	12,8	13,2	13,8
Polonia	4,4	5,0	4,9	4,7	5,1	4,7	4,7
Portugal	3,2	4,3	4,1	4,2	4,4	5,3	6,5
Errumania	1,1	1,5	1,6	1,3	1,3	1,5	1,5
Eslovenia	13,3	16,2	15,3	15,0	14,8	13,9	14,6
Eslovakia	3,7	4,3	4,6	4,1	3,9	3,3	2,8
Finlandia	22,4	22,8	22,5	23,1	23,4	23,1	22,1
Suedia	:	:	17,4	18,4	18,6	22,2	22,2
Erresuma Batua	27,2	29,0	27,6	26,7	20,0	19,9	20,1
EAE	6,2	6,5	12,7	12,4	13,2	13,5	13,5

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey eta ISEI-IVEI eta EUSTAT

I.1.25. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailak likidatutako/ aurrekontuan sartutako gastuaren bilakaera

Urteak	Mila euro	Jaurlaritzaren guztizkoa (mila euro)	EJK likidatutako guztizko gastuaren gaineko %	BPGd mila € (oinarria 2005)	BPGd gaineko %	2005eko oinarria=100	Ikasleak guztira (1)	Gastuak ikasle bakoitzeko eurotan
2005	2.021.892	7.312.911	27,6	57.289.143	3,53	100	435.579	4.642
2006	2.140.099	7.770.938	27,5	61.760.620	3,47	106	437.900	4.887
2007	2.403.160	8.584.886	28,0	66.427.468	3,62	119	438.745	5.477
2008	2.589.172	9.317.300	27,8	67.924.490	3,81	128	483.671	5.353
2009	2.824.094	10.304.507	27,4	64.568.087	4,37	140	444.981	6.346,5
2010 aurrek.	2.751.347	10.315.210	26,7	65.847.395	4,18	136	457.500	6.013,9

(1) Ikasle guztien artean erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak sartzen dira.

Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitateaz kanpoko ikasleak —zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira— eta unibertsitateko ikasleak daude.

Erregimen bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi-mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira

Iturria: EUSTATen datuetatik geuk egina, EAEko Kontu Orokorrak, eta azken urterako aurrekontuak.

(6.236) eta Gaztela-Mantxa (6.104). Bestalde, Lanerako Prestakuntza kanpoan berriz utziz, Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastu publikoa, 2008an, 10.388 eurokoa izan da EAEn. Horren arabera, gure Erkidegoak ikasle bakoitzeko gasturik handiena dauka berriro. Estatuko batez bestekoa 6.567 eurokoa da.

1.2.3.3. Hezkuntza emaitzak**PISA proiektua. Batez besteko emaitzak irakurmenean, zientzia eta matematikako gaitasunetan; eta ekitate eta bikaintasun maila**

PISA (Programme for International Student Assessment- Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa)

I.1.26. Koadroa. 2008ko hezkuntzako gastua

	BPGd (mila €)	Hezkuntzako gastua guztira				Uniberts. kanpoko hezkuntzako gastua				Unibertsitateko hezkuntzako gastua			
		Guztira (milaka €)	% Gastu korrontea	% Kapital. gastua	Gastua/BPGd	Guztira (milaka €)	% Gastu korrontea	% Kapital. gastua	Gastua/BPGd	Guztira (milaka €)	% Gastu korrontea	% Kapital. gastua	Gastua/BPGd
	1.088.124.000												
GUZTIRA (1)		49.228.297	86,7	12,1	4,08	35.578.917	91,7	8,2	2,98	10.375.280	71,9	22,5	0,95
Hezkuntza Administrazioak guztira		44.401.853	88,0	10,7		32.445.663	92,8	7,2		10.358.134	71,8	22,5	
MEC		2.955.678	88,8	1,3		1.292.990	97,9	2,1		535.122	43,3	2,2	
MEC erk. autonomo. transf. ondoren		2.233.019	85,3	1,7		578.913	95,5	4,4		523.540	42,4	2,2	
Andaluzia	148.915.411	7.506.639	86,2	13,0	5,04	5.658.340	90,5	9,5	3,80	1.783.055	72,2	24,3	0,35
Aragoi	34.071.768	1.182.566	88,9	11,0	3,47	869.595	93,8	6,3	2,55	296.847	74,3	25,4	5,23
Asturias	23.736.703	959.652	85,3	14,1	4,04	668.827	95,2	4,6	2,82	216.369	74,1	23,7	1,25
Balear Uharteak	27.196.542	845.947	91,6	8,4	3,11	748.962	93,9	6,1	2,75	93.908	73,0	26,8	0,80
Kanariar Uharteak	42.907.188	1.743.518	93,3	6,6	4,06	1.406.041	96,0	4,0	3,28	314.038	82,4	17,2	0,22
Kantabria	13.888.906	546.496	90,0	9,9	3,93	425.960	95,7	4,3	3,07	119.841	69,8	30,1	2,26
Gaztela eta Leon	58.128.174	2.336.431	89,5	10,1	4,02	1.751.468	91,4	8,5	3,01	569.877	84,0	14,6	0,21
Gaztela-Mantxa	36.857.370	1.956.213	89,7	9,8	5,31	1.714.282	90,8	9,2	4,65	240.743	81,9	14,1	1,55
Katalunia	202.695.024	6.584.317	89,5	10,1	3,25	5.010.460	93,3	6,7	2,47	1.513.902	76,6	21,5	0,12
Valentzia	105.833.509	4.721.484	81,6	16,4	4,46	3.476.031	88,9	11,1	3,28	1.244.120	61,4	31,3	1,43
Extremadura	18.176.031	1.043.117	90,7	9,3	5,74	872.331	94,6	5,5	4,80	160.463	69,0	31,0	6,84
Galizia	56.220.304	2.557.723	87,0	12,2	4,55	1.914.241	94,6	5,3	3,40	608.498	67,6	30,3	0,29
Madrid	193.049.514	5.259.834	88,3	10,5	2,72	3.388.073	95,5	4,4	1,76	1.779.160	74,0	22,6	0,32
Murcia	28.164.464	1.401.109	88,5	10,9	4,97	1.109.682	93,6	6,4	3,94	280.771	68,0	29,0	6,32
Nafarroa	18.480.722	654.836	91,1	8,9	3,54	554.750	93,0	7,0	3,00	93.795	78,8	21,1	1,52
EAE	67.940.865	2.604.882	93,2	6,6	3,83	2.080.755	95,0	5,0	3,06	470.328	84,7	14,4	0,14
Errioxa	8.037.214	264.071	91,1	8,9	3,29	216.952	93,4	6,6	2,70	45.879	80,0	19,9	5,85
Hezkuntz kanpoko Administ. guztira (2)		4.826.444	75,4	24,5		3.133.255	80,8	19,0		17.146	91,4	8,6	

(1) Banaketa ateratzeko guztizkoari Administrazioak banatu gabekoa eta doitzeko sailak kendu zaizkio (2) Beste Ministerio eta Sail batzuk eta tokiko korporazioak biltzen ditu. Iturria: MEC (Hezkuntzako gastu publikoari buruzko estatistika) eta EIN.

proiektuaren helburu nagusia 15 urteko ikasleen hezkuntza errendimendua aztertzea da, giltzarritzat jotako zenbait gaitasun, hala nola irakurmena, matematikako eta zientziako gaitasuna, ebaluatuz.

Azterlana ELGAko kideak diren herriek antolatu eta zuzentzen dute, lankidetzan, gero eta herri kide gehiagorekin elkarlanean. 2000n guztira 32 herri hartu zuten parte, 2003an 41ek, 57k 2006an eta 65ek 2009an; haietatik, ELGAko 33 kideak eta elkartutako 32 herri.

Aplikatzen den bakoitzean ikasleek hiru gaitasunetan dituzten errendimenduak aztertzen dira, baina haietako batek, txandaka, arreta sakonagoa jasotzen du. Lehenengo PISA azterlana 2000n egin zen eta gaitasun nagusia irakurmena izan zen. PISA 2003ren gaitasun nagusia matematika izan zen, PISA 2006rena zientziak, eta PISA 2009rena irakurmena berriz.

Proba horien emaitzak adierazle egokiak dira derrigorrezko hezkuntza sistemen eraginkortasuna neurtu eta erkatzeko. EAEn egindako azterketek eta ELGAren egindako erkaketak erakusten dutenez, EAEko hezkuntza sistema:

- ELGAko beste herrietako *batez besteko puntuazioaren* ingurua kokatzen da,
- ELGAko batez bestekoa baino *ekitate* handiagoa (ikasleen ehunekoa mailarik² baxuenetan) dauka baina
- *bikaintasun* maila (ikasleen ehunekoa mailarik altuenetan) batez bestekoa baino txikiagoa du irakurtzeko eta zientziako gaitasunetan.

2009ko irakurmenean, EAEn, honakoa baietsi da:

Batez besteko emaitza ELGAko batez bestekoaren antzekoa da eta Estatukoa baino 13 puntu altuagoa.

Ekitatean, 2010erako europar helburua erdietsi dugu (*irakurtzeko 1 edo gutxiagoko gaitasun mailaduten ikasleak %15,5 baino gehiago ez izatea*), 1 eta 1 azpiko mailetako ikasleak %15 baitira, hots, helburua baino 0,5 puntu gutxiago.

Bikaintasunean, ELGAko batez bestekoa ia EAEko bikaintasun indizea halako bi da (ikasleen %7,6 eta %4,5, hurrenez hurren).

Erdiko mailetan (2, 3 eta 4) aldea ia 7 puntukoa da EAEn alde, hots, EAEk, irakurmenean bikaintasun indize txikia

² Mailak <1etik 6ra doaz

I.1.27. Koadroa. Batez besteko emaitzak irakurmenean. PISA 2003, 2006 eta 2009

	2009	2006	2003
Shanghai Txina	556		
Hego Korea	539	556	534
Finlandia	536	547	543
Hong-Kong Txina	533	536	510
Singapur	526		
Kanada	524	527	528
Zeelanda Berria	521	521	522
Japonia	520	498	498
Australia	515	513	525
Herbehereak	508		
Belgika	506	501	507
Norvegia	503	484	500
Madril	503	—	—
Gaztela eta Leon	503	478	499
Katalunia	498	477	483
Errioxa	498	492	—
Nafarroa	497	481	—
Aragoi	495	483	—
EAE	494	487	497
Asturias	490	477	—
Kantabria	488	475	—
Espainia	481	461	481
...			
ELGAko batez bestekoa	493	492	494

Iturria: PISA 2009, 2006 eta 2003.

izan arren ELGAK baino ekitate handiagoko eta bariantza txikiagoko sistema dauka.

2009ko zientziako gaitasunean, EAEn, honakoa baietsi da:

1 eta 1 azpiko mailetan, EAEk ia 2 puntutan hobetu ditu PISA 2006ko emaitzak eta 4,2 puntuz gainditu du ELGA ekitateari dagokionez. Bikaintasunean, aldiz, EAE puntu bat jaitzi da eta 5,2 puntuz urrundu da ELGAko batez bestekoaren aldean.

Zientziako gaitasuneko PISA 2006 eta 2009 emaitzak alderatuz gero, ikusten da emaitzaren bilakaera ona izan dela, ekitatea handitu baita, 1 eta <1 mailak murriztuz eta erdiko mailak (2, 3 eta 4) handituz. Maila horiek, ordea, bikaintasuna ebaluazio bakoitzeko ia puntu 1ez murriztu delako ere hazi dira eta, gainera, ELGAko batez bestekoaren azpiko mailan dago, 4,7 puntuz.

Matematikako gaitasunean, ELGA osorako PISA 2006 eta 2009ko batez besteko emaitzen artean hobekuntzarik egon ez bada ere, EAEk onerako aldaketa egin du eta,

izan ere, ELGAko batez bestekoa 14 puntuz gainditu du eta Estatukoa 27 puntu baino gehiagoz.

Bestalde, ekitate eta bikaintasun maileri dagokienez ere, bilakaera ona gertatu da EAEn.

Irakurmenean bezala, ELGAko eta EAEko 2, 3 eta 4. mailak erkatuz gero, azkenaren aldekoa da 7,4 puntuz; horrek EAEko sistemaren ekitatearen eta haren bilakaera onaren berri ematen du.

Bukatzeko, azpimarratu behar da PISA 2009k neurtutako hiru gaitasunetan Shanghai-Txinak lortu dituela emaitzarik onenak. Gainera, emaitzarik onenak lortutako taldean ere, hiru gaitasunetan, Hong Kong-Txina eta Singapur hiriak daude, Finlandia eta Hego Korearekin batera. Azken biak aurreko ekitaldietan ere egon dira toki goren horretan.

Egokitasuna ikaslearen adinean

Egokitasun mailak euren adinerako egokia den maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko erlazioa neurtzen du.

Horren ondorioz, desagokitasunak eskola atzerapenak, eskolaratze desbideratzeak eta mailaren errepikapenak jasotzen ditu.

Jarraian azalduko dugunez, datuek baiesten dute arreta handia eman behar zaiela lehenengo adinei, eskola atzerapenak eta, ondorioz, desagokitasuna, urteetan hazi eta pilatzen direlako eta azkenean eskola porrota eragin dezaketelako.

Aztartzeko puntu 2008-09 ikasturtea hartuz gero, ikusten denez, 7 urteko biztanleria osoaren %98,9 teorikoki dagokion mailan dago matrikulatuta. Baina erreferentziazko biztanle taldearen adinak gora egin heinean, egokitasunaren ehunekoak behera egiten du. Horrela, 13 urteko biztanle guztietatik, teorikoki dagokien mailan matrikulatuta dauden ehunekoa %82,9ra jaisten da; eta 17 urteko biztanle guztietatik, teorikoki dagokien mailan matrikulatuta dauden ehunekoa %59 arte jaisten da.

Izan ere, desagokitasun tasak izugarri igo eta denboran hazi egiten dira Lanbide Heziketarako eta, bereziki, erdi mailako Lanbide Heziketarako, %95 arte iritsiz. Alegia, erdi mailako Lanbide Heziketan prestakuntza egiten duten hogeitazetik, bakarrik dauka bere adina atzerapenik egon ez balitz maila egin behar litzatekeen adinari egokিত. Goi-mailako Lanbide Heziketan ere tasak altuak dira, %83,2 2008/2009n 1. mailarako eta %83,5 2.erako, erdi mailako Lanbide Heziketakoak baino baxuagoak, hala ere.

Hala ere, aintzat hartu behar da Lanbide Heziketan desagokitasun tasa igotzeko beste arrazoi bat, lanean

I.1.28. Koadroa. Emaitzak mailaren arabera. PISA 2006 eta 2009 (ikasleen % mailetan)

Maila	Irakurmena				Zientziak				Matematika			
	2006		2009		2006		2009		2006		2009	
	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE
>1	7,4	5,2	1,1	0,7	5,2	3,2	5,0	2,6	7,7	5,1	8,0	5,3
1	12,7	12,5	17,7	14,5	14,1	12,5	13,0	11,2	13,6	11,8	14,0	9,6
2	22,7	25,9	24,0	25,5	24,0	27,9	24,4	29,4	21,9	23,0	22,0	20,5
3	27,8	33,0	28,9	34,6	27,4	33,5	28,6	35,9	24,3	28,2	24,3	28,6
4	20,7	19,3	20,7	20,4	20,3	18,5	20,6	17,7	19,1	21,7	18,9	23,2
5	8,6	4,2	7,6	4,5	7,7	4,0	7,4	3,1	10,0	8,5	9,6	10,5
6					1,3	0,3	1,1	0,2	3,3	1,6	3,1	2,2

Iturria: ISEI-IVEI. ELGAko azken txostena eta PISA 2009 Espainiako txostena. Geuk egina.

I.1.29. Koadroa. Batez besteko emaitzak matematikako gaitasunean. PISA 2003, 2006 eta 2009

	2009	2006	2003
Shanghai Txina	600		
Singapur	562		
Hong-Kong	555	547	550
Hego Korea	546	547	542
Tapei Txina	543	549	
Finlandia	541	548	544
Liechtenstein	536	525	536
Suitza	534	530	527
Japonia	529	523	534
Kanada	527	527	532
...			
Gaztela eta Leon	514	515	503
Nafarroa	511	515	
EAE	510	501	502
Aragoi	506	513	
Errioxa	504	526	
Madril	496		
Katalunia	496	488	494
Kantabria	495		
Asturias	494	497	
Galizia	489	494	
Espainia	483	480	485
...			
ELGAko batez bestekoa	488	498	500

Iturria: PISA 2009, 2006 eta 2003.

I.1.30. Koadroa. Batez besteko emaitzak zientziako gaitasunean. PISA 2003, 2006 eta 2009

	2009	2006	2003
Shanghai Txina	575		
Finlandia	554	563	548
Hong-Kong Txina	549	542	539
Singapur	542		
Japonia		531	548
Hego Korea		522	538
Kanada		534	519
...			
Liechtenstein	520	522	525
Suitza	517		
Gaztela eta Leon	516	520	502
Errioxa	509	520	
Nafarroa	509	511	
Madril	508		
Galizia	506	505	
Aragoi	505	513	
Asturias	502	508	
Kantabria	500	509	
Katalunia	497	491	502
EAE	495	495	484
Espainia	488	488	487
....			
ELGAko batez bestekoa	496	500	500

Iturria: PISA 2009, 2006 eta 2003.

hasi ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak egiten hasten diren helduen portzentaje handia dela, baita unibertsitateko ikasketak probatu eta jarraitzeari uko egin ondoren, lanbide irteera gisa goi-mailako Lanbide Heziketako kurtsoren bat egiten duten ikasleak ere.

Alderdi positiboan artean, esan behar da 2008-09 ikasturteko egokitasun portzentajeak 2007-08 ikasturtean zeudenekin erkatuz gero (atxikitako taulak), egokitasun tasak igo egin direla 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen

artean, 12 urtetik gora, eta eutsi egin dutela 17 urte arte. Hala ere, gogoan hartu behar da ez dela gauza bera gertatu 7 eta 12 urte artean.

Genero ikuspegitik, 2008-09 ikasturtean emakumezkoek adin guztietan egokitasun tasa handiagoak dauzkate gizonezkoek baino (aurreko ikasturtean 12 urtetik aurrera hasten ziren). Aurreko ikasturtean gertatu legez, ordea, bilakaerari dagokionez aldea murritzen ari da. Horrela, 2007-08 ikasturtean emakumezkoen aldeko aldeak 12

I.1.31. Koadroa. Egkoitasun tasak adin esanguratsuetan (1) sexuaren arabera (ehunekoak)

	2007-08				2008-09			
	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Emakume-gizon aldea	Guztira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Emakume-gizon aldea
7 urterekin (2)	99,7	100,3	99,1	-1,2	98,9	98,8	99,0	0,2
9 urterekin (3)	97,4	98,1	96,7	-1,4	93,5	93,5	93,6	0,1
11 urterekin (4)	97,4	97,7	97,1	-0,6	94,5	93,8	95,2	1,4
12 urterekin (5)	87,9	86,4	89,5	3,1	92,9	92,4	93,4	1,0
13 urterekin (6)	82,9	79,9	85,9	6,0	82,9	80,7	85,3	4,6
14 urterekin (7)	77,5	73,9	81,4	7,5	78,2	74,0	82,5	8,5
15 urterekin (8)	70,3	65,1	75,7	10,6	71,3	67,0	75,9	8,9
16 urterekin (9)	64,7	58,7	70,9	12,2	64,6	59,5	70,1	10,6
17 urterekin (10)	57,2	49,7	65,0	15,3	59,0	52,5	65,9	13,4

(1) Euren adinerako egokia den maila teorikoan matrikulatuta dauden ikasleen eta adin horretako biztanleriaren arteko erlazioa.

(2) Maila teoriko egokiak: LH 1.

(3) Maila teoriko egokiak: LH 4.

(4) Maila teoriko egokiak: LH 6.

(5) Maila teoriko egokiak: DBH 1.

(6) Maila teoriko egokiak: DBH 2.

(7) Maila teoriko egokiak: DBH 3.

(8) Maila teoriko egokiak: DBH 4.

(9) Maila teoriko egokiak: Batxilergo 1 eta erdi mailako LH 1.

(10) Maila teoriko egokiak: Batxilergo 2 eta erdi mailako LH 2.

Iturria: EUSTAT.

I.1.32. Koadroa. Erdi mailako lanbide heziketakoko desegokitasun tasa, sarearen, hizkuntza ereduaren eta sexuaren arabera

		2000/01	2001/02	2002/03	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09
Erdi mailako Lanbide Heziketa 1	Guztira	92,8	93,2	94,5	95,7	95,8	96,3	96,3	96,0	95,5
	Gizon.	92,2	93,4	94,1	95,0	95,1	95,7	96,0	95,3	94,9
	Emak.	93,9	92,8	95,0	96,7	96,7	97,2	96,8	96,9	96,4
	Publikoa	94,6	93,7	94,8	95,5	95,6	96,6	96,1	96,0	96,0
	Pribatua	90,2	92,5	94,0	95,9	96,0	95,8	96,6	96,0	94,7
	A eredua	93,5	94,1	94,9	96,3	96,5	96,8	96,9	97,0	96,2
	B eredua	90,0	90,3	92,5	92,3	92,3	93,9	93,9	96,3	91,9
	D eredua	89,3	86,1	93,4	94,8	92,9	97,6	97,8	91,8	93,3
	X eredua	—	—	—	—	—	0	0	0	0
Erdi mailako Lanbide Heziketa 2	Guztira	92,8	93,5	93,1	94,2	95,9	96,2	96,1	96,6	95,7
	Gizon.	92,3	93,7	93,4	93,9	95,4	95,6	95,7	95,9	95,3
	Emak.	93,6	93,1	92,6	94,6	96,8	97,2	96,8	97,8	96,4
	Publikoa	94,7	93,5	94,2	94,4	95,9	96,2	96,1	96,5	95,7
	Pribatua	90,5	93,5	91,7	93,8	96,0	96,2	96,2	96,8	95,8
	A eredua	93,3	94,3	94,1	94,6	96,5	96,9	96,6	97,2	96,9
	B eredua	89,1	89,8	89,1	92,0	92,9	93,6	93,9	97,7	96,0
	D eredua	91,9	90,7	85,2	93,1	95,6	94,2	98,6	94,2	91,7
	X eredua	—	—	—	—	—	0	0	0	0

Iturria: EUSTAT.

urterekin 3,1 puntu ingurukoa; 13rekin 6koa; 14rekin 7,5ekoa; 15ekin 10,6koa; 16rekin 12,2koa; eta 17rekin 15,3koa ziren bitartean; hurrengo ikasturtean, hurrenez hurren, 1; 4,6; 8,5 (salbuespena); 8,9; 10,6; eta 13,4koak dira.

Eskola garaia baino lehenago lagatzea

Eskola garaia baino lehenago uztea (definitzeko, gehienez ere oinarritzko bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa bukatuta (*INSN 2-ISCED 0, 1, 2 edo 3c*) inkesta baino lehenagoko lau asteetan ikasten jarraitzen ez duten edo prestakuntzarik egiten ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleak hartzen dira erreferentzia) Europako hezkuntza politikan funtsezko kezketako bat izan da eta oraindik da, deskapitalizazio handia dakarrelako.

Hala ere, adierazle horrek ez ditu derrigorrezko eskolaratzea uztea eta eskolako porrota gainditzeko ez duten ikasleen portzentaje gisa neurtzen.

Derrigorrezko eskolaratzea bukatutakoan, gazteek prestatzen jarraitu behar dute, gaur egun ezagutzen aurrerapenaren eragile erabakigarria delako. Prestakuntza aukera gehiago ematen du lanbide kualifikatuak lortzeko eta bitarteko gehiago lanbidean gora egiteko. Hori dela-eta, eskola-graduatuak lortu ondoren ikasten jarraitzen duen ikasle kopurua handitzea lehentasunezko helburua da hezkuntzan eskumenak eta erantzukizunak dauzkaten administrazio guztientzat.

Adin tarte horretan dauden gazteak prestatzen jarraitzea bultzatu nahi dira, prestakuntza arautuan (derrigorrezkoaren ondorengoa) edo hezkuntza sistematik kanpoko beste prestakuntza mota batean, eta biztanleen portzentaje bat ezagutzaren gizarretik at geratzea saihestu nahi da.

2000ko martxoan Lisboan egindako Europako Kontseiluaren ondoren, ikasketak garaia baino lehenago uzten dituzten gazteen %19,3ko batez bestekoa murriztu beharra funtsezko alderdi gisa agertu da. Hori dela-eta, honako helburua ezarri da: "2010erako, Estatu kide guztiek, gutxienez, erdira murriztu behar lukete eskola

uzteko tasa (2000ko datuen aldean), EBn %10etik beherako batez besteko indizea lortzeko".

Egia da Europako herrietan eskola garaia baino lehenago uztearen bilakaerak beheranzko joera daukala, baina helburua asmo handikoa da, zenbait Estatu kide %10eko helburutik urrun daudelako.

EUROSTATEk argitaratutako azken datuen arabera, 2009an Espainian ikasketak uzteko tasa %31,2koa da. 15EBko herrietako batez bestekoa %15,9 da, eta Europa hedatuan, tasa %14,4 arte jaisten da. Hori hedapeneko herrietan EBko gainontzeko Estatu kideetan baino tasa askoz txikiagoa dagoelako gertatu da.

ISEI-IVEI eta MECen datuen arabera, eskola garaia baino lehenago uzteko tasak beheranzko joera du EAEn, 2003ko %15,8tik 2008ko %14,7ra. Estatuko portzentajerik txikiena da. Izan ere, Elren *estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txostenaren arabera, eskola uzteko portzentajerik txikienak EAEn, %14,7, Nafarroan, %19,2, eta Asturiasen, %19,7, daude. Portzentajerik handienak Balear Uharteetan, %43,2, Ceuta eta Melillan, %42,1, eta Murtzian, %41,0, daude.

Sexuaren arabera bereizita, EAEn, Elren txostenaren arabera, emakumezkoek ratio txikiagoa daukate gizonezkoek baino: %11,2, %18,1en aurrean, 2008an. Estatuan, 2008an, hurrenez hurren, %25,7 eta %38 ziren.

Graduatze tasak**Graduatze tasa gordinak DBHn, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo ikasketetan eta goi-mailako ikasketetan**

Etapak bakoitzeko azken maila hasteko adin teorikoa duten biztanle guztien gainean DBH, derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo ikasketak eta goi-mailako ikasketak arrakastaz bukatzen dituztenen ehunekoa informazio garrantzitsua da hezkuntza sistemaren emaitzak ezagutzeko.

EUSTATen datuen arabera, 2008-09 ikasturtean, EAEn, DBHn graduatutakoak 15 urteko biztanleen %84,3 dira, eta ratioa gorantz doa urtetik urtera.

I.1.33. Koadroa. Eskola garaia baino lehenago lagatzea. (DBHko 2. etapa amaitu ez duten eta hezkuntza-prestakuntzarik egiten ez duten 18-24 urteko biztanleak)

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
27-EB	16,6	16,1	15,8	15,5	15,1	14,9	14,4
25-EB	16,1	15,7	15,5	15,4	14,9	14,9	14,3
15-EB	18,2	17,7	17,5	17,3	16,9	16,7	15,9
Belgika	14,3	13,1	12,9	12,6	12,1	12,0	11,1
Bulgaria	21,9	21,4	20,4	17,3	14,9	14,8	14,7
Txekiar E.	6,5	6,3	6,2	5,1	5,2	5,6	5,4
Danimarka	10,4	8,8	8,7	9,1	12,5	11,3	10,6
Alemania	12,8	12,1	13,5	13,6	12,5	11,8	11,1
Estonia	12,9	13,1	13,4	13,5	14,4	14,0	13,9
Irlanda	13,1	13,1	12,5	12,1	11,6	11,3	11,3
Grezia	16,0	14,7	13,6	15,5	14,6	14,8	14,5
Espainia	31,6	32,0	30,8	30,5	31,0	31,9	31,2
Frantzia	13,2	12,8	12,2	12,4	12,6	11,9	12,3
Italia	23,0	22,3	22,0	20,6	19,7	19,7	19,2
Txipre	17,3	20,6	18,2	14,9	12,5	13,7	11,7
Letonia	18,0	14,7	14,4	14,8	15,1	15,5	13,9
Lituania	11,4	10,5	8,1	8,2	7,4	7,4	8,7
Luxenburgo	12,3	12,7	13,3	14,0	12,5	13,4	7,7
Hungaria	12,0	12,6	12,5	12,6	11,4	11,7	11,2
Malta	49,9	42,1	38,9	39,9	38,3	39,0	36,8
Holanda	14,3	14,1	13,5	12,6	11,7	11,4	10,9
Austria	9,0	9,5	9,1	9,8	10,7	10,1	8,7
Polonia	6,0	5,6	5,3	5,4	5,0	5,0	5,3
Portugal	41,2	39,4	38,8	39,1	36,9	35,4	31,2
Errumania	22,5	22,4	19,6	17,9	17,3	15,9	16,6
Eslovenia	4,6	4,3	4,9	5,6	4,1	5,1	5,3
Eslovakia	5,3	6,8	6,3	6,6	6,5	6,0	4,9
Finlandia	10,1	10,0	10,3	9,7	9,1	9,8	9,9
Suedia	9,2	9,2	10,8	13,0	12,2	12,2	10,7
Erresuma Batua	12,1	12,1	11,6	11,3	16,6	17,0	15,7
EAE	15,8	13,4	14,5	15,6	15,4	14,7	—

Iturria: Labour Force Survey e ISEI-IVEI eta Las cifras de la Educación en España, MEC, Edición 2010.

Elren *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txostenak erakusten duenez, Estatu osoan, 2006-07 ikasturtean DBHn graduatutakoak 15 urteko biztanleen %69,3 ziren. Orokorrean, ikusi da Penintsulako ipar erdiko erkidegoetan ematen direla graduatze tasarik altuenak, %70etik gora eta, beraz, Estatuko batez bestekoaren gainetik. Horrela, beheranzko ordenan, honakoek dituzte batez bestekoaren gaineko tasak: EAEk, Asturiasek, Kantabriak, Nafarroak, Gaztela eta Leonek, Galiziak, Aragoik, Kataluniak eta Madrilgo Erkidegoak. Gainontzeko erkidegoen tasak Estatuko batez bestekoaren azpikoak dira.

EUSTATEN datuen arabera, 2008-09 ikasturtean, EAEn, derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo ikasketetan (Batxilergoa eta erdi mailako LH) graduatutako pertsonak, hurrenez hurren, 18 urteko (ikasketa horiek amaitzeko adin teorikoa) biztanleen %62,6 eta %19,5 dira.

Estatuan, 2006-07 ikasturteko datuek ere (Elren *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txosteneko datuak) alde handia islatzen dute Batxilergoan (%44,8) eta erdi mailako Prestakuntza Zikloetan (%16,6) graduatutako pertsona kopuruaren artean. Bientzat amaitzeko adin teorikoa 18 urtekoa da. EAEk dauka Batxilergoan graduatutako pertsona tasa gordinik altuena (%65,4), eta haren atzean daude Asturias (%58,6), Galizia (%56,0), Gaztela eta Leon (%53,5), Nafarroa (%52,9) eta Madril (%49,7); bestalde, erdi mailako Prestakuntza

Zikloetan, EAE (%20,9), Aragoi (%20,7), Kantabria (%20,2), Errioxa (%19,9) eta Asturias (%19,6) nabarmentzen dira.

Goi-mailako ikasketetako graduatze tasari dagokionez, goi-mailako teknikari titulua eskuratzeko bidea ematen duten unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak (goi-mailako Prestakuntza Zikloak), diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko tituluak ematen dituzten lehen zikloko unibertsitateko irakaskuntzak eta lizentziatu, ingeniari edo arkitekto tituluak ematen dituzten lehen eta bigarren zikloko ikasketak sartuta, EUSTATEN datuen arabera, honakoa ikusi da:

- 2008-09 ikasturtean, goi-mailako Prestakuntza Zikloetan graduatutakoak 20 urteko biztanleen %29,9 direla. Unibertsitateko irakaskuntzetan, diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko tituluak dituztenak 21 urteko biztanleen %24,4 direla, eta lizentziatu, arkitekto edo ingeniari tituluak lortzen dituztenak 23 urteko biztanleen %25.
- 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean, tasak jaitsi egin direla goi-mailako ikasketa teknikoaren kasuan, diplomatu, arkitekto tekniko eta ingeniari tekniko tituluak hazi direla, eta lizentziatu, arkitekto eta ingeniari tituluek egonkor iraun dutela.

2006-07 ikasturtean, Estatuan, Elren *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txosteneko datuen arabera, goi-mailako Prestakuntza Zikloetan graduatutakoak

I.1.34. Koadroa. Graduatze tasa gordina ikasketa maila, aldi eta sexuaren arabera. EAE

	2006-07				2007-08				2008-09			
	Guztira	Gizon.	Emak	Emak.-gizon aldea	Guztira	Gizon.	Emak	Emak.-gizon aldea	Guztira	Gizon.	Emak	Emak.-gizon aldea
DBH	83,0	78,4	87,8	9,4	83,0	78,0	88,2	10,2	84,3	80,9	87,9	7,0
Batxilergoa	63,5	54,9	72,7	17,8	63,6	54,9	72,8	17,9	62,6	55,3	70,2	14,9
Teknikaria	19,7	21,5	17,8	-3,7	19,7	21,5	17,9	-3,6	19,5	21,6	17,3	-4,3
Goi mailako tek.	32,1	34,6	29,3	-5,3	32,0	34,6	29,4	-5,2	29,9	31,0	28,8	-2,2
Diplomatua, arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa	22,4	17,6	27,6	10,0	22,4	17,5	27,6	10,1	24,4	20,0	28,9	8,9
Lizentziatua, arkitektoa eta ingeniaria	24,9	20,1	29,9	9,8	25,0	20,2	30,0	9,8	25,0	20,4	29,9	9,5

Iturria: EUSTAT.

20 urteko biztanleen %16,4 dira. Unibertsitateko irakaskuntzetan, diplomatura bukatutakoak 21 urteko biztanleen %16,7 dira eta lizentziatu titulua lortu dutenak 23 urteko biztanleen %18,2.

Goi-mailako teknikari tasarik altuenak EAEk (%32,8) eta Asturiasek (%22,5) dauzkate. Diplomatu tasarik altuenak Gaztela eta Leoni (%27,4) eta EAERI (%23,8) dagozkie.

Lizentziatu tasagatik Madril (%29,0) eta EAE (%26,5) nabarmendu dira.

Genero ikuspegitik, EUSTATen datuek agerian uzten dute, EAERako, DBHn, batxilergoan eta lehenengo edo bigarren zikloko unibertsitate tituluetan graduatze tasa handiagoa dela emakumeen artean gizonen artean baino. "Teknikari" eta "goi-mailako teknikari" tituluetan, ordea, emakume

I.1.35. Koadroa. Matematika, zientzia eta teknologian graduatutako pertsonak (ISCED 5-6) 20-29 urteko 1.000 biztanleko

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
27-EB	12,3	12,5	13,2	13,4	13,8	13,9
25-EB	:	:	13,4	13,6	14,0	13,9
Belgika	11,0	11,2	10,9	10,6	14,0	11,6
Bulgaria	8,3	8,5	8,6	8,5	8,4	9,1
Txekiar E.	6,4	7,4	8,2	10,0	12,0	15,0
Danimarka	12,5	13,8	14,7	13,8	16,4	15,5
Alemania	8,4	9,0	9,7	10,7	11,4	12,5
Estonia	8,8	8,9	12,1	11,2	13,3	11,4
Irlanda	24,2	23,1	24,5	21,4	18,7	19,5
Grezia	:	8,0	10,1	:	8,5	11,2
Espainia	12,6	12,5	11,8	11,5	11,2	11,6
Frantzia	22,2	:	22,8	20,7	20,8	20,2
Italia	9,1	10,8	11,6	12,1	12,1	11,3
Txipre	3,6	4,2	3,6	4,3	4,2	4,0
Letonia	8,6	9,4	9,8	8,9	9,2	8,8
Lituania	16,3	17,5	18,9	19,5	18,1	17,8
Luxenburgo	:	:	:	:	:	1,8
Hungaria	4,8	5,1	5,1	5,8	6,4	6,1
Malta	3,6	:	3,4	5,0	7,1	6,0
Holanda	7,3	7,9	8,6	9,0	8,9	8,8
Austria	8,2	8,7	9,8	10,8	11,1	11,8
Polonia	9,0	9,4	11,1	13,3	13,9	14,1
Portugal	8,2	11,0	12,0	12,6	18,1	20,7
Errumania	9,4	9,8	10,3	10,5	11,9	15,2
Eslovenia	8,7	9,3	9,8	9,5	9,8	10,7
Eslovakia	8,3	9,2	10,2	10,3	11,9	15,0
Finlandia	17,4	17,9	18,1	17,9	18,8	24,3
Suedia	13,9	15,9	14,4	15,1	13,6	13,2
Erresuma Batua	21,0	18,1	18,4	17,9	17,6	17,6
EAE	25,3	26,1	26,6	27,5	27,2	—
EAE emak.	14,8	15,1	15,4	16,5	15,8	
EAE gizon.	35,2	36,6	37,2	38,0	38,1	

Iturria: EUROSTAT eta ISEI-IVEI.

I.1.36. Koadroa. 25-64 Urte arteko biztanleen langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Lehen hezkuntza aurrekoa, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehen maila (ISCED 0, 1 eta 2)												
27-EB	:	:	10,8	9,6	10,1	10,2	10,6	10,4	10,0	9,2	9,8	12,8
25-EB	:	:	10,9	9,6	10,0	10,3	10,6	10,4	10,0	9,2	9,9	13,0
15-EB	12,1	11,2	10,2	8,7	9,1	9,4	9,7	9,6	9,4	8,8	9,0	12,8
Espainia	17,5	14,6	13,8	10,3	11,1	11,2	11,3	9,3 (b)	9,0	9,0	13,2	21,9
Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa eta hirugarren mailakoa ez den bigarren hezkuntza ondokoa (ISCED 3 eta 4)												
27-EB	:	:	8,1	7,8	8,2	8,2	8,4	8,0	7,2	6,0	5,6	7,1
25-EB	:	:	8,1	7,7	8,1	8,3	8,5	8,1	7,2	6,1	5,7	7,3
15-EB	8,4	7,7	6,9	6,2	6,5	7,0	7,2	7,0	6,6	5,8	5,6	7,1
Espainia	15,2	13,0	11,1	8,1	9,4	9,7	9,2	7,3 (b)	6,8	6,8	9,3	15,3
Hirugarren mailakoa (ISCED 5 eta 6)												
27-EB	:	:	4,5	4,0	4,3	4,6	4,7	4,5	4,1	3,6	3,4	4,5
25-EB	:	:	4,4	3,9	4,2	4,6	4,7	4,6	4,1	3,6	3,5	4,5
15-EB	6,8	5,2	4,4	3,9	4,2	4,6	4,7	4,6	4,2	3,7	3,6	4,6
Espainia	12,7	10,7	9,1	6,6	7,5	7,4	7,3	6,1	5,5	4,8	5,8	9,0

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey.

baino gizon gehiago graduatzen dira, eta lehenengoetan egoera zuzendu beharrean areagotzen ari dela ematen du, gizonezkoen aldeko aldea 2007-08 eta 2008-09 ikasturteen artean hazi baita.

Goi-mailako Zientzia, Matematika eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa

Zientzia berrikuntza eta ikerkuntza indartzeko premia dela-eta, EBk lehentasunezkoztat jo du Matematika, Zientzia eta Teknologian graduatu eta hirugarren mailako titulua (INSN 5 eta 6 zientzia, matematika eta teknologian) lortu duten 20 eta 29 urteko pertsonen tasa (biztanleria tasa 1.000 biztanleko) igotzea. Era berean, genero desoreka ikusita, zientzia eta teknologia ikasketetan gizon eta emakumeen titulazioak orakatzea ezarri da helburu.

2008an, EUROSTATen datuen arabera, Estatuan, Zientzia, Matematika eta Teknologian graduatutakoen tasa %11,6 zen, eta 27-EBn %13,9.

2006 arte izan duen etengabeko aurrerapenak buru jarri du EAE bai Estatuan bai Europan (%27,5) eta 2010erako ezarritako helburuak gainditu ditu. Arrazoiak, neurri handi

batean, EAEn goi-mailako Lanbide Heziketan (INSN 5B) dagoen pertsona kopurua da, Estatuko batez bestekoa halako hiru eta Nafarroakoa halako bi (%11,5 eta %6,1), azkena bigarren autonomia erkidegoa izanda goi-mailako Lanbide Heziketa indizeari dagokionez.

Aipatu denez, EUROSTATEk argitaratutako datuek, bestalde, agerian utzi dute tasa hori EBko herrietako altuenetakoa dela. Azpimarragarritzat jo dira Finlandia, 24,3rekin, Portugal, 20,7rekin, eta Frantzia, 20,2rekin.

Genero ikuspegitik, ISEI-IVEIren datuek erakusten dute arlo horietako graduatze tasa 22,3 puntu txikiagoa zela emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino (milako 15,8 eta 38,1, hurrenez hurren). Horrek emakumezkoen artean zientzia eta teknologia esparruetako graduatzea bultzatzeko premia adierazten du.

Helduen ikasketa maila

Helduen ikasketa maila neurri handi batean biztanleek hezkuntza sistemari buruz dauzkaten itxaropenak baldintzatuko dituen eragilea da, eta ondorioz hezkuntzaren plangintzan eta lan jardueran eragingo du. Gainera, zenbait

I.1.37. Koadroa. Langabezia tasaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera

	2005		2006		2007		2008		2009	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
GUZTIRA	9,2	7,3	8,5	7,0	8,3	6,1	11,3	6,4	18,0	11,0
Analfabetoak	21,6	18,8	18,4	16,7	25,3	25,0	30,1	13,6	43,8	18,2
Lehen Hezkuntza	10,5	9,8	10,1	7,9	1,0	6,8	16,7	8,1	26,0	20,8
Bigarren Hezkuntza. Lehenengo etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	11,1	8,9	10,5	9,6	10,2	8,1	14,3	9,3	23,5	16,1
Bigarren Hezkuntza. Bigarren etapa eta dagozkion prestakuntza eta laneratzea	8,8	7,7	8,2	6,7	8,1	7,3	10,7	7,8	17,2	11,2
Prestakuntza eta laneratzea bigarren hezkuntzako titulua izanda (2. etapa)	6,9	0,0	5,9	—	13,8	—	12,7	—	18,0	—
Goi-mailako hezkuntza, doktoretza izan ezik	6,9	6,0	6,1	5,8	5,4	4,5	6,4	4,2	9,9	7,5
Doktoretza	2,0	8,5	1,5	0,0	3,0	—	2,4	—	2,4	—

Iturria: EPA, INE.

ebaluazio azterlanek erakutsi dute lotura handia dagoela ikasketa maila horren eta ikasleen emaitzen artean. Irakaskuntza maila jakin bat osatu duten helduen portzentajea erabiltzen da neurtzeko.

Ieren 2009an *Sistema estatal de indicadores de educación. Edición 2010* txostenean jasotako datuen arabera, gutxienez bigarren hezkuntzako bigarren etapara iritsi diren 25 eta 64 urte arteko biztanleak (INSN 3: batxilergoko titulua, erdi mailako prestakuntza zikloak eta pareko tituluak edo parekagarriak dauzkaten biztanleak) %63,8 dira EAEn, 12,6 puntu Estatuko batez bestekoaren gainean (%51,2) eta 7,2 puntu ELGAko batez bestekoaren azpitik, %71koa baita.

Jarduera eta langabezia tasak hezkuntza mailaren arabera

Hezkuntza maila bakoitzeko pertsonen enplegu itxaropenak lan-merkatuaren premien eta prestakuntza maila bakoitzeko eskulan eskaintzaren arabera da, baina orokorrean, atxikitako taulako EUROSTATeko datuen azterketatik ondorioztatzen denez, langabezia tasa hezkuntza mailarekin batera jaisten da.

BAI-2009ko datuen azterketak (ELGAK eta EUROSTATek ez bezala, BAIk 16 urtetik aurrera ematen ditu datuak) ere erakusten du langabezia tasak behera egiten dutela prestakuntza mailak gora egin ahala, bai Espainian bai EAEn.

International Standard Classification of Education (ISCED 1997)	Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (CINE)
INCEk ISCED etik hartutako definizioak erabiliz egiten du adierazle hau	
Ikasketa mailak:	Ikasketa mailak:
— Pre-primary education: ISCED 0	— Lehen hezkuntza aurrekoa (INSN 0): Irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak eta irakurtzen eta idazten jakin arren gutxienez eskolako 5 urte bete ez duten biztanleak.
— Primary education: ISCED 1 First stage of basic education	— Lehen Hezkuntza (INSN 1): Gutxienez eskolako 5 urte, orokorrean 5 edo 6 urterekin hasi eta 11 edo 12rekin bukatuta, bete duten biztanleak, goragoko mailarik bete gabe.
— Lower secondary education: ISCED 2 Second stage of basic education	— Derrigorrezko bigarren hezkuntza-DBH (INSN 2)
— (Upper) secondary education ISCED 3 Post-Secondary non tertiary education ISCED 4	— Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa (INSN 3 eta 4): Batxilergoko titulua, titulu teknikoa (erdi mailako prestakuntza zikloak) eta pareko tituluak eta parekagarriak dauzkaten biztanleak.
— First stage of tertiary education ISCED 5 (not leading directly to an advanced research qualification)	— Goi-mailako hezkuntza (INSN 5): Goi-mailako teknikari (goi-mailako prestakuntza zikloak), unibertsitateko diplomatu, lizentziatu, doktore titulua eta pareko tituluak edo parekagarriak dauzkaten biztanleak.
— Second stage of tertiary education ISCED 6 (leading to an advanced research qualification)	— Goi-mailako hezkuntza (INSN 6): Diploma aurreratuak eta doktorego-tesiak

2. Produkzio egitura eta berrikuntza EAEn

2.1. Produkzio egitura

2.1.1. Enpresa egitura eta demografia

Enpresen egitura

EUSTATEko jarduera ekonomikoen direktorioaren azken datuetan, 2010. urteari buruzkoak, 191.057 establezimendu ageri dira, EAEn aktibo dauden 171.345 enpresei dagozkienak (lehen sektorekoak bazter utzita), 2009. urtean baino 11.036 establezimendu eta 10.939 enpresa gutxiago alegia.

Datu horiek EAEko enpresa kopuruaren beherakada erakusten dute (fabrikak, saltokiak, bulegoak, ...) 2010. urtean, %6koa. Lanpostuen beherakada %4,9koa izan da. Beraz, batezbestekoa 5,2 lanpostutik 5,3 lanpostura igaro da enpresa bakoitzeko.

EAEn egoitza mantentzen duten enpresa hauen portzentajea % 97,6,7an kokatzen da; kopuru absolutuetan jaitsi egiten dira bai EAEn egoitza dutenak, bai Estatuko gainerako tokietan sozietatearen egoitza dutenak. Ordea, kopuru erlatiboetan, murrizpena %6,03koa da EAEn dauden enpresetan. Egoitza beste erkidego batzuetan daukatenak %3,48 murriztu dira. Hau da, lehenengo kasuan balorazio negatiboa bikoiztu da bigarren kasuaren aldean.

Sektoreka, enpresen multzoen arabera, jaitsierak adar guztietan izan dira, salbu eta erauzketa industrietan, ur horniduran; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jardueretan; eta administrazio publikoan eta defentsan; nahitaezko gizarte segurantzaren. Jaitsierarik handienak hauek dira: Eraikuntza (-%12,2), garraioa eta biltegiatzea (-%11,1), higiezin jarduerak (-%7), informazioa eta komunikazioak (-%6,3) eta administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (-%5,9). Enpleguari dagokionez, murrizpenik handienak sektore hauetan gertatu dira: ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak (-%14,4), eraikuntza (-%10,7), administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (-%10,7), manufaktura industria (-%9,8) eta higiezin jarduerak (-%9,4). Gehikuntzak ostalaritzan (%16,5), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetan (%3,2), hezkuntzan (%1,2) eta arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueran (%0,5) izan dira.

Enpresaren batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,3 enplegukoa da. Administrazio publikoa eta defentsa, eta derrigorrezko gizarte segurantzaren alde batera utzita, enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak (25), erauzketa industriak (15,4), manufaktura industria (14,5), energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire egokituaren hornidura (14,2) eta hezkuntza (9,8).

Nortasun juridikoa aintzat hartuta eta tamaina txikieneko enpresak kanpoan utzita, hain zuzen ere titulartzat

I.2.1. Kuadroa. EAEko enpresak, sozietate egoitzaren arabera

	2007	2008	2009	2010
Guztira (EAE ETA ESTATUA)	180.475	184.290	182.284	171.345
EAE	176.167	179.953	178.062	167.270
ESTATUKO gainerakoak	4.308	4.337	4.222	4.075
EAE (%)	97,6	97,6	97,7	97,6
ESTATUKO gainerakoak (%)	2,4	2,4	2,3	2,4

Iturria: EUSTAT. JEGID.

pertsona fisiko bat dutenak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batez bestekoarekin), batez besteko tamaina 10,4 pertsonan kokatzen da (10,5 pertsonan aurreko urtean). Bertan, Sozietate Anonimoetako batez besteko lantaldea 30,7 langilekoa da (30,6 aurreko urtean) eta Kooperatibena, aldiz, 36,3 pertsonakoa (36,3 aurreko ekitaldian ere).

Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren analisiak (batez ere sozietate kooperatiboak eta lan-sozietateak) erakusten du sozietate kooperatiboko izaera juridikoa daukaten enpresen kopurua, 2010. urtean, EUSTATen arabera, 1.262 dela. 45.756 langile daukate; beraz, batez besteko plantilla 36,3 langilekoa da, lehenago ere esan dugunez. Gizarte Segurantzak, 2010eko irailaren 30ean, 1.484 enpresa kooperatibo zeuzkan erregistratuta (aurreko urtean baino 8 gehiago), 53.430 langile zeuzkatenak. Beraz, kooperatiba bakoitzeko 36 langile daude batez bestez (EUSTATen ratioaren antzekoa), estatuko handiena, eta estatuko batezbestekoa (12) hiru aldiz.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzako kooperatiben erregistroaren arabera, kooperatiben kopurua, 2010. urtean, 1.747¹ da. Haien artean, erdia baino gehiago (1.075) elkarlaneko

I.2.2. Kuadroa. Kooperatiba kopurua EAEn, motaren arabera sailkatuak (abenduaren 31n)

	2008	2009	2010	%	09-10 gehik.	aldak %
GUZTIRA	1.688	1.713	1.747	100,0	34	49,6
Nekazaritza	97	97	101	5,8	4	14,8
Kontsumoa	32	34	33	1,9	-1	17,9
Zerbitzuak eta beste	80	89	89	5,1	—	81,6
Elkarlana	1.083	1.072	1.075	61,5	3	36,6
Irakaskuntza	93	94	94	5,4	—	10,6
Etxebizitza	236	251	271	15,5	20	173,7
Kreditua	1	1	1	0,1	—	0,0
Mistoak	20	27	33	1,9	6	725,0
2. gradua edo handiagoa	46	48	50	2,9	2	85,2

Iturria: Kooperatiben erregistroa. Lan eta Gizarte Galetako Saila. Eusko Jaurlaritza.

¹ Ikusi Gizarte Segurantzaren eta EUSTATen datuekiko ezberdintasuna.

I.2.3. Kuadroa. EAE-ko enpresa eta enplegu kopuruaren bilakaera, jarduera adarraren (CNAE 09) eta nortasun juridikoaren arabera

	Enpresa kop.			Emplegua			Batez besteko enplegua		
	2009	2010	Aldak. (%)	2009	2010	Aldak. (%)	2009	2010	Aldea
GUZTIRA	182.284	171.345	-6,0	952.510	906.044	-4,9	5,2	5,3	0,1
Zehaztugabea									
B. Erauzketa industriak	36	38	5,6	591	586	-2,5	16,4	15,4	-1,0
C. Manufaktura industria	13.900	13.442	-3,3	212.580	194.547	-9,8	15,3	14,5	-0,8
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	176	167	-5,1	2.459	2.366	-3,0	14,0	14,2	0,2
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	225	234	4,0	6.236	5.854	-14,4	27,7	25,0	-2,7
F. Eraikuntza	32.632	28.667	-12,2	98.364	87.481	-10,9	3,0	3,1	0,0
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	41.951	39.715	-5,3	148.104	140.901	-3,6	3,5	3,5	0,0
H. Garraioa eta biltegiatzea.	13.718	12.192	-11,1	47.816	45.894	-4,5	3,5	3,8	0,3
I. Ostalaritza	14.273	13.843	-3,0	49.401	50.877	3,8	3,5	3,7	0,2
J. Informazioa eta Komunikazioak	3.235	3.032	-6,3	24.338	23.349	-3,5	7,5	7,7	0,2
K. Finantza jarduerak eta aseguru-entzakoak	2.906	2.801	-3,6	22.464	22.813	2,1	7,7	8,1	0,4
L. Higiezin jarduerak	5.897	5.483	-7,0	8.043	7.313	-9,4	1,4	1,3	0,0
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	21.377	20.820	-2,6	59.823	58.534	-1,3	2,8	2,8	0,0
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	7.324	6.890	-5,9	68.234	59.948	-10,7	9,3	8,7	-0,6
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurtasuna	434	444	2,3	44.312	73.547	1,6	102,1	165,6	63,5
P. Hezkuntza	3.810	3.670	-3,7	60.407	35.945	1,2	15,9	9,8	-6,1
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzu-entzakoak	7.509	7.458	-0,7	63.534	62.405	3,2	8,5	8,8	0,1
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	3.219	3.091	-4,0	13.348	11.311	0,5	4,1	4,3	0,2
S. Bestelako zerbitzuak	9.662	9.358	-3,1	22.456	22.373	-1,3	2,3	2,4	0,1
Pertsona fisikoak	105.702	97.262	-8,0	151.504	138.214	-8,8	1,4	1,4	0,0
Societate anonimoak	8.791	8.194	-6,8	268.970	251.214	-6,6	30,6	30,7	0,1
Erantzukizun mugatuko sozietateak	48.305	47.349	-2,0	294.182	277.586	-5,6	6,1	5,9	-0,2
Beste sozietate eta elkarte batzuk	18.503	17.494	-5,5	118.546	117.411	-1,0	6,4	6,7	0,3
Beste sozietate bat*	7.956	7.719	-3,0	49.526	49.887	0,7	6,2	6,5	0,2
Ondasun Erkidegoa	9.290	8.513	-8,4	23.340	21.768	-6,7	2,5	2,6	0,0
Sozietate kooperatiboak	1.257	1.262	0,4	45.680	45.756	0,2	36,3	36,3	0,0
Beste forma juridiko batzuk	983	1.046	6,4	119.308	121.619	1,9	121,4	116,3	-5,1
Tokiko korporazioak	387	380	-1,8	25.843	26.262	1,6	66,8	69,1	2,3
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundeak.	536	608	13,4	25.623	26.623	3,9	47,8	43,8	-4,0
Estatuko eta AAEEetako administrazioen organoak	60	58	-3,3	67.842	68.734	1,3	1.130,7	1.185,1	54,4

* (Erregular kolektiboa, komandita, elkarteak, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk) Iturria: EUSTAT, JEGID

kooperatibak dira; haietatik 203 (%18,9) kooperatiba txikiak dira (figura honek bere erregimena eta araudia dauka, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide). Elkarlaneko kooperatiba horiek 3 gehiago dira aurten, eta aurreko urtean 11 tan murriztu ziren. Hazkunderik handiena (2009. urtean bezala) etxebizitzako kooperatibetan (+20) eta mistoetan (+6) izan da.

Lan-sozietateei dagokienez², Gizarte Segurantzaren arabera, kotizatutako kopuru osoa 825 da. Hau da, 2009. urtean baino 55 gutxiago. 11.059 langile daukate (2009an baino %2,9 gutxiago). Batez besteko tamaina 13,4 langilekoa da sozietate bakoitzeko, estatuko batezbestekoa baino askozaz ere handiagoa (5,8 langile). Enpresen multzo osoari erreparatuz gero, eta analisi unitatetzat establezimendua hartzen badugu, ikusiko dugu %5,5eko murrizpena izan dutela (enplegua, esan

dugunez, %4,9 jaitsi da). 191.057 establezimendu eta 906.044 lanpostu daude. Establezimendu bakoitzeko batez besteko enplegua 4,7 da (aurreko urtean bezala). Establezimendu eta lanpostu kopuruetan gehien jaitsi diren sektoreak hauek dira: eraikuntza (-%11,9 establezimendutan eta -%10,9 lanpostutan), garraioa eta biltegiatzea (-%10,7 establezimendutan eta -%4,5 lanpostutan), higiezin jarduerak (-%6,9 establezimendutan eta -%9,4 lanpostutan), informazioa eta komunikazioak (-%6,6 establezimendutan eta -%3,5 lanpostutan) eta administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (-%6,4 establezimendutan eta -%10,7 lanpostutan).

Aurreko urteetan bezala, enplegu tamainaren arabera egitura aldatu gabe mantendu da. 2.338 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 1,2ak hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 336.062 enplegu, guztien %

² Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da.

I.2.4. Koadroa. Establezimendu kopuruaren eta enpleguaren bilakaera EAE-n

	Establezimenduak			Enplegua			Batez besteko enplegua	
	2009	2010	Aldakuntza (%)	2008	2009	Aldakuntza (%)	2009	2010
GUZTIRA	202.093	191.057	-5,5	952.510	906.044	-4,9	4,7	4,7
Zehaztugabea								
B. Erauzketa industriak	45	46	2,2	591	576	-2,5	13,1	12,5
C. Manufaktura industria	14.360	13.881	-3,3	212.580	191.816	-9,8	14,8	13,8
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	206	200	-2,9	2.459	2.385	-3,0	11,9	11,9
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	273	277	1,5	6.236	5.335	-14,4	22,8	19,3
F. Eraikuntza	33.679	29.656	-11,9	98.364	87.597	-10,9	2,9	3,0
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	49.268	47.012	-4,6	148.104	142.731	-3,6	3,0	3,0
H. Garraioa eta biltegiatzea.	14.403	12.866	-10,7	47.816	45.650	-4,5	3,3	3,5
I. Ostalaritza	15.167	14.738	-2,8	49.401	51.301	3,8	3,3	3,5
J. Informazioa eta Komunikazioak	3.538	3.304	-6,6	24.338	23.490	-3,5	6,9	7,1
K. Finantza jarduerak eta aseguru-eta-zerbitzuak	5.239	5.137	-1,9	22.464	21.983	-2,1	4,3	4,3
L. Higiezin jarduerak	6.134	5.708	-6,9	8.043	7.285	-9,4	1,3	1,3
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	22.180	21.587	-2,7	59.823	59.024	-1,3	2,7	2,7
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	8.339	7.805	-6,4	68.234	60.963	-10,7	8,2	7,8
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzak	986	1.153	16,9	44.312	43.617	-1,6	44,9	37,8
P. Hezkuntza	5.323	5.259	-1,2	60.407	61.161	1,2	11,3	11,6
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzu-eta-zerbitzuak	8.901	8.860	-0,5	63.534	65.562	3,2	7,1	7,4
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	3.672	3.542	-3,5	13.348	13.409	0,5	3,6	3,8
S. Bestelako zerbitzuak	10.380	10.026	-3,4	22.456	22.159	-1	2,2	2,2

Iturria: EUSTAT, JEGID

I.2.5. Koadroa. Establezimenduen egitura tamaina gorabehera

	2008		2009		2010	
	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua
Guztira	203.911	942.479	202.093	952.510	191.057	906.044
≤ 2	152.518	183.220	150.438	184.515	141.607	172.920
3-5	27.371	100.268	27.576	101.164	26.252	96.187
6-9	9.521	68.222	9.631	69.047	9.449	67.908
10-14	4.669	54.513	4.618	53.884	4.277	50.050
15-19	2.520	41.894	2.510	41.823	2.490	41.657
20-49	4.889	147.714	4.883	146.791	4.644	140.720
50-99	1.452	100.078	1.455	100.396	1.411	97.884
100-249	713	107.055	719	108.057	687	103.476
250-499	179	61.883	178	60.562	159	55.575
≥ 500	79	77.632	85	86.271	81	79.667

Iturria: EUSTAT, JEGID

37,2, zenbatuz. Aldiz, 141.607 establezimendu, kopuru osoaren % 74,1, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 19,1a bakarrik hartzen dute.

Enpresen demografia

Establezimendu kopuruan izandako murrizpenaren arrazoiak 14.346 establezimendu berriak jarduerari ekitea izan da, 30.830 pertsonaren enpleguarekin, eta, halaber, 25.382 establezimenduk jarduera bertan behera utzi izana, izan ere, azken horietan 49.977 pertsonak galdu zuen enplegua. Gauzak horrela, sartzen diren eta irteten

diren establezimenduen arteko enpleguaren saldo garbia -19.147koa da. 2010. urtean jarduera mantendu duten establezimenduek enplegua murriztu dute, 27.319 langiletan. Horren emaitza izan da 46.466 lanpostu galdu direla.

Establezimendu berrien batez besteko tamaina (sarrerak/altak) jardueratik irteten direnek/bajek ageri dutena baino handiagoa da (2,2koa establezimendu bakoitzeko zegoen 2aren aldean).

Establezimenduen txandaketa handiena eraikuntzan, handizkako eta txikizkako komertzioan, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketan; eta garraioan eta biltegiatzean izaten dira. Txandaketa osoaren %70,3 dira guztira.

Txandakatze handieneko estratuak, establezimenduei dagokienez, tamaina txikieneko dagozkie: 2 enplegu edo gutxiago establezimenduei.

2.1.2. Nekazaritzaren eta Arrantzaren sektorea

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera (2011ko otsailean argitaratu zirenak), 2010. urtean lehen sektoreak EAEko eguneko prezioen BEGaren % 0,6 bakarrik hartzen zuen eta enplegu osoaren % 2,1. Horrela, lehen sektorearen balio erantsia 367.865 milioi eurora iritsi zen eta enplegua 20.852 lanpostura.

Beste era batera esanda, 2009. eta 2010. urteen artean, lehen sektoreko BEGa murriztu egin da EAEn % 2,8 kopuru errealean, eta enplegua % 1,2 erori da.

I.2.6. Koadroa. Enplegua areagotzeari/murritzeari egindako ekarpena, jarduera adarra eta enplegu estratua gorabehera. Txandatxea. 2010

	Establezimenduak					Enplegua				
	Aldakuntza osoa (altak-bajak) + mantentzen direnak	Ekarpena (% bertikala)	Establezimenduen aldakuntza, hauen arabera			Aldakuntza osoa (altak-bajak) + mantentzen direnak	Ekarpena (% bertikala)	Enpleguaren aldakuntza, hauen arabera		
			Altak	Daudenak	Bajak			Altak	Daudenak	Bajak
2008an guztira	4.601		17.398	0	12.797	23.109		38.163	14.453	29.507
2009an guztira	-1.794		13.771	0	15.565	10.056		30.780	9.004	29.728
2010ean guztira	-11.036		14.346	0	25.382	-46.466		30.830	-27.319	49.977
B. Erauzketa industriak	1	0,0	2	1	2	-15	0,0	3	-12	6
C. Manufakturen industria	-479	4,3	1.054	-26	1.507	-20.764	44,7	2.488	-18.517	4.735
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	-6	0,1	10	-4	12	-74	0,2	10	-67	17
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	4	0,0	25	-1	20	-901	1,9	108	-918	91
F. Eraikuntza	-4.023	36,5	2.859	20	6.902	-10.767	23,2	5.014	-4.965	10.816
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	-2.256	20,4	2.322	75	4.653	-5.373	11,6	4.600	-2.120	7.853
H. Garraioa eta biltegiak.	-1.537	13,9	1.084	-4	2.617	-2.166	4,7	2.491	-393	4.264
I. Ostalaritza	-429	3,9	650	8	1.087	1.900	-4,1	2.232	1.717	2.049
J. Informazioa eta Komunikazioak	-234	2,1	426	-92	568	-848	1,8	1.532	-527	1.853
K. Finantza jarduerak eta aseguru-erak	-102	0,9	365	-9	458	-481	1,0	718	-308	891
L. Higiezin jarduerak	-426	3,9	363	0	789	-758	1,6	429	-228	959
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-593	5,4	2.008	49	2.650	-799	1,7	3.300	-143	3.956
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-534	4,8	787	-17	1.304	-7.271	15,6	1.640	-3.188	5.723
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzak	167	-1,5	203	4	40	-695	1,5	798	182	1.675
P. Hezkuntza	-64	0,6	506	25	595	754	-1,6	1.593	794	1.633
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzu-erak	-41	0,4	702	12	755	2.028	-4,4	2.141	1.360	1.473
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	-130	1,2	359	0	489	61	-0,1	735	162	836
S. Bestelako zerbitzuak	-354	3,2	621	-41	934	-297	0,6	998	-148	1.147
≤ 2	-8.831	80,7	12.730	1.254	22.815	-11.595	25,0	14.855	-846	25.604
3-5	-1.324	12,1	968	-701	1.591	-4.977	10,7	3.497	-2.684	5.790
6-9	-182	1,7	292	-12	462	-1.139	2,5	2.128	48	3.315
10-14	-341	3,1	127	-276	192	-3.834	8,3	1.437	-3.034	2.237
15-19	-20	0,2	69	3	92	-166	0,4	1.149	189	1.504
20-49	-239	2,2	121	-187	173	-6.071	13,1	3.592	-4.697	4.966
50-99	-44	0,4	27	-32	39	-2.512	5,4	1.830	-1.728	2.614
100-249	-32	0,3	10	-29	13	-4.581	9,9	1.260	-3.815	2.026
250-499	-19	0,2	1	-15	5	-4.987		x	x	1.921
≥ 500	-4		1	-5	—	-6.604		x	x	—

(x) Konfidentzialtasun arrazoiak direla-eta babestuta dagoen laukia. Iturria: EUSTAT. JEGID

I.2.7. Koadroa. Nekazaritzako makromagnitudeen bilakaera (euroak milaka)

	2007	2008	2009	2010
NEKAZARITZAKO AZKEN PRODUKZIOA	517.060,6	495.043,4	407.125,1	403.984,9
Nekazaritzako Azken Produkzioa.	266.825,6	275.127,3	230.731,2	230.377,5
Zerealak	37.034,4	35.493,0	19.860,0	35.919,4
Lekadunak	3.303,8	2.865,6	3.178,8	3.491,1
Patata	15.908,1	8.861,8	8.959,1	11.064,6
Erremolatxa	6.111,2	5.142,1	5.777,0	4.770,4
Industriako beste batzuk	1.164,0	303,8	766,6	611,5
Barazkiak	67.596,1	67.822,7	69.225,9	70.966,4
Frutak	11.579,6	13.550,9	13.297,0	14.973,1
Mahastia	96.202,9	114.242,2	83.060,8	60.979,3
Bestelakoak	27.925,6	26.845,3	26.606,0	27.601,7
Abeltzaintzako azken ekoizpena	172.233,2	173.189,5	148.447,3	140.250,9
Behi animaliak/haragia	36.497,3	34.107,0	32.408,4	32.198,2
Ardi-ahuntz anim./haragia	6.632,6	6.461,1	7.059,6	6.291,6
Txerri animaliak/haragia	7.812,9	7.099,2	4.906,1	2.796,6
Behi-esnea	78.234,2	81.672,6	60.818,6	58.573,8
Arrautzak	29.419,3	27.872,5	27.286,2	25.074,4
Bestelakoak	13.636,9	15.977,1	15.968,4	15.316,0
Basogintzako azken ekoizpena	59.794,6	28.708,3	12.442,5	17.795,5
Insignis Pinuaren egurra	48.771,1	19.926,9	6.781,3	12.776,6
Bestelakoak	11.023,5	8.781,4	5.661,3	5.018,9
Bestelako ekoizpenak	18.207,2	18.018,3	15.504,0	15.561,0
BITARTEKO KONTSUMOAK	181.115,4	212.726,6	190.304,8	183.202,2
DIRU-LAGUNTZAK	64.489,5	68.968,2	72.048,3	70.414,6
AMORTIZAZIOAK	53.262,0	56.562,8	54.110,4	54.694,2
BEG bbs	335.945,2	282.316,9	216.820,3	220.782,7
NEKAZARITZAKO ERRENTA (BEG)	347.172,7	297.722,3	234.758,1	236.503,0

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Baso ustiapena

Nekazaritzako errenta nominala edo balio korrontekoa (BEG). Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako sektoreetako errenta, aurrerapen honetan zenbatetsitakoa, %0,7 gehitu da eta, ondorioz, haren zenbatekoa 236,5 milioi eurotan kokatzen da.

Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Azken Ekoizpenaren balioaren gutxikuntza Basogintzako Azken Ekoizpenaren balioaren berreskurapenak konpentsatu du. Azken hori %43 gehitu da; horrenbestez, Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Basogintzako Ekoizpen osoa ia-ia iraunkor mantendu da (%0,8 bakarrik murriztu da). Bestalde, bitarteko kontsumoen murrizpena handiagoa izan da diru-laguntzen murrizpena eta amortizazioen gehikuntza baino; beraz, nekazaritzako errenta aipatutako %0,7 gehitu da.

Nekazaritzako Azken Produkzioa (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, basogintzakoa eta beste produkzio batzuk). Nekazaritzaren Azken Produkzioaren balioa eguneko prezioetan (404 milioi euro) 2009. urtean jasotakoa baino %0,8 txikiagoa da. Ekoizpen terminoetan %4,3ko gehikuntza egon da eta prezioen terminoan %4,9ko gutxikuntza. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpena mantendu dira eta basogintzakoa suspertu da. Eguneke prezioetan, azken urte honetako eboluzioak nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenaren murrizpena baso ekoizpenaren nolabaiteko suspertzea erakusten ditu.

Nekazaritzako Azken Produkzioa. Nekazaritzako azken ekoizpenaren balioa 2009. urtekoa baino %0,2 txikiagoa izan da. Murrizpen hori prezioak %5 jaisteagatik gertatu da. Zenbatekoak, aldiz, % 5,1 gehitu dira.

Daukaten garrantziarengatik, merkaturatutako ardoaren prezioaren murrizpena (%27an), zerealaren ekoizpenaren igoera (%51), %15eko prezio gehikuntzarekin, eta piper berdearen prezioaren igoera nabarmendu behar ditugu.

Abeltzaintzako Azken Produkzioa. Abeltzaintzako azken produkzioaren balioa murriztu egin da 2009. urtean izandakoaren aldean % 5,5. Azken balioko murrizpen horren arrazoiak produkzioan izandako % 4,5eko murrizpena eta prezioetan izandako % 1,1eko txikitzea izan dira. Ahuntzean izan ezik, gainerakoetan abeltzaintzako errolden beherakadak jarraitu du. Behi-esnearen ekoizpenak ere murrizten jarraitu du, aurtan %3,1. Prezioa, aldiz, %0,6 murriztu da. Arrautzen prezioa ere %3,3 jaitsi da eta esneko arkumearena %3,3.

Ekonomikoki garrantzitsuenak diren ekoizpen aldakuntzak behi-esnearena (%3,1) eta txerrikiarena (%22) dira.

Basogintzako Azken Produkzioa. 2010. urtean mozketa lizentziak suspertu dira, %100eko gehikuntzarekin. Prezioak, bestalde, beren maila historikoki txikietan mantendu dira. 2010ean %29ko jaitsiera berria izan dute. Ekoizpen eta prezioen bi eboluzio horien ondorioz, Basogintzako Azken Ekoizpenaren balioa %43 gehitu da. Prezioak radiata pinuan murriztu egin dira urtean, batez beste, % 33. Eukaliptoan prezioei eutsi zaie, eta beste zur batzuetan jaitsi egin dira. Esan behar dugu zuraren prezioa 2001. urteaz geroztik etengabe ari dela jaisten.

Bitarteko kontsumoak.

Gastuen balioa 2009. urtean erregistratutakoa baino %3,7 txikiagoa izan da. Murrizpen hori kontsumitutako zenbatekoaren multzoaren %0,5eko gehikuntzatik eta batez besteko prezioen gutxikuntzatik (%4,3) dator.

Kopuruei dagokienez, kontsumitutako kopuruak honela aldatu dira: ongarrienak %5 gehitu dira eta haziena %13,

I.2.8. Koadroa. Nekazaritzako errenta errearen bilakaera (deflatatua) (aldakuntza tasak) 2009-2010

	EAE	EB27
Nekazaritza errenta (termino errealean)	-3	9,9
Nekazaritzako eta abeltzaintzako azken ekoizpena	-3,7	4,3
Nekazaritzako azken ekoizpena	-1,7	6,3
Abeltzaintzako azken ekoizpena	-7,0	2,4
Bitarteko kontsumoak	-5,4	0,8
Nekazaritzako lan-eskuaren gehikuntza	-2,7	-2,2
Nekazaritza errenta / okupatua	-0,3	12,3

Iturria: IKT, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.

eta produktu zoosanitarioen kontsumitutako kopuruak %4 murriztu dira, abeltzaintzako errolden gutxikuntzaren ondorioz. Prezioei dagokienez, gasolioarena gehitu da (%18), pentsuena ere bai (%3,4), eta ongarriena murriztu da (-%23).

Diru-laguntzak ustiapenerako. 2010. urtean zehar, ustiapenerako diru-laguntza osoak %2,3 jaitsi dira; nekazaritzako errenta osoaren % 30 dira (2009an %31 ziren).

Amortizazioak. %1 gehitu dira, 54,7 milioietaraino.

Nekazaritzako errenta balio errealetan (deflatatuta).

Eurostatek estatuen arteko kontuen aurrerapenak erkatzen ditu, inflazioa kenduz, herrialde bakoitzean ezberdina baita. Inflazioa kenduz gero, EAEko nekazaritzako errenta erreala termino errealetan (gure erkidegoan BPGaren %1,56ko deflatorearekin), %3,0 murriztu da.

EAEko nekazaritzako biztanleria okupatuaren zenbatespenek erakusten dute %2,7 murriztu dela. Beraz, okupatu bakoitzeko nekazaritza errenta erreala %0,3 murriztu da EAEn eta %12,3 EB-an.

Arrantza

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren estatistika organoaren datuen arabera, 2010. urtean, antxoaren arrantza berriro baimendu ondoren (bost urteko debekualdiaren ostean) eta Atlantikoaren ipar-mendebalean bakailaoarena baimendu ondoren, euskal arrantza-flotak defizita izaten jarraitzen du, bai ontzi kopuruan bai langileetan.

Aitzitik, baxurako arrantza artisanalaren diru-sarrerek gehikuntza txiki bat izan dute, antxoaren arrantzari esker. Horren ondorioz, flota honentzat oso garrantzitsuak diren espezieetako batzuen (berdela edo atuna adibidez) harrapaketa onargarrien kopuru osoaren murrizpenak sortutako presioa apur bat leundu da.

Euskal arrantza-flota osatzen duten ontzien kopuruaren eboluzioak behera egiten segitzen du. 2008. urtetik aurrera beherakada hori moteltzen hasi zen, baina gaur egun joera


ezberdina da flota hori osatzen duten azpisektoreentzat. Alturako arrantza freskoa da ontzi gehien galdu duen azpisektorea. Baxurak ere emaitza negatiboa izan du 2009. urtearen aldean. Halere, aurreko azpisektorearen aldean, murrizpena leunagoa da. Aurkakoa gertatzen da altura handiko beste bi azpisektoreekin. Bakailao-ontzien kasuan, ontzi kopuruak gora egin du. Atun-ontzi izoztaileen kasuan, aurreko urteko kopurua mantendu da. 2010ean ontzi kopurua 7 ontzi gutxiagokoa izan da (baxuran eta alturako arrantza freskoan 4 gutxiago eta bat gehiago bakailao-ontzietan). Beraz, gutxikuntza %2,6koa izan da. Urtearen amaieran 260 arrantza-ontzi izan dira guztira.

Ontzi-galera horren isla sektoreko langile kopuruaren jaitsiera izan da. Itsasoko tripulazioa kontuan hartzen badugu, 2010ean 2.533 langile egon dira. Kopuru hori 2009koa baino %1,6 txikiagoa da.

Baxurako arrantzak arte tradizionalak ditu ezaugarri. Flotarik ugariena da; 201 ontzi ditu, hau da, euskal flotaren %77,3. Gainera, lanposturik gehien duen azpisektorea da. Itsasoan 1.389 lanpostu sortzen ditu (6,9 pertsona ontzi bakoitzeko), tripulazio osoaren %54,8arekin.


Altura handiko flota hiru azpisektoretan antolatzen da. Alturako arrantza freskoan, Ondarroako eta Pasaiako portuetan finkatuta dagoena, daude ontzirik txikiak. Batez bestez, ontziek 11,8 langile daramatzate. Hauxe da altura handiko azpisektoreetatik ontziak galdu dituen bakarra, nahiz eta flota osoaren ontzien %10,8 dauzkan (ontzi kopuruan bigarrena) eta langile kopuruaren %13,1. Bakailao-ontziek azken urteetan Ternuan bakailao-arrantzaren murrizpenak eta halibut beltzaren urritasunak (2004. urtetik berreskuratzeko plan batean dagoena) neurri handi batean pairatu dituzte. Baina 2010. urtean mugapen horiek leuntzen zirela ikusi dute. Horrela, estatuko flotak Atlantikoko ipar-mendebaldeko urtean %180 bakailao gehiago harrapatu du, eta halibut beltzaren TAC gehitu zaio, 4.396 tonatatik 4.721 tonatara. Pasaiako portuaren ezaugarri dira, eta bertako 6 unitateak euskal flota osoaren %2,3 dira, tripulazioaren %6 hartzen dutela (153 langile

I.2.1. Grafikoa. EAEko arrantza flotaren bilakaera




Iturria: Estatistika organoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

I.2.2. Grafikoa. EAEko ontzietan lan egiten duen pertsona kopuruaren bilakaera



Iturria: Estatistika organoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

I.2.3. Grafikoa. EAEn baxuran harrapatutakoaren kopurua eta balioa



Iturria: Estatistika organoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

itsasoan). Atun-ontzi izoztaileen atzetik, tamaina, gaitasun eta potentzia handienak dituzten ontziak dira. Batez bestez, ontziek 25,5 langile daramatzate.

Atun-ontzi izoztaileen azpisektoreak, Bermeoko berezkoa denak, 25 ontzi dauzka (flota osoaren %9,6), eta 660 pertsonako tripulazioa (euskal arrantza flotako tripulazio osoaren %26). Ontzirik handienak dauzka. Ontzi bakoitzak 26,4 langile dauzka batez bestez. Azpisektore honek 2009. urteko ontzi kopurua mantendu du, baina langile kopurua gehitu du. 2010. urtean zehar piraten mehatxua jasan du Indiar Ozeanoan. Egoeraren larriaren larriaz, estatuko gobernuak errege dekretu bat onartu zuen, segurtasun pribatu kontratatzeak dakartzan gastuetarako laguntzak arautzeko.

EAEko baxurako lonjetan 2010. urteetan egindako enkanteak guztira 53.353 tona izan dira (2009an baino %15 gutxiago). Enkantean jarritako kopuruen gutxikuntzaren kausa nagusietako bat berdelarentzat ezarritako TACaren murrizpena izan da. Baina ezaugarri positibo gisa antxoaren arrantzaldia berriro irekitzea dago. Bost urteko debekualdiaren ostean guztira 4.740 tona harrapatu dira.

Enkantean jarritako kopuruak gehitu dituzten espezierik komertzialenen artean txitxarroa nabarmendu behar dugu:

10.483 tona, 2009ko 1.728 tonen aldean gehikuntza handia. Hegaluzeak ere enkantean jarritako kopuruen gehikuntza izan du, guztira 5.248 tona (2009an baino %25,2 gehiago). Gainerako espezieetan, barietate ez hain komertzialak dituztenak, 9.488 tona izan dira (%56,1 gehiago 2009ko datuetan baino).

Kontrako egoeran dago bisigua. Tona bat jarri da enkantean, 2009ko 14 tonen aldean (-%96,4). Berdelak, baimendutako TAC murriztu ondoren, 18.370 tona izan ditu (2009an baino %60,2 gutxiago). Atunaren 529 tonak aurreko urtean baino %34,5 gutxiago dira. Azkenik, legatzak (barnean merlenka eta tarteko legatza hartzen dituenak) 3.494 tona izan ditu enkantean (%6,6 gutxiago). EAEko baxurako lonjetan egindako enkanteek ekarri dituzten diru-sarrerak dagokienez, 65,3 milioi euro bildu dira. 2009koa baino %19,9 gehiago alegia (54,5 milioi). Antxoaren enkanteetan lortutako diru-sarrerak, berdelaren prezioaren gehikuntza (eskaintzaren gutxikuntzaren ondorioz) eta hegaluzearen eta txitxarroaren diru-sarreraren gehikuntza izan dira 2010ean diru-sarrerak gehitzeko arrazoi nagusiak.

Aitzitik badaude beste espezie batzuk 2009. urtearen aldean galerak izan dituztenak, adibidez bisigua, 2009an baino %91,6 sarrera gutxiago izan dituenak (0,01 milioi euro). Berdin gertatzen da atunarekin: 2,9 milioi euro bildu dituen arren, %28,4ko gutxikuntza izan du. Berdelak, enkantean jarritako kopuruak nahikotxo murriztu zaizkionez, 2009. urtean baino %26,9 gutxiago bildu du (9 milioi euro). Azkenik, legatzaren taldeak 7,3 milioi euro jaso ditu (-%23,4).

2010. urtean EAEko baxurako lonjetan enkantean jarri diren arrain guztien batez besteko prezioa 1,22 euro izan da kilo; 2009koa baino %41,1 gehiago alegia. 2009an izandako beherakadaren ondoren (2008an baino %29 gutxiago), 2008ko maila berean dago.

Prezioaren gehikuntza eskaintako kopurua asko murriztu zaien espezieetan gertatu da, adibidez bisiguan, kilo 19,8 euroko prezioan izan duena, 2009an baino askozaz ere garestiago (%134,8 gehiago), berdelean, 0,5 euroan kilo (+%83,8) edo atunean, 5,5 euroan kilo (+%9,3).

Prezioa jaistea ezaugarri duten espezieak hauek dira: txitxarroa (0,4 euro kilo, 2009an baino %43,3 gutxiago); gainerako espezieen atala 1,1 euroan ordaindu da kilo (-%34,8 euro kilo); legatza, tarteko legatza eta merlenka 2,1 euroan kilo (-%1), espezie hauetan inportatutako produktuaren eskaintzak eragin handia baitu, hemengo produktua baino askozaz ere merkeagoa izaki; eta azkenik

I.2.9. Koadroa. EAEko baxurako lonjetan enkantean jarritako arrainak

	2008			2009			2010			
	Q	V	P	Q	V	P	Q	V	%	P
Antxo	0	0,0	0,0	0	0,0		4.740	12,9	19,7	2,7
Atuna	1.254	5,0	4,0	807	4,1	5,1	529	2,9	4,5	5,5
Hegaluzea	6.005	19,4	3,2	4.191	17,0	4,1	5.248	18,7	28,6	3,6
Txitxarroa	4.570	2,5	0,5	1.728	1,2	0,7	10.483	4,1	6,3	0,4
Berdela	26.004	8,7	0,3	46.214	12,2	0,3	18.370	9,0	13,7	0,5
Legatza*	3.780	13,7	3,6	3.741	9,6	2,6	3.494	7,3	11,2	2,1
Bisigua	20.550	0,17	8,3	14	0,1	8,4	1	0,01	0,0	19,7
Gainerako esp.	11.447	15,3	1,3	6.078	10,3	1,7	9.488	10,4	16,0	1,1
Guztira	53.082	64,8	1,2	62.772	54,5	0,9	53.353	65,3	100,0	1,2

K: Kopurua tonatan; B: balioa milioika eurotan; P: prezioa, /kiloa.

(*) Tarteko legatza eta merlenka barne.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

I.2.10. Koadroa. Enkanteen kopuruak eta balioak EAEko baxurako lonjetan, portuz portu (2009-2010)

Portua	2009		2010		% Aldakuntza	
	Kopuruak, Tm	Balioa, milaka euro	Kopuruak, Tm	Balioa, milaka euro	Kopuruak	Balioa
Armintza	3,96	13,37	4,58	23,71	15,66%	77,34%
Bermeo	7.374,86	4.737,93	4.775,13	5.983,39	-35,25%	26,29%
Elantxobe	8,93	12,38	9,08	12,40	1,68%	0,16%
Lekeitio	2.243,32	602,25	1.589,10	980,87	-29,16%	62,87%
Mundaka	6,95	49,00	8,98	58,26	29,21%	18,90%
Ondarroa	14.894,07	8.143,99	16.996,15	13.827,28	14,11%	69,79%
Santurtzi	9,97	48,29	8,85	42,39	-11,23%	-12,22%
BIZKAIA guztira	24.542,06	13.607,21	23.391,87	20.928,30	-4,69%	53,80%
Donostia	1.147,16	1.218,54	1.100,15	1.444,79	-4,10%	18,57%
Getaria	20.573,10	15.231,78	14.024,65	18.870,10	-31,83%	23,89%
Hondarribia	9.679,01	8.572,43	8.300,91	9.888,65	-14,24%	15,35%
Mutriku	651,36	731,50	63,93	67,34	-90,19%	-90,79%
Pasaia	6.179,20	15.103,03	6.471,45	14.122,20	4,73%	-6,49%
GIPUZKOA guztira	38.229,83	40.857,28	29.961,09	44.393,08	-21,63%	8,65%
GUZTIRA	62.771,89	54.464,49	53.352,96	65.321,38	-15,01%	19,93%

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Estatistika Organoa. Eusko Jaurlaritza.

I.2.11. Koadroa. Europako batzordeak espainiari esleitutako arrantza kuotak (tac) (tonatan)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2008-09	2009-10	2010-11
Atlantikoko bakailaoa. I, II	10.683	10.364	9.294	2.299	11.589	12.857	13.301	404,09	10,94	3,45
Bakailaoa OPANO 3M						796	1448		100	81,91
Abadira	899	835	835	835	835	779	764	0	-6,71	-1,93
Brosmioa V,VI,VII	29	29	24	21	21	14	14	0	-33,33	0,00
Fletan beltza (NAFO)	5.218	5.080	4.403	4.396,50	4.396,50	4.396,50	4.722,00	0	0	7,40
Fletan beltza IIa,IV,VI	10	8	6	6	4	3	2	-33,33	-25	-33,33
Sakoneko krabarroka	3.326	3.113	2.848	2.099	2.099	2.848	2.099	0	35,68	-26,30
Auenboloa Vb,VI,VII	85	85	74	74	63	54	48	-14,86	-14,29	-11,11
Auenboloa VII,IX,X,XII,XIV	5165	5.165	4.391	4.391	3.734	3.734	3.286	-14,96	0	-12,00
Marrazoa					131	0	0		-100	-100,00
Berruenda handia	4.124	4.124	3.229	2.969	2.969	2.156	2.150	0	-27,38	-0,28
Berruenda handi urdina	104	104	83	67	67	57	835	0	-14,93	1.364,91
Liba. VIII	1.440	1.440	1.440	1.440	1.440	1.296	1.270	0	-10	-2,01
Legatza VI,VII,XII,XIV	7.042	7.257	8.708	5.785	8.513	9.109	9.109	47,16	7	0,00
Legatza VIIIa,b,d,e	4.902	5.052	6.062	5.785	5.926	6.341	6.341	2,44	7	0,00
Legatza VIIIc,IX,X, COPACE	3.819	4.263	3.922	1.320	5.186	5.952	6.844	292,88	17,77	14,99
Mielga pikarta					38	0	0		-100	0,00
Mihi-arraina	467	467	468	467	468	11	413	0,21	-97,65	3.654,55
Zapoa	3.662	3.917	4.064	4.064	3.918	4.034	4.024	-3,59	2,96	-0,25
Arraia	6561	6.561	6.561	6.561	10.268	8.981	8.509	56,50	-12,53	-5,26
Oilarra VIIIa,b,d,e	1.238	1.176	1.176	1.176	1.176	1.176	999	0	0	-15,05
Oilarra VIIIc,IX,X,COPACE	1.233	1.171	1.330	1.320	1.320	1.188	1.010	0	-10	-14,98
Gainerako oilarrak	6.106	5.817	5.817	5.785	5.808	5.840	5.875	0,40	0,55	0,60
Platuxa leun europarra	75	75	75	75	75	67	66	0	-10,67	-1,49
Zigala	1.676	1.830	2.043	2.031	1.965	1.794	1.731	-3,25	-8,70	-3,51
Bokarta VIII	27.000	4.500	0	0	0	6.300	14.040		100	122,86
Bokarta IX,X, COPACE	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.826	3.635	0	0	-4,99
Hegalaburra (E. Atlantikoa.-Mediterraneo)	6.277	6.266	3.133	5.379	4.116,50	2.526,06	2.411,01	-23,47	-38,64	-4,55
Ezpata-arraina	13.137	10.988	12.002	11.099	11.958,90	13.169,60	12.151,40	7,75	10,12	-7,73
Bakalada	195.030	91.328	74.073	48.405	21.710	19.682	2.124	-55,15	-9,34	-89,21
Sardinzarra	89	70	79	112	121	109	73	8,04	-9,92	-33,03
Txitxarro arrunta	44.382	44.263	44.289	48.980	48.784	49.049	47.117	-0,40	0,54	-3,94
Berdela	20.520	21.594	24.425	22.276	29.549	27.939	24.392	32,65	-5,45	-12,70
GUZTIRA	362.047	234.692	214.312	192.951	192.075	196.084	180.803	-0,45	2,09	-7,79

Iturria: Europako Batzordea.

hegaluzea, enkantean jarritako arrainen kopurua handitu denez gero kilo 3,56 eurotan ordaindu dena (-%12,1).

2.1.3. Industria

Hiruhileko Kontu Ekonomikoen (HEK) behin-behineko datuen arabera, 2011ko otsailean argitaratuak, industriaren sektorea EAEn 2010. urtean izandako prezioen BEG osoaren % 24,4 da, 2009. urtean baino 2 dezima gehiago. Horrela, 224.327 lanposturekin, enplegu osoaren % 23 hartzen du (2009. urtean baino 7 dezima gutxiago).

Datuek erakusten dutenez, 2007ko bigarren hiruhilekotik aurrera, ekoizpenaren hazkunde errealeko tasak apurka-apurka ahuldu ziren, eta 2009ko hirugarren hiruhilekoa urte arteko aldakuntza negatiboarekin amaitu zen, % 14,8koa. Egoera hori une horretatik aurrera hobetu zen. Horrela, ekoizpenaren murrizpena %2,3an zegoen 2010eko lehenengo hiruhilekoan, eta gero gehitzen hasi zen. Laugarrena %1,6ko urte arteko hazkuntzarekin amaitu zen.

Horrela, 2009an eta 2010eko lehenengo hiruhilekoan ikusi ziren urte arteko nahiz hiruhileko arteko beharakada handien ondoren, industriaren sektoreak 2010. urtearen amaieran hiru hiruhileko egin zituen bilakaera positiboekin, bai urte arteko terminoetan, bai hiruhileko arteko terminoetan.


Horrela, industriako BEGaren urte arteko gehikuntza erreala, 2010. urtean, %0,4koa izan zen (aurreko urtean izan zen %12,7ko gutxikuntzaren aurrean). Horrela, industriako BEGa, 2010. urtean, 14.531,4 milioi eurokoa izan zen guztira.

Enpleguari dagokionez, kopuruek erakusten dute (224.327 lanpostu, EUSTATEN hiruhilekoko kontu ekonomikoen arabera) urteko batezbestekoa %3,5 jaitsi dela. Ondorioz, sektoreko produktibitateak % 4,1eko urteko batez besteko gehikuntza erakusten du.

Bestalde, industriako BEGek, Estatuaren multzo osoan eta INEren datuen arabera, urte arteko aldakuntza tasa erreal positiboa erregistratzen du, % 0,9koa hain zuzen. Hiruhileko aldakuntzaren profilak hobekuntza erakusten du 2010eko bigarren hiruhilekoan (%2,5), gero hazkundera moteltzeko, urtea %1,4ko tasarekin amaituz.

Industri Produkzioaren Indizearen urteko batez besteko aldakuntzak, EUSTATEk 2011ko apirilean argitaratutako datuen arabera, jardueraren hazkundera erakusten du EAEn %20ko errentatzen, % 2,1koa hain zuzen aurreko urteko multzoaren aldean (datu gordinetan, hau da, egutegiko edo urtarotako doikuntzarik gabe). Lurralde historikoen araberrako analisiak ondorioztatzen du euskal IPLaren gehikuntza 2010ean Arabako ekoizpenaren (%8,1) bultzadaren ondorio dela, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren hazkuntza (%0,7) 11 aldiz baino handiagoa dena.

I.2.4. Grafikoa. Industriako adierazle nagusien bilakaera. Zuzendutako datuak



Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.

I.2.12. Koadroa. Adierazleak industriaren sektorean

		2007	2008	2009	2010
BEG	Kateatutako bolumena	107,7	106,7	93,2	93,6
	Eguneko prezioak (milakotan)	16.999.271	17.193.284	14.364.261	14.531.441
Enplegu osoa		255.294	250.292	232.524	224.327
BEG aldakuntza (erreala)		3,1	-0,6	-12,7	0,4
Enplegu aldakuntza		1,8	-2,0	-7,1	-3,5
Produktibitatea (enplegu osoaren neurria)		1,6	1,1	-6,0	4,1

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta HKE.

Ondasunen destino ekonomikoa aztertuz gero, EUSTATEN arabera, EAEn, aipatutako hazkunderaren jatorria ekipoko ondasunen ekoizpenaren erorketaren mantsotzean (-%23,2tik -%2,7ra) nahiz energiaren ere moteltzean (-%7tik -%5,2ra) dago, eta baita kontsumoko ondasunen ekoizpenean nahiz bitarteko ondasunetan (lehenengoaren kasuan % 0,9ko erorketa aurreko aldiko % 14,6ren aldean eta bigarrenaren kasuan % 7,1ekoa aurreko urteko -%26ren aldean) gertatutako hazkunderen ere.

I.2.13. Koadroa. IPLen bilakaera lurralde historikoen eta ondasunen destino ekonomikoaren arabera. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundera

	EAE guztira	Lurralde Historikoak			Ondasunen destino ekonomikoa					
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Kontsumoko ondasunak			Ekipamendu ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
					Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2007	4,8	2,7	6,5	4,2	2,1	-0,6	3,3	9,3	4,4	0,7
2008	-2,9	-3,9	-2,7	-2,5	-7	-16,7	-3,1	-1	-4,1	3,6
2009	-21,8	-24,2	-20,3	-22	-14,6	-29	-9,7	-23,2	-26	-7
2010 p	2,1	8,1	0,7	0,7	0,9	0,8	1	-2,7	7,1	-5,2

b-b: behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2011. urteko apirilean argitaratutako datuak).

**I.2.14. Koadroa. IPI, jarduera sektoreen arabera
Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundeak**

	2007	2008	2009	2010
02. Erauzketa-industriak	3,2	-14,4	-26,6	-20
03. Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	1,9	-1,2	-4,7	4
04. Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	1	-6,6	-29,2	6,7
05. Zura, papera eta arte grafikoak	6,6	-7,2	-18,7	-4,2
06. Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak	-2,1	5,9	-11,2	-7,6
07. Industria kimikoa	0,9	-8,5	-23,5	2,2
08. Produktu farmazeutikoak	10	5,4	-3	4,3
09. Kautxua eta plastikoak	5,3	-7,9	-20,5	9,9
10. Metalurgia	4,5	-4,4	-29,4	6,1
11. Informatika eta elektronika prod.	-15,6	-13,5	-24,7	4,7
12. Material eta ekipa elektrikoak	6,8	-1,8	-22,7	-0,1
13. Makinak eta ekipoa	10,4	-2,1	-30,2	-5
14. Garraio materiala	10,3	6	-15,1	7
15. Altzariak eta bestelako manufakturrak	6,3	-3,4	-22,5	-12,9
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	0,2	2,5	-6,4	-3,8

Iturria: EUSTAT IPI (2011. urteko apirilean argitaratutako datuak).

INERen 2011ko apirileko datuen arabera, IPlaren batez besteko aldakuntza (datu gordinen indize orokorra) 2010eko abenduan, aurreko urteko denboraldi berberaren aldean, EAEn gehitu da, estatu osoan bezala: %0,9. Urtebete lehenago, kasuan kasuko murritzpenak hauek izan ziren: %16,2 estatuan eta %21 EAEn.

EUROSTATen 2011ko otsaileko datuen arabera, 2009. urtearen aldean, 2010ean Industri Produkzioaren Indizearen³ batezbestekoa (lan-egunei egokitua) %7,1 gehitu zen euro eremuan eta %6,7 EB-27an. 2010eko abenduan, 2009ko abenduaren aldean, industri produkzioa %8 gehitu zen euro eremuan eta %7,7 EB-27an. Espainiarako datua %0,1 da.

IPlren sektorekako azterketatik (datu gordinekin) ondorioztatzen da EAerentzat garrantzitsuen diren hiru industria sektoreak (Metalurgia, Makineria eta ekipoa, eta Garraio materiala) suspertu egin direla 2010ean, hurrenez hurren % 6,1, -5 eta 7ko aldakuntza tasak agertuz, 2009. urtean izandako -29,4, -30,2 eta -15,1eko aldean.

Industriako ondasunen prezioei dagokienez, Industriako Prezioen Indizeak (IPRI) gure erkidegoan 2010. urtean urteko %3,4ko gehikuntza izan zuen batez bestez, EUSTATen arabera, aurreko urteko % 6ko gutxikuntzaren aldean.

Urteko batez besteko gehikuntza batez ere hauen IPRIren gehikuntzak markatu zuen: petrolio fintzea (%24), metalurgia eta metalezko produktuak (%3,5), material eta ekipa elektrikoak (%2,2) eta industria kimikoa (%1,9).

**I.2.15. Koadroa. IPRI, ondasunen destino ekonomikoaren eta jarduera sektorearen arabera, CNAE-2009
(urteko batez besteko hazkundeak)**

	2006	2007	2008	2009	2010
Indize orokorra	5,9	5	5,4	-6	3,4
Ondasunen destino ekonomikoa					
Kontsumoko ondasunak	2,8	3,5	4,2	0,5	0,2
— Kontsumo iraunkorreko ondasunak	0,7	1,5	3	0,2	-0,5
— Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	3,7	4,4	4,7	0,7	0,5
Ekipamendu ondasunak	0,7	3,8	2,6	1,4	0,1
Bitarteko ondasunak	6,7	7,1	3,8	-7,9	3,2
Energia	12,9	1,1	15,7	-14,6	11,7
Jarduera Sektoreak					
Erauzketa-industriak	2,6	2,6	15,3	5,5	-1,2
Erauzketa-industriak	2,6	2,6	15,3	5,5	-1,2
Manufaktura-industria	4,9	5,4	4,9	-6,5	3,8
Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	3,8	7	8,4	-1,2	1,5
Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	5,1	-0,8	3,1	1,1	0,8
Zura, papera eta arte grafikoak	3,1	1,8	1,2	-3,2	1,1
Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak	9,3	1,8	19,4	-24,1	24
Industria kimikoa	4,6	7	4,9	-2	1,9
Produktu farmazeutikoak	1,5	0	1,7	1	0,5
Kautxua eta plastikoa	4,4	4,2	3,5	-0,3	0,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	7,8	8,1	3,4	-10,7	3,5
Informatika eta elektronika prod.	0,9	9,7	4,2	0,9	0,5
Material eta ekipa elektrikoak	2,7	2,2	3,1	-1,7	2,2
Makinak eta ekipoa	2,3	3,1	2	1,7	-0,5
Garraio materiala	-2,1	3,9	1,9	2,7	0,7
Altzariak eta bestelako manufakturrak	3,7	5,1	3,8	2,4	-0,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	17,9	0,3	10,9	-1,5	-1,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	17,9	0,3	10,9	-1,5	-1,4

2005eko oinarria. Iturria: EUSTAT. IPRI

³ Average production index

I.2.16. Koadroa. Industriaren sektoreko magnitudeak sektoreka. CNAE 2009

	Banaketaren %a (Industria = 100) 2009					Inbertsioa (milaka euro/ enplegua)	Emaizta (milaka euro/ enplegua) 2009	BEG % aldak. nomin. 08-09	Enplegua % aldak. 08-09	Inbertsioa % aldak. 08-09	Emaiztak eragiketa jarraituetan*, zergak eta gero % aldak. 08-09
	AB	Enplegua	Inbertsioa	Salmenta garbiak	Emaiztak zergak eta gero						
Industria Guztira	100 14.074.809	100 225.337	100 2.190.359	100 49.226.282	100 1.878.687	2009	—				
Erauzketa industria	0,89	0,34	1,05	0,59	3,09			-14,05	-5,02	-52,54	-23,94
Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	6,51	6,89	6,61	7,50	11,34	9,3	13,7	-7,07	-2,85	-32,34	-13,42
Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	0,79	1,41	0,46	0,70	0,98	3,2	5,8	-20,46	-12,59	27,25	-47,71
Zura, papera eta arte grafikoak	5,75	6,91	3,52	4,72	3,61	5,0	4,4	-12,85	-10,24	-60,73	-43,95
Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	1,42	0,52	13,98	8,88	9,33	260,2	149,0	-19,07	3,88	61,12	19,20
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	2,93	2,38	2,06	3,38	4,27	8,4	15,0	-19,91	-7,41	-49,01	-47,07
Kautxua eta plastikoa	6,21	6,94	5,20	5,68	3,12	7,3	3,7	-20,32	-15,54	-28,64	-61,47
Metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak	3,38	3,05	4,35	2,75	6,38	13,9	17,5	-23,61	-7,88	6,50	-50,83
Metalurgia eta produktu metalikoak	26,87	34,88	21,08	25,62	0,42	5,9	0,1	-33,68	-12,14	-50,17	-99,29
Prod. Informatikoak eta elektronikoak eta optikoak	1,90	2,57	1,70	1,42	0,64	6,4	2,1	-23,10	-7,61	-2,17	-82,55
Material eta ekipa elektrikoa, etxeko tresna (elektrikoa) k barne	5,64	5,84	4,90	5,67	7,38	8,1	10,5	-12,22	-9,22	-6,58	-40,69
Makinak eta ekipoa	9,15	9,85	8,16	7,81	6,64	8,1	5,6	-16,12	-8,50	-40,39	-46,75
Garraio materiala	8,65	8,05	5,72	9,64	10,08	6,9	10,4	-17,70	-6,28	-2,31	-39,08
Altzariak eta bestelako manufakturak	4,65	6,79	3,02	3,05	2,33	4,3	2,9	-9,54	-7,54	-26,51	-43,70
Energia elektrikoa, gasa eta lurina	12,57	1,13	13,59	10,88	27,46	116,6	202,0	-6,81	-2,96	-13,17	-21,76
Ur eta saneamendu hornidura	2,68	2,44	4,60	1,69	2,93	18,3	10,0	-1,79	-0,65	-12,10	-22,57

*Operazio horien ustiapen eta finantza emaitza barne. Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika.

EAEko oinarritzko hiru industria sektoreetatik bakoitzaren IPRIari dagokionez, ezberdintasunak ageri dira. Horrela, metalurgiaren eta metalezko produktuen eta garraio materialen IPRI positiboak dira (hurrenez hurren %3,5 eta 0,7), eta makina eta ekipoen negatiboa da (-%0,5). Ondasunen destino ekonomikoaren arabera, energiaren prezioa % 11,7 gehitu da aurreko urteko % 14,6ko gutxikuntzaren aldean, bitarteko ondasunena % 3,2

gehitu da, aurreko aldiko % 7,9ko gutxikuntzaren aldean, eta kontsumoko eta ekipamendu ondasunena areagotu egiten da, nahiz eta aurreko urtean baino gutxiago, hain zuzen ere % 0,2 eta % 0,1 hurrenez hurren (2009. urtean % 0,5 eta % 1,4 izan zen).

INEren behin-behineko datuen arabera, EAEko IPRIak %8,3ko tasa izan du 2010eko abenduan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean. Estatuaren indizea %5,3 da.

I.2.17. Koadroa. Industriak EAE-n duen eduki teknologikoa ELGA-ren sektoreak gorabehera. CNAE-09

	2008	2009	Pisua 2008an	Pisua2009an	2008-09 aldakuntza
ENPLEGUA (kopurua)					
Guztira	249.230	225.337			-9,6
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	71.388	65.825	28,6	29,2	-7,8
Maila teknologiko altua	9.245	8.592	3,7	3,8	-7,1
Maila teknologiko ertain-altua	62.143	57.233	24,9	25,4	-7,9
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	168.852	150.677	67,7	66,9	-10,8
Maila teknologiko ertain-baxua	123.204	108.867	49,4	48,3	-11,6
Maila teknologiko baxua	45.648	41.810	18,3	18,6	-8,4
Sailkatu gabe	8.990	8.835	3,6	3,9	-1,7
BEG c.f. (euroak milaka)					
Guztira	17.658.352	14.074.809			-20,3
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	4.771.339	3.976.385	27,0	28,3	-16,7
Maila teknologiko altua	565.986	462.130	3,2	3,3	-18,3
Maila teknologiko ertain-altua	4.205.353	3.514.255	23,8	25,0	-16,4
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	10.458.145	7.826.355	59,2	56	-25,2
Maila teknologiko ertain-baxua	8.058.523	5.689.769	45,6	40,4	-29,4
Maila teknologiko baxua	2.399.622	2.136.586	13,6	15,2	-11,0
Sailkatu gabe	2.428.868	2.272.069	13,8	16,1	-6,5
SALMENTAK (euroak milaka)					
Guztira	65.654.476	49.226.282			-25,0
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	17.320.816	13.369.518	26,4	27,2	-22,8
Maila teknologiko altua	1.734.645	1.439.103	2,6	2,9	-17,0
Maila teknologiko ertain-altua	15.586.171	11.930.415	23,7	24,2	-23,5
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	41.255.235	29.373.668	62,8	59,7	-28,8
Maila teknologiko ertain-baxua	33.261.434	22.195.462	50,7	45,1	-33,3
Maila teknologiko baxua	7.993.801	7.178.206	12,2	14,6	-10,2
Sailkatu gabe	7.078.425	6.483.096	10,8	13,2	-8,4
PRODUKTIBITATEA					
Guztira	nd	-11,8			
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	nd	-9,6			
Maila teknologiko altua	nd	-12,1			
Maila teknologiko ertain-altua	nd	-9,3			
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	nd	-16,1			
Maila teknologiko ertain-baxua	nd	-20,1			
Maila teknologiko baxua	nd	-2,8			

CNAE 09an ez dago 2008. urtea baino lehenagoko daturik. Iturria: EUSTAT. Industriako estatistika.

Urte bat lehenago, portzentajeak hauek izan ziren hurrenez hurren: -%0,2 eta %0,4.

EUROSTATen datuen arabera, Estatuko IPRIa % 5,3an kokatzen da 2010. urteko abenduan eta aurreko urteko aldi berdinaren aldean. EB27rena % 5,9an kokatu zen eta EA16arena % 5,3an.

EUSTATen Industria Estatistikako 2009. urteari buruzko azken datuek adierazi egiten dute 2008. eta 2009. urteen artean industriaren sektorearen balio erantsiak % 20,3ko hazkunde nominalako tasa erregistratu zuela, eta enplegua % 9,6 beheratu zela. Bestalde, inbertsioa %28,2 jaitsi zen eta zergen ondoren eragiketa jarraituen emaitzak %52,2 jaitsi ziren.

Sektoreka, ikusten da metalurgia eta metalezko produktuak, makinak eta ekipoa, eta garraio materiala sektoreak oraindik ere funtsezkoak direla gure ekonomian ekoizpenari eta enpleguari dagokienez. Halere, horiek guztiek gutxikuntzak dauzkate BEG nominalari, enpleguari, inbertsioari eta zergen ondorengo emaitzei dagokienez, baina zenbateko ezberdinetan.

Metalurgia eta produktu metalikoak. Bertan hauek sartzen dira: Siderurgia, burdinazkoak ez diren metalen produkzioa, metalen fundizioa, metalezko eraikuntza, forjaketa eta estanpazioa, ingeniaritza mekanikoa eta metalezko artikulua; eguneko prezioen BEG industrialaren %26,9 da, enpleguaren % 34,9, inbertsioaren %21,1, eta negozio kopuru garbiaren %25,6. Jarduera adar hau da jaitsiera gehien dituen.

Makineria eta biltzen duen ekipoa: Erabilera orokorreko makinak eta makina-erreminta industriako BEGaren %9,2 da, enpleguaren %9,9, inbertsioaren %8,2 eta negozio-zifra garbiaren %7,8.

Garraio materiala. Bertan hauek egongo lirateke: Motordun ibilgailuen fabrikazioa, itsas eraikuntza eta bestelako garraio materialak. Industriako BEGaren % 8,7, enpleguaren % 8,1, inbertsioaren % 45,7 eta salmenta garbien % 9,6 hartzen ditu.

Eduki teknologikoari dagokionez, eta EUSTATEk erabiltzen duen ELGaren sailkapena gorabehera, maila teknologiko altuak aireontziak eta espazio-ontziak, farmaziako

produktuak, bulegoko makineria eta ekipo informatikoa, material elektronikoa eta ekipo eta tresna mediko-kirurgikoak eta doitasunezkoak hartzen ditu. Maila baxuak mota ezberdinetako manufakturak eta birziklapena, paper egurra eta paperezko produktuak, elikadura produktuak, edariak eta tabakoak, oihal produktuak, jantzigintza, larru produktuak eta oinetakoak hartzen ditu. Ertain-altuan hauek hartzen dira: makineria eta ekipo elektrikoak, ibilgailu motordunak, produktu kimikoak farmaziakoak salbu, bestelako garraio materialak eta makineria eta ekipo mekanikoak. Ertain-baxuan, aldiz, hauek: ontziak, kautxu produktuak eta gai plastikoak, petrolio finitzaio produktuak eta burdinazko metalak eta burdinazkoak ez direnak, produktu metalikoak eta metalikoak ez diren produktu mineralak.

EUSTATen datuen arabera, eta 2008. eta 2009. urteak alderatuz gero, ikusi da eduki teknologiko altu eta ertain-altuko sektoreen pisua areagotu egin dela enplegu kopuruaren, BEGaren eta salmenten aldetik. Aitzitik, eduki baxukoak ere areagotu dira.

Halere, aintzat hartu behar dugu zenbait egile ñabardurak egiten hasi direla ELGak erabiltzen duen intentsitate teknologikoaren arabera saillapen sektoriala bera, jardura produktiboek eboluzionatzen dutelako eta ez direlako egoten teknologia jakin batzuen mende. Zientziak eta teknologiak ehundura produktibo osoan zehar eta industria tradizionalako sektoreetan zabaltzen dira. Adibidez, ibilgailuen eta makinaren sektoreek gero eta patente gehiago dauzkaten elektronikaren sektorean. Oro har, teknologia txikikotzat hartzen diren sektoreak haien erabiltzaile nagusiak dira, zientzian oinarritutako sektore bihurtuz.


2.1.4. Eraikuntza

Eraikuntzak, 2011ko otsailean argitaratutako Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera, EAEko 2010eko eguneko prezioen BEGaren % 8,6 hartzen du (5.129,8 milioi euro), 2009. urtean baino 6 dezima gutxiago. Halaber, enplegu osoaren % 8,7 hartzen du (84.764 lanpostu), aurreko urtean, 89.992 lanposturekin, enplegu osoaren % 9,2 hartu zuen bitartean.

Datuen iturri horren arabera, eraikuntza sektoreak 2010ean, BEGaren termino errealean, %5,9 egin du behera. Industria eta zerbitzuak termino errealean %0,4 eta %0,8 jaitsi dira hurrenez hurren.

Eraikuntzaren urte arteko hiruhilekoko eboluzioak erorketa mailakatua erakusten du, lehenengo hiruhilekoko -%5,4tik hasi eta laugarren hiruhilekoko -%6,2raino.

1.2.5. Grafikoa. Eraikuntzaren adierazle nagusien bilakaera. Zuzendutako datuak



Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak.

Eraikuntzaren BEGaren urteko batez besteko txikitzea EAEn Estatuan igarritakoa baino txikiagoa da; Estatuan % 6,3 murriztu da, INEren arabera.

Enpleguari dagokionez, EUSTATen hiruhilekoko kontu ekonomikoek haren erorketa erakusten dute gure erkidegoan: 2010. urteko lehen hiruhilekoan aldakuntza tasa negatiboa, %5,5ekoa, izan zen, eta laugarrenean -%7,9koa. Urteko batez besteko aldakuntza -%5,8 izan zen, aurreko urtekoa baino 9 dezima txikiagoa alegia.

Eraikuntzaren Koiuntura Indizeari dagokionez, urteko batez besteko aldakuntza 2010. urtean -%16,7an kokatzen da. Obra zibilean izandako erorketa (-%22,2) eraikuntzan izandakoa baino (-%13,6) altuagoa izan da. Enpleguak erregistratu duen urteko batez besteko aldakuntza -%8,1ekoa izan da.

EUROSTATen 2011ko otsaileko datuen arabera, 2009. urtearen aldean, 2010ean Eraikuntzaren Produkzioaren Indizearen⁴ batezbestekoa (lan-egunei egokitua) %7,4 gehitu zen euro eremuan eta %4,1 EB-27an. 2010eko abenduan, 2009ko abenduaren aldean, eraikuntza %12 gehitu zen euro eremuan eta %8 EB-27an. Espainiarako datua -%19,8 da.

Bestalde, EAEn, EUSTATen datuen arabera, BPGaren deflatorearen gehikuntza atzeman da 2009 eta 2010. urteen artean. Hazkuntzaren urteko batezbestekoa %0,6 izan da.

1.2.18. Koadroa. Eraikuntzaren sektorearen bilakaera

	Eraikuntzaren koiuntura indizea Urteko batez besteko hazkundea				Hiruhileko Kontu Ekonomikoak. (Datu zuzenduak) Urte arteko aldakuntza tasak.			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua. Datu deset.	BEG izenduna	BPG bolumen kateatua	BPGd-aren deflaktorea	Lanpostuak
	Produkzio indizea. Datu zuzenduak.							
2007	7,2	6,0	9,8	0,0	17,7	11,3	5,8	5,3
2008	1,8	-2,0	10,0	-3,2	-2,2	-5,8	3,8	-5,0
2009	-12,2	-15,0	-6,9	-7,4	-4,6	-3,6	-1,1	-6,7
2010 b	-16,7	-13,6	-22,2	-8,1	-5,4	-5,9	0,6	-5,8

b-b: Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT

⁴ Average construction production index

I.2.19. Koadroa. Zerbitzuen sektorearen bilakaera (urte arteko aldakuntza tasak)

		Zerbitzuen BEG. Bolumen indizea			Lanean ari diren langileak	Deflatorea
		Guztira	Merkatukoa	Ez merkatukoa		
2007	1. hiruh.	4,2	4,4	3,5	3,2	3,3
	2. hiruh.	4,2	4,2	4,2	3,4	3,8
	3. hiruh.	3,9	3,8	4,7	3,1	4,0
	4. hiruh.	4,0	3,5	6,6	3,0	4,1
2008	1. hiruh.	3,6	3,2	5,3	2,9	3,7
	2. hiruh.	3,4	2,8	6,4	3,1	3,2
	3. hiruh.	3,4	2,5	8,3	1,3	3,2
	4. hiruh.	2,6	1,6	7,6	1,1	2,5
2009	1. hiruh.	1,0	-0,2	6,5	-1,0	2,5
	2. hiruh.	-0,4	-1,5	4,8	-2,1	2,7
	3. hiruh.	-0,6	-1,4	3,0	-1,2	2,0
	4. hiruh.	-0,8	-0,9	-0,4	-1,0	1,2
2010	1. hiruh.	0,5	0,6	0,2	0,0	0,3
	2. hiruh.	1,0	1,0	0,8	1,0	0,3
	3. hiruh.	0,7	0,8	0,4	1,5	0,8
	4. hiruh.	1,1	0,9	2,0	1,2	0,5

Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza tasak. Iturria: EUSTAT

2.1.5. Zerbitzuak

EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen behin-behineko datuen arabera, 2011ko otsailean argitaratuak, zerbitzuen sektoreak 2010. urtean BEGaren % 60,2 hartzen zuen (39.608 milioi euro), eta EAEko enpleguaren %66,2 (645.464 enplegu batez beste urtean). Bertan, merkatuko zerbitzuek sektore honen % 82,4 hartzen dute, BEGaren kopuruei dagokienez.

EAEko zerbitzuen sektoreko balio erantsi erreala gehitu egin zen 2010. urtean, % 0,8an, aurreko urtean erregistratutako % 0,2ko gutxikuntzaren aldean. Merkatuko eta merkatuz kanpoko zerbitzuak alderatuz gero, ikusiko dugu bakoitza

%0,8 gehitu dela. 2009. urtean, lehenengoak %1 murriztu ziren eta bigarrenak %3,4 gehitu.

EAEn, sektore osoaren BEGaren gehikuntza erreala (EUSTATen arabera, %0,8) handiagoa da estatukoa baino (INEren behin-behineko datuen arabera, %0,5 gehitu da estatuan).

Gure erkidegoan, zerbitzu sektorean enplegua, EUSTATen datuen arabera, %0,9 gehitu da. Aurreko urtean, berriz, %1,3 gutxitu zen.

Bestalde, deflatoreak honela eboluzionatu du: Joan den lehenengo hiruhilekotik hirugarren hiruhilekora %0,3tik %0,8ra gehitu da, eta laugarrenean %0,5era jaitsi zen.

I.2.20. Koadroa. Zerbitzuen sektorearen egitura eta bilakaera EAE-n

	EGITURA										% urteko aldakuntza		
	BPG korrontea					Enplegua					BPG*	Prezioak	Enplegua
	2005	2006	2007	2008	2009	2004	2005	2006	2007	2008			
21. Merkataritza eta konponketak	18,2	18,1	17,8	17,5	17,5	22,7	23,1	22,7	22,2	21,8	2,0	2,4	0,6
22. Ostalaritza	6,2	6,1	6,2	6,0	6,0	8,3	8,2	8,4	8,3	8,3	0,7	4,5	2,5
23. Garraioak eta komunikazioak	11,7	11,6	11,4	11,2	10,8	8,8	8,3	8,3	8,4	8,4	0,9	1,7	3,5
24. Bankua eta aseguruak	10,0	10,3	10,4	10,4	10,3	3,5	3,4	3,4	3,3	3,3	0,9	4,6	0,7
25. Zerbitzuak enpresentzat	26,9	27,1	27,3	27,6	27,2	18,9	19,4	19,8	20,1	19,9	2,2	3,3	3,0
26. Administrazio Publikoa	7,8	7,7	7,5	7,7	8,1	9,1	8,9	8,7	8,6	8,6	3,9	3,3	2,3
27. Hezkuntza	6,6	6,5	6,6	6,6	6,7	10,0	9,8	9,8	10,0	10,2	4,1	2,4	4,8
28. Osasuna eta gizarte zerbitzuak	7,9	7,9	8,1	8,4	8,7	7,7	7,7	7,6	7,9	8,2	6,1	2,6	6,4
29. Zerbitzu pertsonalak	4,1	4,1	4,0	3,9	4,0	6,6	6,7	6,8	6,6	6,6	2,3	2,6	1,5
30. Etxeko zerbitzua	0,8	0,8	0,7	0,7	0,7	4,4	4,5	4,6	4,5	4,5	1,4	1,8	2,2
Zerbitzuak guztira (BEG milioika eurotan eta enplegua milaka pertsonatan)	30.82,1	33.365,2	36.044,7	38.392,1	39.107	577,0	597,2	615,5	635,0	648,1	2,4	3,0	2,6

* BPG erreala (bolumen kateatua). Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak.

Zerbitzuen sektorearen barruan, azpimarragarria da oraindik Enpresei emandako Zerbitzuen eta Merkataritza eta Konponketen adarren pisu handiagoa, bai BPGaren kopuruetan, bai enpleguetan. Gauzak horrela, lehenengoa Zerbitzuen Sektoreko BPG arrunt osoaren % 27,6 da (2009ko datua) eta enpleguaren % 19,9 (2008. urteko datua); eta bigarrena % 17,5 eta % 21,8 da hurrenez hurren.

2006. eta 2009. urteen artean, enpresei emandako zerbitzuen sektoreko BPGak urteko batez besteko hazkundea eduki du kopuru errealean, % 2,2koa hain zuzen, eta prezioak areagotu egin dira urteko % 3,3ko batez besteko tasarekin. Enpleguari dagokionez, hazi egin da hura 2006. eta 2008. urteen artean, urteko % 3ko batez besteko tasan. Bestalde, Merkataritzaren eta Konponketen sektoreko BPGak, kopuru errealean, erakutsi egiten du urteko % 2ko batez besteko hazkunde tasa, 2006 eta 2009. urteen artean, eta prezioak areagotu egin dira, urteko % 2,4ko batez besteko tasan. Enpleguari dagokionez, hazi egin da hura 2006. eta 2008. urteen artean, urteko % 0,6ko batez besteko tasan.

Bigarren talde bat Garraio eta komunikazioen azpisektoreak eratzen du; haren pisua zerbitzuen sektoreko BPG osoaren gainean, lehenengo kasuan, % 10,8koa izan zen 2009. urtean, urteko % 0,9ko batez besteko hazkundearekin 2006. eta 2009. urteen artean. Halaber, Bankuek eta aseguruak, zerbitzuen BPGaren % 10,3 hartuz 2009. urtean, urteko % 0,9ko batez besteko aldakuntza tasa eduki zuten 2006. eta 2009. urteen artean (zerbitzuen sektoreko batez bestekoa % 2,4an kokatzen da aldi honetan).

Zerbitzuen sektorean prezioek izandako urteko batez besteko hazkundea 2006. eta 2009. urteen artean % 3koa da.

Merkataritza

Merkataritzaren eta konponketen sektoreak, EUSTATEN Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, EAEko BPGaren balioaren % 10,6 inguru hartzen du (6.860,8 milioi euro, 2009. urteko datua) eta enpleguaren % 13,9 inguru (141.463 lanpostu guztira, 2008. urteko datua).

2010. urtean salmentek gehikuntza izan dute. Gehikuntza hori kontsumoaren gehikuntzak azaltzen du: kontsumo

privatua -%3,7ko aldakuntza tasa izatetik %0,8ko aldakuntza tasa izatera aldatu da; barne-komertzioko prezioek ere gora egin dute, %2,8 hain zuzen ere.

Horrela, barne merkataritzaren salmenten indizea prezio iraunkorretan %2,8 gehitu da 2010ean. Handizkako komertzioaren salmentak, 2010ean, termino errealean (prezio iraunkorretan) %5 gehitu dira. Txikizkako komertzioaren salmentak, berriz, %0,5 gutxitu dira (-%0,2, gasolina zerbitzuguneak kontuan izan gabe⁵).

Indize horren okupazio datuek erakusten dute sektorean enplegua murriztu dela 2010. urtean, %0,4 hain zuzen ere. Aurreko denboraldian, berriz, murrizpena %3,5ekoa izan zen. Handizkako eta txikizkako komertzioa bereiztuz gero, lehenengoaren enplegua %1,5 murriztu da eta bigarrenarena %0,2 gehitu da.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren eta espezializatu gabearen artean bereizketa eginez, ikusten dugu bigarrenaren kasuan gehiago murriztu direla salmentak lehenengoan baino. Merkataritza espezializatuaren salmentak % 0,2 beheratu dira, espezializatu gabeko merkataritzaren salmentak % 1,2 erori diren bitartean.

Handizkako merkataritzari dagokionez, 2009 eta 2010. urteen artean makinen eta ekipoen hobekuntzak nabarmendu behar dira; izan ere, -%18,7ko aldakuntza tasatik -%1,7ra igarotzen da. Produktu erdilanduetan ere hobekuntza nabarmena da, -%18,3tik +%14,5era igarotzean.

Ostalaritza

EUSTATEN Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGaren balioaren %3,7 inguru hartzen du (2.359,4 milioi euro, 2009. urteko datua) eta enpleguaren %5,3 inguru (54.074 lanpostu, 2008. urteko datua).

EUSTATEN establezimendu turistiko hartzaileen inkestan EAEko hotel-establezimenduetan (hotelak, apartahotelak, landa-hotelak eta ostatuak) eta nekazaritza-turismoko establezimenduetan (nekazaritza-turismoa eta landa-etxeak) dauden bidaiariak jasotzen dira. Inkesta horren datuetan EAEko hotel-establezimenduetan sartu diren bidaiarien gehikuntza ikusten da 2009 eta 2010. urteen artean, %13,9koa. Beraz, EAEko hotel-establezimenduetan dagoen bidaiari kopurua (EAEkoak bertakoak diren bidaiak kontuan izan gabe) 1.867 mila bidaiarikoa da. Gehikuntza

1.2.21. Koadroa. Barne komertzioaren salmenten indizearen eta komertzioan lanean ari diren pertsonen indizearen eboluzioa*

	Salmenta Indizea						Lanean hartutako pertsonen indizea		
	Indize orokorra	Handizkakoa	Txikizkakoa	Txikizkakoa gasolina zerbitzuguneak gabe	Prezioak	Kontsumo pribatua	Guztira	Handizkakoa	Txikizkakoa
2007	3,1	3,8	1,8	1,8	3,5	3,6	2,5	2,3	2,5
2008	-4,3	-5,2	-2,8	-2,2	4,1	0,6	0,9	0,5	1,1
2009	-9,1	-12,1	-3,7	-3,4	-5,6	-3,7	-3,5	-4	-3,2
2010	2,8	5,0	-0,5	-0,2	2,8	0,8	0,4	-1,5	0,2

(*) Urteko batez besteko hazkundeak prezio iraunkorretan.


Iturria: EUSTAT "Barne Merkataritzaren Indizea" eta "Kontu Ekonomikoak"

⁵ Sailkapen europar berriari (NACE Rev. 2) eta haren Estatuko bertsioari (CNAE-09) egokitzeak aldaketak ekarri ditu Barne Merkataritzaren Indizera. Garrantzitsuen automoziorako erregaiei txikizkako merkataritzaren jardura (gasolina zerbitzuguneak) establezimendu espezializatuaren artean sartu izana da, Txikizkako Merkataritzaren azpisektorean.

I.2.22. Koadroa. Handizkako eta txikizkako merkataritzaren salmenta indizearen bilakaera sektoreka*

	Handizkako merkataritza				Txikizkako merkataritza							
	Nekazaritzako eta elikadurako prod.	Elikadurak ak ez diren Kontsumok beste artikulatu batzuk	Produktu erdilanduak; txatarra	Makineria eta ekipamendua	Espezializatuak	Elikagaiak	Pertsonaren ekipamendua	Etxe ekipamendua	Kontsumoko beste ondasun batzuk	Ez espezializatua	Elikadura nagusitasuna	Gainerako produktuen nagusitasuna
2007	2	5,9	0,5	13,2	1,8	-3,7	5,1	-0,4	2,6	1,7	1,4	3,3
2008	-0,9	-0,9	-9,6	-4,3	-3,1	-4,7	3,7	-6,9	-5,9	-2,1	-1,2	-7
2009	-3,2	-3	-18,3	-18,7	-3,5	-8,6	-1,6	-2,2	-4,1	-4,2	-4,3	-3,4
2010	-2	1,7	14,5	-1,7	-0,2	0,8	0,5	1,1	-2	-1,2	-1	-2,3

(*) Urteko batez besteko hazkundearen prezio iraunkorretan
Iturria: EUSTAT "Barne Merkataritzaren Indizea"

I.2.6. Grafikoa. EAE n sartzen diren bidaiarien bilakaera. Hotel-establimenduak

Iturria: EUSTAT.

atzerriko turismoan (%18,7) nahiz estatukoan (%11,2) gertatu da.

Bertan pasatako gauen multzoa (EAEko berezkoak kanpo utzita) % 13,8 gehitu zen, beraz, batez besteko egonaldia 1,93 egunetan kokatzen da. Estatuko bisitarien kasuan 1,97 da kopuru hori eta Estatutik kanpoko kasuan 1,88. EAEko berezko bidaiariak eta egindako gauak zenbatuz, batez besteko egonaldia 1,88 egunetan kokatzen da eta okupazio maila murriztu egiten da berriro ere, % 41,66tik % 43,97ra urteko batez besteko kopuru gisa plaza bakoitzeko eta % 50,44tik % 52,19ra gela bakoitzeko. Establimendu kopurua direktorioan gehitu egin da, 437tik 452ra. Irekitako establimenduetako plaza kopurua, inkestaren arabera, 8.985.474tik 9.584.009ra gehitu da (%6,7). Logela kopurua, berriz, 4.745.669tik 5.075.650era gehitu da (%7).

Garraioa

Egoera estrategikoagatik nahiz industriako jarduera altuagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila altuenetarikoa ageri duen Europako zona bat da.

I.2.23. Koadroa. Bidaiari kopuruaren, bertan egindako gauen eta batez besteko egonaldiaren bilakaera egunetan EAE-n

	2007			2008			2009			2010		
	Bidaiariak	Bertan igarotako gauak	Batez besteko egonaldia	KB	P	BBE	KB	P	BBE	KB	P	BBE
Guztira EAE gabe	1.749.658	3.379.723	1,93	1.667.790	3.215.495	1,93	1.638.466	3.170.583	1,94	1.866.571	3.608.925	1,93
Estatua EAE gabe	1.086.724	2.106.827	1,94	1.021.117	1.970.466	1,93	1.035.125	1.995.124	1,93	1.150.543	2.262.749	1,97
Atzerritarak	662.934	1.272.896	1,92	646.673	1.245.029	1,93	603.341	1.175.459	1,95	716.028	1.346.176	1,88
EAEko berezkoak	343.688	577.144	1,68	352.932	577.574	1,64	353.324	576.626	1,62	372.128	605.135	1,63

Iturria: EUSTAT, establimendu turistiko hartzaileen inkesta.

I.2.24. Koadroa. Bertan igarotako gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio maila

	Guztira okupaturako plazak (igarotako gauak)	Batez besteko egonaldia egunetan (Estatua)	Batez besteko egonaldia egunetan (atzerria)	Batez besteko egonaldia egunetan (orokorra)	Okupazio maila plaza bakoitzeko	Okupazio maila gela bakoitzeko
2007	3.956.867	1,88	1,92	1,89	46,94	57,3
2008	3.792.091	1,85	1,93	1,88	44,57	54,31
2009	3.743.209	1,85	1,95	1,88	41,66	50,44
2010	4.214.060	1,88	1,88	1,88	43,97	52,19

Iturria: EUSTAT.

I.2.25. Koadroa. Errepide sarea edukiera handiko bideetan, autonomi erkidegoaren, bide motaren eta denboraldiaren arabera. (Km)

	2005	2006	2007	2008	2009 b-b
ESTATUA					
Edukiera handiko bideak guztira	13.156	13.872	14.689	15.105	15.621
Bidesaria duten autobideak	2.648	2.815	2.972	2.997	3.016
Autobiak	8.784	9.258	10.041	10.521	11.005
Galtzada bikoitzeko errepideak	1.724	1.799	1.676	1.587	1.599
EAE					
Edukiera handiko bideak guztira	536	528	573	588	607
Bidesaria duten autobideak	211	211	228	240	256
Autobiak	225	224	261	270	273
Galtzada bikoitzeko errepideak	100	93	84	78	78

Iturria: Sustapen Ministerioa INEn

I.2.26. Koadroa. Errepide sarea (km) mota eta lurraldea gorabehera

	EAE					ESTATUA	
	2005	2006	2007	2008	2009	2008	2009
Km errepide*	4.218	4.205	4.229	4.203	4.209	165.008	165.466
Biztanleak (udal errola, INE)	2.133.684	2.141.860	2.157.112	2.172.175	2.178.339	46.745.807	47.021.031
Ibilgailu parkea	1.170.574	1.205.350	1.252.519	1.275.782	1.286.541	30.969.224	30.855.969
Sare osoa (km) / azalera	0,59	0,58	0,59	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,98	1,96	1,96	1,93	1,93	3,53	3,52
Ibilgailu parkea / sare osoa	277,5	286,6	296,2	303,5	305,7	187,7	186,5
Ibilgailu parkea / biztanle	0,5	0,6	0,6	0,6	0,6	0,7	0,7
Batez besteko inbertsioa (2005-2009) milaka eurotan 1.000 biztanleko (errolako biztanleria 2009ko urtarrilaren 1ean)					182,39		154,02

* Hemen ez da sartu udalen, Defentsa Ministerioaren eta beste erakunde batzuen kargura dauden auzo-bideen luzera. Iturria: Sustapen Ministerioa eta INE

Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate altuagokoak diren zerbitzu batzuk eskainiz.

Garraio eta komunikazioen sektoreak, EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, EAEko BPGaren balioaren % 6,5 inguru hartzen du (4.205,0 milioi euro, 2009. urteko datua) eta enpleguaren % 5,4 inguru (54.570 lanpostu guztira, 2008. urteko datua).

Gure erkidegoko **errepide sarea** Europako sare trinkoenetako bat da, azalerako dentsitate handienetako bat edukitzeagatik (0,58 km errepide azalerako km²-ko, Estatuak duenaren bikoitza (0,33), nahiz eta biztanleko dentsitate txikiagoarekin). Sarea, % 14,4 baino gehiagoan, edukiera handiko bideek eratzen dute (horietatik % 42,2 bidesaria duten autobideak dira), Estatuko % 9,4aren aldean (%19,3ak bidesaria dute, eta EAEn, berriz, aipatutako %42,2ak).

2005-2009ko datuen seriea hartzen badugu, bide pribatuen edo bidesaria duten bideen pisua bi puntu baino

I.2.27. Koadroa. EAE-ko salgaien barne garraioa (mila tonatan)

	2000	2005	2006	2008	2009	2010	2009-10
ESTATUAN GARRAIATUTAKO GUZTIA	1.496.415	1.578.525	1.673.517	1.474.552	1.224.159	1.135.050	-7,3
EAE							
Garraiatutakoa [a+b+c]	107.109	108.243	117.683	109.654	96.477	91.400	-5,3
Kargatutakoa (a+b)	83.661	83.999	89.340	85.244	72.599	66.010	-9,1
Deskargatutakoa (a+c)	83.083	82.878	90.188	83.592	72.648	68.758	-5,4
Joan-etorri mota							
Eskualde barrukoa (a)*	59.635	58.634	61.845	59.182	48.769	43.368	-11,1
Eskualde artekoa	Guztira (a+b)	47.474	49.609	55.838	47.708	48.033	0,7
	Bidalitakoa (b)	24.026	25.365	27.495	26.063	22.642	-5,0
	Jasotakoa (c)	23.448	24.244	28.343	24.410	25.391	6,3
Eskualde arteko ratioa	Guztira [(b+c)/(a+b+c)]	44,3	45,8	47,4	46	49,4	—
	Bidalitakoa [b/(a+b)]	28,7	30,1	30,7	30,6	32,8	—
	Jasotakoa [c/(a+c)]	28,2	29,2	31,4	29,2	32,9	—
EAEk Estatuaren aldean duen %a	7,2	6,9	7,0	7,4	7,9	8,1	—

* Arrazoi metodologikoak direla eta, kopuru oso honek ez du udalerrri barruko garraioa hartzen. Iturria: Sustapen Ministerioa.

I.2.28. Koadroa. Trenbide KM-a EAE-n

	ELEKTRIFIKATU GABE				ELEKTRIFIKATUTA			
	Guztira		Bide bakarra		Guztira		Bide bakarra	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
ADIF (trenbide zabala)	0	0	0	0	304,50	304,5	86,80	86,80
FEVE	42,70	41,75	42,70	41,75	44,96	45,91	19,75	20,7
EUSKO TREN	4,51	5,68	4,51	5,68	228,65	242,29	151,49	144,9
GUZTIRA	47,21	47,44	47,21	47,44	578,11	592,71	258,04	251,99

Iturria: Sustapen Ministerioa.

I.2.29. Koadroa. Euskotrenen eta metro bilbaoren bidaiariak

	2006	2007	2008	2009	2008-09
Guztira Eusko Tren	21.045.775	21.223.949	20.898.398	24.638.334	17,9
Bizkaia	10.167.450	9.996.416	9.698.594	9.263.776	-4,5
Deustu - Lezama	2.146.331	2.178.769	2.205.520	2.072.941	-6,0
Bilbo - Bermeo	2.274.004	2.215.664	2.099.169	2.003.722	-4,5
Bilbo - Ermua	2.614.081	2.513.980	2.365.443	2.209.681	-6,6
Larreinetako funikularra	198.182	181.651	181.749	177.980	-2,1
Bilboko tranbia	2.934.852	2.906.352	2.846.713	2.799.452	-1,7
Gipuzkoa	10.878.325	11.227.533	11.088.624	10.685.276	-3,6
Ermua-Amara	4.028.910	4.090.639	4.059.363	3.872.618	-4,6
Lasarte Oria - Hendaia	6.812.493	7.094.864	6.994.603	6.775.308	-3,1
Azpeitia - Lasao lurren tren	36.922	42.030	34.658	37.350	7,8
Araba					
Vitoria-Gasteizko tranbia*	—	—		4.689.282	—
Metro Bilbao	79.780.094	85.864.456	86.333.743	87.043.712	0,8

* 2008ko abenduaren 23tik aurrera. Iturria: EUSTAT

gehiago gehitu da EAEn, %39,9tik %42,2ra (edukiera handiko bide guztiekin erkatuta). Estatuan, berriz, joera aurkakoa izan da. Hau da, bidesaria daukaten errepideen proportzioa %20,1etik %19,3ra murriztu da. Datu horiek jakinik, ondorioztatu behar dugu EAEko bidesaridun bideen tasa berez altua (estatukoaren bikoitza, 2,2 aldiz handiagoa zehazki) sendotu eta bermatu egin dela, astiro baina etengabe gehitu delako.

Errepidetiko salgaien trafikoa (bertan ez da sartzen iragaitzaz dagoen nazioarteko trafikoa) beheratu egin da 2009. eta 2010. urteen artean, bai Estatuan, bai EAEn. EAEko kasuan, gutxikuntza hori eskualde barruko garraioaren jaitzieraren ondorio da (-%11,1, aurreko urtean -%17,6 izan zen), eskualde artekoa %0,7 gehitu baita. Lehenengoan, metodologi arrazoiengatik, ez da sartu udalerrri barruko garraioa.

Estatu osoan errepidez garraiatutako salgai guztien gainean EAEko garraioaren ratioa %8,1 da, aurreko urtean erregistratutakoa baino apur bat handiagoa (%7,9).

Trenbideko garraioari dagokionez, trenbide sareak jatorritik eduki dituen sorrera arazo ugariak (bide zabaleraz ezberdinak, estatu mailan trenaren bitarteko garraioaren bururatze erradiala, lotura falta, eta abar) larritu egiten dira gure erkidegoan orografia zaila delako eta bururatze horretan nagusi ez zelako lurralde barruko antolamendua eta, ondorioz, salgaien zirkulazioa eta Europarekin lotzea nabarmenki zaila da. Arrazoi horiek direla eta, EAEn, trenaz ez da lehiakorra beste garraio bide batzuekin, batez ere hiriburuaren arteko loturetan. Aitzitik, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoaren sistematzat hartzen da, ustiapen kostu baxuak dituelako eta ingurumenari beste garraio modu batzuk baino kalte gutxiago ekartzen diolako.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2009. urtean EAEn trenbideen sarea elektrifikatutako bideko 592,71 kilometro eratzten zuen. Horietatik % 51,4 ADIFenak dira, Madril-Irun eta Bilbo-Miranda bi linea nagusiak kudeatuz, % 40,9 Eusko Trenenak, Bilbo-Donosti-Hendaia linearen jabe izanez, eta gainerako % 7,7 FEVEren bide estuko trenbideei dagokie eta Bilbo-Santander, Bilbo-Leon eta Bilbo Handiko eremuko eskualde arteko loturak kudeatzen ditu.

Ilbide luzeko lineei eta haiek nazioartearekin dituzten loturei dagokionez, azpimarratzekoa da Irungo lotunea TGV frantziarrarekin eta euskal Y-aren proiektua. Azken hori abiadura handiko tren bati lotutako trenbide trazatu berria da EAEntzat; erkidegoko hiru hiriburuak 30 minutu inguruan lotzea agintzen du eta Madril eta Bordelarekin 2 ordu baino pixka bat gehiagoan.

Adierazgarria da EAEn geltoki intermodal bakarra edukitzea, RENFEren mendeko den Jundizeko arabarra. Hura lehiatu egiten da trafiko europarrarekin Baiona-Mugerreko pleiteko Zentro europarrarekin Baionatik gertu dagoen zonan. Azken horrek 20 Ha-ko gehi erreserbako 50 Ha-ko lurraldea du, trenbideekiko dituen lotuneekin eta autobiderako sarrerarekin batera.

Bilboko Metroak eta Euskotrenek egindako bidaiarien trenbide garraioan —horientzat besterik ez baitugu daturik— ikus daiteke Bilboko Metroak garraiatutako bidaiari kopurua hazi egin dela berriro ere azken ekitaldian, % 0,8 hain zuzen (2008. urtean hazkunde % 0,5ekoa izan zen) eta 87 milioitan kokatzen da. Bestalde, Eusko Trenen garraiatutako bidaiari kopurua hazi egin zen % 17,9, aurreko urteko % 1,5eko beherakadaren aldean, eta portaera hori Gasteizko tranbia martxan jarri izanaren ondotik etorri da, izan ere, gainerako lineek murrizturik ikusi dute garraiatutako bidaiari kopurua.

Airetikako garraioari dagokionez, EAEko hiru aireportuetatik 3.965 mila bidaiari igaro ziren 2009. urtean, eta hori % 14,1eko murrizpena da aurreko urtearen aldean (-%5,6 urtebete lehenago). Salgaien trafikoari dagokionez, bolumena beheratu egin da % 18,2 aldi berdinean.

Loiuko aireportutik 3,6 milioi bidaiari igaro zen guztira 2009. urtean, eta hori % 12,3ko beherakada da aurreko urtearen aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, bolumena beheratu egin da % 15,3 aldi berdinean. 2010. urtean, aireportu honetatik 3,9 milioi bidaiari igaro ziren. Hau da, %8,3ko gehikuntza 2009 eta 2010. urteen artean.

Forondako aireportuak % 20,5eko beherakada jasan zuen 2008. eta 2009. urteen artean salgaien trafikoan. Bidaiari kopuruaren aldetik, trafiko bolumena erori egin zen 67 mila bidaiaritik 39 mila bidaiarira. Horrek esan nahi du % 42,2ko murrizpena egon zela.

Hondarribiko aireportuan, 2008. eta 2009. urteen artean, bidaiarien trafikoa % 27,3 erori zen eta salgaiena, aldiz, % 53,1.

Itsasoko garraioan, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2009. eta 2010. urteen artean, portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) Bilboko Portuan % 7,7 gehitu zen, aurreko urteko % 18,3ko murrizpenaren aurrean, eta 34,6 milioi Tm-ra iritsi zen. Horietatik 24,2 milioi soltean ziren eta horietatik % 81,6 (19,8 milioi Tm) likidoak ziren. Bestela esateko, garraiatutako salgaien %57 likidoak dira soltean, batez ere petrolio-produktuak.

Aitzitik, azken urteetan beheranzko joera daukate, bai balio absolutuetan bai osotasunaren gainean.

Bestalde, ontzi kopuruak azken urteetako beheranzko joera hautsi du, eta 2010. urtean 198 ontzi gehiago daude, guztira 3.240raino iritsiz.

Pasaiaiko Portuko kopuruak askoz ere murriztagoak dira. Salgaien portuko trafikoa % 10,7 gehitu da aurreko urteko % 26,3ko beherakadaren aldean, eta 3,9 milioi Tm-tan kokatzen da. Salgai-trafiko konbentzionalak eta hornidurak eta arrantzak izan dituzten gehikuntzak dira handikuntza honen azalpena.

Nabarmena da salgai solido solteen trafikoak izan duen joera aldaketa, osotasunaren barruan pisua galdu baitu, salgai arrunten mesedetan.

Bestalde, ontzi kopuruak gora egin du, 2003. urtetik aurrera zeukan beheranzko bilakaeraren ondoren, eta 2010. urtean 1.086 zen.

Finantza sektorea

2009. urtean Europako Banku Zentralak esku-hartze tasa egun batera jaitsi zuen lau aldiz. 2010. urtean, berriz, %1ean mantendu da; 2009. urtearen amaieran zegoen erreferentziako interes tasa hain zuzen ere.


Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak ere beren esku-hartze tasak mantendu dituzte 2009. urtean (eta 2008an) itxi zuten modu berdinean, lehenengoak % 0,25arekin eta bigarrenak % 0,1arekin.

I.2.30. Koadroa. Airetiko trafikoaren bilakaera kontzeptu, eremu eta aireportuka

	EAE		Foronda		Loiu			Hondarribia		Aldakuntzak 2008-2009			
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2010	2008	2009	CAPV	Foronda	Loiu	Hondarr.
Guztira aireontziak	70.418	58.796	9.054	6.210	52.523	46.102	46.825	8.841	6.484	-16,5	-31,4	-12,2	-26,7
Nazionala	49.205	41.777	5.108	3.170	35.419	32.192	32.757	8.678	6.415	-15,1	-37,9	-9,1	-26,1
Nazioartekoa	21.213	17.019	3.946	3.040	17.104	13.910	14.068	163	69	-19,8	-23,0	-18,7	-57,7
Guztira bidaiariak (milakoetan)	4.613	3.965	67	39	4.150	3.638	3.876	396	288	-14,1	-42,2	-12,3	-27,3
Nazionala	3.511	3.021	63	37	3.053	2.697	2.857	395	287	-14,0	-41,4	-11,7	-27,3
Nazioartekoa	1.101	944	4	2	1.096	941	1.019	0,5	0,6	-14,3	-52,5	-14,1	20,0
Guztira salgaiak (Tm)	17.997	14.721	14.763	11.736	3.170	2.685	2.548	64	30	-18,2	-20,5	-15,3	-53,1
Nazionala	5.763	4.132	3.227	2.005	2.480	2.100	2.110	56	27	-28,3	-37,9	-15,3	-51,8
Nazioartekoa	12.233	10.318	11.536	9.730	690	585	437	7	3	-15,7	-15,7	-15,2	-58,6


Iturria: Sustapen Ministerioa.

I.2.7. Grafikoa. Ontzi kopurua EAEko portuetan



Iturria: EUSTAT.

I.2.8. Grafikoa. Portuko trafikoa EAEko portuetan



Iturria: EUSTAT.

I.2.31. Koadroa. Itsasotiko garraioak mugitutako salgaiak, mota gorabehera sailkatuta

		Mila Tm							% aldakuntza	
		2005	2006	2007	2008	2009	2010	%	2005-10	2009-10
Bilbo	Guztira	34.090	38.591	40.023	39.398	32.180	34.666	100,0	1,7	7,7
	Likido solteak	19.685	22.290	22.682	23.057	20.498	19.763	57,0	0,4	-3,6
	Solido solteak	4.251	4.989	5.832	5.267	3.828	4.452	12,8	4,7	16,3
	Edukiontziak	5.468	5.629	5.920	6.139	4.757	5.696	16,4	4,2	19,7
	Ohiko salgaiak	3.824	4.300	3.997	3.518	2.522	3.750	10,8	-1,9	48,7
	Bestelako trafikoa*	863	1.383	1.592	1.418	576	1.005	2,9	16,5	74,5
Pasaia	Guztira	5.409	5.511	5.078	4.778	3.519	3.896	100,0	-28,0	10,7
	Likido solteak	2	0	0	0	0	0	0,0	—	—
	Solido solteak	3.274	3.253	2.784	2.353	1.658	1.657	42,5	-49,4	-0,1
	Ohiko salgaiak	2.081	2.202	2.240	2.372	1.810	2.181	56,0	4,8	20,5
	Edukiontziak	0,1	0,2	0,0	0,4	0,0	0,3	0,0	200,0	—
	Bestelako trafikoa	53	57	54	53	51	58	1,5	9,4	13,7

* Hornidura eta arrantza. Iturria: Sustapen Ministerioa

Diru merkatuko interes tasei dagokienez, horiek areagotu egin ziren epe guztietan. Horrela, hilabete bateko Euriborra % 0,42an kokatzen da urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 0,81ean amaitzen da laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra % 0,66tik % 1,02ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeterako Euriborra % 1,23an hasi zen eta % 1,52an amaitu.

Kreditu entitateek etxebizitzetako emandako tasari dagokionez (UTB), txikitu egin da kontsumoaren kasuan, % 9,72tik % 7,47ra 2009. eta 2010. urteen artean. Etxebizitzaren kasuan, kopuru hori % 2,62tik % 2,66ra gehitu da.

Kreditu entitateek EAEn emandako kreditu osoa gehitu egin da 2010. urtean, 83.863 milioi eurotik 86.884ra (%3,6). Gehikuntza horrek, batez ere, administrazio

publikoei emandako kredituan du bere azalpena (+%29,2). Sektore pribatuari emandakoa, aurreko urtean ez bezala, gehitu egin da, baina gutxiago (+%2,7).

Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren aldakuntza tasen analititik, finantza erakunde mota ezberdinen arabera, ondorioztatzen da bankuek, aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek emandako kreditu saldoak 2009 eta 2010. urteen artean gehitu direla: %5,6 bankuen kasuan, %2,7 aurrezki kutxen kasuan eta %1 kreditu kooperatiben kasuan. Finantza entitate bakoitzak beste sektore egoiliar batzuei emandako kreditu osoan duten pisuari dagokionez, berriro ere lehenengo bi erakunde motak dira kredituaren zatirik handiena bereganatu dutenak, eta emandako kredituaren bolumena gehien gehitu zaiena. Gauzak horrela, aurrezki

I.2.32. Koadroa. Kreditu entitateek etxebizitzetako eta ezeizge-ei emandako interes tasa


	DMTE*			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Haztatutako batez besteko tasa					
	Etxebizitza kreditua	Kontsumo kreditua	Beste xede batzuk	Etxebizitza	Kontsumoa	Beste xede batzuk
2007	5,38	9,53	6,36	5,53	10,07	6,84
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64

DMTEk ez ditu komisioak hartzen, UTBK bai. Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

kutxek beren balantzeetan jasotzen dute beste sektore egoiliar batzuei 2010. ekitaldia amaitzerako emandako kredituaren saldo osoaren % 46,4; bankuek % 38,2 islatzen dute magnitude horretan eta kreditu kooperatibek, aldiz, gainerako % 15,3a. Kasuan kasuko aldakuntza ratioak igaro egiten dira 2009. eta 2010. urteen artean -% 0,7tik %2,7ra lehenengo kasuan, -%10,6tik %5,6ra bigarren kasuan eta %3,5etik %1,4ra hirugarren kasuan; hau da, gehikuntza moteltzen da.

Beste sektore egoiliarretan kreditu saldoak igo izanak ziurrenik eragina eduki du ere etxebizitza erosteko hipoteka bermea duen kredituaren gehikuntza txikian. Gauzak horrela, Espainiako Bankuak estatu osoarentzat dituen datuen arabera (ez dago autonomia erkidegoen mailako daturik), magnitude hau gehitu egin da 2009. eta 2010. urteen artean, %1,4 (611.813 milioi eurotik 620.653 milioi eurora).

Zentzu honetan, Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek -INERen Hipoteken Estatistikan argitaratutakoak-

I.2.9. Grafikoa. Hipoteka-bermea duten kredituak, etxebizitza erosteko

Iturria: Espainiako Bankua.

I.2.33. Koadroa. Kreditu entitateek sektore publikoari eta pribatuari emandako kreditua (saldoak 12/31n).

	Euroak, milioika				Banaketa EAE 2010	Estatua 2010	% Estatuaren gainean	% aldakuntza		
	2007	2008	2009	2010				2007-08	2008-09	2009-10
Guztira	82.203	87.420	83.863	86.884	100,0	1.856.784	4,7	6,3	-4,1	3,6
- Adm. publikoa	1.336	2.028	2.757	3.562	4,1	74.492	4,8	51,8	35,9	29,2
- Sektore Pribatua (BSE)	80.867	85.391	81.106	83.322	95,9	1.782.292	4,7	5,6	-5,0	2,7
Bankuak	33.870	35.186	31.463	33.236	38,3	884.263	3,8	3,9	-10,6	5,6
- Adm. publikoa	561	784	1.156	1.547	1,8	47.122	3,3	39,8	47,4	33,8
- Sektore Pribatua	33.309	34.402	30.307	31.689	36,5	837.140	3,8	3,3	-11,9	4,6
Aurrezki Kutxak	36.903	39.566	39.288	40.353	46,4	874.161	4,6	7,2	-0,7	2,7
- Adm. publikoa	731	1.161	1.484	1.896	2,2	25.812	7,3	58,8	27,8	27,8
- Sektore Pribatua	36.172	38.405	37.805	38.457	44,3	848.348	4,5	6,2	-1,6	1,7
Kreditu koop.	11.429	12.668	13.112	13.295	15,3	98.360	13,5	10,8	3,5	1,4
- Adm. publikoa	43	84	117	119	0,1	1.557	7,6	95,3	39,3	1,7
- Sektore Pribatua	11.386	12.585	12.995	13.176	15,2	96.802	13,6	10,5	3,3	1,4

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

I.2.34. Koadroa. Landa finken eta hiri finken hipotekak EAE-n

	2008			2009			2010 (behin-behineko datuak)			Aldakuntza 2009-10		
	Kopurua	Zenbate- koa (milioi €)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbate- koa (milioi €)	Batez besteko zenbate- koa(€)	Kopurua	Zenbate- koa (milioi €)	Batez besteko zenbate- koa (€)	Kopurua	Zenbate- koa (milioi €)	Batez besteko zenbate- koa(€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	46.050	9.157	198.842	42.626	7.505	176.061	44.002	7.186	163.309	3,2	-4,2	-7,2
Landa finkak	1.203	352	292.340	1.048	251	239.872	894	158	176.698	-14,7	-37,2	-26,3
Hiri finkak	44.847	8.805	196.334	41.578	7.253	174.453	43.108	7.028	163.031	3,7	-3,1	-6,5
Etxebizitzak	31.712	5.164	162.832	27.447	3.960	144.272	30.781	4.465	145.049	12,1	12,8	0,5
Orubeak	1.495	1.790	1.197.644	1.428	1.499	1.049.947	896	907	1.012.129	-37,3	-39,5	-3,6
Beste hiri finka batzuk	11.640	1.851	159.005	12.703	1.794	141.246	11.431	1.656	144.898	-10,0	-7,7	2,6

Iturria: INE Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

adierazi egiten dute EAEn eratutako hipoteka kopurua % 3,2 gehitu dela. Bestetik, hipotekatutako etxebizitzaren kopurua %12,1 gehitu da. Hipotekatutako finka gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 7,2 murriztu da, 163,3 mila euro izanez aurreko ekitaldiko 176,6en aurrean. Bestalde, hipotekatutako etxebizitza gainean emandako batez besteko zenbatekoa gehitu egin da, % 0,5 (144,2 mila eurotik 145,1 mila eurara).

Finantza entitateen jarritako gordailuei dagokienez, Administrazio Publikoak titular diren horiek 4.937 milioi euroan kokatu zuten saldo osoa EAEn 2010. ekitaldia amaitzerako eta Espainiako Bankuaren Buletin Estatistikoaren datuen arabera. Kopuru hori bat dator urteko % 19,9ko gehikuntza tasarekin. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuak (BSE) 73.862 milioi euroan kokatu ziren, eta hori % 0,4ko gutxikuntza izan zen aurreko denboraldiarekiko.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate ezberdinen arabera aztertuz gero (agerikoa, aurrezpena eta epeak), ikusiko dugu ageriko gordailuak 13.866 milioi eurara iristen zirela, 2010. urtean % 5,1eko gutxikuntza eduki eta gero. Epeakoko gordailuen saldoa % 1,6 jaitsi zen, 41.374 milioi euroetara iritsi arte. Aurrezpen gordailuen saldoa % 6,2 gehitu zen, 18.624 milioi eurora iritsi arte. Burtari dagokionez, 2010eko ekitaldian ziurgabetasun handia egon da, ekonomia aurreratuetan hazkuntza hasiberria baina ahula egon delako, eta horrek zor handietan izan ditzakeen ondorioengatik. Munduko

eremu ekonomiko nagusietako gobernuetako agintariek eta diru-agintariek neurri sorta bat ezarri dute hazkunde ekonomikoa berriro aktibatzen saiatzeko. Agertoki honetan, finantza-egonkortasuna suspertzeko prozesuak zenbait gertakari intentsu bizi izan ditu, arrisku burujabe batzuen balizko kaudimenari dagokionez.

Munduko burtsa-merkatuei dagokienez, abenduaren erdira arte oso emaitza ezberdinak zituzten: alemaniar edo iparramerikar burtsaren adierazle nagusien etekin handiak erakusten zituzten batetik (%14 eta %10 hurrenez hurren) eta Espainia, Grezia eta Italiako indizeek galera handiak (-%15, -%30 eta -%12 hurrenez hurren).

Espainiaren kasuan, burtsa-adierazle nagusiak, IBEX 35ek, 2009. urtean munduko burtsa nagusien artean etekinetan garrantzitsuenetako bat zena, 2010. urtea zigorturik bizi izan du, finantza sektorearen ahultasunaren eta arriskuaren ondorioz, eta abenduaren erdira arte %15 jaitsi zen, ekitaldian zehar puntu gorenaren eta txikienaren artean %35 eremu zabalean aurrera eta atzera ibili ondoren.

Bilboko Burtari dagokionez, Bilboko Burtaren 2000ko Indizea 1.615,18 puntura iritsi zen 2010eko abenduaren, eta horrek esan nahi du aurreko urteko abenduaren aldean % 16ko gutxikuntza egon zela. Aldakuntza tasa hau estatuan erregistratutakoaren antzekoa da. Estatuan, Ibex 35ak ekitaldia ixtean (2010eko abenduaren 10era arte), aurreko urtearen aldean %15,23ko gutxikuntza zeukan (11.940 puntutatik 10.121,9 puntutara abenduaren 10ean).

**I.2.35. Koadroa. Sektore pribatuko gordailuak eta administrazio publikoenak
gordailu entitateetan (xii-31ko saldoak)**

	Euroak, milioika			Banak.	Egoera	%a Estatuko kopuru osoaren aldea	% aldakuntza	
	2008	2009	2010				08-09	09-10
GUZTIRA PRIBATUA ETA PUBLIKOA	76.344	78.640	78.799	—	1.223.296	5,7	3,0	0,2
GUZTIRA SEKTORE PRIBATUA (BSE)	70.610	74.188	73.862	100	1.148.053	6,4	5,1	-0,4
Ageriko gordailuak	12.813	14.605	13.866	18,8	263.439	5,3	14,0	-5,1
Aurrezpen gordailuak	14.174	17.544	18.624	25,2	211.346	8,8	23,8	6,2
Eperako gordailuak	43.623	42.037	41.374	56,0	673.268	6,1	-3,6	-1,6
Bankuak	22.136	23.867	26.257	35,5	523.785	5,0	7,8	10,0
Ageriko gordailuak	5.625	6.284	5.886	8,0	142.810	4,1	11,7	-6,3
Aurrezpen gordailuak	4.521	5.639	5.513	7,5	73.406	7,5	24,7	-2,2
Eperako gordailuak	11.991	11.945	14.858	20,1	307.569	4,8	-0,4	24,4
Aurrezki Kutxak	36.923	37.380	34.816	47,1	545.635	6,4	1,2	-6,9
Ageriko gordailuak	5.426	6.355	6.159	8,3	109.361	5,6	17,1	-3,1
Aurrezpen gordailuak	7.078	8.045	8.899	12,0	116.262	7,7	13,7	10,6
Eperako gordailuak	24.418	22.978	19.759	26,8	320.012	6,2	-5,9	-14,0
Kreditu kooperatibak	11.551	12.941	12.789	17,3	78.633	16,3	12,0	-1,2
Ageriko gordailuak	1.764	1.966	1.821	2,5	11.268	16,2	11,5	-7,4
Aurrezpen gordailuak	2.574	3.860	4.212	5,7	21.678	19,4	50,0	9,1
Eperako gordailuak	7.215	7.114	6.757	9,1	45.687	14,8	-1,4	-5,0
GUZTIRA SEKTORE PUBLIKOA	5.733	4.452	4.937	100	75.243	6,6	-22,3	10,9
Bankuak	1.115	920	987	20,0	40.524	2,4	-17,5	7,3
Aurrezki Kutxak	3.807	2.878	3.185	64,5	32.174	9,9	-24,4	10,7
Kreditu kooperatibak	811	654	764	15,5	2.545	30,0	-19,4	16,8

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

I.2.36. Koadroa. Bilboko burtsaren indizea 2000n

	Azkena	Gehienekoa	Gutxienekoa	Aldakuntza %a (azkena/ azkenaurrekoa)
2005	1.921,5	1.956,4	1.611,6	17,66
2006	2.577,5	2.635,8	1.611,6	34,14
2007	2.626,6	2.798,3	2.406,3	1,9
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,47
2009	1.921,6	1.936,2	1.149,3	20,9
2010	1.615,18	1.975,39	1.398,65	-15,9

2000ko oinarria, 1999ko abenduaren 31n. Iturria: Bilboko Burtsa.

Bilboko Burtsaren kontratazio bolumena (erosketak eta salmentak) % 44,6 gehitu da 2010. urtean, hain zuzen ere 76.108,3 milioi euro (aurreko aldia 51.949,5 murriztu zen). Gehikuntza horren jatorria errenta aldagarria da (+%50,7), errenta finkoko kontratazioa %33,8 jaitzi baitzen. Kontratazio osotik, % 51,9 erosketei dagokie. Horiek % 49,5 gehitu dira aurreko ekitaldiaren aldea.

Gizarte Zerbitzuak

Epigrafe hau "Gizarte Babesa EAEn" izeneko Kapituluaren sarreran jorratzen da.

I.2.37. Koadroa. Bilboko burtsaren kontratazio bolumena (*)

	2007		2008		2009		2010		2009-2010 bariazioa	
	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak
GUZTIRA BURTSA	237.517,8	120.286,6	222.575,2	113.432,0	170.625,7	85.635,5	246.734,0	127.989,9	44,61	49,46
ERRENTA ALDAGARRIA	229.963,1	116.507,7	219.635,9	111.962,4	158.292,8	79.469,4	238.568,6	123.907,6	50,71	55,92
Etengabeko merkatua: BUIS	229.952,7	116.502,5	219.635,7	111.962,3	158.292,8	79.469,4	238.568,6	123.907,6	50,71	55,92
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	10,4	5,2	0,2	0,1	0	0	0	0	0	0
ERRENTA FINKOA	7.554,7	3.778,9	2.939,3	1.469,6	12.332,9	6.166,2	8.165,4	4.082,3	-33,79	-33,80
Etengabeko merkatua: elektronikoa	21,5	12,2	9,6	4,7	14	6,5	6,4	2,8	-54,29	-56,92
Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)	15,1	7,6	12,4	6,2	9,6	5	4,6	2,3	-52,08	-54,00
Konturako Anotazio Zerbitzuak (KAZ)	7.518,1	3.759,1	2.917,4	1.458,7	12.309,3	6.154,7	8.154,4	4.077,2	-33,75	-33,75

(*) Milioi euro. Iturria: Bilboko Burtsa.

2.2. I+G+B eta IKT jarduerak

2.2.1. Euskal Berrikuntza Sistemaren adierazle nagusiak

I+G gastua. EUSTATen datuen arabera, 2009an 1.281 milioi euro inbertitu ziren EAEn, aurreko urtean baino %1,3 gehiago.

EAEko I+Gn enpresei zorrozki dagokien egikaritzea (teknologia zentrorik —TZ— gabe) %54,9 izan zen, aurreko urtekoa (%56,4) baino gutxiago. Bestalde, teknologia zentroen pisua ere %24,7tik %21,4ra jaitsi zen; unibertsitatearen parte hartzea, aldiz, %15etik 18ra igo zen.

Enpresen egikaritze hori sektoreak Estatuan egindakoa baino handiagoa da, izan ere, EINren arabera, han enpresek (Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuak —IAGEP— bazter utzita) I+G gastuaren %51,9 egikaritu zuten. Hala ere, kontuz interpretatu behar da informazio hori, Frascatiren Gidaliburuko⁶ metodologiak batez ere finantzazio pribatua duten zentro teknologikoak sarrazten baititu talde horretan eta, beraz, zorrozki enpresei dagokien ehunekoa txikiagoa litzateke Estatuan.

EUROSTATen arabera (Science, technology and innovation in Europe, 2010 edition), 27EBn, 2007an, enpresek gastuaren %64 egin zuten, baina arestian adierazitako tentu bera kasu honetan ere hartu behar da aintzat.

I+Gko ahalegina. 2009an, EUSTATen arabera, I+G gastua, BPGd-ren gainean, %1,98 izan zen (%1,86 2008an), 27EBko balioaren gainetik (%1,9), 2008ko datuekin, baina gaian ondoko tailan erakutsitako erreferentziatzko herrien azpitik.

EINK EAerako erregistratutako ahalegina, 2008an, %2,06 izan zen. Estatuko batez bestekoa %1,38 izan zen eta ratorik altuenak honako erkidegoek izan zituzten: Nafarroak (%2,13), Madrilak (%2,06), EAEk (%2,06) eta Kataluniak (%1,68). Hazkunde tasa handienak honako

erkidegoek izan zituzten: Nafarroak, Kantabriak eta Aragoi.

I+Gko gastuaren finantzazioa (Gastua funtsen jatorriaren arabera). Azken urteetan sektore pribatuak I+G gastuaren finantzazioan edukitako pisua apur bat galdu dela ikusi bada ere, sektore pribatua da oraindik ere finantzazio iturri garrantzitsuenak. Horrela, sektore pribatuak I+G gastu osoaren %54 finantzatu zuen, 692 milioi euro (%56 2008an) eta administrazioak %40 (%40,3 aurreko urtean).

Gauzak horrela, EAE Lisboako helburutik 12 puntura dago: I+Gn egiten den gastu osoaren %66 funts pribatuekin finantza dadila.

Estatuan, EINren datuen arabera, herri-administrazioak %47,1 finantzatu zuen eta sektore pribatuak %43,4 (Lisboako helburutik 22,6 puntura).


27EBn, EUROSTATen datuen arabera, 2008an portzentaje horiek %33,5 eta %54,4 izan ziren, hurrenez hurren. I+Gn egindako gastuaren finantzazio pribatuko ratio altuak edukitzeagatik nabarmentzen dira, besteak beste, Japonia (% 77,7), Hego Korea (% 73,7), Finlandia (% 68,1), EEBB (% 67,3), Alemania (% 67,3), Suedia (% 64) eta Danimarka (% 60,2).

EUSTATen arabera, EAEn BPGd 2009an 54.568 milioi eurokoa izan zela kontuan hartuta, sektore pribatuak finantzatutako I+G (692 milioi euro) BPGd-ren %1,1 izan zen. Bartzelonako helburua %2koa da. Bestalde, herri-administrazioak finantzatutako I+G (512,4 milioi euro) EAEn BPGd-ren %0,79 da. Bartzelonako helburua %1ekoa da.

I+G gastua zientzia arloaren arabera. Berriz ere, ingeniariaritz eta teknologia nabarmendu ziren (gastu osoaren %69,7), eta haien atzetik oso urrun zientzia zehatzak/naturalak (%10,6) eta osasun zientziak (%10). Bestalde, gizarte eta nekazaritza zientziak %6,2 eta %3,5 izan ziren, hurrenez hurren.


Funtsen jatorriaren arabera, ingeniariaritz eta teknologiako ikerkuntza batez ere sektore pribatuak (enpresek eta

I.2.10. Grafikoa. I+Gko ahaleginaren eta enpleguaren bilakaera EAEn



Iturria: EUSTAT.

I.2.11. Grafikoa. I+G gastuaren finantzazioaren bilakaera funtsen jatorriaren arabera



Iturria: EUSTAT.

⁶ Frascatiren Gidaliburuaren izen ofiziala "Esperimentazio ikerkuntza eta garapenari buruzko inkestetarako arau praktikoko proposamena" da, eta ELGAK proposatu zuen, 1963an hura idazteko I+Gko estatistikei buruzko aditu taldea bildu ondoren. Egun, ikerkuntza eta garapeneko jotzen diren jarduerak zehazteko erreferentzia aitortua da.

I.2.38. Koadroa. Zientzia eta teknologiari buruzko adierazleak 2008 (*)

	Alemania	Espainia 2009	Frantzia	Italia	Portugal	Erresuma Batua	AEB	Japonia	27-EB	EAE 2007	EAE 2008	EAE 2009
I+G gastuak												
BPGd-ren gainean (%)	2,54	1,38	2,08	1,13	1,18	1,79	2,67	3,40	1,85	1,64	1,85	1,98
Langileak (AOB)												
Guztira	493.858	220.777	363.867	192.002	34.593	333.671	—	935.182	2.314.627	14.435	15.373	16.690
Langile okupatuekiko (%)	12,3	11,7	14,1	7,7	6,6	11,3	—	14,3	10,4	14,2	15,0	17,0
Ikertzaileak (AOB)												
Guztira	284.305	133.803	211.129	88.430	27.986	175.476	1.387.882	709.691	1.355.680	9.220	9.640	10.386
Langile okupatuekiko (%)	7,1	7,1	8,2	3,5	5,4	6,0	9,6	10,8	6,1	9,1	9,4	10,6
Gastuaren finantzaketa (%)												
Enpresak	68,1	43,4	52,4	40,4	36,3	47,2	66,4	77,1	54,4	58,9	56,0	54,0
Administrazioak	27,8	47,1	38,4	48,3	55,2	29,3	27,7	16,2	33,5	37,6	40,3	40,0
Bestelako iturriek	0,3	4,0	2,2	3,0	3,8	5,8	5,9	6,3	3,5	0,3	0,3	3,0
Atzeritarrek	3,8	5,5	7,0	8,3	4,7	17,7	0,0	0,4	8,6	3,2	3,3	3,0
Gastua egikaritzea (%)												
Enpresak	63,3	51,9	63,2	50,0	51,5	64,1	71,9	77,2	64,0	81,3	81,1	76,3
Enpresek baino ez										55,0	56,4	54,9
Zentro teknologikoek										26,3	24,7	21,4
Administrazioak	13,7	20,1	16,5	19,2	9,1	9,2	10,7	8,3	13,2	3,5	4,0	5,7
Unibertsitateak	22,0	27,8	19,2	30,3	29,9	24,5	13,3	12,7	21,8	15,2	14,9	18,0
IAGEPek	1,0	0,2	1,1	0,5	9,5	2,1	4,2	1,9	1,0	0,0	0,0	0,0

(*) Herrialde guztietako 2008 edo eskuragarri egon den azken urteko datuak. Espainiako datuak: 2009. EAEko datuak: 2007, 2008 eta 2009.

AOB= Arduraldi Osoko Baliokidetza

Iturria: EUSTAT. Zientzia ikerkuntza eta teknologia garapeneko jarduerari buruzko estatistika eta EIN

I.2.39. Koadroa. Barneko gastuak zientzia arloaren eta egikaritzeko sektorearen arabera, funtsen jatorria aintzat hartuta (euroak, milaka)

	2008					2009					
	Guztira	Funtsen jatorria				Guztira	Funtsen jatorria				
		Admin.	Enpr.	IAGEP	Atzerria		Admin.	Goi-mailako hezkuntza	Enpresak	IAGEP	Atzerria
Guztira	1.263.877	509.401	708.164	4.060	42.252	1.280.917	512.640	31.522	691.653	6.079	1.280.917
Zientzia arloa											
Ingeniaritza eta teknol.	905.663	252.316	618.882	2.894	31.571	893.427	248.816	13.736	596.836	3.611	30.428
Osasun zientziak	102.568	67.626	31.406	297	3.240	127.776	84.295	1.661	36.450	1.584	3.786
Zientzia zehatzak/nat.	149.786	120.538	25.115	673	3.460	136.805	98.127	7.587	28.377	348	2.366
Nekazaritza zientziak	43.084	27.706	13.441	8	1.929	43.621	27.882	116	15.201	19	403
Gizarte zientziak	62.775	41.215	19.320	187	2.052	79.289	53.521	8.422	14.790	517	2.039
Egikaritze sektorea											
Administrazioa	50.475	45.735	3.339	0	1.401	72.610	64.017	2.468	4.857	458	810
Goi-mailako hezkuntza	188.798	144.182	39.826	815	4.974	230.383	177.761	27.981	19.801	981	3.859
Enpresak teknologia zentroak gabe	712.880	148.616	547.949	224	16.092	703.904	140.780	114	548.402	633	13.975
Teknologia zentroak	311.724	170.868	118.050	3.021	19.785	274.019	130.082	959	118.593	4.006	20.378

Iturria: EUSTAT. "I+G jarduerari buruzko estatistika".

teknologia zentroek) finantzatu zuen berriro. Horrela, %68,8 sektore pribatuak finantzatu zuen eta %27,9 sektore publikoak. Osasun zientzietan, zehatz/naturaletan, nekazaritza eta gizarte zientzietan kontrakoa gertatu zen, administrazioak, hurrenez hurren, gastuaren %66, 71,7, 63,9 eta 67,5 finantzatu baitzuen.

I+Gko langileak Arduraldi Osoko Baliokidetzan-AOB.

Joerak gora jarraitu du. Horrela, 2009an 16.690 lagun izan ziren, biztanle okupatuen %17 (%15 aurreko urtean); milako hori Estatukoa (%11,69) eta EBkoa (%10,4) baino handiagoa da; are lurralde biziagoetan egondakoa baino handiagoa: Frantzia (%14,1), Alemania (%12,3), Japonia (%14,3).

Bestalde, ikerlariak %10,6 dira, Estatuan %7,08 diren bitartean.

Emakumeek I+G jardueretan duten partaidetza gora jarraitu du. 2008an guztien %33,4 baziren, 2009an %34 izan ziren, oraindik gizonak baino gutxiago (%34, %66 aurrean). Estatuan, EINren arabera, emakumeak langile guztien %40 dira.

Lanpostua (ikertzaileak, teknikariak edo laguntzaileak) kontuan izanda, berriz ikusi da ikertzaileek halako jardueretan diharduten emakume langile guztien gainean duten proportzioa ikertzaileek euren sexu taldearen gainean dutena baino handiagoa dela. Gizonezkoen artean, I+G jardueretan dihardutenen %61,2 ikertzaileak

I.2.40. Koadroa. Langileak egikaritze sektoreetan okupazioaren arabera

	GUZTIRA		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2008	2009	2008	2009	2009					
	Guztizko bertikalaren g. %	Guztizko bertikalaren g. %	Guztizkoaren g. %	Guztizkoaren g. %	z	Guztizko horizontalaren g. %	z	Guztizko horizontalaren g. %	z	Guztizko horizontalaren g. %
Guztira	24.413	26.664	8.050	9.113	16.603	62,3	7.383	27,7	2.676	10,0
Enpresak	68,7	65,1	28,6	53,5	9.381	54,0	5.882	33,9	2.092	12,1
Enpresak baino ez	53,2	51,0	25,2	36,8	6.576	48,4	5.276	38,8	1.745	12,8
Teknologia zentroak	15,5	14,1	40,3	16,7	2.805	74,6	606	16,1	347	9,2
Herri-administrazioa	5,7	9,3	40,7	13,7	1.310	53,0	1.062	43,0	99	4,0
Goi-mailako hezkuntza	25,7	25,6	42,9	32,9	5.912	86,5	439	6,4	485	7,1

Iturria: EUSTAT, I+G jardueren buruzko estatistika.

dira eta emakumezkoen artean %64,3. Hori ez da Estatuan gertatu; bertan, ikertzaileak I+G jardueretan diharduten emakume langileen %58,4 dira, eta gizonezkoen kasuan %62,1.

Zientzia arloaren arabera, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatzen joan da, ingeniarietan izan ezik; bertan, gizonak %72,8 dira.

I+Gko langileak egikaritze sektorearen arabera. Enpresa sektoreak enplegatu zituen langile gehienak (%51); haren atzetik, goi-mailako hezkuntzako erakundeak (%25,6), teknologia zentroak (%14) eta herri-administrazioak (%9,3).

Ikertzaile-laguntzaile (teknikariak eta laguntzaileak) bikoteari dagokionez, erlazioa honakoa da: Administrazioan 53-47; Goi-mailako hezkuntzan 87-13; enpresa sektorean 48-52 eta teknologia zentroetan 75-25. Oro har: 62-38.

2.2.2. EAEko enpresa sektorearen I+G+B jarduerak

a) Enpresa sare osoaren I+G adierazleak, teknologia zentrorik gabe

EUSTATen datuen arabera, 2009an 1.469 enpresek (teknologia zentrorik gabe) egin zituzten I+G jarduerak; haietatik, 760 industria sektorekoak ziren eta 653 zerbitzu sektorekoak. Jarduera horietan arduraldi osoan erabilitako langileei dagokionez, industrian %5,7 gehiago izan ziren eta zerbitzuetan %2,1.

Eraikuntza sektorean enpresa gutxiak dauzkate I+G+B jarduerak, baina eraikuntza sektorean zerikusia duten zenbait sektore besteak beste, kimika, zeramika, metalgintza... sektoreen barruan daude.

I+G jardueretan langile gehien darabilten sektoreak honakoak dira: I+G jarduerak, sektorean diharduten langileen %22,2k jarduera horietan baino ez dihardu; makina-erreminta (%11,4), etxe-tresnak (%9), tresna

elektronikoak (%8,9), jarduera informatikoak (%8,7) eta doitasun tresnak (%7,5).

I+G jardueren arloa alde batera utzita, jarduera nagusia I+G jarduerak egitea duten enpresen jarduera hartzen baitu (hots, ingeniariak eta teknologia aholkularitzak) eta, beraz, haien ezaugarriak, helburuak eta finantzaketa ez baitira besteak bezalakoak, euskal enpresek, proportzio handi batean, enpresaren beraren funtsez finantzatzen dituzte gastu horiek oraindik.

b) Berrikuntza enpresa sarean

Berrikuntzari buruzko inkestei eta behar diren definizioei begira hasiko gara:

- EUROSTATEk, ELGArekin koordinatuta, zenbait azterlan ekin zien Estatu kideetako berrikuntzari buruzko datuak biltzeko; horretarako, 1994ko urtarrilean onartu zen *Batzordearen I+G eta berrikuntzari buruzko estatistiken gaineko erabakia* proposamena aurkeztu zuen.

Azterlan horien emaitza 1993ko **Berrikuntzari buruzko Erkidegoko Inkesta (Community Innovation Survey, CIS)** proiektua izan zen. Erreferentziazko urtea 1992a izan zen eta galdetegi bateratua erabili zen erkidegoko 12 herrialdeetako enpresa berrikuntzari buruzko datuak jasotzeko. Erabilitako metodologia ELGAren Osloko Gidaliburuan oinarritu zen (arestian aipatu Frascatiren Gidaliburua biko lehenago). 1997an eta 2001ean bigarren eta hirugarren CIS errondako galdetegiak batzen hasi zen, 1996 eta 2000ri buruzkoak, hurrenez hurren (hots, 4 urtean behin egiten da).

Ido beretik eta 27EBko Estatu kideen berrikuntza emaitzen ebaluazioa erkatua eman ahal izateko, 2000ko Lisboako Europako Kontseiluan ezarritako helburuen arabera, Europako Batzordearen ikerkuntzaren zuzendaritza nagusiak, European Trend Chart on Innovation-ekin batera, **Berrikuntzaren adierazleen**

I.2.41. Koadroa. I+G-ko enpresa eta langile kopuruaren bilakaera (TZrik gabe)

	Enpresa kop.					AOB langileak				
	2006	2007	2008	2009	2008-09 ald.	2006	2007	2008	2009	2008-09 ald.
Guztira	1.106	1.255	1.412	1.469	4,0	7.083,9	7.874,8	8.684,90	9.097,90	4,8
Lehen sek., erauzketa eta energia	14	10	15	15	0,0	57,6	66,3	99,4	130,1	30,9
Industria	635	688	751	760	1,2	4.035,9	4.407,1	4.880,10	5.157,9	5,7
Eraikuntza	20	30	41	41	0,0	37,2	50,3	77,0	96,2	24,9
Zerbitzuak	437	527	605	653	7,9	2.953,2	3.351	3.638,40	3.713,7	2,1

Iturria: EUSTAT, I+G jardueren buruzko estatistika.

I.2.42. Koadroa. Enpresa sektorearen adierazleak (TZrik gabe) jarduera arloaren arabera. I+G 2009.

	Enpresa kop.	AOB langileak	Barneko gastuaren banaketa		Norberaren funtsen %	Besteren funtsen %	EAEko enplegua guztira	I+Gn diharduten langileen % EAEn
			2008	2009				
Guztira	1.469	9.097,9	712.880	703.904	74,1	25,9	970.780	1,4
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, erauzketa eta energia	15	130,1	14.567	13.139	85,0	15,0	22.075	1,3
Industria								
M-A Kimika eta petrolioaren finntzea	57	357,9	24.879	24.387	85,1	14,9	6.281	7,0
M-B Kautxua eta plastikoa	47	218,7	14.451	17.397	74,2	25,8	17.449	2,1
M-B Industria ez metalikoa	19	72,2	6.338	6.404	84,4	15,6	6.275	2,4
M-B Metalurgia	44	277,4	27.090	20.277	76,6	23,4	22.796	2,8
M-B Metalezko artikulua	167	654,4	57.297	47.110	82,2	17,8	53.974	2,0
M-A Makina-erreminta	37	362,8	20.701	22.927	70,8	29,2	4.411	11,4
M-A Etxe tresnak	9	371	30.075	33.230	86,8	13,2	4.608	9,0
M-A Bestelako makineria	119	920,9	59.094	77.137	84,8	15,2	20.862	6,0
M-A Material elektrikoa	53	435,8	34.128	39.004	80,0	20,0	10.749	6,1
A Material elektronikoa	23	298,1	21.791	22.369	84,3	15,7	3.846	8,9
A Doitasun tresnak	26	243,4	13.231	19.142	74,4	25,6	3.726	7,5
M-A Garraio materiala	51	682,5	91.215	80.820	78,1	21,9	19.639	4,9
Beste manufaktura batzuk	108	262,8	16.200	22.812	83,3	16,7	40.893	1,2
Eraikuntza	41	96,2	10.416	5.687	80,8	19,2	93.557	0,2
Zerbitzuak								
A Jarduera informatikoak	135	926,1	45.116	43.309	63,5	36,5	14.753	8,7
A I+G jarduerak	89	1.076,6	98.840	77.860	53,7	46,3	5.438	22,2
Bestelako enpresa-jarduerak	234	1.036,6	68.752	71.388	59,9	40,1	113.764	1,6
Beste zerbitzu batzuk	195	674,4	58.698	59.504	72,8	27,2	505.684	0,2

Iturria: EUSTAT, I+G jardueren buruzko estatistika.

koadroa (European Innovation Scoreboard, EIS) prestatu zuen. Azken helburua herriak sailkatzea da, haien ekonomiak berrikuntza jardueretarako dituen gaitasun eta garapen maila neurtuz.

Hura pixkanaka egokitu da nazio testuinguru guztietan gertatzen diren berrikuntza prozesu eta ereduen aniztasuna egokitzeko. 2007an, *Europako berrikuntzaren indize sintetikoa* sortu zen, 29 adierazletan oinarritua. 2008-2010 aldirako, berriro berrikusi zen dimentsio eta adierazleen zerrenda eta, egun, **Europako Berrikuntza Indizea (European Innovation Scoreboard)** EBko 27 herri kideekin eta Kroazia, Turkia, Norvegia eta Suediarekin kalkulatu da eta 3 multzo nagusitan dago egituratuta; multzo horiek 7 berrikuntza dimentsio garatzen dituzte, guztira 29 berrikuntza adierazletarako.

- Berrikuntza “Prestatzaileak” multzoan “Giza baliabideak” eta “Finantzazioa eta laguntza” dimentsioak sartzen dira. 9 adierazle dauzka.
- “Enpresa jarduerak” multzoak 3 dimentsio dauzka, “Enpresa inbertsioak”, “Enpresa loturak eta ekimena” eta “Errendimenduak”. 11 adierazle biltzen ditu.
- “Produktibitateak” multzoak “Berritzaileak” eta “Ondorio ekonomikoak” dimentsioak batzen ditu. 9 adierazle biltzen ditu.

Multzo edo dimentsio bakoitzerako eta indize orokorrerako, adierazle sintetiko bat kalkulatu da, herri guztietarako metodologia bera erabiliz. Haren balio 0 eta 1 artean egongo da. Bestalde, adierazle bakoitzaren erreferentzia urtea berbera da herri guztietan.

Enpresa *berritzailea* izango da inkestan kontuan hartutako aldirian *berrikuntzaren bat sartu duen* enpresa. Berrikuntzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio metodo berria edo antolakuntza metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. *Berrikuntza guztien ezaugarri komuna aldaketa horiek dagoeneko enpresaren lanean sartuta egon beharko direla izango da.* Prozesu, komertzializazio metodo edo antolakuntza metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

Definizio hori kontuan hartuta, *bi berrikuntza mota* bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkatuan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez *teknologikoak* antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- *Jarduera berritzaileak DITUEN enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.*

Jarraian ikusiko dugunez, berrikuntzarako jardueretako gastua (9 langiletik gorako enpresena) hazi den bitartean, enpresa berritzaileen ehunekoa murriztu egin da, joera hori sektore guztietan gertatu ez arren.

Enpresa berritzaileak

EUSTATen Berrikuntzari buruzko inkestako datuen arabera⁷, EAEn, 2007-2009 aldian, enpresen %19,8 izan ziren berritzaileak (%20,8 aurreko aldian). Portzentaje hori lortzeko, kontuan hartu behar dira bai berrikuntza teknologikodun (produktua edota prozesua) enpresak (enpresen %14,5) eta berrikuntza EZ teknologikoa (antolakuntza edota komertzializazioa) egiten duten enpresak (enpresen % 11,7).

10 langile eta gehiago enpresak baino ez baditugu aintzat hartzen (horrek EIN eta EUROSTAT bezalako beste estatistika erakunde batzuekin erkatzen uzten digu, ez baitute 10 langiletik beherako enpresei buruzko informaziorik ematen), enpresa berritzaileak (teknologikoak eta ez teknologikoak) %38,9 dira. Estatuan, EINen Berrikuntzari buruzko inkestaren arabera, aldi berarako portzentajea % 33,9koa da.

CIS 2008ren arabera, 27EBn, portzentajeak Alemaniaren %65,1etik (zerrendaren lehenengo postuan) Bulgariaren %16,1era doaz. Estatu espainiarrak %34,7 erregistratu du. Herrialde dinamikoenak, Alemaniak gain, honakoak dira: Austria (%52,5), Luxenburgo (%52,5), Irlanda (%52,5), Islandia (%52) eta Danimarka (%52). Espainiaren atzetik honakoak daude: Holanda (%34,3), Frantzia (%32,6), Lituania, Eslovenia, Polonia, Eslovakia, Hungaria, Malta, Errumania, Letonia eta Bulgaria.

Bilakaerari dagokionez, EAEn, 2006-08 eta 2007-09 aldien artean, 10 langiletik gorako enpresa berritzaileak %41,2tik %38,9 murriztu dira; eta berrikuntza teknologikoak sartu dituztenak %31,5etik %29,8ra.

Sektoreen ikuspegitik, zerbitzuen enpresen %39,6, industrialen %46,3 eta eraikuntzakoen %17,6 dira berritzaileak. Jarduera azpi-sektoreen arabera, industrian honakoak nabarmendu dira: industria kimikoa eta farmazia produktuak (sektoreko enpresen %73,8 dira berritzaileak), makineria eta ekipamendua (%62,1), garraio materiala (%60,5) eta informatika eta elektronika produktuak, material eta ekipamendu elektrikoa (%59,5). Zerbitzuetan: bidaia agentziak eta turismo operadoreak (%92), osasun jarduerak (%75,2), finantza eta aseguru jarduerak (%60,4) eta hezkuntza (%57,1).

Eta zerbitzuen enpresen %29,6, industrialen %39,4 eta eraikuntzako %8,5 dira berritzaile teknologikoak. Jarduera azpi-sektoreen arabera, industrian honakoak nabarmendu dira: industria kimikoa eta farmazia produktuak (sektoreko enpresen %69,2 dira berritzaileak), makineria eta ekipamendua (%56,2), garraio materiala (%52,4) eta informatika eta elektronika produktuak, material eta ekipamendu elektrikoa (%51,4). Zerbitzuetan: Osasun jarduerak (%66,2), finantza eta aseguru jarduerak (%57,3), hezkuntza (%52,5 eta bidaia agentziak eta turismo operadoreak (%44).

Gastua berrikuntza teknologikorako jardueretan

EUSTATen Berrikuntza teknologikoari buruzko datuen arabera, 2009an berrikuntza teknologikorako jardueretako gastu osoa %1,03 murriztu eta 2.753,4 milioi eurokoa izan zen, BPGd-ren %4,1. 9 langiletik gorako enpresetara mugatuta, gastua %1,2 hazi eta BPGd-ren %3,3 izan zen. Berriz ere, gastu horren zatirik handiena barneko I+Gri (BPGd-ren %1,9 enpresa guztientzat eta %1,7 9 langiletik gorako enpresak hartuz gero) eta makineria erosteari (BPGd-ren %1,2 enpresa guztientzat eta %0,7 9 langiletik gorako enpresentzat) dagokie.

Jarduera sektoreen arabera eta 9 langiletik gorako enpresetan, industriaren barruan, gastua honakoetan pilatu da: garraio materiala, gastuaren %14; metalurgia eta produktu metalikoak, %8,5; informatika eta elektronika produktuak, material eta ekipamendu elektrikoa, %5,5; eta makineria eta ekipamendua, %5. Bestalde, zerbitzuen sektorean, nabarmentzekoak dira I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduera profesional eta teknikoak, gastuaren %20,1ekin.

c) Europako Berrikuntza Indizea

EUSTATEk egindako datuen arabera, 2009an, EAE, 27EB osoan, 10. tokian zegoen, 0,51 puntuz; 27-EBren batez bestekoaren gainetik, 0,48 izan baitzen.

27EBko herriak lau mailatan saika daitezke, lortutako puntuen arabera. Lehenengoa "berrikuntzako herri aitzindariak" litzateke, eta bertan Suedia (0,64), Finlandia (0,62), Alemania (0,60), Erresuma Batua (0,58), eta Danimarka (0,57) daude. Europako Batasuneko izatea

I.2.43. Koadroa. Jarduera berritzaileak dituzten enpresen enpresa guztien gaineko portzentajearen bilakaera EAE-n

		2006-08	2007-09
Enpresak guztira	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologiko eta ez teknologikoak) (1)	20,8	19,8
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	15,0	14,5
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	12,9	11,7
	EBEak berrikuntza teknologikoko jarduerak izan zein ez	15,7	17,4
9 langile baino gehiagoko enpresak (EINrekin, EUROSTATEkin... erkatzeko)	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologiko eta ez teknologikoak) (1)	41,2	38,9
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	31,5	29,8
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	27,4	26,3
	EBEak berrikuntza teknologikoko jarduerak izan zein ez	—	40,2
	Berrikuntza teknologikoko jarduerak dituzten EBEak	34,4	31,9

(1) Ez dira sartzen bideko edo huts egindako berrikuntza baino egiten ez duten enpresak.
EBEak: enpresa berritzaileak edo berrikuntzak bidean edo arrakastarik gabe dituztenak.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoari buruzko estatistika.

⁷ Edozein tamaina eta jarduera sektoreko enpresei zuzendua, lehen sektorea, herri-administrazioa eta etxeko zerbitzua izan ezik (EINK ez bezala, hezkuntza osoa hartzen du). Alegia, populazio esparrua honakoa da: honako jarduera sektoreetako tamaina guztietako establezimenduak, CNAE-93 Rev. 1en arabera: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Beraz, honakoak baztertzeko ditu: lehen sektorea (A eta B), herri-administrazioa (L), eta etxeko zerbitzua (P).

I.2.44. Koadroa. 10 Langile eta gehiagoko establezimenduak berrikuntza mota eta jardura arloaren arabera

	2007-2009					
	Berrikuntza ez teknologiko mota		Establezimendu berritzaile ez teknologikoak	Establezimendu berritzaile teknologikoak (1)	Establezimendu berritzaileak (1) (teknologikoak edo ez teknologikoak)	EBE establezimendu berritzaileak (2) (teknologikoak edo ez teknologikoak)
	antolakuntza	komertzializazioa				
Guztira	23,0	11,6	26,3	29,8	38,9	40,2
Industria	20,2	10,7	23,9	39,4	46,3	48,0
Erauzketa, kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko industriak	17,2	0,0	17,2	13,8	20,7	20,7
Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	14,0	22,2	24,0	36,2	41,2	43,7
Ehungintza, larrua eta oinetakoak	16,7	7,4	18,5	22,2	33,3	33,3
Zura, papera eta arte grafikoak	17,4	9,1	22,1	25,7	38,0	38,0
Industria kimikoa eta farmazia produktuak	24,3	11,2	28,0	69,2	73,8	74,8
Kautxua eta plastikoa	13,5	6,9	14,4	33,9	37,9	43,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	18,8	8,1	21,3	37,3	43,2	43,6
Informatika eta elektronika prod. Material eta ekipamendu elektrikoak	32,7	15,0	35,9	51,4	59,5	63,2
Makinak eta ekipamendua	27,6	18,2	33,7	56,2	62,1	62,1
Garraio materiala	33,1	6,5	34,7	52,4	60,5	66,9
Altzariak eta bestelako manufaktura	16,3	12,2	22,4	37,4	45,5	45,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	30,4	0,0	30,4	17,4	47,8	52,2
Ur hornidura eta saneamendua	19,5	3,4	19,5	17,2	32,2	43,7
Eraikuntza	9,4	4,3	12,2	8,5	17,6	19,5
Zerbitzuak	26,9	13,4	30,0	29,6	39,6	40,7
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	19,4	14,5	23,1	20,7	30,2	31,3
Garraioa eta biltegiak	29,1	20,7	29,4	31,8	39,4	39,4
Ostalaritza	8,6	18,3	18,9	6,0	19,9	20,1
Telekomunikazioak, informatika eta komunikabideak	35,3	19,1	37,1	41,9	51,5	53,6
Finantza eta aseguru jarduerak	21,8	21,2	23,5	57,3	60,4	60,4
Higiezen alorreko jarduerak	5,6	5,6	5,6	11,1	16,7	16,7
I+G, aholkularitza eta bestelako jardura profesional eta teknikoak	36,0	14,2	37,8	37,8	51,7	54,8
Laguntza zerbitzuak	12,3	8,6	15,8	13,0	23,5	24,2
Bidaia agentziak eta turismo operadoreak	80,0	48,0	88,0	44,0	92,0	92,0
Hezkuntza	43,6	8,3	44,7	52,5	57,1	58,0
Osasun jarduerak	69,4	1,9	69,4	66,2	75,2	78,0
Gizarte, aisialdi, kultura eta bestelako jarduerak	19,0	9,8	23,1	13,1	29,9	29,9

(1) Ez dira sartzen bideko edo huts egindako berrikuntza baino egiten ez duten establezimenduak.

(2) Bideko edo huts egindako berrikuntza egiten duten establezimenduak barne.

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoari buruzko estatistika.

I.2.45. Koadroa. Berrikuntza teknologikorako jardueretako gastua BPGD-ren gainean

	Enpresak guztira				≥ 10 Langile			
	2006	2007	2008	2009	2006	2007	2008	2009
Guztira (euroak, milioika)	2.353,0	2.609,9	2.782,0	2.753,4	1.829,7	2.030,0	2.193,9	2.219,9
BPGd gainera %	3,8	4,0	0,1	0,1	0,0	0,1	0,2	0,3
Barneko I+G	1,5	1,7	0,8	0,9	0,3	0,5	0,7	0,7
Kanpoko I+G	0,6	0,5	0,6	0,5	0,4	0,4	0,5	0,4
Makineria	1,4	1,3	0,2	0,2	0,0	0,9	0,8	0,7
Beste ezagutza batzuk	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Prestakuntza	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Merkaturatzea	0,1	0,2	0,2	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1
Diseinua eta prestaketak	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1	0,1	0,1

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta.

I.2.46. Koadroa. Berrikuntza teknologikorako jardueretako gastua jarduera sektoreen arabera, 9 langiletik gorako enpresak, 2009

	Milaka	% bertikala
Guztira	2.219.892	100,0
Industria	1.002.751	45,2
Erauzketa, kokea lortzeko eta petrolio fintzeko industriak	13.288	0,6
Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	36.339	1,6
Ehungintza, larrua eta oinetakoak	2.295	0,1
Zura, papera eta arte grafikoak	43.781	2,0
Industria kimikoa eta farmazia produktuak	38.521	1,7
Kautxua eta plastikoa	63.384	2,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	189.069	8,5
Informatika eta elektronika prod. Material eta ekipamendu elektrikoak	123.001	5,5
Makinak eta ekipamendua	109.987	5,0
Garraio materiala	310.002	14,0
Altzariak eta bestelako enfabrikaturak	52.523	2,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	5.230	0,2
Ur eta saneamendu hornidura	15.330	0,7
Eraikuntza	5.937	0,3
Zerbitzuak	1.211.203	54,6
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	78.305	3,5
Garraioa eta biltegiak	9.945	0,4
Ostalaritza	3.083	0,1
Telekomunikazioak, informatika eta komunikabideak	169.924	7,7
Finantza eta aseguru jarduerak	60.444	2,7
Higiezinak alorreko jarduerak	182	0,0
I+G, aholkularitza eta bestelako jardura profesional eta teknikoak	446.603	20,1
Laguntza zerbitzuak	11.647	0,5
Bidaia agentziak eta turismo operadoreak	130	0,0
Hezkuntza	247.473	11,1
Osasun jarduerak	156.969	7,1
Gizarte, aisialdi, kultura eta bestelako jarduerak	26.500	1,2

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoaren inkesta.

aintzat hartzen ez bada, talde horretan Suitza legoke (0,69), berrikuntzaren buru gainera.

Bigarren taldea "berrikuntza handiko herriak" litzateke, 0,47 eta 0,54 puntu artekoak, Europako batez bestekoaren gainetik: Austria, Luxemburg, Belgika, Irlanda, Frantzia, Herbehereak, Estonia, Txipre eta Eslovenia. EAE talde horretan dago.

Hirugarren taldea "berrikuntza ertaineko herriak" litzateke: Txekiar Errepublika, Portugal, Espainia, Grezia, Italia, Malta, Hungaria, Eslovakia, Polonia eta Lituania. Laugarrena, "berrikuntza txikiko herriak": Errumania, Letonia eta Bulgaria.

Europako batez bestekoari dagokionez, EAE dimentsio horietako hirutan nabarmentzen da: giza baliabideak, enpresa loturak eta ekimena eta ondorio ekonomikoak. Gainerako dimentsioetan, puntuazioa EBn lortutakoa baino txikiagoa da.


Giza baliabideak dimentsioak lor daitezkeen pertsona oso kualifikatu eta heziak jasotzen ditu, berrikuntzarako datu giltzarri gisa.

- Zientzia eta Ingeniaritza eta Gizarte Zientzia eta Giza Zientzien ikasketetan lizentziadun izatera iritsi den 20 eta 29 urte arteko gazteen 46,7 milako, EBren 40,5 milakoren aldea.
- Goi-mailako hezkuntza (Unibertsitatea edo goi-mailako lanbide heziketa) duten 25 eta 64 urte arteko biztanleak %42,2 dira, EBko batez bestekoa (%24,3) ia halako bi).
- Prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzen duten 25 eta 64 urte arteko biztanleak % 13,5 dira, Europan %9,6 diren bitartean.
- Gutxienez bigarren hezkuntza bukatu duten 20 eta 24 urte arteko biztanleak %78 dira, Europako batez bestekoa (%78,5) baino zertxobait gutxiago.

Enpresa loturak eta ekimena dimentsioak erakusten ditu enpresek lankidetzarako egindako ahaleginak eta lankidetzaren garrantzia, bai enpresa berritzaileen artean bai sektore publikoan.

- Azpimarratzekoa da enpresen berritze portzentajea, %12,4, Europako %5,1en aldea; berrikuntzan lankidetzan diharduten ETEak, aldiz, apur bat gutxiago dira, %8,2 EAEn eta batez beste %9,4 EBn.

I.2.12. Grafikoa. Europako Berrikuntza Indizea. EIS 2009



Iturria: EUSTAT.

**I.2.47. Koadroa. Europako berrikuntza indizea
EIS 2009 eta haren dimentsioen indizeak**

	EB27	EAE	Espainia
EIS 2009 berrikuntza adierazleen panela	0,48	0,51	0,38
PRESTATZAILEAK	0,49	0,56	0,45
Giza baliabideak	0,44	0,56	
Finantzazioa eta laguntza	0,56	0,55	
ENPRESA JARDUERAK	0,42	0,44	0,25
Enpresa inbertsioak	0,47	0,38	
Enpresa loturak eta ekimena	0,41	0,56	
Errendimenduak	0,40	0,38	
PRODUKTIBITATEAK	0,53	0,54	0,47
Berritzaileak	0,44	0,34	
Ondorio ekonomikoak	0,58	0,64	

Iturria: EUSTAT.

Ondorio ekonomikoak dimentsioan berrikuntza jarduerak enpleguan, esportazioetan eta salmentetan duten arrakasta ekonomikoa sartzen da.

- Ezagutza maila altuko zerbitzuen sektoreetan lanean ari diren pertsonak langile guztien %19 dira, Europako %14 diren bitartean.
- Teknologia ertain-altuko eta altuko enpleguaren sektoreetan enplegua guztizkoaren %7,7 da, eta EBn batez beste %6,6.
- Teknologia ertain eta altuko esportazioak esportazio guztien %51,5 dira, Europako Batasunaren batez bestekoa (%47,4) baino 4,1 puntu gehiago.
- Produktu berrikuntzek negozio zenbatekoan dituzten ondorio ekonomikoak %15,4 dira EAEn eta, batez beste, %14,9 EBn.

Gainontzeko dimentsioetan puntuazioa Europako batez bestekoa baino baxuagoa izan arren, zenbait adierazletan EAEk antzeko emaitzak edo are hobeak dauzka EBren aldean.

- Banda zabalerako sarbidea duten 10 langile edo gehiago enpresak %92 dira, Europako %81 baino gehiago.
- Berrikuntza teknologikoren bat garatu duten ETEak %30,5 dira, eta EBn %33,7.
- Arrisku Kapitalari zuzendutako BPGd-ren portzentajea altuagoa da (% 0,18koa %0,14ko portzentajearen aldean).

- Berrikuntzak eragindako baliabide eraginkortasuna dela-eta, enpresa berritzaileen %19,6k langile kostuak murriztu dituzte eta % 9,4k materialen eta energiaren kontsumoa murriztu dute, Europako portzentaje horiek %18,0 eta %9,6 diren bitartean, hurrenez hurren.
- BPGd-ren gainera I+Gko gastu publikoa EAEn (%0,35) Europako (%0,67) baino txikiagoa den bitartean, gastu pribatua handiagoa da, %1,5 EAEn eta %1,21 27-EBn.

Alde ez hain positiboan.

- Salmenten gainera berrikuntza jardueretako gastua (I+Gkorik gabe), 10 langile eta gehiagoko enpresetan, txikiagoa da (%0,75, eta %1,03 27-EBn).
- EPO patenteen kopurua milioi bat biztanleko 6,7koa da EAEn, Europako 10,7ko kopuruaren azpitik.
- Berrikuntza ez teknologikoa (marketinekoak edo antolamendukoak) dituzten ETE-en portzentajea, %21,7, EBn erregistratutakoa baino (%40,0) baxuagoa da.

2.2.3. Ikerkuntza Euskal Herriko Unibertsitatean

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren I+G+B jardueren eta haien neurriari dagokienez, berariazko funtsen (kanpoko finantzabidea duten proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketarako diru-laguntzak eta ikerkuntzako azpiegiturako inbertsioak) eta funts orokorren artean bereizi behar da. Azkenak irakasleek ikerketa jardueren emandako denbora eta horrek dakarren kostu orokorra (irakasleei dagozkien gastuak, ondasun eta zerbitzuetako gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk) kalkulatzeko dautza.

Lehenengoetatik, ondorioztatzen da EAEk egindako ikerkuntza jarduerak 1997 eta 2003 hazi eta 2004an jaitsi zela, ondoren 2008an hautsi zen goranzko bidera itzuliz eta 2009an horretan jarraituz. Horrela, 1997 eta 2006 artean, jarduerak hori %138,6 hazi zen, 20,5 milioi eurotik 48,7 milioi eurora, eta oso deigarria da 2006 eta 2007 artean gertatutako hazkundeak, %24,5ekoa, 60,8 milioi eurora iritsi baitzen. 2007 eta 2008 artean, aldiz, %9,9ko jaitsiera gertatu zen, eta 2008 eta 2009 artean %1koa, eta urtea 54,2 milioi euroko balioarekin amaitu zen.

Zatirik handiena, %57 (30,9 milioi euro) ikerkuntza proiektuei dagokie, eta haien atzetik datoz Unibertsitate Lege Organikoko (LOU) 83. artikularen babespean sinatutako kontratuak, funts guztien %22,8 (12 milioi

I.2.48. Koadroa. I+G+B jarduerak onartu / kontratatu moten bilakaera (eurotan)

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Ikerkuntza proiektuak	19.228.592	19.139.665	22.439.020	22.078.138	25.395.032	30.871.317
LOU 83.art. arabera I+G kontratuak	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837	12.349.125
Ikerkuntza taldeak	4.395.127	5.811.131	6.447.949	8.289.127	1.004.766	1.202.900
Ikertzaile/teknikariak kontratatzea	1.843.658	2.677.727	569.210	1.111.497	4.380.476	1.771.170
Prestakuntzako langileak	1.704.000	2.102.400	2.051.638	9.935.973	6.617.646	4.601.721
Azpiegitura zientifikoa	1.301.818	5.655.172	981.772	3.542.695	2.190.378	1.412.019
Ikertzaileen mugikortasuna	346.937	243.463	623.372	801.934	472.872	576.779
Ekintza bereziak	220.594	743.615	2.222.177	868.958	737.984	253.649
Ikerkuntza Zerbitzu Nagusiek (SGIKER) emandako zerbitzuak						1.186.629
Beste batzuk*	0	196.362	236.467	1.254.158	2.008.888	0
GUZTIRA	39.006.788	46.562.937	48.807.533	60.761.625	54.779.880	54.225.309

*Euren memorietan honela ageri dira: Ikerkuntzaren hedapena, Komunikazio sareak, etab.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatearen zenbakiak, 2009-09.

I.2.49. Koadroa. I+G+B jardueren bilakaera zientzia arloen arabera

	2004	2006	2007	2008	2009
Zientzia Esperimentalak	18.655.092	19.174.523	22.108.443	23.288.301	21.521.867
Irakaskuntza Teknikoak	11.414.390	12.804.217	18.319.582	9.814.894	15.117.305
Osasun Zientziak	4.056.031	4.413.473	5.801.784	3.706.658	4.671.922
Gizarte Zientziak eta Z. Juridikoak	2.903.553	6.290.040	6.983.260	9.050.252	8.044.579
Giza zientziak	1.977.722	5.183.629	5.861.931	4.724.586	4.869.636
Zenbait arlo	0	941.650	1.686.625	4.195.191	—
GUZTIRA	39.006.788	48.807.533	60.761.625	54.779.880	54.225.309

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatearen zenbakiak, 2009-2010.

euro), eta prestakuntzako langileentzako funtsak, %8,5 (4,6 milioi).

eta Prestakuntzako langileei lotutako funtsen balio absolutua, ordea, jaitsi egin da aztertutako aldiaren, ikerkuntza proiektuei eta LOUko 83. artikularen babespean sinatutako kontratuei zuzendutakoa handitu den bitartean.

Zientzia arloen arabera, I+G+B jardueretako gastua arlo berberetan pilatzen da, haietako bakoitzean aldagetak sumatu arren. 2009. urtean, zientzia esperimentalak kopuru osoaren %39,6 izan ziren 21,5 milioi euroekin (%42,5 2008an). Tekniken kopurua 15,1 milioi eurokoa izan zen eta %27,9 hartu zuten (%18 2008an), eta gizarte zientziek eta zientzia juridikoek kopuru osoaren %14,8ko balioa, 8 milioi euroekin (%16,5 2008an).

Funtsen jatorriari dagokionez, gehienak Eusko Jaurlaritzatik datoz (%28,8), eta haren ondoren Estatutik (%26,9), zuzeneko kontrataziotik (%23,8), funts propioetatik (%14,8) eta nazioarteko iturrietatik (%6,3). Azpimarratzekoak dira Estatuaren finantziazioan ikusitako aurrerapenak (%26,9, aurreko urteko %22ren aldean) eta zuzeneko kontratazioaren hazkundea (%23,8, aurreko aldiko %21en aldean).

Bukatzeo, patentei dagokionez, emaitzak urriak dira oraindik ere, gorantz badoaz ere. Horrela, 2009an 57 patente eskatu ziren, eta ez dago onartutakoei buruzko informaziorik. Bestalde, argitalpen kopurua pixkanaka hazi zen 2008 arte, baina 2009an jaitsiera sumatzen da, 1.586tik 1.563ra (gizarte, zuzenbide eta giza zientziei buruzko argitalpenak murriztu direlako). Gehienak zientzia esperimentalen, teknikoen eta osasun zientzien arloetako argitalpen zientifikoak dira (1.375).

2.2.4. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEn**Etxeetan**

EUSTATen Informazioaren gizartearen inkestak erakutsi duenez, etxeetako IKT ekipamenduen maila erantsia hazi egin da 2009 eta 2010 artean, 825,2 milatik 834,7ra, 2009ko lehen hiruhilekoaren 2010eko lehenengoaren artean. Hedatuenak sakelako telefonoa (familien %90,1), teletestudun telebista (%90) eta ordenagailua (%61,4) dira. Hala ere, ekipamenduen arabera aztertuta haien arteko aldakuntzak ikusten dira, ordezkio ondasunen sendotzearen ondorioz. Hala gertatu da bideoarekin, DVDren hedapenaren aurrean pisua galtzen egongo

I.2.50. Koadroa. I+G+B funtsen jatorriaren bilakaera (eurotan)

	2000	2002	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Autonomikoa	8.435.866	17.124.901	11.999.900	15.434.027	15.125.591	17.548.293	17.434.873	15.592.912
Estatukoa	5.248.019	6.804.455	10.592.559	10.195.368	14.037.027	13.964.226	11.265.410	14.580.074
Zuzeneko kontratazioa	7.731.745	6.902.292	9.966.061	9.993.403	13.235.928	12.879.145	11.971.837	12.931.034
Funts propioak (programa kontratua)	5.748.717	5.572.381	4.482.238	5.483.460	5.665.904	12.670.458	8.347.637	8.036.840
Nazioartekoa	161.800	1.336.958	1.965.885	5.456.680	743.083	3.699.503	5.760.123	3.184.448
GUZTIRA	27.326.147	37.740.987	39.006.788	46.562.937	48.807.533	60.761.625	54.779.880	54.225.309

Oharra: 2000-2003 urteetarako datuak urteko memoriaren eskuragarri dagoen informazioa programa mota eta finantzabide iturriaren arabera batuz lortu dira. Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatearen zenbakiak, 2009-2010.

I.2.51. Koadroa. Beste emaitza batzuk. Argitalpen eta patente erregistratuak

	Argitalpenak*			Patenteak.					
	Zientzia esperimentalak, teknikoak eta osasunekoak	Gizarte eta giza zientziak eta zientzia juridikoak	Guztira	Eskabideak (Guztira)	Espainolak	Europarrak	PCT** (Berriak eta luzapenak)	Amerikarrak	Beste batzuk
2004	824	55	879	10	7	—	3	—	—
2005	970	57	1.027	16	9	—	5	2	—
2006	1.069	77	1.146	27	12	2	9	4	—
2007	1.127	118	1.345	34	16	7	5	5	1
2008	1.367	219	1.586	43	6	9	12	6	10
2009	1.375	188	1.563	57	18	13	5	5	16

*Science Citation Index eta Social Science Citation Index-en erregistratutako argitalpen zientifikoak **PCT: Patent Cooperation Treaty.

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatearen zenbakiak, 2009-2010.

I.2.52. Koadroa. Familiak etxean duten IKT ekipamenduaren arabera

		2009 I hiruhil.	2010 I hiruhil.
Guztira (milaka)		825,2	834,7
Informatika ekipamenduak (guztien gaineko %)	Ordenagailua	60,0	61,4
	Internet	51,9	54,9
Telebista ekipamenduak (guztien gaineko %)	Bideoa	56,7	48,7
	Teletestua	83,0	90,0
	Ant. parabolikoa	9,5	7,3
	Ordaindutako TB	12,0	10,3
	Internet TB	0,0	3,8
Beste batzuk (guztien gaineko %)	Sakelako telefonoa	89,0	90,1

Iturria: EUSTAT, ISIF.

bailitzateke, edo ordaindutako telebistarekin interneten bidezko telebistaren agerpenaren aurrean.

Familia motaren arabera, aurreko urteetan joera berak iraundu: ekipamendu hedatuenean —esaterako, ordenagailua eta internet— sarrera familia mota guztietan hazi da (seme-alabadun familiak, seme-alabarik gabeko bikoteak eta pertsona bakarreko familiak), baina oraindik ere seme-alabadun familiek dauzkate ekipamendu mailarik handienak. Bigarren tokian, seme-alabarik gabeko familiak daude, eta ondoren pertsona bakarreko familiak.

EUROSTATen datuen arabera, gutxienez 16 eta 74 urte arteko kide bat eta banda zabaleko konexioa dituen familiak, 2010ean, %70 izan ziren 27EBn, eta Estatuan %59. EAEn %55 izan ziren eta, beraz, batez besteko bien azpian dago; eta erreferentzia diren herrietan —besteak beste Danimarka, Alemania, Holanda, Austria, Finlandia eta Suedia— ikusitako balioetatik urrun.

I.2.53. Koadroa. 15 Urte eta gehiagoko biztanleria etxeko IKT ekipamenduen arabera

		2009 I hiruhil.	2010 I hiruhil.
Guztira (milaka)		1.838,7	1.883,5
Informatika ekipamenduak (guztien gaineko %)	Ordenagailua	68,2	70,2
	Internet	59,4	63,9
Telebista ekipamenduak (guztien gaineko %)	Bideoa	60,6	52,5
	Teletestua	87,0	91,8
	Ant. parabolikoa	10,1	7,9
	Ordaindutako TB	13,6	11,3
	Internet TB	0,0	4,1
Beste batzuk (guztien gaineko %)	Sakelako telefonoa	93,1	94,0

Iturria: EUSTAT, ISIF.

15 urte edo gehiagoko biztanleen artean. Ordenagailuaren eta internet sarbidearen eta erabileraren sarrera

IKT ekipamenduek etxe/familiatan izandako sarrerarekin gertatutakoaren ildo beretik, IKTek 14 urtetik gorako biztanleen artean duen sarrerak hedatzen jarraitzen du, bideoaren, antena parabolikoaren eta ordaindutako telebistaren kasuan izan ezik.

PCaren eta interneterako konexioaren esparrura mugatuta, 2009ko lehen hiruhilekoaren eta 2010eko lehenengoaren artean, ordenagailuaren sarrera 2 puntu handitu eta biztanleria horren %70,2ra iritsi dela ikusten da. Bestalde, etxean interneterako sarbidea duen 15 urte edo gehiagoko biztanleriaren portzentajea 4,5 puntu hazi eta %59,4tik %63,9ra igo da.

EUSTATen arabera, 2010eko I. hiruhilekoan interneten erabiltzaileak 15 urte edo gehiagoko biztanleen %52,6

I.2.54. Koadroa. Pertsonen ehunekoa erkidego autonomoen eta IKT erabilera motaren arabera, 2010 Pertsonak (16 urtetik 74ra) eta ehuneko horizontalak

	Azken 3 hiletan ordenagailua erabili duten pertsonak	Azken 3 hiletan internet gutxienez behin erabili duten pertsonak	Azken 3 hiletan interneten bidez erosi duten pertsonak
Guztira	67,4	58,4	17,4
Andaluzia	63,2	52,4	13,4
Aragoi	70,5	61,2	15,7
Asturias	66,3	56,5	18,0
Balear U.	73,0	65,1	21,9
Kanariar U.	60,0	51,5	11,0
Kantabria	68,5	57,5	18,3
Gaztela eta Leon	65,2	56,3	15,8
Gaztela-Mantxa	65,3	55,8	14,7
Katalunia	73,1	67,7	22,6
Valentziako Erkid.	67,5	56,1	14,4
Extremadura	61,1	48,5	14,1
Galizia	57,8	48,3	14,4
Madril	74,0	66,7	24,0
Murtzia	62,5	52,4	10,6
Nafarroa	68,4	58,5	19,9
EAE	70,0	60,7	20,9
Errioxa	67,0	55,5	16,1
Ceuta	64,4	55,4	13,1
Melilla	65,3	51,1	16,7

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

I.2.55. Koadroa. Ordenagailuaren eta internet konexioaren eta erabileraren sarrera EAE-ko 14 urtetik gorako biztanleen artean ezaugarrien arabera (%)

		Ordenagailua etxean					Internet									
							Internet konexioa etxean					Erabilera				
		2009 I	2010 I	2008- 09 aldea	2009 batez best. aldea	2010 batez best. aldea	2009 I	2010 I	2008- 09 aldea	2009 batez best. aldea	2010 batez best. aldea	2009 I	2010 I	2008- 09 aldea	2009 batez best. aldea	2010 batez best. aldea
15 urte edo gehiagoko biztanleria		68,2	70,2	2,0	0,0	0,0	59,4	63,9	4,5	0,0	0,0	51,7	52,6	0,9	0,0	0,0
Sexua	Gizon.	70,4	73,1	2,7	2,2	2,9	61,6	66,6	5,0	2,2	2,7	56,0	56,6	0,6	4,3	4,0
	Emak.	66,2	67,5	1,3	-2,0	-2,7	57,3	61,3	4,0	-2,1	-2,6	47,7	48,9	1,2	-4,0	-3,7
Adina	15-24	93,0	94,9	1,9	24,8	24,7	86,2	92,6	6,4	26,8	28,7	91,7	94,4	2,7	40,0	41,8
	25-34	84,8	86,6	1,8	16,6	16,4	73,0	79,5	6,5	13,6	15,6	80,0	78,0	-2,0	28,3	25,4
	35-44	82,1	83,8	1,7	13,9	13,6	68,5	73,8	5,3	9,1	9,9	71,5	71,8	0,3	19,8	19,2
	45 eta gehi.	53,6	55,7	2,1	-14,6	-14,5	47,1	50,2	3,1	-12,3	-13,7	28,6	30,1	1,5	-23,1	-22,5
Ikasketa maila	Lehen maila	35,3	35,0	-0,3	-32,9	-35,2	29,6	30,6	1,0	-29,8	-33,3	7,0	6,7	-0,3	-44,7	-45,9
	Bigarren maila	79,3	81,6	2,3	11,1	11,4	67,8	74,2	6,4	8,4	10,3	63,7	64,0	0,3	12,0	11,4
	Goi-maila	89,3	91,3	2,0	21,1	21,1	82,0	84,8	2,8	22,6	20,9	86,7	87,0	0,3	35,0	34,4
Jarduera	Ikaslea	96,3	97,9	1,6	28,1	27,7	91,3	94,8	3,5	31,9	30,9	97,0	96,2	-0,8	45,3	43,6
	Lanean	83,5	85,5	2,0	15,3	15,3	73,2	78,5	5,3	13,8	14,6	70,5	70,4	-0,1	18,8	17,8
	Ez-aktiboa/lang.	44,4	46,8	2,4	-23,8	-23,4	36,7	40,7	4,0	-22,7	-23,2	20,4	23,2	2,8	-31,3	-29,4

Iturria: Eustat "ISIF".

ziren; horrek, aurreko urteko %51,7ren aldean, 09, puntuko hazkundea dakar.

EUROSTATen eta EInen datuak gurutzatuz gero, ikus daiteke internet erabiltzeari dagokionez EAEk, inkesta egin aurretiko azken hiru hilabeteetan internet gutxienez astean behin erabili duten pertsonen % 60,7rekin, Estatuko batez bestekoaren (%58,4) gaineko tokia betetzen duela. Aitzitik, 27EBren (%65), 25EBren (%66) eta 15EBren (%69) batez bestekoaren azpitik geratzen da.

Aurreko urteetan bezala, sexuaren, adinaren, ikasketa mailaren eta lan egoeraren arabera azterketatik ondorioztatzen da sarrerari eta erabilerari dagozkien aldeek badirautela eta, beraz, taldeen arteko arrakalak ere badirau.

Sarrera sexuaren arabera: Ordenagailuaren sarrera tasa gizonen eta emakumeen artean hazi zen 2010ean. Gauza bera gertatu zen internet konexioaren sarrera tasari dagokionez. Erkatuta, sarrera tasak handiagoak dira gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, eta arrakala 2009koa baino handiagoa da. Horrela, 2009an, ordenagailuaren sarrerari dagokionez, aldea 4,2 puntukoa zen, eta 2010ean 5,6koa. Internet konexioari dagokionez, 2009an 2,5 puntukoa zen eta 2010ean 5,3koa. Dirudienaz, arrakala horren portaera ziklikoa da, urte batean murriztu eta hurrengoan handitu egiten da.

Interneten erabilera sexuaren arabera: Tasa sexu bietarako hazi zen, baina bien arteko aldea murriztu egin zen 2009aren aldean. Horrela, gizonezkoek ratio handiagoa zeukaten artean (2009an aldea 8,3 puntukoa bazen, 2010ean 7,7koa zen). Horrela, gizonen tasa %56,6 izan zen eta emakumeena %48,9.

Sarrera adinaren arabera: Ordenagailua eta internet konexioa duten biztanleen ehunekoak behera doaz adinarekin (urtez urte tasak hobetu arren, adin taldeen arabera). Horrela, oso altuak dira 15-24 urteko tartean, %95 eta %93, hurrenez hurren. 25-44 urteko taldea bigarren tokian dago eta aldakuntza tasek gora jarraitu dute; horrela, sarrera ratioak %83tik gorakoak dira ordenagailurako eta %73koak interneterako. 45 urte edo

gehiagoko adin taldeko sarrerak oraindik maila txikiagoak dauzka, %55,7 eta %50,2, hurrenez hurren.

Interneten erabilera adinaren arabera: Erabilera ratioak ere behera doaz adinarekin, baina kasu honetan adin txikien eta handieneko tarteen arteko aldeak handiagoak dira. Horrela, EAEko 15 eta 24 urte arteko biztanleen %94,4 erabiltzaileak dira, eta 45 urtez gorakoak %30,1 baino ez. Talde bien arteko aldea berriz hazi zen (63,1 puntu 2009an eta 64,3 2010ean).

Sarrera ikasketa mailaren arabera: Ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan ordenagailuaren eta internet konexioaren sarrera ere handiagoa da, eta bakoitzaren tasak hazi egin dira aurreko urteen aldean. Horrela, goi-mailako ikasketak dituzten 15 urtez gorako biztanleen %91,3k ordenagailua daukaten bitartean, bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleen artean %81,6 baino ez dira eta lehen mailako ikasketak dituztenen artean %35. Internet konexioei dagokionez, portaera antzekoa da baina ehunekoak txikiagoak dira: %84,8 goi-mailako ikasketak dituztenentzat, %74,2 bigarren mailako ikasketetan eta %30,6 lehen mailako ikasketak baino ez daukatenentzat. **Interneten erabilera ikasketa mailaren arabera:** Lehen mailako ikasketak baino ez daukaten biztanleen erabilera ratioa murriztu egin da (%7tik %6,7ra jaitsi da). Bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak daukaten biztanleei dagokionez, talde bien ehunekoak dira altuak eta goranzkoak (%64 bigarren mailako ikasketak dituztenentzat eta %87 goi-mailako ikasketak dituztenentzat).

Sarrera lan egoeraren arabera: Ikasten edota lanean diharduten biztanle taldeek berriz dauzkate ordenagailu eta internet konexio tasarik handienak eta tasa horiek nabarmen murrizten dira pertsona ez-aktiboak edo langabetuak direnean. Horrela, ikasleen ordenagailuaren sarrera ratioak %98tik gorakoak eta internet konexioarenak %95koak diren bitartean, ez-aktiboak/langabetuak ez dira iristen %47 eta %41era, hurrenez hurren.

Interneten erabilera lan egoeraren arabera: Aurreko egoeraren antzekoa ikusten da interneten erabilerari dagokionez, ikasten diharduten %96 dira interneten erabiltzaile, eta langabetuen eta ez-aktiboak %23,3k

baino ez dute hura erabiltzen. Oso azpimarratzekoa da ikasleen erabilera ratioa konexio ratioa baino handiagoa izatea oraindik (%96 vs %95); arrazoa da etxeaz kanpoko puntuetatik sartzen direla.

Bestalde, ikusten denez, interneten erabileraren ehunekoak ia gizarte talde guztietan hazi arren, taldeen arteko aldeak oraindik dira handiagoak erabilerari dagokionez edukitzeari dagokionez baino.

Oinarrizko IKTen hornidura (PC, posta elektronikoa, internet eta sakelako telefonoa) enpresetan

Enpresetako Informazioaren gizarteari buruzko inkestaren (ISI-enpresak) azken edizioak erakusten duenez, euskal enpresetan IKT ekipamenduak sartzeko prozesuak hazten jarraitu du.

Ekipamendurik zabalduena sakelako telefonoa da oraindik, eta haren atzean ordenagailu pertsonala, internet konexioa eta posta elektronikoa. Horrela, establezimenduei dagokienez, %81,7k jarri dute sakelako telefonoa euren langileen eskura. %76,5ek ordenagailu pertsonala daukate. Internet daukatenak apur bat hazi dira eta %69,9 dira, eta posta elektronikoa dutenak 1,4 puntu hazi dira %68,3 izan arte. Jarduera sektoreen arabera, industria berriz nagusitu zaie argiro beste sektoreei, baina berriz da deigarria sakelako telefonoak eraikuntzan daukan sarrera handia, berriz apur bat murriztu arren.

Bestalde, teknologia horiek darabiltzaten langileen kopurua ere hazi da. Langileen %64,1ek ordenagailu pertsonala daukate, %55ek posta elektronikoa eta %53,8k internet. Jarduera sektoreen arabera, berriz ere eta aurreko kasuan ez bezala (establezimenduen %), zerbitzuen sektorea nabarmentzen da. Batez ere, arrazoa da zerbitzuen sektorean halako ekipamenduak sartu eta erabiltzeko joera handiagoa duten jarduerak daudela. Haien artean, teknologia berriei, finantza bitartekaritzari eta enpresentzako zerbitzuei lotutakoak aipa daitezke.

Lan mailen arabera azterketak erakusten du, lehenbizi, IKT ekipamenduak establezimenduen tamaina hazi ahala gehiago hedatzen direla. Bigarrenik, zenbat eta lanpostu gehiago izan, hobekuntza tarte urria dela eta, ekipamenduen hazkundeak txikiagoak direla eta, izan ere, zenbait enplegu mailtan jaitiera txikiak egon dira berriro. Eta, hirugarrenik, aipatutako aldeak gehiago igartzen direla establezimenduei dagokienez, enpleguari dagokionez baino. Arrazoa, besteak beste, establezimendu txikiek edukitako garapen handiagoa da, eta, halaber, establezimendu handietan langile guztiek ez dutela ekipamendu horietara iristeko aukerarik.

Joera hau Europa mailan ere igartzen da. Bertan, EUROSTATen datuen arabera, interneten sarrera saturazio puntura iritsi da, bai enpresa handien artean (%100era

I.2.56. Koadroa. IKT ekipamenduen bilakaera EAE-ko establezimenduetan jarduera sektoreen arabera (establezimenduen %)

	Industria				Eraikuntza				Zerbitzuak				GUZTIRA			
	PCa	e-posta	Internet	Sak. tf.	PCa	e-posta	Internet	Sak. tf.	PCa	e-posta	Internet	Sak. tf.	PCa	e-posta	Internet	Sak. tf.
2006	77,8	64,9	66,2	81,0	64,2	38,6	48,8	93,2	68,4	53,1	56,8	68,2	68,6	52,0	56,4	72,8
2007	79,5	68,6	71,2	80,3	68,0	49,0	56,3	91,4	70,3	58,0	61,5	72,6	70,7	57,6	61,6	75,8
2008	80,8	73,1	74,5	84,8	73,9	58,1	65,1	92,2	74,4	63,5	65,8	76,3	74,8	63,5	66,4	79,2
2009	82,9	76,0	77,0	85,5	74,1	62,8	66,8	91,1	75,7	66,8	69,5	77,1	76,0	66,9	69,6	79,8
2010	83,0	77,6	78,7	89,1	76,3	64,8	67,9	91,0	75,9	68,2	69,5	79,1	76,5	68,3	69,9	81,7

Iturria: EUSTAT, ISI enpresak.

I.2.57. Koadroa. Enpresen IKT ekipamenduaren bilakaera (IKTak dituzten langileen %)

	Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			GUZTIRA		
	PCa	e-posta	Internet	PCa	e-posta	Internet	PCa	e-posta	Internet	PCa	e-posta	Internet
2006	44,6	37	33,2	43,8	30,8	35,7	67,4	54,3	54,9	58,9	47,3	47,2
2007	43,9	36,3	32,4	43,3	35,8	37,5	67,3	54,9	57,5	59,1	48,4	49,2
2008	46,5	36,4	32,1	41,8	35,8	38,5	68,5	56,3	57,5	60,5	49,5	49,5
2009	49,8	39,0	35,1	42,1	38,0	37,6	70,0	60,0	61,2	62,5	52,8	52,7
2010	51,3	40,6	36,6	46,2	41,0	42,2	71,2	62,1	61,6	64,1	55,0	53,8

Iturria: EUSTAT, ISI enpresak.

I.2.58. Koadroa. Enpresen IKT ekipamendua tamainaren arabera (IKTak dituzten establezimendu edo langileen %)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa.				Internet			
	establ. %		langileen %		establ. %		langileen %		establ. %		langileen %	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Guztira	76,0	76,5	62,5	64,1	66,9	68,3	52,8	55,0	69,6	69,9	52,7	53,8
0-2	65,2	66,6	58,7	60,0	54,7	57,3	47,1	50,0	58,1	59,0	51,0	52,3
3-9	88,4	87,2	62,6	64,5	80,2	79,4	51,7	53,7	82,5	81,3	54,3	55,3
10-19	96,9	96,2	55,3	61,3	93,4	94,0	47,9	54,5	93,7	93,8	48,6	54,5
20-49	99,0	99,2	58,5	60,9	97,1	97,9	51,1	53,8	96,1	97,2	50,5	52,9
50-99	99,2	99,6	65,5	65,6	98,8	98,5	56,8	56,9	99,2	98,2	54,7	54,4
≥ 100	99,6	99,1	65,8	66,3	99,2	99,0	55,9	57,6	99,3	98,9	52,8	52,7

Iturria: EUSTAT, ISI enpresak.

iritsiz ia), bai ETE-en artean (%96 ingurukoa 15EBn eta %94koa 27EBn), eta baita sektore gehienetan ere.

IKTen erabilera enpresan: interneten erabilera

Euskal enpresek Interneti emandako erabilera motari dagokionez, lehenik eta behin dokumentazio bilaketa dago (% 97,1); bigarrenik, bankuetako informazioa edo informazio finantzarioa eskuratzea (% 76,2) eta, hirugarrenik, bankuko transakzioak edo transakzio finantzarioak egitea (% 65,6). Bigarren taldea honakoek osatzen dute: herri-administrazioarekin egindako izapideak (%61,4); prestakuntza: prestakuntza materialetara iristea (%45, 6,1 puntu jaitsi arren); hornitzaile-bezeroen datu baseetan sartzeara (%40,7, aurreko urtean %43,7); eta produktu digitalak jaso edo jaistea (%35,9).

Kasu guztietan, dinamismo handiagoa ikusten da tamaina handiko enpresa taldean, hots, 9 langile baino gehiago dituztenetan.

Teknologia berrien erabilerari dagokionez, enpresen posizioa aztertzerakoan beste adierazle garrantzitsu bat interneten egotea da, norberaren zerbitzarian web orria izan zein orria beste ostalari batean izan. EUSTATEk emandako datuek erakutsi dute 2009 eta 2010 1,5 puntu hazi dela. Horrela, internet konexioa duten establezimenduen %33,9k web orria daukate. Haietatik, %17k kanpoko zerbitzari batean daukate eta %16,9k euren zerbitzarian.

Azpimarratu behar da gero eta gehiago direla euren zerbitzaria dutenak, ostalarian dauden weben kaltetan.

Portzentaje horiek establezimenduaren tamainarekin batera hazten dira (0 eta 3 langile arteko establezimenduen

I.2.59. Koadroa. Interneterako sarbidea duten establezimenduen % erabilera motaren arabera EAE-n

	Establezimenduen %			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			9 lanpostu baino gehiago		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010
Dokumentuak bilatzea	96,0	96,2	97,1	95,1	97,9	97,2	96,6	96,0	95,0	96,0	96,1	97,6	96,4	98,1	97,8
Hornitzaile-bezeroen datu baseetara sartzeara	42,7	43,7	40,7	45,4	47,3	45,4	43,0	42,3	37,6	42,3	43,6	40,8	51,5	53,6	53,5
Prestakuntza: prestakuntza materialetara iristea	46,7	51,1	45,0	38,5	48,5	40,3	36,8	41,5	32,8	49,4	53,1	47,9	56,6	58,4	60,8
Zerbitzuak eta ondasunak erostea	21,1	19,9	19,6	22,3	21,4	22,2	11,1	12,4	7,1	22,8	21,1	21,9	22,6	19,8	20,9
Ondasunak eta zerbitzuak saltzea	5,5	4,9	4,9	7,7	6,9	6,9	0,5	1,5	0,4	6,1	5,3	5,6	8,2	8,3	8,3
Herri-administrazioarekin izapideak egitea	52,8	59,8	61,4	55,8	63,2	62,9	47,8	56,0	60,6	53,4	60,1	61,5	78,8	82,2	84,9
Banku edo finantza informazioa lortzea	73,5	75,9	76,2	83,0	85,2	84,1	74,0	80,4	78,1	72,4	74,1	74,9	83,1	84,1	84,2
Lehiakideak aztertzea	28,3	32,4	28,3	32,1	40,0	33,8	22,5	25,2	17,5	28,9	32,9	29,9	42,3	45,5	47,3
Langileak lortzea	18,1	18,3	17,4	16,1	17,2	17,3	13,0	11,8	10,5	19,2	19,6	18,9	33,1	35,6	38,0
Salmenta ondoko zerbitzuak lortzea	22,2	24,2	22,0	21,4	22,7	21,3	14,0	11,3	16,0	23,7	26,7	23,3	30,0	32,8	34,5
Produktu digitalak jaso edo jaistea	40,9	41,7	35,9	37,7	44,1	40,9	33,1	35,6	26,5	42,7	42,6	37,3	51,8	52,8	52,9
Banku / finantza transakzioak egitea	66,6	66,0	65,6	76,6	75,4	70,5	67,4	70,9	67,0	65,4	64,1	64,8	78,6	77,7	75,0

Iturria: EUSTAT, ISI-enpresak.

I.2.60. Koadroa. Establezimenduak sektore eta enplegu mailen arabera eta web orria dutenak

	Guztira			Norberarena			Ostalari batean		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010
Guztira	30,3	32,4	33,9	13,7	14,1	16,9	16,5	18,3	17,0
JARDUERA ARLOAK									
Industria	36,1	42,9	44,6	12,9	14,6	20,5	23,1	28,3	24,0
Eraikuntza	18,3	17,1	21,8	6,7	5,3	7,1	11,6	11,8	14,7
Zerbitzuak	31,9	34,3	35,3	15,1	15,7	18,5	16,8	18,6	16,8
ENPLEGU-MAILAK									
0-2	17,6	18,2	19,8	7,3	6,9	9,6	10,3	11,3	10,2
3-9	45,1	47,1	46,8	21,9	22,2	23,7	23,2	24,8	23,2
10-19	58,4	60,0	64,0	26,3	26,7	34,2	32,1	33,3	29,8
20-49	67,6	74,2	77,4	30,3	30,6	40,7	37,2	43,6	36,7
50-99	85,9	87,1	89,1	35,9	33,7	39,0	49,9	53,4	50,1
100 eta gehiago	87,6	90,0	92,2	41,5	43,2	46,1	46,0	46,7	46,2

Iturria: EUSTAT. ISI Enpresak.

I.2.61. Koadroa. Azken 3 hiletan internet erabili eta elektronikoki erosi duten pertsonak (urrian argitaratutako datuak)

	2008		2009		2010	
	Guztira Estatuan	EAE	Guztira Estatuan	EAE	Guztira Estatuan	EAE
Interneten erabiltzaileak guztira azken 3 hiletan	19.572.899	974.595	20.741.237	1.017.520	22.207.773	1.078.127
Azken hilean erosi duten pertsonen %	14,0	17,1	14,3	16,3	15,5	17,1
Duela hilabete 1 baino gehiago eta 3 baino gutxiago erosi dutenen %	9,3	8,9	11,9	13,9	11,5	14,1
Duela 3 hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosi dutenen %	10,7	12,3	11,9	13,1	10,8	14,4
Duela urtebete baino gehiago erosi dutenen %	6,5	8,0	7,3	9,6	7,3	9,5
Interneten bidez erosi ez duten pertsonen %	59,5	53,8	54,7	47,1	54,8	44,9

Iturria: EIN.

%19,8tik 100dik gorakoan %92,2 arte —%43,2k euren hostinga dute—) eta jarduera sektoreen arabera aldaketak daude; izan ere, industriak eta zerbitzuek web horri apur bat gehiago daukate.

2.2.5. Komertzio elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak**Familiak eta erabiltzaileak**

EINren arabera, EAEn, interneten erabiltzaile guztien artean (16 eta 74 urte artean) inkestaren erreferentziazko aldiak (azken hiru hilak), azken hilean bide horren bidez erosi dutenen kopurua hazi egin da eta 2009 eta 2010 artean ratioa %16,3tik %17,1era igo da. Portaera bera gertatu da Estatuan, baina proportzio txikiagoan, %14,3tik %15,5era igota.

Bestalde duela hilabete 1 baino gehiago eta 3 baino gutxiago erosi dutenen edo duela 3 hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosi dutenen portzentajea ere hazi egin da.

Internet bidez erosi ez duten pertsonen portzentajea aintzat hartuta, ondorioztatu daiteke EAEk, %44,9rekin, posizio ona duela gainerako autonomia erkidegoen aldean, izan ere, Balear Uharteek baino ez dute portzentaje txikiagoa (%42,4).

Hala ere, azken hilean erosi dutenen portzentajea aztertuta, sei autonomia erkidego aktiboagoak izan dira: Melilla (%17,8), Kantabria (%17,9), Madril (%18), Galizia (%18,1), Nafarroa (%18,1) eta Balear Uharteak (%19,8); EAE zortzigarren tokian dago, %17,1ekin, arestian aipatu bezala.

EAEko merkataritza elektronikoen hedapena EBkoarenetik urrun dago; izan ere, EUROSTATen arabera (database), 2010ean, azken 3 hiletan 27EBn %31k erosi zuten interneten bidez, 25EBn %33k eta 15EBn %36k. EUROSTATEk %17 eman zuen Estaturako eta, beraz, erkaketa arrazoizkoa da, datuak guztiz homogeneoak ez badira ere. Merkataritza mota horretarako joera handiena duten herrien artean honakoak daude: Erresuma Batua (%60), Danimarka (%54), Norvegia (%53), Holanda (%52), Alemania (%48), Suedia (%50) eta Luxemburg (%47).

2010ean, EAEn azken 12 hiletan xede pribatuz edo etxerako eta internetez hiru produktu erosienak, EINren datuen arabera, honakoak izan dira: ikuskizunetarako sarrerak, internetez xede pribatuz azken 12 hiletan erosi dutenen %45,9k erosiak; kirol materiala eta arropa (%44,5), oporretako ostalua (hotela, apartamentua, etab.), %44,2;

I.2.62. Koadroa. Merkataritza elektronikoen erabilera xede pribatuekin edo etxerako, 2010 (ehuneko horizontalak)

	ESTATUA	EAE
Azken 12 hiletan interneten bidez erosi duten pertsonak guztira	8.454.254	499.090
Elikagaiak	10,7	10,1
Etxerako ondasunak (altzariak, jostailuak, etab.)	19,0	17,3
Medikamentuak	1,0	0,6
Pelikulak, musika	9,3	10,0
Liburuak, aldizkariak, egunkariak (liburu elektronikoa barne)	18,8	19,7
On line prestakuntza materiala	7,7	7,4
Kirol materiala, arropa	28,3	44,5
Ordenagailu eta bideokontsola jokoen softwarea eta haren eguneraketak	9,3	7,0
Ordenagailuko bestelako softwarea eta haren eguneraketak	11,9	11,8
Informatika ekipamendua (ordenagailuak eta osagarriak)	15,2	16,3
Ekipamendu elektronikoa (adib. kamerak)	18,9	23,3
Telekomunikazio zerbitzuak (banda zabaleko harpidetak, telefono lineako kontratuak, txartel elektronikoa kargatzea, etab.)	10,7	8,2
Akzioak, aseguru polizak edo bestelako finantza zerbitzuak erostea	5,7	6,9
Oporretako ostalua (hotela, apartamentua, etab.)	50,5	44,2
Bidaierako bestelako zerbitzuak (garraio publikoko txartelak, autoak alokatzea, etab.)	50,6	43,7
Ikuskizunetarako sarrerak (zinema, antzerkia, kontzertuak...)	39,9	45,9
Bestelako produktu edo zerbitzuak	16,6	17,8

Iturria: EIN.

eta bidaierako bestelako zerbitzuak (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua), %43,7.

Estatuan ere lau erosienak honakoak dira: oporretako ostalua (hotela, apartamentua, etab.) internetez xede pribatuz azken 12 hiletan erosi dutenen %50,5ek erosiak; bidaierako bestelako zerbitzuak (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua), %50,6; ikuskizunetarako sarrerak (%39,9); eta kirol materiala eta arropa (%28,3).

Enpresak

EAEko enpresa sarean merkataritza elektronikoa sortzen dituen zenbateko ekonomikoek gora jarraitzen dute,

I.2.63. Koadroa. Erosketak eta salmentak jarduera arloaren eta enplegu mailaren arabera (€ milioika)

	Erosketak					Salmentak				
	2005	2006	2007	2008	2009	2005	2006	2007	2008	2009
Guztira	2.371,7	2.647,8	3.102,4	3.452,4	4.626,4	5.008,1	5.645,3	6.395,4	7.157,0	7.401,8
JARDUERA ARLOAK										
Industria	1.249,2	1.361,1	1.527,0	1.682,6	1.766,9	3.289,6	3.784,6	4.366,4	4.962,9	4.012,2
Eraikuntza	2,9	4,3	25,3	28,2	61,1	2,4	14,8	44,8	68,1	70,4
Zerbitzuak	1.119,6	1.292,4	1.550,1	1.741,6	2.798,4	1.716,1	1.845,9	1.984,2	2.126,0	3.319,2
ENPLEGU-MAILAK										
0-9	705,0	769,5	882,3	1.010,5	1.752,2	656,1	678,4	641,6	652,1	1.096,7
10 eta gehiago	1.666,7	1.878,3	2.220,1	2.441,9	2.901,2	4.352,0	4.966,9	5.753,8	6.504,9	6.305,1

Iturria: EUSTAT. Informazioaren sozietateari buruzko inkesta-ISI enpresak.

bertain parte hartzen duten enpresa kopurua murriztu arren.

2009an, sarearen bidez edo beste sistema elektronikoa batzuen bidez (EDI, datu elektronikoen trukea, etab.) sortutako negozio bolumena 7.401,8 milioi eurokoa izan zen salmenta elektronikoei dagokienez, eta 4.626,4 milioi euroa erosketei dagokienez. Horrek, aurreko urtearen aldean, %3,4ko hazkundea dakar salmentetan eta %34koa erosketetan.

Jarduera sektoreen arabera, zerbitzuek sortu dute negozio bolumenik handiena (6.117,6 milioi euro erosketen eta salmenten artean) eta ondoren industriak (5.779,1 milioi euro). Eraikuntzak elektronikoko oso negozio zenbateko txikia sortu du (131,5 milioi).

Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen portzentajeak (zentzu zabalean) atzera egin du, 2008. urteko kopuru osoaren %15etik 2009ko %14,9ra.

Zifra ekonomikoetan salmentak erosketak baino askoz handiagoak badira ere, partaidetzan, bide elektronikoz produktuak eskuratzen dituzten establezimenduak saltzen dutenak baino askoz gehiago dira. Izan ere, %14,9ko proportzioa batez ere erosketak egiten dituzten establezimenduek ekarri dute (%13,8), saltzen dutenak %3,4 baino ez baitira.

EAEen merkataritza elektronikoa 29.000 establezimenduk egiten dutela kalkulatu da. Eta kalkulatuenez, establezimendu horiek prozedura horren bidez egindako

erosketak erosketak guztien %24,9 dira eta salmentak salmenta guztien %32,5.

Establezimenduen tamainaren arabera bereizita, 9 langile baino gehiagoko enpresen artean merkataritza elektronikoa egiten dutenak gehiago dira, %23,7 (orokorrean, aldiz, %14,9 dira, arestian aipatu legez) eta maila horretan erosketak egiten dituztenak ere (%20,2) saltzen dutenak baino gehiago dira (%8).

EUROSTATen datuen arabera (database, 2009ko datuak), on line (internet, EDI edo bestelako sareen bidez) saldu zuten 9 langile baino gehiagoko enpresak %12 izan ziren 27EBn, %12 25EBn eta %13 15EBn. Eta on line erosi zuten enpresak: %24 27EBn, %25 25EBn eta %27 15EBn.

Merkataritza elektronikoa salmentak bideratu diren bezero motari dagokionez, EUSTATen arabera, 2009an, salmenta elektronikoa guztien %82,3 beste enpresetara zuzendu ziren (B2B), %17 kontsumitzaile partikularrentzat izan ziren (B2C), eta gainontzeko %0,7 beste hartzaile batzuen artean banatu zen, hala nola herri-administrazioak, etab. (B2G).

Egindako bidetari dagokionez, salmentetan, %43,6 EDIren eta bestelako sareen bidez egin dira, %26 posta elektronikoz eta %30,4 webgunearen bidez. Erosketei dagokienez, %40,3 posta elektronikoz egin dira, %38,3 webgunearen bidez eta %21,4 EDIren eta bestelako sareen bidez.

I.2.64. Koadroa. Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera (%)

	Establezimenduak guztira						10 langile edo gehiago					
	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Merkataritza elektronikoa	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7
Erosketak	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2
Salmentak	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4	4,1	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0
Erosketen % (*)	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3
Salmenten % (*)	22,0	24,6	24,4	20,7	26,9	32,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2

(*) merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, salerosketak elektronikoen batez besteko % salerosketak guztien gainean.

Iturria: EUSTAT. ISI-enpresak.

3. Ingurumenaren egoera EAE-n

3.1. EAE-ko 2002-2020ko ingurumen estrategiaren jarraipena. Ingurumen adierazleak

(a) Airearen kalitatea eta atmosfera kutsatzaileen isuriak

Kalitate indizea lortzeko, Europako Zuzentarauak alor honi buruz ezartzen dituen kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituzten puntako teknologiadun analizatzaileak eta sentsoareak dituen kontrol eta zaintza sarea dago. Aipatutako kutsatzaileak honakoak dira batez ere: sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoak, ozono troposferikoa (O₃), karbono monoxidoa (CO) eta esekidurazko partikulak. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzak hamaika gune eta 6 indize maila (airearen kalitate ona, onargarria, neurrizkoa, txarra, oso txarra eta arriskutsua) ezartzen ditu. Hori horrela, gune bakoitzak hainbat kontrol estazio ditu, eta, bertan, indizea kalkulatzeko kutsatzaile desberdinak denbora errealean neurtzen dituen sentsoare eta analizatzaile automatikoak daude.

Lurraldeko guneak

1. Hegoaldeko Araba	7. Urola Goiena
2. Arabako lautada	8. Ibaizabal – Debagoiena
3. Arabako Errioxa	9. Nerbioi Garaia
4. Kostaldea	10. Enkarterri
5. Donostialdea	11. Nerbioi Behera
6. Oria Garaia	

Estazio mugikorrek egoeraren araberako kutsadurako puntu zehatzak eta kokapen berriak aztertzen dituzte. Horrez gain, besteak beste konposatu organikoz edo metal astunez osatutako kutsatzaile tradizionalak neurtzen dituzte.

Isurien sentsoareak industria kutsatzaile nagusietako tximinietan daude eta altzairu fabrikek, termikek, kimikek edo gas solairuek ez dituztela beren jarduerarako ezarritako legezko mugak gainditzen zaindu behar dute. Bulego zentralak egunero jasotzen ditu datu horiek guztiak, modemaren bidez. Talde informatiko batek datuak aztertzen ditu eta, ondoren, informazioa Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren webgunera bidaltzen da.

Airearen kalitate indizeak balio bat izango du esleituta, eta balio hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txarragoa izango da gune horretako airearen kalitatea. Eguneroko indizea da, hots, egunero aldatzen da indizearen balioa eta, beraz, dagokion guneko airearen kalitateari buruzko informazioa ere bai, eta horregatik aurki daitezke airearen kalitate indize desberdinak dauzkaten guneak.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak emandako informazioaren arabera, esan daiteke airearen kalitatea ona edo gutxienez onargarria dela azpi-gune guztietan.

11 laginketa estazioetan airearen kalitate txarra edo oso txarra izan duten egunen proportzioa % 0,35etik % 0,1era jaitsi da 2009 eta 2010. urteen artean; balio absolutuetan, 14 egunetik 4 egunera murriztu da. Bestalde, neurrizko kalitatea duen airearen portzentajea ere murriztu egin da, % 2,2tik % 0,8ra, balio absolututan 89 egunetik 31ra.

I.3.1. Koadroa. Airearen kalitatea ean (egunetan neurtua)

	2010								Txarra edo oso txarra		Neurrizkoa	
	Ona	Onargarria	Neurrizkoa	Txarra	Oso txarra	Arriskutsua	GUZTIRA	Iraunkortasun adierazlea	2009	2010	2009	2010
Hegoaldeko Araba	156	207	2	0	0	0	365	156	1	0	6	2
Arabako lautada	228	137	0	0	0	0	365	228	0	0	1	0
Arabako Errioxa	201	164	0	0	0	0	365	201	1	0	0	0
Kostaldea	224	141	0	0	0	0	365	224	0	0	4	0
Donostialdea	277	88	0	0	0	0	365	277	0	0	1	0
Oria Garaia	196	166	3	0	0	0	365	196	0	0	12	3
Urola Goiena	162	175	24	4	0	0	365	162	12	4	45	24
Ibaizabal – Debagoiena	266	98	1	0	0	0	365	266	0	0	13	1
Nerbioi Garaia	267	98	0	0	0	0	365	267	0	0	0	0
Enkarterri	273	92	0	0	0	0	365	273	0	0	0	0
Nerbioi Behera	226	138	1	0	0	0	365	226	0	0	7	1
EAE GUZTIRA (EGUNAK)	2.476	1.504	31	4	0	0	4.015	2.476	14	4	89	31
EAE GUZTIRA %	61,67	37,46	0,77	0,10	0,00	0,00	100%	61,67	0,35	0,10	2,22	0,77

Iraunkortasun adierazlea: "Airearen kalitate oneko" egunak + "Onargarriak" * 100 / urteko egun kopurua, guztira.
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

2010ean, batez ere honakoak nabarmentzen dira: Urola Goiena (airearen kalitate txarreko 4 egun —aurreko urtean baino 8 gutxiago— eta neurrizko kalitateko 24 —aurreko urtean baino 21 gehiago—) eta Oria Garaia, Hegoaldeko Araba eta Nerbioi Behera (neurrizko kalitateko 3, 2 eta 1 egun, hurrenez hurren).

(b) Klima aldaketa: berotegi-efektuko gas isuriak (BEG)

Nazio Batuek adierazi dutenez, klima aldaketa da XXI. mendeko ingurumen arazo nagusietako bat. Klima aldaketarako gobernu arteko taldearen txostenen arabera, Lurraren klima aldatua izan da, atmosferan metatutako berotegi-efektuko gasen ondorioz. Hori dela-eta, planetako batez besteko tenperatura 0,74 °C igo da azken mendean eta XXI. mendearen bukaerarako 1,8 °C eta 6 °C bitartean igo daiteke.

1992. urtean, herrialde gehienak nazioarteko hitzarmen batera atxiki ziren (Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzio Markoa (KANBKM)), atmosferaren beroketa murrizte aldera zer egin zitekeen aztertzen hasteko. 1997an, gobernuak, Alderdien Hirugarren Biltzarrean (Kyotoko 3AB, 1997ko abenduaren 11), Kyotoko Protokoloa izeneko gehigarria erantsi zuten hitzarmenera. EBk hartutako Kyotoko Protokoloan (Kontseiluaren 2002/358/CE Erabakia, 2002ko apirilaren 25ekoa), 2008-2012 garaian BEG isuriak mugatzeko konpromisoa hartu zen, 1990eko isurien mailaren batz bestekoaren % 8ko murrizketa lortzeko asmoz. Konpromiso hori modu desberdinean banatu zen estatu kideen artean eta Espainiari abiapuntu urteko kopurua gehienez % 15 igotzeko muga ezarri zitzaion.

Autonomia Erkidegoek ez daukate BEG isuriak murrizteko helburu juridikoki loteslerik. Baina Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko 2008-2012 Euskal Planak ezartzen duenez, EAEko isuriak mugatuko dira aldi horretan, ez dezaten abiapuntu urteko kopurua % 14 baino gehiago handitu.

Egun, produktuen eta kontsumoaren paradigma karbono gutxiko ekonomiarantz aldatzeko konpromisoa indartu beharra dago. Horretarako, nahitaezko konpromiso maila berriak eta Kyotoko Protokoloaz harago doazen BEG isurien muga berriak hartu behar dira aintzat.

Klima Aldaketarako Euskal Legearen aurreproiektuan, EAEko Klima Aldaketara egokitzeko jardura esparru berria ezarri da. Lege horrek 2020ra begira Klima Aldaketarako Euskal Plan berria egiteko beharra ezartzen du.

Azkenik, Cancuneko Akordioa aurrerapen nabarmena dela esan liteke, Durbanen egingo den hurrengo goi-bileran berotegi-efektuko gas isuriak murrizteko helburu lotesleak lortzeko oinarriak ezartzen ditu eta.

Nazio Batuen isuriak zenbatzeko estandarrek ezartzen dutenez, aitorpena egiten duen erakundearen lurralde eremuan sortutako isuriak jaso behar ditu isurien inbentarioak. Dena dela, hala eginez gero, isurien inbentariotik kanpo geldituko lirake aitorpena egiten duen erakundearen lurraldean ekoitzi ez arren kontsumitu den energiari lotutako isuriak.

Horrelako kasuetan, erreferentziazko urtean eta hurrengo aldietan argindarraren azken kontsumoari lotutako isuri guztiak zenbatzea komeni da. Hori da, hain zuzen ere, Euskadin jarraitu den eredua, berotegi-efektuko gasen inbentarioak egiterakoan.

BEG isurien inbentarioak 2009. urteari buruz eskaintzen dituen azken datuen arabera, EAEko jardura sozioekonomikoei egotz dakieken BEG isuria CO₂

baliokideko 22,6 milioi tonakoa izan zen. Hau da, 2008. urteko isuriekin alderatuta, % 10 murriztu zen eta, abiapuntu urteko isuriekin alderatuta, % 6 igo. Ondorioz, indarreko planean ezarritako helburua (+% 14) baino 8 puntu beherago gaude.

Jardura ekonomikoaren maila jaitsi izana (BPG % 3,8 bajatu da) faktore esanguratsua izan da 2009ko isurien murrizketa ulertzeko, aurreko urtearekin alderatuta.

Hala eta guztiz ere, isuriak BPG baino gehiago murriztu izanak (% 10, % 3,8ren aldean, hurrenez hurren) adierazten duenez, ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren eta berotegi-efektuko gas isurien ekoizpenaren arteko banaketarako joerak —2002an hasitakoa— oraindik tinko dirau. Hau da, gutxiago ekoizten dugu ondasun eta zerbitzuen ekoizpen unitate bakoitzeko.


Sektoreei erreparatuz gero, 2009an BEG isurietan gehien lagundu zuena energiaren sektorea izan zen, % 40ko partaidetzarekin; ondoren, garraioa, % 23rekin; hirugarrenez, industria, % 22rekin; laugarrenez, egoitza eta zerbitzuen sektoreak, % 6rekin eta hondakinena % 6rekin; eta, azkenik, lehenengo sektorea (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) % 4rekin.

Hala ere, industriaren sektoreari kontsumitzen duen argindarraren ekoizpenaren ondoriozko isuriak ezarriko bagenizkio, isuri guztien artean % 37ko ekarpena izango luke, eta, egoitza eta zerbitzuen sektoreen kasuan, ekarpena % 16koa litzateke.

Bilakaerari dagokionez, 2009an, energiaren sektoreko isuriak (inportatutako elektrizitatearen ondoriozkoak barne) % 14 murriztu ziren 2008koekin alderatuta, abiapuntu urtearen aldean % 15 igo ziren arren.

2008an, garraio isuriek aurreko urtearekiko murrizketa erregistratu zuten lehenengoz 18 urtetan (hau da, 1990etik); 2009an, bigarrenez, kopurua jaitsi egin zen, kasu horretan % 7,5. 1990. urteaz geroztik, isuriak % 94 igo dira. Gutxi gorabehera sektore horren isurien % 96 errepide bidezko garraioari daude lotuta. Isuri horien artean % 60 inguru autoek sortzen dute eta gainerako ia % 40a salgaien garraioak (ibilgailu astun eta arinek). Bai salgaien garraioak, bai bidaiariak, isuriak ia bikoiztu dituzte, 1990. urtearekin alderatuta. Hazkunde absoluturik handienak autoen isurien igoera eta, ondoren, ibilgailu arinetako salgaien garraioa izan dira.

I.3.1. Grafikoa. BEG isurien aldakuntzak 1990-2009 artean, sektoreka (%)



Iturria: EAEko BEG isuriei buruzko inbentarioa 1990-2009.

I.3.2. Koadroa. Berotegi-efektuko gas isurien bilakaera sektoreka (CO₂-ko tona baliokideetan), EAE-n. 1990-2009

	Abia. urtea	1990	1995	2000	2005	2007	2008	2009	2008-09 aldakuntza
Energiaren sektorea	2.977.046	2.974.760	3.936.205	5.373.143	8.822.603	8.289.787	8.232.376	8.128.161	-1,3
Industria	7.531.118	7.096.415	7.048.716	6.505.859	5.435.678	5.234.481	5.562.320	4.875.549	-12,3
Garraioa	2.716.738	2.711.247	3.179.180	4.639.113	5.480.526	6.074.051	5.705.219	5.279.499	-7,5
Egoitza	627.585	627.585	766.397	896.930	938.554	774.804	874.781	865.089	-1,1
Zerbitzuak	221.903	221.499	291.592	386.531	414.419	374.380	433.232	406.463	-6,2
Nekazaritza	1.163.788	1.163.788	1.182.385	1.171.241	1.143.949	855.671	825.229	826.630	0,2
Hondakinak	1.255.227	1.255.227	1.379.595	1.443.745	1.422.182	1.334.711	1.325.321	1.290.274	-2,6
Zuzeneko isuriak, guztira	16.493.405	16.050.520	17.784.069	20.416.562	23.657.910	22.937.885	22.958.477	21.671.665	-5,6
Argindar inportatua	4.899.130	4.899.130	5.147.256	6.044.869	2.144.818	3.334.543	2.304.410	955.825	-58,5
Energiaren sektorea + Argindar inportatua	7.876.176	7.873.890	9.083.461	11.418.011	10.967.421	11.624.331	10.536.785	9.083.986	-13,8
Isuriak, guztira (zuzenekoak + argindar inportatua)(1)	21.392.534	20.949.650	22.931.326	26.461.430	25.802.728	26.272.428	25.262.887	22.627.489	-10,4

Kyotoko Protokoloaren konpromisorako esleitutako kopuruak kalkulatzeko abiapuntu urtea: 1990 CO₂, CH₄ eta N₂Oetarako; 1995 gas fluoratuetarako (HFC+PFC+SF₆).

(1) – Elektrizitatearen inportazioekin lotutako isuriak jasotzen ditu

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Berotegi Eftektuko Gasen Urteko Inbentarioa.

Industriaren sektoreko isuriak % 12 jaitsi ziren 2008arekin alderatuta eta % 35 1990arekin alderatuta. Hala ere, kontuan hartu behar da sektore hau argindarraren kontsumitzailearik handiena dela (2009an EAE kontsumitutako elektrizitatearen % 60).

Lehenengo sektorean (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza), BEG isuriak % 0,2 igo dira 2008arekiko eta % 29 murriztu 1990arekiko; arrazoa, funtsean, jarduera honetan erregaien (Petrolioaren Gas Likidotua) kontsumo txikiagoa izan da.

Egoitza eta zerbitzuen sektoreek behera egin dute 2008. urtearekin alderatuta, PGL eta gas naturalaren kontsumoa jaitsi egin da eta. Abiapuntu urtearen aldean, egoitza sektoreak % 38 handitu ditu bere isuriak, eta zerbitzuen sektoreak % 83.

Hondakinen sektorean, 2008aren aldean isuriak % 2,6 murriztu dira, hondakin gutxiago sortu eta birziklatzearen portzentajea handitu delako. Hori dela-eta, zabortegetan hondakin gutxiago egon dira. Abiapuntu urtearen aldean % 2 igo da birziklapena.

(c) Uraren kalitatea**Kontinente eta itsasoko uren egoera. makroornogabe bentikoak¹**

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) eta Ingurumenaren II. Esparru Programak (2007-2010) proposatutako konpromisoa honakoa da: 2012rako azaleko ur masen % 80k "egoera" ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izatea; eta ur artifizial eta oso aldatuen masen % 80k ahalmen ekologiko ona eta egoera kimiko ona izatea.

Ur politiken eremuan erkidegoko jarduera esparrua xedatzen duen 2000/60/CE zuzentarauaren arabera, "egoera" kontzeptu hori ur ekosistemen funtzionamendua islatzen duten eragile guztiak batera aintzat hartu ondoren definitzen da. Horrela, hiru adierazle mota erabiltzen dira: biologikoak, fisikokimikoak eta hidromorfologikoak. Zuzentarau horren

arabera, egoera biologikoaren balorazioa adierazle biologiko bakoitzaren baloraziorik txarrenari dagokio. Beste bi adierazleek, egoera biologikoaren emaitzarekin batera, egoera ekologikoa zehaztea ahalbidetzen dute.

Kontinenteko uren egoera: ibaiak

Guztira, ibai kategoriako 123 ur masa identifikatu dira: 95 ur masa naturalak dira, 9 urtegi motakoak dira eta 19 behin-behinean oso aldatutzat jotako ur masak dira.

Beste batzuetan bezala, egoerara hurbiltzeko azterketa partziala egin da. Horretarako, makroornogabe bentikoentzako egoera ekologikoaren balorazioa (MBi indizea) egin eta ingurumen helburuak ezarri dira (IH); baita baldintza fisikokimiko orokorrak ere (FKI-E indizea).

MBi (makroornogabe bentikoak) indizearen bidez lortutako balorazioetatik, Ingurumenaren II. Programa Esparruaren denbora tartean (2007-2010) proposatutako ingurumen helburuen betearazpen maila baxua da, eta azken kanpainetako emaitzen egonkortasuna islatzen du.


EAE osoan azken urteotan balorazioak jasan dituzten 114 ur masa naturalak (ibaiak) kontuan izanda, 2007an helburuak % 32k bete dituzte, 2008an % 38k eta 2009an % 42k. Emaitzak egonkorak badira ere, hobetzeko joerari antzeman lekiok.

Ibaiei kategoriatik ur naturalen eta ur masa oso aldatuen artean banakatzen bada, emaitzak honakoak dira:


- Ur masa naturalak. 2009ko erregistroen arabera, masen % 49k bete dituzte ingurumen helburuak; 2007an, ordea, % 37 ziren.
- Ur masa oso aldatuak (UMOA). 2009ko erregistroen arabera, masen % 5ek bete dituzte ingurumen helburuak; 2007an, ordea, % 11 ziren.

MBi adierazitako helburu biologikoen betearazpen maila baxua izan bada ere, ingurumen helburuekin bat datozen erkidego biologikoak garatzeko aukera ematen duten baldintza fisikokimiko orokorrekin buruzko egoera azaltzen duen FKI-E indizeak hobetzeko joera ezarri du,

¹ Organismo horiek ibai eta erreketako zorueta eta haitzak eta hostoak bezalako gaietan errotuta bizi dira. Ur gorputzetako presentzia eta aniztasuna haien kalitate ekologikoaren adierazle ezin hobeak dira, bizi diren ingurune aldaketa fisiko, kimiko eta fisikokimikoen aurrean oso sentiberak direlako. Adierazle ona dira laginak hartzeko erraztasunagatik eta aldaketen aurreko sentiberatasun handiagatik.

**I.3.2. Grafikoa. Ibaiak-Naturalak.
Makroornogabe bentikoak. MBI indizea**

Iturria: Uraren Euskal Agentzia

**I.3.3. Grafikoa. Ibaiak-UMOA.
Makroornogabe bentikoak. MBI indizea**

Iturria: Uraren Euskal Agentzia

1999ko datuekin alderatuta. 1999an, ibaien kategoriako 82 kontrol estazioetatik % 45 inguruk FKI-E indizearen arabera ingurumen helburuak betetzen zituela zehaztu zen. Egun, eta 107 kontrol estazioak kontuan hartuz gero, portzentajea % 69koa da, azken hiru kanpainetan egonkor iraun duen balioa delarik.

Ibaien kategoria ur naturalen eta ur masa oso aldatuen artean banakatzen bada, emaitzak honakoak dira:

- Ur masa naturalak. 2009an ingurumen helburuak betetzen dituzten % 75 erregistratu dira.
- Ur masa oso aldatuak. 2009an ingurumen helburuak betetzen dituzten % 47 erregistratu dira.


Ingurumenaren ikuspegitik, erants daiteke, kalitate fisikokimiko orokorraren hobekuntza egoera ekologikoa hobetzeko eragile garrantzitsua izan arren, hura ez dela bakarra. Beste eragile batzuek ere, hala nola hidromorfologikoe eta kutsatzaile zehatzei buruzkoek (metalak eta organikoak), egoera historiko arazotsuari laguntzen diote. Egoera hori askiez diren saneamenduetatik dator, haiek karga organiko handiko mailak eta sedimentu kutsatzaileak sortu baitituzte.

Azkenik, oso aintzat hartzekoa da kalitate fisikokimikoaren konponketak edo hobekuntzak ez diola denbora eskala berean eragiten kalitate biologikoaren hobekuntzari, denbora eskala luzeagoa eta kalitate kimikoaren egonkortzea behar dituelako.


Orokorrean, etorkizunari begira gure ibaien egoerari itxaropentsu iritzi behar zaio oraindik. Hiri eta industriako hondakin-uren saneamendu kontuetan egindako ahalegin handiak emaitza onak eman ditu, eta hurrengo urteetan hobetu beharko dira. Hala ere, egun oraindik daude egoera txarreko zati handiak, batez ere Nerbioi-Ibaizabal, Deba eta Oriaren arroetan.

Dena dela, EAEko Saneamendu Gida Planean bukatzeke edo birmoldatzeke dauden saneamenduek, ibaiertzak berreskuratu eta babesteari buruzko aurreikuspenak apurka egikaritzearekin, kutsadura murrizteko berariazko programak gauzatzearekin, eta abarrekin batera, ibaien egoera pixkanaka hobetzea ahalbidetuko dute etorkizunean.


Oro har, EAEko ibaien egoerari kalte egiten dioten eragileak honakoak dira: arazketa eta saneamendua ez

**I.3.4. Grafikoa. Ibaiak-Naturalak.
Egoera fisikokimiko orokorra. FKI-E indizea**


Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

**I.3.5. Grafikoa. Ibaiak-UMOA.
Egoera fisikokimiko orokorra. FKI-E indizea**

Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

**I.3.6. Grafikoa. Trantsizio urak.
Makroornogabe bentikoen egoera**

Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

**I.3.7. Grafikoa. Kostaldeko urak.
Makroornogabe bentikoen egoera**

Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

dira nahikoak, kutsadura puntuala (industria efluenteak), nekazaritza jardueren ondoriozko kutsadura lausoa, ibaietako habitataren aldakuntzak (nekazaritzaren eta hirigintzaren presioen ondorioz), baliabideen erabilera okerra (lurzorua eta ura modu intentsiboan aprobetxatzea, adibidez zentral hidroelektriko batzuen ondorioz) eta komunitateen aldakuntza (espezie aloktonoak sartzeagatik).

Trantsizio uren (estuarioak) eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren

“EAEko trantsizio eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen sareak”, 2009ko kanpainan, trantsizioko uretako (estuarioak) 32 estazio eta kostaldeko 19 estazio aztertu ditu.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Añarbeko Urek Donostia eta Pasaia badiaren arteko kostaldean eta Oiartzungo estuarioan ingurumen jarraipeneko zenbait ikerketa egin dituzte.


Ibai sarean bezala, aldagai fisikokimikoak ez ezik, adierazle biologikoak ere sartzen dira. Horrela, M-AMBI indizea garatu da. Indize hori substratu biguneko makroornogabe bentikoen komunitateetan oinarritzen da, eta euskal kostaldearen kalitate biologikoaren bilakaera ezartzea ahalbidetzen du.

Kostaldean, trantsizio urek egoera gehiagotan ez dituzte ingurumen helburuak betetzen, azken urteotan hoberako joera sumatu arren. 2002an, masen % 7k (kontrol estazioen % 38k) baino ez zituzten IHak betetzen. 2009an, aldiz, masen % 64k (kontrol estazioen % 72k) betetzen dituzte IHak.

Kostaldeko uretan egoera guztiz aldekoa da, laginketa estazioen % 100etan betetzen baitira helburuak.

Lakuen eta barnealdeko hezeguneen egoera

EAEko laku edo hezegune kategoriari lotuta 4 ur masa zehaztu dira (Arreo lakua, Laguardiako urmael gunea, Salburuako hezegunea eta Altubeko urmael gunea) eta EAEko barnealdeko hezeguneen kalitate ekologikoaren jarraipenerako sareak guztira 19 hezegune kontrolatzen ditu. Horietatik 15ek jarraikortasuna izan dute 2001/2002 ziklo hidrologikotik.

**I.3.8. Grafikoa. Barnealdeko hezeguneak.
Egoera ekologikoaren bilakaera**

Iturria: Uraren Euskal Agentzia.

Eskura dauden emaitzak ikusita, esan daiteke, bilakaera ona dagoela iruditu arren, hura ez dela oraindik nahikoa. 2001/2002 ziklo hidrologikotik aztertutako 15 hezeguneetatik, lehenengo zikloan % 7k baino ez zituzten IHak betetzen. Azken zikloan, ordea, hezeguneen % 27k betetzen dituzte IHak, eta 2006-2007 ziklo hidrologikoan izandako emaitzak errepikatu dira.

Bainurako uren kalitatea

Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 zuzentaraua argitaratuta eta hura bainurako uren kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuaren bidez lekualdatuta, zehaztu beharreko parametro mikrobiologikoak aldatu dira eta urteko ebaluazioa araudi berriak xedatzen duenez egingo da, argitaratu ondorengo lau sasoiaren eta gutxieneko laginketa kopuru baten arabera.

Trantsizio aldiko hirugarren sasoi honetan, 1341/2007 EDko parametroen balioei ezarritako 734/1988 EDko irizpideen bidez sailkatu da.

Balio horien bidez hondartzetarako hiru sailkapen maila ezarri dira:

- 2. mailako hondartzak: parametro guztietarako derrigorrezko balioak eta gida balioak betetzen dituzte, arestian aipatu Errege Dekretuan xedatutako baldintzen arabera.
- 1. mailako hondartzak: derrigorrezko balioak bai, baina gida balioak ez dituzte betetzen.
- 0. mailako hondartzak: ez dituzte derrigorrezko balioak betetzen.

Ondorengo sasoiaren baina bainurako uren sailkapena **gutxiegi, nahikoa, ona eta bikaina** izango da, parametro mikrobiologikoetarako lortutako datuen ebaluazioaren arabera.

2003an Prestige-ren hondamendiaren bidez kaltetutako itsasoko 31 bainu guneek gida balioak bete zituzten 2006an. Plentziak, Gorliz eskuinaldeak, Gorliz erdialdeak eta Gorliz ezker aldeak Bizkaian; eta Antillako hondartzak eta Kontxa-Nautikokoak Gipuzkoan; 2004an lortu ez arren, 2005ean lortu zuten. Eta, Gipuzkoan, Zarautz erdialdeak eta Grosek 2006. urtean.

Araudi berriak honako helburua xedatu zuen: agintari eskudunek behar diren neurri guztiak ezartzea, 2015eko bainu sasoiaren bukaeran, bainurako ur guztiek kalitate nahikoa izan dezaten.

Bainu guneen errolda 2009ko bainu sasoiari hasi aurretik aldatu zen: KARRASPIOko bainu gunea bainu gune bitan banandu zen. Horren ondorioz, beste laginketa gune bat (LG) sortu da; laginketa gune zaharrari ESKUINALDEA deritzo eta laginketa gune berriari EZKERRALDEA.

2009an egindako azterketak, arestikoa kontuan izanda², erakusten du 9 bainu gune hobetu direla, 1 mailatik 2ra igaroz. Era berean, 4 bainu guneren sailkapena okertu egin da: hiru 2 mailatik 1era igaro dira (Zarautz-eskuinaldea, Bakio-erdialdea eta Ea-erdialdea); eta bat 1etik 0ra igaro da (Saturraran-erdialdea).

Hondartza inguruko eremuari dagokionez, sailkapena hondartza osoari buruz egiten da, guneen arabera bereizi gabe, uraren kasuan bezala. Horregatik, hondartza bateko gune guztiek izango dute maila bera, haien artean aldeak egon arren.

Bizkaian, 2009an, 39 guneak jo dira ontzat. Hortaz, orokorrean hobekuntza ikusten da. Bestalde, Gipuzkoan, 23 guneetatik 17 ontzat jo dira (18 urtebete lehenago), 2 hobegarritzat (1 aurreko urtean) eta 4 txartzat (aurreko urteko berberak). Azkenik, Araban hondartza inguruko

5 eremu jo dira ontzat, aurreko urtean haietako 4 hobegarritzat jo ziren bitartean.

(d) *Baliabide naturalen kontsumoa: Ur gezetako baliabideak: ur biltzea eta kontsumoa*

EINk egindako ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkestaren arabera, 2008an EAEn horniketa publikorako ur-bilketa³ 223,6 Hm³ra igo zen. Horrek, 2007aren aldean, % 8,1eko igoera dakar.

Ur-bilketa horiei dagokionez, eta lurrazalekoak eta lur azpikoak bereizita, lurrazalekoak % 8,3 igo dira eta kopuru osoaren barruan duten pisuak gora egin du berri, % 97,1etik % 97,3ra pasatu delarik. Bestalde, lur azpiko ur-bilketak % 2,7 hazi dira.

Eskuragarri dagoen ura 223,6 Hm³-ra igo da, % 100 jatorri propioa delarik, hau da, ez da hirugarrenetik erostetarik egin.

Bestalde, 2008an EAEn horniketa publikorako kontrolatu eta banatutako ur bolumena guztira 204 Hm³-koa da, hots, % 4,2 gehiago. Horietatik 108,7 Hm³ (kopuru osoaren % 53,3) etxeak hornitzeko dira, 51 Hm³ (% 25) sektore ekonomikoetarako eta 34,3 Hm³ udal kontsumoetarako eta beste erabilera batzuetarako.

Banaketa sarean 36 Hm³ ur galdu da (galera errealeak), hots, 2007 eta 2008 artean % 0,1 jaitsi da eta eskuragarri dagoen guztiaren % 16,1 da. Estatuan, erabilgarri zegoen ur guztiaren % 16,6 banaketa sare publikoetan, ihesetan, apurketetan eta abar galdu zen.

Bestalde, 2007 eta 2008 urteen artean, tratatzen den hondakin-ura % 7 igo da, hau da, 616,5 Hm³-ra. Hondakin-urak bildu eta tratatzeko jarduerak 13.179 mila euroko inbertsioa dakarte.

EAEn uraren per capita kontsumoa estatuko batz bestekoa baino baxuagoa bada ere, 154 litro/biztanle/eguneko 139, 2007 eta 2008 artean % 11,2ko igoera antzeman da, estatuan ez bezala. Azken horretan, aipatutako kontsumoa 1,9 jaitsi da.

Bestalde, uraren aleko balioa (koefiziente hau honela kalkulatu da: ura hornitzeko tasen zenbatekoa gehi hondakin-uren saneamenduko tasak edo kanonak eta kontsumorako banatutako ur bolumena) EAEn, 2008. urtean, 0,94 euro/m³ izan zen, hau da, % 8ko igoera, aurreko urteko balioaren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da, 1,31 euro/m³-ra iristen da. Beraz, % 1,6 garestitu da, aurreko aldiaren aldean.

² Bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretua, zeinek Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/7 Zuzentaraua lekualdatzen baitu:

- Bainurako urek bete behar dituzten osasun irizpideak ezartzea, haien kalitatea bermatzeko, giza osasuna babesteko xedez.
- Ingurumenaren kalitatea zaintzea, babestea eta hobetzea, Uren Legearen testuategia osatuz.
- Jendeari bainurako uren kalitateari buruz emandako informazioa kontrolatzeko, sailkatzeko, kudeatzeko eta emateko gutxienezko xedapenak ezartzea.
- Bainurako urei buruzko informazio sistema berria —NAYADE— sortzea. Sistema hori Internet bidez kontsultatu ahal da eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak kudeatuko du.

³ Ur biltzea naturako ura atera edota biltzean eta erabiltzeko biltze gertatzen datza. Besteak beste, lurrazaleko eta lur azpiko ur-bilketak bereizten dira. Azkena, sundaketa edo zulatzeko bidez egiten da.

Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korrantea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korrantea duten uraren artean ubide naturalak (ibaiek eta errekek) eta ubide artifizialekoak (ureztatze bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreserba artifizialek) sartzen dira.

Inkesta honen xedeetarako, ibaiartez gertatutako iragazteak lurrazaleko uraren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo behar diren, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.

Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin behineko guztiak dira, bai artifizialki zein berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar beste kalitate badaukate. Atal horretan, iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita.

I.3.3. Koadroa. EAE-n hornidura publikorako kontrolatutako eta banatutako ur bolumena

	2005	2006	2007	2008	aldak. %a 07/08
ENPRESAREN BERAREN UR-BILKETAK (mila m³)					
GUZTIRA	253.835	218.272	206.858	223.644	8,1
Lurrazaleko urak	232.372	211.781	200.943	217.568	8,3
Lur azpiko urak	20.317	5.569	5.915	6.076	2,7
Gatzgabetzea	0	0	0	0	0
Bestelako baliabide hidrikoak	1.146	922	0	0	0
EDATEKOA BIHURTU GABEKO GUZTIZKO UR ESKURAGARRIA (mila m³)					
GUZTIRA	254.473	218.272	204.669	223.644	9,3
Enpresak berak egindako guztizko ur-bilketa	253.835	218.272	206.858	223.644	8,1
Beste unitate batzuei erositako ur bolumena	638	0	0	—	—
Beste enpresa batzuek hornitutako ur bolumena	0	0	2.189	—	—
UR BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m³)					
Horniketa publikorako kontrolatu eta banatutako guztizko ur bolumena	202.899	189.224	195.794	203.974	4,2
Sektore ekonomikoak	66.967	58.632	55.497	61.016	9,9
Etxeak	108.580	100.174	96.623	108.694	12,5
Udal kontsumoak	20.750	26.347	43.674	34.264	-21,5
Beste batzuk	6.602	4.071			
Banaketa sarean galdutako ura (a)	28.633	27.597	36.037	36.007	-0,1
Edateko bihurtu gabeko guztizko ur eskuragarria (b)	254.473	218.272	204.669	223.644	9,3
Banaketa sare publikoan galdutako uraren % (a/b)	11,3	12,6	17,6	16,1	
Banatutako uraren zenbatekoa guztira (mila euro)	86.869	85.635	97.223	113.344	16,6
Horniketa zerbitzuetako inbertsioaren zenbatekoa guztira (mila €)	3.704	3.165	4.636	6.570	41,7

Iturria: EIN Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

I.3.4. Koadroa. Hondakin uren bilketa eta tratamendua eae-n (m³ egunean)

	2005	2006	2007	2008	Aldak. %a 07/08
Tratatutako hondakin-uren bolumena	1.042.034	657.062	575.885	616.474	7,0
Ur berrerabiliaren bolumena, guztira	1.509	143	27.548	47.493	72,4
Hondakin-urak bildu eta tratatzeko inbertsioko gastuen zenbatekoa, guztira (mila €)	64.800	36.986	625	13.179	
Saneamendu eta arazketa kuoten zenbatekoa, guztira (mila €)	96.832	79.472	72.323	77.837	

Erreferentziatzko 2004. urteaz geroztik, hondakin-uren bilketa eta tratamendu ataletako datuetan zenbait aldaketa gertatu dira, estatistika horien erabiltzaileen premiei eta nazioarteko gomendioei egokitzeko egindako metodologia aldaketa dela-eta. Atal horietan banaketa saretik ez datozen hondakin-urak (euritakoak, norberak ateratakoak edo beste jatorri batzuetakoak) sartu dira. 2003ko estatistika arte, ordean, bertatik etorritako hondakin-urei buruzko informazioa baino ez zen biltzen.

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

I.3.5. Koadroa. Uraren batez besteko kontsumoa eta aleko balioa etxeetan

	Batez best. kontsumoa (litro/biztanle/egun)					Batez besteko prezioa (€/m ³)				
	2005	2006	2007	2008	Aldak. %a 07/08	2005	2006	2007	2008	Aldak. %a 07/08
Andaluzia	195	176	158	157	-0,6	0,92	0,96	1,11	1,12	0,9
Aragoi	153	150	143	150	4,9	0,87	1,04	1,46	1,18	-19,2
Asturias	180	184	185	177	-4,3	0,74	0,78	0,92	0,94	2,2
Balear Uharteak	139	150	136	139	2,2	1,58	1,61	1,85	1,89	2,2
Kanariak	145	141	154	157	1,9	1,65	1,74	1,69	1,70	0,6
Kantabria	191	201	189	188	-0,5	0,68	0,71	0,93	0,89	-4,3
Gaztela eta Leon	160	147	154	153	-0,6	0,66	0,83	1,11	1,94	74,8
Gaztela-Mantxa	174	166	163	155	-4,9	0,74	0,87	0,89	0,99	11,2
Katalunia	162	150	151	139	-7,9	1,04	1,11	1,56	1,59	1,9
Valentzia Erkideg.	171	185	186	189	1,6	1,36	1,30	1,62	1,52	-6,2
Extremadura	173	183	187	158	-15,5	0,81	0,84	1,09	1,11	1,8
Galizia	152	159	143	146	2,1	0,75	0,71	0,72	0,75	4,2
Madril	159	148	150	144	-4,0	1,09	1,27	1,28	1,57	22,7
Murtzia	162	166	166	159	-4,2	1,52	1,53	1,95	1,87	-4,1
Nafarroa	134	128	126	131	4,0	1,12	1,25	1,41	1,23	-12,8
EAE	140	129	125	139	11,2	0,91	0,87	0,87	0,94	8,0
Errioxa	145	148	152	151	-0,7	0,98	0,93	1,06	0,97	-8,5
Ceuta eta Melilla	139	140	135	133	-1,5	0,98	1,01	0,94	1,38	46,8
Estatua	166	160	157	154	-1,9	0,98	1,08	1,29	1,31	1,6

Iturria: EIN. Ur horniketari eta tratamenduari buruzko inkesta.

(e) Hondakinen sorkuntza eta kudeaketa. Hiri-hondakinak eta industria hondakinak

EINren Industria sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestako azken datuen arabera, euskal industriak sortutako hondakin guztietatik (2.129,1 mila Tm), erkidegoko araudiaren arabera 205,4 mila Tm sailkatzen dira hondakin arriskutsu gisa eta 1.923,7 mila Tm ez arriskutsu gisa.

Bilakaerari dagokionez, EAEko hondakin ez arriskutsuen sorkuntza % 24 jaitsi da 2007 eta 2008 urteen artean eta industria hondakin arriskutsuena % 32,1. Halere, EAE industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen bigarren erkidegoa da (205,4 tona) berriro ere. Lehenengoa Katalunia da, 423,6 tonarekin. Estatu osoan, aipatu hondakin arriskutsuak % 22,5 jaitsi dira.

Hiri-hondakinei dagokionez, EINren Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkestak erakusten du

2008an hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek EAEn 1.345,9 mila Tm hiri-hondakin bildu zituztela, aurreko urtean baino % 0,9 gehiago. Izan ere, hondakin nahastuak igo egin dira (+% 1,8), selektiboki bildutako hondakinak murriztu ahala (-% 2,3). Estatuan, murrizketa hondakin nahastuetan eta selektiboki bildutakoetan egon da, -% 4 eta -% 16,4, hurrenez hurren.

Per capita balioetan, EINren inkesta horretako datuen arabera, 2008. urtean EAEn biztanle bakoitzeko 493,4 kg hiri-hondakin nahastu bildu ziren. Hau da, estatutako batez besteko kopurua (464,8) eta aurreko urtean erregistratutakoa (487,9) baino zenbateko altuagoa. Autonomia Erkidegoei erreparaturuz gero, per capita balio handienak erregistratu zituztenak Kantabria (578,8), Balear Irlak (578,2), Nafarroa (546,6), Kanariak (511,9) eta Murtzia (505,6) izan ziren.

I.3.6. Koadroa. Hiri eta industria hondakinen sorkuntza (*) (milaka tonak)

	ESTATUA					EAE				
	2005	2006	2007	2008	2007-08 aldakuntza	2005	2006	2007	2008	2007-08 aldakuntza
Hiri-hondakinak (HH)	28.062,4	28.418,6	28.240,5	26.322,4	-6,8	1.465,4	1.373,6	1.333,8	1.345,9	0,9
HH nahastuak	21.639,5	21.861,8	21.925,9	21.045,6	-4,0	1.068,4	1.030,2	1.036,4	1.055,1	1,8
Selektiboki bildutako HH	6.422,8	6.556,7	6.314,6	5.276,7	-16,4	397,0	343,5	297,4	290,7	-2,3
Industria hondakinak	60.385,3	59.253,8	60.692,7	49.957,1	-17,7	2.871,8	2.917,8	2.839,3	2.129,1	-25,0
Ez arriskutsuak	58.157,4	57.122,1	58.530,1	48.280,4	-17,5	2.489,8	2.536,3	2.536,9	1.923,7	-24,2
Arriskutsuak	2.228,0	2.131,6	2.162,6	1.676,7	-22,5	382,0	381,5	302,4	205,4	-32,1

Iturria: EIN: Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkesta eta Industria sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkesta. (*) Zerbitzu sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestak ez du autonomi erkidegoen arabera sailkapenik egiten.

I.3.7. Koadroa. Hondakin motaren arabera sailkatutako hiri-hondakin bilduak (tonak)

	2007		2008		2007-08 aldakuntzak	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
HONDAKINAK, GUZTIRA	1.333.788	28.240.470	1.345.884	26.322.384	0,9	-6,8
HONDAKIN NAHASTUAK, GUZTIRA	1.036.397	21.925.920	1.055.140	21.045.683	1,8	-4,0
SELEKTIBOKI BILDUTAKO HONDAKINAK, GUZTIRA	297.391	6.314.550	290.744	5.276.701	-2,2	-16,4
01.3 Olio mineral erabiliak (elikatzekoak ez dira sartzen)	0	4.666	286	16.717		258,3
02.12 Medikamentu erabili gabeak	0	728	1	76		-89,6
05 Osasun eta biologia hondakinak	109	104.200	31	39.679	-71,6	-61,9
06 Metalezko hondakinak	1.155	53.536	3.946	52.901	241,6	-1,2
07.1 Beira	48.390	622.136	52.236	673.896	7,9	8,3
07.2 Papera eta kartoia	87.215	1.126.625	83.341	1.084.680	-4,4	-3,7
07.3 Kautxua (pneumatikoak)	15	11.283	19	6.591	26,7	-41,6
07.4 Plastikoak (enbalatzekoak izan ezik)	3.592	173.934	4.514	183.948	25,7	5,8
07.5 Zura	6.925	101.367	13.454	121.059	94,3	19,4
07.6 Arropa eta ehun-hondakinak	1.346	7.216	1.214	5.865	-9,8	-18,7
08.1 Ibilgailu baztertuak	1.335	16.388	770	4.885	-42,3	-70,2
08.2 Ekipamendu elektroniko baztertuak (etxetresna elektrikoak)	0	25.654	635	37.523		46,3
08.41 Pila eta metagailuen hondakinak	254	3.528	204	5.048	-19,7	43,1
08.43 Ekipamendu elektroniko baztertuen osagaiak (hodi fluoreszenteak, tonerrak)	0	11.852	139	3.890		-67,2
09 Animalia eta landareen hondakinak	47.787	1.232.525	7.371	748.137	-84,6	-39,3
10.2 Ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak	70.488	809.645	112.629	1.285.128	59,8	58,7
11 Lohi arruntak (zehaztu)	7.529	158.026	1.541	30.511	-79,5	-80,7
12 Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak	17.315	1.844.659	8.411	974.931	-51,4	-47,1
18 Beste batzuk	3.936	6.582	2	1.236	-99,9	-81,2

Iturria: EIN.

I.3.8. Koadroa. Bildutako hiri hondakinak, motaren eta denboraldiaren arabera (biztanleko eta urteko kiloak)

	2005		2006		2007		2008	
	EAE	Estatua	EAE	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Hondakin nahastuak (1)	501	484	488	501	484	488	468,8	493,4
BILKETA SELEKTIBOA (2)								
Papera eta kartoia	38,6	17,9	39,3	38,6	17,9	39,3	24,0	39,0
Beira	19,3	10,9	19,7	19,3	10,9	19,7	14,9	24,4
Ontzi mistoak	49,9	23,3	36,0	49,9	23,3	36,0	28,4	52,7


(1) Hondakin nahastuak: Honela definitzen dira: etxe partikularretan, denda, bulego eta zerbitzuetan, bide publikoetan eta etxeko tresnerian sortutako etxeko hondakinak.
 (2) Selektiboki bildutako hondakinak: baliagarri bihur daitezkeen hondakinak materialak bereiztea ahalbidetzen duen bilketa bereziaren emaitza dira.
 Iturria: EIN

Bilketa selektiboari dagokionez, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira eta ontzi mistoak) erregistratu ditu Estatuko batez bestekoen gaineko bilketa balioak. Hondakinen arabera bereizketak eginez gero, paper eta kartoiaren bilketa apur bat jatsi da (biztanleko eta urteko 39,3 kilotik 39ra), beiraren bilketa hazi egin da (biztanleko eta urteko 19,7 kilotik 24,4ra), bai eta ontzi mistoena ere (biztanleko eta urteko 36 kilotik 52,7ra).

(f) Energiaren ekoizpena eta kontsumoa

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoaren artean. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiatzeagatik, banaketagatik...) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

Energiaren Euskal Erakundeak 2010ean argitaratu zuen "Energia 2009. Euskadi. Datu energetikoak" izeneko txostenak dioenez, 2009an lehen mailako energiaren ekoizpena % 5,2 jaitsi zen, 420 Ktep-etik 399ra. Egun, ekoizpen hori, funtsean, energia berriztagarrietan oinarritzen da (iturri propio nagusia) eta energi mota hori

I.3.9. Grafikoa. Energia primarioaren ekoizpena (Ktep)

Iturria: EEE.

% 2,8 jaitsi zen (393 Ktep-etik 382ra) 2008 eta 2009 urteen artean.

Bestalde, energiaren barne kontsumo osoa edo eskaria % 7,1 jaitsi da eta 7.313 Ktep-etan kokatzen da. Era berean, amaierako kontsumoa % 8,7 jaitsi da, 5.259 Ktep-koa

I.3.9. Koadroa. EAE-ko energia balantzea

	2009							2008-09 aldakuntza						
	Erregai solidoak	Petrolio eta eratorriak	Gas naturala	Energia eratorriak	Energia berriztagarriak	Argindarra	GUZTIRA	Erregai solidoak	Petrolio eta eratorriak	Gas naturala	Energia eratorriak	Energia berriztagarriak	Argindarra	GUZTIRA
Lehen mailako energia ekoizpena	0	0	0	17	382	0	399	0,0	-100,0		-15,0	-3,0		-5,2
Barne kontsumo osoa eskuragarri	188	2.930	3.445	17	435	298	7.313	-25,1	-5,2	-0,9	-15,0	1,9	-50,8	-7,1
Transformazio sarrerak	197	10.226	2.102	17	77	0	12.619	-21,8	2,4	6,5	-15,0	-3,8		2,5
Transformazio irteerak	78	9.972	0	198	0	1.170	11.418	-14,3	2,3		-5,3		7,9	2,6
Amaierako energia kontsumoa	57	2.089	1.274	150	293	1.396	5.259	-26,0	-7,3	-7,5	-7,4	5,4	-13,2	-8,7
Industria	0	163	943	140	200	808	2.254	-100,0	-15,1	-8,4	-6,7	-1,0	-21,9	-16,0
Garraioa	0	1.707	0	0	61,0	16	1.784	0,0	-7,5			38,6	-5,9	-6,4
Nekazaritza eta arrantza	0	10	0	4	0	5	19	0,0	-87,5		-20,0		0,0	-78,9
Zerbitzuak	0	31	102	7	1	305	446	0,0	-8,8	-6,4	-12,5	0,0	1,3	-1,5
Egoitza	0	107	229	0	30	263	629	0,0	3,9	-4,6		0,0	4,4	0,6

Iturria: EEE

I.3.10. Koadroa. Eraldaketa irteerak zentral motaren arabera, EAE-n

	Ktep			2009% bertikala	Aldakuntza %-tan
	2007	2008	2009		
Guztira	10.772	11.131	11.418	100	2,6
Findegiak	9.460	9.747	9.972	87,6	2,3
Zentral termoelektrikoak	824	864	951	7,8	10,1
Kogenerazioa	377	429	417	3,9	-2,8
Kokea lortzeko fabrikak	111	91	78	0,8	-14,3

Iturria: EEE.

izan da. Murrizketa horretan industria eta garraioaren sektoreak izan dira nagusi.

Lehen mailako energiako norberaren ekoizpen eskas horrek EAEko energia eskariaren (7.872 Ktep) % 5,5 asetzea bakarrik ahalbidetzen du. Ondorioz, EAEk kanpoaldearekiko duen energia mendetasuna % 94,5ean kokatzen da.

Lehen mailako sektorearen jarrera alde batera utzita, amaierako kontsumoaren murrizketarako (-% 8,7) arrazoiak, funtsean, industria (-% 16) eta garraioaren (-% 6,4) sektoreetan kontsumoa jaitsi izana da. Industria eta eraikuntzaren sektorea da kontsumoan eragin handiena duena (kontsumo osoko % 42,9) eta bere kontsumoa 2.684 Ktep-etik 2.254ra jaitsi du. Eragin handiena duen hurrengo garraioaren sektorea da, 1.906 Ktep-tik 1.784ra igaro delarik.

Energia motaren arabera amaierako kontsumoari dagokionez —oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina izateagatik—, ikus daiteke petrolio eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, % 39,7arekin. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, % 7,3koa hain zuzen. Garrantziaren aldetik atzetik ditu argindarra (kontsumoaren % 26,5 hartuz eta aurreko urteko kopuruaren aldean % 13,2ko beherakadarekin) eta gas

naturala (eskariaren % 24,2 da eta % 7,5eko beherakada bizi izan du aurreko urtearen aldean). Distantzia handian atzetik ditu energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatz eta hartatik eratorritakoak) eta energia eratorriak (funtsean industria prozesuetan berreskuratutako beroa edo energia transformazioa —kogenerazioa adibidez— biltzen ditu).

EAEko energia ekoizpen osoa (transformazio irteerak deitzen den hori) areagotu egin zen 2009. urtean, % 2,6 hain zuzen. Arrazoiak zentral termoelektrikoetan (+% 10,1) eta findegietan (+% 2,3) jarduna areagotzea izan da.


Azkenik, BPGren unitate bakoitzeko amaierako kontsumo gisa neurtutako intentsitate energetikoaren azterketak adierazten duenez, 2009an intentsitatea 2000. urtekoaren % 86 da eta, aurreko urtearekin alderatuta, 5 portzentaje-puntuz hobetu da.

Sektoreka bananduta, industriako intentsitate energetikoa 5 portzentaje-puntuz igo da 2009an, izan ere, energia kontsumoaren murrizketa industriako BPGrena baino handiagoa izan da; garraioaren sektorea 3 puntuz hobetu da; eta zerbitzuen sektorea ere 3 puntuz hobetu da.

3.2. Enpresa industrialia eta ingurumena**3.2.1. Enpresa industrialen gastua ingurumen babesean**

Industria enpresek ingurumena babesteko egiten duten gastuari buruzko EINren inkestaren azken datuek erakusten dute 2008. urtean EAEn enpresa horiek ingurumena babesteko egin duten gastua 232 milioi eurokoa izan dela. Beraz, 2007. urtean izandako datua baino % 1,1 gehiago. 232 milioi euro horietatik, 77.678.371 euro, hots, % 33,4, inbertsioetako gastuari (% 35,9 2007an) dagozkio eta % 66,6 gastu arruntari.

Gastua BPGren portzentaje bezala neurtuta, 2008an beste murrizketa bat ikusten da, % 0,34an geratzen delarik. Horrela, EAE zortzigarren postuan dago berriz, aurretik Asturias (% 0,86), Galizia (% 0,6), Gaztela eta Leon (% 0,52), Aragoi (% 0,45), Kantabria (% 0,43), Nafarroa (% 0,41) eta Gaztela-Mantxa (% 0,38) dituela.

I.3.10. Grafikoa. Energia-intentsitatearen bilakaera

Iturria: EEE.

I.3.11. Koadroa. BPG-ren gaineko gastua

	2005	2006	2007	2008
Andaluzia	0,22	0,21	0,22	0,22
Aragoi	0,25	0,29	0,44	0,45
Asturias	0,66	0,86	0,94	0,86
Balear Uharteak	0,09	0,07	0,13	0,06
Kanariak	0,10	0,09	0,08	0,09
Kantabria	0,31	0,39	0,48	0,43
Gaztela eta Leon	0,34	0,37	0,47	0,52
Gaztela-Mantxa	0,33	0,34	0,32	0,38
Katalunia	0,35	0,34	0,33	0,34
Valentzia	0,25	0,26	0,26	0,27
Extremadura	0,10	0,11	0,12	0,19
Galizia	0,39	0,43	0,57	0,60
Madril	0,09	0,09	0,09	0,08
Murtzia	0,31	0,31	0,27	0,24
Nafarroa	0,40	0,46	0,40	0,41
EAE	0,38	0,36	0,35	0,34
Errioxa	0,26	0,27	0,41	0,28

Iturria: EIN.

3.2.2. Enpresen ingurumen konpromisoa. Ingurumenaren kudeaketa

Ingurumenaren kudeaketa sistemaren ezarpena, ingurumen konpromisoa ez ezik, nazioarteko merkatuan lehiakortasun eragile garrantzitsua da.

IHOBEk emandako datuen arabera, ingurumeneko ziurtagiriak edo ziurtagiri "berdeak" (ISO 14001, Ekoscan araua, EMAS Europar Araudia edo UNE 150.301-Ecodiseño) gero eta gehiago dira. Horrela, 2007 eta 2008 artean, 1.130 ziurtagiritik 1.228ra pasatu da (98 berri).

Balio absolututan, 69 ISO 14.001 ziurtagiri berri, EMAS berri 2, EKOSCANi lotutako 24 eta ECODISEÑOri lotutako 3 daude, hau da, guztira, 1.048 ISO 14.001 ziurtagiri, 36 EMAS, 24 EKOSCAN eta 14 ECODISEÑO.

Horren ondorioz, EAE oraindik dago mundu mailako lurralde nagusien artean. Izan ere, 2007an Alemaniak 5.800 ISO 14.001 ziurtagiri zeuzkan erregistratuta; Erresuma Batuak, 5.400; Suediak, 4.685, AEBk 8.061; Australiak 1.964; Taiwanek, 1.597; Frantziak, 3.629; Italiak, 3.925; Espainiak, 11.025; Txinak, 18.797; eta Japoniak, 21.779.



02

EKONOMIA EAE-n



MEMORIA
EAEko sozioekonomikoa
2010

1 ■ Kanpoko ingurune ekonomikoa

1.1. Eragile ekonomiko nagusiak

Munduko ekonomia jarduerak 2009an joan den mendeko erdialdetik izandako atzeraldirik sakon eta orokorra bizi izan zuen; urte horretako bigarren seihilekoan suspertzen hasi eta 2010ean leheneratzen jarraitu zuen.

2010eko lehen seihilekoan, gorakada ekonomikoa diru eta zerga pizgarrietan oinarritu zen, mundu mailako finantzazio baldintzen nolabaiteko normalizazioan, eta enpresen eta kontsumitzaileen konfiantza hobetzean. Gainera, lehengoratzak izakinen ziklo luze baten babesak eduki zuen, izan ere, enpresek beren stockak birjarri zituzten ikuspegi ekonomiko orokor itxaropentsuenei erantzunez. Are gehiago esatearren, izakinen birjartzeak lagundu egin zuen BPGren hazkundean ekonomia nagusietan aldi honetan.

Egoera ekonomikoaren hobekuntza orokorra eta jardueraren gorakada, manufakturen sektoreak bultzatuta, mundu mailako merkataritzaren osatze sendo batek lagunduta egon ziren. Hazkundea %12,4koa izan zen aurreko urteko kopuruen aldean, baina lehenengo seihilekoaren aldean bigarrenean dezelerazioa sumatu zen.

Enplegu adierazleei dagokienez, aurreko urte bietan enplegu galera orokorrak egon ondoren, urte horretan pixkanaka hobetu ziren.

Hala eta guztiz ere, lehengoratzearen erritmoa apur bat desberdina izan zen lurraldeen arabera. Ekonomia aurreratueta, gorakada ahula izan zen. Bestalde, garatzeko bidean dauden ekonomiak, ekonomia asiarrak batez ere, munduko lehengoratzearen buruan jarri ziren, hainbat herrialdetan ekonomia gainberotzeari buruzko kezkak sortzera eta guzti iritsiz.

Urte osoan eta aurrekoaren aldean, mundu mailako BPGd, erosahaltenaren paritatearen arabera haztatuta, %5 hazi zen, NDFren kalkuluen arabera. Ekonomia aurreratuak % 3 areagotu dira: AEBko BPG % 2,8 hazi da; Eurogunekoa % 1,7, eta Japoniakoa % 3,9. Garatzeko bidean dauden ekonomiak, batez ere Asiakoak, India eta Txina buru izanez, % 7,3 ingurukoa den tasaraino hazi ziren. Txina eta India % 10,3 eta % 10,4 hazi ziren, hurrenez hurren.

Urteko bigarren seihilekoan, lehengoratzeko ekonomikoak aldi batez galdu zuen bere bultzadaren zati bat, hain zuzen ere izakinen zikloaren laguntza desagertzeagatik eta zerga pizgarriko neurriak kentzeagatik. Hainbat herrialdek, halaber, egokitzapen neurriak iragarri zituzten, finantza publikoen egoera kaskarrari aurre egite aldera. Hainbat sektoretan balantzeak egokitzeko prozesuak eta laneko merkatuen atoniak, batez ere ekonomia aurreratueta, mundu mailako ekonomia osatzea mantsotu zuten. Izan ere, urteko hirugarren hiruhilekoan, mundu mailako jardueraren aurrerapena, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) zenbatespenen arabera, pixka bat mantsotu zen, hiruhileko arteko % 0,9ko tasaren inguruan kokatu arte, bigarren hiruhileko % 1,2 eta gero.

Prezioei dagokienez, lehengaietan prezioen pixkanakako hazkundea egon bada ere (bereziki altua urteko bigarren seihilekoan), inflazioaren presioak arinak izan ziren

oraindik 2010ean ekonomia aurreratueta, eta % 1,6ko hazkundea egon zen (aurreko urteko % 0,1aren aldean). Egoera hau ezberdina izan zen garatzeko bidean dauden ekonomien kasuan ikusi zenaren aldean. Haien kasuan, inflazioaren presioak adierazgarriagoak izan ziren (% 6,2), neurri batean lehengaien prezioek gora egin zutelako eta ekoizteko gaitasunean muga gehiago egon zirelako. Lehengaien prezioen gorakada handi horretan eragin duten arrazoiak baten jatorria, lehengaien eta produktu eratorrien merkatuetan haien prezioen ezarpenaren inguruan sortutako espekulazio osagaian datza.

Testuinguru horretan, 2010. urtean, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak beren interbentzio tasak mantendu zituzten 2009. urtean (baita 2008an ere) itxi zuten modu berean: lehenengoak % 0,25en eta bigarrenak % 0,1en. Bestalde, Europako Banku Zentralak ere egonkor mantendu zuen tasa % 1en; erreferentziako interes tasa horrekin amaitu zuen 2009. urtea.

Diru merkatuko interes tasei dagokienez, horiek areagotu egin ziren epe guztietan. Horrela, hilabete bateko Euriborra % 0,42an kokatzen da urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 0,81ean amaitzen da laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra % 0,66tik % 1,02ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeterako Euriborra % 1,23an hasi zen eta % 1,52an amaitu.

2010eko azken hiletan inflazio tentsioak orokortu egin ziren (lehengaien eta petrolioaren prezioen igoeragatik: abenduaren 6an Brent upelak mailarik altuena jo zuen 2008ko urritik, eta horrela hileko batez bestekoa 91,8 eurora iritsi zen) eta inflazioari buruzko kezka iraunkorreko giro horretan, garapen bideko ekonomietako zenbait banku zentralek krisiari erantzuteko likidezia bultzatzeko hartutako neurri berezi batzuk kendu eta euren diru politikak murriztaileagoak bihurtzea erabaki zuten.

Azkenik, truke eta burtsa merkatuei dagokienez, dibisen merkatuan AEBko dolarren benetako truke tasa errealak tokia irabazi zuen eta, ondorioz, euroak balio pixka bat galdu zuen. Zehazki, dibisa europarrak balioa galdu zuen dolarren, libera esterlinaren eta yenaren aldean.

Burtsen portaerak, 2010ean, hegazkortasun maila handia islatu zuen, ekonomia eta finantza egoeraren ondorioz. Eratorriekin eta dibisen haineko epe laburreko posizioekin eta beste finantza aktibo batzuekin egindako operazioek ezegonkortasun handiagoa eta tentsioak sortu zituzten, eta horrek ekonomia errealari, ekoizpen inbertsioari eta sistemaren sinesgarritasunari eragin zien.

Espanian, IBEX 35 indizeak % 17ko urte arteko erorketa jasan zuen 2009an jasandako % 30eko hazkundearen aldean. Japonian, Nikkei indizea % 4 jaitsi zen 2009an izandako % 17ko hazkundearen aldean. Estatu Batuetan, Dow Jones indizeak aurrerantz egin zuen % 15, 2009ko % 9ko portzentajearen aldean.

II.1.1 Koadroa. Aldagai ekonomiko nagusiak

	2009	2010
BPGd (urteko bilakaera ehunekoetan)		
Mundukoa	-0,5	5,0
Ekonomia aurreratuak (1)	-3,4	3,0
AEB	-2,6	2,8
Japonia	-6,3	3,9
Eurogunea	-4,1	1,7
Beste ekonomia aurreratu batzuk (arestikoak salbuetsita, baina Estonia barne)	-1,2	5,7
Garapen bideko ekonomiak	2,7	7,3
Sahara azpiko Afrika	2,8	5,0
Latinoamerika eta Karibe	-1,7	6,1
Brasil	-0,6	7,5
Mexiko	-6,1	5,5
Estatu independenteen erkidegoa (Mongolia barne)	-6,4	4,6
Asiako garapen bideko herriak	7,2	9,5
Txina	9,2	10,3
India	6,8	10,4
ASEAN-5	1,7	6,9
Erdialdeko eta ekialdeko Europa	-3,6	4,2
Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea	1,8	3,8
Ondasun eta zerbitzuen munduko merkataritza (ondasun eta zerbitzuen munduko esportazio eta inportazioen urteko % bilakaeraren batez bestekoa)	-10,9	12,4
Langabezia tasa (%)		
Ekonomia aurreratuak	—	8,3
Kontsumitzailearentzako prezioak (urteko bilakaera ehunekoetan)		
Ekonomia aurreratuak	0,1	1,6
Garapen bideko ekonomiak	5,2	6,2
North Sea Brent petrolioaren prezioa (\$/upel, urteko batez bestekoa)	61,5	79,5
Lehengaien prezioak (€)		
Elikagaiak	164,8	206,5
Produktu industrialak (metalik ez)	165,0	261,8
Produktu industrialak (metalak)	149,8	176,9
Esku-hartzeko interes tipoa (aldiaren amaieran)		
BEM	1,0	1,0
AEB – gordailu federalen tipo objektiboa	0,25	0,25
Japonia – call Money (2)	0,1	0,1
Euroaren kanbio-tasa (moneta-unitateak euroko)		
Dolarra	1,393	1,327
Libera esterlina	0,891	0,858
Yen japoniarra	130,23	116,46
Burtsa: kotizazio indizea (urteko bilakaera ehunekoetan)		
Dow Jones (New York)	-20,8	19,2
Nikkei	-22,2	5,2
Eurotoxx zabala	-24,2	11,8
Ibex 35	-14,1	1,1

(1) Ekonomia aurreratuak (30 herri): AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Txipre, Asiako ekonomia industrializatu berriak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda B. Asiako ekonomia industrializatu berriak: Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur.

(2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes tipoa.

Iturria: NDF "Perspectivas de la economía mundial" (2011ko apirila) eta Ekonomia Ministerioa "Síntesis de indicadores económicos".

1.2. Bilakaera ekonomikoa arloen arabera

NDFk eta Europako Banku Zentralak (EBZ) emandako datuen arabera, 2010ean, guneen arabera, munduko ekonomiak honako bilakaera izan du.

Estatu Batuak

Ekonomia leheneratu egin zen 2010ean. Politika makroekonomikoen bultzada handiak eta finantzen egoeraren pixkanakako hobekuntzak gorakada txiki ziklikoa sendotu zuten.

BPGd erreala %2,8ko tasan hazi zen, 2009an %2,6 murriztu ondoren. Barne eskari pribatua astiro leheneratu zen, ikuspuntu historikotik, kontsumoko gastuaren hazkunde txikiaren ondorioz. Etxeen kontsumoa langabezia handiak, konfiantza maila txikiak eta balantzeen hondatzea onbideratzeko ahalegin etengabeek mugatuta egon zen. Leheneratzearen eragile garrantzitsuetako bat enpresek ekipamendu-ondasunetan eta softwarean egindako inbertsioen gorakada handia izan zen.

Bestalde, hazkundea behin-behineko eragileek ere bultzatu zuten, esaterako, ekonomiaren leheneratzea eta izakinak birjartzea bultzatzeko onartutako politika publikoek.

Kontu korronteko defizita apur bat hazi zen leheneratzea hastearekin batera, eta batez beste BPGd-ren %3,3n kokatu zen 2010eko lehenengo hiru hiruhilekoetan, 2009ko %2,7ren aurrean.

Etxebizitzaren sektoreak ez zuen hobekuntzarik lortu: urteko lehenengo seihilekoan hazten hasi ondoren, sektorearen jarduerak eta prezioek beste atzerakada bat izan zuten bigarren seihilekoan, etxebizitzari laguntzeko ekimen batzuk iraungo ondoren.

Prezioen bilakaerak eutsita jarraitu zuen, kostuen gaineko goranzko presioak lan eta produktu merkatuen ahuleziak mugatu zituen neurrian. 2010eko KPIren urte arteko tasa %1,6 arte igo zen, aurreko urteko %0,4tik, energiaren kostuen igoeraren ondorioz. Energia eta elikagaiak alde batera utzita, KPIk neurtutako inflazioak beherantz jarraitu zuen eta, batez beste, %1en kokatu zen urte osorako, 2009ko %1,7ren aurrean.

Erreserba Federalak %0 eta %0,25eko tartean eutsi zion funts federalen interes tipoari 2010ean.

Zerga politikari dagokionez, defizita apur bat jaitsi zen 2010eko zergaldian, BPGd-ren %8,9 arte, aurreko urteko %10en aldean. Bestalde, jendearen eskuetan dagoen zor federala %62 arte igo zen aurreko ekitaldian egondako %53tik. Defizit handietako, zor federalaren igoerako eta epe laburreko zerga pizgarriko neurri berrien onarpeneko testuinguruan, 2010eko abenduan Presidentziaren Zerga Batzordearen txosten bat argitaratu zen. Bertan, epe ertainean zerga arazoei aurre egiteko eta finantza publikoen epe luzeko iraunkortasuna lortzeko moduari buruzko proposamen zehatzak jaso ziren.

Japonia

2010eko lehenengo hiru hiruhilekoetan, jarduera ekonomikoa leheneratu egin zen, hartutako diru politika moldakorrek eta zerga pizgarri garrantzitsuek bermatuta. Mundu mailako eskariaren sendotasunak, batez ere Asiako garapen bideko ekonomienek ere lagundu zion egoera ekonomikoa hobekuntzari. Bigarren seihilekoan kanpoko sektorearen ekarpena murriztu zen, mundu mailako merkataritzaren hazkundea moteldu eta barneko gastuak sendo jarraitu zuelako. Hala ere, urte

bukaera aldera, Gobernuak ezarritako neurri pizgarriak kendu ondoren, barneko gastuaren hegazkortasunaren ondorioz, leheneratze ekonomikoa moteldu egin zen, eta horrek enpresa giroa hondatu zuen.

Lan-merkatuaren egoera apur bat hobetu zen 2010ean, baina langabezia tasak (%5,1) nahiko handia izaten jarraitu zuen, ikuspuntu historikotik.

Prezioei dagokienez, kontsumokoak murriztu egin ziren, urte arteko tasan, 2010eko zatirik handienean. Urrian, aldiz, KPIk neurtutako urte arteko inflazioak zenbateko positiboak izan zituen ia bi urtetan lehen aldiz; zigarroen gaineko zergen igoerak apur bat bultzatu zuen hori, baita lehengaien prezioen igoerak ere; energia eta elikagaiak alde batera utziz gero, ordea, KPIk neurtutako urte arteko inflazioak, neurri txikiagoan bada ere, joera deflazionistari eutsi zion. 2010ean, Japoniako Bankuak diru politika moldakorrari eutsi zion ekonomia piztu eta inflazioari aurre egiteko xedez; horretarako, bermerik gabeko egun baterako maileguen interes tipoa %0 eta %0,1 arteko tarte arte murriztu zuen. 2010eko urriaren 15ean, Japoniako agintariak dibisa merkatuan esku hartu zuten, lehen aldiz 2004ko martxotik, yenaren apreziazioa geldiarazteko.

Asiako garapen bideko ekonomiak

Asiako garapen bideko ekonomiek mundu mailako ekonomia eta finantza krisiari eusteko gaitasuna frogatuta gelditu da 2010ean eskualdeak izan dituen emaitza ekonomiko bikainekin; izan ere, batera, BPGd-ren hazkunde tasa %9,5ekoa izan zen.

Pizteko diru eta zerga politikak pixkanaka kendu arren eta kanpoko eskari garbiaren ekarpena bigarren seihilekoan murriztu bazen ere, barne eskari pribatuak eta, batez ere, kapital finkoko inbertsio gordinak lekukoa hartu zuten hazkunde ekonomikoaren eragile erabakigarri nagusi gisa, batez ere Indian.

Orokorrean, emaitza ekonomikoak sendoak izan ziren 2010eko bigarren seihilekoan ere, baina hedapenaren erritmoa apur bat moteldu zen aurreko sei hileen aldean. Prezioei dagokienez, inflazio presioak areagotu egin ziren 2010ean. KPIk neurtutako urte arteko inflazioa %5ekoa izan zen 2010eko abenduan, batez ere elikagaien eta lehengaien prezioen igoeraren ondorioz.

Emaitza makroekonomiko onak eta nazioarteko inbertsiogileek arriskuari izandako higuinaren murrizketa direla-eta, eskualdeak gorakada handia izan zuen kapital sarreretan ere.

Txinan, BPGd errearen hazkundeak azelerazioa izan zuen, %10,3 arte 2010ean, 2009ko %9,2tik. Ekonomiaren portaera biziak inbertsio pribatuaren eta kanpoko eskari garbiaren ekarpen gero eta handiagoak islatu zituen, eta politika pizgarriak pixkanaka kentzeak izandako eragin kaltegarria orekatu zuten.

Hala ere, 2010ean kontsumoak hazkundeari egindako ekarpen erlatiboa murriztu eta kontu korronteko superabit nominala hazi zen; horrek frogatu zuen kanpoko eta barneko desorekek iraun egin zutela.

Inflazio prezioak areagotu egin ziren urte horretan, eta KPIk neurtutako inflazioa urte arteko %4,6ko tasara iritsi zen, abenduan, batez ere elikagaien prezioen igoeraren ondorioz. Higiezin jabetzaren prezioen gaineko prezioak berriz agertu ziren likidezia handiko, kredituak emateko baldintzak malgutzeko eta gordailuen gaineko interes tipo erreal negatiboetako testuinguruan. Agintariak urteko bigarren seihilekoan diru politika gogortuz erantzun zuten. Besteak

beste, horrek kredituari muga kualitatibo zorrotzagoak jartzea eta mailegu eta gordailuen interes tipoen igoerak ekarri zituen. Kapital sarreraren hazkundeak, batez ere 2010eko azken hiruhilekoan, hazkunde azkarra ekarri zien dibisa erreserbei. 2010eko ekainaren 19an, Txinak truke araubide malguagoa ezarri zion yenari, eta horrela %3,6 preziatu zen estatubatuar dolarren aurrean eta %4,7 ikuspuntu efektibo errealetik (KPIk deflaktatua) 2010ean.

Estatu Independenteen Erkidegoa

Krisialdian kolapsoa pairatu ondoren, leheneratzeak erritmo motelean jarraitu zuen. Izan ere, eskualdeko jarduera errealek bere balizko mailaren azpian jarraitu zuen.

Leheneratze hori zenbait eragiletan oinarritu zen. Lehengaien prezioen igoerak gorantz bultzatu zituen ekoizpena eta enplegua esportatzen dituzten eskualdeko ekonomietan. Halaber, Errusiako jarduera errearen gorakadak EIEko beste ekonomia batzuei lagundu die, merkataritzaren, bidalketen eta inbertsioaren bidez.

Bestalde, merkataritza eta kapital trukeen eskualderantzko fluxuek pixkanaka normaltzen jarraitu dute. Hala ere, kanpoko finantzaketaren mendetasun handia eta banku sektoreko ahuleziaren iraupena direla-eta, hazkunde atzeratu egin da eskualdeko zenbait ekonomiatan.

Latinoamerika eta Karibea (ALC)

BPGd-ren hazkunde oso bizi izan zen urteko lehen seihilekoan, barne eskariaren bizitasunagatik, kanpoko eskari garbiaren ekarpen negatiboa orekatu baitzuen. Ondoren, hazkunde erritmoa apur bat moteldu zen politika pizgarriak kendu eta barne eskaria dezeleratu baitzen. Urte arteko tasan, eskualdeko BPGd erreal bateratua batez beste %6,1 hazi zen 2010ean.

Kapitalaren eratez gordina, izakinen pilaketa barne, eta kontsumo pribatua izan ziren eskualdean hazkunde ekonomikoa ekarri zuten eragile nagusiak. Hazteko itxaropenek, lehengaien prezioen igoerak, interes tipo errearen jaitsierak eta finantzazio gehiago lortu ahal izateak —zenbait herrialdetan sektore publikoko bankuen maileguek indartuta— inbertsioa piztu zuten.

Kontsumo pribatuaren hazkundeak konfiantza, enplegua eta soldata errealek azkar leheneratzeari esker eutsi zuen. 2010eko hastapenean, batzuen eta besteen artean alde handiak egon arren, inflazio helburuetako estrategiak izandako herrialde gehienetan inflazio tasak nabarmen hurbildu ziren xede baliorantz. Hala ere, jarduera ekonomikoaren hazkunde handiko eta lehengaien prezioen igoerako testuinguruan, inflazio prezioak aurrerago bizitzen hasi ziren eta zenbait herrialdek krisialdian zabalduetako diru neurri pizgarri batzuk kentzen hasi ziren. Apirilaz geroztik, eskualdeko zenbait banku zentralak interes tipo ofizialak igotzeko zikloari ekin zioten.

Finantza egoerak hobetzen jarraitu eta arrisku gosea leheneratu ahala, Latinoamerikako zor subiranoaren kredituaren arrisku-aseguruen diferentzialak murriztu ziren, burtsako kotizazioak nabarmen igo eta finantza fluxuak itzuli ziren; horrek moneten apreziazioak ekarri zituen. 2010eko amaierara, interes tipoen igoerak kapital ugaritasun handia pizteko mehatxua zekarrenez gero eta mundu mailako ekonomiaren bilakaerari buruzko zalantzak egonda, tipo ofizialak gogortzeko prozesua eten egin zen zenbait herrian eta kapital sarrera masiboa gelditzeko zenbait neurri hartu ziren.

Sahara azpiko Afrika

Eskualdea azkar hazi zen 2010ean. Izan ere, mundu mailako finantza krisitik ondo leheneratu da eta bere hedapen tasak bigarren lekuan kokatu du eskualdea egun, Asiako garapen bideko ekonomien atzean.

Barne eskariaren hazkundeak sendo iraun zuen, merkataritzak eta lehengaien prezioek gorakada izan zuten eta politika makroekonomikoez moldakorak izaten jarraitu zuten.

Truke baldintzen hobekuntzak eskualdeko kanpoko saldoei eutsi zien, eta esportazioek azkarren hazi diren eskualdeetarako, hala nola Asiarantz, pixkanaka birbideratzen jarraitu dute.

Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea (EEAI)

Eskualdeak nahiko ondo eutsi zion mundu mailako krisiari, eta leheneratzeak atzerakada izan arren, hazkunde ekonomikoak aldaketa handiak dauzka herrien arabera.

Gizarte ezinegonaren hedapenak, arrisku subiranoko primen hazkundeak eta lehengaiak inportatzeko prezio altuek hazkunde itxaropenak mugatuko dituzte zenbait ekonomiatan.

1.3. Europar batasuna. Eurogunea

2009an jarduera ekonomikoa uzkuritu ondoren (%-4,1), 2010ean, Espainiako Bankuaren arabera, euroguneko BPGd erreala %1,8 hazi zen. Hala ere, laugarren hiruhilekoan, eurogune osoko BPGd, hiruhilekoen arteko tasan neurtuta, %0,3 hazi zen, hirugarren hiruhilekoan beste; horrek dezelerazioa dakar bigarren hiruhileko %1 en aldean.

Jardueraren urteko leheneratze hori hainbat arrazoiengatik azaldu daiteke. Lehenengoa, guneko esportazioei finantza krisia moteltzeari lotutako kanpoko ingurunearen hobekuntzak lagundu zien. Horrek hazkunde biziagoa ekarri zuen bai herrialde garatuetan bai garapen

II.1.2. Koadroa. BPGD erreala, kontsumitzailearentzako prezioak eta kontu korronteko saldoak (NDF)

	BPGd errealearen urteko bilakaera ehunekoetan		KPIren urteko bilakaera ehunekoetan		Kontu korronteko saldoa BPGd-ren % gisa		Langabezia tasa
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2010
Ekonomia aurreratuak	-3,4	3,0	0,1	1,6	-0,3	-0,2	8,3
AEB	-2,6	2,8	-0,3	1,6	-2,7	-3,2	9,6
Japonia	-6,3	3,9	-1,4	-0,7	2,8	3,6	5,1
Eurogunea	-4,1	1,7	0,3	1,6	-0,2	0,1	10,0
Asiako ekonomia aurreratuak (Japonia, Australia, Zeelanda Berria)	—	5,3	—	0,8	—	3,4	4,8
Asiako ekonomia industrializatu berriak (4 herri: Korea, Taiwan, Hong Kong eta Singapur)	-0,8	8,4	1,3	2,3	8,0	7,1	4,1
Garapen bideko ekonomiak	2,7	7,3	5,2	6,2	—	—	—
Asiako garapen bideko herriak	7,2	9,5	3,1	6,0	4,1	3,3	—
Txina	9,2	10,3	-0,7	3,3	6,0	5,2	4,1
India	6,8	10,4	10,9	13,2	-2,8	-3,2	—
ASEAN-5 (Indonesia, Thailandia, Filipinak, Malaysia eta Vietnam)	—	6,9	—	4,4	—	3,5	—
Latinoamerika eta Karibe	-1,7	6,1	6,0	6,0	-0,6	-1,2	—
Hego Amerika	—	6,5	—	6,7	—	-1,1	—
Brasil	—	7,5	—	5,0	—	-2,3	6,7
Erdialdeko Amerika (Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Panama)	—	3,6	—	3,9	—	-5m1	—
Karibea (15 herri)	-	3,4	—	7,1	-	-3,9	—
Erdialdeko eta ekialdeko Europa (Garapen bideko ekonomiak)	-3,6	4,2	4,7	5,3	-2,8	-4,3	—
Turkia	-4,7	8,2	6,3	8,6	-2,3	-6,5	11,9
Polonia	1,7	3,8	3,5	2,6	-2,2	-3,3	9,0
Errumania	-7,1	-1,3	5,6	6,1	-4,2	-4,2	7,6
Estatu independenteen erkidegoa (12 herri + 1)	-6,4	4,6	11,2	7,2	2,5	3,8	—
Errusia	-7,8	4,0	11,7	6,9	4,1	4,9	7,5
Energia esportatzaile garbiak	—	4,4	—	6,9	—	5,3	—
Energia inportatzaile garbiak	—	5,1	—	8,7	—	-6,5	—
Afrika							
Sahara azpikoa	2,8	5,0	10,5	7,5	-2,4	-2,4	—
Petrolio esportatzaileak	—	6,5	—	12,4	—	2,6	—
Sarrera ertaineko ekonomiak	—	3,1	—	4,4	—	-3,1	—
Sarrera txikiko ekonomiak	—	5,3	—	6,2	—	-7,0	—
Ekialde Ertaina eta Afrikako iparraldea	1,8	3,8	6,5	6,9	2,4	6,5	—
Petrolio esportatzaileak	—	3,5	—	6,7	—	9,2	—
Petrolio inportatzaileak	—	4,5	—	7,6	—	-3,8	—

Ekonomia aurreratuak (31 herri): AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda B., Suitza eta Asiako ekonomia industrializatu berriak. **Estatu independenteen erkidegoa** (12 herri + 1): Sobietar errepublika ohiak, 13 Mongolia sartuz gero Iturria: NDF "Perspectivas de la economía mundial" (2011ko apirila).

bidekoetan. Kanpoko eskariaren bultzadak esportazioen hazkundera eragin zuen, batez ere 2010ean. Edonola ere, areagotze horrek ez zuen ekarri kanpoko eskari garbiaren ekarpen positiboa, inportazioak hazi egin zirelako, erritmo pixka bat biziagoan jarraitu baitzuten.

Bigarrenik, izakinen ekarpena positiboa izan zen, batez ere urteko lehen seihilekoan, enpresetako izakinak murrizteko erritmoan dezelerazioa ikusi baitzen.

Hirugarrenik, barne eskaria apur bat leheneratu zen, kontsumo publikoak hazten jarraitu zuelako eta inbertsio eta kontsumo pribatuak uzkuartzeari utzi ziotelako, 2009an gertatu legez. 2010ean kontsumo publikoaren hazkundera jardueraren ekonomikoari eusten jarraitu zuen, baina 2009an baino txikiagoa izan zen. Aldagai horretan ikusitako moteltzearen arrazoiak aurrekontu publikoen saldoen hondatzea mugatzeko egindako sendotze ahaleginak izan ziren. Bestalde, inbertsio eta kontsumo pribatuaren hobekuntza, neurri batean, aurreko mailen aldean egondako konfiantza areagotzearen ondorio izan zen.

Sektorekako ikuspegi batetik begiraturaz gero, ekoizpenaren zabalkundera bultzatu egin zen nagusiki industria jarduerarekin. Gauzak horrela, industriaren BEG areagotu egin zen (eraikuntza kanpo utzita) % 5,9, merkatuko zerbitzuetan izandako % 1,3ko hazkunderaren eta eraikuntzan izandako % 4,3ko murriztapenaren aldean.

Eurogunean lan merkatuak duen egoera, 2009an izandako hondamen adierazgarria eta gero, egonkortu egin da 2010eko amaiera aldera. Horrela, enplegua % 0,2 hazi zen laugarren hiruhilekoan, eta langabezia tasa % 10eko balioan kokatzen da.

KPIBk neurtutako urteen arteko inflazioa, batez beste, %1,6 arte hazi zen, 2009an %0,3 arte jaitsi ondoren, 2008ko %3,3tik. Neurri handi batean, hazkunde hori lehengaien prezioen igoera handiaren ondorioa izan ziren (batez ere petrolio gordinarenak), 2009ko maila txikien aldean. Bestalde, lehengaien prezioen bilakaerak 2009ko mundu mailako atzeraldiaren ondoren bizi izandako leheneratzea islatu zuen, orduan prezioak jaitsi egin baitziren.

Soldatapeko bakoitzeko lanaren produktibitatearen urteen arteko hazkundera %2,2 arte hazi zen batez beste, baina urteko bigarren erdian jaitsiera izan zuen.

Estatu kide bakoitzari dagokionez, egoera honakoa da. 15EBren barruan ikusten da per capita BPGd, PPSn neurtuta¹, 15EBren batez bestekoaren (110) oso gainetik duten herrialdeak, 2009an (MSEko kapitulu hau ixterakoan ez dago ondorengo daturik) honakoak direla: Luxemburg (271), Holanda (131), Irlanda (127), Austria (124), Danimarka (121), Suedia (119) eta Belgika eta Alemania (116na). Batez bestekoaren azpitik Espainia, Frantzia, Grezia, Italia eta Portugal daude.

27EBn BPGd errearen barietate tasa %1,8koa izan da 2010ean. Hazkunde tasarik handienak Suedian (%5,5), Eslovakian (%4), Polonian (%3,8), Maltan (%3,7), Alemanian (%3,6), Luxemburg (3,5) eta Finlandian (%3,1) daude, eta tasa apur bat positiboak honakoetan daude: Bulgaria (%0,2), Frantzia (%1,6), Italia (%1,3), Txipre (%1), Lituania (%1,3), Hungaria (%1,2), Portugal (%1,3), Eslovenia (%1,2) eta Erresuma Batua (%1,3). Tasa negatiboak Grezian (%-4,5), Errumanian (%-1,3), Irlandan (%-1), Letonian (%-0,3) eta Espainian (%-0,1) daude.

Lan-merkatuari dagokionez, langabezia tasa hazi egin da 2009 eta 2010 artean, Estatu kide guztietan, honakoetan

II.1.3. Koadroa. EURO16 guneko* adierazle ekonomiko nagusiak

	2009	2010				
	Batez bestekoa	Batez bestekoa	I	II	III	IV
Urteen arteko aldakuntza tasa (q/q-4) Urte sasoiz kanpoko sailak						
Merkatuko prezioetako BPGd	-4,1	1,8	0,8	2,0	2,0	2,0
BARNEKO ESKARIA	-3,4	0,9	-0,4	1,2	1,3	1,5
Gastua azken kontsumo pribatuan	-1,1	0,8	0,5	0,6	1,0	1,1
Gastua azken kontsumo publikoan	2,5	0,7	1,1	0,6	0,5	0,6
KFEGd	-11,2	-0,9	-4,7	-0,6	0,5	1,1
KANPOKO ESKARIA						
Esportazioak	-12,9	11,0	7,0	12,9	12,3	11,6
Inportazioak	-11,6	9,1	3,6	11,1	10,8	10,7
UAGd erreala						
Nekazaritza	2,3	0,2	0,3	0,2	-0,6	0,8
Industria	-13,1	5,9	4,4	7,5	5,6	6,1
Eraikuntza	-5,9	-4,3	-6,7	-4,1	-3,4	-2,9
Merkatuko zerbitzuak	-1,8	1,3	0,8	1,2	1,5	1,7
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA						
Enplegua (urtetik urterako aldakuntza tasa)	-1,9	-0,4	-1,3	-0,6	-0,1	0,2
Langabezia tasa (biztanleria aktiboaren gaineko %)	9,5	10,1	10,0	10,1	10,1	10,0
PREZIOAK ETA LAN KOSTUAK. Urte arteko aldakuntza tasa						
Inflazioa (KPIB) indize orokorra (urteko batez bestekoa)	0,3	1,6	1,1	1,6	1,7	2,0
Soldatapeko bakoitzeko lansaria	1,4	1,7	1,6	2,1	1,5	1,6
Lan produktibitatea	-2,2	2,2	2,2	2,6	2,1	1,8

(*) Estonia ez dago sartuta, 2011ko urtarilean sartu baitzen EBn, horregatik da Eurogune16 eta ez 17.

Iturria: Espainiako Bankua (Estadísticas, Síntesis de indicadores. Zona euro. Indicadores económicos generales. 11 mayo 2011).

¹ PPS: erosahaltenaren parekotasuna

II.1.4. Koadroa. Europar Batasuneko ekonomiaren bilakaera

	per capita BPGd (1)		BPGd errealearen hazkundera			Langabezia tasa (2)		Enpleguaren hazkundera		Inflazioa (KPIB) (urteko batez bestekoak)		Produktibitatea / langileko		Lan kostuaren aldak. % (orduko)	
	2008	2009	2009	2010	2011 (aurreik.)	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009 q/q-q4	2010 q/q-q4
27 EB	100	100	-4,2	1,8	1,7	9,0	9,6	-1,8	-0,5	1,0	2,1	-2,4	2,4	2,4	2,0
25 EB	103	103	-4,2	1,9	1,7	9,1	9,7	-1,8	-0,3	—	—	-2,4	2,4	—	—
15 EB	111	110	-4,3	1,8	1,6	9,1	9,6	-1,8	-0,3	—	—	-2,5	2,3	—	—
Eurogunea (17)	108	109	-4,1	1,8	1,5	9,6	10,1	-1,9	-0,5	0,3	1,6	-2,3	2,4	1,9	1,6
Eurogunea (16)	109	109	-4,1	1,8	1,5	9,5	10,1	-1,8	-0,4	0,3	1,6	-2,3	2,3	2	1,6
Belgika	115	116	-2,8	2,2	1,8	7,9	8,3	-0,4	0,6	0	2,3	-2,4	1,6	2,6	—
Bulgaria	44	44	-5,5	0,2	2,6	6,8	10,2	-2,6	-5,9	2,5	3	-2,3	5,3	11,1	7,6
Txekiar Errepublikak	80	82	-4,1	2,4	2,3	6,7	7,3	-1,2	-0,8	0,6	1,2	-3,1	2,9	5,8	4,2
Danimarka	123	121	-5,2	2,1	1,9	6	7,4	-3,1	-2,1	1,1	2,2	-2,2	4,2	1,7	3,2
Alemania	116	116	-4,7	3,6	2,2	7,8	7,1	0	0,5	0,2	1,2	-4,7	3,1	0,1	1,5
Estonia	68	64	-13,9	3,1	4,4	13,8	16,9	-10	-4,8	0,2	2,7	-4,4	7,4	-5,8	1,4
Irlanda	133	127	-7,6	-1	0,9	11,9	13,7	-8,2	-4,1	-1,7	-1,6	0,6	3,9	—	—
Grezia	94	94	-2	-4,5	-3	9,5	12,6	-0,7	-2,1	1,3	4,7	-1,3	-1,5	11,7	-6,5
Espainia	103	103	-3,7	-0,1	0,7	18	20,1	-6,6	-2,3	-0,2	2,0	3,1	2,3	4,1	0,7
Frantzia	106	107	-2,6	1,6	1,6	9,5	9,7	-1,2	0,1	0,1	1,7	-1,4	1,6	1,5	3
Italia	104	104	-5,2	1,3	1,1	7,8	8,4	-1,6	-0,7	0,8	1,6	-3,4	1,5	5,1	—
Txipre	97	98	-1,7	1	1,5	5,3	6,5	-0,7	0,1	0,2	2,6	-0,9	1,4	3,5	2,7
Letonia	56	52	-18	-0,3	3,3	17,1	18,7	-13,2	-4,8	3,3	-1,2	-5,1	5,5	-6,1	0,3
Lituania	61	55	-14,7	1,3	2,8	13,7	17,8	-6,8	-5,1	4,2	1,2	-8,5	7,4	-10,8	0,5
Luxemburg	279	271	-3,6	3,5	2,8	5,1	4,5	1	1,6	0	2,8	-4,6	1,4	2,7	3,7
Hungaria	64	65	-6,7	1,2	2,8	10	11,2	-2,8	0,2	4	4,7	-4,0	1,9	-1,4	-2,3
Malta	79	81	-3,4	3,7	2	7	6,8	-0,4	2,2	1,8	2	-1,5	2,0	2,4	0,3
Holanda	134	131	-3,9	1,8	1,5	3,7	4,5	-1,1	-0,5	1	0,9	-2,8	2,9	0,9	2
Austria	124	124	-3,9	2	1,7	4,8	4,4	-0,9	1	0,4	1,7	-3,0	1,0	4,5	2,5
Polonia	56	61	1,7	3,8	3,9	8,2	9,6	0,3	0,4	4	2,7	1,3	2,8	5,7	0,7
Portugal	78	80	-2,5	1,3	-1	9,6	11	-2,6	-1,5	-0,9	1,4	0,1	2,2	1	4,2
Errumania	47	46	-7,1	-1,3	1,5	6,9	7,3	-1,8	-1,8	5,6	6,1	-5,1	-1,1	6,1	5,4
Eslovenia	91	88	-8,1	1,2	1,9	5,9	7,3	-1,9	-2,2	0,9	2,1	-6,4	3,6	-3,5	4,5
Eslovakia	72	73	-4,8	4	3	12	14,4	-2,5	-1,4	0,9	0,7	-2,5	7,2	-1,3	4,3
Finlandia	118	113	-8,2	3,1	2,9	8,2	8,4	-2,7	-0,4	1,6	1,7	-5,6	3,5	—	—
Suedia	123	119	-5,3	5,5	3,3	8,3	8,4	-2	1,1	1,9	1,9	-3,4	4,4	3,8	1,4
Erresuma Batua	115	112	-4,9	1,3	2,2	7,6	7,8	-1,7	-0,7	2,2	3,3	-3,4	1,1	1,8	3,6

(1) PPSn. 27EB=100 (2) 15 eta 74 urte artean. (3) PPCKo BPGd langile bakoitzeko 27EBri dagokionez. Hotsi: 27EB=100.

izan ezik: Alemania (%7,8tik 7,1era jaitsi da), Luxemburg (%5,1etik 4,5era), Malta (%7tik 6,8ra) eta Austria (%4,8tik 4,4ra). 27EBn batez besteko tasa %9,6koa izan zen).

Aipatu denez, Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren arabera, urteko batez besteko inflazioa %1,6koa izan da eurogunean, aurreko urtekoa baino 1,3 puntu gehiago.

Langile bakoitzeko produktibitatearen hazkundera dagokionez, hazkunderik handienak Estonian eta Lituanian (%7,4), Eslovakian (%7,2), Bulgarian (%5,3), Suedian (%4,4), Irlandan (%3,9), Eslovenian (%3,6) eta Finlandian (%3,3 egon dira. 27EBko batez bestekoa %2,4 izan da eta eurogune16an %2,3.

EBren zor publikoaren bilakaera ezegonkorra eta aldagarria izan da finantza publikoen iraunkortasunari buruzko ziurtasun ez, zenbait herrialderen bankuko kaudimenaren eta zorraren aurkako jarrera espekulatzaileen ondorioz. Merkatu horietako tentsioak oso lotuta egon dira europar erakundeek eta herrialdeek eurek arazo biei aurre egiteko abiatutako ekintzen garapenei. Kezka handienak Grezian, Irlandan eta Portugalen oinarritu baziren ere, tentsioek azkenean Espainia eta Italia bezalako beste herrialde batzuei eragin zieten.

EUROSTATen datuen arabera, BPGd-ren gaineko zor publikoa Estatu guztietan hazi da, Estonian izan ezik. Egonkortasun Itunean ezarritako %60ko muga Grezian (%142,8), Italian (%115,8), Belgikan (%96,8), Irlandan (%96,2), Portugalen (%93), Alemanian (%83,2), Frantzian (%81,7), Hungarian (%80,2), Erresuma Batuan (%80), Austrian (%72,3), Malta (%68), Holandan (%62,7), Txipren (%60,8) eta Espainian (%60,1) gainditu zen. Eurogune osoan, BPGd-ren gaineko zor publikoa %85,3koa izan zen.

Defizitari dagokionez, Egonkortasunari eta Hazkundera buruzko Hitzarmenean finkatutako BPGaren %3ko muga gainditu ez zuten Estatu bakarrak honakoak izan ziren: Suedia (% 0), Estonia (% 0,1), Luxemburg (% 1,7), Finlandia (% 2,5) eta Danimarka (% 2,7). Eurogunearen osoan, Estatu Kideen defizitaren batez bestekoa BPGd-ren % 6ren pareko mailan kokatu zen.

Defizit handienak Irlandan (% 32,4), Grezian (% 10,5), Erresuma Batuan (% 10,4), Espainian (% 9,2) eta Portugalen (% 9,1) gertatu ziren.

II.1.5. Koadroa. Finantza publikoak EB-n

	Gobernuak BPGd gainean daukan zor publikoaren %		BPGd gainera defizit/ superabiti publikoaren % (moneta nazionalan)	
	2009	2010	2009	2010
27 EB	74,4	80	-6,8	-6,4
25 EB	75,1	80,7		
Eurogunea (16)	79,4	85,3	-6,3	-6
Belgika	96,2	96,8	-5,9	-4,1
Bulgaria	14,6	16,2	-4,7	-3,2
Txekiar Errepublika	35,3	38,5	-5,9	-4,7
Danimarka	41,8	43,6	-2,7	-2,7
Alemania	73,5	83,2	-3	-3,3
Estonia	7,2	6,6	-1,7	0,1
Irlanda	65,6	96,2	-14,3	-32,4
Grezia	127,1	142,8	-15,4	-10,5
Espainia	53,3	60,1	-11,1	-9,2
Frantzia	78,3	81,7	-7,5	-7
Italia	116,1	119	-5,4	-4,6
Txipre	58	60,8	-6	-5,3
Letonia	36,7	44,7	-9,7	-7,7
Lituania	29,5	38,2	-9,5	-7,1
Luxemburg	14,6	18,4	-0,9	-1,7
Hungaria	78,4	80,2	-4,5	-4,2
Malta	67,6	68	-3,7	-3,6
Holanda	60,8	62,7	-5,5	-5,4
Austria	69,6	72,3	-4,1	-4,6
Polonia	50,9	55	-7,3	-7,9
Portugal	83	93	-10,1	-9,1
Errumania	23,6	30,8	-8,5	-6,4
Eslovenia	35,2	38	-6	-5,6
Eslovakia	35,4	41	-8	-7,9
Finlandia	43,8	48,4	-2,6	-2,5
Suedia	42,8	39,8	-0,7	0
Erresuma Batua	69,6	80	-11,4	-10,4

Iturria: Eurostat.

Defizita Alemanian, Irlandan, Luxemburgen, Austrian eta Polonian hazi zen, baina ratioak ez ziren berdinak izan: Alemania (%3,3), Irlanda (%32,4), Luxemburg (%1,7), Austria (%4,6) eta Polonia (%7,9). Bestalde, Danimarkak 2009ko maila berean eutsi zion (%2,7).

1.4. Espainiako ekonomia

EINren Hiruhileko Kontabilitate Nazionaleko (CNTR) datuen arabera, Espainiako ekonomiak 2010eko laugarren hiruhilekoan sortutako BPGd-k %0,6ko hazkundearen izan zuen aurreko urteko aldi beraren aldean, aurreko aldirako kalkulaturakoa baino lau hamarren handiagoa. Horrela, urtearen bigarren erdian, ekonomia espainiarrak urte arteko hazkunde arina ageri du. Hori deigarria da, urteko lehenengo zatiko erregistro negatiboak eta nazioarteko joera ikusita. Hiruhileko arteko kopuruetan, BPG % 0,2 hazi da, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago. Horren ondorioz, EINren datuen arabera, 2010. urtea BPGren urteko batez besteko murriztapen errealearekin itxi zen, % 0,1ekoa hain zuzen, eta aurreko urtean izandako hazkunde negatiboa ehuneko 3,6 puntutan murriztu zen (2009. urtean % 3,7 erori zen).

Gastuaren ikuspegitik, estatuko barne eskariaren ekarpena BPGd-ren hazkundearen -1,2 puntukoa izan zen 2010. urtean, eta hori aurreko urtean -6,4 puntukoa izan

bazen ere. Amaierako kontsumo pribatuaren portaera hobea izateak azaltzen du hori (hazkunde tasa % -4,3tik % 1,3ra igaro zen), eta baita kapital finkoan egindako inbertsioak jasandako uzteak txikiagoak ere (bere aldakuntza tasa % -16tik % -7,6ra igaro zen). Bestalde, Administrazio Publikoek amaierako kontsumoan egindako gastua murriztu egin zen (% 3,2tik % -0,7ra).

Kapital eraketa gordinari dagokionez, azpimarratzekoa da ekipamendu-ondasuneko inbertsioaren eskariaren hobekuntza, haren aldakuntza tasa positiboa bihurtu baitzen, 2009 eta 2010 artean -24,8tik %1,8ra igarota.

Bestalde, kanpoko eskariak BPGd-ren hazkundeari egindako ekarpena positiboa izan zen (1,1 puntu). Bai esportazioek, bai inportazioek hazkundearen jasan zuten 2009. eta 2010. urteen artean. Lehenengoek % 10,3ko hazkundearen ageri dute eta bigarrenek % 5,4koa. Aurreko urtean, aldiz, biek behera egin zuten, % 11,6 eta 17,8 hurrenez hurren.

Eskaintzaren aldetik, azpimarratzekoa da industriako adar erantsien hazkunde positiboa (2010ean % 0,9, aurreko urteko % 13,6ren aldean) eta zerbitzuena (% 0,5ekoa aurreko urteko % -1en aldean). Halaber, azpimarratzekoa da lehen sektorearen (% -1,3) eta eraikuntzaren (% -6,3) hazkunde negatiboa. Hala eta guztiz ere, industriaren sektorearen bilakaeraren hiru hileko profilak dezelerazioa ageri du bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, eta laugarrenean jarraitzen du (bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean, % 2,5eko urte arteko aldakuntza tasa errealetik % 1,4kora igarotzen da). Bestalde, eta zerbitzuei dagokienez, merkatu zerbitzuen eta merkatuz kanpoko zerbitzuen arteko portaera ezberdina da. Izan ere, lehenengoaren profila hiruhilekoa den bitartean, hiruhilekotik hiruhilekora haziz eta urtea % 1,3ko hazkundearekin amaituz, bigarrenek hazkundearen mantsotu zuten bigarrenaren eta hirugarrenaren artean, eta dezelerazio horrek jarraitu egiten du laugarrenean.

Jardueraren bilakaera horrekin batera, enplegu maila berriz murriztu zen, baina 2009an baino gutxiago. Horrela, 2009an lanaldi osoko lanpostuen gutzitzea %6,6 murriztu bazen, 2010ean murrizketa %2,4koa izan zen. Soldatapekoen murrizketa ere antzekoa izan zen, % 2,2koa. Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia tasa % 2,1 hazi dela, alegia, % 18,01etik % 20,06ra.

BPGd-ren eta lanaldi osoan okupaturako enpleguaren barietatearen batara hartuta, ondorioztatzen da ekonomiaren lan eragilearen itxurazko produktibitatea %2,3ko erritmoan hazi zela.

EINren datuen arabera, Kontsumo Prezioen Indize Bateratuaren (KPIB) bidezko batez besteko inflazioak (urteko batez bestekoa) %2ko batez besteko jaitsiera izan zuen, aurreko urteko %0,2 jaitsieraren aldean. EB27 osoan, bestalde, prezioak %1,5 hazi ziren, 2008ko abenduan baino 1,1 hamarren gutxiago. Eurogune16an, igoera %1,6koa izan zen, aurreko urtean %0,3koa izan zen bitartean.

Ordainketa-balantzari dagokionez, kanpoko sektoreak egindako ekarpen positiboarekin batera, Espainiako ekonomiaren finantza egoera hobetu du gainontzeko munduaren aldean. Ekonomiaren finantzazio premia (defizita; ekonomiako sektoreek sortutako aurrezkia egindako inbertsioari aurre egiteko nahikoa ez denean sortzen da eta kalkulatzeko Kontu Korronteko Balantzaren saldoak, Kapitalarena eta kanpoko egoiliarren inbertsioak batu behar

II.1.6. Koadroa. Estatuko egoera makroekonomikoa.**Urtetik urterako aldakuntza tasak. Kateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.**

	2009	2010	2009				2010			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Barneko eskaria (*)	-6,4	-1,2	-6,2	-7,5	-6,5	-5,3	-3,0	-0,3	-0,7	-0,6
Etxeen kontsumo pribatua	-4,3	1,3	-5,0	-5,5	-4,2	-2,6	-0,3	2,2	1,5	1,7
Kontsumo publikoa	3,2	-0,7	5,9	4,3	2,7	0,2	-1,1	-0,1	-0,7	-0,9
Kapital finkoaren eratze gordina	-16,0	-7,6	-15,3	-18,0	-16,4	-14,0	-10,5	-6,7	-6,7	-6,1
Ekipamendu ondasunak	-24,8	1,8	-24,2	-31,5	-25,5	-16,9	-4,6	-8,7	2,4	1,2
Eraikuntza	-11,9	-11,1	-12,2	-12,0	-11,7	-11,9	-11,3	-11,3	-11,2	-10,6
Beste produktu batzuk	-16,2	-8,2	-12,1	-16,9	-18,7	-17,2	-15,8	-11,0	-3,0	-1,5
Kanpoko eskaria										
Ondasunak eta zerbitzuak esportatzea	-11,6	10,3	-16,5	-15,8	-11,0	-2,1	9,4	11,9	9,4	10,5
Ondasunak eta zerbitzuak inportatzea	-17,8	5,4	-21,5	-22,2	-17,2	-9,2	2,0	9,6	5,0	5,3
Merkatuko prezioetako BPGd	-3,7	-0,1	-3,5	-4,4	-3,9	-3,0	-1,4	0,0	0,2	0,6
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1,0	-1,3	0,4	0,7	1,6	1,5	-1,2	-2,1	-2,2	0,3
Energia	-6,4	3,0	-5,5	-6,5	-7,3	-6,3	0,1	0,6	4,6	6,6
Industria	-13,6	0,9	-12,7	-15,9	-14,8	-11,0	-2,0	2,5	1,7	1,4
Eraikuntza	-6,2	-6,3	-6,1	-6,3	-7,1	-5,4	-6,4	-6,5	-6,6	-5,8
Zerbitzuak	-1,0	0,5	-0,8	-1,6	-0,9	-0,9	-0,6	0,4	0,8	1,1
Merkatuko zerbitzuak	-1,9	0,4	-1,8	-2,6	-1,7	-1,6	-1,0	0,3	0,9	1,3
Merkatuaz kanpoko zerbitzuak	2,1	0,8	2,5	2,2	2,0	1,6	0,8	0,9	0,7	0,7
Produktuen gainerako zerga garbiak	-6,0	0,6	-5,7	-6,8	-6,5	-4,8	-1,0	1,7	0,8	1,0
Lan-merkatua										
Lanaldi osoaren pareko lanpostuak										
Landunak	-6,6	-2,4	-6,2	-7,1	-7,2	-6,0	-3,9	-2,4	-1,6	-1,4
Soldatapekoak	-6,6	-2,2	-6,1	-7,2	-7,3	-5,6	-3,9	-2,3	-1,3	-1,3
Langabezia tasa (BAI)	18,01	20,06								
Langile bakoitzeko produktibitatea	3,1	2,3	2,9	2,8	3,6	3,1	2,7	2,5	1,9	2,0

(*) Merkaturko prezioetako BPGd-ri egindako ekarpena.

Iturria: EIN (Contabilidad Trimestral eta EPA) eta Espainiako Bankua (Síntesis de indicadores, mayo de 2011).

dira) 2009an BPGd-ren %5,1 izatetik 2010ean %3,9 izatera igaro zen, hots, 41.045 milioi euro, aurreko urtean baino ia 12.933 milioi gutxiago.

Espainiako herri administrazioek 98.276 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuten 2010. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2009 eta 2010 artean BPGd-ren %11,1etik %9,2ra igaro zela.

Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek eta tokiko korporazioek, hurrenez hurren, % 5, % 3,4 eta % 0,6ko defizitarekin itxi zituzten euren

II.1.7. Koadroa. Espainiar ekonomiaren ordainketa-balantza (euroak, milioika)

	2008	2009b	2010b
BPG bb	1.088.502	1.053.914	1.062.591
Finantzazio gaitasuna/premia	-100.021	-53.978	-41.045
BPGd ganean (%)	-9,1	-5,1	-3,9
Kontu korrante eta kapital saldoa			
Kontu korrantea	-104.676	-54.481	-47.891
Ondasunak (merkataritza-balantza)	-85.594	-42.175	-47.098
Zerbitzuak (zerbitzuen balantza)	25.791	25.503	27.945
Errentak	-35.483	-29.787	-21.695
Transferentzia korranteak	-9.389	-8.022	-7.043
Kapital kontua	5.475	4.275	6.461
Finantza saldoa	100.222	54.641	43.415
Guztira, Espainiako Bankua izan ezik	70.004	44.177	27.719
Inbertsio zuzena	1.553	-433	-892
Zorroko inbertsioa	-203	45.325	30.411
Beste inbertsio batzuk	75.717	5.145	-9.117
Finantza eratorriak	-7.064	-5.861	
Espainiako Bankua	30.218	10.464	15.696
Erreserbak	-645	-1.563	-814
Aktibo garbiak eurosistemaren aldean	31.713	6.146	9.788
Beste aktibo garbi batzuk	-850	5.882	6.722
Akatsak eta jaulkipenak	-1.021	-4.435	-1.986

b-b: behin-behinekoa Iturria: Espainiako Bankua. "Indicadores Económicos".

Kontu korranteko balantza (KKB)

- Merkataritzako balantza (ondasunena)
- Zerbitzuen balantza (turismoa eta beste batzuk)
- Errenten balantza
- Transferentzia korranteen balantza

Kapitalaren balantza (Kapital b.)

- Kapital transferentziak (EGEF, Kohesio Funtsa...)
- Finantzaz kanpoko aktibo ez produktiboen eskuratzea eta besterentzea (lurra, lur baliabideak, aktibo ukiezinak, egile eskubideak...)
- Errenten balantza
Kanpoko aurrezki eskaera = Finantzazio ahalmena (premia)
KKB + Kapitalaren balantza + Kanpoko egoiliarren inbertsioak.

kontuak. Bestalde, Gizarte Segurantzaren BPGd-ren % 0,8ko superabita edukizetik (2009an), % 0,2ko defizita izatera igaro zen (2010ean).

Kutxari dagokionez, 2010ean Estatuak 52.954 milioi euroko defizita izan zuen, 2009ko 98.568koa baino %46,3 txikiagoa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren egoera ekonomikoari buruzko "Síntesis de Indicadores Económicos, febrero 2011" txosteneko datuen arabera, emaitza horren arrazoiak honakoa izan da: diru-sarrerak %24,8 hazi ziren bitartean, ordainketak %5,1 murriztu ziren, aurrekontuan sartutako gastua gutxitzeko neurrien eta neurri berezien ondorioz, biak 2009an hartuak.

Sarreraren barruan, zerga nagusien bilketa, autonomia erkidegoen eta toki korporazioen partaidetza barne, %10,9 areagotu zen 2010ean. Igoera horren jatorria zeharkako zergen hazkundean egon zen (%29,1; bertan, BEZ %46,2 hazi zen eta zerga bereziak %2,4), zuzenekoak %0,7 murriztu baitziren (PFEZ %4,9 hazi eta Sozietateen gainekoa %19,8 jaitsi zen).

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren egoera ekonomikoari buruzko "Síntesis de Indicadores Económicos, febrero 2011" txosteneko datuen arabera, PFEZren igoeraren

jatorria 400 euroko kenkaria zati batean kentzean eta kapital errenten gaineko atxikipen tipoak igotzean dago. Alderantziz jokatu zuten lansari publikoen jaitsierak (atxikipen txikiagoak) eta enpleguari eutsi edo sortzeagatik zerga tipoaren murrizketak.

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak %2,1 murriztu ziren. Murrizketarik nabarmenena inbertsioen atalari dagokiona da (%-24), eta haren atzean daude ondasun eta zerbitzuen erosketak (%-10,3).

1.5. Autonomia erkidegoak

ElNren Eskualdeen Kontabilitatearen datu ofizialen arabera, Estatuan BPGd erreala batez beste %-0,1 hazi da 2010ean. Zazpi autonomia erkidegok hazkunde positiboa izan zuten: Asturias (% 0,3), Kantabria (% 0,2), Gaztela eta Leon (% 0,8), Katalunia (% 0,1), Galizia (% 0,1), Nafarroa (% 1,2, hazkunde handiena ageri duen autonomia erkidegoa) eta EAE (% 0,8). Hiruk zero hazkunde edukitu zuten: Extremadurak, Madrilak eta Ceutak. Gainerakoek, aldiz, hazkunde negatiboa edukitu zuten.

Autonomia Erkidego guztiak hazi ziren EBko batez bestekoaren azpitik (%1,8). Emaitzarik onenak honako

II.1.8. Koadroa. Saldo publikoa agenteen arabera* (milioi euro)

	Milioi €				BPGd %			
	2007	2008	2009 b-b	2010 a	2007	2008	2009 b-b	2010 a
Herri Administrazioak Finantzazio gaitasuna (+) / premia (-)	20.057	-45.162	-117.268	-98.276	1,9	-4,2	-11,1	-9,2
Administrazio zentralak	25.633	-22.233	-90.239	-55.542	2,4	-2	-8,6	-5,2
Administrazio zentrala (Estatua eta Autonomia Erkidegoak)	11.874	-30.605	-98.568	-52.954	1,1	-2,8	-9,4	-5,0
Gizarte Segurantzaren	13.759	8.372	8.329	-2.588	1,3	0,8	0,8	-0,2
Lurraldeko erakundeak	-5.576	-22.929	-27.029	-42.734	-0,5	-2,1	-2,6	-4
Autonomia Erkidegoak	-2.343	-17.588	-20.903	-35.885	-0,2	-1,6	-2,0	-3,4
Tokiko korporazioak	-3.233	-5.341	-6.126	-6.849	-0,3	-0,5	-0,6	-0,6

b-b: behin-behinekoa, a: aurrerapena (*) Finantzazio gaitasuna/premia Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera.
Iturria: Espainiako Bankua.

II.1.9. Koadroa. Estatuaren zerga bilketa (Erkidego Autonomoek eta tokiko korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateak	Beste batzuk	Guztira	BEZ	Bereziak	Beste batzuk	Estatua	AE eta TK	Guztira
2008	102.024	71.341	27.301	3.382	70.671	48.015	19.570	3.086	113.325	59.370	172.695
2009	87.521	63.857	20.188	3.476	55.662	33.573	19.349	2.739	82.761	60.422	143.183
2010	86.913	66.977	16.198	3.738	71.886	49.079	19.806	3.001	111.087	47.712	158.799
08-09 aldakuntza	-14,2	-10,5	-26,1	2,8	-21,2	-30,1	-1,1	-11,2	-27,0	1,8	-17,1
09-10 aldakuntza	-0,7	4,9	-19,8	7,5	29,1	46,2	2,4	9,6	34,2	-21,0	10,9

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Síntesis de Indicadores Económicos.

II.1.10. Koadroa. Aurrekontua egitaritzea: Estatuak onartutako obligazioak (euroak, milioika)

	Langileak	Ondasun eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Transferentzia korranteak	Kapital transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2008	25.384,7	4.553,9	15.929,0	84.217,7	18.164,2	10.675,7	158.925,1
2009	26.666,9	4.965,0	17.651,7	107.511,9	11.840,0	10.624,8	179.260,3
2010	26.991,4	4.451,9	19.641,1	102.697,4	13.662,7	8.069,7	175.514,2
09-10 aldakuntza	1,2	-10,3	11,3	-4,5	15,4	-24,0	-2,1

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa. Síntesis de Indicadores Económicos.

erkidegoek izan zituzten: Nafarroak, EAEk, Gaztela eta Leonek eta Asturiasek; txarrenak, aldiz: Andaluziak, Gaztela-Mantxak eta Kanariar Uharteak.

Per capita BPG nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 31.314 euroko BPGrekin, batez bestekoa baino % 35,8 gehiago. Haren atzetik datoz Nafarroa, 29.982 euroko per capita BPGrekin, Madril (29.963 euro per capita), Katalunia (27.053 euro biztanleko), Errioxa (25.020), Aragoi (24.886), Balear Uharteak (24.672) eta Kantabria (23.464). Haiek guztiak estatuko batez bestekoaren gainetik daude, 23.063 eurokoa baita.

Azpimarratu behar da, EINren datuen arabera, biztanleko BPGd-ri dagokionez Estatuko batez bestekoaren gainetik dauden zortzi erkidegoetatik zazpi (EAE, Nafarroa, Madril, Katalunia, Errioxa, Aragoi eta Balear Uharteak) 27EBko

batez bestekoaren gainetik ere badaudela, 24.468 eurokoa izan baitzen.

Lan-merkatuari dagokionez, Estatu osorako langabezia tasa %201ekoa izan zen 2010ean. Tasarik txikienak dauzkaten autonomia erkidegoak EAE (%10,6), Nafarroa (%11), Kantabria (%13,9), Galizia (%12,6), Errioxa (%14,3) eta Aragoi (%14) dira. Estatuko batez bestekoaren gainetik Andaluzia (%28), Balear Uharteak (%20,4), Kanariar Uharteak (%28,7), Gaztela-Mantxa (%21), Valentziako Erkidegoa (%23,3), Extremadura (%23), Murtzia (%23,4), Ceuta (%24,1) eta Melilla (%23,8) daude.

Enpleguari dagokionez, 2010ean galerarik handienak Ceutan (%-6,8), Galizian (%-4,4), Valentziako Erkidegoan (%-4,3), Aragoi (%-4,1), Asturiasen eta Kantabrian (%-3,8) eta Errioxan (%-3,4) gertatu ziren.

II.1.11. Koadroa. Autonomia Erkidegoetako BPGd, enplegu eta langabezia tasen hazkundea

	Enpleguaren bilakaera		Langabetu kopuruaren bilak.		Langabezia-tasa		BPGd bolumenaren bilakaera		per capita BPGd		
	2008-09	2009-10	2008-09	2009-10	2008-09	2009-10	2008-09	2009-10	2009 a	2010 z	
									Estatua = 100	Estatua = 100	€ per capita
Guztira	-6,8	-2,3	60,2	11,6	18,0	20,1	-3,7	-0,1	100	100	23.063
Andaluzia	-7,2	-2,2	45,2	11,9	25,4	28,0	-3,6	-0,9	76,3	75,5	17.405
Aragoi	-6,1	-4,1	79,2	13,0	12,8	14,8	-4,5	-0,5	107,5	107,9	24.886
Asturias	-7,0	-3,8	56,1	18,0	13,4	16,0	-4,1	0,3	93,8	94,9	21.882
Balear U.	-6,1	-1,8	82,0	14,4	18,0	20,4	-3,9	-0,3	107,1	107,0	24.672
Kanariar U.	-7,7	-2,9	55,8	10,1	26,2	28,7	-4,2	-0,8	86,3	85,6	19.746
Kantabria	-5,0	-3,8	67,7	13,9	12,0	13,9	-3,5	0,2	100,7	101,7	23.464
Gaztela eta Leon	-4,7	-1,9	45,0	14,9	13,8	15,8	-3,3	0,8	97,9	99,6	22.974
Gaztela-Mantxa	-5,8	-2,2	66,5	12,2	18,8	21,0	-3,2	-0,9	76,6	76,4	17.621
Katalunia	-8,7	-1,6	78,9	9,4	16,3	17,8	-4,2	0,1	117,1	117,3	27.053
Valentziako Erkidegoa	-9,2	-4,3	77,4	7,8	21,2	23,3	-4,4	-0,6	88,4	88,7	20.465
Extremadura	-5,5	-1,5	36,2	14,1	20,6	23,0	-2,2	0,0	72,3	73,0	16.828
Galizia	-4,1	-4,4	44,6	20,7	12,6	15,4	-3,1	0,1	87,4	88,2	20.343
Madril	-4,8	-1,5	63,4	15,6	14,0	16,1	-3,3	0,0	131,4	129,9	29.963
Murtzia	-8,3	-1,6	65,7	14,7	20,7	23,4	-3,4	-0,6	81,6	80,9	18.654
Nafarroa	-4,7	-1,5	62,0	8,3	10,9	11,9	-2,5	1,2	128,5	130,0	29.982
EAE	-6,4	0,7	68,5	-4,2	11,0	10,6	-3,7	0,8	133,7	135,8	31.314
Errioxa	-5,0	-3,4	64,5	9,8	12,8	14,3	-3,5	-0,3	108,1	108,5	25.020
Ceuta	1,9	-6,8	14,8	25,8	18,9	24,1	-1,7	0,0	97,9	95,2	21.960
Melilla	-3,2	3,3	17,2	1,5	24,2	23,8	-1,3	-0,1	93,4	90,3	20.832

a: aurrerapena, z: zenbatespena. Iturria: EIN Eskualdeko kontabilitatea.

2. EAE-ko egoera ekonomikoa

2.1. Bilakaera orokorra

Euskal ekonomiak, jarduera ekonomikoari dagokionez, aurreko urteetan baino hazkunde tasa askoz txikiagoa izanda itxi zuen 2008. urtea. Izan ere, EUSTATen arabera, EAEren hiruhileko hazkunde profilak dezelerazioa izan zuen urte horretan, lehenengo hiruhilekoko %2,4tik laugarreneko %−0,3ra. 2009an, produkzio jaitsieran areagotu egin ziren, eta hirugarren hiruhilekoan BPGd-ren %4,5eko murrizketa egon zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Une horrez gero jaitsierak ez ziren hain handiak izan eta 2010eko bigarren hiruhilekoaz geroztik aldakuntza positiboak hasi ziren; horrela, 2010eko laugarren hiruhilekoa urtetik urterako %0,8ko hazkundearekin amaitu zen.

Horrela, EUSTATen 2011ko otsaileko Hiruhileko Kontu Ekonomikoen datuen arabera, EAEko ekonomiak urte arteko hazkundeak jasan zuen 2010. urtean, kopuru errealean, hain zuzen ere % 0,3koa. Aurreko urtean % 3,8ko hazkundeak izan zen. Horrez gain, BPGd, kopuru korranteetan, 65.847,3 milioi eurora iritsi zen.

Hiruhilekoen arteko tasen azterketaren arabera, 2009 eta 2010ean, BPGd aldakuntza erreal positiboak izaten hasi zen, aurreko hiruhilekoaren aldean, 2009ko laugarren hiruhilekoan.

Ekonomia espainiarraren BPGd-k, bestalde, %0,1eko urteko aldakuntza tasa eduki zuen kopuru errealean, aurreko urtean %3,7ko murrizketa erregistratu zen bitartean.

27EBn, 15EBn eta eurogune 17an¹ ekoizpena %1,8 hazi ze; eta 25EBn %1,9.

Eskariaren aldetik, 2009 eta 2010 artean, gure erkidegoan %0,7 jaitsi da, aurreko urtean egondako %5,7ko jaitsieraren aldean. Hobekuntza hor, nagusiki, kanpoko sektorearen portaerak azaltzen du. Bertan, esportazioak % 8,5 hazi ziren eta inportazioak % 6,5. Horrek eragina du kanpoko eskariak BPGd-ren hazkundearen ekarpena egitean, % 0,9koa hain zuzen, eta barne eskariaren % 0,7ko ekarpen negatiboarekin orekatzen da.


Etxeetako kontsumoko gastuaren hazkundeak (%0,8) herri administrazioen gastuaren bilakaera positiboarekin (%1,3) eta inbertsioaren bilakaera oso negatiboarekin (%−6) batera, barneko eskariaren bilakaera negatiboa ekarri du.

2004-2010 sailean, herri administrazioen gastuak ez zuen urte bakar bat ere itxi urterik urterako aldakuntza tasa negatiboa izanda. Izan ere, 2008an, 2007aren aldean, %9,4ko hazkundeak izan zuen. Eta 2009an eskarian urtetik urterako aldakuntzan saldo positiboa izan zuen osagai bakarra izan zen, 2008aren aldean %47 murriztu arren.

Estatuan, EInen datuen arabera, eskari nazionalaren ekarpena BPGd-ren hazkundeari −1,2 puntukoa izan zen. Bestalde, kanpoko eskariak 1,1 puntuan lagundu zuen hazkunde agregatuan.


Eskaintzaren aldetik, 2009 eta 2010 artean, EAEan, hazi egin dira industriaren sektorea (% 0,4) eta zerbitzuena (% 0,8), eta murriztu, aldiz, lehen sektorea (% −2,8) eta

II.2.1. Grafikoa. EAEko BPGd.
Aldakuntza tasak bolumen kateatuan



Iturria: EUSTAT. CET.

II.2.2. Grafikoa. Kanpo eta barne eskariak
BPGd-ren hazkundeari egindako ekarpena



Iturria: EUSTAT. CET (a: aurrerapena)).

¹ Egun, Alemania, Austria, Belgika, Txipre, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Luxemburg, Malta, Herbehereak eta Portugal. Gogoratu behar dugu hasieran 11 kide baino ez zirela. 2001ean Grezia batu zen; 2007an Eslovenia; 2008an Txipre eta Malta eta 2009an Eslovakia. Estonia eurogunean sartu den azken herria izan da, 2011n.

II.2.1. Koadroa. EAE-KO Testuinguru makroekonomikoaren bilakaera (Urtetik urterako aldakuntza tasa)

	2004	2005	2006	2007	2008	2009 (a)	2010 (a)	I	II	III	IV
BPGd erreala merkatuko prezioetan	3,7	4,0	4,4	4,2	1,3	-3,8	0,3	-0,8	0,5	0,6	0,8
ESKARIA											
Barne Eskaria (hazkundera)	5,2	4,4	4,4	4,3	0,7	-5,7	-0,7	-2,6	-0,5	0,1	0,1
Barne eskariaren ekarpena (1)	5,4	4,6	4,6	4,5	0,7	-6,0	-0,7	—	—	—	—
Gastua azken kontsumoan	4,4	3,8	3,8	4,1	1,9	-2,1	0,9	-0,3	1,5	1,4	1,1
Kontsumo pribatua	4,6	4,1	3,7	3,6	0,6	-3,7	0,8	-0,6	1,4	1,2	1,2
Kontsumo publikoa	3,7	2,7	4,3	6,4	7,0	3,7	1,3	0,5	1,8	2,1	1,0
Kapitalaren Eraketa Osoa	7,5	6,1	5,9	4,6	-2,2	-15,4	-6,0	-9,8	-6,8	-4,0	-3,2
Kapitalaren Eraketa osoa	6,6	6,3	5,8	5,9	-3,2	-14,6	—	—	—	—	—
Izakinen aldakuntza	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Aurreko saldoaren ekarpena (1)	-1,9	-0,7	-0,3	-0,3	0,6	2,0	0,9	—	—	—	—
Ondasunak eta zerbitz. esportatzea	4,8	5,1	6,2	5,4	0,0	-18,4	8,5	1,1	11,1	9,1	12,8
Estatua	6,1	6,6	3,4	0,1	-3,4	-17,3	—	—	—	—	—
Atzerria	3,4	3,3	9,5	11,4	3,4	-19,4	—	—	—	—	—
Ondasunak eta zerbitz. inportatzea	7,3	5,8	6,1	5,4	-0,8	-20,1	6,5	-2,4	8,9	8,2	12,2
Estatua	4,8	5,5	2,0	5,3	-0,4	-14,7	—	—	—	—	—
Atzerria	12,0	6,3	12,8	5,6	-1,2	-27,6	—	—	—	—	—
ESKAINTZA											
Lehen mailakoa	31,3	-13,8	-4,4	0,0	-6,1	3,6	-2,8	-26,6	-4,2	18,3	8,2
Industria	2,9	4,9	4,2	3,1	-0,6	-12,7	0,4	-2,3	0,9	1,6	1,6
Eraikuntza	4,4	4,7	4,2	11,3	-5,8	-3,6	-5,9	-5,4	-5,5	-6,6	-6,2
Zerbitzuak	3,3	3,5	4,5	4,1	3,3	-0,2	0,8	0,5	0,9	0,7	1,1
Merkatuko zerb.	3,5	3,5	4,8	3,9	2,5	-1,0	0,8	0,6	1,0	0,8	0,9
Merkatukoaz kanpoko zerb.	2,0	3,4	3,3	4,8	6,9	3,4	0,8	0,2	0,8	0,4	2,0
Oinarritzko prezioei erantsitako balio osoa	3,6	3,8	4,3	4,4	1,2	-4,0	0,1	-0,9	0,3	0,4	0,6
Zerga garbiak produktuen gainean	4,5	5,0	4,8	2,8	2,3	-2,0	2,1	-0,1	2,2	3,6	2,7
BPGd nominala merkatuko prezioetan	8,3	7,5	7,8	7,6	2,3	-4,9	2,0	0,0	2,2	2,6	3,1
BPGd-ren deflaktorea	4,4	3,4	3,3	3,2	1,0	-1,2	1,7	—	—	—	—
Enplegu guztia HKEren arabera	2,8	2,2	2,2	2,8	0,3	-3,4	-0,8	-1,8	-0,6	-0,2	-0,5
Lanaren itxurazko produktibitatea (2)	0,9	1,7	2,1	1,3	0,9	-0,4	1,1	—	—	—	—
Langabezia tasa PRaren arabera	7,8	5,7	4,1	3,3	3,8	8,1	9,2	8,9	9,1	8,8	10,0
KPI (urteko batez bestekoen aldakuntza). 2006ko oinarria	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3	1,7	—	—	—	—

a: aurrerapena. (1) BPGd-ren hazkundera egindako ekarpeneko ehuneko puntuak. (2) ez dago arduraldi osoko enpleguari buruzko informaziorik. Iturria: Cuentas Económicas (2010eko irailaren 13a) eta Cuentas Económicas Trimestrales (2011ko otsaila), PRA eta EIN.

eraikuntzarena (% -5,9, murriztapena zorrozuz aurreko aldiaren aldean: % -3,6).

Orokorrean, BEG % 0,1 hazi da, 2009an erregistratutako % 4ko murriztapenaren aldean.

Enpleguari dagokionez, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, 2009 eta 2010 artean murriztu egin da, baina aurreko urtean baino gutxiago: % -0,8, % -3,4ren aldean.

Bestalde, lanaren ageriko produktibitatea hobetu egin da aurreko urtekoaren aldean; % 1,1eko hazkundera eduki du, aurreko urtean jasandako % 0,4ko murriztapenaren aldean.

Bestalde, inflazioak gora egin zuen. Izan ere, BPGd-ren deflaktorea eta kontsumo prezioen batez besteko urteko hazkundera % 1,7na hazi ziren.

Prezioei eta produktibitateari buruzko azterlan xehatuago baterako, "Prezioak, kostuak eta errentak" kapitulua irakurtzea gomendatzen dugu.

2.2. Barne eskaria

Arestian aipatu dugunez, jarduera ekonomikoaren hobekuntza, nagusiki, kanpoko sektorearen portaeragatik gertatu bada ere, egia da modu berean barne eskaera aurreko urtean baino gutxiago erori dela (% -0,7, aurreko urteko % -5,7ren aldean).

Horrela, barne eskariaren hiruhileko aldakuntzaren profilak, aurreko urteko aldi berberen aldean, pixkanakako leheneratzea izan zuen: urtea lehenengo hiruhilekoan %2,6ko murrizketa izanda hazi eta laugarrenean %0,1eko hazkundera izanda amaitu zuen.

Eskariaren osagaien araberrako bereizketa eginez, etxeetako kontsumoaren gastua hazi egin da 2010eko bigarren hiruhilekoan, hain zuzen ere tasa negatiboekin sei hiruhileko egin eta gero. Gainera, hazkunde horrek hirugarren eta laugarren hiruhilekoan jarraitu du, pixka bat mantsotzen bada ere. Herri administrazioen gastuak, bestalde, ez du azken urteotan hazkunde tasa negatiborik

II.2.2. Koadroa. Barneko eskariaren erantsien bilakaera erreala. Urterik urterako tasak. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak

	Gastua azken kontsumoan (GAK)	Etxeetako GAK	Herri administ. GAK	Inbertsioa	Barne eskaria
2008t1	3,6	2,9	6,4	2,1	3,2
2008t2	2,8	1,9	6,6	0,1	2,1
2008t3	1,6	0,0	8,1	-3,5	0,2
2008t4	-0,5	-2,3	6,9	-7,4	-2,4
2009t1	-1,7	-3,8	6,0	-13,7	-5,0
2009t2	-2,6	-4,4	4,0	-16,2	-6,3
2009t3	-2,8	-4,2	2,6	-17,1	-6,7
2009t4	-1,5	-2,5	2,4	-14,6	-5,0
2010t1	-0,3	-0,6	0,5	-9,8	-2,6
2010t2	1,5	1,4	1,8	-6,8	-0,5
2010t3	1,4	1,2	2,1	-4,0	0,1
2010t4	1,1	1,2	1,0	-3,2	0,1

Iturria: EUSTAT. HKE


agertu. Aitzitik, bere hazkundearen mantsotzea dezente garrantzitsuagoa da kopuru erlatiboetan, etxebizitzaren kasuan ikusitakoaren aldean. Horren ondorioz, Etxeetako GAK-k laugarren hiruhereneko %1,2ko hazkundera izan zuen eta herri administrazioen GAK-k %1eko.

Inbertsioari dagokionez, hazkunde tasa negatiboak erakusten jarraitzen du, baina jarraikako erorketak txikiagoak dira: lehenengo hiruhereneko aldakuntza tasa negatibo batekin hasi zen, % 9,8koa hain zuzen, eta % -3,2koarekin amaitu zen.

EUSTATEk emandako informazioaren arabera, kontsumo pribatuaren egoeraren arabera adierazle nagusiek agerian utzi dute gertatutako hobekuntza txikia. Horrela, kontsumo ondasunei dagokien industria ekoizpen indizearen urtetik urterako aldakuntza tasa %1,7 hazi zen eta kanpoko merkataritzaren indizea, alde horretan, %2,8 hazi zen.

Azalera handietako salmentek, aldiz, okerrera egin dute, %-0,2ko aldakuntza tasatik %-0,5ekora igaro baitira; eta turismoen matrikulazioa %3,1 jaitsi da.

II.2.3. Grafikoa. Kontsumitzailearen Konfiantza Indizearen bilakaera



Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

Inbertsio adierazleei dagokionez, inbertsio ondasunen Industria Ekoizpeneko Indizea %1,5 erori zen(aurreko aldiko % 25,1 jaitsieraren aldean). Zama ibilgailu industriaren matrikulazioa %0,5 hazi zen, aurreko urtean %39,6 jaitsi zen bitartean. Azkenik, ekipamendu ondasunen inportazioaren balioa %11,2 hazi zen; aurreko aldirian, aldiz, %30,7 murriztu zen.

Bestalde, hoteletan igarotako gauak hazi egin dira, eta Memoria hau ixterakoan ez daukagu 2010eko aireko trafikoari buruzko daturik; hala ere, Loiuko aireportuan bidaiarien trafikoak %8,3 hazi da, Memoria honetako "Ekoizpen egitura" kapituluaren aipatu lege.

Egoera horren ildo beretik, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren Kontsumitzailearen Konfiantza Indizeak (KKI) bilakaera positiboa erakutsi zuen 2009ko urteko batez besteko 75,5 puntutatik 2010eko 83,3tara. Horrek erausten du euskal kontsumitzaileen konfiantza hobetu egin dela ezegonkortasuneko testuinguruan; egoera berari antzeman zaio EBN, 2009 eta 2010 artean 77,3ko batez bestekotik 87,5ekora igaro baita, eta Estatuan, 71,5etik 79,3ra.

II.2.3. Koadroa. Barne eskariaren adierazle batzuen bilakaera (Urtetik urterako aldakuntza tasa)

	2007	2008	2009	2010
KONTSUMO PUBLIKOAREN ADIERAZLEAK				
Herri Administrazioen kontsumo gastua (HKEren arabera)	6,4	7,0	3,7	1,3
KONTSUMO PRIBATUAREN ADIERAZLEAK				
Kontsumoko ondasunen IEI	0,3	-7,3	-12,1	1,7
Turismoen matrikulazioa	-0,1	-22,6	1,7	-3,1
Barne Merkataritzaren Salmenten Indizea (p. korr.)	3,1	-4,3	-9,1	2,8
Salmentak azalera handitan (p. korr.)	-0,2	-5,0	-0,2	-0,5
BESTE BATZUK				
Aireko trafikoak	11,3	-5,6	-13,5	—
Hoteletan igarotako gauak	2,6	-4,1	-1,3	12,6
Hoteletan igarotako gauak (EAEko berezkoak kanpo utzita)	2,2	-4,9	-1,4	13,8
INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK				
Inbertsio ondasunen IEI	7,3	-2,3	-25,1	-1,5
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	5,4	-41,2	-39,6	0,5
Ekipamendu Ondasunen inportazio balioa	14,5	-1,1	-30,7	11,2

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintzaren Zuzendaritza.

II.2.4. Koadroa. Kontsumitzaileak EAE-n duen konfiantzaren itxaropen indizea: batzarkideak

		KKI	Etxebizitzako egoera ekonomikoaren itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Egoera ekonomiko orokorraren itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Aurrezpen itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)	Langabezia itxaropenak (datozen 12 hilabeteetan)
2007	I	99	99	92	107	98
	II	101	95	89	114	107
	III	96	97	89	115	84
	IV	88	86	76	95	93
	Batez bestekoa	96	94	87	108	96
2008	I	92	93	81	109	83
	II	80	90	77	92	59
	III	75	86	65	93	57
	IV	71	79	48	106	50
	Batez bestekoa	80	87	68	100	62
2009	I	70	79	54	103	45
	II	67	80	63	86	39
	III	72	86	63	94	43
	IV	93	94	88	108	81
	Batez bestekoa	76	85	67	98	52
2010	I	81	89	74	99	60
	II	82	89	75	89	74
	III	81	93	83	85	63
	IV	89	95	83	107	72
	Batez bestekoa	83	92	79	95	67

Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

2010eko laugarren hiruhilekoari dagokionez, euskal kontsumitzaileen konfiantza 89 puntukoa da; horrek hobekuntza dakar aurreko hiruhilekoaren aldea eta azken bost hiruhilekoetako leheneratze prozesua sendotzen du. Balio horrek esan nahi du, egoera orokorra hobetuko duela uste duten euskal kontsumitzaileen %47ren aurrean, %53k uste dutela hurrengo hiletan oraindik neurriren batean okertuko dela.

Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren leheneratzearen euskarriak aurrezki eta langabezia itxaropenen hobekuntza eta ekonomia orokorrari eta etxekoari buruzko itxaropenen egonkortasuna dira. Adierazle horien azpian ageri da inkestaturen %22ren ustez euren etxearen egoera okertu egingo dela (%40 ziren 2009ko bigarren hiruhilekoan); %44ren ustez egoera ekonomiko orokorra okertu egingo dela oraindik (%62 ziren sei hiruhileko lehenago); %53ren ustez langabezia handitu egingo dela (%82 ziren aipatu erreferentzian); eta %57k aurrezteko espero dutela (%45 ziren lehenago).

Halaber, kontsumitzaileen eskari itxaropenen indizeak erakutsi zuen %37k etxerako ondasunen erosketak murriztuko zituztela; ehuneko hori 15 puntu dago krisiaren aurreko batez bestekoaren gainetik.

Aurrezkiari dagokionez, hurrengo hamabi hiletarako itxaropenek azken hiru urteetako baliorik onenetako bat islatu arren, aurreko hamabi hiletan egindako aurrezkiaren bilakaerak ahultasun zantzuak erakutsi ditu: kontsumitzaileen %8,9k nahikoa aurreztu dutela dioten bitartean, aurreztu ez dutenak duela hiru urte eta erdi %30 izatetik egun %40 izatera igaro dira.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioaren Kontsumitzailearen Konfiantza Indizearen arabera, informazio guztia ikusita, ez du ematen familien kontsumoak zantzu positibo argirik erakutsiko duenik


hurrengo hiruhilekoetan; aitzitik, seguruenik geldialdi txikia izango du: bai kontsumitzaileen itxaropenek bai sektoreko adierazleek eta neurri ekonomikoek norabide horretarantz begiratzen dutela ematen du. Era berean, ez du ematen euskal kontsumitzaileen aurrezkia asko handituko denik. Itxaropenak baikorrak izan arren, familien errenta eskuragarriaren murrizketak eta lan-merkatuaren bilakaerak, familien aurrezki gordinaren adierazlearen inflexioak, eta aurreko hamabi hiletako aurrezki adierazlearen agorpen zantzuak kontrako norabidean apuntatzen dute.

2.3. Kanpoko eskaria

EUSTATEk 2011ko otsailean argitaratutako Hiruhileko Kontu Ekonomikoetako behin-behineko datuen arabera —Estatuari eta munduko gainerako tokiei egindako ondasun eta zerbitzu salmentei buruzkoak—, esportazioa urteko batez besteko %8,5 handitu zen kopuru errealean (aurreko aldian %18,4 txikitu zen bitartean). Halaber, inportazioa %6,5 hazi zen (aurreko aldiko %20,1eko jaitsieraren aldean). Bi aldagaiek antzeko hiruhileko bilakaera profila ageri dute. Esportazioak lehenengo hiruhilekoan %1,1 hazten hasi ziren, bigarrenean %11,1 arte iritsi ziren, hirugarrenean hazkundea moteldu zuten (%+9,1) eta berriz hobetu ziren laugarrenean (%+12,8). Bestalde, inportazioak lehen hiruhilekoan %2,4ko beherakadarekin hazi ziren, bigarrenean %+8,9ra iritsi arte hobetu ziren, eta ondoren, hazkundea murriztuz joan ziren %8,2 arte. Laugarren hiruhilekoa % 12,2ko hazkundearekin amaitzen zen.

Euskal ekonomiaren irekiera maila (Estatuarekiko eta atzerriarekiko harremanak) hazi egiten zen %113tik 121,2ra igarotzean. Ondasunen eta zerbitzuen esportazioaren

II.2.4. Grafikoa. EAEko kanpoko sektorearen bilakaera (bolumen indizearen urtetik urterako aldakuntza tasa. Datu zuzenduak)



Iturria: EUSTAT. CET.

estaldura inportazioarekin ere ehuneko 2,6 puntu hazi zen, %90,9tik 93,5era igaroz.

Atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzaren datuek, Aduanetako Erregistroetan oinarrituta Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak eskainitakoak, adierazi egiten dute esportazioen balio korronea txikitu egin zela % 17,4an 2010. urtean. Energiakoek izandako hazkundera % 18,9koa izan zen, eta energiakoak ez direnena (guztien % 91,3) % 17,3koa. Bestalde, inportazio osoek gorantz egin zuten % 24,1. Bertan, energia inportazioen balioak, guztiaren % 34,8, hazi egin ziren % 24,7, eta energiakoak ez diren kasuan % 23,8koa izan zen hazkundera.

II.2.5. Koadroa. Kanpo merkataritzaren bilakaera (urteko aldakuntza tasak, euroetan)

	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	Energiakoak	Energiakoak ez direnak	Guztira	Energiakoak	Energiakoak ez direnak
2005	5,8	12,2	5,4	15,6	52,1	4,4
2006	16,4	51,4	14,1	20,2	32,9	14,6
2007	14,6	12,5	14,7	8,2	-3,2	14,1
2008	6,3	22,6	4,9	6,4	22,9	-0,8
2009	-26,3	-30,5	-25,9	-38,9	-40,1	-38,2
2010	17,4	18,9	17,3	24,1	24,7	23,8

Iturria: EUSTAT.

Datu hauek oinarri hartuta, euskal ekonomiaren irekiera maila (atzerriarekiko harremanak) %42,2tik 49,8ra igaro zen, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioak inportazioarekin duen estaldura maila %121,6tik % 115era igaro zen.

EAEko energiakoak ez diren esportazioak muga-zergen taldeen arabera aztertuz gero, ikus daiteke berriro ere nabarmen ageri direla, lehenik eta behin, ekipamendu ondasunak, hain zuzen ere esportatu den guztiaren %42,6 (makinen eta gailuen artean banatuta 3.404,2 milioi euro, eta garraio materiala 4.070,5 milioi euro). Haren esportazioa %11,6 hazi zen, batez ere garraio materialaren esportazioagatik (%+20,5), baina makina eta gailuena ere hazi egin zen (%+2,5). Bigarrenik, metal komunak eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren %26,9ekin. Haren esportazioa %29,3 hazi zen. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa da azpimarragarria, hain zuzen ere kopuru osoaren %7,8. Haren aldakuntza tasa %20,7ren inguruan kokatu zen.

Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, azpimarratzekoak dira metalak eta haien manufakturak. Horiek inportazio

II.2.6. Koadroa. EAE-k atzerriarekin duen ondasun eta zerbitzuen kanpo merkataritza (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen arabera sailkapena)

Muga-zergako taldeak	Esportazioak					Inportazioak					Saldoa		
	2008	2009	2010 b-b		09-10 aldak.	2008	2009	2010 b-b		09-10 aldak.	2008	2009	2010 b-b
	milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak
Guztira	20.279,4	14.945,4	17.545,9	100,0	17,4	20.118,0	12.294,5	15.257,2	100,0	24,1	161,4	2.650,9	2.288,7
Energiakoak (Energiako produktu eta mineralak)	1.840,4	1.278,8	1.520,2	8,7	18,9	7108,1	4256,7	5.310,0	34,8	24,7	-5.267,7	-2.977,9	-3.789,8
Energ. ez direnak	18.439,0	13.666,6	16.025,7	91,3	17,3	13009,9	8037,7	9.947,2	65,2	23,8	5.429,1	5.628,9	6.078,5
Nekaz. produktuak	652,1	561,5	580,7	3,3	3,4	912,7	821,3	857,4	5,6	4,4	-260,6	-259,8	-276,7
Produktu kimikoak	409,4	316,3	425,1	2,4	34,4	617,2	419,7	545,8	3,6	30,1	-207,8	-103,4	-120,7
Plast. eta kautxua	1.376,0	1.140,0	1.376,3	7,8	20,7	850,8	614,1	821,5	5,4	33,8	525,2	525,9	554,8
Papera	486,9	418,4	473,9	2,7	13,3	386,4	276,3	361,3	2,4	30,8	100,5	142,1	112,5
Metal komunak eta haien manufakturak	5.972,0	3.646,5	4.713,9	26,9	29,3	5.101,7	2.395,2	3.407,9	22,3	42,3	870,3	1.251,3	1.306,1
Ekip. ondasunak	8.472,0	6.698,0	7.474,7	42,6	11,6	4.076,4	2.657,2	2.954,6	19,4	11,2	4.395,6	4.040,8	4.520,1
Makinak eta gailuak	4.224,6	3.321,3	3.404,2		2,5	2.693,8	2.112,8	2.334,8		10,5	1.530,8	1.208,5	1.069,4
Garraio materiala	4.247,4	3.376,8	4.070,5		20,5	1.382,6	544,4	619,9		13,9	2.864,8	2.832,4	3.450,6
Beste manuf. batzuk	922,2	788,2	857,2	4,9	8,8	1.043,5	834,4	971,7	6,4	16,4	-121,2	-46,3	-114,4
Sailkatu gabe	148,4	97,8	123,9	0,7	26,7	21,4	19,6	27,0	0,2	37,7	127,1	78,2	96,9

b-b: behin-behinekoak. Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

II.2.7. Koadroa. EAE-ko energiako ez diren ondasunen kanpoko merkataritza, eremu geografikoak gorabehera (milioi eurotan) (muga-zergako taldeen arabera sailkapena)

	Esportazioak				Inportazioak				Saldoa		
	2008	2009	2010 b-b	09-10 aldak.	2007	2008	2008 b-b	09-10 aldak.	2008	2009	2010 b-b
Guztira	18.438.993	13.666.589	16.025.696	17,3	13.009.903	8.037.717	9.947.153	23,8	5.429.090	5.628.872	6.078.543
ELGA	14.564.629	10.193.019	11.767.596	15,4	9.591.840	6.235.970	7.488.293	20,1	4.972.789	3.957.049	4.279.303
15-EB	11.907.699	8.019.608	9.494.378	18,4	8.142.750	5.187.551	6.320.222	21,8	3.764.949	2.832.057	3.174.156
Alemania	3.023.531	2.044.385	2.418.050	18,3	2.376.703	1.339.501	1.623.551	21,2	646.828	704.884	794.499
Austria	220.302	137.366	166.301	21,1	200.684	103.174	128.916	25,0	19.618	34.192	37.385
Belgika	802.839	514.609	581.241	12,9	405.221	339.783	340.471	0,2	397.618	174.826	240.770
Frantzia	3.304.206	2.325.475	2.728.872	17,3	1.904.096	1.212.830	1.513.976	24,8	1.400.110	1.112.645	1.214.896
Italia	1.321.490	837.406	1.084.572	29,5	1.203.212	863.977	827.866	-4,2	118.278	-26.571	256.706
Luxemburg	24.385	18.980	18.620	-1,9	30.823	12.243	14.044	14,7	-6.438	6.737	4.576
Portugal	921.601	675.498	794.164	17,6	279.466	196.598	264.713	34,6	642.135	478.900	529.451
Erresuma Batua	1.232.609	784.371	966.494	23,2	641.766	360.339	579.671	60,9	590.843	424.032	386.823
Suedia	215.368	131.756	143.872	9,2	198.700	118.876	196.418	65,2	16.668	12.880	-52.546
EBKB	993.519	690.144	789.774	14,4	412.436	303.838	388.915	28,0	581.083	386.306	400.859
25-EB	12.772.152	8.630.372	10.203.329	18,2	8.502.292	5.451.897	6.643.659	21,9	4.269.860	3.178.475	3.559.670
Polonia	388.552	265.126	293.909	10,9	113.834	77.529	102.604	32,3	274.718	187.597	191.305
Txekiar Errepublika	245.862	189.557	233.334	23,1	77.893	57.077	63.361	11,0	167.969	132.480	169.973
27-EB	12.901.218	8.709.752	10.284.152	18,1	8.555.186	5.491.390	6.709.137	22,2	4.346.032	3.218.362	3.575.015
EBz kanpoko ELGA	1.878.298	1.613.808	1.616.405	0,2	1.157.299	816.936	895.813	9,7	720.999	796.872	720.592
Kanada	73.486	54.342	63.926	17,6	51.923	24.652	36.943	49,9	21.563	29.690	26.983
AEB	700.785	460.816	529.884	15,0	372.795	264.114	284.092	7,6	327.990	196.702	245.792
Japonia	74.421	25.718	37.423	45,5	166.383	115.728	122.293	5,7	-91.962	-90.010	-84.870
Mexiko	259.384	233.367	237.200	1,6	37.920	28.611	31.111	8,7	221.464	204.756	206.089
Turkia	261.425	391.426	356.468	-8,9	90.588	58.770	79.179	34,7	170.837	332.656	277.289
EEMH	163.865	105.111	117.741	12,0	80.372	50.351	75.402	49,8	83.493	54.760	42.339
AED	238.032	455.102	481.865	5,9	355.105	209.590	268.428	28,1	-117.073	245.512	213.437
MERCOSUR	430.798	342.801	495.182	44,5	211.809	83.900	105.957	26,3	218.989	258.901	389.225
Argentina	88.490	81.078	95.456	17,7	52.145	17.470	19.232	10,1	36.345	63.608	76.224
Brasil	333.832	250.566	384.778	53,6	156.354	60.805	84.865	39,6	177.478	189.761	299.913
Txina	401.051	260.423	399.738	53,5	1.113.469	709.209	874.825	23,4	-712.418	-448.786	-475.087
India	187.417	158.975	211.435	33,0	125.462	41.913	66.874	59,6	61.955	117.062	144.561
Errusia	209.616	110.858	165.331	49,1	485.487	178.594	285.924	60,1	-275.871	-67.736	-120.593

b-b: Behin-behineko datuak. EBKB: EBko Kide Berriak. MERCOSUR: Hego Amerikako Merkatu Komuna. EEMH: Europa Erdialdeko eta Ekialdeko Herrialdeak. AED: Asiako Ekonomia Dinamikoak (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Indonesia, Malaysia eta Tailandia). Iturria: Eustat. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

guztien % 22,3 hartzen dute, eta % 42,3 hazi dira. Bigarrenik, ekipo ondasunak inportazio guztien % 19,4 dira, eta % 11,2 areagotu dira, garraio materialean (% 13,9) nahiz makina eta gailuetan (% 10,5) izandako inportazioaren hazkunde dela eta.

Kanpoko saldoa 2.2.89 eurokoa da, BPGd-ren %3,5, alegia.

Energiakoak badiren eta energiakoak ez diren ondasun eta produktuak bereiziz, ondorioztatu egiten da energiaren saldoak defizita duela (-3.789,8 milioi euro). Aldiz, energiakoak ez diren produktuenak superabita erregistratzen du, 6.078,5 milioi euro, BPGd-ren % 9,2 hartuz. Kopuru hori aurreko urtean izandako kopuruaren (% 8,7) gainera ehuneko 5 hamarrenenak ratioa da.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen destinoko eremu geografikoan arabera, ELGAri zuzendutakoak eta eremu horren barruan EB15i zuzendutakoak dira, berriz ere, garrantzitsuenak: kopuru osoaren % 59,3 dira, eta % 18,4ko hazkunde tasa ageri dute. Bereziki azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz, Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak, EAEk EB15erantz egindako esportazioen % 75,8 izanez.

Estatu kide berrietarako esportazioari dagokionez, oraindik pisu nabarmena dute Polonia eta Txekiar Errepublikarakoak.

ELGAren eremuan baina EBtik kanpo, garrantzitsuenak dira AEB, Turkia eta Mexikoko esportazioak, eta azpimarratzekoa da Japoniarakoek izandako hazkundea (%+45,5).

ELGAtik kanpo, bere pisuagatik, Brasil, Txina eta Indiarako esportazioak nabarmendu ziren berriz ere. Era berean, nabarmenak dira Asiako Ekonomia Dinamikoetarako (AED) esportazioak.

Inportazioei dagokionez, haietako gehienak ELGAtik datoz eta, zehazki, 15EBko herrialdeetatik, funtsean, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik, 15EBtik egindako inportazio guztien % 62,7 hartuz. Neurri txikiagoan ageri dira Erresuma Batua eta Belgika.


ELGAren eremuan, baina EBtik kanpo, azpimarragarriak dira AEBtik eta Japoniatik etorritakoak.

Azkenik, EAEko energiakoak ez den kanpoko saldoak hobera egin zuen, 5.628,9 milioi euroko superabit batetik 6.078,5 milioi eurora igaroz 2009 eta 2010 artean.

II.2.8. Koadroa. Kanpoko merkataritzaren bilakaera eae-n, maila teknologikoa gorabehera

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010 b-b
X guztira (milioi €)	13.198	13.935	16.201	18.508	19.691	14.513	17.107
Altuen X % kopuru osoaren gainean	3,3	2,7	2,4	2,7	2,6	2,6	2,5
Ertain eta altuen X % kopuru osoaren gainean	48,0	48,6	45,6	44,1	43,2	43,8	40,9
Ertain eta baxuen X % kopuru osoaren gainean	40,0	40,5	44,4	45,8	46,8	45,2	48,9
Baxuen X % kopuru osoaren gainean	8,7	8,3	7,6	7,4	7,3	8,4	7,6
M guztira (milioi €)	8.788	9.859	11.744	13.701	13.320	8.474	10.230
Altuen M % kopuru osoaren gainean	5,0	4,7	4,6	4,1	5,0	5,9	6,0
Ertain eta altuen M % kopuru osoaren gainean	41,2	38,2	34,7	32,8	33,1	33,6	32,3
Ertain eta baxuen M % kopuru osoaren gainean	38,9	42,8	48,0	51,0	49,6	44,7	47,0
Baxuen M % kopuru osoaren gainean	14,9	14,4	12,8	12,1	12,3	15,8	14,7

b-b: Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT.

II.2.5. Grafikoa. EAEko kanpoko merkataritzaren bilakaera teknologia edukiaren araberab: behin-behineko datuak.
Iturria: EUSTAT.

Bestalde, energiakoak ez diren ondasunen estaldura tasa murriztu egin zen, 2009 eta 2010 artean %170etik %161era igarotan.

Bestalde, bestelako sailkapen mota bati erreparatuz gero, hau da, maila teknologikoaren arabera, ikus daiteke 2009 eta 2010 artean, maila ertaineko eta altuko esportazioek pisua galdu zutela kopuru osoaren gainean, izan ere, %43,8 izatetik %40,9 izatera igaro dira. Bestalde, maila ertain eta baxukoak %45,2tik 48,9ra hazi dira.

Inportazioei dagokienez, egoera antzekoa da: maila teknologiko ertain eta altukoen pisua jaitsi (%33,6tik 32,2ra) eta ertain eta baxukoena igo egin zen (%44,7tik 47ra).


2.4. Atzerriko inbertsioa**2.4.1. Atzerriko inbertsioa EAEn**

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn areagotu egin da 2009 eta 2010 artean, hain zuzen ere %48,9, atzerriko balioak edukitzeko enpresak (ABEE) kenduz gero. Guztira, EAEk 149,9 euro jaso ditu, eta EAEk Estatuko guztizkoaren gainean duen proportzioa 2009ko %0,8tik 2010eko %1,3ra hazi da.

II.2.9. Koadroa. Atzerriko inbertsio gordina* autonomia erkidegoen arabera (euroak, milioika)

	2006	2007	2008	2009	2010
GUZTIRA	9.693,9	29.152,9	29.501,2	12.248,9	11.637,2
EAE	284,1	1.350,6	326,3	100,7	149,9
Andaluzia	257,3	247,3	225,3	314,5	1.140,1
Aragoi	91,4	208,8	99,6	133,7	47,5
Kantabria	4,5	59,4	72,9	12,1	2,9
Gaztela eta Leon	35,8	23,4	46,2	71,8	12,9
Gaztela-Mantxa	261,8	22,2	110,4	178,3	55,4
Katalunia	2.670,4	2.614,1	2.345,6	1.410,0	3.951,9
Madril	4.010,6	22.292,3	23.903,1	8.082,1	4.985,6
Valentzia	162,8	1.741,8	275,0	449,3	125,2
Extremadura	3,9	3,7	4,9	28,6	30,4
Galizia	96,1	51,2	26,5	159,3	47,3
Balear Uharteak	118,7	159,0	538,8	413,6	150,6
Kanariar Uharteak	19,0	127,9	20,8	76,7	110,5
Errioxa	0,5	2,8	0,4	3,6	36,4
Nafarroa	136,4	10,8	23,1	27,8	109,4
Asturias	32,6	8,2	7,0	6,3	10,5
Murtzia	113,3	42,4	189,8	11,7	20,5
Ceuta eta Melilla	8,9	2,6	0,6	0,7	0,0
Esleipenik gabe	1.385,6	184,5	1.284,9	768,1	650,1

*ABEE kenduta. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

II.2.6. Grafikoa. Atzerriko inbertsio gordina* EAEn

* ABEE kenduta.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa.

Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa kenduz gero, portzentajea %2,3 arte igotzen du, 209 eta 2010 artean %2,4tik aipatu %2,3 jaitsi arren.

Horrela, 2010ean EAE bosgarren tokian zegoen, honakoen atzean: Madril 4.985,6 milioi euro jaso zituen ABEE kenduta; Katalunia 3.952 milioi euro jaso zituen; Andaluzia 1.140,1 milioi euro; eta Balear Uharteak 150,6. 2009an, EAE bederatzigarren tokian egon zen inbertsio bolumenari dagokionez, Madril, Katalunia, Valentzia, Balear Uharte, Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Galizia eta Aragoiren ondoren. Argindar, gas, lurrun eta aire hornikuntza sektorean egindako inbertsioak alde batera utzita, EAEko inbertsioen %4,2 jaso eta sektore horretan Estatuan egindakoen %0,5 baita, guztizkoaren gainera duten pisuagatik honakoak azpimarratu behar dira:

- Elikagaiak, edariak eta tabakoa; 2010ean 76 milioi euroko inbertsioa izan zuen (EAEko inbertsioaren %50,7 eta Estatuan sektorean egindakoaren %10,8), arrain kontserben fabrikazio sektorean egindako inbertsioagatik;
- Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa. EAEko inbertsioaren %12,4 da eta Estatuan sektore honetan egindakoaren %2,6;
- Higiezineta agentak (ondasun higiezin salerosketa eta alokairua norberaren kontura). EAEko inbertsioaren %9,8 da eta Estatuan sektorean egindakoaren %0,7.
- Farmazia produktuen fabrikazioa. EAEko inbertsioaren %7,3 jaso zuen eta Estatuan sektore horretan egindakoaren %59,9.
- Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (zehazki, publizitate eta merkatu ikerketen sektorea da). EAEko inbertsioaren %6,1 da eta Estatuan sektorean egindakoaren %0,9.

Lurralde ikuspegitik begiratu gero, inbertsioaren azken titularrak bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatu zen kasuen %90etan, eta %80,4etan 15EBn (guztira 120,5 milioi euro).

15EBko herrialde inbertitzaile nagusiak Portugal (11 milioi), Luxemburg (9,2 milioi euro), Erresuma Batua (7,3 milioi) eta Frantzia (6,5 milioi euro) izan ziren. Espainiar Estatu gainerakoek gure Erkidegoan egindako inbertsioa 80,6 milioi eurokoa izan zen.

2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian

Euskal inbertsioa atzerrian, ABEEak kanpo utzita, hazi egin da 1.377 milioi eurotik 1.911 milioi eurora. Estatu osokoa ere hazi da, 17.595,6 milioi eurotik 25.794,8ra igarota.

Atzerrian egindako inbertsioaren alorrean, EAE bigarren tokian dago autonomia erkidegoen hurrenkeran. Madrilek baino ez du gainditzen, 18.544 milioi izanda.

Gauzak horrela, EAEk atzerrian egindako inbertsioa Estatuaren kopuru osoaren %7,8 izatetik (Madril kenduz

II.2.10. Koadroa. Inbertsio osoa* EAE-n sektorea eta herrialdea gorabehera (mila €tan) (CNAE-09)

	2008	2009	2010 b-b	Estatua 2010 b-b	EAE banaketa	Estatuaren gaineko % (sektorean)	08-09 %	09-10 %
A. Nekaz., Abeltz., Basog. eta Arrantza	21,0	23.331,1	3,4	49.700,8	0,0	0,0	111.000,4	-100,0
B. Erauzketa industriak	0,0	3,1	0,0	72.521,2	0,0	0,0		-100,0
C. Elikagaiak, Edariak eta Tabakoa	0,0	30,0	76.000,0	706.072,5	50,7	10,8		252.896,0
C. Oihalen industria eta janzkien eraketarena	0,0	0,0	0,0	59.680,9	0,0	0,0		
C. Larruaren eta oinetakoen industria	0,0	0,0	0,0	9.735,7	0,0	0,0		
C. Egurra. eta artelazki. indust., altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu.	0,0	0,0	0,0	8.515,3	0,0	0,0		
C. Paper eta arte grafikoen industria	6,0	0,0	0,0	18.193,4	0,0	0,0	-100,0	
C. Kokea lortz. eta petr. fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf	3.190,0	0,0	0,0	161.379,4	0,0	0,0	-100,0	
C. Farmaziako prod. fabrik.	0,0	0,0	11.000,0	18.484,8	7,3	59,5		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	14.640,4	1.739,9	18.649,6	70.088,4	12,4	26,6	-88,1	971,9
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	3.825,0	0,0	178,7	53.138,8	0,1	0,3	-100,0	

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webgunean.


Jarrailu egiten du...

**II.2.10. Koadroa. (jarraipena).
Inbertsio osoa* EAE-n sektorea eta herrialdea gorabehera (mila €tan) (CNAE-09)**

	2008	2009	2010 b-b	Estatua 2010 b-b	EAE banaketa	Estatuaren gaineko % (sektorean)	08-09 %	09-10 %
C. Material eta ekip. elektrik. fabrik.	498,5	0,0	200,0	4.170,8	0,1	4,8	-100,0	
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	6.617,3	6.296,5	269,9	21.108,7	0,2	1,3	-4,8	-95,7
C. Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa	45.223,4	2.627,6	0,0	133.922,9	0,0	0,0	-94,2	-100,0
C. Altzarien fabrik.	0,0	816,4	100,0	9.994,8	0,1	1,0		-87,8
C. Bestelako manufakturak	3,0	96,8	0,0	440.930,9	0,0	0,0	3.125,0	-100,0
C. Makineria instalaz. Konponk.	0,0	0,0	0,0	4.844,2	0,0	0,0		
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	43.380,2	27.362,3	6.285,0	1.382.796,6	4,2	0,5	-36,9	-77,0
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	0,0	0,0	99,3	1.443,9	0,1	6,9		
F. Eraikuntza	1.167,3	165,8	69,7	471.113,0	0,0	0,0	-85,8	-57,9
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	16.830,3	17.090,5	430,1	742.797,5	0,3	0,1	1,5	-97,5
H. Garraioa eta biltegiatzea.	50.087,0	570,0	2.307,8	1.982.661,5	1,5	0,1	-98,9	304,9
I. Ostalaritza	49,6	0,0	0,0	35.697,7	0,0	0,0	-100,0	
J. Informazioa eta Komunikazioak	60.006,8	9.924,5	1.175,0	250.110,4	0,8	0,5	-83,5	-88,2
K. Finantza jarduerak eta aseguru-etakoak	295,3	0,0	4.589,5	1.498.328,9	3,1	0,3	-100,0	
L. Higiezin jarduerak	59.584,1	10.218,7	14.751,7	1.979.554,5	9,8	0,7	-82,9	44,4
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	20.744,9	426,4	9.095,8	973.577,1	6,1	0,9	-97,9	2.033,3
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	89,3	1,5	2.054,8	352.640,0	1,4	0,6	-98,3	134.197,4
O. Administrazio Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	12,0	0,0	0,0		
P. Hezkuntza	0,0	0,0	2.621,3	11.221,3	1,7	23,4		
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzu-etakoak	3,0	0,0	0,0	29.463,0	0,0	0,0	-100,0	
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	49,0	27,9	0,0	23.577,6	0,0	0,0	-43,2	-100,0
S. Bestelako zerbitzuak	1,5	0,0	0,0	59.718,1	0,0	0,0	-100,0	
T. Etxebizitzetako jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	—		
U. Lurraldetik kanpoko erakunde- eta antolamenduen jarduerak	0,0	0,0	0,0	6,0	0,0	0,0		
Inbertsioa guztira	326.312,9	100.728,8	149.881,3	11.637.202,3	100,0	1,3	-69,1	48,8
Inbertsioaren azken titularraren bizitokia dagoen herrialdea	ELGA	282.662,4	96.861,8	134.744,1	11.070.420,2	89,9	-65,7	39,1
	15-EB	276.271,2	75.111,3	120.490,6	9.614.970,5	80,4	-72,8	60,4
	27-EB	276.360,8	75.211,0	120.838,6	9.663.397,0	80,6	-72,8	60,7
	Ipar Amerika	2.806,4	54,7	45,5	880.234,3	0,0	-98,1	-16,8
	Kanada	90,2		3,0	24.528,2	0,0		
	AEB	2.716,2	54,7	42,6	855.706,1	0,0	-98,0	-22,2
	Latinoamerika	4.045,1	6.468,8	26.570,6	196.896,4	17,7	13,5	59,9
	Argentina	7,0	1.647,0		4.198,6	0,0	23.428,7	
	Brasil	507,9	3,0	12.535,0	30.131,1	8,4	-99,4	414.966,2
	Txile	60,1	394,3		7.609,5	0,0	556,0	-100,0
	Mexiko	3.223,7	2.961,0	13.911,0	43.440,3	9,3	-8,2	369,8
	Asia eta Ozeania	42.664,3	4.231,3	204,9	364.294,8	0,1	-90,1	
	Txina				11.590,0	0,0		
	India				2.096,8	0,0		100,0
	Japonia	13,0	4.224,8	200,0	103.349,1	0,1	100,0	-95,3
	Afrika		3,0		12.069,8	0,0		-100,0
	Zerga Paradisuak	88,7	3,4	2.136,4	291.327,7	1,4	-96,2	62.735,6

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webgunean.

II.2.7. Grafikoa. EAEren inbertsio gordina* atzerrian

* ABEE kenduta.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa.

gero %11,9) %7,4 izatera (Madril kenduz gero %26,4) igaro zen 2009 eta 2010 artean.

Sektorearen arabera eta Eraikuntza —EAEko kanpoko inbertsioaren %2,6 eta Estatuak sektore horretan kanpoan egindakoaren %13,9 izan zen—, Energiaren sektorea —EAEko kanpoko inbertsioaren %2,1 eta Estatuak sektore horretan kanpoan egindakoaren %2,7 izan zen—

eta Finantza eta aseguru jarduerak —EAEko kanpoko inbertsioaren %93,4 eta Estatuak sektore horretan kanpoan egindakoaren %13,5 izan zen— alde batera utzita, honakoak nabarmendu ziren:

- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren %0,7 izan zen, eta Estatuak, kanpoan eta sektore horretan egindakoaren %5,4.
- Handizkako eta txikizkako merkataritza eta ibilgailu motordunen eta motorren konponketa. EAEk kanpoan egin zuen inbertsioaren %0,6 hartu zuen eta Estatuak kanpoan eta sektore horretan egindakoaren %1,8.
- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa. EAEren inbertsioaren %0,2 izan zen eta Estatuan kanpoan eta sektore horretan egindakoaren %2,1.
- Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa. EAEko inbertsioaren %0,2 izan zen eta Estatuan sektore horretan egindakoaren %0,9; eta
- Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioa. EAEk kanpoan egindako inbertsioaren %0,1 eta Estatuak kanpoan eta sektore horretan egindakoaren %4,4 izan zen.

Herrialdeka, gure kanpo inbertsioaren helmuga nagusiak honakok dira: Txina, EAEren kanpo inbertsioaren %61,6rekin eta AEB, euskal kanpo inbertsioaren %29,8rekin.

15EBren barruan, helmuga nagusiak honako herriak dira: Herbehereak (29.898 milioi euro), Italia (23.378 milioi euro), Grezia (22.797 milioi euro), Irlanda (19.601 milioi euro) eta Portugal (15.557 milioi euro).

II.2.11. Koadroa. Atzerrian egindako inbertsio gordina* autonomia erkidegoen arabera (euroak, milioika)

	2006	2007	2008	2009	2010 b-b
GUZTIRA	60.670,28	97.491,08	35.533,82	17.595,55	25.794,83
EAE	2.739,06	28.186,10	4.819,42	1.376,69	1.911,26
Andaluzia	476,67	485,95	956,28	329,33	652,75
Aragoi	83,47	157,13	189,44	46,16	148,31
Kantabria	4.574,30	21.215,04	5.210,30	4.572,90	1.460,93
Gaztela eta Leon	70,68	99,43	133,95	194,15	78,48
Gaztela-Mantxa	11,13	159,31	97,67	23,79	1,42
Katalunia	6.300,91	7.205,41	6.291,62	2.174,78	1.263,94
Madril	43.857,07	36.002,72	13.814,83	6.051,29	18.544,20
Valentzia	259,73	1.911,42	1.422,51	1.594,05	1.012,49
Extremadura	10,22	131,12	4,93	0,87	2,85
Galizia	1.238,90	1.548,46	1.369,73	573,32	555,95
Balear Uharteak	410,27	200,58	85,32	36,10	13,61
Kanariar Uharteak	77,20	14,64	65,90	45,28	2,91
Errioxa	68,40	1,35	1,11	0,15	0,00
Nafarroa	206,98	50,33	71,97	34,16	5,32
Asturias	122,55	14,71	865,45	540,99	137,73
Murtzia	162,73	107,38	133,41	1,53	2,68

*ABEE kenduta. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

II.2.12. Koadroa. EAE-ren inbertsio osoa* atzerrian, sektorea eta herrialdearen arabera (euroak, miliaka) (CNAE-09)

	2008	2009	2010 b-b	Estatua 2010 b-b	EAE banaketa	% Estatu. gainean	08-09 %	09-10 %
A. Nekaz., Abeltz., Basog. eta Arrantza	5.828,0	6.847,0	0,0	47.930,7	0,0	0,0	17,5	-100,0
B. Erauzketa industriak	14.946,7	47.828,6	0,0	176.089,3	0,0	0,0	220,0	-100,0
C. Elikagaiak, Edariak eta Tabakoa	0,0	6.213,6	0,0	701.238,1	0,0	0,0		
C. Oihalen industria eta janzkien eraketarena	0,0	0,0	0,0	26.760,3	0,0	0,0		
C. Larruaren eta oinetakoen industria	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Egurr. eta artelazk. ind., altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Paper eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	128.175,9	0,0	0,0		
C. Kokea lortz. eta petrol. fintzeko fabr.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf.	7.273,0	13.049,2	0,0	18.498,2	0,0	0,0	79,4	-100,0
C. Farmaziako prod. fabrik.	0,0	0,0	0,0	8.807,6	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	3.230,4	63.276,5	3.395,0	388.498,5	0,2	0,9	1.858,8	-94,6
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	15,2	0,0	0,0	1.197,2	0,0	0,0	-100,0	
C. Material eta ekipamendu elektr. fabrik.	57.314,7	16.748,3	1.850,3	42.184,6	0,1	4,4	-70,8	-89,0
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	1.458,5	589,8	0,0	7.522,5	0,0	0,0	-59,6	-100,0
C. Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa	457.432,65	70.250,18	4.000	190.909,37	0,2	2,1	-84,6	-94,3
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	3,0	0,0	0,0		
C. Bestelako manufakturak	2.003,1	3.727,3	2.670,7	123.386,4	0,1	2,2	86,1	-28,3
C. Makineria instalaz. Konponk.	132,0	0,0	0,0	355,2	0,0	0,0	-100,0	
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	3.165.840,6	227.106,5	39.273,4	1.438.375,0	2,1	2,7	-92,8	-82,7
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea.	39,5	1,5	0,0	31.061,3	0,0	0,0	-96,3	-100,0
F. Eraikuntza	36.988,2	6.563,5	48.882,2	351.051,1	2,6	13,9	-82,3	644,8
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	268.845,2	25.172,1	10.778,8	599.746,9	0,6	1,8	-90,6	-57,2
H. Garraioa eta biltegiatzea.	562,0	6.214,8	0,0	74.231,0	0,0	0,0	1.005,8	-100,0

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webgunean.

Jarraitu egiten du...

II.2.12 Koadroa. (jarraipena). EAE-ren inbertsio osoa* atzerrian, sektorea eta herrialdearen arabera (euroak, miliaka) (CNAE-09)

		2008	2009	2010 b-b	Estatua 2010 b-b	EAE banaketa	% Estatu. gainean	08-09 %	09-10 %
I. Ostalaritza		0,0	0,0	0,0	24.468,8	0,0	0,0		
J. Informazioa eta Komunikazioak		1.312,2	4.056,7	1.442,9	7.636.769,7	0,1	0,0	209,2	-64,4
K. Finant. jarduerak eta aseguru-etakoak		735.929,9	856.485,1	1.785.739,1	13.221.243,6	93,4	13,5	16,4	108,5
L. Higiezin jarduerak		0,4	0,0	1,2	177.161,1	0,0	0,0	-100,0	
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak		60.264,3	22.424,3	12.883,5	238.916,6	0,7	5,4	-62,8	-42,5
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak		0,0	107,9	340,3	59.112,2	0,0	0,6		215,4
O. Administrazio Publikoa eta defentsa		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza		0,0	0,0	0,0	4.813,7	0,0	0,0		
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzu-etakoak		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak		1,1	29,4	0,0	70.326,1	0,0	0,0	2.676,4	-100,0
S. Bestelako zerbitzuak		0,0	0,0	0,0	6.000,0	0,0	0,0		
T. Etxebizitzeko jarduerak		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakunde- eta antolamenduen jarduerak		0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa guztira		4.819.417,4	1.376.692,2	1.911.257,4	25.794.834,0	100,0	7,4	-71,4	38,8
Inbertsioaren berehalako herrialdea	ELGA	4.095.758,45	1.175.639,28	694.067,14	22.732.921,63	36,3	3,1	-71,3	-41,0
	15-EB	501.596,60	146.046,65	118.651,96	16.954.081,38	6,2	0,7	-70,9	-18,8
	27-EB	568.241,82	172.932,98	121.657,46	17.371.101,80	6,4	0,7	-69,6	-29,7
	Ipar Amerika	3.171.910,32	967.463,63	570.296,82	2.709.323,23	29,8	21,0	-69,5	-41,1
	Kanada	0,00			157.852,65	0,0	0,0		
	AEB	3.171.910,32	967.463,63	570.296,82	2.551.470,58	29,8	22,4	-69,5	-41,1
	Latinoamerika	141.939,72	81.026,49	31.757,13	3.401.993,01	1,7	0,9	-42,9	-60,8
	Argentina	16.516,12	2.267,64	382,32	163.858,63	0,0	0,2	-86,3	-83,1
	Brasil	16.390,81	44.977,70	15.013,15	611.825,28	0,8	2,5	174,4	-66,6
	Txile	19.872,24	1.280,71		42.937,93	0,0	0,0	-93,6	-100,0
	Mexiko	87.823,84	29.954,54		2.351.961,78	0,0	0,0	-65,9	-100,0
	Asia eta Ozeania	666.815,00	84.567,34	1.185.476,91	1.759.274,29	62,0	67,4	-87,3	1301,8
	Txina	10.443,81	31.393,03	1.178.175,27	1.246.520,80	61,6	94,5	200,6	3653,0
	India	1.417,06	907,84	2.131,52	3.180,34	0,1	67,0	-35,9	134,8
	Japonia				14.194,57	0,0	0,0		
	Afrika	0,01	64.256,52	2.069,03	64.167,41	0,1	3,2	642.565.100,0	-96,8
	Zerga paradisuak	655.516,14	53.258,23	882,28	438.529,31	0,0	0,2	-91,9	-98,3

(*) Inbertsio osoa ABEE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia Ministerioa, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren webgunean.

3. Prezioak, kostuak eta errentak


3.1. Kontsumo ondasun eta zerbitzuen prezioak

2010. urtean, prezioek hazkunde jarraitua jasan zuten, nagusiki energiako produktuek eta lehengaiak nazioarteko merkatuetan zuten bilakaeraren mendeko. Hori dela eta, BPGd-ren deflaktorea nahiz KPI aurreko hiruhilekoetakoak baino nabarmen altuagoak diren balioetan kokatu ziren. Kontsumoko prezioak, 2009an eskainitako moderazioaren aldean (%+0,3koa batez beste), % 1,7ko hazkundera eduki zuten batez beste, eta horretan eragina eduki zuten elementu nagusiak honakoak izan ziren: batetik, petrolio eta lehengaiak garestitu izana eta, bestetik, gobernu espainiarrak zergak irmotzeko hartutako neurri multzoaren barruan kokatu diren tasen gorakadak; azken horien artean azpimarragarri dira BEZen tipo berriak, tabakoaren igoera eta elektrizitatearena.

Azpiko inflazioak ("hondar inflazioa" osatuko luketen energia produktuei eta elikagai freskoei dagokien zatia kendutako inflazioa) iraunkorrago eutsi zuen eta aurreko urtean baino aurrerapen txikiagoa izan zuen (%+0,7 batez beste, 2009ko %+1,1en aurrean), baina urteko azken hiletan gorakada izan zuen. Bestalde, hondar inflazioak erakutsi zuen azken hiletako inflazio portaera oso lotuta dagoela KPIren osagai alderraienei: energia produktuak eta landu gabeko elikagaiak.

Ikuspegi banakatuagotik eta landutako elikagaietatik hasita, adierazi behar da azpiko inflazioaren ildo beretik, elikagaiak hazkunde txikiagoak izan zituztela 2010ean 2009an baino, eta 2010eko amai aldera nabarmen handitu zirela, garapen bideko herrien eskari handiaren eta lortutako uzta urrien ondorioz. Energiak kanpoko industria ondasunen prezioek ere goranzko bilakaera izan zuten, besteak beste urte erdialdeko BEZen igoeraren eta automobilak bezalako kontsumo iraunkorreko zenbait ondasunentzako laguntza publikoen amaia eraginez.

II.3.1. Grafikoa. Kontsumoko prezioen indizea: urtetik urterako aldakuntza tasak



Iturria: EIN.

Azkenik, zerbitzuek goranzko bilakaera izan zuten energia eta elikagaien prezioen igoera haien prezioetara igaro zelako.

Inflazioaren aipatutako aurrerapena biziagoa izan zen EAEn eurogunean baino, beraz, diferentziala zabalduz joan zen urtea puntu erdi bat baino gehiagorekin itxi arte. Diferentzial horretan arrazoi ezberdinak ezkututzen dira, adibidez, araututako prezioak igotzea, zerga tasen igoera eta erregaiek euskal ekonomian eragin handiagoa edukitzea. Horrela, eragile horiei lotuen dauden taldeak igo ziren gehien. Zehazki, hiru talderen hazkundera azpimarratu behar da batez ere: alkohol-dun edariak eta tabakoa (abenduan tabakoaren prezioak izandako igoeragatik), garraiak (erregaien eta labaingarrien igoeragatik) eta etxebizitza (elektrizitatearen eta berogailurako gasolioaren igoerak eraginda). Aitzitik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak, jantziak eta oinetakoak eta etxeko tresneriak bezalako taldeek aldakuntza tasa txikiagoak izan zituzten; komunikazioak, aisiak eta kulturak eta medikuntzak, aldiz,

II.3.1. Koadroa. KPIH: Urte arteko aldakuntza tasak. 2005eko oinarria

	2008ko ab.	2009ko ab.	2010ko ab.
EB	2,2	1,5	2,6
BEM	1,6	0,9	2,2
Belgika	2,7	0,3	3,4
Bulgaria	7,2	1,6	4,4
Txekiar Errep.	3,3	0,5	2,3
Danimarka	2,4	1,2	2,8
Alemania	1,1	0,8	1,9
Estonia	7,5	-1,9	5,4
Irlanda	1,3	-2,6	-0,8*
Grezia	2,2	2,6	5,2
Espainia	1,5	0,9	2,9
Frantzia	1,2	1,0	2,0
Italia	2,4	1,1	2,1
Txipre	1,8	1,6	1,9
Letonia	10,4	-1,4	2,4
Lituania	8,5	1,2	3,6
Luxemburg	0,7	2,5	3,1
Hungaria	3,4	5,4	4,6
Malta	5,0	-0,4	4,0
Holanda	1,7	0,7	1,8
Austria	1,5	1,1	2,2
Polonia	3,3	3,8	2,9
Portugal	0,8	-0,1	2,4
Errumania	6,4	4,7	7,9
Eslovenia	1,8	2,1	2,2
Eslovakia	3,5	0,0	1,3
Finlandia	3,4	1,8	2,8
Suedia	2,1	2,8	2,1
Erresuma Batua	3,1	2,9	3,3*

Iturria: Eurostat.

* Azaroko urtetik urterako datua.

II.3.2. Koadroa. Kontsumoko prezioen indizearen banakapena: batez besteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2006	2007	2008	2009	2010	Ekarpena
INFLAZIOA GUZTIRA (% 100)	3,4	2,8	4,1	0,3	1,7	3,5
AZPIKO INFLAZIOA (% 83,5)	2,9	2,8	3,2	1,1	0,7	1,6
— Landutako elikagaien KPI (%13,4)	3,6	4,0	6,6	1,2	0,7	0,5
— Industriako ondasunen KPI (%28,4)	1,4	0,7	0,6	-1,9	-0,2	0,3
— Zerbitzuen KPI (%41,7)	3,7	3,9	3,9	2,5	1,4	0,8
HONDAR INFLAZIOA (%16,5)	6,1	3,0	8,5	-3,6	6,6	1,9
— Landu gabeko elikagaien KPI (%6,8)	4,3	4,2	5,0	0,2	0,2	0,2
— Energiaren KPI (%9,7)	7,9	1,9	11,6	-7,3	11,5	1,7
% M de medio-bajo sobre total	38,9	42,8	48,0	51,0	49,6	44,7
% M bajo sobre el total	14,9	14,4	12,8	12,1	12,3	15,8

Iturria: EIN eta Eusko Jaurlaritzaren KOIUNTURAZ buletina.

II.3.3. Koadroa. Kontsumoko prezioen indizea. EAE eta Estatu

	EAE						ESTATUA	
	Urteko batez bestekoa			Abendua (urte artekoa)			2009ko abe.	2010eko abe.
	2008	2009	2010	2008	2009	2010		
INDIZE OROKORRA	4,1	0,3	1,7	1,9	1,0	2,8	1,4	3,0
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	6,3	-0,1	-0,7	2,6	-1,3	0,4	2,4	0,7
Edari alkoholikoen eta tabakoa	4,0	8,4	10,6	4,1	12,1	14,6	3,9	15,2
Jantziak eta oinetakoak	0,7	-1,4	-0,1	0,6	-0,5	0,6	0,5	0,6
Etxebizitza	6,4	1,9	3,1	6,8	0,6	5,1	5,9	5,7
Etxe tresneria eta zerbitzuak	3,0	1,8	0,9	3,1	1,0	1,3	2,6	1,0
Osasun zerbitzuak eta zerbitzu medikoak	-0,1	-0,2	-0,1	0,2	-0,7	-0,4	0,3	-1,2
Garraioa	5,7	-5,3	6,5	-5,3	3,8	8,9	-5,6	9,2
Komunikazioak	0,0	-0,6	-0,7	-0,3	-0,3	-0,7	-0,3	-0,7
Aisialdia eta kultura	0,3	0,3	-0,9	0,9	-0,7	0,3	0,3	-1,1
Irakaskuntza	4,7	4,2	2,2	5,1	2,2	2,3	4,0	2,3
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	2,4	1,7	4,6	1,8	2,1	4,0	1,7
Bestelako ondasun eta zerbitzuak	3,4	2,5	2,1	3,8	1,8	2,6	3,5	2,8

Iturria: EIN.

prezioak merkatu zituzten 2010ean, aurreko urtearen aldean.

Bukatzeko, 2010eko abenduak Kontsumoko Prezioen Indize Bateratuaren (KPIB) datuek¹ Estatu osorako, %2,9ko hazkundea adierazten dute 2009ko abenduaren aldean, aurreko urtean baino 2 puntu gehiago, eta EDBko tasak baino 7 hamarren gehiago (haren indizea aurreko urtearen aldean 1,3 puntu hazi zen). 27-EB osoak, aldiz, %2,6ko prezio hazkundea izan zuen, 2009ko abenduan baino 1,1 puntu gehiago.

2010ean, Irlandak izan ezik, Europar Batasuneko herrialde guztiek dauzkate inflazio tasa positiboak eta aurreko urtekoak baino handiagoak. Estoniak, Irlandak, Letoniak eta Maltak, 2009ko abenduan, prezioen bilakaera negatiboak izan zituzten, baina guztiak itzuli ziren bide positibora.

3.2. Kostuak**a) Lan kostuak**

Lan kostuen adierazleek, ikusiko dugun moduan, dezelerazioa izan zuten azken urtean EAEn, Estatuan eta EB osoan:

- Lehenbiziko adierazlea indarrean dauden hitzarmenetan itundutako soldata igoerei dagokie. Gure erkidegoan 2010ean %1,93ko soldata igoera berrikusia² egon dela erakusten dute, 2009ko datua baino 7 hamarren gutxiago eta Estatu osoan itundutakoak baino 16 hamarren gutxiago, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuen arabera.
- Beste adierazle bat Soldatapekoen lanpostu bakoitzeko ordainsaria³ da; Eustaten Kontu Ekonomikoen eta EINren estatistikaren bidez kalkulaturik, erakusten du ordainsari hori

¹ Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren % 5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar). 2006an oinarriko urtea aldatu zen, 1996. urtetik 2005. urtera igaroz.

² "Babes klausulagatik" soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata hazkundeari erantesten emaitza. Aintzat hartu behar da adierazle partziala dela, izan ere, batetik, azken urteotan batez besteko hazkunde horiek adostu dituzten hitzarmenek soldatapekoen % 50 inguru estaltzen dute eta, bestetik, "ohiko" ordainsari hazkundeak hiltzen diete, hau da, ez dute aintzat hartzen ezohiko orduen ordaintzetaren eragina, ezta lan egindako ordu kopurua ere, eta soldatakoak ez diren beste kostu batzuk ere ez ditu hartzen.

³ Datu zuzena soldatapekoen izan beharko litzateke, baina Eustaten Hiruhileko Kontabilitateak lanpostu kopurua baino ez du erakusten zorrozki, eta ez lanaldi osoko baliokiderik. Estatuarentzat EINren informazioetik abiatuta kalkulaturik datua da zuzena.

II.3.4. Koadroa. Laneko kostuaren adierazle makroekonomikoak

	EAE ¹			Ordainsaria lanpostu bakoitzeko (aldak. %)				Soldata igoera hitzarmenetan ⁴	
	Soldatapekoen ordainsaria (€ milioika)	Lanpostuak	Lanpostu bakoitzeko ordainsaria (€)	EAE ¹	Estatua ²	27-EB ³	BEM ³	EAE (aldak. %)	Estatua (aldak. %)
2005	27.915	965.358	28.917	4,8	3,7	2,8	2,0	4,22	4,04
2006	29.779	987.058	30.169	4,3	4,0	3,1	2,5	4,74	3,59
2007	31.888	1.015.038	31.416	4,1	4,8	3,5	2,4	4,18	4,21
2008	33.727	1.018.135	33.126	5,4	6,4	0,8	3,2	4,81	3,60
2009	32.310	983.198	32.862	-0,8	4,1	-1,0	0,6	2,63	2,26
2010*	:	:	:	:	0,7	3,0	1,6	1,93	2,09

Iturria: (1) EUSTATen Hiruhileko kontuak. (2) EINren Hiruhileko kontabilitatea. (3) EUROSTAT. (4) Lan eta Immigrazio M.
(*) Behin-behineko datuak.

II.3.5. Koadroa. Laneko kostuaren indizearen bilakaera. EAE-Estatua konparazioa


	Kostua langile bakoitzeko (€ / urteko)						Kostua orduko (€ orduko)					
	Estatua			EAE			Estatua			EAE		
	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK	KO	OKO	OOK
2006	26.203	19.364	16.780	30.111	22.328	19.156	16,1	11,9	10,3	19,5	14,4	12,4
2007	27.263	20.120	17.175	31.519	23.394	20.223	16,8	12,4	10,8	20,5	15,2	13,1
2008	28.685	21.153	18.383	33.323	24.780	21.493	17,7	13,0	11,3	21,7	16,1	14,0
2009	30.202	22.296	19.334	34.721	25.949	22.494	19,0	14,0	12,2	23,3	17,4	15,1
2010	30.324	22.503	19.386	35.215	25.063	22.973	19,1	14,2	12,2	23,4	17,6	15,3
Aldakuntzaren %												
2007	4,0	3,9	4,1	4,7	4,8	5,6	4,5	4,4	4,6	5,3	5,4	6,2
2008	5,2	5,1	5,2	5,7	5,9	6,3	5,0	4,9	5,1	5,6	5,8	6,2
2009	5,3	5,4	5,2	4,2	4,7	4,7	7,7	7,8	7,5	7,5	8,0	8,0
2010	0,4	0,9	2,1	1,4	2,9	2,1	0,6	1,1	0,5	0,6	1,2	1,3

KO: Kostu osoa; OKO: Ordainsarien Kostu Osoa; OOK: Ohiko Ordainsari Kostua.⁵
Iturria: EIN, "Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta".

%5,4 hazi zela 2008an gure erkidegoan eta %0,8 jaitsi zela 2009an (behin-behineko datuak); Estatuan, berriz, %4,1 hazi zen 2009an (eta %0,7 2010ean, Hiruhileko Nazio Kontabilitatearen behin-behineko datuen arabera), aldagai horren izendatzailearen bilakaera negatiboa dela-eta. Bestalde, Eurostaten 2010eko datuek EBrentzat agerian uzten dute lanpostu bakoitzeko ordainsariaren hazkundea. Zehazki, 27-EBrako %3 hazi zen (%-1,0 2009an), eta eurogunean, aldiz, %1,6 hazi ziren (%+0,6 2009an).

- Laneko kostuen hirugarren adierazleak egoeraren arabera izaera du: Lan Kostuaren Hiruhileko Inkesta da⁴. Horrek, gainera, osagai ezberdinen arteko xehaketa egiteko aukera ematen du. Inkestako datuek adierazten dutenez, 2010erako, EAEn, langile bakoitzeko laneko kostuek %1,4 egin zuten (2009an baino 2,8 puntu gutxiago eta Estatuan baino puntu bat gehiago). Langile bakoitzeko kostuetan egondako urteko azken aldakuntza hori azken lau urteetan gertatu den txikiena da eta oso bestelakoa aurreko hiru urteen aldean. Jarduera sektoreen arabera, kostuen aldakuntza negatiboa izan zen eraikuntzan (%-0,3); aitzitik, industrian %2,3 hazi ziren eta zerbitzuetan batez bestekoa adina hazi ziren


II.3.2. Grafikoa. Lan kostuen hazkundea sektoreen arabera EAE-n. Kostuak orduko eurotan



Iturria: EINren Lan kostuen hiruhileko inkestaren bidez egina.

⁴ Inkesta hau oinarri hartuta, Lan Kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.

⁵ Laneko kostu osoak (KO) lana ematen duen lanaren faktorea erabiltzeagatik gain hartzen dituen kostu guztiak biltzen ditu, soldatakoak nahiz soldatetik kanpokoak. Ordainsari kostu osoak (OKO) oinarritzko soldata, osagarriak, ezohiko orduak, haborokinak eta gauzatan emandako ordainsaria hartzen ditu (kalte-ordainak eta dietak kanpo) eta kopuru osotan neurtzen da (atxikipenak edo Gizarte Segurantzari langileak egindako ordainketak baino lehen). Ordainsariaren Ohiko Kostuak (OOK) kanpoan uzten ditu ezohiko haborokinak (ezohiko ordainsariak, mozkinetan parte hartzea, primak, eta abar) eta atzeratutako ordainketak.

II.3.3. Grafikoa. Lan egindako ordu bakoitzeko lan kostuen bilakaera. EB, Estatua eta EAE. Urteko aldakunza %tan.

Iturria: EIN eta EUROSTATen bidez egina.

(%+1,4). Balio absolutuetan, 2010ean langile bakoitzeko kostu osoaren batez bestekoa 35.215 eurokoa izan zen, Estatuko batez bestekoa baino %16 gehiago.

Bestalde, EAEn lan egindako ordu bakoitzeko gutzitako kostuak %0,6 hazi ziren 2010ean, 2009an baino ia 7 puntu gutxiago eta Estatuko batez bestekoa adina. Sektoreka, industria batez bestekoa baino gutxiago hazi zen (%+0,3), zerbitzuak, aldiz, bat, batez bestekoa adina eta eraikuntza apur bat gehiago (%+0,7).

Eurogunean, azkenik, lan kostuak areagotu egin ziren 2008an (informazioa dagoen azken urtea), %3,5 aurreko urteko %2,7ren aldean. Aldiz, 27-EBn %4,2 areagotu ziren (2007an %3,7), EUROSTATen "Eskulanaren Kostuaren Indizea"ren arabera.

b) Produktibitatea


Produktibitatea produkzioaren eta hura lortzeko erabilitako baliabideen arteko harremanean datza eta garrantzitsua da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da baina haren kalkulua, ordea, konplexua da, faktore erabakigarriak ugariak direlako (lan egiten duen biztanleriaren kualifikazioa, kapital ondasunen zuzkidura, baliabide horien erabilera eraginkorra eta hura erakundekoak, legezkoak, eta abarrekoak diren beste faktore batzuekin konbinatuta erabiltzea). Hori dela eta, lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptuaren bitartez hurbilketa egiten da, hura ikuspegi ezberdinen bitartez neurtua.

Lehenik eta behin, lanaren itxurazko produktibitatea, BPGd-ren bilakaeraren (2010ean %0,3 hazi zen) eta enpleguarenaren —lanpostuetan neurtuta— arteko bilakaera gisa kalkulatu⁶ (EUSTATEN Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera %0,8 murriztu zena azken urtean), %1,1 hazi zen kopuru errealean 2010ean, aurreko urtean 4 hamarren jaitsi ondoren⁷. EAEn 2010ean lanaren itxurazko produktibitatea leheneratzeko arrazoia honakoa

II.3.6. Koadroa. Laneko produktibitatea langile, herrialde eta urte bakoitzeko (EB 27=100)

	2007	2008	2009
27 EB	100,0	100,0	100,0
Alemania	108,3	106,5	104,5
Austria	114,2	114,1	111,5
Belgika	126,6	125,9	124,9
Bulgaria	35,0	37,2	37,2
Txipre	86,0	87,3	88,7
Danimarka	102,6	101,1	100,6
Eslovakia	75,6	79,3	78,9
Eslovenia	83,8	84,8	82,0
Espainia	103,1	103,4	110,8
Estonia	65,8	64,0	64,4
Finlandia	113,2	112,0	107,1
Frantzia	121,2	121,4	102,5
Grezia	99,6	102,3	102,0
Holanda	114,0	114,7	110,9
Hungaria	68,1	71,3	70,2
Irlanda	137,1	130,3	135,2
Italia	110,0	109,5	109,7
Letonia	51,1	52,0	49,9
Lituania	59,0	62,2	55,8
Luxemburg	178,8	175,9	167,9
Malta	89,0	88,0	88,0
Polonia	61,7	62,0	65,2
Portugal	73,0	73,6	73,9
Erresuma Batua	110,2	109,9	110,1
Txekiar Errep.	71,3	72,0	71,8
Errumania	43,2	50,2	47,1
Suedia	114,0	112,4	111,5
EAE	132,1	130,3	132,4
Estatu batuak	139,4	137,7	140,8
Japonia	97,7	95,1	92,9

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

II.3.4. Grafikoa. Lanaren produktibitate errealearen bilakaera EAEn. %

Iturria: EUSTAT. CET.

⁶ Lanaldi osoaren baliokide den lanpostu kopuru osoa izan beharko balitz ere, datu hau ez dago eskura.

⁷ Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATEN datuetatik abiatuz kalkulatu.


II.3.7. Koadroa. Laneko itxurazko produktibitatearen bilakaera EAE-n

	Benetako Produktibitatea (Kateatutako bolumena)					Produktibitate Nominala (Prezio korranteak)				
	Guztira	Primario	Lehen mail.	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Lehen mail.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2005	1,7	-9,1	5,5	1	0,0	5,1	0,9	8,1	5,5	3,0
2006	2,1	-0,9	3,7	0,8	1,4	5,4	1,8	5,2	4,9	5,0
2007	1,3	4,4	1,3	5,6	0,9	4,5	6,3	3,6	11,4	4,7
2008	0,9	-6,1	1,4	-0,9	1,1	1,9	-11,4	3,2	2,9	4,3
2009	-0,4	14,6	-6,0	3,3	1,1	-1,6	-4,5	-10,3	2,2	3,2
2010*	1,1	-1,6	4,1	-0,1	-0,1	2,8	2,1	4,8	0,5	0,4

Iturria: EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoak oinarri hartuta egina.

(*) Behin-behineko datuak.

II.3.5. Grafikoa. Lanaren produktibitate errearen aldakuntza EAEn, Estatuan eta Europar Batasunean



Iturria: EUSTAT eta EROSTATen datuen bidez egina.

datza: industriaren produktibitatea %4,1 hazi zen, aurreko ekitaldian jauzi zen bitartean (%-6,1); eraikuntzarena (%-0,1) eta zerbitzuena (%-0,1), aldiz, 2010ean negatiboak izan ez ezik, ez datoz bat aurreko urtean izandako portaera positiboarekin.

EAEko produktibitate errearen bilakaera hori Europar Batasun osoan (bai 27-EBn bai eurogunean, ekitaldi bitan jarraian emaitza negatiboak izan ondoren, balio positiboetara itzuli baitziren: %2,4 eta %2,3, hurrenez hurren) baino txikiagoa izan zen, eta espainiar Estatua, aldiz, Europako joeren antzeko tasa errealer iritsi zen, %2,3, behin-behineko datuen arabera, urte horretan egon den enplegu galera handiaren ondorioz.

EAEk testuinguru europarrean duen kokapen lehiakorralderatzeko aintzat hartu dezakegun beste produktibitate

adierazle bat lanaren produktibitatea da, BPGd-ren (erosketa ahalmenaren parekotasuna gorabehera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulaturik. Eskuragarri dagoen informazioa aintzat hartuta, alderaketak egiteko erraztasuna ageri du abantaila gisa, nahiz eta kasu honetan azterketa mailaren arabera egiten den eta ez bilakaeraren arabera. Ratio hori aintzat hartuta, ikus daiteke EAE EBk 2009an zuen batez bestekoaren %32,4 gainera dagoela (+2,1 puntu 2008aren aldean), Irlandaren mailaren parean; Luxenburgok baino ez du gaintitzen Batasunean (%167,9ko balioa lortu zuen). Postu hori Estatu espainiarrekoa baino askoz ere altuagoa da. Azken hori EBko batez bestekoaren %10 gainera dago, Austria, Italia eta Erresuma Batua bezalako herrien antzeko mailetan.

Halaber, adierazle honen bitartez ikusten denez, EAEk Batasunaren barruan duen kokapen erlatiboak hobetzeko joera duela aurreko urteen aldean (1995-2003 aldiko batez bestekora joz gero, produktibitate erlatiboa EBren batez bestekoaren %125,7ra iristen zen), nahiz eta 2008an hobetze hori eten egin zela dirudien, ia puntu bi erori baitzen.

c) Unitateko lan kostuak

Behin produktibitatearen eta laneko kostuen bilakaera ikusita, EAEko ekonomiaren Unitateko Lan Kostuak⁸ (ULK) aztertuko ditugu.

2010erako behin-behineko datuek adierazten dute gure ekonomian, aurreko urtearen aldean, Unitateko Lan Kostu (ULK) korranteak ez direla horrenbeste hazi (%0,3, 2009ko %4,6ren aldean). Murritapenak izan dira industrian (%-1,8) eta gutxiago eraikuntzan (%-0,2), 2009an jaitsiera handiagoa (%-1,7) jasan ondoren. Zerbitzuek, bestalde, ULK korranteen hazkundea eduki dute, %1,5ekoa, aurreko urtean %6,6ko hazkundea izan zuten bitartean.


II.3.8. Koadroa. Unitateko lan kostuak EAE-n: urteko aldakuntza

	Lan kostuen aldak.		Produktibitatearen aldak.		ULK korranteen aldak.		ULK errearen aldak.	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Guztira	4,2	1,4	-0,4	1,1	4,6	0,3	5,8	-1,4
Industria	-0,1	2,3	-6,0	4,1	5,9	-1,8	10,2	-2,5
Eraikuntza	1,6	-0,3	3,3	-0,1	-1,7	-0,2	-0,6	-0,8
Zerbitzuak	7,7	1,4	1,1	-0,1	6,6	1,5	4,5	1,0

Iturria: EUSTATen eta EINen datuekin egina.

⁸ Unitateko Lan Kostu (ULK) korrantea soldatapeko bakoitzaren lan kostuaren eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa da. ULK erreala zatidura berbera da, baina deflatoarea aplikatuta "prezioen eragina" ezabatuta. Epigrafe honetan aztertzen dena adierazle horien urteko aldakuntza da, Estatuko eta Europako batez bestekoen aldean.

II.3.6. Grafikoa. Unitateko lan kostu errealak: Soldatapekoen ordainsariaren bidez kalkulaturako urteko aldakuntza



Iturria: EUSTAT eta EROSTATen datuen bidez egina.

Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoen lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatu dena, %0,7 (27-EB) areagotu ziren 2010. urtean eta proportzio berean erori eurogunean (%+ 0,8 aurreko urtean). ULK errealak aintzat hartuz gero, 2010eko datuak negatiboak dira Batasun osoarentzat (%-1,6) nahiz eurogunearentzat (%-1,1).

Bitartean, Estatuan, %3tik gorako hazkunde tasa nominala eduki zuten hainbat urte eta gero (EUROSTATen datuen arabera 2007an %4koa), tasa izugarri altxatu zen 2008. urtean, %4,9 arte. Aitzitik, 2009. urtean %0,8ra erori zen. 2010ean balorazioa negatiboa izan zen, %-1,1ekoa. Datu errealak aintzat hartuz gero, ratioak negatiboak dira 2006 arte, 2007an %0,7 arte iritsi ziren eta 2008an %2,4 arte. 2009an ULK errealak ez ziren ia hazi, EUROSTATEk emandako datua %0,2 baita, eta 2010ean %1,1eko jaitsiera izan zuen.

Emitza horiek ULK errealekin alderatzen baditugu gure Erkidegoko soldatapekoen ordainsaritik abiatuz, eta 2010. urterako daturik ez dagoen arren, 2008. urtean ikusi zitekeen jada balio positiboko joera aldaketa (%+3,5), grafikoa ikus daitekeen moduan, baina 2009an adierazle hori nabarmen erori zen, %0,8 arte.

3.3. Errentak

a) Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sortutako balio erantsia banatu egiten da hasiera batean hura soldatapeko lanaren ordainsari gisa, soldatapekoa ez den lanaren eta kapitalaren Ustiapenaren soberakin oso gisa, urte osoan zeharreko produktibitate taldearen balio galeraren balioagatiko Kapital Finkoko Kontsumo gisa eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari dagozkion zerga gisa –Administrazio Publikoari dagozkionak– sortzen lagundu duten faktore produktiboen artean. Bigarren maila batean, errenta hori banatu egiten da pertsona eta familia ezberdinen artean, faktore produktibo hauetako partaidetza eta eskuratutako errenta ezberdinak gorabehera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, 2009ko %4,9ko prezio korranteetako BPGd-ren erorketa

erreferentzia hartuta (behin-behineko datuak), ikusten da zerga garbiak %12,8 murriztu zirela, eta soldatapekoen errenta, ordea, %4,2, kapital finkoko kontsumoa eta ustiapeneko soberakin garbia bezala, %6 eta 3,6 erori baitziren, hurrenez hurren.

Bilakaera hori egonda, soldatapeko laneko errentak BPGd-ren %50 izan ziren 2009an, aurreko urtean baino hiru hamarren gehiago. Ustiapeneko soberakin garbia, berriz, %32,8 da (BPGd-ren gaineko pisua puntu erdi handitu du) eta kapital finkoaren kontsumoa %8,9, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago. Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zergen kasuan, produkzio sektoreei emandako diru-laguntzak kenduta, BPGd-ren gaineko bere proportzioa murriztu egin zen eta %8,3ra iritsi zen, aurreko urtean baino 7 hamarren gutxiago.


Errenten bilakaera hori Estatukoekin erkatuta, ikusten da 2009. urtean soldata-errentak 1,5 puntu gehiago murriztu zirela gure erkidegoan. Ostera, EAEko ustiapenaren soberakinaren eta errenta mistoaren batura %4,1 murriztu zen, eta Estatuan, aldiz, %-0,5. Diru-laguntzen zerga garbiei dagokionez, BPGd-ren gaineko proportzioak ezberdinak dira (%8,3 EAEn eta %7,2 Estatuan). 2008ko kopuruekiko bilakaera, ordea, norabide berean doa: EAEn %12,8 erori zen eta Estatu osoan are gehiago: %18,4.

Eurogunean, azterketaren xede diren faktoreek izandako bilakaera apur bat desberdina da EAEkoaren eta Estatukoaren aldean eta, izan ere, BPGd-ren aldakuntza nominala %-2,5ekoa izan zen (%+2,7 aurreko urtean). Soldatapekoen ordainsaria ez zen hazi ia (%+0,3), ustiapenaren soberakin garbiaren eta errenta misto garbiaren batura %4,7 erori zen bitartean. Bestalde, zerga garbiak EAEn eta Estatuan baino proportzio askoz txikiagoan murriztu ziren, %6,2.

b) Per capita errenta

Lehenik eta behin, EINK urtero egiten duen “*Espainiako Lurralde Kontabilitateak*” erakusten du autonomia erkidegoetan eta probintzietan etxeetako errentaren kontuak zeintzuk diren, bai termino erantsietan bai per capita. Horrela, dauzkagun azken datuen arabera

II.3.7. Grafikoa. Eragileen errentaren banaketaren bilakaera EAE-n



Iturria: EUSTAT: Hiruhileko kontu ekonomikoak.

II.3.9. Koadroa. Errentaren banaketa EAE-n, Estatuan eta Eurogunean

	Euroak, milioika				% bertikala			urteko aldakuntza %		
	2006	2007	2008	2009	2007	2008	2009	06-07	07-08	08-09
EAE										
Soldatapekoen ordainsaria	29.779	31.888	33.727	32.310	48,0	49,7	50,0	7,1	5,8	-4,2
Ustiapenaren soberakin garbia	19.417	21.354	21.960	21.169	32,1	32,3	32,8	10,0	2,8	-3,6
Kapital finkoaren kontsumoa	5.643	5.943	6.103	5.737	8,9	9,0	8,9	5,3	2,7	-6,0
Diru-laguntzen zerga garbiak	6.922	7.243	6.135	5.352	10,9	9,0	8,3	4,6	-15,3	-12,8
BPGd merkatuko prezioak	61.761	66.427	67.925	64.568	100,0	100,0	100,0	7,6	2,3	-4,9
ESTATUA										
Soldatapekoen ordainsaria	464.548	502.182	531.293	516.799	47,7	48,8	49,0	8,1	5,8	-2,7
Ustiapeneko soberakin osoa / Errenta misto osoa	410.363	441.918	463.250	460.711	41,9	42,6	43,7	7,7	4,8	-0,5
Diru-laguntzen zerga garbiak	109.373	109.437	93.581	76.404	10,4	8,6	7,2	0,1	-14,5	-18,4
BPGd merkatuko prezioak	984.284	1.053.537	1.088.124	1.053.914	100,0	100,0	100,0	7,0	3,3	-3,1
EUROGUNEAK										
Soldatapekoen ordainsaria	4.031.235	4.229.936	4.414.405	4.426.554	47,3	48,1	49,4	4,9	4,4	0,3
Ustiapeneko soberakin osoa / Errenta misto osoa	3.402.135	3.624.047	3.695.393	3.523.546	40,5	40,2	39,3	6,5	2,0	-4,7
Diru-laguntzen zerga garbiak	1.033.018	1.089.229	1.073.811	1.007.547	12,2	11,7	11,2	5,4	-1,4	-6,2
BPGd merkatuko prezioak	8.466.388	8.943.212	9.183.609	8.957.647	100,0	100,0	100,0	5,6	2,7	-2,5

Iturria: EUSTAT "Kontu ekonomikoak (2000ko oinarria)", EIN "Espainiako Kontabilitate Nazionala. 2000ko oinarria" eta EUROSTAT.

(2008koak) EAEko etxeetako errenta, 44.378 milioi eurokoa, Estatuko errenta erantsiaren %6,31 da. Gainera, aurreko urtekoa baino %7,05 handiagoa da. Halaber, EAEko etxeak izan ziren biztanleko errenta gordin handiena eduki zutenak, 20.760 eurokoa, Estatuko batez bestekoa —15.433 eurokoa— baino %34,5 gehiago.


Gure erkidegoaren atzetik Nafarroa, Madril eta Katalunia daude, hurrenkera horretan bertan.

Lurraldeka, per capita errenta gordin erabilgarririk handiena Araba eta Gipuzkoako etxeei dagokie (Estatuko batez bestekoa baino %38 eta 36 gehiago, hurrenez hurren). Bizkaia, berriz, hirugarren tokian dago (Estatuko batez

II.3.10. Koadroa. Etxeetako errenta erabilgarri osoa, per capita. Behin-behineko datuak

	2007 (b-b)			2008 (b-b)		
	Balioa (eurotan)	Indizea	2006/2007 aldakuntza %	Balioa (eurotan)	Indizea	2007/2008 aldakuntza %
Andaluzia	11.912	80,53	4,10	12.480	80,87	4,77
Aragoi	16.346	110,51	4,40	17.083	110,69	4,51
Asturias	15.628	105,65	4,19	16.232	105,18	3,86
Balear Uharteak	15.912	107,57	2,46	16.438	106,51	3,31
Kanariar Uharteak	12.929	87,41	3,82	16.368	86,62	3,40
Kantabria	15.646	105,77	4,82	16.481	106,79	5,34
Gaztela Eta Leon	15.426	104,29	5,38	16.163	104,73	4,78
Gaztela-Mantxa	12.228	82,67	5,30	12.608	81,70	3,11
Katalunia	16.574	112,18	3,54	17.291	112,04	4,20
Valentziako E.	13.322	90,06	3,41	13.909	90,13	4,41
Extremadura	11.799	79,77	6,17	12.436	80,58	5,40
Galizia	13.678	92,47	6,32	14.435	93,53	5,53
Madril	17.617	119,10	2,79	18.175	117,77	3,17
Murtzia	11.955	80,82	4,57	12.463	80,76	4,25
Nafarroa	19.116	129,23	6,84	19.991	129,53	4,58
EAE	19.466	131,60	5,70	20.760	134,52	6,65
Araba	20.158	136,28	5,45	21.362	138,42	5,97
Gipuzkoa	20.266	137,01	6,29	21.070	136,53	3,97
Bizkaia	18.796	127,07	5,37	20.410	132,25	8,59
Errioxa	15.788	106,73	2,51	16.518	107,03	4,62
Ceuta	14.457	97,74	2,76	15.195	98,46	5,10
Melilla	14.275	96,50	1,38	14.875	96,38	4,20
Guztira	14.792	100,00	4,17	15.433	100,00	4,33

Iturria: EIN. Espainiako Lurralde Kontabilitatea. 2000ko oinarria.
(b-b) Behin-behineko datuak.

II.3.8. Grafikoa. Per capita BPGD-ren (PCB) bilakaera. 27-EB = 100

Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

bestekoa baino %32 gehiago), Nafarroako Erkidegoaren apur bat gainerik. Bilakaerari dagokionez, EAEko errenta gordina biztanleko %6,65 areagotu zen azken urtean, Estatuko batez besteko %4,33ren aldean.

Bestalde, EUROSTATEk, erosahalmeneko paritateko per capita BPGd-ri (PCB) buruz dauzkan estatistiken bidez, EAEk Europar Batasunaren batez bestekoaren barruan eta EBko herrialde eta eskualdeen artean daukan posizio erlatiboa ezagutzeko bidea ematen du.

Horrela, 2009an, eta EBko batez bestekoa erreferentzia hartuta, EAEk %135eko per capita BPGd zeukan. Horrek esan nahi du 13 urtez jarraian hazkundea izan eta gero bigarren erorikoa gertatu zela, 1995ean izandako %109,6ko baliotik EBren batez bestekoaren aldean. 2009an lortutako balioarekin, EAEk EBko bigarren postua izango luke, Luxemburgen atzetik.

Bukatzeko, EINren Lurraldeko Kontabilitatea erreferentzia hartuta, EAE, 2009rako datu aurrerapenaren arabera, Estatuko buruan zegoen biztanleko BPGd-ri dagokionez, 30.703 eurora iritsita, Estatuko batez besteko 22.946

II.3.11. Koadroa. Per capita BPGD (PCB) herrien eta urteen arabera (27 EB=100)

	2007	2008	2009
27 EB	100	100	100
Alemania	116	115	116
Austria	123	124	122
Belgika	115	115	116
Bulgaria	38	41	:
Txipre	93	96	98
Danimarka	121	120	117
Eslovakia	67	72	72
Eslovenia	88	91	87
Espainia	105	103	104
Estonia	70	68	63
Finlandia	118	117	111
Frantzia	108	108	107
Grezia	93	94	95
Holanda	133	134	130
Hungaria	62	64	63
Irlanda	147	135	131
Italia	103	102	102
Letonia	56	57	49
Lituania	59	62	53
Luxemburg	275	277	267
Malta	77	77	78
Polonia	54	56	61
Portugal	78	79	78
Erresuma Batua	117	116	116
Txekiar Errep.	80	80	81
Errumania	42	:	:
Suedia	125	122	120
EAE	137	136	135

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

euroen aldean. Era berean, EINK kalkulatu duenez, 27-EBrako batez besteko per capita BPGd, 2009an, 23.546 eurokoa izan zen; hortaz, gure erkidegoa %38 gainerik legoke.

Urte horretan, eta ekonomiaren moteltzearen ondorioz, per capita BPGd erkidego guztietan erori zen, zertxobait gutxiago EAEn (%-3,5) Estatu osoan baino (%-3,9).

4. ■ Sektore publikoa

EAEko sektore publikoko jarduerari dagokionez, lehenik eta behin azpimarratzekoa da diru-sarrerak publikoak osatu egin direla, 2008an %2,3ko erorketa eduki eta 2009an aldaketarik gabe iraun eta gero. 2010ean, %7,2ko saldo positiboa eduki du.

Arrazoiak zuzeneko zergen erorketa (% -2,5) eta transferentzia korranteena (% -3,1) zeharkako zergen bilketaren hazkundearekin neurri batean orekatu izana da (% 6,4). Horrek eragin egiten du finantzakoak ez diren diru-sarrerak % 3,3 areagotzea. Gainera, horri diru-sarrera finantzarioen % 34,5eko hazkundera erantsi behar zaio, batez ere 2.387 milioi euroko zorra jaulki izanaren ondotik (% 35,2, 2009aren aldean). Emaiza modura, EAEko sektore publikoko diru-sareren multzoa (15.474 milioi euro) puntu bat baino pixka bat gehiago hazi da BPGd-ren aldean. Horrela, 2009ko % 22,35etik % 23,50era igaro da, behin-behineko datuen arabera.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa %3,3 murriztu zen (2009an %4,4), batez ere Jaurlaritzan gastuari eutsi izanagatik (%+0,2) eta neurri txikiagoan baita foru aldundietan eutsi izanagatik ere (%+3,6)¹. Horrela, gastuak BPGd-n hartzen duen portzentajea 1,26 puntu erori, eta % 23,15ean kokatu zen. Sarreren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa leheneratu eta zenbateko positiboetara itzuli zen, 338 milioi euro balioarekin, aurreko ekitaldiko datu negatiboaren ondoren, eta aldi berean defizit publikoa (finantzaketa beharra) %31,5 murriztu eta 2009an BPGd-ren %4 izatetik 2010ean %2,7 izatera igaro zen.


Bestalde, EAEko sektore publiko osoaren (toki erakundeak kontuan izan gabe) zorpetze garbia nabarmen handitu zen, beste urte batez. Urtearen amaieran, zor bizia 6.493 milioi eurokoa zen, 2009an baino %49,6 gehiago beraz.

4.1. Sarrerak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu betearazpenari buruzko estatistika"ko datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek batera likidatutako guztizko sarrerak (15.474 milioi euro) %7,2ko hazkundera izan zuten 2010ean, aurreko urtean hazkunderik ez izan ondoren, batez ere zuzeneko zergen erorketaren (%-2,5) eta transferentzia korranteen (%-3,1) ondorioz; hori neurri batean, zeharkako zergen bilketaren hazkundeak (%+6,4) orekatu zuen; haiei esker finantzaz kanpoko sarrerak %3,3 handitu ziren eta horri finantza sarreren %34,5eko hazkundera erantsi behar zaio, batez ere 2.387 milioi euroko zorra jaulkitzearen ondorioz (%+35,2 2009aren aldean).

Hala ere, hazkundera ez zen berdina izan administrazio guztietan, Eusko Jaurlaritzaren kasuan %17,3ko hazkundera izan zuen bitartean, aldundien kasuan txikiagoa izan baitzen, %3,9koa.

II.4.1. Grafikoa. Euskal Sektore Publikoaren magnitude nagusien bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuen bidez egina.

Balantze moduan, esan daiteke erkidegoaren BPGd-ren gaineko euskal sektore publikoaren sarrera guztiak, 2003an %20,5 zirenetik 2007an %22,2 izan arte hazi, eta 2008an %21,2 arte jaitsi ondoren, sektore publikoaren sarreren murrizketagatik, 2009an leheneratu zirela (%22,4), urte horretan EAEko BPGd-k izandako jaitsieragatik (%-4,9), eta 2010ean %23,5 arte igo zirela, bai sarrerak bai BPGd berriz hazi zirelako (%+2, behin-behineko datuak). Itundutako Zergen arabera diru bilketari dagokionez, horiek eratzen baitute diru-sarrera zuzen eta zeharkako multzo handiena eta kopuru osoaren %90 baino gehiago, 2010erako emandako behin-behineko datuek %8,4ko hazkundera erakutsi dute, eta hori euskal ekonomiak egungo krisian jasan duen hondamenak diru bilketan murriztaperen garrantzitsua eragin izan badu ere, bai 2008an (%-6,8), bai 2009an (%-15,9). 2010ean erakutsitako aurrerapen hori arau aldaketaren ondorioei eta itzultzeen betetze maila desberdinei egotzi behar zaie². Orokorrean, diru bilketaren hazkundera zeharkako zergetatik etorri da (%+19,5), zuzenekoak, aldiz, %2,5 erori baitira. Zuzeneko zergak aztertzen hasita, sail handien artean, PFEZk aldakuntza tasa positiboak izan zituen (%+3,8), soldata publikoak merkatu eta kapital higigarriaren errentak %15,6 erori baziren ere, nagusiki bankuko deposituak murriztu izanagatik. Aitzitik, 400 euro arteko kenkaria neurri batean kendu izanak, kapitaleko errenten gaineko atxikiperen tasa % 19ra igo izanak eta tarifa inflazioaren arabera ez deflaktatzeak orekatu egiten dituzte beste osagaien murriztapenak. Bestalde, sozietateen gaineko zerga da zuzeneko ezarpenaren bilakaera negatiboaren

¹ Hori posible izan zen gastu sail batzuk Jaurlaritzaren eta foru erakundearen artean orekatu zelako (esaterako, transferentzien zati bat).

² Eusko Jaurlaritza. KOIUNTURAZ aldizkaria, 74. zk., 2011ko I. hiruhilekoa.

II.4.1. Koadroa. Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreraren likidazioa. 2009-2010. euroak, milaka

	2009			2010			Aldak. %, 2009-10		
	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP
SARRERAK GUZTIRA	8.930.380	13.009.953	14.432.529	10.475.834	13.518.108	15.474.078	17,3	3,9	7,2
Zuzeneko zergak		5.455.109	5.455.109		5.321.090	5.321.090		-2,5	-2,5
Zeharkako zergak	4.641	5.769.079	5.773.721	4.274	6.140.971	6.145.246	-7,9	6,4	6,4
Tasak eta beste sarrera batzuk	169.758	252.818	422.576	189.464	300.221	489.685	11,6	18,7	15,9
Transferentzia korranteak	7.181.787	1.018.980	782.691	8.090.883	1.098.148	758.305	12,7	7,8	-3,1
Ondare sarrerak	48.974	13.861	62.835	83.868	12.073	95.941	71,3	-12,9	52,7
Inbertsio errealeen bester.	386	2.492	2.878	713	660	1.374	84,6	-73,5	-52,3
Kapital transferentziak	93.420	112.332	114.790	196.146	111.388	218.396	110,0	-0,8	88,2
FINAN. KANP. SAR. GUZT.	7.498.967	12.624.671	12.615.835	8.565.349	12.984.551	13.030.036	14,2	2,9	3,3
Finantza-aktib. aldak.	20.413	31.282	51.695	17.485	39.508	56.993	-14,3	26,3	10,2
Finantza-pasib. aldak. (zorra)	1.411.000	354.000	1.765.000	1.893.000	494.048	2.387.048	34,2	39,6	35,2
FINAN. SAR. GUZTIRA	1.431.413	385.282	1.816.694	1.910.485	533.557	2.444.042	33,5	38,5	34,5
SARRERA / BPGd %	13,83	20,15	22,35	15,91	20,53	23,50			


Iturria: Eusko Jaurlaritza. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

arduradun nagusia, izan ere, tasa negatiboetan jarraitzen du (% -19,9), nahiz eta erorketa hori arinagoa den 2009ko murriztapenaren aldean (% -27,2) enpresetako mozkinen pixkanaka hoberantz egitearen joerari esker.

Zeharkako zergen multzoak %26,1 hobetu du bere diru bilketa, aurreko urteko kopuruaren aldean. Bere irudi nagusiak, BEZak hain zuzen, dinamismo oso sendoa mantentzen du, zerga tasen hazkundea, zerga oinarriaren hazkundea (zerga tasen igoera indarrean jarri baino lehen erosketak aurreratetik etorrira), itzulketen murriztapen adierazgarria (hileroko itzulketen sistema orokor bihurtzearen ondorio) eta aurreko ekitaldietako atzeratzeengatik diru-sarreraren hazkunde sendoa dela-eta.

Bukatzeko, zerga bereziek hazkundeak izan zituzten 2010ean (%2,1), aurreko urtean tasak balio negatiboetan (%-1,4) egon ondoren. Dena dela, zerga berezietako atal nagusiak, hidrokarburoek, %4,2 murriztu zuten euren diru bilketa, tipoak igo arren. Jaitsiera hori tabakoaren gainera zergaren aurrerapenak neutralizatu zuten, tipoen igoerei esker, baita elektrizitateak ere.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 11.700 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPGd korrantearen % 17,8 izan zen 2010. urtean (2009an %16,7). Bildutako diruaren %34,8 PFEZri dagokio, %38,6 BEZi (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza),

II.4.2. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren eta FA-en diru-sarreraren bilakaera BPGD-ren aldean

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta EUSTATEN datuen bidez egina.

%8,4 Sozietateen gainera Zergari eta gainerakoa, %18,2, zenbait zerga bereziri.

Sarreraren murrizpena dakarten sailei dagokienez, 2008ko aurrekontuaren arabera gastu fiskala³ —urte hori baita

II.4.2. Koadroa. Foru Aldundiak: zuzeneko eta zeharkako zergengatik diru-sarreraren likidazioa (euroak, milaka)

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		FA guztira	
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Zuzenekoak	Zeharkakoak
2006	912.856	1.102.212	3.020.511	3.486.695	1.793.349	2.154.056	5.726.715	6.742.964
2007	1.056.881	1.142.798	3.619.667	3.525.649	2.041.773	2.288.435	6.718.320	6.956.882
2008	1.003.539	1.019.438	3.523.884	3.077.113	2.073.757	2.022.779	6.601.180	6.119.330
2009	859.496	878.854	2.891.913	2.665.840	1.641.350	1.753.711	5.392.759	5.298.405
2010	855.962	1.048.586	2.823.317	3.213.485	1.579.155	2.069.443	5.258.435	6.331.514
08/09 %	-14,4	-13,8	-17,9	-13,4	-20,9	-13,3	-18,3	-13,4
09/10 %	-0,4	19,3	-2,4	20,5	-3,8	18,0	-2,5	19,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuen bidez egina.

³ Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definizioz orokor gogoratzen. Halere, gastu fiskalaren aurrekontua honela definitzeko: zerga-sarreraren murrizpenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "aruntaren" edozein desbideratzea da. Arruntaren eta erabilien zerga-oinarriko murrizpenak eta kuotako kenkariak dira.

II.4.3. Koadroa. EAEko Foru Aldundietako zerga itunduetatik bildutakoa. (euroak, milaka)

	EAE 2009	2010				2010 aurrek. gn. %	2009-10 aldak. %
		AFA	BFA	GFA	EAE		
Zuzeneko zergak	5.392.759	855.962	2.823.317	1.579.155	5.258.435	94,4	-2,5
PFEZ	3.917.693	659.093	2.113.724	1.293.050	4.065.868	95,3	3,8
— Laneko atxik. eta jard. profesionalak	4.167.053	692.179	2.246.729	1.369.741	4.308.649	98,3	3,4
— Kapital higigarrien etekinen atxikip.	266.279	39.976	113.926	70.744	224.646	77,0	-15,6
— Higiezinaren kapitalaren atxik.	80.447	10.658	46.193	25.779	82.630	96,5	2,7
— Ondare-irabazien atxikipean	17.416	1.767	8.043	8.439	18.250	70,0	4,8
— Profes. eta enpr. ordainketa zatituak	162.666	27.603	69.752	62.890	160.245	98,3	-1,5
— Kuota diferentzial garbia	-776.169	-113.090	-370.918	-244.543	-728.881	106,7	6,1
Sozietateak	1.231.686	182.919	550.784	253.353	987.056	92,3	-19,9
Ez egoileen errenta Gn. zerga	113.635	5.542	117.020	8.766	131.328	124,2	15,6
Oinordetzak eta dohaintzak	80.099	7.799	40.678	22.064	70.541	87,7	-11,9
Ondarea: Zerga iraungia	49.645	609	1.111	1.922	3.641	7,4	-92,7
Zeharkako zergak	5.298.405	1.048.586	3.213.485	2.069.443	6.331.514	108,2	19,5
BEZ	3.528.206	763.520	2.263.921	1.487.758	4.515.199	..	28,0
— Kudeaketa Propioa	2.759.300	588.165	1.743.973	1.146.069	3.478.206	115,9	26,1
— Doikuntza	768.911	175.356	519.948	341.689	1.036.993	124,8	34,9
OEZ	152.236	14.383	133.567	46.838	194.788	117,0	28,0
EJDZ	95.206	12.602	39.799	28.544	80.945	81,6	-15,0
Garraioaren Z.B.	37.149	5.645	18.524	10.171	34.339	91,7	-7,6
Fabrikazioko Z.B.	1.361.249	233.515	692.398	455.016	1.380.929	95,5	1,4
Hidrokarburoen T.S.Z.	51.436	8.331	24.702	16.233	49.266	95,0	-4,2
Aseguruen primen Z.	72.921	10.590	40.575	24.883	76.048	100,2	4,3
Tasak eta bestelako sarrerak	100.914	10.705	66.677	32.676	110.058	121,7	9,1
Joko Tasak	58.728	7.662	34.336	16.797	58.794	..	0,1
Errekarguak, berandutzak eta zehapenak	42.186	3.043	32.341	15.880	51.264	..	21,5
Zerga itunduak guztira	10.792.077	1.815.253	6.103.479	3.681.275	11.700.007	102,9	8,4

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila. Eusko Jaurlaritzak.

informazio xehea daukagun azkena—, hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak (salbuespenak, gastu kengarriak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 6.360,9 milioi eurotara iritsi zen, aurreko urtean baino %5,2 gehiago, hau da, sarrera teorikoen %31,3 (aurrekontuaren araberrako sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen %46,8 (3.088,5 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie.

4.2. Gastuak

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, 15.245 milioi euro dena (toki erakundeak kanpo), 2010ean %3,3 handitu da, aurreko urteko %+4,4ren aldean. Beraz, magnitude honek EAEko BPGd-n duen portzentajea ia 1,26 puntu murriztu da aurreko urtekoaren aldean, %24,41etik %23,15era igaroz.

Gastuaren bilakaera, aldiz, positiboa izan zen bai Eusko Jaurlaritzan (%+0,2 inguru besterik ez), bai foru aldundietan (%+ 3,6); izan ere, partida batzuk erakundeen artean

II.4.4. Koadroa. Gastu fiskalak zerga itunduengatik. Euroak, milaka.

	2006	2007	2008				2007/08 ald. %
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	
PFEZ	1.869.327	1.953.980	314.345	1.137.946	677.063	2.129.354	9,0
Ondare zerga	125.843	155.342	16.812	80.498	59.214	156.524	0,8
Sozietateen zerga	525.504	587.201	113.831	286.103	232.179	632.112	7,6
ZUZENKO ZERGA GUZTIRA	2.520.674	2.696.523	444.988	1.504.547	968.456	2.917.990	8,2
BEZ*	2.936.215	2.981.758	519.994	1.536.973	1.010.844	3.067.810	2,9
OEEJDZ	107.704	144.168	62.114	66.625	41.785	170.524	18,3
Garraioaren ZB	19.308	18.495	1.292	5.547	3.113	9.951	-46,2
Fabrikazioko ZB	191.220	184.243	29.262	86.490	56.883	172.635	-6,3
Hidrokarburoen salm. Z.	4.027	4.877	159	3.834	312	4.305	-11,7
Aseguruen primen Z.	14.367	16.149	3.004	8.880	5.840	17.725	9,8
ZEHARKAKO Z. GUZTIRA	3.272.841	3.349.690	615.824	1.708.349	1.118.778	3.442.951	2,8
GUZTIRA	5.793.515	6.046.213	1.060.812	3.212.895	2.087.233	6.360.940	5,2

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoan oinarrituta egina.

orekatu ziren (transferentzien zati bat, esate baterako). Ondorioz, gastu publikoaren ratioa BPGd-ren gainean %20,08tik %20,41era igaro da foru aldundientzat eta %15,96tik %15,68ra Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGd-k EAEan 2010ean izandako bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

Euskal Sektore Publiko osoko (toki erakundeak izan ezik) gastu kapituluetak aldakuntzarik garrantzitsuenak zenbait alde izan dituzte aurreko urteetatik hona. Funtzionamendu gastuak %0,3 murriztu ziren (2009an %10,2 hazi ziren) eta langileriarenak %0,6 (%+6,3 2009an). Halaber, jaitsiera handia izan zuten transferentzia korronteek (%—6) aurreko urteko joerari jarraituz, orduan %2,1 jatsi baitziren. Inbertsio errealak eta kapital transferentziak ere murriztu ziren, baina batez bestekoaren azpitik (%—1 eta %,1,1 hurrenez hurren).

Eusko Jaurlaritzaren gastua oinarri hartuta, eskura dauden azkeneko datuak 2010eko aurrekontuenak dira. Horiek % 0,1 eskas baten hazkundea erakusten dute 2009ko ekitaldiko aurrekontu likidazioari dagokionez. Sail guztietan gastuari eustea izan da nagusi. Hala eta guztiz ere, 2009ko erdi aldera legegintzaldia aldatzetik etorritako

gastuaren berrantolamenduak zaildu egiten du zenbait ataletan egindako gastuaren kopuru handien bilakaera jarraitzea.

Bi sail nagusiak, gastu bolumenari jarraiki, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila (kopuru osoaren % 26,7) eta Osasun Saila (% 34,2) dira oraindik. Lehenengoa % 2,6 erori da, bigarrenak % 0,6ko hazkundea eduki duen bitartean 2009ko kopuruen aldean. 2010erako aurrekontuetan sartu den gastu osoa 10.315 milioi eurokoa izan da, hain zuzen ere aurten gure Erkidegoak edukitako BPGd-ren % 15,7koa, behin-behineko datuen arabera.

4.3. Aurrekontu saldoa


Euskal Sektore Publikoaren diru-sarrera korronteak %2,5 hazi ziren 2010. urtean; aldiz, izaera bereko gastuak %2,8 murriztu ziren. Ondorioz, aurrezpen gordinaren hazkundea gertatu zena 338,1 milioiko balio positibo bateraino, eta hori 2009an negatiboa bazen ere 338,6 milioi euroko kopuruan. Zenbateko horrek gure erkidegoko BPGd-ren %0,51 hartu zuen (behin-behineko datuak).

II.4.5. Koadroa. Euskal Sektore Publikoaren gastuen likidazioa. 2009-10. Euroak, milaka

	2009			2010			% Aldak. 2009-10		
	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP	EJ	FA	ESP
GASTUA GUZTIRA	10.304.507	12.964.126	15.760.829	10.327.556	13.437.131	15.244.824	0,2	3,6	-3,3
Langileriaren gastuak	1.930.851	352.636	2.283.487	1.915.485	353.864	2.269.349	-0,8	0,3	-0,6
Funtzionamendu gastuak	3.383.810	466.338	3.850.148	3.378.409	460.560	3.838.969	-0,2	-1,2	-0,3
Finantza gastuak (interesak)	24.389	47.334	71.722	81.413	47.327	128.739	233,8	0,0	79,5
Transferentzia korronteak	3.261.843	10.786.455	6.630.222	3.178.090	11.487.714	6.235.079	-2,6	6,5	-6,0
Inbertsio errealak	350.733	649.813	1.000.546	433.462	556.584	990.047	23,6	-14,3	-1,0
Kapital transferentziak	1.059.523	364.339	1.334.134	1.101.892	306.126	1.318.881	4,0	-16,0	-1,1
FINAN. KANP. GASTUAK GUZT.	10.011.149	12.564.475	15.083.125	10.088.751	13.212.175	14.781.063	0,8	5,2	-2,0
Aldakuntza Finan. aktiboak	232.209	202.066	434.275	115.155	115.405	230.560	-50,4	-42,9	-46,9
Finantza pasib. aldak. (zor amort.)	61.150	95.147	156.297	123.650	109.551	233.201	102,2	15,1	49,2
FINANTZA GASTUAK GUZTIRA	293.359	297.212	590.571	238.805	224.956	463.761	-18,6	-24,3	-21,5
% LIKID. GASTUA / BPG	15,96	20,08	24,41	15,68	20,41	23,15			

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

II.4.3. Grafikoa. EAE-ren gastu publikoaren bilakaera BPGD-ren aldean



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuen bidez egina.

II.4.6. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren gastuaren bilakaera, sailka. 2009 arteko likidazioak eta 2010erako aurrekontuak. Euroak, milaka.

	Euroak milaka				2010 Banak. %	% aldakuntza		
	2007	2008	2009	2010 aurrk.		07/08	08/09	09/10
GUZTIRA	8.584.886	9.317.300	10.304.507	10.315.210	100,0	8,5	10,6	0,1
Legebiltzarra	27.789	30.514	31.745	31.087	0,3	9,8	4,0	-2,1
Jaurlaritzako Lehendakaritza	27.159	29.427	29.757	74.327	0,7	8,4	1,1	149,8
Lehendakariordetza	16.912	23.562	7.022	—	—	39,3	-70,2	—
Ogasuna eta Herri Administrazioa	185.433	196.448	135.283	—	—	5,9	-31,1	—
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	511.747	567.700	223.749	—	—	10,9	-60,6	—
Herrizaingoa	617.932	669.641	710.297	711.954	6,9	8,4	6,1	0,2
Industria, Berrikuntza, Merkat. eta Turismoa	346.684	398.206	406.699	410.953	14,9	14,9	2,1	1,0
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	258.280	280.332	38.625	—	—	8,5	-86,2	—
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza	2.403.160	2.589.172	2.824.094	2.751.347	26,7	7,7	9,1	-2,6
Osasuna eta Kontsumoa	2.926.682	3.240.668	3.508.917	3.530.142	34,2	10,7	8,3	0,6
Kultura	253.223	275.734	299.607	296.957	2,9	8,9	8,7	-0,9
Lurralde Antolaketa eta Ingurumena	113.185	105.638	34.301	—	—	-6,7	-67,5	—
Garraioak eta Herri Lanak	274.226	312.373	137.483	—	—	13,9	-56,0	—
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	187.613	177.817	54.264	—	—	-5,2	-69,5	—
Ekonomia eta Ogasuna*		31.268	54.954	0,5		75,8		
Justizia eta Herri Administrazioa*		230.271	304.632	3,0		32,3		
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioak*		390.923	705.276	6,8		80,4		
Enplegua eta Gizarte Gaiak*		438.962	624.123	6,1		42,2		
Ingurum., Lur. Antolak., Nek. eta Arrantza*		246.419	290.596	2,8		17,9		
Plan Bereziak	14.528	1.428	273.060	—	—	-90,2	—	—
Lan Harremanen Kontseilua	2.470	2.545	2.622	2.544	0,0	3,0	3,0	-3,0
Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.739	1.792	1.846	1.791	0,0	3,0	3,0	-3,0
Kooperatiben Goren Kontseilua	944	972	1.001	971	0,0	3,0	3,0	-3,0
Euskal Kontu Auzitegia	6.623	7.045	7.461	7.885	0,1	6,4	5,9	5,7
Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.780	1.869	1.929	1.871	0,0	5,0	3,2	-3,0
Zor Publikoa	239.639	191.146	83.647	245.268	2,4	-20,2	-56,2	193,2
Erakundeen baliabide eta konpromisoak	167.060	208.412	153.255	147.556	1,4	24,8	-26,5	-3,7
Zenbait sailen gastuak	78	4.861	—	120.976	1,2	6.132,1	—	—
% BPGdmp	12,9	13,7	16,0	15,7				


Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko aurrekontu orokorren betearazpena.

(*) 2009ko erdialdetik, legegintza aldaketak eragindako sailen berrantolaketaren ondorioz.

II.4.7. Koadroa. Euskal Sektore Publikoa: aurrekontu magnitude irmoak. Euroak, milaka.

	2010	2009	% Aldak. 10/09
1. Sarrera korranteak	12.810.266	12.496.931	2,5
2. Gastu korranteak	12.472.136	12.835.578	-2,8
2.1. Langileen gastuak	2.269.349	2.283.487	-0,6
2.2. Funtzionamendu gastuak	3.838.969	3.850.148	-0,3
2.3. Finantza gastuak	128.739	71.722	79,5
2.4. Transferentzia korranteak	6.235.079	6.630.222	-6,0
3. Aurrezki gordina (1-2)	338.130	-338.647	—
4. Kapital sarrerak	219.770	118.903	84,8
5. Kapital gastuak	2.308.927	2.334.680	-1,1
5.1. Inbertsio errealak	990.047	1.000.546	-1,0
5.2. Kapital-transferentziak	1.318.881	1.334.134	-1,1
6. Finantzazio gaitasuna (+) / beharra (-) (3+4-5)	-1.751.027	-2.554.424	-31,5
7. Finantza aktiboen aldakuntza garbia	-173.567	-382.580	-54,6
7.1. Finantza aktiboen aldakuntza. Sarrerak	56.993	51.695	10,2
7.2. Finantza aktiboen aldakuntza. Gastuak	230.560	434.275	-46,9
8. Finantza pasiboen aldakuntza garbia	2.153.847	1.608.703	33,9
8.1. Finantza pasiboen aldakuntza. Sarrerak	2.387.048	1.765.000	35,2
8.2. Finantza pasiboen aldakuntza. Gastuak	233.201	156.297	49,2
9. Aurrekontu superabita / defizita (6+7+8)	229.254	-1.328.300	—
9.1. Ordaindu gabeko obligazioak	2.133.814	2.294.543	-7,0
9.2. Kobratu gabeko eskubideak	896.657	2.022.907	-55,7
10. Aurrekontu superabita / defizita kutxari dagokionez	1.466.410	-1.056.664	—

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

II.4.4. Grafikoa. Aurrezki eta superabit/ defizit publikoaren bilakaera (finantzazio gaitasuna/ premia) EAEn.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuen bidez egina.

Gainera, defizit publikoa erregistratu zen (finantzazio beharra), 1.751 milioi euro baino gehiagokoa (BPGd-ren %2,66), izan ere, finantzaz kanpoko gastuek (korranteak gehi kapitalekoak) izaera berdineko sarrerak dituztenak gaintitu zituzten. Aurreko ekitaldian, defizita 2.554 milioi eurokoa izan zen, beraz, %31,5eko murriztapena egon da. Aldagai finantzarioa sartuta, eta funtsean zorpetzeari esker, 2010eko defizit publikoa aurrekontuko superabit bihurtu zen (+229 milioi euro, BPGd-ren %0,35), nahiz eta aurreko ekitaldian 1.300 milioi eurotik gorako balioa zuen saldo negatiboa eduki.

4.4. Sektore publikoaren zorpetzea

2010eko Aurrekontu Betearazpeneko Estatistikak erakusten du EAeko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia nabarmen gehitu zela urte horretan. Ekitaldiaren amaieran Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 6.493 milioi euroko zorra zuten, 2009an baino %49,6 gehiago (urte horretan ere asko hazi zen, %58,9); zenbateko hori BPGd-ren %9,9 da, behin-behineko datuen arabera (%6,7 2009an).

II.4.8. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien zorpetzearen bilakaera (Euroak, milaka)


	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zor garbia		Zor bizia urte amaieran	
	(1)	% aldakuntza		(2)	(1)–(2)=(3)	% aldakuntza	Guztira
Eusko Jaurlaritza							
2007	0	—	216.516	–216.516	18,2	1.633.769	–11,7
2008	200.000	—	176.869	23.131	–110,7	1.656.900	1,4
2009	1.411.000	605,5	61.150	1.349.850	5.735,7	3.006.750	81,5
2010	1.893.000	34,2	123.650	1.769.350	31,1	4.776.100	58,8
Foru Aldundiak							
2007	59.000	–53,6	69.727	–10.727	–80,1	952.413	–1,1
2008	213.500	261,9	92.714	120.786	–1.226,0	1.073.199	12,7
2009	354.000	65,8	95.147	258.853	114,3	1.332.052	24,1
2010	494.048	39,6	109.551	384.497	48,5	1.716.549	28,9

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoaren eta EUSTATen datuekin egina.

Gehikuntza hau batez ere Eusko Jaurlaritzan gertatu da, zor bizia % 58,8 gehitu zuena urtearen amaieran. Foru aldundietan neurri txikiagoan gertatu da (% 28,9). Horrela, beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren %73,6, %69,3 aurreko urtean).

2010ean zorpetze gordina %35,2 hazi eta 2.387 milioi eurokoa izan zen; haietatik 1.893 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta gainontzeko 494ak foru aldundiei. Gobernuak 123,65 milioi amortizatu dituenez, ekitaldiko zorpetze garbia 1.769,35 milioi eurokoa da (%+31,1 2009aren aldean). Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren zor bizia urtearen amaieran, 4.776 milioi eurokoa izanik, BPGd-ren %7,3koa izan zen (2009an %4,7koa).

Foru aldundiek, bestalde, 494 milioi euroko zorra hartu zuten, 2009an baino %39,6 gehiago, eta 109,55 amortizatu zituzten. Beraz, ekitaldiko zorpetze garbia 384,5 milioi eurokoa izan zen. Ondorioz, ekitaldiaren amaieran haien zor bizia 1.716 milioi eurokoa izan zena, aurreko urtean baino %28,9 gehiago, BPGd-ren %2,6. Foru aldundi bakoitzari buruz eskuragarri dagoen azken informazioa 2008ari buruzkoa da, EUSTATen "Sektore publikoaren aurrekontuko estatistika"n oinarrituta. Urte

II.4.5. Grafikoa. EAE-ko administrazioen finantza zorra (Euroak milaka)

Iturria: EUSTAT. Sektore publikoaren aurrekontu estatistika.

horretan, guztira 213,5 milioi euroko zorra jaulki zuten (59 milioi aurreko ekitaldian); haietatik 80 Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 53,5 Gipuzkoakoari eta gainontzeko 80 milioiak Bizkaikoari. Bestalde, 92,7 milioi euro amortizatu zituzten, aurreko ekitaldian baino %33 gehiago. Amortizatutako kopurutik, %86,5 Bizkaiko Aldundiari dagokio, %6 Arabakoari eta gainerako %7,5 Gipuzkoako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia guztira %12,7 hazi zen aurreko urtearen aldean, eta BPGd-ren gainean ere hazi zen, 2007ko %1,43tik 2008ko %1,58ra. EAEko udalei dagokienez, estatistika berak ageri zuenez, 2008an guztira 138,2 milioi euroko zorra jaulki zuten eta 69 amortizatu; horrela, ekitaldia amaituta, ordaindu gabeko zorra 62 milioi handiagoa zen, 586 milioi eurora iritsita.

Bestalde, guztira, EAEko herri administrazioek (Eusko Jaurilaritzak gehi aldundiek gehi udalek) 2008an (azken datu eskuragarriak Memoria hau ixterakoan) 2.926 milioi euroko zorra zeukaten. Zenbateko hori urte horretako BPGd arruntaren %4,3 zen (2007an, %4,7). Gogoan hartu behar da informazio hori zaharkituta gelditu dela, 2009 eta 2010ean zorpetzea handitu egin delako.

Portzentaje hori 90eko hamarkadan egoten zirenetatik oso urrun dago; orduan BPGd-ren %12 gainditzera iritsi zen. Zor osoaren %43,3 Eusko Jaurilaritzari dagokio, %28,1 Bizkaiko Foru Aldundiari, %4,9 Arabakoari eta %3,7 Gipuzkoako Foru Aldundiari. Gainerakoa, 586 milioi euro, EAEko udalen finantza zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren %20 da (2007an %16,8).

4.5. Erakundeen transferentziak

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du, kupoa deritzonaren bidez. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga bilketa lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurilaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga bilketa egiten dute. EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen dizkiete, arrazoi ezberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, foru aldundiek eta udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatu Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, foru aldundiek Eusko Jaurilaritzari egiten dizkieten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpeneen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin foru aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik aldundiek Eusko Jaurilaritzari zein zati transferitu behar dioten erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurilaritzak jasotzen dituen diru-sarreraren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz). 2010ean ekarpenak 7.978 milioi eurokoak izan ziren, 2009an baino %12,7 gehiago, aurreko ekitaldietako jaitzieren ondoren (%-8,2 eta %-10,4, hurrenez hurren) 2007-2011 denboraldiko nobedadeen artean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Besteak beste ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala %70,44tik %70,04ra jaitsi zen, toki erakundearen partaidetza areagotzeko; foru aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme-mekanismo gisa; EAEko erakundearen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa %0,75 izatetik %1 izatera igaro zen.

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu-konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daitezke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2002az geroztik, EBtik etorritako funtsen bolumen osoa nabarmen joan da murrizten, 2005ean izan ezik. 2008an —informazioa dagoen azken urtea— %17,9 hazi ziren, aurreko ekitaldian %22,9 jaitsi ondoren, eta guztira 113 milioi euro izan ziren.

Sail nagusiak honakoei dagozkio: Europako Gizarte Funtsa (13,3 milioi euro, EBren funtsen %11,8), lan-merkatuan jarduteko sortu zen finantza-tresna, ABFT (17,3 milioi, guztiaren %215,3, arrantza-politikaren tresna, eta lehenengo postuan, NBEUF berria (48,5 milioi euro, funtsen %42,9), Nekazaritza Bermatzeko Europako Funts berria, 2007ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean dagoena. 2007an LGENF ere sortu zen, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa; hark eta NBEUFk NBEEF-Bermea ordeztu zuten, eta nekazaritzari zuzendutako Europako laguntzak kudeatzeko sortu ziren. 2008an guztira 10,6 milioi euro jaso ziren funts horretatik (EBren funts guztien %9,3). Bestalde, EGEFRI (Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsa) dagozkion funtsak,

II.4.9. Koadroa. Foru Aldundiek EAE-ko erakunde komunei egiten dizkieten ekarpenen bilakaera. 2006-2010 (Euroak, milaka)

Kontzeptua	2006	2007	2008	2009	2010	08-09 ald. %	09-10 ald. %
Ek. orokorra	7.865.095	8.460.069	7.754.813	6.847.227	7.774.246	-11,7	13,5
Berariazko ek.	17.968	140.973	141.316	230.403	203.882	63,0	-11,5
Guztira	7.883.063	8.601.042	7.896.129	7.077.630	7.978.128	-10,4	12,7
Arabaren ek.	1.287.304	1.451.855	1.338.394				
Bizkaiaeren ek.	4.001.443	4.314.282	3.955.961				
Gipuzkoaren ek.	2.594.316	2.834.903	2.601.775				
Arabaren %	16,33	16,88	16,95				
Bizkaiaeren %	50,76	50,16	50,10				
Gipuzkoaren %	32,91	32,96	32,95				

Iturria: Kupoaren eta Finantza-Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituta egina. Ekonomia eta Ogasun Saila. Eusko Jaurilaritza.

II.4.10. Koadroa. Eusko Jaurlaritzak likidatutako diru-sarrerak, jatorriaren arabera. 2006-2008. (Euroak milaka)


	2006	2007	2008	2008 % ban.	06-07 ald. %	07-08 ald. %
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.883.063	8.601.042	7.896.129	91,0	9,1	-8,2
Ekarpen orokorrak	7.865.095	8.460.069	7.754.813	89,3	7,6	-8,3
Berariazko ekarpenak	17.968	140.973	141.316	1,6	684,6	0,2
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	142.032	134.277	171.008	2,0	-5,5	27,4
Euskadiko erakundeen transf.	9.767	12.796	22.890	0,3	31,0	78,9
Estatuaren transferentziak	7.838	25.526	34.981	0,4	225,7	37,0
Europar Batasunaren funtsak	124.427	95.955	113.137	1,3	-22,9	17,9
— EGIF	9.404	17.838	13.320	0,2	89,7	-25,3
— EGEF	28.079	301	21.644	0,2	-98,9	7.090,7
— NBBEF-Orientazioa	460	1.644	985	0,0	257,4	-40,1
— NBBEF-Bermea	75.903	—	—	—	—	—
— LGENF*	—	—	10.572	0,1	—	—
— NBEUF*	—	48.949	48.547	0,6	—	-0,8
— ABFT	6.240	19.237	17.327	0,2	208,3	-9,9
— Kohesio funtsa	2.157	7.443	—	—	245,1	-100,0
— Beste funts batzuk	2.184	543	742	0,0	-75,1	36,6
3. ESTE BALIABIDE BATZUK	222.553	263.250	612.849	7,1	18,3	132,8
— Zor Publikoa	0	0	200.000	2,3	—	—
— Zeharkako zergak	6.422	6.263	5.555	0,1	-2,5	-11,3
— Ondareko sarrerak	57.342	87.012	180.036	2,1	51,7	106,9
— Inbertsio errealeen besterentzeak	1.116	528	8.803	0,1	-52,7	1.567,2
— Beste transferentzia batzuk	14.247	7.356	15.464	0,2	-48,4	110,2
— Finantza aktiboen aldakuntza	14.479	10.530	48.040	0,6	-27,3	356,2
— Tasak	135.370	151.561	154.951	1,8	12,0	2,2
SARRERAK GUZTIRA	8.247.648	8.998.569	8.679.986	100,0	9,1	-3,5

Iturria: Zerga Koordinazioko Organoan oinarrituta egina.


(*) 2007ko urtariletik aurrera NBBEF-Bermea desagertu zen, eta LGENF (ekitaldi honetan partidarik gabe) eta NBEUF sortu ziren.

2008an, 21,6 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtean kontzeptu horregatik ia transferentziarik ez egon ondoren. Beste sail interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Hamaost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2010ean (behin-behineko likidazioen arabera) 373,8 milioi eurokoa izan zen eta 2009aren aldean %49,8 jaitsi zen.

Azkenik, estatuari egiten zaizkion ordainketa hauek ez ezik, zenbait diru-zenbateko jasotzen dira. Jasotzen diren diru-zenbateko horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik egiten dena. Doikuntza hori estatuko administrazioen eta EAeko administrazioaren

II.4.6. Grafikoa. Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egindako ekarpenen bilakaera. Euroak milaka

Iturria: Kupoaren eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritza.

II.4.7. Grafikoa. BEZ-agatiko doikuntzaren bilakaera lurraldeka. Euroak milaka

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Zerga Koordinatzeko Erakundea.

II.4.11. Koadroa. EAE-k Estatuari ordaindutako kupoaren bilakaera. Euroak, milaka

	2007	2008	2009	2010	% Ald. 09/10
Sartutako kupo	1.605.726	1.696.399	852.597	492.567	-42,2
Konpentsa-zioak*	-67.905	-95.294	-108.302	-118.768	9,7
Ordaindutako Kupo	1.537.821	1.601.104	744.295	373.799	-49,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Ekonomia eta Ogasun Saila.

(*) Finantza konpentsazioak fabrikazioaren gaineko zerga bereziengatik.

arteko finantza-doikuntza da, zerga-administrazioen artean zerga bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga-administrazioek zeinek bere lurraldean jarduten baitute, muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei, zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek kargatzen zaizkien produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egitean gertatzen den distortsioa zuzentzeko beharrezkoak dira.

2008an, informazioa dugun azken urtean, BEZagatiko doikuntza EAEn 1.092 milioi eurotara iritsi zen. Kopuru hori aurreko urtekoarekin erkatuta %7,2 jaitsi zen. Sail horren barruan, aduanetako diru-bilketagatik doikuntza gutztzikoaren %59 da eta gainontzeko %41 barruko operazioei dagokie. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

4.6. EAE-ko enpresa sektore publikoa

a) Eusko Jaurlaritzak

EAEko administrazio orokorrak parte hartutako enpresa sektore publikoari buruz dauden azken datuen arabera⁴, 2008. urteari buruzkoak, sektore horren emaitza orokorra positiboa da. Azken urte honetan 107,1 milioi euroko etekina eman zuten, 2007. urtean baino 54,6 gehiago.

Eusko Jaurlaritzak parte hartuta daukan enpresa sektore publiko honen egitura iraunkorra da bere ezaugarri nagusiei dagokienez. SPRI, EVE eta EITB taldeak eta Eusko Trenbideak eta Visesa sozietateak dira garrantzitsuenak, dauzkaten enplegu-bolumenagatik eta partaidetzagatik. Koadroan Eusko Jaurlaritzak zuzenean edo zeharka, guztiz edo zati batez, parte hartuta dauzkan erakunde eta sozietate nagusiak ageri dira. 12 erakunde eta sozietate horien kapital soziala EAEko enpresa-sektore publikoaren kapital sozial osoaren %85 da. Era berean, haien artean hauek nabarmendu behar ditugu: ETS, kapitalaren %18; SPRI, %17; EITB, %13, eta Sprilur, %8.

EAEko enpresa-sektore publikoaren sailkapen ekonomikoak talde hauek bereizten ditu:

- EVE taldea: Energia produkzioarekin, banaketarekin, ikerkuntzarekin eta aurrezpenarekin zerikusia duten sozietateak.
- EITB taldea: EAEk komunikabideen alorrean dauzkan eskumenak garatzeko sortutako sozietateak.
- SPRI taldea: Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, SArén mendeko

enpresak. Zenbait sektoretako enpresek eratzen dute. Industrialdeetako sustatzaileak dira nagusi (Industrialdeak), Sprilur, S.A. mendeko sozietatearen baitan. Sprilur, bestalde, enpresa-talde handi baten barruan dago. Beste sozietate batzuk ere daude SPRI taldean, euskal enpresei zuzendutako zerbitzuak ematen dituztenak batez ere. Garrantzi berezia daukate SPRI SAK sustatutako teknologia parkeek eta enpresa eta berrikuntza zentroek, teknologia aurreratuko enpresetan ekimen eta inbertsio industrialak sustatzen eta bultzatzen dituztenak.

- Eusko Trenbideak taldea: ET-FV S.A. sozietateak eta Euskotren Participaciones S.A. bere mendeko enpresak osatzen dute.
- Gainerako erakunde eta sozietateak: EAEn partaidetza zuzeneko eta gehiengo dute gainerakoak. Enpresarik gehienetan, sektore publikoaren partaidetza zeharka egiten da. 2008an, Eusko Jaurlaritzak 60 erakunde eta sozietate publikotan zeukan partaidetza, haietako 40tan zeharka. Erakunde hauetako 27tan %100eko partaidetza zegoen (17tan zuzenean eta 10etan zeharka). Era berean, 33tan %100 baino gutxiagoko baina %50 baino gehiagoko partaidetza zegoen (3tan zuzeneko partaidetza zeukan eta 30etan zeharkakoa). Aurreko urteari dagokionez, bi erakunde berri daude:
- Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua. Jarduerari hasiera ematerakoan, Eusko Jaurlaritzak zuzenean %100eko partaidetza dauka. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari atxikita dago.
- Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa/Sociedad Pública de Gestión de Viviendas de Alquiler. 2008an sortu zen. Eusko Jaurlaritzak zuzenean %100eko partaidetza dauka. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atxikita dago.

Bestalde, partaidetzaren gehiengo Eusko Jaurlaritzarena den sozietateetan plantillak egonkorak dira, 3.000 lanpostu ingururekin. Urtez urte aldakuntza txikiak gertatzen dira (2008an %5,9 gehitu ziren, batik bat Uraren Euskal Agentzia eta Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa funtzionatzen hasi zirelako). Enpresetako plantillak eta beren aktibo-bolumenak erkatuz gero, enpresa-sektore publikoa eratzen duten enpresen tamaina ikus dezakegu: enpresen %75ek 50 langile baino gutxiago dauzkate eta aktibo guztien %27, guztira 1.112 milioi euro direnak.

Erantsitako magnitude nagusiei dagokienez, 107,1 milioi euroko etekin garbia aipatu dugu dagoeneko, zergetako 27 milioi kendu ondoren. Etekin horiek %104 handitu dira 2007ko ekitaldiaz geroztik (ekitaldi hartan 52,5 milioi euro ziren). Negozioaren zifrari dagokionez, 2008an 485 milioi euro ziren, aurreko ekitaldian baino %2,3 gehiago, batez ere energia sektorearen gehikuntza handiak (%42,4) beste batzuen beherakada, adibidez etxebizitza eta lokal komertzialena (%-20,7) eta enpresen sustapenarena (%-17,3), konpentsatu zituelako.

b) Foru aldundiak

Foru aldundien aldetik, 2008an 25 foru merkataritza-sozietate zeuden (2006ko eta 2007ko berberak): 8 Araban

⁴ Kontuan izan behar dugu Osakidetza 1998az geroztik zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dela. Beraz enpresa publikoetatik handiena da, plantilla eta aurrekontuak kontuan izanik. Halere, ez da EAEko Memoria Sozioekonomikoaren atal honetan sartu, baizik eta "EAEko osasunari eta osasun sistemari" buruzko atalean.

II.4.12. Koadroa. EAEko enpresa-sektore publikoaren negozioen kopuruaren zenbateko garbia. Euroak, milaka

Jarduera sektorea	2007	2008	07-08 aldak.
Enpresa sustapena	94.655	78.274	-17,3
Etxebizitzak eta lokal komertzialak	131.744	104.419	-20,7
Energia	83.824	119.330	42,4
Zerbitzu informatikoak	65.287	76.150	16,6
Publizitatea irratian eta telebistan	34.490	35.398	2,6
Trenbidezko eta errepidezko garraioa	44.792	39.466	-11,9
Beste batzuk	19.643	13.329	-32,1
GUZTIRA	474.436	485.385	2,3

Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2008.

II.4.14. Koadroa. EAEko enpresa-sektore publikoko enpresen dimentsioa, osakidetza barne. 2008

2008ko plantilla	Enpresa kop.	Langile kop.	Aktiboak guztira (€, milioika)	Aktibo guztien %
< 50 Langile	45	360	1.112,19	27
50-250 Langile	11	1.286	1.121,25	27
> 250 Langile	4	33.831	1.874,00	46
Guztira	60	35.477	4.107,44	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2008.

(Araba Garapen Agentzia, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa, Kalkulu Zentroa, Fernando Buesa Arena, Naturgolf, Arabako Lanak, Araba Uraren Agentzia eta Arabako Bideak), 3 Gipuzkoan (IZFE, Etorlur eta Bidegi) eta gainerako 14ak Bizkaian (Aparcabis, Azpiegitura, Basalan, Beaz, Bizkaiko Bideak, Bizkailur, BBA Berrikuntza Agentzia, Euskalduna Jauregia, Garbiker, Lantik, Kirolgintzan, Seed Capital de Bizkaia, Rekalde Erakusketa Aretoa eta Interbiak).

II.4.13. Koadroa. EAEko enpresa-sektore publikoan lanean ari diren pertsonak. 2008

Sozietatea edo taldea	2008	%	2007	%
EITB taldea	944	29	936	31
Eusko trenbideak taldea	805	25	799	26
ETS	260	8	257	8
SPRI taldea	189	6	191	6
EJIE	179	6	176	6
Neiker	179	6	169	6
Itsasmendikoi	149	5	141	5
Uraren euskal agentzia	114	4	0	0
Euskadiko orkestra	104	3	100	3
Gainerakoak	321	10	293	10
Guztira	3.244	100	3.062	100

Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko enpresa-sektore publikoa. 2008.

II.4.15. Koadroa. Foru aldundiek partaidetutako sozietate publikoen emaitzak. (Euroak, milaka)

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Ald. %
2003	-4.553	22.461	1	17.909	-372,6
2004	-3.283	47.192	8.530	52.439	192,8
2005	8.565	46.907	15.145	70.617	34,7
2006	1.430	51.244	17.057	69.371	-1,3
2007	-10.409	74.935	8	64.534	-7,5
2008	-14.517	49.797	-8.068	27.212	-57,8

Iturria: Foru Aldundien datuekin egina.

Enpresa publiko horien emaitzei dagokienez, azken urteetan gertatzen ari denez, emaitza orokorra Bizkaian eta Gipuzkoan A8 autopista kudeatzeko sortu diren bi sozietateek (Interbiak eta Bidegi) baldintzatzen dute. Behin-behineko datuen arabera, 27,2 milioi euroko etekina egon da, aurreko ekitaldian baino %57,8 gutxiago; halere, bi sozietate horiek kontuan hartzen ez baditugu, gehieneko partaidetza foru aldundiena duten merkataritza-sozietateen emaitza 2008rako 32,1 milioiko galera litzateke (2007an -31,2).

5. EAE-ko¹ gizarte-ekonomiaren kontuak

Nazio Kontabilitateak zati handi bi eratzen ditu: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, “*hirugarren sektorea*” esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren azterketak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionalen sistemekin bat etorritik.

Horrela, merkatu edo enpresako gizarte ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan sozietateek eta mutuek osatuko lukete. Bestalde, merkatuz kanpoko gizarte-ekonomia batez ere elkarteek eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalen ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomiko ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute.


Sektoreak oro har (merkatukoak zein merkatuz kanpokoak) Europar daukan presentzia eta sektorearen ezaugarriak aztertuz gero, ondorio nagusia da Europako gizarte-ekonomia errealtate humano eta ekonomiko oso esanguratsua dela. ordaindutako 11 milioi lanpostu baino gehiago; gutxi gorabehera, Europar Batasunean lanean ari diren biztanleen %6 (2005eko datuak dira). Datu erantsi

horiek —balioespentzat baino ez dira hartu behar, EB osatzen duten herrietan forma juridiko ugari eta gizarte ezaugarri asko daudelako— agerian uzten dute errealtate horri ezin zaiola ezikusiarrena egin.

Gizarte-Ekonomiaren Espainiar Enpresa Konfederazioak (CEPES) uste du 2009ko abenduaren 31n espainiar gizarte-ekonomian guztira 45.093 erakunde zeudela eta 92.157 milioi euro fakturatzen zituztela (%–19,9 aurreko ekitaldiaren aldean). Gizarte-ekonomiarekin lotura ekonomikoa duten pertsonen kopurua (langileak) 2,3 milioi baino gehiago da. Bazkideak (langileak ez diren bazkideak, mutualistak eta abar), aldiz, 12,15 milioi pertsona dira.


EAE, Gizarte Ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuen arabera, 2007-2008 bi urtekoari dagozkionak, gizarte ekonomia guztira 2.203 enpresak osatzen dute, EAE 2.986 establezimendu dauzkatenak. Aipatutako denboraldian 62.615 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,3) eta 2.928 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren % 4,3).

II.5.1. Grafikoa. Gizarte-ekonomiako langileak Estatuan: Banaketa motaren arabera. 09.12.31



Iturria: CEPES. Gizarte-ekonomiako 2009-10 urtekaria.


II.5.2. Grafikoa. EAE-ko gizarte-ekonomiaren pisuaren bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

¹ Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2001 Lege onetsi berriarentzat, gizarte ekonomiaren erakunde dira “kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enplegu zentro bereziak, arrantzaileen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak”, eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Printzipio horiek honakoak dira:

- Pertsonak eta gizarte xedea kapitalari gailentzen zaizkio, eta azken horrek kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta parte hartzailea dauka, eta erabakiak hartzeko lehentasunak gehiago dira pertsonen eta haiek egindako lan ekarpenen eta erakundeari egindako zerbitzuen arabera edo gizarte xedearen arabera, kapital sozialari egindako ekarpenen arabera baino.
- Jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak batez ere bazkideek edo kideek emandako lanaren eta egindako zerbitzu edo jardueraren arabera eta, hala balegokio, erakundearen gizarte xedearen arabera aplikatzen dira.
- Barneko eta gizartearekiko elkatasuna sustatzen da, tokiko garapenarekiko konpromisoa, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna, gizarte kohesioa, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea, kalitatezko enplegu egonkorra sortzea, norberaren bizitza, familia eta lana bateratzea eta iraunkortasuna bultzatzeko.
- Botere publikoekiko independentzia.

II.5.3. Grafikoa. Gizarte-ekonomiako enpleguaren lurraldeko banaketaren bilakaera EAE-n


Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

2007-2008 biurtekoan lehen aldiz suntsitu ziren sektore horretako lanpostua eta establezimenduak estatistika hori abiatu zenetik. 2008an baietsi egin zen 2006 arte EAEko gizarte-ekonomiaren ekoizpen egituraren gertatutako hazkundearen haustura. Alde batetik, lanpostua %1,4 murriztu zen 2006aren aldean (aurreko biurtekoko %3,8aren aldean) eta establezimenduen %3,6ko suntsiketa garbia gertatu zen (%+2,1 2004 eta 2006 artean).

Epe luzeari begira, 1996 eta 2002 artean gizarte-ekonomia lanpostu sorkuntza garbian euskal ekonomia orokorra baino biziagoa izan zen bitartean (%+40,4 gizarte-ekonomian eta batez beste, ordea, %+24), 2002 eta 2008 artean joera kontrakoa izan zen (gizarte-ekonomiako enplegua %2,6 hazi zen eta ekonomia osoarena, aldiz, %+9,4). Edonola ere, 2008an gizarte-ekonomiako enpleguaren garrantzi erlatiboa erori egin zen: EAEko okupatutako biztanleriari dagokionez, haren ekarpena ehuneko 4 hamarren murriztu zen 2002ko maximo historikoaren aldean (%6,7) eta 3 2006koaren aldean, %6,3ra iritsita.

Sektorearen ikuspegitik, gizarte-ekonomiak —tradizioz industrialia— hirugarren sektorerantzko etengabeko prozesua izan du 1994an operazio estatistikoa hasi zenetik. Prozesu hori 2006 eta 2008 artean bizitu da, industriako enpleguaren erorketa handiaren ondorioz, haren bolumena %7,5 murriztu baita. Testuinguru horretan, industria enpresa txiki eta ertainen eta, zehazkiago, lan sozietateen portaera ez da aurreko biurtekoetan bezain positiboa izan, eta hori dela-eta 2008an sektore industrial osoak asko murriztu du gizarte-ekonomian duen pisu erlatiboa. Hirugarren sektoreko enpresek, aldiz, 2008an enpleguaren bolumen osoari eustea lortu zuten, 2006aren aldean %5,5 handituz (%+5,2 2004 eta 2006 artean).

Horren ondorioz, 2008an garrantzi handiko aldaketa kualitatiboa gertatu zen: gizarte-ekonomiak 2006a arte izan zuen izaera batez ere industrialia hautsi zen. Lehen aldiz, 2008an zerbitzuen sektorearen pisu erlatiboak industriarena gainditu zuen enpleguari dagokionez. 2006 eta 2008 artean industriaren partaidetza %51tik 47,8ra igaro zen bitartean, zerbitzuena %45,3tik 48,5era hazi zen.

II.5.4. Grafikoa. Gizarte-ekonomiak enpleguan duen garrantzi erlatiboa: Pisu sektoreka

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Gizarte-ekonomiaren kontuak.


Aldaketa horiek enpleguak gizarte-ekonomiako sektore bakoitzean duen pisuan ere izan du eragin handia: gizarte-ekonomiako enpleguak industriako enpleguan duen pisu erlatiboa %13,2tik %12,1era jausi zen. Gizarte-ekonomiako hirugarren sektoreak, aldiz, apur bat handitu zuen bere pisua hirugarren sektoreko pisu osoan, %4,6tik %4,8ra igarota. Hala ere, gizarte-ekonomian industria enplegua oraindik da sektore horri ekonomia osoan dagokiona baino askoz handiagoa; izan ere, gizarte-ekonomiako enpleguaren %47,8 da, eta orokorraren %25,4 (BJAko datuak hartuta).

Lurraldeko enpleguaren dinamikari dagokionez, aurreko urteetan agertutako joerak iraun dute; horrela, Gipuzkoa oraindik da erabakigarria (EAEko gizarte-ekonomiako enpleguaren %50,6), baina industrialagoa denez gero, Gipuzkoak azken biurtekoan ia puntu bat pisu erlatibo galdu du EAEko gizarte-ekonomiako enplegu osoaren gainean.

Ikuspegi sektorial batetik, gizarte-ekonomiak lurralde bakoitzean duen pisu espezifikoak erakusten du industriak Gipuzkoan daukan garrantzia, lurralde horretan baitaude industriako kooperatiba handietako asko (Gipuzkoako industriako lanpostuen %20,2 gizarte-ekonomiakoak dira). Bestalde, Bizkaian gizarte-ekonomiako sektore tertziarioak pisu espezifiko handiagoa du eta gehitzen ari da, bai establezimendu kopuruari dagokionez bai lanpostu kopuruari dagokionez.

Ekoizpenari dagokionez, EAEko gizarte-ekonomiako establezimendu guztiek sortutako BEGd 2.927,7 milioi eurora iritsi zen 2008an. Hori %0,54ko erorketa nominala da 2006aren aldean. Horrek esan nahi du gizarte-ekonomiak ekarpen txikiagoa egin ziola EAEko BPGd orokorrari. Euskal BPGd-ren hazkundeak, aurreko urteetan baino gutxiago bada ere, bide positiboan jarraitu zuen 2008an, gure erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresa sareak sortutako balioaren bilakaerak ez bezala. Eusko Jaurlaritzaren txostenak, bestalde, azpimarratu du zailtasunak egon eta kasu batzuetan deslokalizazio prozesuek iraun arren, EAEko gizarte-ekonomiako establezimenduek eta betez ere neurri handiko industria kooperatibenek 2008an kanporako irekiera maila handiei eustea lortu zutela. Fakturazio maila txikiagoek markatutako

II.5.5. Grafikoa. EAEko gizarte-ekonomiaren esportazioen helmuga. 2008



Iturria: Eusko jaurlaritza. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

testuinguruan, horrek esan nahi du esportazioek gizarte-ekonomiako enpresen fakturazioaren gainean duten pisu erlatiboa 1,4 puntu hazi dela 2006 eta 2008 artean. Hazkunde horri esker esportazioek %24,9ko ekarpena izan zuten fakturazioan, eta estatistika hori egiten denetik izandako parte hartzerik handiena da hori.

Esportazio horien helmuga batez ere Europa da (%80,8), baina Asiaren pisu erlatiboa ere nabarmena da (%7,8). Erdialdeko eta Hego Amerika, bestalde, pisu erlatibo txikiagoa izan arren (%6,9), bilakaera positiboagatik nabarmentzen dira, helmuga horietarako esportazioak %32,8 hazi baitira azken biurtekoan.

Azaldutako testuinguruan, enpresen forma juridikoari dagokionez gizarte-ekonomia estatistika horren aurreko edizioetakoaren oso antzekoa da, eta ezaugarri bereizgarri batzuk areagotu egin dira. Horrela, kooperatiben protagonismoa, eutsi ez ezik, areagotu egin da. Establezimenduei dagokienez, 2008an kooperatibek zentroen %63,5 batzen zituzten; Erantzukizun Mugatuko Lan Sozietateek (EMLS) eta Lan Sozietate Anonimoek (LSA), aldiz, %36,5 baino ez. Mota juridiko horren pisua are deigarriagoa da enpleguari erreparatzerakoan, erreferentziazko urtean, kooperatibek gizarte-ekonomiako lanpostuen %80,4 batu baitzuten, eta lan sozietateei, aldiz, %19,6 zegokien. 2006an zenbateko horiek %79 eta 21 ziren, hurrenez hurren.

Lan sozietateen testuinguruan, LSA da gizarte-ekonomian pisu erlatiborik handiena duen forma juridikoa (%12; EMLSek, ordea, %7,7). Establezimenduei dagokienez, aldiz, EMLSek LSAek halako bi daukate (%24,3 eta %12,2 hurrenez hurren).

Bilakaera alderdietan sakonduz, baietsi denez, kooperatibek %2,2 handitu dute establezimenduen kopurua 2006-2008 aldian. Hazkunde hori, ordea,

II.5.2. Koadroa. Gizarte-ekonomiako lanpostuen bilakaera forma juridikoaren arabera. 2006-2008

	2006		2008		2006-10 aldak. %
	Lanp.	%	Lanp.	%	
Kooperatibak	50.167	51,1	3.343	5,3	3,0
Lan sozietateak	13.313	27,7	5.608	9,0	9,2
— LSA	8.238	13,5	8.223	13,1	27,6
— EMLS	5.075	3,9	6.441	10,3	74,9
Guztira	63.480	100,0	62.615	100,0	-1,4

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-ekonomiaren estatistika, 2008.

II.5.1. Koadroa. EAEko gizarte-ekonomiako enpresen dimentsioa. 2008

	Enpresa kop.	%	Lanpos.	%	Tam. batez bestez
Gehien. 5 lanp.	1.125	51,1	3.343	5,3	3,0
6-15	610	27,7	5.608	9,0	9,2
16-50	298	13,5	8.223	13,1	27,6
51-100	86	3,9	6.441	10,3	74,9
101-200	39	1,8	5.738	9,2	147,1
201-500	26	1,2	7.668	12,2	294,9
500 lanp. baino gehiago	19	0,9	25.594	40,9	1.347,1
Total	2.203	100,0	62.615	100,0	28,4

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-ekonomiaren estatistika, 2008.


aurreko biurtekoan (%8) baino askoz txikiagoa izan da. Kooperatiba parkearen hazkunde hori ez da lan sozietateetan gertatutako aldaketak bezalakoa; izan ere, azken horietan establezimendu kopurua asko murriztu da, %12 gutxiago 2008an 2006aren aldean. Hondatze horren maila gorena LSAen kasuan gertatu da, %16,7 murriztu baitziren, EMLSen %–9,6ren gainerik.

Azkenik, kooperatibak, %0,4ko bilakaera positiboa izanda, aurreko biurteko enplegu mailari eustea lortu duen forma juridiko bakarra dira; lan sozietateek, aldiz, %7,9ko jaitsiera izan dute 2006-2008 aldian (jaitsiera maila hori, ordea, establezimendu kopuruko %–12,1ekoa baino apur bat txikiagoa da).

Atal hau bukatzeko, Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren 2009ko Emaizten Aurrerapenak agerian uzten du gizarte-ekonomian enplegua galtzeko joera sakontzen ari dela. 2006-2008 aldian enplegua %1,4 erori bazen, 2008. eta 2009. urteen artean %4,4ko murriztapena ikusi da. Horrek 59.385eko kopuruan kokatuko luke lanpostu bolumen osoa, 2006ko eta 2008ko kopuruak baino nabarmenki murriztagoa nahiz eta 2002 eta 2004an sektoreak edukitako enplegu datuetatik hurbil geratzen den.

Enpleguaren dinamika negatiboarekin paraleloan, EAEko GizarteEkonomia eratzen duten enpresa establezimenduen aurreikuspenek % 5,7ko erorketa erakusten dute 2008ko kopuruaren aldean fakturazio kopurutan. Horrek 9.205 milioi euroko fakturazio bolumena erakutsiko luke.

II.5.6. Grafikoa. Gizarte-ekonomiako lanpostuen eta fakturazioaren bilakaera EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

6. Lan-merkatua

Hamabost urtez enplegua sortzen etengabe ibili ondoren, 2009an EAEko lan-merkatuak beherakada nabarmena izan zuen landunen kopuruan. Ekonomiak dauzkan zailtasunak enplegura igaro ziren, 2006ko mailetara itzuliz. 2010ean esan daiteke okupazioaren jaitsierak bere erritmoa moteldu zuela; horretan bat datoz estatistika iturri guztiak, zenbait indarrekin.

Kontu Ekonomikoen arabera enpleguaren jaitsiera %0,8koa eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera %1ekoa bada ere, urtean batez beste okupazioa %0,3

jaitsi da BJAREN arabera; datu horrek urtean batez beste 2.600 lanpostu galdu zirela esan nahi du (-35.600 2009an). EINren BAIk, aldiz, enplegua batez beste %0,7 hazi zela dio. Edonola ere, lau estatistikak bat datoz adierazteko urteko bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetan enpleguak orokorrean hobera egin zuela, eta laugarrenean, aldiz, merkatua berriz hondatu zela.

Aldi berean, biztanleria aktiboaren hazkundea langabezia tasa apur bat txikiagoarekin batera etorri zen (urtean batez beste %9,2koa, eta %10ekoa laugarren hiru hilabeteetan).


II.6.1. Koadroa. EAE-ko enpleguaren eta langabeziaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak eta balio absolutuak (milakoak)

	2008ko batez bestekoa	2009ko batez bestekoa	2010eko batez bestekoa	2010			
				I	II	III	IV
LANDUNAK (BJA)	0,3	-3,6	-0,3	-1,5	0,1	1,3	-1,0
Lana dutenen kopurua, BJAREN* arabera	987,1	951,5	948,9	942,6	951,0	960,0	942,1
LANPOSTUAK (HKE)	1,1	-3,4	-0,8	-1,8	-0,6	-0,2	-0,5
Lana dutenen kopurua, HKE-en arabera	1.025,1	983,2	975,4	981,0	972,6	976,7	976,4
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	1,2	-3,5	-1,0	-2,1	-0,9	-0,6	-0,5
G. Segurantzaren afiliatutakoen kopurua	967,9	934,7	925,8	924,0	927,6	921,3	930,2
LANGABETUAK (BJA)	17,3	118,1	13,9	14,8	17,7	8,2	15,3
Langabetu kopurua BJAREN arabera	38,6	84,2	95,9	91,8	95,0	92,5	104,2
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (EEZP)	11,8	42,4	9,9	18,5	9,3	7,1	5,3
EEZPn erregistratutako langabetuen kopurua	84,6	120,5	132,4	137,0	130,1	128,6	133,8
LANGABEZIA TASA (BJA)	%3,8	%8,1	%9,2	%8,9	%9,1	%8,8	%10,0

Iturria: EUSTATen eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

* Biztanleria berrikusi ondoren jasotako emaitzak (2006ko oinarria).

II.6.1. Grafikoa. Enpleguaren bilakaeraren adierazleak EAEn: Urtetik urterako aldakuntza tasak.



Iturria: EUSTAT, EIN eta Gizarte Segurantzaren datuekin egina.

6.1. Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera

6.1.1. Jarduera eta okupazioa

Hasteko, BJAren datuek erakutsi dutenez, orokorrean 2010ean biztanleria aktiboa urtean batez beste apur bat hazi zen. Horrela, 2009an lan-merkatuan %55,6k parte hartzen bazuten, 2010ean %55,9 dira, EUSTATen sail historikoko jarduera tasarik handiena. Bilakaera horretan funtsezkoa da emakumea lan-merkatuan sartzea. Emakumezkoen jarduera tasa urtean batez beste %48,3koa izan zen, 2009an baino 7 hamarren gehiago, eta gizonezkoen dagokienera hurbiltzeko joerari eutsi zion, bien arteko aldea oraindik 15 puntutik gorakoa izan arren. Bestalde, gizonezkoen datuak ez ziren aldatu ia 2009aren aldean (%64 batez beste urte bietan), eta urtean gorabehera batzuk egon ziren.

Halaber, BJAren datuek diotenez, 2010ean Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturiko enpleguaren galeraren ondorioz, 16 eta 64 urte bitarteko artean enplegu-tasa %64,6 izan zen batez beste, Europako Batzordeak 2020rako ezarritakoa (%75) baino 10,4 puntu gutxiago. Europako batez bestekoa %64,2 izan zen, gure erkidegoan baino lau hamarren gutxiago.

EUROSTATen datuek erakutsi dutenez, azken urtean sei herritan baino ez dira batez besteko enplegu tasak hazi (Belgika, Alemania, Austria, Errumania eta Suedian hamarren bakan batzuk eta Maltan 1,1 puntu); Europako batez bestekoa eta EAEkoa, aldiz, puntu erdi inguru murriztu ziren. Estatuko ratioa, %58,6, 1,2 puntu jaitsi zen. EAEn 2009ko abenduaren eta 2010eko abenduaren artean okupazioak izandako jaitsiera %0,6koa izan zen, 9.000 lanpostu inguru galduta. Bilakaerarik txarrena gizonezkoen enpleguak izan zuen, azken urtean 11.100 lanpostu galduta; emakumezkoena, aldiz, 1.900 lanpostutan hazi zen. Bestalde, azken urtean 25 urtez azpiko enplegua %9,9 jaitsi zen eta 25 eta 44 urte artekoena %3,2; 44 urtez gorakoek egindakoa, ordea, %3,4 hazi zen.

Urteko batez besteko balioei begiratuz gero, 2010ean galdutako 2.600 lanpostuetatik, gizonek 5.800 galdu eta emakumeek 3.200 eskuratu zituzten; beraz, feminizazio indizea puntu erdi hazi zen, %44,7 arte.

Sektoreen arabera, 2009an krisiaren ondorioak gehien pairatu zituen sektorea industria izan zen bitartean, 2010ean eraikuntza da gehien jausi dena (urteko batez besteko balioak), bai lanpostuetan (-5.300), bai portzentajeetan (%-6,8)

Industriak eutsi egin zuen ia (300 lanpostu garbi galdu zituen, ozta-ozta) eta zerbitzuek enplegu garbia sortu zuten (3.300 lanpostu, %0,5). Lehen sektoreak, bestalde, atzerako egiturazko joerari eutsi zion (200 lanpostu galduta, %0,3).

Behin-behinekotasun maileri dagokienez, BJAren datuen arabera, behin-behineko kontratua duten soldatapekoen pisua zazpi urtez jarraian jaitsi ondoren, 2010ean haien ratioa hazi eta %20,2koa izan zen, 2009an baino 1,6 puntu gehiago. Hazkundera, gainera, sexu bietan gertatu zen: gizonen artean 1,4 puntu eta emakumeen artean 1,8 hazi zen. Ondorioz, sexuen artean behin-behinekotasunean dagoen arrakala hazi egin zen 2010ean EAEn. 6 puntukoa izan zen, aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago.


Datu horiek erakutsi dutenez, krisiaren hastapenean kaltetuena behin-behineko enplegua izan bazen, orain mugagabea da kaltetuena, krisiaren faserik gogorrenaren

II.6.2. Koadroa. Europako enplegu tasa: bilakaera "Europa 2020" estrategiaren helburua betetzearen arabera

	2009	2010	2009-10 aldak.	Ald. %75 arte
27-EB	64,6	64,2	-0,4	10,8
BEM	64,7	64,2	-0,5	10,8
Belgika	61,6	62,0	0,4	13,0
Bulgaria	62,6	59,7	-2,9	15,3
Txekiar E.	65,4	65,0	-0,4	10,0
Danimarka	75,7	73,4	-2,3	1,6
Alemania	70,9	71,1	0,2	3,9
Estonia	63,5	61,0	-2,5	14,0
Irlanda	61,8	60,0	-1,8	15,0
Grezia	61,2	59,6	-1,6	15,4
Espainia	59,8	58,6	-1,2	16,4
Frantzia	64,1	64,0	-0,1	11,0
Italia	57,5	56,9	-0,6	18,1
Txipre	69,9	69,7	-0,2	5,3
Letonia	60,9	59,3	-1,6	15,7
Lituania	60,1	57,8	-2,3	17,2
Luxemburg	65,2	65,2	0,0	9,8
Hungaria	55,4	55,4	0,0	19,6
Malta	54,9	56,0	1,1	19,0
Holanda	77,0	74,7	-2,3	0,3
Austria	71,6	71,7	0,1	3,3
Polonia	59,3	59,3	0,0	15,7
Portugal	66,3	65,3	-1,0	9,7
Errumania	58,6	58,8	0,2	16,2
Eslovenia	67,5	66,2	-1,3	8,8
Eslovakia	60,2	58,8	-1,4	16,2
Finlandia	68,7	68,1	-0,6	6,9
Suedia	72,2	72,7	0,5	2,3
Erres. Batua	69,9	69,5	-0,4	5,5
EAE	65,2	64,6	-0,6	10,4

Iturria: EUROSTAT eta LANBIDEn datuekin egindakoa.

II.6.2. Grafikoa. Enplegua EAEn: Urtetik urterako tasen bilakaera EUSTATen BJAren eta EINren BAren arabera.




Iturria: EUSTAT eta EINren datuekin egindakoa.

II.6.3. Koadroa. Lana duten eta langabezian dauden biztanleak, sektoreka

	Batez beste (milakotan)		Igoera (milakotan)		Urte arteko aldakuntza-tasa (%)	
	2009	2010	08-09	09-10	08-09	09-10
Landunak - BJA	951,5	948,9	-35,6	-2,6	-3,6	-0,3
Lehen sektorea	8,9	8,7	-3,3	-0,2	-27,0	-2,2
Industria	225,3	225,0	-27,0	-0,3	-10,7	-0,1
Eraikuntza	77,8	72,5	-5,1	-5,3	-6,2	-6,8
Zerbitzuak	639,4	642,7	-0,2	3,3	0,0	0,5
Langabezia - BJA	84,2	95,9	45,6	11,7	118,1	13,9
Lehen sektorea	0,1	0,9	-0,2	0,8	-66,7	800,0
Industria	21,1	20,4	12,9	-0,7	157,3	-3,3
Eraikuntza	11,6	14,3	7,1	2,7	157,8	23,3
Zerbitzuak	47,2	55,8	24,7	8,6	109,8	18,2
1. lanpostua bilatzen ari direnak	4,0	4,5	0,9	0,5	29,0	12,5

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

II.6.3. Grafikoa. Behin-behineko kontratuak eta "kontraturik gabe eta beste batzuk" egoerak soldatapeko guztietan duten pisuaren bilakaera, sexuaren arabera, EAE-n

Iturria: EUSTAT. BJA.

ondoren sortutako enplegua behin-behinekoa izan delako, atzeraldien hastapeneko mailalara itzulita. Gure erkidegoko behin-behinekotasuna %20 ingurukoa da. Europan, antzeko datuak daude Holandan eta Portugalen; Europako Batasun osorako batez bestekoa, aldiz, %14 da, eta eurogunerako %15,7. Behin-behinekotasun ratorik handienak Espainian (%24,9) eta Polonian (%27,3) daude. Bestalde, kontraturik gabeko eta bestelako egoerak jasotzen dituen tasak, batez ere emakumeei eragiten dienak, %2,4n iraun zuen. Emakumeentzat %4,4 izan zen, aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago eta hamarkadako tasarik txikiena, eta gizonentzat %0,6, azken urtean bi hamarren hazita.


Adin-talde bakoitzari dagokionez, oraindik ere behin-behineko kontratuak eta kontraturik gabekoak dituztenen tasarik altuenak adinez gazteenak direnak osatzen dituzte, aurreko urtean baino gutxiago badira ere. Zehazki, 16 eta 24 urte arteko emakumeen %62,1ekk (2009an baino 4,1 puntu gehiago) eta gizonen %59,9k (2009an baino 3,8 puntu gehiago) behin-behineko kontratua dute. Adin talde horretan "kontraturik gabeko eta bestelako" egoera duten soldatapeko pertsonen tasak %7,2 eta %1,8 dira, hurrenez hurren (aurreko urtearekin alderatuta, emakumeen tasa ia bi puntu murriztu da eta gizonena bikoiztu egin da). Gogoan hartu behar da, arestian esandakoak zehazteko,

II.6.4. Koadroa. EAE-n 16 urte edo gehiago eta soldatapeko lana duten biztanleen bilakaera, kontratu motaren eta sexuaren arabera

		2008	2009	2010	% 08-09	% 09-10	2009	2010
Guztira	Guztira	802,1	787,7	784,0	-1,8	-0,5	100,0	100,0
	Gizonak	442,9	425,1	415,5	-4,0	-2,3	100,0	100,0
	Emakumeak	359,2	362,5	368,6	0,9	1,7	100,0	100,0
Mugagabea-finkoa	Guztira	617,5	622,1	607,2	0,7	-2,4	79,0	77,4
	Gizonak	358,7	355,0	341,1	-1,0	-3,9	83,5	82,1
	Emakumeak	258,9	267,0	266,1	3,1	-0,3	73,7	72,2
Aldi baterakoa	Guztira	163,4	146,5	158,3	-10,3	8,1	18,6	20,2
	Gizonak	82,4	68,2	72,1	-17,2	5,7	16,0	17,4
	Emakumeak	81,0	78,3	86,1	-3,3	10,0	21,6	23,4
Kontraturik gabe eta bestelakoak	Guztira	21,2	19,1	18,7	-9,9	-2,1	2,4	2,4
	Gizonak	1,9	1,9	2,3	0,0	21,1	0,4	0,6
	Emakumeak	19,3	17,2	16,4	-10,9	-4,7	4,7	4,4

Iturria: EUSTAT, BJA.

II.6.4. Grafikoa. Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera EAEn eta Estatuan: Urteko aldakuntza tasak eta EAEk Estatuan duen pisua



Iturria: Gizarte Segurantzak.

II.6.5. Koadroa. Enpleguaren adierazleak Europar Batasunean 2009-2010

	Langabezia tasa		Gazteen langab. tasa		Behin behinekotasun t.	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010
27-EB	9,0	9,6	19,7	20,9	13,4	14,0
BEM	9,5	10,1	19,6	20,3	15,2	15,7
Belgika	8,0	8,3	21,9	22,4	8,2	8,1
Bulgaria	6,9	10,2	16,2	23,2	4,6	4,5
Txekiar errep.	6,8	7,3	16,6	18,3	7,5	8,9
Danimarka	6,1	7,4	11,2	13,8	8,9	8,6
Alemania	7,8	7,1	11,0	9,9	14,5	14,7
Estonia	14,1	16,9	27,5	32,9	2,5	3,7
Irlanda	12,0	13,7	24,2	27,8	8,5	9,3
Grezia	9,6	12,6	25,8	32,9	12,1	12,4
Espainia	18,1	20,1	37,8	41,6	25,5	24,9
Frantzia	9,1	9,7	22,6	23,3	13,5	15,1
Italia	7,9	8,4	25,4	27,8	12,5	12,8
Txipre	5,4	6,5	13,8	17,8	13,5	13,5
Letonia	17,5	18,7	33,6	34,5	4,4	6,8
Lituania	13,9	17,8	29,2	35,1	2,3	2,4
Luxemburg	5,2	4,5	17,2	16,1	7,2	7,1
Hungaria	10,1	11,2	26,5	26,6	8,4	9,7
Malta	7,0	6,8	14,4	12,9	4,7	5,7
Holanda	3,4	4,5	6,6	8,7	18,0	18,5
Austria	4,9	4,4	10,0	8,8	9,1	9,3
Polonia	8,3	9,6	20,6	23,7	26,4	27,3
Portugal	10,0	11,0	20,0	22,4	22,0	23,0
Errumania	7,2	7,3	20,8	22,1	1,0	1,1
Eslovenia	6,0	7,3	13,6	14,7	16,2	17,3
Eslovakia	12,1	14,4	27,3	33,6	4,3	5,8
Finlandia	8,4	8,4	21,5	21,4	14,5	15,5
Suedia	8,5	8,4	25,0	25,2	14,9	15,8
Erres. Batua	7,7	7,8	19,1	19,6	5,5	6,1
EAE	8,1	9,2	23,0	25,0	18,6	20,2

Iturria: EUROSTATen (2010eko maiatzaren 17an jasotako datuak) eta EUSTAT eta BJAren datuen bidez egindakoa.

16 eta 24 urte arteko pertsonen %30ek baino ez dutela lan-merkatuan parte hartu.

Azkenik, eta 2010eko abenduan zegoen Gizarte Segurantzako afiliatioari dagokionez, afiliatio kopurua

II.6.6. Koadroa. Jarduera eta langabezia tasen bilakaera sexu eta adin talde bakoitzeko. Urteko batez bestekoak

	Jarduera tasa			Langabezia tasa		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010
>16 biztanleria	55,0	55,6	55,9	3,8	8,1	9,2
16-24	34,6	32,0	31,9	9,8	23,0	25,0
25-34	86,7	87,5	87,0	4,9	11,0	11,9
35-44	86,3	87,7	87,5	3,2	7,0	7,6
45-54	79,4	79,8	80,9	2,5	5,6	7,2
55-64	42,8	43,7	47,1	1,8	3,2	4,9
+64	0,9	0,8	1,2	0,0	0,0	0,0
Gizonezk. GUZTIRA	64,3	64,0	64,0	3,4	8,4	9,6
16-24	37,1	34,8	32,9	10,4	26,8	28,8
25-34	89,7	90,3	89,9	5,3	12,2	14,0
35-44	94,9	94,9	94,7	2,7	6,5	7,5
45-54	92,0	90,7	90,8	1,7	5,3	6,5
55-64	57,5	57,0	60,2	1,7	3,5	5,5
+64	1,6	1,0	1,6	0,0	0,0	0,0
Emakum. GUZTIRA	46,3	47,6	48,3	4,2	7,8	8,6
16-24	31,9	29,1	30,7	9,2	18,2	20,6
25-34	83,4	84,5	84,0	4,6	9,5	9,5
35-44	77,3	80,2	80,0	4,0	7,5	7,7
45-54	67,2	69,3	71,2	3,6	5,9	8,1
55-64	28,9	30,9	34,5	2,0	2,7	3,9
+64	0,5	0,7	0,9	0,0	1,4	0,0

Iturria: EUSTAT, BJA.

%0,3 jaitsi zen aurreko urteko abenduko kopuruarekin alderatuta (%-0,9 Estatuak batez bestekoak). Araubideen arabera, eta ekitaldia ixteko uneko zenbatekoen arabera, ziurgabetasun ekonomikoko testuingurua gorabehera, etxeko langileen araubidea %5,2 hazi zen 2009ko amaieraren aldean. Autonomoak eta itsasoko langileak batez bestekoa baino gehiago jaitsi ziren (%-1,6 eta -2,7, hurrenez hurren), eta araubide orokorra, ordea, %0,1 baino ez zen murriztu.

Jarduera sektoreen arabera, industria azken urtean %2,3 jaitsi zen, hots, sektore horri lotutako 4.725

**II.6.7. Koadroa. Gizarte segurantzako afiliazioa, jarduera sektorearen eta lurralde historikoaren arabera
Abenduko hilabeteak.**

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2009ko abe.	2010eko abe.	Ald. %	2009ko abe.	2010eko abe.	Ald. %	2009ko abe.	2010eko abe.	Ald. %	2009ko abe.	2010eko abe.	Ald. %
Lehen S.	12.895	12.172	-5,6	4.763	4.305	-9,6	4.979	4.881	-2,0	2.771	2.986	7,8
Industria	201.695	196.790	-2,3	40.954	40.308	-1,6	83.411	80.997	-2,9	77.250	75.665	-2,1
Eraikuntza	77.271	71.652	-7,3	10.992	10.021	-8,8	41.861	39.181	-6,4	24.418	22.450	-8,1
Zerbitzuak	639.099	646.937	1,2	95.629	97.810	2,3	339.860	343.998	1,2	203.334	205.129	0,9
Guztira	930.960	927.731	-0,3	152.338	152.444	0,1	470.111	469.057	-0,2	308.511	306.230	-0,7

Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.

afiliatu desagertu ziren. Sektorearen barruan gehien jaitsi diren jarduerak metalezko produktuen fabrikazioa eta makineriaren fabrikazioa izan ziren; beste batzuek, hala nola elikagaiek eta ibilgailuen fabrikazioak, portaera positiboak izan zituzten. Bestalde, eraikuntza sektorerik kaltetuena izan zen 2010ean, afiliazioaren %7,3, 5.619 afiliatu, galduta. Zerbitzuek, bestalde, azken urtean saldo positiboa izan zuten sektore bakarra dira (%+1,2); hazkunde nabarmenak izan zituzten, besteak beste, honako jarduerak: janari zerbitzuek, hezkuntzak, eta txikizkako merkataritza; beste batzuk, hala nola lurreko garraioa eta segurtasuna, jaitsi egin ziren.

Bestalde, EAEen 2010eko abendurako Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzeritarrek, batez beste, 52.112 izan ziren, gure erkidegoko afiliatu guztien %5,6 (gizonen %5,7 eta emakumeen %5,4). Azken urtean atzeritarren afiliazioa %2 hazi zen, bertoko afiliatuen kopurua %0,5 jaitsi arren. Jatorrizko eskualdearen arabera, %67,6 EBtik kanpo etorri ziren, eta gainontzeko %32,4 EBko herrietatik. Europako Batasunetik etorritakoen artean jatorrizko herririk ohikoenak Errumania eta Portugal dira, eta Batasunetik kanpokoei dagokienez, Kolonbia, Bolivia, Maroko eta Ekuador dira. Atzeritar afiliatuen proportziorik handiena eraikuntzak, krisia gorabehera, ostalaritzak eta merkataritzak izan zuten.

6.1.2. Langabezia

Enpleguaren jaitsieraren eta populazio aktiboaren hazkundearen ondorioz, langabeziak gora egin du 2010ean, baina 2009an baino gutxiago. BJAren langabezi tasa orokorra, urtearen amaieran, %10ekoa zen eta %9,2koa, lau hiruhilekoen batez bestekoa. Datu horiek ez dira lortu 2001eko hasieratik eta EBko batez bestekotik

hurbilago daude (%9,6 EB-27ko eremuan eta %10,1 europarean). Europan, langabeziak balio ugari hartzen ditu, %20tik gorako balioetatik, Espainian bezala, eta %16 eta 18 artekoetatik, Baltikoko Estatuetan bezala, %5 edo gutxiagoko ratioetara, Austria, Holanda edo Luxemburg bezalako herrietan bezala. AEBk europarean antzeko langabezia tasa dauka, Japoniakoa %5,1 da, Frantziak eta Poloniak Europako batez bestekoaren antzeko ratioak dauzkate, eta Alemania 3 puntu azpitik dago, adibide batzuk ematearren.

2010ean hirugarren urtez jarraian gure erkidegoko langabetu kopurua hazi egin da; adin tarte guztiei eragin die, baina batez ere gazteenei; horrela, haien langabezia tasa batez beste %25 ingurukoa izan zen, baina urteko laugarren hiruhilekoan %28 artekoa. Europan, gazteen langabezia tasa %20tik gorakoa izan zen Batasun osorako, baina herri baltikoetan eta Eslovakian, besteak beste, %30etik gorakoa izan zen, eta Espainian %40tik gorakoa. Beste muturrean Holanda eta Austria daude, %8,7-8,8 ratioekin.

Dena dela, kontuan izan behar da langabezia 44 urtez gorakoen artean hazi zela gehien, bai zenbaki absolutuetan (+7,300) bai erlatiboetan (%+39,7); beraz, urteko batez bestekoan, EAEko langabetuen %26,8 44 urtez gorakoak ziren, aurreko urtean %21,9 izan ondoren.


Sektoreka, langabetuen %58,2 zerbitzuen sektorekoak ziren. Sektore horretan langabezia %18,2 hazi zen (2009an %108 baino gehiago). Halaber, eraikuntzan ere langabezia %23,3 hazi zen (batez besteko %+13,9ren gainetik), eta industriaren sektorean langabetuen kopurua %3,3 murritu zen (700 lagun garbi). Bestalde, lehenengo lanpostua bilatzen ari diren pertsonen taldean 500 gehiago izan ziren, 4.500 batez beste urtean.

II.6.8. Koadroa. Langabetuak EAE-n. Aldagai nagusien bilakaera

	Pertsona kopurua			Aldea		Aldakuntzaren %		Langabezia-tasa	
	2008	2009	2010	2008-09	2009-10	2008-09	2009-10	2009	2010
Guztira	38.600	84.200	95.900	45.600	11.700	118,1	13,9	8,1	9,2
Gizonak	19.900	48.600	56.000	28.700	7.400	144,2	15,2	8,4	9,6
Emakumeak	18.700	35.600	39.900	16.900	4.300	90,4	12,1	7,8	8,6
16-24 urte	6.200	13.000	13.800	6.800	800	109,7	6,2	23,0	25,0
25-44 urte	24.000	52.800	56.300	28.800	3.500	120,0	6,6	8,9	9,6
+45 urte	8.400	18.400	25.700	10.000	7.300	119,0	39,7	4,8	6,4
Lehen mailako ikasketak	2.500	6.800	8.900	4.300	2.100	172,0	30,9	6,6	8,7
Erdi mailako ikasketak	27.900	60.400	67.200	32.500	6.800	116,5	11,3	10,1	11,4
Goi mailako ikasketak	8.200	16.900	19.800	8.700	2.900	106,1	17,2	5,0	5,6
Inoiz lan egin dute	35.400	80.200	91.400	44.800	11.200	126,6	14,0		
Lehenengo lanaren bila	3.100	4.000	4.500	900	500	29,0	12,5		

Iturria: EUSTAT, BJA.

II.6.5. Grafikoa. EAEko langabezia tasaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera




Iturria: EUSTAT. BJA.

aldean). Azken urtean, langabeziak ia egonkor iraun du Araban (2009ko batez bestekoaren aldean hamarren bat hazi zen ozta-ozta); Bizkaian, aldiz, puntu bat hazi da eta Gipuzkoan 9 hamarren.

Bestalde, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabeziak BJA gainditu zuela ikusi da. 2010eko abenduan EEZPn 135.961 langabetu erregistratu ziren (%6,1 aurreko urtearekin alderatuta) eta EUSTATen biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak 104.200 langabetu kalkulatu zituen urteko laugarren hiruhilekoan, izan ere, inkesta horretako langabetuen sailkapenak kanpo uzten ditu enplegu-eskatzailerik gisa izena eman duten hainbat pertsona¹.

Aurreko urteko bilakaerarekin erkatuta, zenbait alde ikusten dira: gutxiago hazi ez ezik (%+6,1, 2009ko abenduko urtetik urterako %+27,4ren aldean), 2009an langabezia gehiago hazi zen gizonen artean emakumeen artean baino. 2010ean emakumeen langabezia gehiago hazi zen (%+8,7) gizonezkoena baino %+3,4); azken hori orekatzen hasi zen, industria jarduera leheneratu baitzen.

II.6.6. Grafikoa. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera, EAEn eta Europan



Iturria: EUROSTAT eta EUSTATen datuen bidez egina.

Era berean, lehen mailako ikasketak dituzten langabetuak 8.900 ziren, %30,9 gehiago, %8,7ko langabezia tasa izan arte. Bestalde, erdi mailako ikasketak dituztenak 67.200 ziren (guztien %70), %11,3 gehiago, langabezia tasa batez bestekoa baino handiagoa izan arte: %11,4. Azkenik, goi-mailako ikasketak dituzten langabetuak batez beste baino gehiago ugartu arren (%17,2), langabezia tasa txikiagoa zuten, %5,6.

Lurraldez lurralde, Araban eta Bizkaian langabezia tasak oso antzekoak dira (%10 batez beste urtean), eta Gipuzkoan, aldiz, EAEko batez bestekoa baino puntu bat txikiagoa da (%7,4, EAEko batez besteko %9,2ren

II.6.9. Koadroa. Estatuko enplegu zerbitzu publikoaren bulegoetan erregistratutako langabezia EAE-n (abendua).

	2008ko abe.	2009ko abe.	2010eko abe.	% 2008-09	% 2009-10
Guztira	100.637	128.201	135.961	27,4	6,1
Gizonak	48.694	65.085	67.330	33,7	3,4
Emakumeak	51.943	63.116	68.631	21,5	8,7
Adina < 25 urte	9.275	11.852	11.129	27,8	-6,1
Gainerako adinak	91.362	116.349	124.832	27,3	7,3
Atzeritarrak	10.005	13.939	17.331	39,3	24,3

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

¹ Operazio bien arteko alde metodologikoak oso handiak dira eta beraz ezin dira erkatu, langileak sailkatzeko modu desberdinez gain, EEZPren kopuruak erregistroetatik datozen bitartean, BJArenak lagin batean oinarrituta egindako inkesta batetik datozelako. Halaber, kontuan izan behar da Europako Batzordearen 1897/2000 araudiari jarraituz, urte harrezkero, BJAk langabetutzat jotzen dituela, soldatapeko lanik edo independenterik ez izateaz eta egun lan bila eta lan egiteko prest egoteaz gain, aurreko lau asteetan Araudi horretan lan bilaketa "aktibo"tzat jotako gestioaren bat egin duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea. Horren ondorioz, EUSTATen inkestak "langabetua" kontzeptutik kanpo uzten ditu EEZPn hala erregistratutako pertsona asko.

Bestalde, luzapen handiko langabezia asko hazi zen, %20,3 aurreko urtearen aldean; horrela, hiru langabetutik bat egoera horretan gutxienez urtebetez egon zen.

Bestalde, ikusi denez, atzeritarren artean langabezia azkarrago hazi zen (%+24,3) bertakoen artean baino eta, beraz, atzeritar langabetuen pisua gero eta handiagoa da: egun guztien %12,7 dira, 2009ko abenduan baino 1,9 puntu gehiago.

6.2. Lan-merkatuko sarrera eta irteera fluxuak

6.2.1. Kontratazioaren egoera

2010eko kontratazioaren azterketak egungo egoera ekonomikoa islatzen du; horrela, leheneratzea erakusten du (%5,3 hazi da, Eusko Jaurlaritzaren Koiunturaz aldizkariak —2011ko I. hiruhilekoa— kontratu berriei buruz egindako azterketaren arabera), aurreko urte bietan

jaitsierak izan ondoren, 2003-2007 aldian bilakaera ona izan zenean. Hala ere, lanaldi osoko kontratu mugagabeak jaisten jarraitu dute, 2009an baino tasa txikiagoan, baina asko oraindik, %11,7 2009aren aldean.

Joera aldaketa horri behin-behineko kontratuen igoerak lagundu dio, 2010eko uztaillean indarrean sartu zen lan erreformaren ondoren.

Behin-behineko kontratuen hedatzea argiagoa da kontratu mota guztien pisu erlatiboak aintzat hartuz gero: horrela, kontratu mugagabeek pisua galdu dute azken urteetako kontratu guztien artean: 2007an kontratu %5,3 baziren, 2010ean %3,8 biltzen zituzten.

EEZPren datuek erakutsi dutenez, 2010ean 710.042 lan kontratu guztira (berriak zein bihurtuak zenbatuta), aurreko urtean baino %5,3 gehiago (+36.035). Horietatik %51,5 emakumeek sinatu zituzten (aurreko urteko %54,1en aldean); horiek 2009an kontratatutako pertsonen %46,5 ziren (azken datu eskuragarria). Lurraldeka, Gipuzkoak

II.6.10. Koadroa. EAE-n egondako lan kontratuen bilakaera

	Kontratu kop.			Urteen arteko aldakuntza %				
	2008	2009	2010	2006	2007	2008	2009	2010
Mugag. lanaldi osoan	27.170	18.481	16.318	9,4	31,3	-8,7	-32,0	-11,7
Lan edo zerbitzua	171.954	135.728	146.751	-0,1	0,7	-11,4	-21,1	8,1
Behin-behinekoak	219.123	157.780	175.256	3,2	5,1	-9,4	-28,0	11,1
Lanaldi partziala	247.844	223.769	234.500	2,9	3,3	-1,3	-9,7	4,8
Prestakuntzakoak*	7.756	4.833	5.224	0,7	-4,2	-13,0	-37,7	8,1
Gainerakoak	119.323	111.524	110.668	8,8	4,8	7,9	-6,6	-0,8
HASIERAKO KONTRATUAK	793.170	652.115	688.717	3,1	4,1	-5,2	-17,8	5,6
Bihurtuak**	29.762	21.892	10.336	72,6	-29,2	-9,3	-26,4	-52,8
KONTRATUAK GUZTIRA	822.932	674.007	710.042	5,4	2,3	-5,3	-18,1	5,3

* Prestakuntza kontratuetan lanaldi partzialeko praktiketako kontratuak sartzen dira.

** Mugagabe bihurtutako kontratuak eta gizarte lankidetzako atxikipenak.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. KOIUNTURAZ aldizkaria, 74. zki. 2011ko I. hiruhilekoa, EEZPko datuekin.

II.6.11. Koadroa. EAE-ko kontratazioa (kontratu berriak eta bihurtuak) sexuaren eta jardueraren arabera (EJSN 2009)


	2010eko kontratuak				09/10 ald. %
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	% Bertikala	
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	11.283	1.544	12.827	1,8	18,0
Erauzketa-industriak	73	16	89	0,0	-22,6
Manufaktura-industria	43.612	10.647	57.789	8,1	19,7
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren hornikuntza	35	22	57	0,0	-20,8
Uraren hornikuntza, hondakinen kudeaketa	3.344	464	3.808	0,5	-10,2
Eraikuntza	44.967	2.521	47.488	6,7	-6,6
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketak	20.935	41.545	62.480	8,8	13,3
Garraioa eta biltegiatzeak	18.325	8.475	26.800	3,8	3,6
Ostalaritza	21.572	79.085	70.657	10,0	10,4
Informazioa eta komunikazioak	11.746	7.881	19.627	2,8	1,5
Finantza eta aseguru jarduerak	1.500	2.569	4.069	0,6	-5,9
Higiezin alorreko jarduerak	510	512	1.022	0,1	16,7
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	10.077	18.061	28.138	4,0	7,4
Administrazio-jarduerak	109.517	107.718	217.235	30,6	14,2
Herri-administrazioa	4.933	6.376	11.309	1,6	6,1
Hezkuntza	9.142	20.999	30.141	4,2	4,7
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	11.894	62.469	74.363	10,5	-4,1
Jarduera artistikoak, jolaserako eta entretenimendurako jarduerak	15.181	10.725	25.886	3,6	9,4
Beste zerbitzu batzuk	5.598	10.027	15.625	2,2	6,0
Langileen enplegatzaile gisako etxeak	289	336	625	0,1	4,9
Lurraldeez kanpoko erakundeak eta organismoak	4	3	7	0,0	75,0
GUZTIRA	344.537	365.505	710.042	100	5,3

Iturria: LANBIDEn datuekin egindakoa. Azterketa, lerketa eta Estatistika Zerbitzua, EEZPren bidez.


II.6.12. Koadroa. EAE-n egondako lan kontratu mugagabeen bilakaera. Datuak ehunekoetan.

	2006	2007	2008	2009	2010
Mugagabe arruntak	1,61	2,53	2,56	2,14	1,70
Mugagabe berriak	1,18	0,99	0,84	0,67	0,64
Lanaldi osoko gainontzeko mugag.	0,04	0,03	0,03	0,03	0,03
Lanaldi osoko mugagabeak	2,82	3,56	3,43	2,83	2,37
Lanaldi partzialeko mugagabeak	1,36	1,72	1,81	1,70	1,46
MUGAGABEAK GUZTIRA	4,18	5,28	5,23	4,53	3,83
KONTRATU BERRIAK GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritz. KOIUNTURAZ aldizkaria, 74. zki. 2011ko I. hiruhilekoa, EEZPren datuekin.

II.6.7. Grafikoa. EAEko kontratazioaren bilakaera jardura sektorearen arabera

Iturria: EEZPren datuekin egina.

II.6.8. Grafikoa. EAEko lan txandakatzearen bilakaera sexuaren arabera

Iturria: LANBIDE eta EEZPren datuekin egina.

kontratuen %29,3 hartu zituen (2009an %29,5), Bizkaiak %53,6, gora eginez (+1,4 puntu) eta Arabak %17,1 (2009an kontratuen %18,3 izan zituen). Estatuan, 2010ean guztira 14.421.063 kontratu egon ziren, aurreko urtean baino %2,8 gehiago eta, beraz, EAEn bezala, aurreko urte bietako joera txarra aldatu zen.

Sektoreka, industriak %17,4 kontratu gehiago izan zituen, zerbitzuek %8,5 eta eraikuntzak, aldiz, %6,6 galdu zituen. Hala eta guztiz ere, hirugarren sektoreak erregistratutako kontratuen %82,8 hartu zituen, aurreko urtean baino hamarren bi gehiago: industriak %8,7 (+7 hamarren),

eraikuntzak %6,7 (puntu bat galdua) eta lehen sektoreak %1,8 (hamarren bat gehiago).

Bestalde, EEZPren datuek erakutsi dutenez, 2010ean, gure erkidegoan sinatutako kontratu guztietatik, 88.284 atzeritarrek sinatu zituzten, kontratu guztien %12,4 eta 2009an baino %0,4 gehixeago. Urte horretan atzeritar langileen kontratazioa %18 jaitsi zen, biztanle guztienaren antzera (atzeritarrek eta bertoko langileak); beraz, datuek erakutsi dutenez, 2010ean kontratazio osoa apur bat leheneratu den bitartean, atzeritarrena ez da, momentuz, proportzio berean leheneratu. Atzeritarrek sinatutako

II.6.13. Koadroa. Kaleratuen bilakaera EAE-n (Lan Ministerioa)

	Balio absolutuak			Aldakuntza %	
	2008	2009	2010	08/09	09/10
Kaltetutako langileak GUZTIRA	19.574	89.154	48.694	355,5	-45,4
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	1.789	1.691	1.018	-5,5	-39,8
Gizarteko gai judizialak	2.988	4.123	3.787	38,0	-8,1
Enpleguaren erregulazioa	14.797	83.340	43.889	463,2	-47,3
ADOSTUTAKO KALERATZEEN BANAKAKO ADISKIDETZEETAN ERABAKITAKO KOPURUAK:					
Zenbatekoa guztira (mila €)	76.741	78.916	82.520	2,8	4,6
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	73.093	74.087	56.875	1,4	-23,2
Gizarteko gai judizialak	3.648	4.829	25.645	32,4	431,1
Batez besteko zenbatekoa (€)	16.065	13.573	17.174	-15,5	26,5
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	40.857	43.813	55.869	7,2	27,5
Gizarteko gai judizialak	788	1.171	6.772	48,6	478,3

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa. Lan Arloko Estatistika Aldizkaria.

kontratu guztietatik, %27k EBko pertsonak sinatu zituzten eta gainontzeko %73 EBtik kanpoko herrietakoek. Halaber, azpimarratzekoa da atzeritarrei egindako kontratu berrien %95 behin-behinekoak izan zirela, kontratu guztiei dagokienez %96,3 izan ziren bitartean.

Bukatzeko, lan txandakatzeari buruzko datuek (sinatutako kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsonen arteko zatidura) jaitiera handia erakutsi dute 2010ean, ratioa urte osoan pertsona bakoitzeko 1,83 kontratukoa baita, 2009an baino 0,68 gutxiago. Bilakaera hori sexu bietan gertatu da, txandakatzea gizonentzat (2,15 kontratutik 1,71ra igaro da) eta emakumeen artean ere (2009ko 2,92 kontratuetatik 2010eko 1,95etara) murriztu baita.

6.2.2. Banakako eta taldeko irazpenen bilakaera

Lehenengo eta behin, gogorarazi behar da erregistraturiko banakako kaleratzeak autonomia erkidegoko lan-administrazioako agintaritzak eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ordezkaturik) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi

aldeak ados egonik egin direla, baita lan arloko epaitegien bidez izapidetutakoak ere; kaleratze horiek Lan eta Immigrazio Ministerioari jakinarazten zaizkio.

Beste alde batetik, taldekako kaleratzeak enpresa batek enplegua erregulatzeak aurkeztutako espediente baten bidez burutzen dira (langileen legezko ordezkarien adostasuna izan ala ez), lan-harremanak amaitzea eskatzeko (lanaldia eteteko edo murrizteko ere eska daitezke), arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamenduari edo ekoizpenari lotutakoak direla-eta, edo ezinbesteko kasu bategatik edo enpresariaren nortasun juridikoa amaitzeagatik, eta eskuduna den lan-administrazioako agintaritzak ebazten du. Agintaritzak hori Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Lan Zuzendaritza da, arlo horretako eginkizunak baititu. Edonola ere, kontuan izan behar da Lan eta Immigrazio Ministerioak gai horren inguruan argitaratutako estatistikek ez dituztela kaleratze guztiak jasotzen. Horren arrazoiak zera da, arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendu-arrazoiak edo ekoizpenekoak direla-eta kaleratzeko ez

II.6.14. Koadroa. Enplegua erregulatzeak EAE-n baimendutako espedienteak: kalteturiko langileak eta haien kopurua (Eusko Jaurlaritza)

	2008	2009	2010	Ald. %-tan, 08/09	Ald. %-tan, 09/10
Espedienteak	496	2.565	1.993	417,1	-22,3
Kaltetutakoak	2.795	68.722	35.426	437,1	-48,5
Espediente mota					
Murrizketa	108	1.170	1.051	983,3	-10,2
Etetea	11.217	65.568	32.349	484,5	-50,7
Amaitzea	1.470	1.984	2.026	35,0	2,4


Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza.

da behar administrazioaren baimenik taldekako kaleratze gisa ezarritako langile kopurua baino gutxiago kaltetzen direnean². Halaber, enplegua erregulatzearen ondoriozko erretiro aurreratuak adosturiko kontratuaren amaieratzat jotzen dira, eta ez kaleratze gisa, estatistiketan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ere EAEn baimendutako enplegua erregulatzeak espedientei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Iturri bateko eta besteko datuak bat etorri ez arren (Ministeriokoak gehiago dira erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak erregistratu dituelako), interesgarria da biek egindako azterketa; logikoki, bilakaera norabide berean doa. Iturri horrek guztira 1.993 EAE erregistratu ditu 2010ean, 35.426 langile kaltetuz (%-48,5 aurreko urtearen aldean); haietatik %91,3k behin-behineko etete espedienteak izan zituzten (%95 2009an). Laburbilduta, EAE (Lan Ministerioa iturri hartuta), 2002 eta 2007 artean beherako joera izan ondoren, guztira 89.154 kaleratze erregistratu ziren 2009an (%+355,5 2008aren aldean), eta ia erdira murriztu zen 2010ean (48.694 langile kaltetu, %45,4 gutxiago). Joera hori Estatu osoan eman zen modu berean (2009an %+156,8 eta 2010ean %-39) eta, gainera, EAEko kaleratzeen kopuruak kopuru osoan duen garrantzia, 2009an hazi ondoren, jaitsi egin zen 2010ean %12,3 izatetik %11 izatera.

2010ko kaleratze kopuruaren jaitiera mota guztietan gertatu zen, eta berriz ere pisurik handiena enplegua

II.6.9. Grafikoa. Kaleratzeen bilakaera EAEn




Iturria: MTIN. Lan Arloko Estatistika Aldizkaria.

erregulatzeak espedienteek kaltetutako langileak izan zuten, guztien %90, aurreko urtean baino %47,3 gutxiago. Beste alde batetik, bitartekotza, arbitraje edo adiskidetze gaiak kaltetutako langileen kopurua %39,8 jaitsi zen, eta laneko gai judizialetan nahasita daudenena %8,1 murriztu zen. Kaleratzeari buruzko kalte-ordainengatik adostutako

² Taldekako kaleratzeetat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jardura erabat amaitzearen ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatapekori, langileen %10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatapekori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua).

II.6.10. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzak onartutako LEE-en hileko bilakaera: espedienteak eta kaltetutako langileak



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

zenbatekoei dagokienez, 2010ean, guztira, 82,5 milioi euro izan ziren, 2009an baino %4,6 gehiago. Kalte-ordainen batez besteko zenbatekoa 17.174 eurokoa izan zen, 2009an baino %26,5 gehiago.

6.3. Laneko osasuna

OSALANen, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen erregistraturiko EAEko laneko ezbeharrei buruzko datuek erakusten dute 2010ean laneko 39.153 istripu gertatu zirela, 2009an baino %2,8 gutxiago (ezbeharra izan eta bajan dauden langileen kopurua kontuan hartuz, lanaldiko eta "in itinere" ezbeharrek eta laneko gaixotasunak barne). Aldiz, Estatuan, %9,9ko beherakada eman da, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuen arabera. Jaitsiera hori gure erkidegoan 2009an aurreko urtearen aldean gertatu zen jaitsiera handiari (%-20,5) batu zaio. Estatuan are handiagoa izan zen (%-23,8). Lanaldian istripua izan duten pertsonen helduta, azken urtean larritasun txikienekoak murriztu dira: %3,1 istripu arinak eta %3,4 larriak; istripu hilgarriak, aldiz, %2,9 areagotu dira. Lanaldian erregistraturiko 36 heriotzetatik 22 traumatikoak izan ziren; horietatik 9 industriaren sektorean, 7 eraikuntzan, 4 zerbitzuen sektorean eta 2 lehen sektorean. Bestalde, sektoreen arabera azterketa

horrek erakusten duenez, jaitsiera oso garrantzitsua izan da nekazaritzan eta eraikuntzan.

Zenbateko horiek sektore bakoitzeko lanpostu bolumenari lotuz gero, bilakaera antzekoa da: istripu indizea 35,9 da mila langileko (milako 37 2009an, beraz, %2,8 gutxiago) eta jaitsierarik handiena nekazaritzan (%-5) eta industrian gertatu dira. Azken horretan %4 jaitsi da, sektoreko mila langileko 55,4 istripuak arte. Dena dela, istripu ratorik handienak eraikuntzari (milako 79,6) eta nekazaritzari (milako 76,7) dagozkie.

Aitortutako laneko gaixotasunei dagokienez, 2010ean %2,65, azken urteetako bilakaeraren azterketa jakinarazpen-sisteman ezarritako aldaketek baldintzatzen dute; hortaz, 2008an 2007rekin alderatuta erregistratutako %113,1 kontuz hartu behar da. Ondoren, 2009an, 1.067 gaixotasun erregistratu ziren (%-31 2008aren aldean) eta 2010ean 1.041 guztira (%-2,4).

Autonomia Erkidego bakoitzeko Lan eta Immigrazio Ministerioak kalkulaturiko lanaldiko istripu kopuruak³ erakusten du 2009an Balear Uharteek eta ondoren Asturiasek zituztela kopururik handienak. EAE, 4.441eko indizea izanda (%-18,5 2008aren aldean), Estatuako batez bestekoaren gainetik dago zenbaki absolutuetan; ehunekoetan, aldiz, %18,5eko jaitsiera Estatuako berbera izan da.


II.6.15. Koadroa. Laneko ezbeharren bilakaera EAE-n: Laneko baja duten langile kaltetuak

	Lanaldiko istripuak								In itinere	Lan. Gaix.	Guztira
	Guztira	Larritasuna			Sektoreak						
		Arinak	Larriak	Heriotzak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2006	46.730	46.356	322	52	1.044	18.686	8.709	18.291	4.977	2.075	53.782
2007	43.934	43.548	335	51	916	17.956	7.963	17.099	4.783	726*	49.443
2008	44.437	44.115	275	47	896	18.327	7.659	17.555	4.656	1.547	50.640
2009	35.200	34.932	233	35	718	12.996	6.274	15.212	4.008	1.067	40.275
2010	34.110	33.849	225	36	667	12.455	5.770	15.218	4.002	1.041	39.153
Ald. %-tan, 08/09	-20,8	-20,8	-15,3	-25,5	-19,9	-29,1	-18,1	-13,3	-13,9	-31,0	-20,5
Ald. %-tan, 09/10	-3,1	-3,1	-3,4	2,9	-7,1	-4,2	-8,0	0,0	-0,1	-2,4	-2,8

Iturria: OSALAN.

(*) Lanbide gaixotasunak jakinarazteko sistema murriztaileago berria: egun mutuek jakinarazten dituzte (lehenago enpresek euren).

³ Istripu kopurua 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzaren lan-istripuen arriskua berariaz estalita duten afiliatutako kopuruaren arteko zatidura bezala kalkulatzen da.

II.6.11. Grafikoa. 1.000 Landuneko istripu indizea jardura sektoreen arabera. EAE

Iturria: OSALAN eta EUSTATen datuen bidez egina.

Beste alde batetik, kontratu motaren arabera lan-istripuen datuek adierazten dute ezbehar kopurua bikoitza baino handiagoa dela aldi baterako kontratua duten pertsonen artean kontratu mugagabea duten pertsonen artean baino.

Horrela adierazi dute Lan eta Immigrazio Ministerioaren 2009ari buruzko azken datuek. Zehazki, istripu indizea, kontratu mugagabea dutenen artean, %35,1 izan zen; behin-behineko kontratua dutenen artean, aldiz, istripu tasa %76,3 izan zen. Edonola ere, sektore, adin talde bakoitzeko eta okupazio motaren arabera gertatzen diren istripuen banaketa ezagutu behar da behin betiko ondorioak ateratzeko.

6.4. Lan harremanak

6.4.1. Lan-gatazkak

2010ean EAEn 298 greba erregistratu ziren guztira. 38.090 parte-hartzaile izan zituzten eta lanik gabeko 179.519 lanegun eragin zituzten guztira. Kopuru horiei dagokienez, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) ohartarazi du datu horietan ez direla sartu sektore publikoan (maiatzaren 25a eta ekainaren 8a), Gipuzkoako metalaren sektorean (maiatzaren 28a, ekainaren 16a eta urriaren 13tik 15era) deitutako grebei, EAEko ekainaren 29ko greba orokorrari eta Estatuko irailaren 29ko greba orokorrari dagozkienak, mementoz ez dagoelako informaziorik.

Hala ere, datu partzialetatik ondorioztatzen da lan gatazkak areagotu egin direla, bai greba kopurua bai parte

II.6.16. Koadroa. Autonomia erkidego bakoitzean lanaldian bajan egotea eragin duten istripuen indizea

	2006	2007	2008	2009	Ald. 07/08	Ald. 08/09
Estatua	5.880	5.760	5.069	4.131	-12,0	-18,5
Andaluzia	6.246	6.081	5.132	4.041	-15,6	-21,3
Aragoi	5.174	5.232	4.743	3.492	-9,3	-26,4
Asturias	6.072	6.317	5.963	5.166	-5,6	-13,4
Balear Uharteak	7.876	7.677	6.614	5.270	-13,8	-20,3
Kanariar Uharteak	6.608	6.423	5.616	4.653	-12,6	-17,1
Kantabria	5.636	5.388	4.977	3.825	-7,6	-23,1
Gaztela-Mantxa	7.663	7.461	6.370	4.943	-14,6	-22,4
Gaztela eta Leon	5.707	5.655	5.244	4.262	-7,3	-18,4
Katalunia	5.437	5.682	4.943	4.202	-13,0	-15,0
Valentziako E.	5.804	5.532	4.671	3.660	-15,6	-21,6
Extremadura	4.867	4.974	4.659	3.849	-6,3	-17,4
Galizia	5.733	5.803	5.613	4.714	-3,3	-16,0
Madril	5.400	5.066	4.444	3.677	-12,3	-17,3
Murtzia	5.707	5.577	4.676	3.908	-16,2	-16,4
Nafarroa	5.661	5.593	5.096	4.143	-8,9	-18,7
EAE	6.418	5.654	5.449	4.441	-3,6	-18,5
Araba	7.212	6.453	6.072	4.819	-5,9	-20,6
Gipuzkoa	6.155	5.495	5.361	4.226	-2,4	-21,2
Bizkaia	6.305	5.475	5.289	4.444	-3,4	-16,0
Errioxa	5.806	5.762	5.129	4.311	-11,0	-15,9
Ceuta	5.217	5.465	5.653	5.151	3,4	-8,9
Melilla	4.827	4.813	4.534	4.201	-0,3	-7,3

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa, lan-istripuen estatistikak.

II.6.17. Koadroa. Kontratuaren arabera ezbeharren bilakaera EAE-n

	2006	2007	2008	2009	% 07/08	% 08/09
Kontratu mugagabeak						
Soldatapekoak (BJA)	558.500	611.300	630.000	622.000	3,1	-1,3
Bajadun istripuak	26.553	24.565	25.221	21.823	2,7	-13,5
Ezbehar-tasa (milakotan) (A)	47,5	40,2	40,0	35,1	-0,5	-12,3
Behin-behineko kontratuak						
Soldatapekoak (BJA)	198.200	169.200	167.300	146.500	-1,1	-12,4
Bajadun istripuak	21.137	18.735	16.988	11.183	-9,3	-34,2
Ezbehar-tasa (milakotan) (B)	106,6	110,7	101,5	76,3	-8,3	-24,8
B / A	2,24	2,75	2,54	2,17	-0,5	-12,3

Iturria: Testuaren egileak egindakoa Lan eta Immigrazio Ministerioaren (lan-istripuen estatistika) eta EUSTATen (BJA) datuekin.

II.6.18. Koadroa. Greba kopurua, kaltetutako langileak eta galdutako lanegunak

		Kopurua			Hazkunde tasa %-tan		
		Greba kopurua	Langile parte hartzaileak	Lanegun galduak	Greba kopurua	Langile parte hartzaileak	Lanegun galduak
EAE	2008	232	41.183	73.769	13,7	-11,4	-34,4
	2009	280	27.117	126.184	20,7	-34,2	71,1
	2010*	298	38.090	179.519	6,4	40,5	42,3
Araba	2008	54	4.793	8.910	28,6	-2,5	12,2
	2009	55	2.626	14.185	1,9	-45,2	59,2
	2010*	59	2.392	10.361	7,3	-8,9	-27,0
Bizkaia	2008	107	27.182	41.998	17,6	-2,5	-38,7
	2009	141	16.342	60.498	31,8	-39,9	44,0
	2010*	144	20.092	85.960	2,1	22,9	42,1
Gipuzkoa	2008	71	9.208	22.861	0,0	-32,8	-36,6
	2009	84	8.149	51.501	18,3	-11,5	125,3
	2010*	95	15.606	83.198	13,1	91,5	61,5

Iturria: LHK.

* Behin-behineko datuak.

hartaileak eta lanegunak, hurrenez hurren, %6,4, %40,5 eta %42,3 areagotu zirelako.


Beste guztien artean lan-hitzarmenari buruzko desadostasunak nagusitu dira berriro (greben %39,6, parte hartzaileen %64,7 eta lan egin gabeko lanegunen %63), "beste arrazoi batzuk" izenaren pean bildutako grebak eragin dituzten arrazoiak garrantzi gero eta handiagoa izan arren, batez ere krisi ekonomikoko egoerari (greben %33,9) eta hitzarmenak ez betetzeari (%18,5) lotutakoak. Lan gatazken artean zenbait sektoretako grebak nabarmendu dira (Gipuzkoako siderometalurgiako grebari buruzko daturik ez dagoela gogoan hartuta), hala nola eraikuntza eta arte grafikoetakoak Gipuzkoan, eskola jantokietakoak hiru lurraldeetan eta hirugarren adinarentzako egoitza eta zentro pribatuetoakoak Bizkaian eta Gipuzkoan. Bestalde, greba guztietatik, 246 enpresen eremuan izan dira, eta parte hartzaileen %50,2 eta lan egin gabeko lanegunen %53,3 bildu dituzte; sektore eremuak, aldiz, 52 greba, parte hartzaileen %49,8 eta lan egin gabeko lanegunen %46,7 izan ditu.

Estatuko datuei dagokienez, 2010ean greba kopurua murriztu egin zen. Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuen arabera, gatazkak —984 guztira— %1,7 murriztu zen, eta parte hartzaile kopurua %47,9. Era berean, lanik gabeko lanegun kopurua, guztira 671.498, %48 jaitzi zen. Kontuan izan behar da, ordea, EAEri buruzko informazioari dagokionez bezala, datu horietan ez dela sartu herri-administrazioaren sektoreko grebei, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako bitarteko irakasleen grebei eta irailaren 29ko greba orokorrari buruzko informaziorik.

6.4.2. Negoziazio kolektiboa: Soldata igoera eta lanaldia


2010ari buruzko LHKren "Negoziazio Kolektiboaren Balantzea"ren arabera, urte horretan Euskal Autonomia Erkidegoko langileen %77,1i eragiten dieten lan-hitzarmen berrizatu behar zituzketen. Hori 2009an (%58,2) eta aurreko urteak (%50,8 2008an eta %64,9 2007an) baino gehiago da, eta gizarte eragileen arteko negoziazio prozesuek dituzten zailtasunak islatzen ditu. Horren froga da 2010eko 12 hiletan langileen %16,5entzat baino ez direla hitzarmenak lortu (%15,9 2009an), hots, negoziatu behar zenaren laurden bat baino gutxiago.

II.6.12. Grafikoa. Lan-gatazken bilakaera EAE-n



Iturria: LHK.

II.6.13. Grafikoa. EAE-n erregistratutako hitzarmenen eraginpeko pertsonak. Ehunekotan



Iturria: LHK.

Lan-hitzarmen berriturik lortu ez duten negozioazio kolektiboen mendeko langileak %60,6 izan ziren urtearen amaieran %42,3 2009an). LHK-k, ordea, ohartarazi du indarrean dauden eraginkortasun mugatuko hitzarmenak sartuz gero (langileen %12,5i eragin liezaieket), portzentajea %48,1era murriztuko litzatekeela.

Datuak funtzio eremuen arabera banakatuz gero (enpresa eta sektore hitzarmenak), eremu bakoitzean 2010ean berritutako hitzarmenak dituzten langileen ehunekoak oso urriak izan direla, eta oso antzekoak bietan: %18,5 enpresan eta %16 sektorean. Bestalde, 2010 urtearen hasieran, enpresa-hitzarmenen mendeko langileak sektore-hitzarmenetako langileek baino %25 gehiago ziren.

Hortaz, sektore-hitzarmenen mendeko pertsonen %66,1ek ez dute hitzarmenak berritu 2010ean. Aldiz, enpresen arloan ratio hori %38,6 da. Sektoreen arloan azpimarratzekoa da hitzarmen asko lau urte baino gehiagoz berritu ez izana. EAEn egondako 123 sektore-hitzarmenetatik, 35 2006 aurretik daude berritzeke. Hitzarmen horiek 15.816 langileri eragiten diete, hots, sektoreko negozioazio kolektiboak eragindako langile guztien %4,1i.

Bestalde, 2010eko abenduaren 31 arte 2010erako berariazko indarraldia zuten eraginkortasun mugatuko 6 sektore-hitzarmen eman ziren (Araba eta Bizkaiko metala, Bizkaiko osasun establezimendu pribatuak eta anbulantziak, Gipuzkoako farmazia bulegoak eta okindegiak) eta enpresako estatutuaz kanpoko zenbait itun ere bai. Haien artean nabarmentzekoak dira Arabako Mercedesekoak eta Basauriko (Bizkaia) Sidenorrekoak. Hitzarmen eta itun horiek guztiek 73.944 laguni eragingo liekete, langileen %12,5 ingururi. Bestalde, funtzionarioen eremuan, eta beste akordio eta aurrekontu erabaki mota bat dela eta, 97.000 lagun baino gehiagok dauzkate euren lan baldintzak berrituta.

Laburbilduz, 2010. urtearen amaieran, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera (2010/12/31 arte erregistraturiko hitzarmenak), berritutako 531 hitzarmen zeuden den guztira eta 234.900 langileri eragiten zieten (horietatik %68,5 sektoreko hitzarmenen babespean daude eta gainerako %31,5 enpresako hitzarmenen babespean); beste 525 hitzarmen zeuden berritzeke eta 360.582 langileri eragiten zieten.

Guztira, 2010erako adostutako batez besteko soldataren igoera %2,12koa zen (%1,92 gure erkidegoan erregistraturiko hitzarmenetan eta %2,48 EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenetan). Halaber, enpresa-hitzarmenetan, soldataren igoera %2,47koa izan zen eta sektore-hitzarmenetan %1,97koa. Orokorrean, beheranzko bilakaera neurritsua ikusi da 2010erako adostutako soldata igoeretan, EAEko hitzarmenetan nagusiki aurreko urteko KPI hartu zelako erreferentzia (2010eko abendu urtetik urterakoa %3 izan zen Estatuan eta %2,8 EAEn), herri-administrazioen zenbait lan taldetan soldata jaitsiera ezarri zelako eta enpresa eta sektore asko une zailean daudelako. KPIren bilakaeraren arabera soldatak bermatzeko edo berrikusteko klausulen egokitzapenei dagokienez, batez beste 0,65 puntuko eragin positiboa kalkulatu da, 2010eko abendu inflazioa aurreikusitakoa baino apur bat handiagoa izan zelako.

II.6.19. Koadroa. 2008 eta 2009 urteetarako EAE-n adostutako soldaten igoerak

	Igoera berrikuspen klausularik gabe		Berrikuspen klausulen eraginak		Soldaten igoera guztira	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Araba	2,89	1,81	0,01	0,93	2,90	2,74
Bizkaia	2,89	1,84	-0,01	0,41	2,88	2,24
Gipuzkoa	2,45	1,51	0,00	0,02	2,45	1,53
Lurralde artekoak	3,67	0,35	0,00	0,01	3,67	0,36
EAE-n egondakoak	2,74	1,62	0,01	0,30	2,75	1,92
Estatua	2,25	1,21	-0,05	1,27	2,20	2,48
EAE guztira	2,61	1,47	-0,01	0,65	2,60	2,12

Iturria: LHK.

Bukatzeko, berritzen ari diren hitzarmenek azken urteetan lanaldia murrizteko egondako joera gelditu dute. Lanaldia murriztu duten hitzarmenak oraindik esanguratsuak izan arren (%14), aurreko urtekoak baino gutxiago dira (2009an %22,9 izan ziren). EAEn eragina duten hitzarmen berritu guztien artean, batez beste urtean 0,6 ordu murriztu dira (1,2 2009an), EAEn bakarrik erregistratutako hitzarmenetarako balio berberak. Horren ondorioz, EAEko lan-hitzarmenetatik ortutako datuek (EAEn eragina duten hitzarmenez ari gara, gure erkidegoan erregistratuta egon barik) batez beste urtean 1.690 orduko lanaldia ezarri dute, eta EAEn erregistratutako hitzarmenei dagozkienek, 1.683 ordukoa.

6.5. EAE-ko soldatak

6.5.1. 2008ko soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak


EINren "Soldata-egituraren urteko inkestak" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen arabera soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa, "Soldata-egituraren inkestak" bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINren beraren lan-kostuari buruzko hiru hilekoko inkestak informazioaren zati bat ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko zergak kendu gabe.

Inkesta horretan nabarmentzen den lehenengo emaitzetako bat honakoa da: langileen %5ek 2008an (urte horretakoa da eskura dagoen azken datua) urtean batez beste 8.400 euro edo gutxiago irabazten zuten (urte hartako lanbide arteko gutxienezko soldata)⁴. Emakumei dagokienez, %8 ziren. Halaber, langileen %18k gutxi gorabehera 8.400 eta 16.800 euro arteko soldata zuten. 16.800 eta 33.600 euro arteko ordainsaria zutenak ia %50 ziren.

Inkestaren arabera, 2008an EAEn urteko batez besteko irabaziaz 25.547 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta %6,9 hazi zen (2006 eta 2007 urteen artean %4,2). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino

⁴ Estatutako datuak dira, ez dago autonomia erkidego mailako informaziorik.

II.6.14. Grafikoa. Urteko batez besteko irabazia langile bakoitzeko. Euroak



Iturria: EIN. Soldata egituraren inkesta

%16,7 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondoren Madrilgo erkidegoa dago Soldata gordin hori 28.264 eurokoa zen gizonezkoentzat eta 21.766 eurokoa emakumezkoentzat; hortaz, sexuen artean %29,9ko aldea dago. Alde hori murriztu egin da azken urtean ia autonomia erkidego guztietan (Estatuan batez beste 6,5 puntu) eta zertxobait gutxiago EAEn, 6,3 puntu, hain zuzen ere (2007an %36,1 zen), gizonezkoen soldata emakumezkoenaren erdia igo baita %5 eta %10,1, hurrenez hurren).

Bestalde, 2007ko PFEZ likidazioak hartuta (Eusko Jaurlaritzako Zergak Koordinatzeko Erakundearen “Euskal Ogasunaren 2008ko urteko txosten integratua”ren bidez EAE osorako imotutako informazioa eskura daitekeen azken ekitaldia), ekitaldi horretan, aitorleen %87,8k lan errentak jaso zituzten, aitortutako errenta guztien %90,2. Tarte guztietan, lan errendimendu horiek izan zuten pisu erlatiborik handiena; horrela, oinarri likidagarriko 30.000 euroak arte, ehunekoa hazi egiten da %94tik gorakoa izan arte, puntu horrez gero jaisteko. Aitortutako batez besteko lan errendimendua, 2007an, 21.274 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %3,1 gehiago.

Jarduera sektoreetako soldatei dagokienez, Soldata egituraren inkestak agertu duenaren arabera, altuenak industriaren jardueran ematen dira, EAEn zein Estatu osoan. Zehazki, sektorearen urteko batez besteko irabaziak 28.670 euro dira gure erkidegoan, batez beste 29.781 euro gizonezkoentzat eta 24.062 emakumezkoentzat. Industriako batez besteko soldata hori Estatu osokoa baino %19,3 altuagoa da. Estatuan ere generoen arteko aldeak daude.

Ondoren, eraikuntzaren sektoreko soldatak dira altuenak (urtean batez beste 25.376 euro EAEn, 2007an baino %11,7 gehiago), gainera, Estatuko batez bestekoa baino dezentre altuagoak dira, %22,5 zehazki. Azkenik, zerbitzuen sektoreko soldatak, batez beste 24.248 eurokoak, sektore guztien batez bestekoaren azpitik daude eta, gainera, Estatuko balioetatik hurbilago (%12,5 gehiago).


Beste alde batetik, langile bakoitzaren batez besteko irabaziak kontratu-harreman motaren arabera ere aldatzen dira. Gauza logikoa da, enpresako antzinatasunagatik jasotzen diren ordainsariek gora egiten dutelako. Zehazki, urteko batez besteko soldata gordina % 42,9 altuagoa da kontratu mugagabea duten langileentzat, aldi baterako kontratua duten langileentzat baino. Aldea, gainera, gizonen artean altuagoa da (% 56,7) emakumeen artean baino (% 21,8).

Irabazien mailan alde handia eragiten duen beste faktore bat langileen adina da. Inkestaren arabera, EAEn batez besteko soldata gordina 15.406 euro da 25 urtetik

II.6.20. Koadroa. Sektoreka langile bakoitzaren urteko batez besteko irabaziak, EAE eta estatua euro/urteko


	2007			2008			2007-08 aldakuntzaren %		
	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak
ESTATUA									
Sektore guztiak	20.390	16.944	22.780	21.883	18.911	24.203	7,3	11,6	6,2
Industria	23.140	18.268	24.829	24.036	19.343	25.652	3,9	5,9	3,3
Eraikuntza	18.693	16.580	18.922	20.707	19.873	20.845	10,8	19,9	10,2
Zerbitzuak	19.980	16.776	23.392	21.557	18.820	24.621	7,9	12,2	5,3
EAE									
Sektore guztiak	23.893	19.772	26.911	25.547	21.766	28.264	30,9	6,6	8,7
Industria	26.993	22.464	28.198	28.670	24.062	29.781	6,2	7,1	5,6
Eraikuntza	22.717	..	23.159	25.376	23.139	25.729	11,7	..	11,1
Zerbitzuak	22.603	19.315	27.004	24.248	21.377	27.785	7,3	10,7	2,9
EAE/ESTATUA %-tan									
Sektore guztiak	117,2	116,7	118,1	116,7	115,1	116,8	-0,4	-1,4	-1,1
Industria	116,7	123,0	113,6	119,3	124,4	116,1	2,3	1,2	2,2
Eraikuntza	121,5	..	122,4	122,5	116,4	123,4	0,8	..	0,9
Zerbitzuak	113,1	115,1	115,4	112,5	113,6	112,9	-0,6	-1,3	-2,2

Iturria: EINren datuak oinarri hartuta egindakoa, Soldata-egiturari buruzko inkesta.

II.6.15. Grafikoa. Urteko batez besteko irabazia sexuaren eta kontratu motaren arabera EAEn. Euroak

Iturria: EIN. Soldata egituraren inkesta

beherakoentzat (%+11,4 aurreko urtearekin alderatuta), hau da, adin-taldeetan soldatarik baxuena. Soldatak geroz eta altuagoa da gehienezkoa lortu arte 45 eta 55 urteko adin-taldean (29.262 euro). Banaketa hori, aldaketa txiki batzuekin, beste autonomia erkidego batzuetan eta sexuen artean ere ematen da. Estatuko batez bestekoari dagokionez, EAEko datua 45 eta 54 urte artekoen adin-taldean % 17 handiagoa da (bigarren alderik garrantzitsuena, langilerik gazteenen taldeko aldearen ondoren, % 18,9koa dena, alegia); aldiz, 55 urtetik gorako langileekiko aldea txikiena da (% 11,4).

II.6.16. Grafikoa. Lan-kostuko "soldatak eta lansariak" sailaren zenbatekoa langile eta urte bakoitzeko. Euroak

Iturria: EIN. Lan-kostuaren urteko inkesta.

6.5.2. Lan-kostuari buruzko urteko inkestaren emaitzak, 2009

"Lan-kostuari buruzko urteko inkesta" langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINen bigarren estatistika da. "Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkesta"ren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaia ezagutzeko ahalbidetzen du. Horien artean, "lansarien eta soldaten" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak

II.6.21. Koadroa. Lan-kostua langile eta urte bakoitzeko, datuak erkidego autonomoen eta kostuaren osagaien arabera. 2009.

	Kostu gordina	Soldatak	Ezinbesteko kotizazioak	Borondatezko kotizazioak	Zuzeneko gizarte-prestazioak	Beste batzuk (1)	Diru-laguntzak eta dedukzioak	Kostu garbia	Lansariak eta soldatak guztira %-tan
ESTATUA	30.670	22.329	6.785	221	325	1.009	268	30.402	72,81
Andaluzia	28.640	20.697	6.477	186	304	976	242	28.398	72,27
Aragoi	29.711	21.690	6.786	172	335	728	303	29.408	73,00
Asturias	30.322	22.341	6.964	239	249	528	287	30.035	73,68
Balear Uharteak	29.069	21.035	6.449	166	383	1.036	232	28.837	72,36
Kanariar U.	26.193	18.799	6.019	151	244	980	200	25.993	71,77
Kantabria	28.196	20.559	6.570	182	397	488	249	27.947	72,92
Gaztela eta Leon	28.103	20.604	6.443	178	261	617	230	27.873	73,32
Gaztela-Mantxa	27.525	20.016	6.305	134	281	790	223	27.302	72,72
Katalunia	32.721	23.812	7.192	207	315	1.195	282	32.439	72,77
Valentziako E.	27.559	19.884	6.301	160	232	982	279	27.280	72,15
Extremadura	25.915	18.820	5.945	131	164	855	301	25.614	72,62
Galizia	26.710	19.403	6.140	179	288	700	276	26.434	72,64
Madril	35.449	26.013	7.231	339	419	1.447	266	35.183	73,38
Murtzia	27.755	20.266	6.311	148	299	731	220	27.534	73,02
Nafarroa	32.048	23.366	7.492	197	323	671	353	31.696	72,91
EAE	35.581	25.987	7.936	409	518	730	365	35.216	73,04
Errioxa	28.563	21.008	6.590	192	237	536	222	28.341	73,55

(1) Beste batzuk: Kaleratzeengatik kalte-ordainak, lanbide-heziketaren eta garraioaren gastuak, gastu sozialak, kontratuaren amaierako kalte-ordainak, konpentsazio-ordainketak, erremintak, laneko arropa eta beste gastu batzuk biltzen ditu. Dietak eta bidaia-gastuak kanpo uzten ditu.

Iturria: EIN: Lan-kostuaren urteko inkesta, 2009.

gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzara ordaindu beharreko zergak kendu aurretik. Inkesta hori urtero egiten da 2000.etik eta, soldata egituren zehaztasuna ematen ez badu ere (sexuari, adinari, kontratu motari, eta abarri dagokienez), soldatek azken zortzi urteetan izan duten bilakaera ikusten uzten du. Bataren eta bestearen ikuspuntua ezberdina izan arren, emaitzak oso antzekoak dira, jakina, bai Estatu mailan eta baita EAEn ere.

2009ko lan-kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 35.581 euro dira; horietatik %73 "lansariei eta soldatei" dagozkie, hau da, 25.987 euro. Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %16,4 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da.

"Lansarien eta soldaten" partida 2002tik etengabe hazi da, eta 2009an aurreko urtean baino %2,8 hazi zen, Estatuko batez bestekoarekin alderatuta %+3,2.

6.6. Enplegu politika aktiboak EAE-n 2010ean

Lan-politiken barruan honakoak sartzen dira: politika aktiboak, haiei buruz hitz egingo dugu atal honetan eta langabetuek lana lortzera eta daukateneak hari eustera daude zuzenduta; politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikora zuzenduak, eta gizarte babesari buruzko atalean landuko ditugu.

EPAen eskumena, Autonomia Estatutuaren arabera, autonomia erkidegoari badagokio ere, Memoria honen erreferentziazko urtean (2010) Estatuaren administrazio zentralak burutu zituen. 2011ko urtarrilaren 1ean, ordea, EAEko autonomia administrazioari lan, enplegu eta enplegurako lanbide heziketaren eremuan laneko legedia egikaritzeari dagozkion eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu zitzaizkion, zehaztasunez EAEko 2011ko Memoria sozioekonomikoan aztertuko den bezala.

Hortaz, 2010ean batez ere Lan eta Immigrazio Ministerioak burutu eta finantzatu zuen enplegu politika. Horren kudeaketa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (EEZP) esku uzten du. EEZPk EAEn enplegu politika aktiboetan sortutako gastuaren %75 baino gehiago kudeatzen du. Enplegu politika horiek administrazio zentralak eta Gizarte Segurantzak eta Europako Gizarte Funtzak finantzatzen dituzte.

Gainera, EAEn Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalerrriak eta Garapenerako Eskualde Agentziek ere dihardute helburua lortzeko. Lehenengo eta behin, Eusko

Jaurlaritzak, batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren bitartez, enplegurako eta prestakuntzarako programa jakinak kudeatzen ditu. Bigarrenik, Egailen SAREn mendeko Lanbideren bidez ere orientazio eta bitartekotza jarduketak batzuk ere egiten ditu. Autonomia Erkidegoko administrazioak kudeaturiko politika aktiboak EAEn egindako Enplegu Politika Aktibo guztien % 11 inguru dira; horietatik % 55 Autonomia Erkidegoak berak finantzatzen ditu eta % 40 Europako Gizarte Funtzak.

Foru Aldundiei dagokienez, mota horretako jardueretan ezberdintasun handiak daude lurralde historikoen artean. Alde batetik, Araban eta Gipuzkoan esku-hartze maila txikiagoa da Bizkaiarekin alderatuta, izan ere, Bizkaian jarduera zein sorturiko egitura zabalagoa da. Edonola ere, instituzio horiek finantzatzen duten Enplegu Politika Aktiboaren artean % 80 zuzenean kudeatzen dute (EAEn Enplegu Politika Aktiboaren % 5 inguru); gainerako % 20 erakunde laguntzaileen bidez kudeatzen dute, batez ere prestakuntza, eta Eusko Jaurlaritza edo udalak bezalako administrazioekin batera finantzatzen dituzte. Tokiko erakundeak (tokiko garapenerako agentziekin batera) enplegu-politika aktiboan kudeatzaileak dira funtsean. EAEn sortutako gastu osoaren ia % 3 finantzatzen duten arren, hiru aldiz gehiago kudeatzen dute Eusko Jaurlaritzak, administrazio zentralak-EEZPk-EGFk eta, neurri txikiagoan, foru-administrazioak.

Azkenik, benetako kudeaketa-lana egiten dutenak irabazi asmorik gabeko hainbat elkarte eta instituzioa pribatu, enpresarien eta sindikatuen erakundeak, eta arlo horietan jarduerak kudeatzen dituzten prestakuntza-zentroak dira, batez ere gizartearen eta lanean sartzeko arazoak dituzten pertsonen eta taldeen gizarteratze eta laneratzeari eta prestakuntzari lotuta.

6.6.1. Lan eta Immigrazio Ministerioaren Enplegu Politikak-EEZP

a) Informazioa eta orientazioa: Enplegurako orientazio eta autoenplegu laguntza zerbitzuak

Enplegu Zerbitzu Publikoek burutzen duten beste zerbitzu bat orientazioa da. EEZPk zerbitzu hori bere Enplegu Bulegoen bidez gauzatzen du eta autonomia erkidegoek, besterendutako kudeaketarekin, haien zerbitzuen bidez. EEZPk eta erakunde laguntzaileez gain, irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuk daude, esaterako, enplegurako lanbide-orientazioa eta autoenplegurako laguntza eskaintzen duten zentroak (OPEA). Erakunde horiek Enplegu Zerbitzu Publikoekin lankidetzan jarduten

II.6.22. Koadroa. Enplegu politikak eta prestakuntza EAE-n eremuaren eta kudeaketaren arabera. 2010.

	Lan eta Immigrazio Ministerioa - EEZP	Eusko Jaurlaritza
Bitartekotza, erregistroa eta informazioa	Enplegu-bulegoak	EGAILAN, LANBIDE
Orientazioa	OPEA - SIPE ⁵	Euskal Orientazio Zerbitzua
Lanerako prestakuntza	EEZP, zentro laguntzaileak	Zentro laguntzaileak
Lanerako, prestakuntzarako, esperientzia lortzeko, laneratzeako programak	Lantegi Eskolak, Enplegu Tailerra, Lanbide Etxeak, EEZP programa-Tokiko Korporazioak	Dekretuak (sustatzaile berriak, txandakako prestakuntza, Junior Enpresa, etab.)
Kontrataziorako diru-laguntzak	Gizarte Segurantzaren hobariak, ezinduak, autonomoak,...	Enplegu Programen Dekretuak
Etengabeko Prestakuntza	Hirutariko fundazioa	HOBETUZ

⁵ OPEA: Enplegurako Lanbide Orientazioa eta autoenplegurako Laguntza. SIPE: Enplegurako Zerbitzu Integratuak.

II.6.23. Koadroa. Enplegurako lanbide orientazioa eta autoenplegurako laguntza jasotzen duten onuradunak

	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa			Erakunde laguntzaileak			Guztira		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Araba	515	407	308	3.208	2.547	3.143	3.723	2.954	3.451
Bizkaia	6.561	39.555	s.d.	7.881	6.628	6.063	14.442*	46.183	6.063
Gipuzkoa	0	1.388	234	4.238	6.420	5.065	4.238	7.808	5.290
EAE	7.076	41.350	542	15.327	15.595	14.271	22.403	56.945	14.813

Iturria: EEZP (Enplegua Sustatzeko Zuzendariordetza Nagusia).

dute haien enplegu-bulegoan izena eman duten enplegu-eskatzailen lan-aukerak hobetzeko ekintzak burutzen. 2009an, informazioa dagoen azken urtean, 14.813 enplegu-eskatzailen enplegurako orientazio laguntza motaren bat jaso zuten EAEn; horrek aurreko urteko kopuruarekin alderatuta %74ko beherakada esan nahi du. Hala ere, interpretazio horretan ez dago eskuragarri Bizkaiko EEZPk harrera egin zien pertsonen buruzko daturik.

b) Lanbide-prestakuntza**Lanerako prestakuntza**

Lanerako lanbide-prestakuntza eta etengabekoa 2007an aldatu ziren 395/2007 Errege Dekretua onestearen ondorioz. Dekretu horren bidez enplegurako lanbide-prestakuntzako azpisistema arautu zen eta lanerako eta etengabeko lanbide-prestakuntzari buruz indarrean zen araudia ordezkatu zuen, bi modalitateak sistema bakar batean barne hartuz. Errege Dekretu berriak gizartearen adostasuna eta autonomia erkidegoek arlo horretan dituzten ekimenak Estatuarekin koordinatzea indartzeko beharra ezartzen du, eta enplegurako lau prestakuntza-ekimen jasotzen ditu:

- Eskatzen denaren prestakuntza; enpresek eta langileek proposaturiko prestakuntzaren beharizan espezifikoari erantzuten die. Enpresei dagokie planifikatzea eta kudeatzea, eta Gizarte Segurantzako kuotetako hobarien sistema baten bidez finantzatzeko da.
- Eskaintzaren arabera prestakuntza langileei zein langabetuei dago zuzenduta, eta burutzea enpresari eta sindikatuen elkartei dagokie, baita gizarte-ekonomia eta autonomoak ordezkatzen dituztenei ere.
- Enpleguarekin txandakatuz egiten den prestakuntzak enpleguaren eta prestakuntzaren irakaskuntza-prozesu mistoa ezarri eta langileak ikaskuntza formala lanpostuko jardun profesionalarekin bateratzea ahalbidetzen du.
- Prestakuntzan laguntzeko eta prestakuntzaren gehigarri diren ekintzek enplegurako prestakuntzaren azpisistemaren eraginkortasuna hobetzea ahalbidetzen dute.

Prestakuntza-ekintzak langile eta langabetu guztien lanbide-trebakuntzaren eta gaitasunaren jabetzera eta hobetzera daude zuzenduta, baina lan-merkatuan sartzeko edo bertan jarraitzeko zailtasun gehien dituzten taldeek izango dute lehentasuna (emakumeek, 45 urtetik gorakoek, ezinduek, etab.).

Langabetuentzako lanerako prestakuntza-jarduerak enplegurako lanbide-prestakuntzako azpisistemaren⁶ eta Lantegi Eskoletako eta Lanbide Etxetako, Sustapen eta

II.6.24. Koadroa. Lehentasunez langabetuei zuzenduriko prestakuntza ekintzak EAE-n, EEZP-k emandakoak, zentroaren arabera

		GUZTIRA	Lanerako prestakuntza-zenbroak	Zentro laguntzaileak
2007	EAE	805	50	755
2008	Araba	93	3	90
	Bizkaia	376	22	354
	Gipuzkoa	151	11	140
	EAE	620	36	584
2009*	Araba	117	8	109
	Bizkaia	535	22	513
	Gipuzkoa	254	7	247
	EAE	906	37	869

(*) Urtean bukatutakoak guztira. 2010an martxan dauden ikastaroak ez dira zenbatu.

Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia)

Garapen Unitateetako eta Enpresa Ekimeneko Zentroetako programen bidez burutzen dira. EEZPk lanerako prestakuntza-ekintzak burutzen ditu bere zentroetan (EAEn bi zentro ditu, bata Lasarten eta bestea Sestaon) eta, batez ere, zentro laguntzaileetan homologaturiko prestakuntzen espezializazioetan buruturikoak finantzatzeko kontratu-programen edo lankidetzak-hitzarmenen bidez. Izan ere, EEZPk prestakuntza ekintza horien %95 baino gehiago finantzatzeko ditu. Jarduera horiek Europako Gizarte Funtsek diruz laguntzen ditu partzialki. 16 eta 65 urte arteko partaideentzat doan dira eta, lehentasunez, zenbait talderi zuzenduta daude (gazteak, luzaroko langabeak, ezgaitasuna duten langabetuak, etab.).

EEZPk guztira 906 prestakuntza-ekintza finantzatu zituen 2009an (behin-behineko datuak). Kopuru hori % 46,1 hazi da 2008 urtearekin alderatuta; hiru lurraldeetan egin du gora.

Beste alde batetik, enplegurako eta prestakuntzarako jarduera misto gisa, EEZPk EAEko Lantegi Eskolak, Enplegu Tailerrak eta hiru Lanbide Etxeak finantzatzeko ditu. 25 urte baino gutxiago eta laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuei daude zuzenduta. Enplegu-prestakuntza programak dira eta xedea prestakuntza eta lanbide praktika txandakatuz laneratzeko da, historia, kultura edo natura ondarea berreskuratzeari lotutako lanetan, eta haien arteko aldea lanbide praktikaren iraupena da (tailer-eskoletan luzeagoa da).

Bigarrenik, EEZPk Enplegu Tailerrak ere finantzatzeko ditu. Prestakuntzako eta enplegu-ekintzak bateratzen dituzten programak dira eta laneratzeko zailtasun bereziak

⁶ Enplegurako lanbide-prestakuntzako azpisistema aurreko FIP Lanerako prestakuntza plana indargabetu zuen martxoaren 23ko 395/2007 EDak arautzen du.

II.6.25. Koadroa. Lantegi eskoletako eta lanbide etxeetako parte hartzaileak EAE-n

	Guztira			Lantegi eskola			Lanbide etxea-enplegu tailerra		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2005	1.122	595	527	151	133	18	971	462	509
2006	1.219	623	596	154	118	36	1.065	505	560
2007	1.146	560	586	205	161	44	941	399	542
2008	1.251	608	643	200	167	33	1.051	441	610
2009	1.366	713	653	237	222	15	1.129	491	638

Iturria: EEZP (Lanerako Prestakuntza Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia).

dituzten 25 urtetik gorako langabetuei daude zuzenduta (iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorako langileak, emakumeak, ezinduak), interes orokor edo soziala duten arloetan.


Azkenik, EEZPk tokiko korporazioekin ere jarduten du lankidetzan interes sozialeko enpleguen programetan. Programa horietan laneratzeko esperientziazko planak burutzeko diru-laguntza publikoa aztertzen da tokiko korporazioek edo mendeko eta toki-administrazio bati loturiko erakundeek kontratatzen dituzten langabetuen taldeen lan-gaitasunak hobetzeko interes orokor eta sozialeko obra eta zerbitzuetan.

Etengabeko Prestakuntza

Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzetan (Sektore arteko eta sektoreetako prestakuntza-planetaryko, gizarte-ekonomiarako eta langile autonomoentzako) 2009an 124.998 parte-hartzailek hartu zuten parte behin behineko datuen arabera, hau da, 2008an baino %6 gehiagok, 12.687 enpresa formatzailearen esku-hartzeari esker.

Kategoria bakoitzeko, parte-hartzerik handiena izan duen profesionalen taldea langile gaituena izan da (prestaturiko parte-hartzaileen % 44,3 eta egindako prestakuntza-orduen % 44,6);aldiz, funtzio-arloei dagokionez, ekoizpenaren arloa da gehien nabarmentzen dena (parte-hartzaileen % 56,5 eta prestakuntza-orduen % 54,1). Batez beste, langile bakoitzeko 28 ordu izan ziren 2009an (2008an 26,4). Eraikuntzaren sektoreko langileek parte-

II.6.17. Grafikoa. Hirutariko Fundazioa: EAEn prestatutako partaideak enpresaren enplegu mailaren arabera. Datuak ehunekotan, 2009



Iturria: Lanerako Prestakuntzarako Hirutariko Fundazioa.

hartzaile bakoitzeko 34,4 prestakuntza-ordu egin zituztela azpimarratu behar da.

Prestakuntza ekintza horien estaldura tasari dagokionez (landun guztietatik prestatutako parte hartzaileak, sektore publikoa izan ezik), EAEn 2009an %19,2 izan zen, eta Estatuan %19,1. Zerrenda buruan Madrilgo Erkidegoa dago, landunen %23,5ekin.

II.6.26. Koadroa. EPHF: enplegurako prestakuntza EAE-n: 2005-2009 Ekitaldietako bilakaera

Eskaintzaren prestakuntza	2006	2007	2008	2009	Ald. %-tan, 08/09
EAE-N PRESTATURIKO PARTE-HARTZAILEAK	60.449	102.744	117.964	124.998	6,0
Batez besteko prestakuntza-orduak	30,0	25,7	26,4	28,0	6,1
FINANTZIAZIOA:					
Esleitutako kreditua	12.377.107	14.972.028	19.457.618	37.317.024	91,8
Erabilitako kreditua	6.630.691	9.382.122	12.434.417	24.571.339	97,6
Enpresa formatzaileak	3.088	4.412	7.744	12.687	63,8
Estaldura-tasa*	4,7	6,5	11,3	18,3	61,9
ESTATUAK ESKAINITAKO PRESTAKUNTZA					
Prestaturiko parte-hartzaileak	24.128	11.434	45.041	31.725	42,0
Batez besteko prestakuntza-orduak	52,0	63,8	105,0	..	..
EAE-K ESKAINITAKO PRESTAKUNTZA					
Prestaturiko parte-hartzaileak	19.759	23.535	..	..	..
Batez besteko prestakuntza-orduak	67,8	87,5	..	..	..
PRESTAKUNTZA GUZTIRA					
Prestaturiko parte-hartzaileak	104.336	137.713	163.005	156.723	-3,9
Landunen estaldura-tasa**	12,3	15,3	17,5	19,2	9,7

(*) GSDOn izena emanda duten enpresa kopuruan oinarrituta kalkulaturiko estaldura-tasa, sektore publikoa izan ezik.

(**) Langile guztien (sektore publikoa izan ezik) kopuruan oinarrituta kalkulaturiko parte-hartzaile prestatuak BAEn arabera (EIN).

Iturria: enplegurako prestakuntzaren hirutariko fundazioa.

II.6.27. Koadroa. EAE-n enplegua sustatzeagatiko hobariak gizarte segurantzaren kotizazioan. Euroak, milaka

	2008	2009	2010	% Var 09/10
Araba	29.884	32.791	..	..
Gipuzkoa	75.290	76.114	..	..
Bizkaia	99.475	99.872	..	..
EAE guztira	204.648	208.777	243.100	16,4

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, emandako 100 baino ikastaro gehiagoren artean, parte-hartzeari dagokionez, lan-osasunari eta lan-arriskuen prebentzioari, hizkuntzei eta erabiltzaileentzako informatika-ofimatikari loturiko ikastaroen parte-hartzea nabarmentzen da. Azken lau urteetan hiru gai horietan prestatu da parte-hartzaileen herena, batez beste.

c) Enplegua sustatzeko programak

Lan eta Immigrazio Ministerioaren sustapen ekonomikoarekin, enplegua sortzen laguntzeko programen artean, enplegua sustatzeagatiko hobaria nabarmentzen da. Enplegua sustatzeak eginkizun horretan baliabide gehien biltzeaz gain, EAEn egindako Enplegu Politika Aktiboen artean baliabide gehien biltzen dituen da. Laguntza horiek aldi berean kontratazio mugagabea eta zailtasun handienak dituzten taldeentzako (luzaroko langabeak, emakumeak, gazteak, ezinduak eta 45 urtez gorako langileak) arreta sustatzera daude zuzenduta, eta 1997ko lan erreformaz geroztik ematen dira. Bestalde, 45/2002 Legeak 2002ko enplegua sustatzeko programako zenbait langabetu talderi kontratu mugagabeak egiteko pizgarriak zabaldu zituen eta hiru programa berri ezarri zituen (langabezia prestazioak jasotzen dituztenak prestakuntzako langileak ordeztu bitartean kontratatzea sustatzeko; langabezia subsidioa eta inoren konturako lana bateratu ahal izateko; eta langabetuen mugikortasun geografikoa sustatzeko). Enplegua sustatzeko programek aldiari-aldiari eguneratzen dute pizgarri sistema. Orduetik aurrera kontratazioari pizgarri mota horien erabileran hazkunde etengabea eman zen, eta 2010ean, behin-behineko datuen arabera, 243,1 milioi euro izan ziren, aurreko urtean baino %16,4 gehiago.

Beste programa osagarri batzuk enplegua babesteari buruzkoak dira tokiko garapena sustatzeko eta E+E gisa kalifikatutako proiektuak eta enpresak bultzatzeko, enplegu autonomia eta ezinduen laneratzea sustatzeko. 2009ko datuek adierazten dute 47 milioi euro eman zirela guztira jardura horiek gauzatzeko, aurreko urtean baino % 3,4 gutxiago. Laguntzen banaketa oso egonkorra izan da azken urteetan. 2009an laguntzen % 64 ezinduen laneratzeraz zeuden bideratuta, % 30 enplegu autonomia sustatzera, eta gainerako % 6 tokiko ekimenetara. Azken horiek, batez ere, kontratazio mugagabeak eta tokiko enplegu-eragileak diruz laguntzeko izan ziren.

6.6.2 Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Politikak**Bitartekotza, informazioa eta orientazioa**


“LANBIDE-Enplegu Euskal Zerbitzua” orientazio, laguntasun eta lanerako prestakuntzakoa da eta 2003-2006ko Erakundearen arteko Enplegu Planaz geroztik abiarazi zen. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren mendekoa da, eta bitartekotza zerbitzu horiek ez ezik, 2010ean, aztertzen ari garen urtean, informazio, lanbide orientazio eta enplegu sustapen zerbitzuak ere eman zituen.

LANBIDEk 2010eko laugarren hiruhilekoan 71.088 enplegu-eskari erregistratu zituen guztira (2009ko laugarren hiruhilekoan baino %6,2 gehiago). Iturri horren arabera, eskari horien %89,1 langabezian zeuden.

Cuadro II.6.28. Enplegu eskatzaile aktiboak lanbiden. IV. Hiruhilekoa. 2010.

	Guztira	Gutzizko-aren g. %	BJA lang. tasa	Gizonak	Emakumeak
16-24	9.008	12,7	25,0	5.161	3.847
25-34	24.235	34,1	11,9	12.033	12.202
35-44	21.180	29,8	7,6	10.523	10.657
45-54	13.416	18,9	7,2	6.911	6.505
55 eta +	3.217	4,5	4,9	1.759	1.458
Guztira*	71.088	100,0	9,2	36.403	34.685

(*) Adinaren daturik ez duten pertsonen izen-emateak ere barne hartzen ditu. Iturria: LANBIDEren eta EUSTATen datuekin egindakoa.

II.6.18. Grafikoa. LANBIDEn erregistratutako enplegu eskatzaile aktiboak adinen arabera. IV. hiruhilekoak

Iturria: LANBIDE.

Enplegu-eskatzailen kopuru handiena duen adin-taldea 25 eta 34 urte artekoa da (%34,1) eta, ondoren, hurrengo adin-taldea, 35 eta 44 urte artekoa (eskatzailen %29,8). Sexuen arteko banaketari dagokionez, %48,8 emakumeak dira (urtebete lehenago %49,2). Halaber, Enpleguko Euskal Zerbitzuak 18.433 lanpostu eskaini zituen zerbitzu horren eta haren zentro laguntzaileen bidez, aurreko urtean baino %28,2 gehiago.

LANBIDEen bidez gehien eskaini eta eskatutako lanpostuei dagokionez, enplegarritasun maila handiengatik eta eskaintza nahikoa egoteagatik, aseguru agente, nekazaritzako peoi eta elkarriketatzailer-kestatzaile lanpostuak nabarmendu ziren.


b) Lanbide-prestakuntza

Lanerako prestakuntza

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko prestakuntza-programak 2004tik modu esanguratsuan aldatu ziren, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituen abenduaren 23ko 327/2003 Dekretua, Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua, eta lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua onetsi ondoren eta uztailaren 29ko 191/2003 Dekretua indarrean mantenduz. Azken dekretu horrek enpresarien elkarteei eta sindikatuen erakundeei, beren jardura eremuetako berezko gaiei dagokionez, giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko diru-laguntzak ematea arautzen du.

Guztira, Enplegu eta prestakuntzaren zuzendaritzaren prestakuntza programek eta ekintzek, 2010ean, 15,9 milioi

II.6.19. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Prestakuntzaren Zuzendaritzaren prestakuntza programen eta ekintzen emaitzak



Iturria: LANBIDE, Enpleguko Euskal Zerbitzua, 2011.

euroko gastua ekarri zuten, aurreko urtean baino %10,6 gutxiago. Funts horien %65,6 Lanerako Prestakuntzari loturiko ekintzetara bideratu ziren, %7,2 enpresa-sustapenera eta %5,9 enpresarien eta sindikatuen erakundeetako kideen prestakuntzara.

Etengabeko prestakuntza⁷

Araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, pertsonen eta enpresen arteko etengabeko prestakuntza-

II.6.29. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren enplegu eta prestakuntza zuzendaritzaren prestakuntza ekintzak eta programak

	2009				2010			
	Ekintza kop.	Ordu kop.	Parte-hartzaile kop.	Diru-laguntza guztira (€)	Ekintza kop.	Ordu kop.	Parte-hartzaile kop.	Diru-laguntza guztira (€)
Enplegurako Orientazio Zerbitzua	173.557	154.244	71.379	5.164.405	171.318	136.531	68.569	3.324.080
Lanerako prestakuntza								
Enplegu-Prestakuntza ekintzak	16	5.935	140	421.210	5	2.513	52	176.741
% 60 kontratatzeke konpromisoa duten ekintzak	46	10.317	588	768.351,50	26	7.185	312	528.340
Instituzio arteko Planetatik eratorritako ekintzak	16	10.204	221	685.078	21	6.095	260	441.959
Prestakuntzako beste ekintza batzuk	463	103.193	5.885	7.670.077,5	480	127.774	6.620	9.283.035
Enpresa Sustapena								
Kultura ekintzailea hedatzeko ekintzak	328	3.645	5.811	219.950	0	0	0	0
Taldeko prestakuntza-ekintzak	188	10.588	2.273	700.350	141	7.121	1.747	481.390
Banakako aholkularitza ekintzak	58	13.930	1.010	543.095	44	10.409	888	368.025
Gaztempresa	292	14.600	444	400.000	234	2.808	365	300.000
Enpresa eta sindikatu erakundeetako kideen prestakuntza	953	9.265	23.447	1.155.355	857	10.403	22.451	942.858
Terrorismoaren biktimen arreta	210	589	36	61.800	252	750	42	63.661
GUZTIRA	176.127	336.510	111.234	17.789.672	173.378	311.589	101.306	15.910.089

Iturria: LANBIDE, Enpleguko Euskal Zerbitzua.

⁷ 6.6.1. atalean azaldu denez, EAEen 2007an Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisistema arautzeko 395/2007 EDaren onarpenak etengabeko LHri eragin zion. Errege Dekretu horrek Etengabeko Lanbide Heziketa arautzen zuen 1.046/2003 Errege Dekretua ordeztu zuen, eta etengabeko prestakuntza eta lanerakoa batu zituen.

jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Ekintza horien finantzazioa Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik eratorritako funtsen kargura egiten da batez ere, bai administrazio zentralarenak (EEZPri emandakoak) zein Eusko Jaurlaritzarenak, Hobetuzen kasuan.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) bidez burutzen diren etengabeko prestakuntza-

jardueren kasuan, 2009an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken informazio irmoa) 931 espediente kudeatu zituen guztira (642 plan bilduz), 66.770 pertsonaren prestakuntza ahalbidetuz. Horretarako 26,58 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren. HOBETUZ organismoak langileen etengabeko prestakuntza kudeatzen du EAEn eta patronalen, sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak osatzen dute.

2010eko emaitzei dagokienez, guztira 329 espediente kudeatu dira enpresa eta sindikatu erakundeen eta prestakuntza zentroen eremuan, eta 20,77 milioi euroko diru-laguntzak eman dira.

II.6.30. Koadroa. Hobetuz: 2009ko deialdiaren balantzea

		Plan mota	Espedienteak	Emandako dirulag.	Partehar-tzaileak
Enpresak		Enpresa planak	291	3.586.839	20.940
		Enpresa taldeen planak	63	1.203.689	6.269
		Enpresa diagnostikoak	235	677.692	0
		Enpresa taldeen diagnostikoak	28	93.558	0
		Enpresaz gaindiko diagnostikoak	25	336.732	0
		Guztira	642	5.898.510	27.209
Langile-ak	Sektoreen arteko sektore planak	Erakunde sinatzaileak	17	8.082.607	12.794
		Erak. Sinatzailearen sekt.	3	531.322	1.338
		Erak. Sinatzailearen sekt. Artekua	14	7.551.285	11.456
	Prestakuntza erakunde-autonomo-gizarte ekonomia eta ez sinatzaileen planak	Prestakuntza erakundeen sektorekoa	19	180.917	864
		Ez sinatzaileen sekt.	25	445.878	1.300
		Modulu katalogoa	73	6.891.387	12.302
		Gizarte ekonomia	2	268.222	162
		Autonomoak	4	369.334	314
		Prestakuntza erakundearen sekt. Artekua	149	4.447.988	11.825
		Guztira	289	20.686.333	39.561
		Guztira	931	26.584.843	66.770

Iturria: HOBETUZ.

c) Enplegua sustatzeko programak

Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez buruturiko enplegu-politika aktiboak, esan bezala, modu esanguratsuan aldatu ziren 2004an lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua eta Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua onestearen ondorioz. Lehenengo dekretuak, Enpleguaren aldeko Instituzioen arteko Plana 2003-2006 oinarri duena, laneratzeko zailtasunak dituzten langabetuen taldeak kontratatzeko laguntza berriak arautzen ditu eta dekretu horrek indargabetzen dituen hainbat arautan jasotako aurreko jarduerak taldetan jartzen ditu.

Bestalde, 328/2003 Dekretuak langabetuek osaturiko enpresen sorrera babesteko diru-laguntzak ezartzen ditu eta abenduaren 24ko 305/1996 Dekretua indargabetzen du. Dekretu horren bidez autoenplegua sustatzeko neurriak arautzen dira. Dekretu horiek garatzen dituzten enplegurako laguntzak jarduteko bost ildotan banatzen dira eta honako helburuak dauzkate:

1. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunik handienak dauzkaten taldeen laneratzeari erraztea eta mugagabeko

kontratuak eta behin-behinekoak mugagabe bihurtzea sustatzea.

2. Txanda-kontratuarentzako laguntzen bidez langileria berritzea, langabe erregistratutako pertsonekin edo enpresarekin iraupen jakin bateko kontratua sinatuta duten langileekin izan⁸, baita langileria berritzeko laguntzen bidez ere sozietate kooperatiboetan.
3. Lan-denboraren banaketa sustatzea. Horretarako, aparteko orduak kentzeko eta egoera jakinetan lanaldia murriztea edo kentzea adostu duten langileak eta bazkideak edo lan-kontratuak ordezkatzeko kontratu-erako laguntzak ematen dira.
4. Tokiko Enplegu-Trebakuntza Proiektuetako lan-kontratuak diruz laguntzea. Proiektu horien prestakuntza-faseak lan-aukerak areagotzeko eta laneratzeari sustatzeko neurriak arautzen dituen Dekretuan ezarritakoaren arabera diru-laguntza jaso dutenak dira.
5. Laneko eta familiako bizitza bateratzeari mesede egitea, langabetuak kontratatzen dituzten enpresa pribatuentzako laguntzen bidez. Langabetu horiek sei urtetik beherako seme-alabak edo adin hori baino nagusiagoak diren ezinduek zaintzeko eszedentzia

⁸ Txanda-kontratuak lanaldi osokoa eta mugagabea izan behar du edo, iraupen jakin baterako sinatuz gero, hasieran bukatutakoan kontratu mugagabe bihurtzeko konpromisoa jaso behar du.

II.6.31. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren enplegua sustatzeko programak 2010ean. Behin-behineko datuak. (Diru-laguntzak milaka eurotan eta batez besteko diru-laguntza eurotan)

	EAE			Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Lang. kop.	Dirulag. Guztira	Dirulag. batez beste (€)	Lang. kop.	Dirulag. Guztira	Lang. kop.	Dirulag. Guztira	Lang. kop.	Dirulag. Guztira
Kontratazioa (1)	324	2.280.605	7.039	49	294.705	190	1.337.618	85	648.282
Langileak berritzea (2- Txanda-kontratua).	489	2.644.049	5.407	68	360.416	233	1.281.706	188	1.001.927
Kooperatibetako langileak berritzea (2- Erretiratzeko den bazkidearentzako laguntzak)	7	63.775	9.111	..	..	..	..	7	63.775
Kooperatibetako langileak berritzea (2- Sozietateko kontratu berriak)	5	58.635	11.727	..	..	..	..	5	58.635
Lan-denboraren banaketa (3)	39	56.119	1.439	1	628	14	17.685	24	37.806
Enplegu-prestakuntza proiektuak (4)	8	684.137	85.517	2	181.000	2	170.000	4	333.137
Lana eta familiako bizitza bateratzea (5-Enpresak)	1.621	1.902.347	1.174	314	378.493	632	691.311	675	832.543
Enpresen sorrera (6)	294	1.911.800	6.503	29	198.000	141	912.000	124	801.800
PROGRAMAK GUZTIRA	2.787	9.601.466	127.916	463	1.413.242	1.212	4.410.320	1.112	3.777.905


329/2003 Dekretua: (1) II. kap.; (2) III. kap.; (3) IV. kap.; (4) V. kap.; (5) VI. kap.

328/2003 Dekretua: (6) IV. kapitulua.

Iturria: LANBIDE, Enplegu Eusko Zerbitzua.

edo lanaldia murrizteko eskubideak baliatzen dituzten besteren konturako langileak ordezkatzeko dituzte⁹. 2010ean, enplegu programa horien behin-behineko emaitzen arabera, 2.787 onuradun egon ziren pertsonen eta enpresen artean (2009an baino %32,2 gutxiago) eta emandako diru-laguntzak 9,6 milioi eurokoak izan ziren (aurreko urtean baino %52 gutxiago). Onuradunen kopuruak programen zenbateko osoa baino neurri txikiagoan egin zuenez behera, batez besteko zenbatekoa, 3.445€, aurreko urtekoa baino %29,2 txikiagoa izan zen.

II.6.20. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren Enplegua sustatzeko programaren emaitzak



* Behin-behineko datuak.

Iturria: LANBIDE, Enplegu Eusko Zerbitzua, 2011.

⁹ 2007ko erdi aldera arte ildo horretan eszedentzia edo lanaldi murrizketei heltzen zieten langileentzako laguntzak ere sartzen ziren. Uztailaren 28az geroztik haiek Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saileko Familiaren Zuzendaritzak kudeatzen ditu. Atal horrek onuradun asko eta funts bolumen handia biltzen zituenenez gero, enplegua sustatzeko programen emaitzen urteroko bilakaera aztertuta, ikusiko dugu 2007az geroztik onuradun kopurua eta laguntzen zenbatekoak oso murriztu zirela aurreko urteen aldean.



03

BIZI-KALITATEA EAE-n



1 Familiak eta lana eta norberaren bizimodua bateratzeko premiak

1.1. Familia egituraren bilakaera EAE-n

Familia gizarteko oinarritzko elementua da, burutzen dituen gizarteko eginkizunen garrantziagatik, bereziki, haurrak gizartean duten kokatzea eta identifikatzea, mendeko seme-alabak zaintzea, familiako kideak mantentzea, osatzen duten guztiak sozializatzea, euskarri afektibo eta emozionala ematea eta senitartekoei batak besteari babesa eta laguntza ematea.

EAEko familia moten banaketa asko aldatu da azken hamarkada bietan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz.


EAEko familien tamaina 3,6 lagunetik 2,6ra igaro da 1986 eta 2006 artean (informazioa eskuragarri dagoen azken urtea), familia kopurua %32 hazi eta biztanleria %0,2 murriztu baitzen. Tamaina hori, European, Suediako, Finlandiako eta Alemaniako familiak duten tamainarekin aldera daiteke. Danimarkan baino ez da txikiagoa (2,5). 27EBko batez besteko tamaina 2,9 laguneko familia da, 2007ko datuak aintzat hartuta.

Etxeen tipologiari dagokionez, jaiotze-tasa mailarik txikienetara jaitsi eta bizi itxaropena handitu egin denez, pertsona bakarreko familiak eta seme-alabarik gabeko nuklearrak (bikote ezkonduak zein ez) ugartu egin dira. 1986tik 2006ra pertsona bakarreko familiak hirukoiztu egin dira eta seme-alabarik gabeko ezkontideek edo bikotekideek osatutakoak bikoiztu; hori dela-eta, lehenengo aldiz, familia mota bi horien pisuak (%42,5) seme-alabadun aita-amek osatutako tradizionalarena gainditu du.

Bakarrik bizi diren familien kasuan, % 61 pasatxo emakumezkoak dira, % 40 ezkongabeak eta % 41,5 alargunak.

Bestalde, seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako etxeak 59.000 gehiago dira hamar urtetan, eta azpimarratzekoa da talde horretan 80ko hamarkadan seme-alabak izan eta independizatu diren etxeak sartu direla.

III.1.1. Grafikoa. EAEko pertsona bakarreko familien banaketaren bilakaera ehunekoetan adin taldeen arabera



Iturria: EUSTAT.

Familia tradizionala, aldiz, aita eta ama eta seme edo alaba batek edo gehiagok osatutakoa, 1986an familia guztien % 63 izatetik, 1996an % 51 eta 2006an % 40,8 izatera pasatu zen. Era berean, batez besteko tamaina murriztu egin da: 4,3 kide 1986an, 3,9 1996an eta, azkenean, 3,7 2006an. Bestalde, azpimarratu behar da izatezko bikoteak ugartu direla, 1986an 4.000 inguru izatetik (%1) 2006an bikoteen %8 izatera igaro baitira. Hazkunde hori, batez ere, azken hamar urteetan gertatu da.


EUSTATen datuen arabera, guraso bakarreko familien, polinuklearen eta konposatuaren bilakaerak desberdinak izan dira: Guraso bakarrekoak ugartu egin dira 1986tik,

III.1.1.1. Koadroa. Familien banaketa ehunekoetan mota eta batez besteko tamainaren arabera. EAE. 2006

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Banaketa	Batez besteko tamaina	Banaketa	Batez besteko tamaina	Banaketa	Batez besteko tamaina	Banaketa	Batez besteko tamaina
GUZTIRA	100,0	2,64	100,0	2,66	100,0	2,62	100,0	2,65
Pertsona bakar.	21,6	1,00	22,2	1,00	21,2	1,00	21,9	1,00
Konposatua	2,7	2,34	3,1	2,55	2,7	2,27	2,6	2,32
Seme-alaba gabeko nuklearra	20,9	2,00	21,4	2,00	20,7	2,00	21,2	2,00
Seme-alabadun nuklearra	38,0	3,59	39,0	3,61	38,1	3,56	37,5	3,61
Guraso bakar.	8,3	2,39	7,2	2,49	8,9	2,37	7,9	2,37
Hedatua	4,8	4,00	4,1	3,92	5,1	4,00	4,8	4,04
Polinuklearra	3,6	5,33	3,0	5,41	3,5	5,27	4,1	5,37

Iturria: EUSTAT. Populazioaren Inkesta, 2006.

III.1.2. Grafikoa. EAEko guraso bakarreko familien banaketaren bilakaera ehunekoetan pertsona nagusiaren egoera zibilararen arabera



Iturria: EUSTAT.


urte hartan mota honetako ia 50.000 familia baitziren, 2001 arte, mailarik gorena lortu zutenean, guztira 88.000 izanik. Harrezkero, ordea, joera kontrakoa izan da eta 2006an 72.000 inguru ziren. Familia konposatuak antzeko prozesua izan dute, 1986an ia 15.000 izanik, 25.000 2001ean, eta 2006an 23.000 arte jaitsiz. Familia polinuklearrak, bestalde, 1986an 21.000 izatetik 2011ean 13.000 izatera jaitsi ziren, baina azken bost urteetan bikoiztu egin dira, 28.500 izan arte.

Guraso bakarreko familien pisua ez da ia aldatu azken 20 urteetan, eta guztien %9 inguru dira, baina eragin duen zioa aldatu egin da: oraindik kasu gehienetan ezkontide baten heriotzaren ondoriozkoak izan arren, dibortzio edo banantze prozesuek gero eta garrantzi handiagoa dute, 1986an familia horien ia %8k erreferentziazko pertsona dibortziatu edo banandua izatetik 2006an %25ek izatera igaro baita. Amen guraso bakarreko familien proportzioa, aldiz, ez da ia aldatu, eta guztira %85 dira, Europan baino apur bat gutxiago, bertan %90 inguru baitira.

Familia konposatuak dagokionez (senidetakunak lotuta egon zein ez, familia gunerik ez duten banakoek osatutakoak), 1991n zuten pisura itzuli eta ez dira gehiago jaitsi etorkinek osatu dituzten mota horretako familiengatik, familia tipologia horretako erreferentziazko pertsonen %13,5 atzerria jaio baitira, familia guztien artean halakoak %3,5 baino ez diren bitartean. Erreferentziazko pertsona horien ezaugarri nagusia da haietako ia %77 ezkongabeak direla eta %65 45 urtetik gorakoak direla.

EAEko familien ezaugarriak lotuta, "EAEko biztanleriaren azterketa eta etxebizitzaren merkatuaren epe luzerako bilakaera" izeneko azterlanak dio 2020 arte familiak neurritz haziko direla aurreikus daitekeela, 2010 eta 2020 arteko aldakuntza garbia 42.000 eta 50.000 familiaren artean ibiliko dela kalkulatu, hipotesi ezberdinen arabera. Azterlan hori 2009an egin zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Euskal Behatokiak, EUSTATen 2020rako arteko biztanleriaren proiektzioak oinarri hartuta. Hazkunde hori handiagoa izango da 2011 eta 2015 urteen artean 2016 eta 2020 urteen artean baino, eta familia unitatearen tamaina txikituz joango dela ere uste da, 2020rako 2,57

III.1.3. Grafikoa. Familia unitatearen batez besteko tamaina Europan. 2007



Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

eta 2,62 kideko familiak izanik. Halaber, azterlanak zera antzeman du: erreferentziazko pertsona gisa emakumea duten familiek gora egin dezaketela gazteen familiek (20 eta 39 urte bitartean) sortzeko abiadura murriztuz doan heinean. Helduen eta pertsona nagusien familiek gora egitea ere aurreikusten da.

1.2. Lana eta norberaren bizimodua bateratu beharrak

Azken urteetan, familien osakerak izan dituen aldaketak eta aldaketa horiek ugalkortasun-tasetan izan duten eraginak handituz doan interes publikoa zirikatzen dute, dakartzen ondorioak direla eta. Ugaltzeko joera duten adinekoen artean laneratze eta igoerriko kontzientziak emakume gazteak oso egoera zailean jartzen ditu seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiek.

Inguruabar horiek arazo berriak sortzea eragin dute elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrezko inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoek arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.


Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenak (CSIC)¹ duela gutxi egindako azterlan batek zera azaldu du: emakumeen hezkuntza-mailaren igoera sistematikoa, lan munduan parte hartzeak ekarritako aldaketak eta aldaketa horiek familiako prozesuetan izan duten eragina. Azterlanak dio 1940 baino lehenago jaiotako emakumeen % 40 pasatxok inoiz lanik ez duela egi; 1955 baino geroago jaiotakoen % 11 bakarrik dira inoiz lanik egin ez dutenak.

Txostenakaldehandiakera kutsidubikoteko elkarbizitzaren hastapenean eta seme-alaba kopuruan, emakumeek lan egin ala ez eta burutzen duten jardueraren arabera: inoren konturako jarduerarik ez dutenak, lanaldi partzialeko lana dutenak edo lan ezegonkorra dutenak lehenago hasten dira bikotean bizitzen, lehen amatasuna aurreratzen dute eta seme-alaba gehiago dauzkate. Aldiz, lan egonkorra duten emakumeek bizikidetzeta eta amatasuna atzeratu egiten dituzte, eta seme-alaba gutxiago izaten dituzte. Horrez gain, adin guztietan, lan egin eta haurren bat izan duten inkestaturiko emakumeen % 75ek baino gehiagok aitortu dute laneko edo hezkuntzako zailtasunak izan dituztela amatasunarekin lotuta. Belaunaldirik gazteenen artean eragina areagotu egin dela antzeman da, gainera. Horren haritik, Emakundek egindako *“EAEko emakumeen ibilbide eta egoera profesionaleko desberdintasuna”* izeneko azterlanak (2008)² zera ondorioztatzen du: geroz eta gehiago dira familiako eta laneko bizitza bateratzeko lan-baldintzak malgutzeko neurriak hartzen dituzten pertsonak, baina neurri horiek, eta batez ere lanaldia laburtzeak, neurri horiek hartzen dituzten pertsonen (normalean emakumeak) garapen profesionaletan mugatzen dute.

Familiak lanaren ordutegiak eta betekizunak familia mantentzearekin eta, batez ere, seme-alabak zaintzearekin bateragarri egiteko erabiltzen duten beste baliabideetako bat aitona-amonak dira. Eusko Jaurlaritzaren *“Euskadiko 60 urtez gorako pertsonen errealtateari buruzko azterlan 2010”* izeneko emaitza txostenaren arabera, ilobak dauzkaten euskal adinekoen artean (572), %45,6k diotenez euren seme-alabei lagundu behar diete eguneroko zaintzetan. Aitona-amona jagole guztietatik, %52,8 emakumeak dira eta %90 60 eta 79 urte artekoak dira. Kasu gehienetan, ilobak zaintzeak aitona-amona biak nahasten ditu. Laguntza hori, gainera, maiztasun handiz egiten da: ilobak zaintzen dituzten pertsonen %29,7k egunero egiten dute, astean behin edo bitan zaintza lanak egiten dituztenen antzeko ratioa. Alegia, asteroko laguntza kasuen %59,2raino iristen da.

Seme-alabak jaio edo adoptatzeagatik laguntzak eta familia bizitza eta lana bateratzeari dagozkionak 2002an hasi ziren I Familia Plana argitaratu zenean. Harrezkero eta 2010 arte laguntza horien guztizko gastua 311,81 milioi eurokoa izan da³. Haietatik, 160,99 milioi (guztien %51,6) jaiotza, adopzio edo adopzio aurreko abegiagatik laguntzak dira eta gainontzeko 150,82 milioi euroak (%48,4) bateratzeko laguntzei dagozkien. Planak ondorioztatu zuen haren lehentasun nagusietako bat familiaren arloko arau-esparru zabala lortzea zela, EAEko etorkizuneko

III.1.4. Grafikoa. EBko herritarrak etxeko lanak egiteko nekatuegi dauden maiztasuna asteko lan orduen arabera. 2007



Iturria: EUROFUND.

gizarte-politiketarako oinarriak ezarriko dituen, 2020ko bateratzeari begira.

EUROFUNDen (Bizi eta lan baldintzak hobetzeko Europar Fundazioa) *“Bizi Kalitatearen Europako II. Inkestak”* (2007) jakinarazi zuen Europar Batasuneko langileen % 48 lanetik itzultzean nekatuegi egoten direla etxeko zereginak egiteko, gutxienez hilean hainbat aldiz, eta langile horien laurdenak hala sentitzen direla astean hainbat alditan. Halaber, % 29k familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lana dela eta, eta % 12k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta. Ehuneko horiek asko aldatzen dira herrien arabera, eta aztertutako hiru adierazleetan Espainian Batasuneko batez bestekoa baino nahiko handiagoak dira (%57, 38 eta 16ko ratioak, hurrenez hurren).

Gizon eta emakumeen enplegu eta lan ordutegiari lotutako egoerari begira, dirudienez, herrialde askotan gizonak, eta batez ere emakumeak, euren lan hautaketak norberaren egoeretara egokitzen dituzte (adibidez, lanaldi oso edo partzialeko lanaren artean hautatuz). Ordaindutako ordu gehien lan egiten duten pertsonen diotenez arazo handiagoak dauzkate bizitza eta lana bateratzeko. EBko langileen laurdenek baino gehiagok uste dute denbora gehiegi ematen dutela lanean; hori maizago gertatzen da gizonen artean emakumeen artean baino).

Orokorrean, europarrak asetasun txikiagoa dute familiari emandako denborarekin lanean emandako denborarekin baino, eta egokituago dago familia bizitza lan eskakizunei lan antolakuntza familiari baino. Alde handiak daude herrien artean. EUROFUNDen inkestaren arabera, iparreko herrietan, Beneluxen eta Frantzia, nahi den oreka lortzeko ezintasunaren arrazoia denbora falta da. Erdi eta ekialdeko

¹ Zientzia Ikerketen Kontseilu Gorenak (CSIC) eta Berdintasunaren Ministerioa (2009): *Fecundidad y trayectoria laboral de las mujeres en España*. Estatu-mailan egindako azterlanak, 15 eta 75 urte arteko 10.000 emakumeri egindako inkesta oinarri hartuta.

² Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2008ko edizioa.

³ Zenbateko horri 2002az geroztik izandako urteko kredituak batu behar zaizkio, harrezkero herrestan ekarri baitira zenbait urtetarako direlako, eta guztira beste 58 milioi euro dira.

Europako herrietan eta Batasunaren kide berrietan, batez ere lanaldi luzeek eragindako nekeak kaltetzen du lanaren eta familia bizitzaren arteko oreka. Ematen du hori errazago lortzen dutela herri anglosaxoietan eta aleman hizkuntzakoetan; azalpena izan daiteke proportzioz gutxiago direlako bikoteak biek diru-sarrerak dauzkaten bikoteak eta ama ezkongabe langileak.

1.3. Familiei laguntzeko politika publikoak

Egoera horiek aintze aldera, Eusko Jaurlaritzak "Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko I. Plana" jarri zuen abian 2002AN, familiei seme-alaben kopurua libreki erabakitzea eragozten dieten ekonomia, gizarte eta lan oztopoak gainditzeko. 2006an bigarren Plana jarri zen abian eta 2010 arte izan da indarrean.

Plan horren 2006-2008 Bitarteko Ebaluazio Txostena seme-alabak dituzten familiei laguntzeko neurriak zabaltzeko, indartzeko eta neurri horiei jarraitutasuna emateko, eta aurreko planean aurreikusi ez ziren gastuak ordaintzera bideraturiko laguntza berriak gehitzeko egin zen.

Legea onetsi zen, batez ere, familia-politika egiteko esparru eta horren oinarri maila juridikoa emateko. Politika horrek integrala izan behar du eta familien eta familiako kideen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzera bideratuta egon behar du.

2010i dagokionez, bestalde, seme-alabak jaio edo adoptatzeagatik laguntzen balantzea guztira 24,34 milioi eurokoa izan da, honela banakatuta:

- Lehenengo seme-alabagatik laguntzak: 10.250 espediente onetsi dira eta gastua guztira 7,05 milioi eurokoa izan da. Emandako batez besteko diru-laguntza 688 eurokoa izan da (laguntza ordainketa bakarrekoa da eta familia unitatearen errentaren araberkoa da).

III.1.2. Koadroa. Adingabeak zaintzeko lanaldia laburtzeari eta eszedentziari loturiko espedienteak eta gastuak. EAE

	2008	2009	Bar % tan
Lanaldia laburtzea - emakumeak	20.005	35.735	78,6
Lanaldia laburtzea - gizonak	1.417	2.396	69,1
LAN. LABURTZEA GUZTIRA	21.422	38.131	78,0
Eszedentzia - emakumeak	4.739	7.446	57,1
Eszedentzia - gizonak	148	223	50,7
ESZEDENTZIAK GUZTIRA	4.887	7.669	56,9
ZENBAT. GUZTIRA (euros)	11.108.344	18.522.740	66,7


Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

III.1.3 Koadroa. Laguntzak haurrak eta pentzura zaintzeko kasu ebatzi aldeko EAEn. 2009

	Txikiak		Mendeko pertsonak	
	Guztira	Emakumeen %	Guztira	Emakumeen %
Eszedentziak	7.669	97,09	86	91,86
Murritzetak	38.131	93,72	377	80,90
%33-40	22.421	93,22	214	86,91
%40-45	2.097	94,47	17	70,58
>%45	13.613	94,40	146	73,28
Guztira	45.800	94,28	463	82,93

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

III.1.5. Grafikoa. Seme-alaben jaiotza edo adopzioagatik laguntzak EAEn. Eskaren eta gastuaren bilakaera, milaka eurotan



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

* 2006an lehenengo seme-alaba jaiotzeagatik laguntzak sartu ziren.

III.1.4. Koadroa. Eusko Jaurlaritzak familiei emandako laguntzen bilakaera

	Jaiotza edo adopzioa		Bateratzea	
	Espedienteak	Gastua (milaka euro)	Espedienteak	Gastua (milaka euro)
2008	28.175	25.333	27.005	11.297
2009	29.754	26.185	46.816	18.830
2010	30.021	24.340	48.140	26.834
09/10 ald. %	0,9	-7,0	2,8	42,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

- Bigarren seme-alabagatik laguntzak: 2010ean 13.454 espediente onetsi ziren, 7.248 laguntza horren lehenengo urterokoagatik eta 6.206 bigarrenagatik. Kostua guztira 10,69 milioi eurokoa izan zen.

- Hirugarren eta hurrengo seme-alabengatik laguntzak: Laguntza honi dagokion gastua guztira 6,6 milioi eurokoa izan da, guztira diru-laguntzarako eskubidea zuten 5.707 espediente egonda. Haietatik, 1.477 ekitaldian gertatutako jaiotza edo adopzioagatik izan ziren, eta beste guztiak bigarren eta ondorengo urterokoengatik.

Halaber, eta Memoria hau ixterakoan kontusailaren banakatzea ezagutu ez arren, Jaurlaritzak 26,82 milioi euro zuzendu ditu (%+42,4 2009aren aldean) familia bizitza eta lana bateratzeko laguntzetara. Aurten laguntza horiek arautzeko beste dekretu bat onartu da; haren berritasunen artean, aurreko araudiko gizonen aldeko ekitntza ezabatu da, zenbatekoak eta lanaldia murrizteko adingabearen adin muga handitu dira eta eszedentzia edo murrizketengatik laguntzak eskola oporraldietan jasotzeko aukera ere zabaldu da. Era berean, izugarrizko osasun larritasuneko senideak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi murrizketetarako eta seme-alaba adingabeen jagoleen lana sortzea eta legeztatzea sustatzeko diru-laguntzak sartu dira.

Bestalde, 2010ean Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte eta lan berrikuntzaren zuzendaritzak lan baten ondorioak aurkeztu ditu. Lan horretan, lana eta norberaren

bizimodua hobeto bateratzeari begira lan ordutegia aldatzeak EAEko enpresetan dakartzen ondorioak aztertu dira. Ikerketa horrek Europako zenbait herrialdetako lan ordutegiak aztertu eta EAEko eta Estatuako errealitatearekin erkatu ditu; ondorioa izan da bateratzea errazten duen lan baldintzen hobekuntzak zuzenean dakarrela enpresaren produktibitatearen eta lehiakortasunaren hazkundera eta gizarte orekatu eta jasangarriagoa lortzeko, jendeak aisiaz bete-betean gozatu ahal izatea eta bere familiarekin egon eta seme-alabak hezteko denbora izatea erraztu behar direla.

Egiaztatuenez, denbora eragile mugatzailea da eta langileen %40 ez daude oso edo batere ase euren ordutegi orekarekin eta, beraz, lan ordutegi hobea izatea gehien baloratzen duten kontuetako bat da. Ondorioen artean, Saila lanaldi europar-malguaren alde agertu da. Hura hartu duten enpresen euren arabera, etengabeko lanaldiak, sartu eta irteteko ordutegia malgutzeak eta ordutegi trinkoagoak honako ondorio onak dakartzate:

- lan giroa eta langileen asetasuna hobetzen ditu: %36,7
- bateratzea hobetzen du: %30
- produktibitatea hobetzen du: %23,3
- errendimendu edo bezeroarenganako arreta hobea: %13,3


Ondorio horietan oinarrituta, Sailak, 2010eko bigarren sei hileroan, eredu proiektu bat abiarazi du halako ekimenak sustatzeko; bertan, EAEko lau enpresak hartu dute parte eta, Jaurilaritzaren zaintzapean, euren langileen bateratzeko premiekin bateragarriagoak diren ordutegiak hartu dituzte.

III.1.5. Koadroa. Aldaketa nagusiak denboraren erabileran EAE-n 2003 eta 2008 artean

- Otorduetan erabilitako batez besteko denbora 20 minututan murriztu da
- Emakumeek ordaindutako lanean duten parte hartze tasa igo da (%+1,9)
- 16 urtez gorako biztanleen %90 baino gehiagok egunero 2 ordu eta 36 minutu erabiltzen ditu etxeko zereginetan, baina oraindik ere joera argia etxeko lanak emakumeen lana izatea da
- Adingabeak eta helduak zaintzeko parte hartzea eta batez besteko denbora handitu dira
- Aisiarako ordenagailuan eta interneten erabilitako denbora bikoiztu da. Aisia aktibo eta kiroleko beste aukera batzuk apur bat hazi dira, baina gizarte bizitzarako denborak jaisten jarraitu du
- Ibilbideetarako denborak egonkor iraun du, egunero ordu eta erdi inguru

Iturria: Eusko Jaurilaritza EUSTATen bidez. Denbora aurrekontuari buruzko inkesta, 2003 eta 2008.

III.1.6. Grafikoa. Enpresek ordutegi ereduaren aldaketan antzemandako ondorioak (%)



Iturria: Eusko Jaurilaritza.

III.1.6. Koadroa. Etengabeko lanaldia ezartzearen onurak

LANGILEEN MOTIBAZIOA AREAGOTZEN DU:

- Enpresa proiektuarekiko identifikazioa sendotzen du
- Estresa murrizten du
- Denboraren optimizazioa bultzatzen du
- Planifikatzen irakasten du
- Ikastea eta lantaldean jardutea ahalbidetzen du
- Atsedena hobetzen du
- Deskonektatzen laguntzen du
- Gerora lanean eragina izan dezaketen ezaugarri berriak ikertzen ditu
- Produktibitatea areagotzen du

Iturria: Eusko Jaurilaritza. Espainiako ordutegiak arrazionalizatzeko nazio batzordearen bidez.

2. Kolektibo zaurgarri jakin batzuen bizi-baldintzak: ezgaitutasunak dauzkaten pertsonak

Europar Batasunean, sei pertsonatik batek arina eta larria bitarteko ezgaitasun bat dauka. Horrenbestez, 80 milioi pertsonak, sarritan, ezin dute osoki parte hartu gizartearen eta ekonomian, dela oztopo fisikoengatik, dela gainerako gizartearen jarreragatik. Pertsona horiek, gaixotasun, nahaste, traumatismo edo lesioren baten ondorioz, edo adina, jaiotzetik anomalia jakin batzuk edo beste arrazoi batzuen ondorioz, gainerako pertsonen inolako zailtasunik gabe egin ditzaketen lanak edo jarduerak gauzatzeko mugak dituzte. Aipatzekoa da, era berean, kolektibo honetan pobrezia-tasa batez bestekoa baino %70 altuagoa dela, lana lortzeko aukera gutxiago dutelako, neurri batean¹.

Duela gutxiko datuen gaineko analisiek diotenez, harreman estua dago ezgaitasunaren eta zahartzearen artean. Hortaz, 75 urtetik gorako pertsonen herenak baino gehiago dute beren gaitasunak mugatzen dituen ezgaitasunen bat, eta horien %20tik baino gehiago dira gaitasunak oso mugatuta dauzkatenak. Gainera, Europako biztanleriaren zahartzearen ondorioz, zifra horiek areagotu egingo dira ziurrenik. Horrez gain, aipatu analisisen arabera, pertsona ezgaituak modu neurrigabearen daude baztertuta lan-merkatutik, eta aipatzekoa da emakume ezgaituen egoera gizonezkoena baino are okerragoa dela. Halaber, lanpostu bat aurkitzeko dagokionez, gailentzeko da ezgaitasun psikikoak edo ikasteko arazoak dauzkaten pertsonen aukera gutxiago dituztela ezgaitasun fisikoak dauzkatenek baino.

Azken urteotan, eta, nagusiki, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta Eskaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea onartu zenetik, menpekotasun egoeran dauden pertsonak arretaren gune bihurtu direla dirudi, hau da, adina, gaixotasun bat edo ezgaitasunak direla eta, eguneroko oinarritzko ekintza gauzatzeko beste pertsona baten edo batzuen laguntza edo laguntza handia behar dutenak. Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan, ezgaitasunak dituzten pertsonen bizi-baldintzetan kontzentratu nahi dugu, baita beste alderdi batzuetan ere, adibidez, lan egiteko adina dutenen (16 eta 65 urte bitartekoak) lan-baldintzetan, "menpeko pertsonak" egoeran dauden pertsonen kolektiboaren egoerarekin alderatuz (azken horien egoera Memoria honen beste edizio batzuetan aztertu da).

Bestalde, 2003 eta 2008ko Memoria Sozioekonomikoetan ere kolektibo honen bizi-baldintzak aztertu dira, eta azpimarratzekoa da pertsona horien laneratzea eta bizi-kalitatea sustatzeko baldintzarik garrantzitsuenak dela pertsona ezgaituak ahal bezain independenteak, autonomoak eta gaituak izatea lortzea; baina, hala eta

III.2.1. Koadroa. 6 Urtetik gorako pertsonak, ezgaitasunen bat dutenak, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera (1.000 Biztanlekako tasa). 2008

	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Errioxa	61,63	45,85	77,63
Kantabria	70,02	54,68	84,67
Balearrak	70,99	54,13	87,89
Kanariak	71,32	63,13	79,49
Nafarroa	74,22	61,10	87,25
Madril	75,85	63,90	87,05
Katalunia	76,05	61,06	90,71
EAE	84,47	69,67	98,57
Estatua	89,70	72,58	106,35
Aragoi	91,89	73,20	110,49
Andaluzia	95,82	74,49	116,68
Murtzia	98,02	81,74	114,70
Gaztela-mantxa	98,94	76,80	121,38
Valentziako E.	99,19	85,02	113,20
Asturias	103,70	76,61	128,44
Gaztela eta Leon	108,63	88,64	128,23
Extremadura	109,89	83,83	135,51
Galizia	112,94	89,84	134,31
Ceuta	113,20	102,09	124,22
Melilla	118,63	93,15	142,79

Iturria: EIN. EDAD 2008.

gutziz ere, kolektibo honen laneratze-arazoak jorratzen dituzten manifestuek, ekintzek, agiriekin eta planek argi erakusten dute arau-mailako babes handia ematen zaien arren Administrazioaren eta gizartearen jarrera ez dela nahiko litzatekeen modukoa.

2.1. Datu nagusiak. Ezgaitasunaren, autonomia pertsonalaren eta menpekotasun egoeren (adina) inguruko inkestaren emaitzak, 2008

"Menpekotasunaren, Autonomia Pertsonalaren eta Menpekotasun-egoeren Inkesta" (EDAD) INEren lan estatistiko bat da, eta, 2008an lehenengoz — eta "Ezgaitasunei, Gabeziei eta Osasun-egoerei buruzko Inkesta" (1999) ordezkatuz—, diseinatutako Autonomiarako eta Menpekotasunaren Arretarako Sistema Nazionalerako informazio-eskaerari erantzutea du helburu, aipatutako Menpekotasun Legearen babespean, batik bat. Horretarako, funtsezkoa da jakitea zenbat diren ezgaitasunak dituzten pertsonak, zein den

¹ COM (2010) 636 azkena. Batzordearen jakinarazpena, Europako Parlamentua, Kontseilua, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordea eta Eskualdeetako Batzordeari zuzendua: "Europako Estrategia 2010-2020 Ezgaitasunari buruz: Oztoporik gabeko Europa bat lortzeko konpromiso berria".

III.2.2. Koadroa. Pertsona ezgaituak adinaren eta sexuaren arabera EAE, 2008

	Bi sexuak	Adin. arabera (%)	Gizonak	Emak.
6-44	22.000	13,0	13.000	9.100
45-64	43.100	25,4	19.900	23.200
65-74	27.000	15,9	12.600	14.500
75-79	25.800	15,2	8.700	17.100
80tik gora	51.500	30,4	14.100	37.300
GUZTIRA	169.400	100,0	68.200	101.200

Iturria: EIN. EDAD 2008.

haien banaketa geografikoa, mugak eta ezaugarriak, baita haien bizi-baldintzak ebaluatzea eta dauzkaten beharrak eta laguntza-eskaerak identifikatzea ere, eta jasotzen dituzten laguntzak eta horiek ezaugarriak ere bai. Gainera, aldagai horiek lehenengoz aztertu dira etxeetan bizi diren pertsonak nahiz haien beharretara egokitutako zentroetan (egoitzetan) bizi direnak kontuan hartuz. Memoria honen 2008ko edizioan emaitza nagusiak aurreratu ziren, eta hemen kolektibo horren inguruko informazioa finkatu eta zabaldu egiten da.

2008ko Inkestak 1999koa gainditzen du; izan ere, OMEren Funtzionamenduaren, Menpekotasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenera egokitzen da, eta, 2001etik, "ezgaitasunak" hainbat elementu barne hartzen dituen terminotzat jotzen da, hala nola, gabeziak, jarduteko mugak (lehen ezgaitasunak) eta parte-hartzeko mugak (lehen minusbalotasunak), eta, horrez gain, desberdintasun garrantzitsu bat barne hartzen du: osasunaren kontzeptua hedatu egiten du ingurumenarekin lotutako faktoreak barne hartzen dituelako (zein inguru fisiko eta sozialetan eta zein jarreraz inguratuta bizi diren). Hori guztia, osasuna eta horrekin lotutako egoerak deskribatzeko hizkera komun eta estandarizatu eta kontzeptu-esparrua lortzeko.


Lehenengo eta behin, 2008ko EDAD azterlanaren arabera, EAEn bizi diren eta ezgaitasunen bat dutela adierazten duten pertsonen kopurua honakoa da guztira: 169.400; alegia, biztanleriaren %8,4.

Sexuaren arabera banaketari dagokionez, EAEko 101.200 emakumek dute ezgaitasunen bat; gizonezkoak, berriz, 68.200 dira.

Hortaz, emakumezkoak/gizonezkoak ratioa 60/40koa da, Estatuko ratioaren antzekoa, alegia. Gainera, emakumeen ezgaitasun-tasak gizonezkoenak baino altuagoak dira 45 urtetik gorako pertsonen kasuan; aurreko tartean, ordea, gizonezkoena da altuagoa.


EDAD 2008 azterlanaren emaitzak eta INEk 1999an ezgaitasunari buruz egin zuen azterlanarenak alderatuz gero², Estatuan nahiz EAEn pertsona ezgaituen kopurua areagotu egin dela ikus daiteke (%8,9 Estatuan eta %18 EAEn). Hala ere, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kopuruaren hazkuntza biztanleria osoaren hazkuntza baino txikiagoa izan denez, denbora-tarte horretan ezgaitasun-tasa murriztu egin dela ondoriozta dezakegu. Emaitza horiek azaltzeko, kontuan hartu behar da minusbalotasunak dauzkaten pertsonen kopuruaren bilakaera bi faktoreren arabera dela funtsean: batetik, 64 urtetik gorako biztanle-kopurua nabarmen hazi da, eta adin-talde horretan

III.2.1. Grafikoa. Ezgaitasunak dauzkaten pertsona guztiekiko pertsonen ehunekoa ezgaitasun-taldearen arabera, sexuaren arabera. EAE. 2008



Iturria: EIN. EDAD 2008.

III.2.2. Grafikoa. Pertsona ezgaituak dauzkaten etxeak. Etxe guztiekiko ehunekoa, 2008



Iturria: EIN. EDAD 2008.

dago ezgaitu gehiago; bestetik, berriz, gizarte eta osasun-baldintzak hobetu direnez gero, pertsona horiek espero baino gutxiago dira. Horrenbestez, bi faktore horien

² Bi inkestetan erabili diren metodologiak eta aurkezpenak desberdinak direla eta, ezin da xehetasun gehiago lortu autonomia erkidegoei dagokienez; baina, dirudienez, Estatu osoari dagozkion datu orokorrak eta EAEn emaitzak ez dira oso desberdinak.

III.2.3. Koadroa. Eguneroko bizitzako ekintzetarako ezgaitasunak dauzkaten pertsonak beren larritasun-mailaren arabera (laguntzarik gabe) eta adinaren arabera. EAE, 1.000 biztanlekako tasa

	Guztira	6 - 64 urte	6 - 44 urte	45 - 64 urte	65 - 79 urte	80 urtetik gora
GUZTIRA	63,42	26,68	15,42	46,59	134,13	437,63
Ezgaitasun arina	11,73	6,42	3,43	11,69	34,70	30,71
Ezgaitasun larria	17,07	8,43	4,42	15,50	38,27	92,53
Erabateko ezgaitasuna	29,98	9,50	6,16	15,40	55,83	275,88
Ez da jaso	4,65	2,34	1,40	4,00	5,33	38,51

Iturria: EIN. EDAD 2008.

III.2.4. Koadroa. 6 Urteik gorako pertsonak, beren ezgaitasunerako jasotzen duten laguntzaren arabera, eta sexuaren arabera 1.000 Biztanlekako tasa. Estatua eta EAE, 2008

	Estatua		EAE	
	Gizonak	Emak.	Gizonak	Emak.
Laguntzarik gabe	23,0	24,7	21,9	24,3
Laguntza pertsonala soilik	18,4	33,9	15,0	25,5
Lagun. teknikoak soilik	9,8	11,0	10,7	11,8
Bi motetako laguntzak	15,8	30,7	15,0	31,3

Iturria: EIN. EDAD 2008.

ondorioz, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kopurua murriztu egin da.

Gainera, ezgaitasun-tasa 16 eta 90 urte bitarteko adin-tarte guztietan murriztu da; zehazki, beherakada handienak 75 eta 79 urte arteko pertsonen artean (Estatu osoan %16,2) eta 80 eta 84 tartean (Estatu osoan %10,2) egon dira. Adinen arabera tasek izan duten bilakaera aztertuz, azpimarratzekoa da 65 urtetik beherako pertsonen ezgaitasun-tasa 1999koaren antzekoa dela; nolahi ere, adin altuagoetan txikiagoa da.

EDAD inkestaren ondorioen arabera, ezgaitasuna beranduago agertzen da; baina, bizi-itxaropena luzatu dela eta, areagotu egin da ezgaitasuna pairatzeko arrisku-tartea. Hori dela eta, 2008an pertsona ezgaituen batez besteko adina 64,3 urtekoa zen (Estatuko datua); 1999an, berriz, 63,3koa zen. 65 urtetik gorako pertsonen taldean, berriz, batez besteko adina 78,8koa zen 2008an, eta 77,1ekoa 1999an.

Autonomia Erkidegoei dagokienez, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen ehuneko altuena dutenak honakoak dira: Galizia (%11,3), Extremadura (%11) eta Gaztela eta Leon (%10,9), baita Ceuta eta Melillako hiri autonomoak ere (%11,9 eta 11,3, hurrenez hurren). Ehunekorik baxuenak, osteria, Errioxan (%6,2), Kantabrian (%7) eta Balearretan (%7,1) egon dira. EDAD inkestaren arabera, Erkidego guztietan mantentzen da sexua eta adinaren arabera profil bera; hau da, gizonezko baino emakumezko ezgaitu gehiago dago, eta emakumezkoen tasak txikiagoak dira gizonezkoenak baino 44 urteko adinera arte, eta handiagoak dira 45 urtetik gorako tartetean.

Bestalde, EDAD 2008 inkestari esker dakigu gure Autonomia Erkidegoko etxean %18,5etan ezgaitasunen bat duen pertsona bat bizi dela, gutxienez (Estatuko batez bestekoa %20koa da). Gainera, kasuen %18,4tan pertsona ezgaitua bakarrik bizi da. Edonola ere, kasurik

III.2.5. Koadroa. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen ehunekoa, beren zaindari nagusiarekiko duten harremanaren arabera, eta pertsona ezgaituaren adinaren arabera. EAE, 2008

	Guztira	6 - 14	65 - 79	80tik gorakoak
Ezkon. edo bikotekidea	31,2	37,1	51,5	16,1
Alaba	29,1	5,8	27,4	44,0
Semea	4,3	0,4	2,9	7,5
Ahizpa edo arreba	1,9	3,7	1,4	1,1
Neba edo anaia	0,6	2,3	0,0	0,0
Ama	10,0	36,4	0,0	0,0
Aita	1,6	5,7	0,0	0,0
Beste senide bat	6,1	1,0	1,3	12,0
Langilea	10,8	4,5	10,4	14,8
Lagun. eta auzokideak	0,0	0,0	0,0	0,0
Gizarte-zerbitz. (laguntz. pertsonalak, GKE)	2,9	1,6	3,6	3,4
Beste norbait	1,4	1,7	1,5	1,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EIN. EDAD 2008.

ohikoena da bi pertsonako etxe bat, non bietako batek ezgaitasunen bat daukan.

Halaber, 6 urteik gorako pertsonen ezgaitasun-talde nagusiak honakoak dira: mugikortasuna (biztanleriaren %6k pairatzen ditu, 117.000 pertsonak baino gehiagok, hain zuzen, eta ezgaitasunak dauzkaten pertsonen %70 dira, guztira), etxeko bizitza (%4,9, 97.500 pertsona) eta norbere burua zaintzea (%4,3, 82.500 pertsona). Are gehiago, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen erdiak baino gehiagok dauka arazoak bere jardunean hiru arrazoi horietakoren baten ondorioz. 80 urtetik gorako pertsonen taldeari dagokionez, hiru ezgaitasun-talde nagusi horiek ezgaitasunak dauzkaten 10 pertsonako 7ri eragiten diete. Sexuei dagokienez, emakumezkoen tasak gizonezkoenak baino altuagoak dira ezgaitasun-mota guztietan, eta, emakumeen nahiz gizonen kasuan, mugikortasuna da jarduteko arazoak arrazoi nagusia. Ezgaitasunak dauzkaten 6 urtetik gorako pertsonen kopuru osoaren %74k adierazten du zailtasunak dauzkala eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak gauzatzeko³: horien erdiak ezin du jarduera horietakoren bat laguntzarik gabe egin. Sexuaren arabera, ezgaitasunak dauzkaten emakumeen %80,3k eta gizonezkoen %64,6k du arazo horietakoren bat. Adina zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoak dira mugak; hortaz, 6 eta 44 urte bitartean hamarretik seik dituzte zeregin horiek egiteko arazoak, baina 80 urtetik gorako kasuan 10etik 8,6k

³ Inkestak honakoak jotzen ditu Eguneroko Bizitzako Oinarritzko Jardueratzat: norbere burua garbitzea eta higiene pertsonaleko beste jarduerak batzuk, jantzi eta biluztea, jan eta edatea, norbere osasuna zaintzea, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea, janariak prestatzea, etxeko zereginak gauzatea, etxearen barruan eta kanpoan lekualdatzea eta zeregin sinpleak egitea, funtsean.

dituzte arazoak. Bestalde, Inkestaren arabera, eguneroko bizitzako oinarritzko zereginak gauzatzeko zailtasunak dauzkaten pertsonen %80,5ek jasotzen du laguntza, eta, ondorioz, beren muga larritasun-maila nabarmen murrizten da.

Halaber, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen laguntzaren bat jasotzen duten ikertu da, eta, laguntzen barruan, bereizi egin dira, batetik, laguntza teknikoak, eta bestetik, beste pertsona batzuek eskainitakoak. Emaizten arabera, Estatuan 6 urtetik gorako pertsonen %10,3k eta EAEen %15,5ek jasotzen dute laguntza, gainbegiratzea edo zaintza pertsonala eta laguntza teknikoak. Sexuaren arabera, desberdintasunak agerikoak dira. Ezgaitasunak dauzkaten gizonen %31,7k ez dute laguntzarik jasotzen; emakumeen kasuan, berriz, %23,2k ez dute laguntzarik jasotzen. Laguntza-motak aztertuz gero, ezgaitasunak dauzkaten emakumeen %60,7k jasotzen du beste pertsonaren baten laguntza; gizonezkoen kasuan, berriz %47,1ek jasotzen du horrelako laguntza.

Laguntza eskaintzen duten pertsonen profil nagusiari dagokionez, laguntzaileak 45 eta 64 urte arteko emakumeak dira, eta laguntza jasotzen duen pertsonaren bizileku berean bizi dira. Zaindarien %76,3 emakumezkoak dira. Adinari dagokionez, zaintza-lanak gauzatzen dituen 64 urtera arteko gizon bakoitzeko 4 emakumezko daude.

2.2. Lan-merkatua

Lana da pertsonen sozializazioarekin lotura handiena duen esparrua. Ezgaitasun-egoera are okerragoa da, hain zuzen ere, egoera horretan dauden pertsonen jarduerata tasa murriztaren ondorioz. Lanpostu bat lortzen dutenean, batetik, autonomia pertsonala eskuratzea eta laguntza sozialen zirkuitutik irtetea lortzen dute, eta bestetik, sozializazio-prozesuan parte hartzen dute, harreman pertsonalak dituzte eta trebetasunak eta gaitasunak bereganatzen dituzte⁴.

Europako Batzordeak, "Europako Estrategia 2010-2020 Ezgaitasunari buruz"⁵ estrategian adierazten du kalitatezko


lanpostuek independentzia ekonomikoa ziurtatzen dutela, lorpen pertsonalak sustatzen dituztela eta pobrezia-aren aurreko babes handiagoa eskaintzen dutela. Hala ere, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen enplegu tasa %50ekoa da soilik, gutxi gorabehera (2002ko datuak, Europa mailan eskuragarri dauden azkenak). Ondorioz, EBk proposatutako hazkuntza-helburuak erdiesteko, beharrezkoa da ezgaitasunak dauzkaten pertsona gehiagok lanpostu ordainduetan jardutea lan-merkatu arruntean (merkatu babestuekin alderatuta).

EDAD 2008ko inkestaren datuen arabera, EAEen ezgaitasunak dauzkaten eta lan egiteko adina duten pertsonen taldean %31 lanean zegoen, %3,6 langabezia zegoen, %39,4k ordaindutakoaren arabera prestazioak edo kotizaziorik gabekoak jasotzen zituen eta %8,1 lan egiteko ezinduta zegoen. Gainerakoak jarduerarik gabeko bestelako egoeraren batean zeuden. Informazio hori ikusirik ondoriozta daiteke kolektiboaren jarduerata %34,8koa zela (%58,1ekoa 16 eta 64 urte bitarteko herritarrei dagokienez, BAlaren arabera) eta langabezia %10,5ekoa zela (biztanleria osoaren kasuan %6,5ekoa zen). Nolanahi ere, konparazio hori adibide gisa baino ez da hartu behar, metodologia desberdinen bidez egindako estatistiken emaitzak alderatu dira eta. Urte berean, Estatu-mailan, jarduera eta langabezia-tasak %35,5 eta 20,3koak ziren, hurrenez hurren.

2006an Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailak egin zuen "Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen benetako egoera lanari dagokionez" azterlanaren datuen arabera, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen jarduerata oso baxua zen gure Autonomia Erkidegoan, emakumezkoen kasuan bereziki: erdiak baino gutxiagok egiten zuen lan edo egin zezakeen, hau da, urte berean biztanleria osoaren ratioa baino 22 puntu baxuagoa da.

Gainera, adina zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da gainerako biztanleekiko diferentzia. 50 urtetik gorako pertsonen kasuan, ezgaitasuna, gizonen kasuan bereziki, jarduerarik ezaren sinonimo da. Halaber,


III.2.3. Grafikoa. 25 eta 54 urte bitarteko pertsonen enplegu-tasak ezgaitasun-mailaren arabera. 2002



Iturria: EUROSTAT.

⁴ CIDE (2009): Ezgaitasuna eta lan-merkatua: EAEaren egoera. Eusko Jaurlaritza, Lan-koadernoak, 42. zk.

⁵ COM (2010) 636 azkena.

III.2.4. Grafikoa. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonak EAEn. Okupazio-ratioak sexuaren eta ezgaitasun-motaren arabera. 2006

Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko pertsona ezgaituen lan-jarduerari buruzko inkesta.


entzumen edo ikusmen-ezgaitasunak dauzkaten pertsonak dira jardueraren-tasari altuenak dauzkatenak; tasari baxuenak dauzkatenak, berriz, ezgaitasun intelektualak edo gaixotasun mentalak dauzkatenak dira. Lanpostuen modalitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren azterlanaren arabera, lanean dauden pertsona ezgaituen erdiak baino gehiagok du lanpostu arrunt bat; %40k, berriz, lan-zentro berezietan egiten du lan. Datu horiek erakusten duena kontuan hartuz, merkatu arruntean lan egiten duten pertsona askok ezgaitasun bat onartuta dute, baina ez dute aitortuta eta ez daude ezgaitasun-kontratuarekin adskribatuta, azterlanaren arabera.

Langabeziari dagokionez, hasteko, langabezia dauden pertsona ezindu ia guztiek lan-esperientzia dutela adierazten zuten, eta lehenago ere lan egin ez duten pertsonen proportzioa %10ekoa zen soilik. Gainera, ezgaitasunak dauzkaten pertsona langabetuen batez besteko adina 43koa zen, eta %75ek 35 urtetik gora zuen; bestalde, azpimarratzekoa da lana lehenengoz bilatzen zuten pertsonen batez besteko adina altua zela: 33 urte, hain zuzen.


Ezgaitasun motari dagokionez, ezgaitasun intelektualak duten pertsonen langabezia-tasa baxuagoa dute; gaixotasun mentala dutenek, berriz, batez bestekoa gailentzen dute. Datu hori lan-zentro bereziak ezgaitasun intelektualak duten pertsonentzat duten garrantziaren adierazgarri da, nahiz eta gero zailagoa den kolektibo hau lan-merkatu arruntera sartzea.

Ezgaitasunak dauzkaten pertsona langabetuen prestakuntzari dagokionez, azpimarratzekoa da altua dela ezgaitasunak dauzkaten pertsonen biztanleria osoarekin alderatuta. Bigarren mailatan da altuagoa eta biztanleria orokorraren prestakuntza-maila ere gailentzen du; izan ere, ezgaitasunak dauzkaten pertsona langabetuen %23,3k dauka ikasketa profesionalak, eta %16k dauka bigarren mailako hezkuntza ez profesionalak, eta EAEko biztanleria orokorraren batez bestekoak %19,3 eta 13 dira, hurrenez hurren.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren azterlanak gailentzen du EAE erreferente bat dela enplegu babestuen inguruko politiken arloan, eta Lan-zentro Bereziak gure erkidegoan

III.2.5. Grafikoa. 16 urtetik gorako pertsona ezgaituen ehunekoa, jarduerarekin duten harremanaren arabera. 2008

Iturria: EIN. EDAD 2008.

III.2.6. Grafikoa. Biztanleria osoaren eta ezgaituaren ikasketa-maila, langabetuena eta guztiena. Datuak %tan. EAE, 2006

Iturria: EAEko pertsona ezgaituen lan-jarduerari buruzko inkesta.

III.2.6. Koadroa. Lan-zentro bereziak EAE-n: kopurua eta lana 2006

	LZB kopurua	Lanpostuak	Tasa*
Araba	19	859	10,6%
Bizkaia	36	2.312	9,8%
Gipuzkoa	33	3.312	16,3%
Guztira EAE	88	6.483	12,4%

(*) Lan egiteko adina duten pertsona ezgaitu guztien alderatuta.
Iturria: EAEko pertsona ezgaituen lan-jarduerari buruzko inkesta.
Eusko Jaurlaritza.

duten garrantzia⁶ altua dela; izan ere, modalitate horretako Estatuko kontratu guztien %20 barne hartzen ditu. EAEko lan-zentro bereziek azken 26 urteotan egin duten lana ezgaitasunak dauzkaten pertsonen zerbitzuak eskaintzera bideratua dago eta honako jardura hauek barne hartzen ditu, behinik behin: lanerako zentroen kudeaketa, merkatu arrunteko enpresen babesa duen lana, lantokietako lana eta ikerketa eta berrikuntza teknologikoa ezgaitasunak dauzkaten langileak beren lanpostuetara egokitze eta laguntzeko.


Zentroek emandako datuen arabera, erreferentzia gisa daukagun urtean 6.483 pertsona ezgaituak egiten zuten lan EAEko lan-zentro berezietan; alegia, lan egiteko adinean dauden pertsona ezgaituen %12,4k⁷. Lanpostu horien bi heren ia-ia 1990a baino lehenago sortutako erakundeetan kontzentratzen dira, eta %30ek, hau da, 2000. urteaz geroztik sortutakoek, pertsona horien %5i baino ez diote lana ematen. Horrez gain, zentro horien %15ek, gutxi gorabehera, lanerako trebatzaileak zituzten, eta %5ek soilik egiten zien jarraipena lan-merkatu arruntera sartu diren pertsonen. Azterlanak ondorioztatzen du lan-zentro berezietako langileei iruditzen zaiela lan-zentroak erraztu egiten duela merkatu arruntera igarotzea baina ez dela lehentasun bat zentroentzat.

Bestalde, INEk 2010ean azterlan monografiko bat egin zuen *"Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen lana"*ri buruz, BAlaren datuak eta Ezgaitasunak dauzkaten Pertsonen Datu-base Estataleko datuak 2008ko datuekin alderatuz. Autonomia Erkidego mailako informazioa oso urria den arren, ikerketaren emaitza nagusiei esker, EAEn kolektibo honen lan-egoera zein den jakin daiteke gutxi gorabehera. Zifra nagusien artean, aipatzekoa da, erreferentziazko urtean lan egiteko adinean zegoen biztanleriaren %2,8k ezgaitasun-ziurtagiria zuela. Horietako %66,5 ez zegoen lanean; ezgaitasunik gabeko biztanleriari dagokionez, adin horretako %25,1 ez zegoen lanean. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen jardura-tasa 2008an EAEn %36,2koa zen; ezgaitasunik gabeko biztanleriari dagokionez, %74,9koa zen. Estatuko datuak, berriz, urte hartan %33,5 eta 74,9koak ziren, hurrenez hurren.

Bestalde, Estatuan ezgaitasunak dauzkaten pertsona aktiboen kolektiboak (EAEko datua ez dago eskuragarri) %16,3ko langabezia-tasa zuen (ezgaitasunik gabeko pertsonena, berriz, %11,3koa zen), eta emakumezkoen langabezia-tasa gizonezkoena baino 4,8 puntu altuagoa zen (%19,4 eta %14,6, hurrenez hurren).


Ezgaitasun-ziurtagiria izanik lanean zeuden pertsonen %28tik %86,8 soldatapeko langileak ziren, gehienek lan-kontratu finkoa zuten, eta %3,3k adierazten zuten gaixotasun edo ezgaitasunen baten ondorioz lanaldi partziala zutela. Lanean ari ziren pertsona ezgaituen %74,5ek zerbitzuen sektorean egiten zuten lan, eta, azkenik, haien ikasketa-mailaren eta lanpostuaren artean zuzeneko harremana zegoela ikusten zen: landunen %76,8k bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak zituzten, ezgaitasunik gabeko biztanleriaren tasa baino 10,7 puntu altuagoa, hain zuzen.

III.2.7. Grafikoa. Ezgaitasunak dauzkaten eta ez dauzkaten pertsonen jardura-tasa, Autonomia Erkidegoaren arabera. 2008



Iturria: EInen datuekin landua. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen lana.

III.2.8. Grafikoa. EAEko pertsona ezgaituekin egindako kontratuak



Iturria: EGAILAN SPEEren datuekin.

Bukatzeko, EGAILANek, Lan-merkatuaren Euskal Behatokiak, adierazi du, Estatuko Lan-zerbitzu Publikoaren (SPEE) datuen arabera, 2009an EAEn guztira 4.080 lan-kontratu sinatu zirela ezgaitasunak dauzkaten pertsonekin

⁶ Lan-zentro bereziak enplegu babestuko enpresak dira, eta, zentro horietan, langilearen %70etik gora, ezgaitasunak dauzkaten pertsonak dira; bestalde, zentro horien helburua pertsona horiei lanpostu produktibo eta ordaindu bat, haien ezaugarrietarako egokia, ematea da, baita pertsona horiek lan-merkatu arruntean sartzea erraztea ere.

⁷ Bestalde, EHLABEK, EAEko lan babestuen enpresa-elkarteak, 2008an ia 6.000 ezgaituak EAEn lan-zentro berezietan lan egiten zutela kalkulatu du, eta hori Estatuko enplegu babestuen %15 da.

(-5,9, 2008ko datuekin alderatuta), eta horietako %84 Lan-zentro Bereziekin, %15,7 enpresa normalizatuarekin eta gainerakoa (%0,2) "lan-enklabeak" direlakoan bidez egin zirela⁸. Kontratu horietako %11,9, gainera, mugagabeak ziren (%21,5 2008an) eta gainerako %78,5ak aldi baterako kontratuak izan ziren. Jarduera-sektoreei dagokienez, sinatutako kontratuen %79,9 hirugarren sektoreko jardueri zegozkien, %18,7 industriakoak ziren (aurreko urtean %24,9), %1,3 eraikuntzakoak, eta %0,1 soilik lehen sektoreko jardueretakoak. Kontrataturako pertsona ezgaituen profilari dagokionez, SPEEren datuen arabera, %64,1 gizonezkoak ziren, %47 30 eta 44 urte bitarteko pertsonak ziren, %60k bigarren mailako ikasketak zeuzkaten eta %59,4 langile ez kualifikatu gisa kontratatu zituzten.

2.3. Etxebizitza eta irisgarritasuna

Gure Autonomia Erkidegoan ezgaitasunak dauzkaten pertsonak dituzten etxeen ezaugarriak zehazteko, ondoren, 2010ean Eusko Jaurlaritzaren Euskal Etxebizitzako Behatokiak egin zuen deskripzio bat jaso da. Deskripzioa "Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008"ko datuetan oinarrituz egin zen, eta, hasteko, EAEko etxeen %9,3n ezgaitasun bat daukan pertsonaren bat bizi dela adierazten zen.

Familia horietako pertsona nagusia EAEko familia baina pixka bat zaharragoa da eta bere lan-egoera okerragoa da (%25,3 da landuna; familia guztien kasuan, berriz, batez bestekoa %44,7koa da). Halaber, %39 da pentsioduna eta %28 erretiratuta dago (familia guztien kasuan, berriz, batez bestekoa %29 eta %19koa da, hurrenez hurren). Familia horien batez besteko diru-sarrerak, gainera, txikiagoak dira: 1.486 euro hilean; familia guztietan, berriz, 1.622 eurokoa da. Laneko egoera hori eta diru-sarrera maila baxuagoa direla eta, ezgaitasunak dauzkaten pertsonak dauzkaten familiak egoera okerragoan daude etxebizitza-beharra asetzeari dagokionez, gainerako biztanleekin alderatuta.

Hala ere, etxebizitza bat eskuratu ondoren, ez da desberdintasun garrantzitsurik ikusten ezgaitasunak dauzkaten pertsonak dauzkaten familien etxebizitzaren eta EAEko familia guztien etxebizitzaren datuen artean. Batez besteko azalera 80 m²koa da eta antzinatasuna 36

urtekoa da bi kolektiboen kasuan. Gainera, kasu gehien-gehienetan, beren jabetzako etxebizitza batean bizi dira (%93). Bestalde, Inkestaren arabera, pertsona ezgaituak dauzkaten familiak gehiago bizi dira etxebizitza babestu batean: %12; familia guztien kasuan, berriz, %7 dira.

Etxebizitza beharrari dagokionez, etxebizitza aldatu behar dutenak pertsona ezgaituak dauzkaten familien %5,5 dira; familia guztien kasuan, aldiz, %4,9 dira. Etxebizitzaren konponketa-lanak egin behar dituztenei dagokionez, %20,9 eta 15,5 dira, hurrenez hurren.

Birgaitzeko beharretik hasiz, Inkestak adierazten du behar hori altuagoa dela ezgaitasunak dauzkaten familien artean, eta, horri dagokionez, beharraren arrazoi nagusiak honakoak dira: komuna edo sukaldea aldatzea (%47), leihoak eta ateak (%28) eta igogailua jartzeko beharra (%23). Gainera, behar hori duten familien %63k dioenez, duela 4 urte baino gehiago da birgaitzea behar dutela, eta, lanak gauzatzeko probabilitateari dagokionez, %58k uste du oso edo nahiko posiblea dela birgaitze-lanak 4 urteko epean gauzatzeko. Aldaketaren beharrari dagokionez, igogailurik ez edukitzea da eskaeren %21en arrazoiak; %18k, berriz, etxebizitzaren neurria ez dela egokia adierazten du.

Behar horiek zuzenean daude lotuta pertsona ezgaituek sarritan beren etxebizitzetan pairatzen dituzten mugikortasun-arazoekin: INEren "Menpekotasunaren, Autonomia Pertsonalaren eta Menpekotasun-egoeren Inkestak" (EDAD) diotenaren arabera, gure Autonomia Erkidegoko pertsona ezgaituen %45,9k zailtasunak dauzka bere etxebizitzako tokiren batean mugitzeko; gehienek eskaileretan (%41,5), komunean (%23,7) eta etxeko atarian (%23,7) mugitzeko dituzte arazoak. Pertsona zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta altuagoak dira ratio horiek; hori dela eta, 80 urtetik gorako pertsona ezgaituen %60k dauzka zailtasun horiek.

Bestalde, azpimarratzekoa da, Etxebizitzaren (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua) 2008ko datuak erreferentzia gisa hartuz,

III.2.8. Koadroa. Pertsona ezgaituak dauzkaten familien etxebizitza aldatzeko beharraren ezaugarriak 2008.

	Perts. ezgaituak dauzk. familiak	Familia guztiak EAE
Beharraren ezaugarriak		
Aldatzeko beharraren maila (0tik 100era)	80,8	68,7
Behar egoeran egon diren aldia > 4 urte (%)	63,5	52,5
4 urteko epean aldatzeko probabilitate altua	49,3	48,1
Beharraren arrazoiak		
Neurri desegokia	17,8	30,0
Gaizki egotea	13,0	16,6
Ez dauka igogailurik	21,3	14,5
Gaizki kokatuta egotea	12,3	6,3
Beste arrazoi bat	35,7	32,6
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008

III.2.7. Koadroa. Pertsona ezgaituak dauzkaten familien ezaugarri soziodemografikoak 2008

	Perts. ezgaituak dauzk. familiak	Familia guztiak EAE
Perts. nagusi. batez besteko adina	58,0	56,2
Etxebizitzaren batez besteko neurria	3,0	2,6
Pertsona nagusiaren lan-egoera		
— Landuna	25,3	44,7
— Langabetua	5,4	4,9
— Ez aktiboa	68,0	49,6
• Pentsioduna	38,8	29,3
• Erretiratua	27,6	18,7
Hileko batez besteko diru-sarrerak (€)	1.486	1.622

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

⁸ Lan-enklabeak langile ezgaituek lan-zentro berezi batean osatzen dituzte eta lan-merkatu arrunteko enpresa batera (enpresa lankidea) sartzen dira, haren jarduerari aruntarekin zuzenean lotuta dagoen obra edo zerbitzuren bat gauzatzeko, eta, horretarako, lan-talde bat aldi baterako kokatzen da enpresa lankidearen lan-zentroan, baina kontratu-harremana dute lan-zentro bereziarekin.


III.2.9. Koadroa. Ezgaitasunen bat izanik, kaletik ibiltzean arazoren bat duten pertsonak, zailtasun motaren arabera*. EAE, 2008

	Guztira	6-64 urte	65-79 urte	80tik gorakoak
Zailtasunen bat duten pertsonak guztira	42,5	30,6	45,9	54,0
Espaloitik igo edo jaisteko	32,6	18,6	34,7	47,9
Kalea gurutzatzeko	27,2	13,4	26,5	44,9
Espaloietako oztopoak gainditzeko	28,5	15,6	31,8	41,2
Kaleak, bidegurutzeak edo seinaleak identifikatzeko	17,5	9,1	13,5	32,0
Beste arazo batzuk	11,5	6,8	7,2	21,6

Iturria: EIN. EDAD 2008.

(*) Posible da kategoria bat baino gehiagotan egotea aldi berean.

III.2.9. Grafikoa. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen etxebizitza nagusiko irisgarritasuna. 2008. Datuak ehunekotan



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta 2008.

724 espediente soilik (kopuru osoaren %0,8) zirela ezgaitasunak dituzten pertsonen taldeari buruz, eta, ondorioz, gailentzekoa da kolektibo horren inskripzio-maila baxua. Gainera, gutxiago ezagutzen dituzte etxebizitza-zerbitzuak eta -baliabideak biztanleria osoak baino: familia horien %38k dio Etxebide ezagutzen duela eta %44k dio zerbitzua aipatzen entzun duela. Gainerako %21ak dio ez duela ezagutzen; EAEko familia guztien kasuan, berriz, %17 dira.

Bestalde, etxebizitza nagusiaren irisgarritasunarekin lotutako item batzuek eragin handiagoa dute ezgaitasunak dauzkaten pertsonengan: etxebizitza igogailudun gutxiago, etxebizitza irisgarri gutxiago eta irisgarritasun-arazo gehiago inguruetan. INEren Inkestatik ondorioztatzen da ezgaitasunak dauzkaten pertsonak dauzkaten etxeen %38k ez daukala igogailurik, %56k uste duela etxebizitzaraino doan bidea ez dela irisgarria eta %64k uste duela beraren etxebizitza ere ez dela irisgarria. Gainera, inguruko irisgarritasun-arazoak ezgaitasunak dauzkaten pertsonen familien %72k aipatzen dituzte.

Mugitzeko eta leku batetik bestera joateko arazoei dagokienez, EDADen arabera, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen %42,5ek dio zailtasunak dauzkala kaletik doanean, eta, gehienetan, espaloitik jaitsi edo igotzeko dituzte arazoak (%32,6) Zailtasun horiek handiagoak dira zenbat eta zaharragoa izan, eta 80 urtetik gorako pertsona ezgaituen erdia baino gehiagorengan dute

eragina. Espaloien inguruko arazoez gain, honako hauek dituzte, garrantzi-ordenan: oztopoak gainditzeko (%28,5), kalea zeharkatzeko (%27,2) eta kaleak, bidegurutzeak eta seinaleak identifikatzeko (ezgaitasunak dauzkaten pertsonen %17,5).

Iturri beraren arabera, azpimarratzekoak dira, halaber, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen garraio publikoarekin lotuta dituzten arazoak, horrek beren autonomia eta bizi-kalitatea serioki mugatzen ditu eta: %51,6k dio garraio publikoarekin arazoak dauzkala (eta %68,2k, 80 urtetik gorako pertsonen kasuan). Zailtasun nagusiak ibilgailuetatik jaitsi eta igotzea (%37,5) eta geltoki, geraleku eta nasetara iristea dira (%26,8, eta 80 urtetik gorakoaren artean, %47,2ra iristen da).

2.4. Bizi-baldintzak eta gizarteratzea


Ezgaitasun bat daukan pertsona batek aldi berean pairatzen dituen gizartetik baztertuta geratzeko arriskuak eta ezgaitasunarekin lotutakoak, babes-sistema sozialetara jotzeko dituen aukerak ere murriztu egiten dira eta bere zaurgarritasun-egoera larriagotu egiten da. Azken finean, familia, kultura, gizarte edo ekonomia testuinguru negatiboa denean, ezgaitasunak dauzkaten pertsonak are egoera desabantailatsuagoan aurki daitezke.

Herrialde industrializatuetan, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kopurua biztanleriaren %10 ingurukoa da, eta, Europan, %16ra ere iristen da. Ez dagoenez datu eta estatistika fidagarriak, ez dakigu zenbat pertsona dauden pobrezia-egoeran; baina, oro har, Espainian ezgaitasunak dauzkaten pertsonen %40, gutxienez, pobrezia mugaren azpitik dagoela ulertzen da. Gainera, Ezgaitasunak dauzkaten Pertsonen Ordezkariei Batzorde Espainiarrak (CERMI) zenbait txostenetan adierazi zuen bezala, ezgaitasunak dauzkaten emakumeak sarritan dira pobrezia biktima eta gizartetik baztertuta egoten dira. Gainera, instituzioetan bizi diren pertsonak, arazo finantzario larria pairatzen ez duten arren, gizartetik erabat baztertuta egoten dira.

Lan eta Immigrazio Ministerioak argitaratutako txosten batean, Espainian ezgaitasunak eta ongizate txikiagoa izatearekin duen lotura-maila aztertzen da, EBko 1994-2005 aldiko Etxebizitzaren Panelko datuak erabiliz. Lan horren ondorioen artean, honakoak gailentzen dira:

- Pertsona ezgaituren bat duten etxeetan, pobrezia gora egiten du: ezgaitasuna larria denean, pobrezia-tasa %60 eta %80 bitartean hazten da, eta ezgaitasun larria duten pertsona bi edo gehiago dauzkaten etxeetan, tasa horiek bikoiztu ere egiten dira ezgaitasunak ez duten pertsonen tasekin alderatuta.

III.2.10. Grafikoa. Pertsona ezgaituen ehunekoa beren ezgaitasunaren ondorioz diskriminatuak izan diren maiztasunaren arabera, adinaren arabera. EAE, 2008



Iturria: EIN. EDAD 2008.

- Ezgaitasuna agertu baino lehen, etxe horiek pobrezia-tasa altuagoak dituzte ezgaitasun-egoeran sartzen ez direnek baino.
- Pobreziaren mugaren azpitik egoteko probabilitatea hiru aldiz altuagoa da ezgaitasun larria duten pertsonentzat. Ezgaitasun-egoerarik gabe egotera igarotzeak edo haren larritasuna txikiagotzeak probabilitate hori 1,25 aldiz murrizten du.

Hortaz, ezgaitasunak nahiz ezgaitasunen bat izatera igarotzeak areagotu egiten du pobreaizateko probabilitatea, eta, horrez gain, eragin hori askoz handiagoa da pertsonaren ezgaitasuna larria denean. Ezgaitasunarekin lotutako errentak mantentzeko sistema bat dagoen arren, etxeetako pobrezia-arrisku altuagoarekin dago lotuta. Ezgaitasuna arazo serioa da oraindik ere etxeen ongizate ekonomikorako, eta ez soilik epe laburrera, epe luzera ere bai.


Gure Erkidegoan⁹, eskuragarri dauden azken datuen arabera¹⁰, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen erdia, gutxi gorabehera, ekonomikoki independentea da. Beste erdia, zati batean edo erabat dago beste pertsona baten menpe, erdizkan. Gainera, alde handia dago ezgaitasun-mailaren arabera; hortaz, %33-34kotzat jotako ezgaitasun bat duten pertsonen ia %50ek ditu lanaren ondoriozko diru-sarrerak; %65-74 graduko ezgaitasun bat dutenen kasuan, berriz, ehunekoa %17,3ra murrizten da; eta >%74koa dutenen kasuan %15,5eraino jaisten da. Bi kasuetan, diru-sarreraren iturri nagusiak ezgaitasun-pentsioak eta Pertsona Ezgaituak Gizarteratzeko Legearen (PEGL) arabera kotizaziorik gabeko pensioak dira. Independentziaren profila, laburbilduz, erretiro edo ezgaitasun-pensio bat edo lanpostu ordaindu bat duten pertsonen dagokie. Gainera, independentzia ekonomikoak lotura handia du generoekin; izan ere, ezgaitasunak dauzkaten gizonen bi heren guztiz independenteak dira, baina emakume ezgaituen heren bat baino ez da guztiz independentea.

III.2.10. Koadroa. EAE-ko pertsona ezgaituen diru-sarrera pertsonalen iturri nagusia, ezgaitasun-mailaren arabera. 2006

	%33-34	%65-74	> %74	GUZTIRA
Diru-sarr. propiorik ez	15,1	9,8	10,8	13,0
Lanaren ondoriozkoak	45,4	17,3	15,5	32,8
Langabezia-sorospena	2,6	1,1	1,7	2,0
Ezintasuneko pensioa	28,1	34,3	24,6	29,2
Erretiro-pensioa	4,8	3,0	2,2	3,9
GS beste pensio batzuk	3,2	7,6	10,0	5,5
EGL-KGP	6,2	31,4	45,9	19,6
Oinarritzko errenta	2,1	4,2	1,7	2,6
Mantenu-pensioa	0,9	0,7	1,4	0,9
Beste batzuk	4,8	9,6	6,7	6,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko pertsona ezgaituen lan-jarduerari buruzko inkesta. Eusko Jaurlaritza.

III.2.11. Grafikoa. EAEko pertsona ezgaituen independentzia ekonomikoa, sexuaren arabera. %. 2006




Iturria: Eusko Jaurlaritza. EAEko pertsona ezgaituen lan-jarduerari buruzko inkesta.

Pertsona guztien bizi-kalitatearen funtsezko zati bat, lotuta dago haiek gizartean duten integrazio-maila eta parte-hartzearekin, bai beren herritartasun-eskubideen ikuspuntutik, bai harreman pertsonalei dagokienez. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kolektiboak, EDAD 2008 Inkestako datuek erakusten duten bezala, arazo bereziak dauzka, bere ezaugarrien ondorioz, bere harreman sozialak modu egokian garatzeko eta aisialdiko jarduerak pozgarriak egiteko. Inkesta horren arabera, kolektiboaren hiru laurdenean adiskide berriak egiteko aukera gutxi dauka, edo batere ez, eta hirutik biri gauza bera gertatzen zaie ezagutzen ez dituzten pertsonengana jotzearekin lotuta. Hortaz, grafikoan ikusten den bezala, pertsona horien harreman sozialak, kasu gehien-gehienetan, beren senide eta hurbileko pertsonetara soilik hedatzen dira. Denbora libreari dagokionez, pertsona horietako gehienek igarotzen dute beren denbora libretea telebista edo DVDak ikusten (%74,1ek, batez beste, eta %78,4k 65 eta 79 urte

⁹ EAEko Pobreziari eta Gizarteko Desberdintasunei buruzko Inkestak ez du ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kolektiboa tratatzen.

¹⁰ CIDEK (2009).

III.2.12. Grafikoa. Pertsona ezgaituen ehunekoa, azken 12 hilabeteetan harreman sozialak izateko aukeraren arabera. EAE, 2008



Iturria: EIN. EDAD 2008.


bitarteko pertsonen taldean), irratia edo musika entzuten (%41,4) eta irakurtzen (%35,4). Halaber, azpimarratzekoa da adin-talde guztietan, haien heren batek denbora-tarte garrantzitsua erabiltzen duela ariketa fisikorako. Denbora libreko zein jarduerara egin nahiko luketen baina ezgaitasunagatik ezin duten galdetu zieten, eta, besteak beste, hobbietan, artisautza-lanetan eta eskulanetan aritzea, kirol edo kultura-jardueretara joatea eta, gehiengoak (gazteenek, batez ere), bidaiatzea (%21,2k, batez beste, eta %23,3k 6 eta 64 urte arteko taldearen kasuan) aipatu zituzten.

2.5. Gizarte babesa eta arreta

Esan bezala, ezgaitasunak dauzkaten pertsonak zaugarritasun-maila altuko talde sozial bat dira, baztertuta geratzeko arrisku-faktore ugari pairatzen dituztelako. Bereziki zaugarria den talde sozial gisa, pertsona horien inguruan prebentziorako eta babeserako hainbat sistema eta dispositibo garatu dira haien garapen pertsonala eta soziala aukera berdinekin lortzea bultzatzeko: diskriminaziorik eza lortzeko neurriak, arreta berezia, lanerako sustapena, babes ekonomikoa, egoitza-zerbitzuak, familia-babesa, eta abar. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonak, neurri handiagoan edo txikiagoan, babes eta sustapen-sistema horien onura jaso dezaketenean, ezgaitasunaren ondorioz gizartetik baztertuta geratzeko arriskuak murriztu egiten dira¹¹. Hasteko, EDAD inkestak azpimarratzen du gure Autonomia Erkidegoan ezgaitasunak dauzkaten pertsonen %3,1ek bakarrik adierazi zutela, 2008an, osasun edo gizarte-zerbitzuren bat behar izanda ez zutela jaso, %56,5ek zioen bere beharra ase zuela, eta gainerako %42,9ak zioen ez zuela inolako zerbitzurik behar izan. Ase gabeko beharren ratio hori Estatuko baxuena da.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren "Gizarte zerbitzuen egoera EAEn, 2008" txostenak EAEn ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kolektiboari zuzendutako baliabide eta zerbitzuen inguruko irudi bat aurkezten du. Datu nagusiak honako hauek dira:

III.2.13. Grafikoa. Pertsona ezgaituen ehunekoa osasun- edo gizarte-zerbitzuak behar izatea eta jasotzearekin lotuta, Autonomia Erkidegoaren arabera. 2008



Iturria: EIN. EDAD 2008.

- Erreferentzia gisa hartu den urtean, guztira 125 elkartet egiten zuten lan ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kolektiboarekin: 54k Bizkaian, 38k Gipuzkoan eta 33k Araban.
- Kolektibo honi zuzendutako aisialdirako eta denbora liberako zentroek guztira 2.902 plaza eskaintzen dituzte, eta horien %76 Bizkaian daude. Zentro horiek guztiak pribatuak eta irabazi asmorik gabekoak ziren, eta %83k finantzaketa publikoa jasotzen zuen.
- Laguntzarako eguneko zentroei dagokienez, txostenak dio plaza kopurua 1.768koa zela guztira, eta %79,4ren titulartasuna pribatua zela. Zentro horietako plazen kopuruaren bilakaerak ez du joera argia izan azken urteotan: 2004az geroztik, plaza-kopuruak etengabe egin zuen behera; 2008an, ordea, berriz areagotu ziren, Araban nagusiki, baita Gipuzkoan ere. Bizkaian, oster, plaza-kopuruak beherantz jarraitu du.
- 2008an EAEn 8.746 plaza zeuden lan-zentroetan eta lanerako zentro berezietan: %43 Gipuzkoan, %42 Bizkaian eta gainerako %15a Araban. Zentro-motari dagokienez, %62 lan-zentro berezietako lanpostuak dira, %19 zentro okupazionalerako lanpostuak dira¹² eta lanpostuen %18 zentro mistoei dagozkie. Halaber, lanpostu gehienak zentro pribatuei dagozkie, eta %0,8k soilik lortzen du finantzaketa publikoa. Bilakaerari dagokienez, zentro horien plazen kopuruak etengabe egin du gora 1994tik, baina 2008an beherakada txiki bat antzeman zen, eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuak adierazi zuen krisiak zentro horietan lana


¹¹ FUNDACIÓN FOESSA (2008): "VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España 2008". Cáritas Española Editores.

¹² Azpimarratzekoa da zentro okupazionalen terapia okupazionalerako postuak eskaintzen dituztela; lan-zentro bereziek, aldiz, ezgaitasunak dauzkaten pertsonentzat egokitutako lanpostuak eskaintzen dituzte.

**III.2.11. Koadroa. EAE-ko pertsona ezgaituentzako egoitza-zerbitzuak.
Plaza kopurua eta batez besteko neurria. 2008.**

	Plaza kopurua				Batez besteko neurria			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Egoitzak	221	658	352	1.231	36,8	18,3	44,0	24,6
Egonaldi luzeko pisuak eta apart.	231	193	332	756	8,3	5,4	7,9	7,1
Atsedeen-zentroak	42	42	0	84	21,0	21,0	0,0	21,0
Guztira	494	893	684	2.071	13,7	12,1	13,7	12,9

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

III.2.14. Grafikoa. BAZen estaldura-tasen bilakaera (10.000 biztanleko) pertsona ezgaituei dagokienez EAEn.

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

eragiteko gaitasunean izan zuen eraginaren ondorioz gertatu zela. Bukatzeko, lan-zentro berezietan 6.119 pertsonak egiten dute lan, hau da, zentro horiek eskaintzen dituzten arreta-lanpostuen kopuru osoaren %70 da.

- Ezgaitasunak dauzkaten pertsonentzako egoitza-zerbitzuei dagokionez, 2008an EAEk 160 zentro zeuzkan eta 2.071 plaza guztira; hau da, zentro bakoitzak 12,9 plaza zituen batez beste. Zentro-motei dagokionez, Gipuzkoan, plazen %51,5 egonaldi luzeko pisu eta apartamentuetan daude; Bizkaian, berriz, %21,6. Araban ehuneko hori %47ra iristen da. Gainerako plazak egoitzetan eta atsedeen-zentroetan daude. Plazen titulartasunari dagokionez, plazen %64,8 pribatuak dira, eta, bilakaerari dagokionez, azken hamar urteotan plaza publikoen kopurua murriztu egin da hiru lurraldeetan. Erabiltzaileen ezaugarriei dagokionez, datuen arabera, gizonen eta emakumeen arteko banaketa oso antzekoa da eta kolektiborik ugariena 35 eta 64 urte bitartekoa da (2008an %73,5); halaber, egoitza-zerbitzuen erabiltzaile ezgaituen artean gertatzen ari den zahartze-prozesua azpimarratzen zen. Horrez gain, ezgaitasun psikiko arina edo ertaina duten pertsonen garrantzia areagotu egin da (%51,2 2008an), ezgaitasun psikiko larria edo sakona duten pertsonen kalterako (%35,2). Ezgaitasun fisikoa duten pertsonen garrantzia egonkor mantendu da (%13,6).

- Etxeko arreta zerbitzuek (EAZ), bestalde, 2008an 2.197 erabiltzaile zeuden guztira, hau da, estaldura tasa 10,2koa zen 10.000 biztanleko. Txostenak azpimarratzen duenez, 2005-2008 aldian EAZen estaldura hiru lurraldeetan hazi da.
- Baterako estaldurari dagokionez, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen arretarako zerbitzuek herritarren %0,6ri eskaintzen die arreta (58,4 plaza 10.000 biztanleko), eta ratioak %0,5a eta %0,7a artekoak dira Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. EAE osoan estaldurarik altuena lan-zentro bereziei dagokien arren, zerbitzuen egitura nahiko desorekatua da hiru lurraldeetan: Gipuzkoako egoera hobea da, batik bat lan-zentro bereziei esker; Araban, berriz, tarteko egoera bat dago egoitzetako plazen estaldura altuaren ondorioz.
- Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen arretarako sektoreak EAEn 9.950 pertsonari ematen die lana arduraldi osoaren baliokidetasunari dagokionez, eta horien ia den-denak soldatapeko profesionalak dira. Horietako zati garrantzitsu bat Lan-zentro Berezieta langileak dira, eta, ondorioz, kolektibo hori salbuetsiz gero, langile propioen kopurua 4.652koa da guztira, eta %151 areagotu da 1994arekin alderatuta. Gainera, 2008an 3.468 pertsonak boluntariotza-lanak egiten zituzten sektore horretan.
- Bukatzeko, gastuari eta finantzaketari dagokionez, txostenak adierazten du EAEn ezgaitasunak dauzkaten pertsonentzako lan-zentroen gastua 2008an 392,5 milioi eurokoa izan zela, eta horietako 216 (%55) finantzaketa pribatuko iturrietatik zetozen, bai erabiltzaileen familien ekarpen gisa, bai enpresa eta partikularren ekarpen gisa, lan-zentro bereziak eskaintzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak erosteagatik. EAEn, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen arretara bideratutako gastu publikoa, aipatutako urtean, 81,9 eurokoa zen biztanle bakoitzeko. Gastu horren %73 Foru Aldundiei dagokie, %19 Administrazio Zentralari, %6,2 Eusko Jaurlaritzari eta %1,7 EAEko udalei.

Bukatzeko, eta ezgaitasunak dauzkaten pertsonen jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak dagokionez, Memoria Sozioekonomiko honetako "Gizarte Babesa EAEn" kapituluak ikus daiteke 2008an 44.000 pertsonak baino gehiagok jaso zituztela EAEn ordaindutakoaren arabera pentsioak "ezintasun iraunkorragatik", "ezintasunaren" ondoriozko kotizaziorik gabekoak 5.000 pentsiodunek baino gehiagok eta 680 PEGLekin (Pertsona Ezgaituak Gizarteratzeko 13/82 Legearen) lotutako prestazio-motaren baten onuradun izan zirela. Ez dakigu, halere, bestelako prestazio batzuk jasotzen dituzten (adibidez, erretiroko pentsioak) pertsonetako zenbatek duten ezgaitasunen bat.

III.2.12. Koadroa. EAE-ko pertsona ezgaituentzako gizarte-zerbitzuetako gastu arruntaren finantzaketaren banaketa (mila eurotan). 2008.

	Finantzaketa publikoa					Fin. Pribatua	% Fin. Publikoa
	Adm. Zentrala	Eusk. Jaurl.	FOR. ALD.	Udalak	Guztira		
Elkarteak	788	2.611	8.381	1.084	12.864	13.680	48,5
Egoitzak	29	565	48.971	20	49.584	4.194	92,2
Pisuak eta apartamentuak	3	514	17.554	24	18.095	2.491	87,9
Laguntzarako eguneko zentroak	23	2.433	19.916	119	22.491	1.881	92,3
Aisialdiko zentroak	—	54	1.529	68	1.652	1.357	54,9
Zentro okupazionalak	149	—	12.777	370	13.295	6.144	68,4
Lan-zentro bereziak	25.393	2.159	5.398	1.009	33.959	159.215	17,6
Beste batzuk	636	5.852	18.035	159	24.683	26.914	47,8
Guztira	27.021	14.188	132.561	2.853	176.623	215.876	45,0

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

3. Osasuna eta osasun sistema

3.1. Osasunaren egoera orokorra: adierazleak

3.1.1 Bizi itxaropena

Jaiotze uneko bizi itxaropena (BI) biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzeko modu klasikoa da. Osasun maila ez ezik, adierazleak leku jakin bateko gizarte, ekonomia eta osasun maila islatzen ditu. X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren arabera berariazko hilkortasun-tasetan egungo joerek irauenez gero. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Neurri hipotetikoa da, ez baitu bizirauteko benetako probabilitaterik neurtzen. Egungo hilkortasun-tasen arabera kalkulatu da eta, jakina, tasa horiek denboran alda daitezke. Abantaila nagusia honakoa da: zenbait eskualde edo herri eratzeko eta denboran izandako bilakaera aztertzeko erabil daiteke, erkatutako erkidegoetako adin egituren arteko aldeak eragiten ez diotelako.

Herri garatu gehienetan, bizi itxaropenaren behin-behineko bilakaera goranzkoa da; hala ere, horrek ez du esan nahi adierazlea handitu den bizi urte guztiak osasun egoera oneko urteak direnik, jendeak gaixotasunak eta osasun arazoak paira ditzakeelako eta hori dela-eta, berehala hil ez arren, bizi kalitatea gal baitaiteke. Orokorrean, gaitz kronikoetan gertatzen da hori, eta haien agerpenagatik hilkortasun-tasak apurka-apurka balioa galdu du biztanleriaren osasun egoeraren adierazlea izateko.

Gogoeta egiten da ea etorkizunean itxaropenaren hazkundearekin batera gaixotze-tasa ere haziko den, gaitz kronikoek eta buruko gaitzek gora egingo duten, edo bizitza luzeagoa osasun onez igaroko den, medikuntza aurrerapenei eta gaitzen prebentzioari esker.

Hori dela-eta, egun ohiko hilkortasun neurriak ez dira nahikoa osasun egoera ebaluatzeko, osasun egoera horretan berehalako hilkortasuna ez dakarten gaitz eta osasun arazo kronikoak ugariak direlako. Beraz, gaitzak euren ondorioen bidez neurtu behar dira, besteak beste, jarduera murrizketaren edo ezintasunaren bidez.

Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak egiteak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI) —hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua— edo osasun oneko bizi itxaropena (OOBI), neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen dute.

X adineko EGBIk x adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu.

X adineko OOBIk x adin horretako pertsona bati hil arte osasun egoera onean bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. Osasun oneko bizi itxaropenaren (OOBI) eta EGBIren arteko aldea honakoan datza: bizi urteak subjektuek euren osasun egoeraz

daukaten pertzepzio subjektiboaren arabera kalkulatu direla, ezintasunaren arabera kalkulatu beharrean.

Bizi itxaropena jaiotzean

EINen datuen arabera, EAEko jaiotze uneko bizi itxaropenak (BI) gorako joera izan du, bai emakumezkoen artean bai gizonezkoen artean. Hala, BI 80,3 urtekoa izatetik 81,9 urtekoa izatera pasa da 2003 eta 2009 urte artean. Gizonen kasuan 76,8 urtetik 78,5 urtera pasa da (+1,7 urte) eta emakumeen kasuan 84,1 urtetik 85,6 urtera (+1,4 urte).

2009an Autonomia Erkidego hauek izan zuten bizi itxaropen altuena: Madril (83 urte), Nafarroa (82,9 urte), Errioxa (82,5 urte), Gaztela eta León (82,5 urte), Gaztela-Mantxa (82,2 urte), eta Kantabria, Katalunia, Aragoi eta EAE (lauek 81,9 urte).

Bizi itxaropen baxuena dutenak: Ceuta (78,6 urte), Andaluzia (78,6 urte), Murtzia eta Extremadura (biek 80,9 urte).

Eurostaten datuen arabera, 2008an estatuko osasun oneko BI 63,2 urtekoa zen emakumeen artean eta 63,7 urtekoa gizonen artean. Honako hauek dira osasun oneko BI oso altua duten Europako herrialdeak: Malta (71,9 urte emakumeen artean eta 68,7 gizonen artean), Islandia (69,5 urte emakumeak eta 70,9 urte gizonak), Norvegia (68,8 urte emakumeak eta 70 gizoonak) eta Suedia (68,7 urte emakumeak eta 69,2 urte gizonak).

Aipatu diren herrialdeetako datuen ondorioa zera da: Emakumeak gizonak baino urte gehiago bizi dira, baina osasun egoera okerragoan.

Bizi itxaropena 65 urterekin

EINen datuen arabera, EAEen ere gora egin du azken urteetan bizi itxaropenak 65 urterekin, bai emakumeen artean bai gizonen artean. Hala, 19,4 urtetik 20,6 urtera pasa da 2003 eta 2009 urte artean. Gizonen kasuan 16,9 urtetik 18,2 urtera pasa da (+1,3 urte) eta emakumeen kasuan 21,5 urtetik 22,6 urtera (+1,1 urte). Hau da: emakumeen bizi itxaropena gizonena baino gutxiago hazi da.

65 urtearekin bizi itxaropen altuena duten autonomia erkidegoak hauek izan ziren 2009an: Madril (21,2 urte), Nafarroa eta Gaztela eta León (biek 21,1 urte), Errioxa (20,8 urte), Melilla eta EAE (biek 20,6 urte), Gaztela-Mantxa eta Kantabria (20,5 urte).

Bizi itxaropen baxuena dutenak: Ceuta (18,6 urte), Andaluzia (19,1 urte), Murtzia (19,4 urte), Extremadura (19,6 urte) eta Valentzia (19,7 urte).

Eurostaten datuen arabera, estatuan, 65 urterekin osasun oneko bizi itxaropena 8,6 urtekoa zen emakumeen artean eta 9,8 urtekoa gizonen artean 2008an. Honako hauek dira osasun oneko bizi itxaropen oso altua duten Europako herrialdeak: Norvegia (14,8 urte emakumeek eta 14,1 urte gizonek), Islandia (14 urte emakumeek eta 13,8 urte gizonek), Suedia (13,8 urte emakumeek eta 12,9 urte gizonek), danimarka (12,3 urte emakumeek eta 12

III.3.1. Koadroa. Bizi itxaropena jaiotzean autonomia erkidego bakoitzeko eta sexuaren arabera (urteak)

	2009			2005			2003		
	Gutxira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gutxira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gutxira	Gizonezkoa	Emakumezkoa
Andaluzia	80,3	77,3	83,3	78,9	75,7	82,2	78,4	75,1	81,7
Aragoi	81,9	78,9	85,0	80,6	77,6	83,7	80,2	77,3	83,3
Asturias	80,8	77,4	84,1	79,8	76,1	83,5	79,1	75,3	83,0
Balearrak	81,2	78,4	84,0	80,5	77,5	83,7	80,0	77,0	83,1
Kanariak	81,2	78,5	83,9	79,5	76,3	82,7	78,9	75,7	82,3
Kantabria	81,9	78,4	85,3	81,0	77,3	84,7	80,4	76,7	84,1
Gaztela eta León	82,5	79,5	85,6	81,3	78,0	84,7	81,0	77,7	84,4
Gaztela-Mantxa	82,2	79,5	85,0	80,8	78,1	83,7	80,5	77,7	83,4
Katalunia	81,9	78,9	84,8	80,5	77,2	83,8	80,0	76,7	83,2
Valentzia	81,2	78,3	84,1	79,6	76,5	82,7	79,0	75,8	82,2
Extremadura	80,9	77,7	84,3	79,6	76,3	83,1	79,0	76,0	82,2
Galizia	81,3	77,9	84,6	80,5	76,8	84,0	79,9	76,3	83,4
Madril	83,0	79,9	85,7	81,6	78,3	84,6	80,7	77,2	83,8
Murtzia	80,9	78,2	83,7	79,7	76,6	83,0	79,1	76,2	82,1
Nafarroa	82,9	79,8	86,0	81,7	78,7	84,7	81,0	77,7	84,3
EAE	81,9	78,5	85,2	80,9	77,2	84,6	80,3	76,8	83,8
Errioxa	82,5	79,6	85,5	80,9	77,6	84,3	80,6	77,3	84,0
Ceuta	78,6	75,8	81,4	78,6	76,0	81,1	77,9	75,4	80,8
Melilla	81,7	78,4	84,9	79,8	77,3	82,2	77,8	75,0	80,3

Iturria: EIN.

III.3.2. Koadroa. Bizi esperantza 65 urterekin autonomia erkidego bakoitzeko, sexuaren arabera

	2009			2005			2003		
	Gutxira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gutxira	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Gutxira	Gizonezkoa	Emakumezkoa
Andaluzia	19,1	17,1	20,9	18,1	16,1	19,9	17,8	15,9	19,6
Aragoi	20,4	18,3	22,4	19,6	17,7	21,3	19,3	17,4	21,1
Asturias	19,8	17,5	21,9	19,2	16,9	21,3	18,9	16,5	21,0
Balearrak	19,9	18,0	21,6	19,4	17,3	21,3	18,8	16,7	20,6
Kanariak	20,0	18,3	21,5	18,8	16,8	20,7	18,6	16,5	20,5
Kantabria	20,5	17,9	22,7	19,9	17,2	22,2	19,5	17,0	21,7
Gaztela eta León	21,1	19,0	23,0	20,3	18,2	22,2	20,1	18,0	22,1
Gaztela-Mantxa	20,5	18,7	22,2	19,6	18,0	21,1	19,3	17,7	20,8
Katalunia	20,4	18,3	22,2	19,3	17,2	21,2	19,0	16,9	20,8
Valentzia	19,7	17,8	21,5	18,7	16,9	20,4	18,2	16,3	19,9
Extremadura	19,6	17,3	21,6	18,6	16,5	20,6	18,4	16,4	20,1
Galizia	20,4	18,2	22,3	19,9	17,7	21,8	19,5	17,4	21,3
Madril	21,2	18,9	22,9	20,2	17,9	22,1	19,6	17,3	21,5
Murtzia	19,4	17,5	21,0	18,7	16,8	20,4	18,4	16,7	20,0
Nafarroa	21,1	18,7	23,2	20,2	17,9	22,2	19,7	17,4	21,8
EAE	20,6	18,2	22,7	19,8	17,2	22,0	19,4	16,9	21,5
Errioxa	20,8	18,8	22,8	20,0	17,8	22,0	19,6	17,4	21,6
Ceuta	18,6	16,8	20,2	17,8	16,3	19,1	17,7	16,6	19,1
Melilla	20,6	18,2	22,7	19,1	17,4	20,5	17,4	15,1	19,4

Iturria: EIN.

urte gizonek), Luxenburgo (11,6 urte emakumeek eta 10,8 gizonek) eta Malta (11,4 emakumeek eta 10,4 gizonek). Herrialde horien inguruan lehenago ateratako ondorioa ez dator bat azken datuekin, hau da, analisia 65 urtetik aurrera egiten denean, emakumeak urte gehiago bizi dira baina ez dira bizi gizonak baino osasun egoera okerragoan.

3.1.2. Hilkortasuna

Hilkortasuna. Hiltzeko arrazoi nagusiak

EUSTATen datuen arabera, 2009. urtean behin-behineko heriotza kopurua 19.045ekoa izan zen; haietatik 9.876 gizonezkoak izan ziren eta 9.169 emakumezkoak. Hortaz,

2008an baino 392 zentze gutxiago gertatu ziren, hots, %2 gutxiago. Jaitsiera hori, beste neurri batean bada ere, genero ikuspegitik ere errepikatzen da. Horrela, emakumezkoen artean 150 zentze gutxiago egon ziren, hots, %2,4 gutxiago, eta gizonezkoen artean 242 gutxiago (-% 2,4).

Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bestela esanda, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira. Horrela, 70-79 urteko taldean 4.156 heriotza gertatu dira, 80-89 urtekoan 7.266, 90-99 urtekoan 3.289 eta 99 urtetik gorakoan 197.

III.3.3. Koadroa. Bizi itxaropena jaiotzean eta 65 urterekin, osasun onean, sexuaren arabera, 2008

	Osasun oneko bizi esperantza, jaiotzean		Osasun oneko bizi esperantza, 65 urterekin	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Bulgaria	65,5	61,9	9,3	8,7
Txekiar Errepublika	63,3	61,2	8,2	7,4
Danimarka	60,7	62,3	12,3	12
Alemania	57,4	55,8	6,6	6,2
Estonia	57,2	52,7	4,2	3,9
Irlanda	65,0	63,2	10,3	9,4
Grezia	65,8	65,4	8,1	8,9
Espainia	63,2	63,7	8,6	9,8
Frantzia	64,2	62,4	9,8	8,7
Italia	—	—	—	—
Txipre	65,1	64,5	7,7	9,3
Letonia	54,1	51,5	4,9	4,8
Lituania	59,3	54,6	6,3	5,7
Luxenburgo	64,2	64,8	11,6	10,8
Hungaria	58,0	54,6	6,3	5,5
Malta	71,9	68,7	11,4	10,4
Herbehereak	59,8	62,4	9,6	9,7
Austria	59,5	58,0	7,3	7,3
Polonia	62,6	58,4	7,5	6,9
Portugal	57,2	59,0	5,4	6,6
Errumania	62,6	60,0	7,8	7,7
Eslovenia	60,9	59,4	9,3	9,2
Eslovakia	52,3	51,8	2,6	2,9
Finlandia	59,4	58,6	8,9	8
Suedia	68,7	69,2	13,8	12,9
Norvegia	68,8	70,0	14,8	14,1

Iturria: EUROSTAT.

70-100 urteko tarteari helduz, eta aurreko urtearen aldean, 80-100 urtekoen artean heriotza proportzio handiagoa gertatu da, eta 70-79koen artean txikiagoa. Bestalde, haurren heriotza-tasa (urtebetez azpikoak) murriztu egin da 200. urtearen aldean; 62 heriotzatatiki

60ra, baina nesken artean baino ez (30etik 23ra), mutilen artean handitu delako (32tik 37ra).

EAEko heriotza gehienak, inguru sozioekonomiko bereko herrietan lege, gaixotasun ez transmitigarrien ondorioz gertatzen dira. Gaixotasun kardiobaskularrak eta minbizia heriotza guztien hiru bostenen errudunak dira.

2001ko apirilean argitaratu ziren EINen datuen arabera, hauek izan ziren estatuan 2008ko heriotza arrazoi nagusiak: lehenengo arrazoia, zirkulazio aparatuko gaixotasunak (mila hildakoren artean 317,85); bigarrena, tumoreak (mila hildakoren artean 269,4); hirugarrena, arnasketa aparatuko gaixotasunak (mila hildakoren artean 114,4) eta, laugarrena, digestio-aparatuko gaixotasunak (mila hildakoren artean 50,4). Gizonezkoen eta emakumezkoen artean desberdintasunak daude. Horrela, gizonezkoek dagokienez, tumore gaiztoek zirkulazio-aparatuaren gaitzak gaintzen dituzte, eta emakumeek dagokienez alderantziz gertatzen da.

EUSTATen datuen arabera, 2007tik gertatutako heriotza gehienak tumoreengatik gertatu dira (%30,3 2009an) eta bigarren tokian zirkulazio-sistemaren gaixotasunak kokatzen dira (%29,4). Aurreko urteetan zirkulazio-sistemaren gaitzek eragin zituzten heriotza gehien.

Hilkortasun goiztiarra. Bizi urte potentzial galduak (BUPG)

Adierazle hau, irizpide bateratu batzuk bilduta etorkizuneko epidemiologia azterketa bat osatzen duen pertsona talde batentzat, garaia baino lehenago (70 urte bete baino lehenago) hil diren pertsonen bizi ez dituzten urte guztiak (hiltzeko adinaren eta 70 urteen arteko aldean batuketa metatua) oinarri hartuta eratzen da. Horrela, bizi urte potentzial galduak (BUPG) osasun publikoan neurri ona dira biztanleria gazteenarengan hilkortasunak izandako eragina islatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2008an (eskuragarri dauden azken datuak) emakumezkoen hilkortasun goiztiarrerako arrazoi nagusiak, ordenaren arabera, honakoak izan ziren: bularreko tumore gaiztoak; trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak; garuneko

III.3.4. Koadroa. Heriotzak sexuaren arabera

	Guztirakoak			Urtebetez azpikoak		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2005	19.425	10.329	9.096	57	36	21
2006	18.507	9.810	8.697	66	29	37
2007	19.252	10.021	9.231	88	47	41
2008	19.437	10.118	9.319	62	32	30
2009 (b-b)	19.045	9.876	9.169	60	37	23
2008-2009 Ezb.	-392	-242	-150	-2	5	-7
Bar. %-tan 08-09	-2,0	-2,4	-1,6	-3,2	15,6	-23,3

(b-b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika. 2010ko abenduak datuak.

III.3.5. Koadroa. EAE-ko heriotzak betetako adinaren arabera

	<1	1-9	10-19	20-29	30-39	40-49	50-59	60-69	70-79	80-89	90-99	100
2005	57	21	37	134	280	593	1.310	1.968	4.955	6.752	3.171	147
2006	66	16	28	116	248	659	1.230	1.948	4.660	6.348	3.058	130
2007	88	23	33	92	258	628	1.318	2.019	4.618	6.864	3.145	166
2008	62	21	24	97	216	626	1.265	1.990	4.601	7.124	3.247	164
2009 (b-b)	60	15	27	65	213	580	1.150	2.027	4.156	7.266	3.289	197

(b-b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika. 2010ko abenduak datuak.

III.3.6. Koadroa. Hilkortasunaren banaketa estatuan, arrazoiaren eta sexuaren arabera, 2008. Portzentajea (1.000 Heriotzako)

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumeak
GUZTIRA	1.000,0	516,8	483,2
I. Gaixotasun infekziosoak eta parasito-gaixotasunak	19,963	10,46	9,502
II. Tumoreak	269,344	166,591	102,753
III. Odeko eta organu hematopoietikoen gaixotasunak eta immunitate mekanismoa kaltetu dezaketen zenbait nahaste	3,474	1,439	2,035
IV. Gaixotasun endokrinoak, metabolikoak eta nutrizioarekin loturikoak	31,934	12,997	18,937
V. Buruko eta jokabidearen nahasteak	33,754	11,431	22,323
VI-VIII. Nerbio-sistemako eta zentzuen organoetako gaixotasunak	45,288	17,623	27,666
IX. Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	317,85	144,286	173,564
X. Arnasketa-sistemako gaixotasunak	114,412	65,906	48,506
XI. Digestio-sistemako gaixotasunak	50,414	26,68	23,734
XII. Azaleko eta larruazalpeko ehuneko gaixotasunak	3,135	0,929	2,205
XIII. Hezurren eta muskuluen sistemako eta ehun konektiboko gaixotasunak	8,811	2,819	5,992
XIV. Sistema genitourinarioko gaixotasunak	27,384	12,922	14,462
XV. Haurdunaldia, erditzea eta erdiberriaroa	0,062	0	0,062
XVI. Jaiotza inguruko garaian sortutako afekzioak	2,444	1,416	1,028
XVII. Jaiotzetiko malformazioak, deformazioak eta anomalia kromosomikoak	2,392	1,209	1,183
XVIII. Sintoma, seinale eta aurkikuntza anormal klinikoak eta laborategikoak, beste inon sailkatu gabe daudenak	29,765	12,93	16,836
XX. Hilkortasunaren kanpoko arrazoiak	39,576	27,151	12,425

Iturria: EIN.

III.3.7. Koadroa. Heriotza kopurua heriotza arrazoiaren arabera

	EAE								
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009 (b-b)	
								z	%
Guztira	18.619	19.305	18.684	19.425	18.507	19.252	19.437	19.045	100,0
Tumoreak	5.467	5.548	5.479	5.462	5.580	5.812	5.811	5.771	30,3
Zirkulazio-sistema	5.891	5.891	5.775	5.891	5.615	5.710	5.692	5.599	29,4
Arnasketa-sistema	1.944	2.066	1.788	2.214	1.739	1.854	1.941	1.750	9,2
Digestio-sistema	954	1.041	1.013	950	949	990	979	887	4,7
Istripuak	795	806	745	776	697	734	711	603	3,2
Beste gaitz guztiak	3.568	3.953	3.884	4.132	3.927	4.152	4.303	4.435	23,3
Hiltzeko arrazoi ohikoenen arteko portzentajeak banaketaren bilakaera:									
Tumoreak	29,4	28,7	29,3	28,1	30,2	30,2	29,9	30,3	20,8
Zirkulazio-sistema	31.6	30.5	30.9	30.3	30.3	29.7	29.3	29.4	19.9

(b-b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika. 2010ko abenduko datuak.

hodian gaixotasunak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, zirrosia eta gibelako gaixotasun kronikoak, eta koloneko tumore gaiztoa.

Egoera hori 2007koarekin erkatuta, BUPGn eta hilkortasun tasetan (gordinean edota egokituan) hazkundeak ikusten dira bularreko tumore gaiztoetan, garuneko hodian gaixotasunetan, suizidioetan eta nork bere buruari eragindako zaurietan; zirrosian eta gibelaren gaitz kronikoetan, koloneko tumore gaiztoetan, pankreako tumore gaiztoetan eta leuzemia kasuetan.

Gizonezkoen dagokionez, 2008an, EAEn BUPGrako zio nagusiak trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, ibilgailu motorduneko trafikotako istripuak, zirrosiak eta gibelaren gaitz kronikoak, garuneko hodian gaitzak, eta istripuzko erorikoak izan ziren.

Egoera 2007koarekin erkatuta, BUPG eta hilkortasun tasak (gordina edota egokitua) honakoetan hazi dira: trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoetan; istripuzko erorikoetan; koloneko tumore gaiztoetan eta txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoetan.

3.1.3. Erikortasun adierazleak

Erikortasuna gaitz batek biztanleria batengan dauzkan ondorioen ikerketa da, toki eta denbora jakin batean gaixotzen diren pertsonen proportzioari dagokionez.

Ospitaleko senda-agiriak diagnostikatutako talde handien arabera

EUSTATen datuen arabera, EAEko akutuen ospitale publiko eta pribatuak ospitaleko 316.559 alta izan zituzten 2009an (2008an baino 298 gutxiago). Alta horien % 74 ospitale publikoetan erregistratu ziren eta % 26 ospitale pribatuetan. 2009an, gaixotze ospitaleratu diren egun berean alta jaso zutenek % 4,8 egin zuten gora. Laguntzeko modu horren kopurua ospitaleko lau altetako bat da eta urtero geroz eta gehiago baliatzen da ospitaleetan. Patologiarik ohikoena hauek dira: kataratak, barizeak eta belauneko lesioak. Ohiko ospitaleratzeek (gutxienez jota egun bateko egonaldia dutenak) % 1,7 egin zuten behera; osteoartrosia, behazunaren kalukuluak eta bihotz-gutxiegitasuna izan ziren ospitaleratzeak arrazoirik ohikoena.

Haurdunaldi, erditze eta erdiberriarogatik ospitaleratzeak kontuan hartu gabe, 2009an EAEn ospitaleratzeak arrazoi

III.3.8. Koadroa. Bizi urte potentzial galduak sexuaren arabera eta arrazoi nagusiak

	BUPG	T. Gordina*	T. Estand.*	BUPG	T. Gordina*	T. Estand.*
	Gizonezkoak 2008			Gizonezkoak 2007		
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	5.060	5,6	4,8	4.778	5,3	4,5
Kardiopatia iskemikoa	3.153	3,5	2,9	3.473	3,8	3,2
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2.260	2,5	2,2	2.343	2,6	2,2
Ibilgailu motordunetako trafikiko istripuak	2.183	2,4	2,5	2.744	3,0	2,9
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	1.543	1,7	1,4	2.070	2,3	2,0
Garuneko hodietako gaixotasunak	1.125	1,2	1,0	1.265	1,4	1,2
Istripuzko erorikoak	1.122	1,2	1,2	825	0,9	0,9
Koloneko tumore gaiztoa	985	1,1	0,9	895	1,0	0,9
HIES	973	1,1	0,9	1.145	1,3	1,0
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	960	1,1	0,9	843	0,9	0,9
Psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak	905	1,0	0,8	1.048	1,2	1,0
Urdaileko tumore gaiztoa	895	1,0	0,8	1.093	1,2	1,1
Ezpaineako, aho-barrunbeto eta faringeko tumore gaiztoa	850	0,9	0,8	1.055	1,2	1,0
Esofagoko tumore gaiztoa	775	0,9	0,7	968	1,1	0,9
Gibelesko eta gibel barruko behazun bideetako tumore gaiztoa	643	0,7	0,6	—	—	—
	Emakumezkoak 2008			Emakumezkoak 2007		
Bularreko tumore gaiztoa	2.328	2,6	2,1	2.230	2,5	2,1
Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	2.328	2,6	2,1	2.230	2,5	2,1
Garuneko hodietako gaixotasunak	903	1,0	0,8	648	0,7	0,7
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	840	0,9	0,8	840	0,9	0,8
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	600	0,7	0,5	375	0,4	0,4
Koloneko tumore gaiztoa	588	0,7	0,5	510	0,6	0,5
Ibilgailu motordunetako trafikiko istripuak	503	0,6	0,8	677	0,8	0,9
Pankreako tumore gaiztoa	475	0,5	0,4	353	0,4	0,4
Obulutegiko tumore gaiztoa	473	0,5	0,4	570	0,6	0,5
Kardiopatia iskemikoa	455	0,5	0,4	570	0,6	0,5
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	433	0,5	0,4	673	0,8	0,7
Leuzemia	400	0,5	0,4	364	0,4	0,5
HIES	318	0,4	0,3	—	—	—
Entzefaloko tumore gaiztoa	305	0,3	0,3	460	0,5	0,5
Umetoki-lepoko tumore gaiztoa	280	0,3	0,3	343	0,4	0,3

*Milako tasa gordina eta europar biztanleria estandarrekin estandarizatutako tasa adinaren arabera.

Iturria: Heriotzen erregistroa. Osasun plangintza eta antolamenduen zuzendaritza.

nagusiak nerbio-sistemako eta zentzumen organoetako gaixotasunak (kataratak gehienbat) izan ziren. Gaixo guztien artean % 11,8 izan ziren eta mila biztanleko 17,2 kasu eman ziren. Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak ere ospitaleratzeko arrazoi nagusietako bat izan ziren (% 11,7 eta 1.000 biztanleko 17 kasu). Hirugarren arrazoi nagusia digestio-aparatuko gaixotasunak izan ziren (% 11,3 eta 1.000 biztanleko 16,4 kasu) eta laugarren eta bosgarren arrazoi nagusiak tumoreak eta arnasketa-aparatuko gaixotasunak; azken bi arrazoi horien portzentajea % 9 izan ziren eta 1.000 biztanleko 13 kasutan eman ziren.

Datuen iturri beraren arabera, ospitaleko batez besteko egonaldia 6,3 egunekoa izan zen, eta egonaldi luzeenak buruko nahaste eta jaiotza inguruko gaixotasunengatik egin ziren (14,3 egun eta 13,2 egun, hurrenez hurren). Horien atzetik, gaixotasun infekziosoek eta tumoreek eragindako egonaldiak izan ziren luzeenak (9 egun). Ospitale pribatuetakoa batez besteko egonaldia 4,1 egunera jaitsi da. Ospitale horietan hezur-muskuluetako gaixotasunak izan ziren ospitaleratzeko arrazoi nagusia (Zehazki, belaunaren barruko nahastea eta osteoartrosia izan ziren gehienbat).

Ospitaleratutako pertsona guztien artean, % 51,7 emakumeak izan ziren; gizonezkoen kopurua baino gehiago dira (% 48,3), haurdunaldiagatik eta erditzeengatik ematen diren altak direla eta (25.967). Mota horretako ospitaleratzeak kontuan hartu gabe, guztien artean (290.592) % 47,3 emakumezkoak dira eta % 52,7 gizonezkoak.

Ospitaleko laguntza eskaria adinarekin batera handitzen da: 2009an ospitaleratu zirenen %42,6k 65 urte edo gehiago zeuzkaten. Gizonezkoen artean, adinik ohikoena 76 urte izan ziren eta, emakumezkoen artean, 77 urte (haurdunaldi, erditze eta erdiberriarogatik ospitaleratzeak kontuan hartu gabe).

Erikortasun arrazoiak ez datoz bat modu berean sexuari eta adinari erreparatuz gero. Gizonen artean, ospitaleratzeko arrazoi nagusiak zirkulazio sistemako eta digestio aparatuko gaixotasunak izan ziren (biek % 14 inguruko portzentajea dute); horien atzetik arnasketa aparatuko gaixotasunak daude. Emakumeen artean, aldiz, haurdunaldia, erditzea eta erdiberriaroka (% 16) eta nerbio sistemako gaixotasunak eta zentzumen organoetakoak dira arrazoi nagusiak (% 13).

III.3.9. Koadroa. Alta jaso duten gaixoak diagnostikoaren eta sexuaren arabera

		2008	2009					
		Guztira	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
		Altak	Altak	Altak/1.000 bizt.	Altak	Altak/1.000 bizt.	Altak	Altak/1.000 bizt.
GNS-9. AK	Guztira	316.857	316.559	158,4	153.048	144,0	163.511	147,0
001-139	Gaixotasun infekziosoak	3.252	3.583	1,6	2.130	2,0	1.453	1,3
011	Birikako tuberkulosia	164	132	0,1	89	0,1	43	0,0
042	HIES	365	302	0,1	221	0,2	81	0,1
070	Hepatitis birikoa	117	190	0,1	139	0,1	51	0,0
140-239	Tumoreak	27.611	28.862	13,3	15.219	14,3	13.643	12,3
153	Koloneko neoplasia gaiztoa	1.807	1.860	0,9	1.147	1,1	713	0,6
162	Trakea, bronkio eta birikako neoplasia gaiztoa	1.343	1.375	0,6	1.088	1,0	287	0,3
174	Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa	1.745	1.785	1,6	—	—	1.785	1,6
185	Prostatako neoplasia gaiztoa	1.306	1.455	1,4	1.455	1,4	—	—
188	Maskuriko neoplasia gaiztoa	—	1.985	0,9	1.660	1,6	325	0,3
240-279	Gaitz endokrino eta metabolikoak	4.516	4.362	2,0	1.799	1,7	2.563	2,3
250	Diabetes mellitusa	1.679	1.665	0,8	926	0,9	739	0,7
280-289	Odoleko gaixotasunak	3.540	3.334	1,5	1.599	1,5	1.735	1,6
290-319	Buruko gaixotasunak	5.264	4.750	2,2	2.644	2,5	2.106	1,9
320-389	Nerbio-sistemako eta zentzumen organoetako gaix.	35.968	37.469	17,2	15.852	14,9	21.617	19,4
360-379	Begi trastornoak eta hari lotutakoak	26.452	27.441	12,6	11.576	10,9	15.865	14,3
366	Katarata	20.925	21.617	9,9	8.767	8,3	12.850	11,5
380-382	Otitisa	978	1.007	0,5	542	0,5	465	0,4
390-459	Zirkulazio aparatuaren gaix.	37.819	37.076	17,0	21.104	19,9	15.972	14,4
401-405	Hipertentsioa	1.560	1.694	0,8	749	0,7	945	0,8
410	Miokardioko infartu akutua	2.501	2.520	1,2	1.831	1,7	689	0,6
460-519	Arnas gaixotasunak	28.625	28.236	13,0	16.790	15,8	11.446	10,3
480-486	Pneumonia	5.497	5.240	2,4	3.189	3,0	2.051	1,8
490-491	Bronkitisa	3.601	3.418	1,6	2.748	2,6	670	0,6
493	Asma	1.715	1.783	0,8	686	0,6	1.097	1,0
500-519	Pneumokoniosia, beste batzuk	8.558	8.256	3,8	4.627	4,4	3.629	3,3
520-579	Digestio gaixotasunak	35.325	35.726	16,4	20.999	19,8	14.727	13,2
531-534	Urdaileko ultzerak	689	677	0,3	488	0,5	189	0,2
540-543	Apendizitisa	2.504	2.549	1,2	1.443	1,4	1.106	1,0
550-553	Sabelaldeko barrunbearen hernia	8.650	8.521	3,9	6.306	5,9	2.215	2,0
574	Kolelitiasia	5.067	5.062	2,3	2.144	2,0	2.918	2,6
580-629	Aparatu genitourinarioaren gaix.	18.893	18.753	8,6	8.041	7,6	10.712	9,6
580-584	Nefritisa	797	822	0,4	480	0,5	342	0,3
592	Giltzurrun- eta ureter-kalkulua	1.251	1.365	0,6	827	0,8	538	0,5
630-679	Haurdunaldia eta erditzea	26.436	25.967	23,3	—	—	25.967	23,3
650	Erditze arrunta	3.570	2.496	2,2	—	—	2.496	2,2
670	Puerperioko infekzio larria	12	16	0,0	—	—	16	0,0
680-709	Azal eta larruazalpeko gaix.	5.792	5.243	2,4	2.947	2,8	2.296	2,1
680-686	Azal eta larruazalpeko infekzioak	2.272	2.293	1,1	1.493	1,4	800	0,7
690-698	Azal eta larruazalpeko beste hantura batzuk	234	213	0,1	107	0,1	106	0,1
710-739	Hezur-muskulu eta lokomozio gaix.	29.031	27.690	12,7	13.745	12,9	13.945	12,5
715	Osteoartrosia	5.670	5.447	2,5	2.252	2,1	3.195	2,9
722	Ornoarteko diskoaren trastornoa	1.808	1.828	0,8	966	0,9	862	0,8
740-759	Sortzetiko anomaliak	2.596	2.411	1,1	1.290	1,2	1.121	1,0
760-779	Jaiotza inguruko anomaliak	2.106	1.836	0,8	1.000	0,9	836	0,8
773-774	Fetoaren gaix. hemolitikoa/Min hori perinatale	501	367	0,2	212	0,2	155	0,1
780-799	Txarto zehaztutako gaixotasun egoerak	14.847	14.026	6,4	7.675	7,2	6.351	5,7
800-999	Zauriak eta pozoitzeak	22.235	22.958	10,6	13.002	12,2	9.956	8,9
820	Femur lepoaren haustura	2.340	2.464	1,1	628	0,6	1.836	1,7
V01-V84	V kodeak	13.001	14.242	6,5	7.194	6,8	7.048	6,3

(1) GNS-9. AK= Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena 9. Aldaketa Klinikoa.

(2) Datuak EAEko akutuentezako ospitaleei (publikoak eta pribatuak) dagozkie.

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritz. Ospitaleko erikortasunaren estatistika.

III.3.10. Koadroa. EAE-n adierazi beharreko gaixotasunak

	Kasuak			Tasak 10.000 biztanleko	
	2007	2009	Dif. 2007-09	2007	2009
Botulismoa	0	0	0	0	0
Kolera	0	0	0	0	0
Disenteria	23	17	-6	1,1	0,8
Sukar tifo-paratifikoa	6	2	-4	0,3	0,1
Trikinosia	3	0	-3	0,1	0
Meningokoko gaixotasuna	71	67	-4	3,3	3,2
Gripea	31.915	58.462	26.547	1498,8	2.745,6
Legionelosisia	103	111	8	4,8	5,2
Meningitis tuberkuloso	7	1	-6	0,3	0,1
Tuberkulosia	321	279	-42	15,1	12,7
Barizela	13.271	9.694	-3.577	623,3	455,3
Infekzio gonokozikoa	107	95	-12	5	4,5
Sifilia	98	112	14	4,6	5,3
Difteria	0	0	0	0	0
Parotiditisa	2.062	111	-1.951	96,8	5,2
Poliomelitis	0	0	0	0	0
Errubeloa	2	0	-2	0,1	0
Elgorria	0	0	0	0	0
Tetanoa	1	2	1	0,1	0,1
Kukutxeztula	27	16	-11	1,3	0,8
A hepatitisa	39	170	131	1,8	8,0
B hepatitisa	34	29	-5	1,6	1,4
C hepatitisa	8	6	-2	0,4	0,3
Beste hepatitis birikoak	1	1	0	0,1	0,1
Bruzelosia	1	2	1	0,1	0,1
Amorrua	0	0	0	0	0
Sukar horia	0	0	0	0	0
Paludismoa	23	31	8	1,1	1,5
Izurritea	0	0	0	0	0
Tifus exantematikoa	0	0	0	0	0
Legenarra	1	1	0	0,1	0,1
Sortzetiko errubeola	0	1	1	0	0,1
Sortzetiko sifilia	0	0	0	0	0
Jaioberriko tetanoa	0	0	0	0	—

Iturria: EUSTAT. 2010eko ekainean argitaratutako datuak.

Adin talde jakinetan sarriago ospitaleratzea eragiten duten gaixotasunen beste talde batzuk hauek izan ziren: arnasketa sistemako gaixotasunak 0 eta 14 urte artekoen artean (amigdalak/adenoideak batez ere); hezur-hausturak eta lesioak (belauneko lokadura) eta digestio aparatuko gaixotasunak (apendizitisa) 15 eta 44 urte arteko gizonezkoen artean; tumoreak (bularreko neoplasia) eta hezur-muskuluetako gaixotasunak (behatz lodiaren deformazioa eta meniskoko lesioa) 45 eta 64 urte arteko emakumeen artean, eta digestio aparatuko gaixotasunak azken adin talde horretako gizonezkoen artean.

Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak

Osasun publikoaren eginkizunetako bat gaixotasun transmitigarriak kontrolatzea da.

Bizi baldintzen hobekuntzak eta EAEko osasun sistemaren garapenak infekzio-gaixotasun askoren ondorioak murriztu badituzte ere, oraindik osasun arazo handia dira, aldian-aldian agertzen diren gaixotasunak daudelako eta horrek ezinbesteko bihurtzen duelako jagoletza epidemiologiko egokiari eustea.

Jagoletza epidemiologikoko sistemaren eginkizuna informazio azkar eta fidagarria ematea da, EAEn gaixotasun

transmitigarriak eta agerraldiak zaindu eta prebenitu ahal izateko.

EUSTATen datuen arabera, 2009an, antzemandako kasu kopuru absolutuagatik eta 10.000 biztanleko tasengatik, azpimarratzekoak dira gripea (10.000 biztanleko 2.745,6 kasu) eta barizela (10.000 biztanleko 455,3 kasu), eta neurri txikiagoan: tuberkulosia (12,7), A hepatitisa (8), sifilia (5,3), legionelosisia eta parotiditisa (biek 5,2 kasu 10.000 biztanleko).

3.2. Osasun sistema eta prestazioak

Osasun laguntza ospitaleko edo ospitaleaz kanpoko jarduera izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jarduera publikoa Osakidetza eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuak.

Epigrafe honetan aurkeztuko den azterketa honakoen bidez egin da:

- EUROSTATen datuak
- EUSTATEk emandako datuak, ospitaleko (ospitaleko laguntzari buruzko estatistika) eta ospitaleaz kanpoko

III.3.11. Koadroa. EAE-ko medikuak

	2004	2005	2006	2007	2008
Medikuak ospitaleaz kanpoko laguntza jardueran (KLJ) (publikoa)	2.747	2.773	2.795	2.815	3.020
Medikuak ospitaleko laguntza jardueran (OLJ) (publikoa eta pribatua)	4.247	4.284	4.330	4.459	4.678
Población	23	17	-6	1,1	0,8
Biztanleria	2.104.396	2.115.383	2.130.996	2.147.754	2.162.944
KOLJko medikoak 100.000 biztanleko	201,8	202,5	203,2	207,6	216,3

Iturria: EUSTAT.

(ospitaleaz kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika) sektoreei dagokienez. Lehenengoaren kasuan informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri egon arren, bigarrenaren kasuan (ospitaleaz kanpoko), sektore publikorako baino ez dago.

- Osakidetzak ospitalekoari zein ospitaleaz kanpokoari buruz emandako informazioa.

3.2.1. Sarrera

Lurralde bateko osasun sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko baliabide adierazlerik onartuenen artean ospitale kopurua, ohe kopurua eta medikuak, erizaintzako langileak, e.a. daude.

EUROSTATen osasun baliabideei eta langileei buruzko datuen arabera:

- EAEn, 100.000 biztanleko EBko herrietan baino doktore eta psikiatra gehiago dago. Hala ere, EUROSTATen datuaz kontuz hartu behar dira, estatistika organismoak berak adierazitako serieen haustura dela-eta.

Lehenago aipatu legez, EUSTATEk darabilen metodologiak ospitaleko (publiko eta pribatua) eta ospitaleaz kanpoko (publikoa) osasun laguntza jardueren artean bereizten dut, eta biak ezin dira batu. Hala ere, esan dezakegu mediku kopurua handitzeko joera dagoela, baina ezin dugu benetako hazkundea zehaztasunez zehaztu.

- 100.000 biztanleko haginlari kopurua ere hazi da, salbuespenak salbuespen. EAEn adierazlea Estatukoak baino handiagoa da (71 eta 56,7, hurrenez hurren, 2008an), baina EBko zenbait herrikak baino txikiagoa.
- 100.000 biztanleko erizain eta emagin kopuruari dagokionez, azken urteotan etengabeko hazkundea egon da. Datu horiek Estatukoak baino handiagoak dira (626,6 eta 530,1, hurrenez hurren, 2008an), baina erreferentia izan daitezkeen Europako zenbait herrikak (Danimarka, Alemania, Frantzia, Herbehereak eta ekialdeko zenbait herrialde) baino txikiagoa.
- Ospitaleko ohe kopuruak beheranzko joera dauka EBn eta EAEn, eta uste da murrizketa horren zati handi baten zioa egonaldia-aren laburtzea izan dela.

Zehazki, EUROSTATen datuen arabera, EAEn, 2007 eta 2008 artean, 100.000 biztanleko ohe kopurua 468,2 ohe izatetik 411,2 ohe izatera pasatu zen.

3.2.2. Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jardura**a) Ospitaleaz kanpoko jardura publikoa**

Ospitalaz kanpoko laguntza jardura publikoak gora egin du. 2008an, ospitaleaz kanpoko 472 zentro publikoek (+% 1,1 aurreko urtearen aldean) 14.497 mila kontsulta hartu zituzten, 2007an baino % 5 gehiago. Hazkuntza hori 2007 eta 2008 arteko langile guztien hazkundea baino txikiagoa da (% 6).

Guztira enplegatutako langileak 8.048 lagun dira. Haietatik, % 76,8 osasun langileak dira (3.020 mediku, aurreko urtean baino % 7,3 gehiago, eta erizaintzako eta bestelako 3.157 langile) eta % 23,2 osasunaz kanpokoak. 2007an ez bezala, 2008an % 1,7egin zuen gora espezialista kopuruak.

Ospitaleaz kanpoko eremuan egindako osasun kontsulten % 82,2 lehen mailako arretari dagokio: medikuntza orokorra/familiakoa (10,3 milioi) eta pediatria (1,7 milioi). Espezialitate biek areagotu dute kontsulta bolumena aurreko urtearen aldean, % 5,2 medikuntza orokorrak eta % 4,9 pediatriak. Gainontzeko osasun kontsulten % 17,8 ambulatorioetan, osasun mentaleko zentroetan eta lan istripuetako mutuen laguntza zentroetan emandako arreta espezializatuari dagozkie. Espezialitaterik eskatuena traumatologia (511.246 kontsulta), tokoginekologia (335.986), psikiatria (292.978) eta oftalmologia (227.178) izan ziren.

Mediku kopurua handitu denez gero, mediku bakoitzeko biztanle kopurua jaitsi egin da, bai medikuntza orokorrean bai pediatrian. Lehen kasuan mediku bakoitzeko 1.397 biztanle izatetik 1.263 biztanle izatera pasatu da; bigarrenetan, aldiz, 844tik 805era. Horrek esan nahi du pediatrian aurreko urteetako joera hautsi egin dela.

2008an mediku bakoitzeko batez beste 4.863 kontsulta hartu zituzten (aurreko urtean baino gutxiago, orduan 4.974 izan baitziren). Medikuek orokorrak (6.011 kontsulta) eta pediatriak (5.385) batez besteko horren gainetik daude, eta gainontzeko medikuei dagokienez, ordea, batez bestekoa txikiagoa da: dermatologoek 4.739 kontsulta, traumatologoek 4.026, endokrinologoek 3.812 eta oftalmologoek 3.550.

Biztanle bakoitzeko batez beste 6,7 kontsulta egon ziren, aurreko urtean baino gehiago. Hazkunde horren zioa medikuntza orokorreko (biztanleko kontsultak 4,5etik 4,8ra) zein pediatriako kontsulten hazkundea da (14 urtez azpikoak batez beste 6,7 aldiz joan ziren euren osasun zentrori pediatriak ikus zitzaizkien; aurreko urtean, aldiz, 6,5 aldiz).

b) Ospitaleko jardura publikoa eta pribatua

EUSTATen Ospitalen estatistikako datuen arabera, 2007 eta 2008 artean, ospitale kopuruak egonkor iraun du, 44: 18 sare publikoan eta 26 pribatuan. Sare pribatuan ospitale gehiago badaude ere, publikoak dauka baliabide gehien: oheen %69,4, inkubagailuen %84,4, ebakuntza-gelen %62,8, erditzeko gelen %68,4, kanpoko kontsultetarako gelen %66,2, langileen %77,3, medikuen %67,8, erizaintzako langileen %82,5, OLT eta EUDen %84,2, eta laguntzaz kanpoko langileen %74,8.

2007 eta 2008 artean, ohe eta ebakuntza-gelen kopurua izan ezik, aztertutako beste aldagai guztiak hazi egin dira. Oheen guztizkoaren murrizketa sare publikoko murrizketaren ondorioa da. Bestalde, sare pribatuan

III.3.12. Koadroa. Osasun baliabideak (tasak 100.000 biztanleko)

	Psikiatrak eta doktoreak				Haginlariak				Erizainak eta emaginak				Oheak			
	2009	2008	2007	2006	2009	2008	2007	2006	2009	2008	2007	2006	2009	2008	2007	2006
Belgika	:	405,1	401,6	400,8	:	81,3	81,0	82,3	:	659,5	639,4	674,7	:	660,1	665,7	672,7
Bulgaria	:	361,3	365,3	366,1	:	82,7	84,2	84,8	:	468,7	466,5	456,1	:	648,0	634,8	618,2
Txekiar Errep.	:	352,7	354,6	355,7	:	66,6	66,9	67,4	:	831,8	838,0	844,7	:	:	:	:
Danimarka	:	:	341,0	339,4	:	:	83,8	83,4	:	:	1450,1	1469,3	:	952,3	973,1	:
Alemania	:	356,2	350,5	345,5	:	77,4	76,6	76,0	:	1091,4	1070,3	1055,7	:	692,1	699,5	:
Estonia	:	335,0	326,7	320,9	:	92,3	86,8	88,9	:	670,3	669,9	658,7	:	748,6	745,9	756,9
Irlanda	:	309,3	298,6	287,4	60,7	61,0	57,6	56,0	:	:	:	:	:	795,8	799,1	805,4
Grezia	:	:	554,7	533,5	:	:	128,7	126,9	:	344,4	340,9	340,9	:	839,7	834,9	840,2
Espania	354,8	348,0	361,7	359,5	:	56,1	54,1	52,4	:	530,1	521,0	517,6	:	188,1	188,9	190,5
Galizia		310,3	416,8	414,8	:	56,0	53,5	51,5	:	488,3	475,9	470,0	:	573,3	582,7	584,7
Asturiasko Printzerria		292,8	311,6	387,5	:	56,8	54,4	52,4	:	598,3	595,1	593,2	:	573,3	582,7	584,7
Kantabria		416,4	438,1	372,6	:	46,1	45,6	44,7	:	653,0	648,6	638,4	:	432,7	443,5	447,7
EAE		468,2	416,1	489,6	:	71,1	68,8	66,2	:	626,6	608,8	598,9	:	411,2	468,2	479,6
Nafarroako Foru Erkidegoa		309,2	494,9	436,1	:	47,2	47,8	47,1	:	915,8	889,9	888,4	:	473,1	467,0	471,4
Errioxa		380,1	673,6	391,8	:	49,7	49,4	48,7	:	584,4	573,5	563,9	:	324,5	330,2	334,1
Aragoi		601,3	485,5	368,4	:	44,5	43,8	42,5	:	588,2	587,2	576,5	:	361,1	364,7	363,7
Madrilgo Erkidegoa		370,1	368,4	350,3	:	85,1	81,6	78,4	:	628,1	611,7	602,8	:	362,7	363,5	363,7
Gaztela eta León		294,8	295,8	301,7	:	41,1	39,3	37,9	:	595,6	586,0	576,5	:	375,1	377,4	378,9
Gaztela-Mantxa		331,2	323,6	342,0	:	32,3	31,8	31,5	:	508,1	491,9	486,4	:	374,9	378,9	380,9
Extremadura		240,6	194,6	260,6	:	33,8	32,2	30,3	:	577,4	565,7	547,6	:	388,6	388,9	361,7
Katalunia		375,8	373,0	375,4	:	56,8	55,1	54,1	:	594,9	580,3	574,0	:	386,8	385,7	398,5
Valentziako Erkidegoa		324,5	345,4	348,8	:	52,0	50,5	48,5	:	447,9	446,9	455,2	:	313,2	311,2	317,0
Balear Uharteak		299,0	306,2	433,8	:	50,9	49,4	49,0	:	494,9	483,6	490,4	:	313,2	311,2	317,0
Andaluzia		293,2	328,1	323,3	:	52,6	50,7	48,8	:	416,0	415,9	416,0	:	358,0	360,9	398,1
Murtziako Eskualdea		436,5	481,7	335,6	:	55,2	54,3	53,8	:	325,0	320,5	328,6	:	266,0	265,6	262,9
Kanariak		337,1	342,9	370,6	:	45,2	42,5	41,3	:	450,3	438,9	435,7	:	420,8	430,9	438,7
Frantzia	:	332,3	332,7	334,3	65,0	65,2	66,0	66,4	821,1	788,7	762,2	804,3	:	327,7	335,0	323,5
Italia	:	414,0	385,5	366,6	92,3	91,0	89,9	80,1	631,5	617,3	:	:	:	753,1	763,7	765,2
Txipre	:	285,6	271,5	250,4	:	93,2	91,6	91,8	:	:	:	:	:	464,7	512,4	516,0
Letonia	298,6	311,3	304,5	294,5	66,8	67,0	64,4	63,2	483,3	555,6	557,2	567,2	:	308,6	321,3	325,5
Lituania	:	370,6	372,8	366,2	:	65,9	68,9	63,8	:	740,7	735,2	741,7	:	356,6	368,7	375,0
Luxenburgo	:	:	282,1	268,8	:	:	78,8	76,7	:	:	:	:	:	289,0	326,5	339,3
Hungaria	:	309,3	280,6	303,7	:	50,5	39,9	49,6	:	632,4	595,6	620,0	:	335,9	378,3	387,7
Malta	303,9	:	:	:	43,3	:	:	:	655,7	672,9	619,1	591,2	:	702,8	700,0	752,9
Herbehereak	:	:	369,4	360,3	:	:	59,2	57,8	:	:	1486,1	1460,7	:	678,0	680,5	723,7
Austria	468,2	458,5	452,5	444,2	:	55,3	54,0	53,9	:	765,1	754,8	741,0	:	:	:	:
Polonia	:	216,1	219,1	218,0	:	34,2	35,0	33,0	:	519,0	517,6	509,4	:	910,1	916,6	895,0
Portugal	377,3	366,3	357,0	348,4	:	66,7	63,1	63,6	:	533,6	509,3	480,7	:	531,2	518,5	537,5
Errumania	:	221,5	212,3	215,8	:	55,1	53,9	49,1	:	573,3	585,3	586,9	:	210,1	227,7	230,5
Eslovenia	:	238,8	239,5	235,8	:	59,8	61,4	59,8	:	787,7	779,0	762,1	:	594,8	581,1	589,9
Eslovakia	:	334,8	314,7	315,9	:	50,7	50,8	50,3	:	656,6	661,0	632,6	:	495,9	495,6	523,8
Finlandia	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:	:
Suedia	:	:	:	356,6	:	:	:	82,7	:	:	:	:	:	476,9	468,3	477,5
Erresuma Batua	:	257,7	247,9	244,2	:	50,9	48,1	:	:	993,6	982,8	1002,3	:	:	681,9	710,3
Kroazia	:	372,0	366,8	364,0	:	94,2	93,2	93,0	:	:	:	:	:	310,9	314,8	330,0
Mazedonia	:	398,1	387,8	377,7	:	87,3	86,6	87,7	:	1391,1	1385,3	1386,0	:	439,1	449,3	458,9
Turkia	385,4	379,1	382,6	383,7	:	51,8	51,8	51,7	:	:	:	:	:	436,1	449,8	464,4
Islandia	:	266,1	266,0	253,3	:	74,2	73,6	72,7	:	:	:	:	:	339,4	354,2	375,2
Norvegia	:	:	:	253,5	:	:	:	57,5	:	:	:	349,5	:	314,0	318,9	340,5
Suitza	:	158,2	153,6	149,9	:	:	:	:	:	139,7	134,1	118,6	:	363,5	379,8	402,1

III.3.13. Koadroa. Ospitalez kanpoko laguntza jarduera publikoa EAE-n

	2005 (1)	2006	2007	2008	Δ 2007-2008 (%)
Baliabideak					
Zentro kopurua	451	465	467	472	1,1
Langileria guztira	7.446	7.499	7.592	8.048	6,0
Medikuak	2.773	2.795	2.815	3.020	7,3
Medikuntza orokorra	1.465	1.508	1.537	1.706	11,0
Pediatría	295	297	301	320	6,3
Espezialistak	1.013	990	977	994	1,7
Beste osasun langileria guztira	2.949	2.960	3.008	3.157	5,0
Osasunaz kanpoko langileria guztira	1.724	1.744	1.769	1.871	5,8
Laguntza jarduera (milatan)					
Kontsultak guztira	13.180	13.375	13.807	14.497	5,0
Medikuntza orokorra	9.248	9.415	9.752	10.255	5,2
Pediatría	1.551	1.603	1.642	1.723	4,9
Erradiografiak	530	555	755	729	-3,4

(1) Kontsultategi batzuk osasun zentro bezala bertsifikatu dira Osasun eta Kontsumo Ministerioaren arabera (urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretua).
Iturria: EUSTAT, Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika.

III.3.14. Koadroa. Ospitalez kanpoko adierazle nagusiak EAE-n

	2005 (1)	2006	2007	2008
Egitura adierazleak (biztanleak/medikuko)				
Medikuak guztira	763	762	763	714
Medikuntza orokorra	1.444	1.413	1.397	1.263
Pediatría (0-<14 urte)	814	834	844	805
Jarduera adierazleak (kontsultak 100 biztanleko)				
Osasun kontsultak	623	628	643	673
Medikuntza orokorreko konts.	437	442	454	476
Pediatríako kontsultak	646	647	646	669
Kontsultak mediku bakoitzeko				
Osasun kontsultak	4.821	4.853	4.974	4.863
Medikuntza orokorreko konts.	6.313	6.243	6.345	6.011
Pediatríako kontsultak	5.259	5.397	5.456	5.385

(1) Kontsultategi batzuk osasun zentro bezala bertsifikatu dira Osasun eta Kontsumo Ministerioaren arabera (urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretua).
Iturria: EUSTAT, Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika.

ebakuntza-gela gutxiago daude, baina sare publikoan gertatutako hazkundeak haien jaitsiera orekatu du. Zehazkiago, langileria dagokionez, guztizkoa berriz hazi da, batez beste %3,3. Sare publikoaren eta pribatuaren artean bereizita, sektore publikoan %3,3 hazi da eta pribatuan %3,2. Mailen arabera (medikuak, erizaintza, etab.), osasun langileria %6,3 hazi da sare publikoan eta %2 pribatuan; erizaintzako langileria sare bietan hazi da (%1,8 sare publikoan eta %5,1 pribatuan); OLT eta EUDak %1,6 hazi dira publikoan eta %4,5 pribatuan; eta laguntzaz kanpoko langileria %3,3 hazi da publikoan eta %1,4 pribatuan. EUSTATen datuen arabera, ospitaleko sektoreak 21.975 lagun enplegatu zituen, aurreko urtean baino %3,3 gehiago.

Laguntza jarduerari dagokionez, jarduera guztiak hazi dira, honakoak izan ezik: sare publikoko erresonantzia magnetikoak (%-5,4, sare pribatuan %33,4 hazi diren bitartean), ekografiak, zein sare pribatuko murrizketaren ondorioz jaitsi baitira (%-11,8, sare publikoan %1,6 hazi diren bitartean), sare pribatuko zesarea bidezko erditzeak (%-6,2, sare publikoan %1,4 hazi diren bitartean) eta sare publikoko abortuak (%-5,5, sare pribatuan 16tik 28 hazi diren bitartean).

Ospitaleetan 241.190 ebakuntza egin ziren (%62,2 publikoetan eta %37,4 pribatueta), hots, aurreko urtean

baino %3,2 gehiago (%3,6 sare publikoan eta %2,5 pribatuan). Ebakuntza guztien %87,7 programatutakoak ziren.

Hartutako erditze guztiei dagokienez (21.472), aurreko urtearen aldean %2,9 hazi direla ikusten da. Haietako gehienak, %87,4, ospitale publikoetan gertatu zirela. Baginaren bidezko erditzeak %85,7 izan ziren zesarea bidezkoak %14,3. %2,4 erditze multipleak izan ziren (aurreko aldiko portzentaje bera). %77tan anestesia epidurala erabili zen.

Ospitaleko egitura adierazleak aztertuta ondorioztatzen da 100 oheko mediku kopuruak gora jarraitzen duela, bai ospitale publikoetan bai pribatueta; 2008an 100 oheko 52,8 mediku zeuden lehenengoetan eta 24,2 bigarrenetan. Era berean, 100 oheko erizaintzako langileak ere areagotu dira, bai sare pribatuan bai publikoan.

Ospitaleek 8.018 ohe (aurreko urtean baino 30 gutxiago) eduki zituzten, hots, 3,7 ohe 1.000 biztanleko, aurreko urteetan baino batez besteko apur bat txikiagoa. Jarduerari buruzko gainontzeko ospitaleko adierazleei dagokienez, 1.000 biztanleko egonaldi kopurua murriztu eta ospitaleratzeak, ebakuntzak eta kanpoko kontsultak areagotu dira.

Funtzionamendu adierazleei dagokienez, okupazio indizeak, batez besteko egonaldia eta larrialdietako presioa

III.3.15. Koadroa. Ospitaleko laguntza jardueraren bilakaera EAE-n

	2006			2007			2008			2007-08 aldakuntza		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Baliatzen diren baliabideak												
Ospitale kop.	45	18	27	44	18	26	44	18	26	0,0	0,0	0,0
Oheak	8.049	5.581	2.468	8.048	5.615	2.433	8.018	5.565	2.453	-0,4	-0,9	0,8
Inkubagailuak	91	76	15	91	76	15	96	81	15	5,5	6,6	0,0
Ebakuntza-gelak	193	118	75	197	120	77	204	128	76	3,6	6,7	-1,3
Erditze gelak	38	26	12	37	26	11	38	26	12	2,7	0,0	9,1
Kanpoko kontsultetarako gelak	956	621	335	935	622	313	946	626	320	1,2	0,6	2,2
Langileria guztira	20.797	16.057	4.740	21.279	16.441	4.838	21.975	16.982	4.993	3,3	3,3	3,2
• Medikuek	4.330	2.865	1.465	4.459	2.981	1.478	4.678	3.170	1.508	4,9	6,3	2,0
• Erizainak	5.969	4.981	988	6.103	5.064	1.039	6.247	5.155	1.092	2,4	1,8	5,1
• OLT eta EUD	5.467	4.653	814	5.595	4.731	864	5.709	4.806	903	2,0	1,6	4,5
• Laguntza kanpoko langileria	3.984	2.958	1.026	4.063	3.026	1.037	4.178	3.127	1.051	2,8	3,3	1,4
Laguntza jarduera												
X izpietako azterketak	1.551.876	1.254.914	296.962	1.591.855	1.283.271	308.584	1.617.432	1.304.125	313.307	1,6	1,6	1,5
Ekografiak	264.811	185.218	79.593	287.327	200.783	86.544	280.354	203.998	76.356	-2,4	1,6	-11,8
OTA	186.849	157.071	29.778	200.675	169.591	31.084	231.676	185.714	45.962	15,4	9,5	47,9
Erresonantzia magnetikoa	57.110	20.593	36.517	60.227	19.569	40.658	72.777	18.519	54.258	20,8	-5,4	33,4
Angiografia digitala	8.479	7.800	679	9.073	8.377	696	9.082	8.379	703	0,1	0,0	1,0
Kirurgia ebakuntzak	224.104	140.210	83.894	233.742	145.753	87.989	241.190	150.984	90.206	3,2	3,6	2,5
• Programatuak	194.876	118.306	76.570	204.554	123.997	80.557	211.562	128.902	82.660	3,4	4,0	2,6
• Larrialdietakoak	29.228	21.904	7.324	29.188	21.756	7.432	29.628	22.082	7.546	1,5	1,5	1,5
Erditzeak	20.233	17.742	2.491	20.874	18.134	2.740	21.472	18.769	2.703	2,9	3,5	-1,4
• Baginaren bidez	17.128	15.353	1.775	17.782	15.866	1.916	18.400	16.470	1.930	3,5	3,8	0,7
• Zesarearen bidez	3.105	2.389	716	3.092	2.268	824	3.072	2.299	773	-0,6	1,4	-6,2
Erditze multipleak	435	423	12	493	483	10	507	485	22	2,8	0,4	120,0
Erditzeak (anestesia epidurala)	14.906	14.387	519	15.513	14.974	539	16.529	15.949	580	6,5	6,5	7,6
Abortuak	2.132	2.132		2.236	2.220	16	2.127	2.099	28	-4,9	-5,5	75,0

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. Datu basea.

jaitsi egin dira: errotazio indizea eta 1.000 heriotzako nekropsiak hazi egin dira; eta egonkor iraun du gaixoa ospitaleratzea eskatu zuten larrialdien proportzioak. Bestalde, batez besteko egonaldia 8,2 egunetik 7,8a igaro da, eta 4,9koa da akutuentzako ospitaleetan, 3,7koa kirurgia eta espezialitateetan, 11,1koa neonatologian, 2,9koa ginekologian, 14,4koa psikiatrian (akutuen unitatea) eta 8,8koa psikiatrian (egonaldi luzea) eta 38,6koa errehabilitazioan.

c) Osakidetza ospitaleko eta ospitale kanpoko jarduera

Baliabideen erabilera

Osakidetza Osasun Laguntzako Zuzendaritzak emandako datuen arabera, Osakidetza batez besteko okupazio indize orokorrak behera egin zuen berriz ere 2009an (2008rekin alderatuta portzentajeko -1,6 puntu) eta % 81,1 da orain. Aurreko urtean % 82,7 izan zen indize hori. % 100 gaindituta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gainetik digestioarekin loturiko espezialitatea dago (% 119 eta 2008rekin alderatuta gora egin du). % 100en azpitik baina batez bestekoaren gainetik daude honako zerbitzu

mediko hauek: barruko medikuntza (97,8%), psikiatria (94,7%), hematologia (92,9%), pneumologia (91,6%), kardiologia (90%), errehabilitazioa (82,7%) eta zaintza aringarriak (81,6%); baita kirurgia-zerbitzuak ere: kirurgia (84%), neurologia (89,1%) eta urologia (%84). Batez bestekoaren azpitik daude kirurgia orokorra, kirurgia plastikoa, kirurgia baskularra, kirurgia torazikoa eta traumatologia.

Egonaldiko batez besteko egunak berriz ere egin dute behera, 6 egun izatetik 5,8 egun izatera pasa dira. Errehabilitazioa (28), zaintza aringarriak (15,4), psikiatria (15,5), hematologia (10,1) eta barruko medikuntza (8,1) batez bestekoaren oso gainetik daude, baina haietan guztietan jaitsiera egin da aurreko urtearen aldean.

Itxaron zerrenda

Kanpoko kontsultei dagokienez, aurreko urtean behera egin ondoren, itxaron zerrendako gaixoen guztizko kopurua igo egin da 2009an, 72.507tik 95.558ra; urte batean hazteko joera apur bat izan du eta bestean jaistekoa.

2009an zerrendetan gaixo gehien izan zituzten espezialitateak hauek izan ziren: traumatologia (guztien

III.3.16. Koadroa. Ospitaleko adierazle nagusien bilakaera EAE-n

	2006			2007			2008			2007-08 Aldakuntza		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Egitura adierazleak (langileak funtzionamenduko 100 oheko)												
Medikuak	39,8	47,3	23	41,3	49	23,6	44	52,8	24,2	6,5	7,8	2,5
Erizainak	70,5	85,3	37	72,1	86,2	39,7	74,1	88,3	41,8	2,8	2,4	5,3
Jarduera adierazleak (1.000 Biztanleko)												
Oheak	3,8	2,6	1,2	3,8	2,6	1,1	3,7	2,6	1,1	-2,6	0,0	0,0
Egonaldiak	1.121,5	800,8	320,7	1.136,8	816,4	320,4	1.116,4	795,9	320,5	-1,8	-2,5	0,0
Ospitaleratzeak maiztasuna (ospitaleratzeak)	137,2	99,7	37,5	140,2	101,9	38,3	144,3	104,0	40,3	2,9	2,1	5,2
Larrialdiak	516,5	436,0	80,6	511,1	426,8	84,3	517,7	423,0	94,7	1,3	-0,9	12,3
Ebakuntzak	105,2	65,8	39,4	109,2	68,1	41,1	111,9	70,1	41,9	2,5	2,9	1,9
Kanpoko kontsultak	1.100,7	855,8	244,8	1.121,9	880,9	241,0	1.162,8	922,1	240,7	3,6	4,7	-0,1
Funtzionamendu adierazleak												
Okupazio indizea (%)	81,3	83,7	75,8	82,8	85,3	77,2	82,2	84,5	77,2	-0,7	-0,9	0,0
Batez besteko egonaldia	8,2	8,1	8,6	8,2	8,1	8,4	7,8	7,7	8	-4,9	-4,9	-4,8
Errotazio indizea	36	37,7	32,3	37	38,6	33,6	38,6	40,1	35,3	4,3	3,9	5,1
Larrialdietako presioa	48,3	60,6	15,6	48,8	61,6	14,8	48,1	60,7	15,7	-1,4	-1,5	6,1
Ospitaleratutako larrialdiak	12,8	13,9	7,3	13,4	14,7	6,7	13,4	14,9	6,7	0,0	1,4	0,0
Hilkortasun gordina (%)	3,2	3,7	1,8	3,3	3,8	2	3,2	3,7	2	-3,0	-2,6	0,0
Nekropsiak 1.000 heriotzako	37,3	43,9	2,1	41,3	48,7	3,7	45,9	54,9	2,3	11,1	12,7	-37,8
Bat. best. egonaldia akutu. ospit.aleetan (guzt.)	5,2	5,8	3,3	5,1	5,8	3,2	4,9	5,5	3,1	-3,9	-5,2	-3,1
• Kirurgia eta espezialitateak	4	5	2,3	3,9	4,7	2,4	3,7	4,6	2,2	-5,1	-2,1	-8,3
• Neonatologia	12,3	12,4	3,2	12,4	12,4	3,5	11,1	11,1	2,3	-10,5	-10,5	-34,3
• Ginekologia	3,1	3	3,5	3	2,9	3,6	2,9	2,7	3,5	-3,3	-6,9	-2,8
• Psikiatria (akutuen unitatea)	15,3	15,3	2,8	15,6	15,6	3,5	14,4	14,4	—	-7,7	-7,7	
• Psikiatria (egonaldi luzea)	8,8	8,8	—	8,6	8,6	—	8,8	8,8	—	2,3	2,3	
• Errehabilitazioa	39,1	36,3	161	43,8	40,5	129,1	38,6	37,7	85,4	-11,9	-6,9	-33,8

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. Datu baseak.

III.3.17. Koadroa. Baliabide publikoen erabilera espezialitatearen arabera (Batez besteko egonaldia eta okupazio indizea)

Zerbitzuak	Batez besteko egonaldia (egunak)					Okupazio indizea (%)				
	2005	2006	2007	2008	2009	2005	2006	2007	2008	2009
Osasun zerbitzuak										
Barneko medikuntza	9,3	8,9	8,9	8,4	8,1	114,3	105,4	118,6	108,4	97,8
Kardiologia	6,0	5,6	5,7	5,4	5,3	97,0	93,8	107,8	93,4	90,0
Digestio aparatua	8,1	7,6	8,1	7,5	7,2	106,4	108,1	107,8	112,7	119,9
Hematologia	10,6	11,0	10,9	10,4	10,1	86,1	82,1	87,8	92,1	92,9
Pneumologia	7,9	7,1	7,0	6,7	6,6	96,7	83,8	145,9	108,3	91,6
Psikiatria	15,1	14,7	15,0	13,9	15,5	87,2	85,6	86,4	77,7	94,7
Birgaikuntza	32,8	33,5	33,1	30,6	28,0	81,4	81,2	91,9	91,2	82,7
Zaintza aringarriak	17,0	18,2	18,2	17,8	15,4	54,1	61,3	121,6	92,2	81,6
Kirurgia zerbitzuak										
Kirurgia orokorra	6,0	5,4	5,2	5,1	4,9	97,7	92,2	95,1	81,8	62,7
Kirurgia plastikoa	5,9	5,7	5,0	5,9	5,4	66,8	68,2	64,6	71,6	67,5
Kirurgia kardiobaskularra	6,3	6,1	5,9	6,1	6,1	79,8	85,0	78,1	72,8	75,8
Kirurgia baskularra	5,5	4,9	4,8	4,6	4,4	87,1	85,4	87,7	79,0	77,1
Kirurgia torazikoa	7,0	6,8	6,6	6,3	6,5	80,9	80,6	83,2	82,6	89,1
Traumatologia	6,4	5,9	6,0	5,5	5,4	88,7	86,6	91,5	81,8	78,4
Urologia	5,1	4,7	4,6	4,2	4,5	87,8	77,7	80,8	82,5	84,0
OROKORRA	7,1	6,7	6,3	6,0	5,8	84,2	83,0	84,4	82,7	81,1

Iturria: Osakidetza: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak.

artean % 15,22 eta % 50eko hazkuntza), ginekologia (guztien artean % 13,1 eta % 105,7ko hazkuntza),

dermatologia (% 12,3 eta % 47,14ko hazkuntza) eta oftalmologia (% 11,7 eta % 3,13ko hazkuntza).

III.3.18. Koadroa. Kanpoko kontsulten itxaron zerrendak (gaixo gehien dauzkaten espezialitateak)

	Gaixoak					Aldakuntzak			
	2005	2006	2007	2008	2009	05-06	06-07	07-08	08-09
Alergologia	1.982	1.664	1.658	906	2.117	-16,0	-0,4	-45,4	133,66
Anestesiologia	5.002	4.084	3.805	4.008	*	-18,4	-6,8	5,3	
Kardiologia	3.290	2.338	3.328	2.714	3.863	-28,9	42,3	-18,4	42,34
Dermatologia	10.564	8.305	8.649	7.963	11.717	-21,4	4,1	-7,9	47,14
Digestio aparatua	3.440	3.530	4.013	4.157	4.643	2,6	13,7	3,6	11,69
Endokrinologia	1.873	1.578	1.985	1.963	2.876	-15,8	25,8	-1,1	46,51
Neurologia	4.018	3.429	3.980	2.833	3.906	-14,7	16,1	-28,8	37,88
Birgaikuntza	3.164	3.022	3.730	3.145	4.714	-4,5	23,4	-15,7	49,89
Kirurgia orokorra	4.258	3.076	3.089	2.339	3.543	-27,8	0,4	-24,3	51,48
Oftalmologia	22.120	18.135	17.026	10.818	11.157	-18,0	-6,1	-36,5	3,13
ORL-otorrinolaringologia	4.630	4.103	5.132	3.862	5.265	-11,4	25,1	-24,7	36,33
Traumatologia	15.671	11.737	11.899	9.693	14.540	-25,1	1,4	-18,5	50,01
Urologia	3.456	2.642	2.560	2.212	2.934	-23,6	-3,1	-13,6	32,64
Ginekologia	6.583	5.673	7.646	6.076	12.497	-13,8	34,8	-20,5	105,68
Beste batzuk	12.018	9.711	10.250	9.818	11.786	-19,2	5,6	-4,2	20,05
GUZTIRA	102.069	83.027	88.750	72.507	95.558	-18,7	6,9	-18,3	31,79

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak.

Anestesiaren itxaron zerrenda ez dago barne hartuta aginte-taulako datu normalizatueta, kirurgien itxaron zerrenden arabera delako.

Atzerapen denborari dagokionez, 2008 eta 2009 artean, 1 hilabetetik gora itxaron behar duen biztanleria portzentajea hazi da, % 19,9tik % 39,52ra.

Kirurgiako itxaron zerrendei dagokionez, haietako gaixo kopurua hasi egin da 2008 eta 2009 artean, 14.866 lagunetik 16.536ra, eta batez besteko atzerapen egunek gora egin dute (51,9tik 53,2ra). Horren ondorioz, ebakuntza izateko hiru hilabetetik gora itxaron behar duten gaixoen portzentajea hazi egin da, % 13,8tik % 15era.

Kirurgia prozeduraren arabera itxaron zerrendei buruzko datuei dagokionez, esan behar da 2008ko urriaz geroztik, zuzendaritza nagusiaren erabakiz, haiek jasotzeari utzi zitzaioela.

d) Osasun arreta pribatua: Osasun eta farmazia laguntzako aseguru libreko erakundeak

Aseguru libreko erakundeak (aurrerantzean ALE), EUSTATen datuen arabera, 15 dira guztira, baina zenbait lurraldetan jardun dezakete. Haietatik, 3 igualatorioak dira, 8 aseguru konpainiak eta 4 BGAE eta mutuak.

Zorroari dagokionez, poliza kopurua berriz hazi da, 2007 eta 2008 artean %2,7, eta 188.764 dira. 369.017 lagunek daukate osasun laguntzako aseguru pribatu bana kontratatuta, 2007an baino %6,6 gehiagok. Ondorioz, EAEko biztanleen %17k daukate osasun aseguru pribatu kontratatuta.

Aseguratu gehien biltzen dituen modalitatea taldeko aseguruena da (enpresa batek zuzenean itunduak edo langile edo talde horien aldeko taldeko beste zehatz batzuk), %45,8, banakako edo familiako poliza (%43,2) eta mutualitate publikoak (%11) gaindituz.

Izan ere, banakako eta familiako asegurueta eta mutualitate publikoetan bajak egon arren, aseguratuak guztizko kopurua %6,6 hazi da, taldeko aseguratuak bidez aseguratuak %28 hazi baitira.

Oraindik ere, aseguratu gehienek (%94k) osasun laguntza orokorreko estaldura (medikuntza eta kirurgia) daukan osasun aseguru pribatua, zehatza (hala nola lehen mailako

III.3.19. Koadroa. Kanpoko kontsulten itxaron zerrendak atzeratze denbora (%)

	2005	2006	2007	2008	2009
< hilabete 1	61,4	74,6	80,4	80,1	< hilabete 1 60,47
1 - 3 hilabete	27,3	23,2	19,0	17,5	> hilabete 1 39,52
> 3 hilabete	11,3	2,2	0,6	2,4	Bi kategoria baino ez daude

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak.

III.3.20. Koadroa. Kirurgiako itxaron zerrenda

	2005	2006	2007	2008	2009
Gaixoak	15.706	15.944	16.086	14.866	16.536
Bat. best. atzerap. (eg.)	55,17	51,9	53,03	51,86	53,18
> 3 hilabete gaixo kop.	2.878	2.470	2.414	2.050	2.484
> 3 hilabete gaixoen %	18,25	15,5	15,0	13,8	15,0

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak.

arreta, espezializatua edo haginetakoa) hautatu duten %6en aurrean.

2008an primengatik guztira 219,8 euro bildu ziren. Hori Estatu osoaren %4 eta urte horretarako EAEko BPGd-ren %0,3 da. Aurreko urtearen aldean, primen bolumena %9,3 hazi zen, Estatuko hazkundearen gainetik (%8,3).

EAE osorako aseguratu bakoitzeko batez besteko urteko prima 596 eurokoa izan zen, 2007an baino %2,6 gehiago. Osasun laguntzako osasun asegurua duten pertsonen ALE-en kontura 1.312.198 kontsulta egin zituzten guztira (aurreko urtean baino %1,1 gehiago), batez beste 3,6 kontsulta aseguratu bakoitzeko, aurreko urteko datua, 3,8, baino apur bat txikiagoa, eta ospitale kanpoko sare publikoan batez beste gertatutako 6,4 bisitak baino gutxiago. EUSTATen arabera, espezialitaterik bisitatuena traumatologia, tokoginekologia eta pediatria izan ziren.

Ospitaleko arreta ere hazi zen 2008an. Horrela, osasun aseguru-etxeetako gaixoen 52.818 ospitaleratze eragin zituzten (aurreko urteko 52.205ak baino %1,2 gutxiago), eta batez besteko egonaldia 3 eguneko izan zen. Talde horretatik, %64,4ri ebakuntza egin zitzaion, guztira 34.030

III.3.21. Koadroa. Osasun eta farmazia laguntzako aseguru libreko erakundeen bilakaera EAE-n*


	2004	2005	2006	2007	2008	2007-08 aldakuntza
Erakundeak guztira**	15	14	16	15	15	0,0
Igualatorioak	4	4	4	4	3	-25,0
Aseguru konpainiak	8	7	8	7	8	14,3
BGAE eta mutuak	3	3	4	4	4	0,0
Zorroa						
Poliza kop.	162.627	167.373	178.022	183.761	188.764	2,7
Aseguratu kop.	311.148	319.788	333.226	346.062	369.017	6,6
Biztanleria aseguratuaren %	15	15	16	16	17	5,6
Primen bolumena (mila euro)	158.519	169.744	185.818	201.130	219.836	9,3
Primak aseguraturako (euroak)	509	531	558	581	596	2,6
Primak biztanleko (euroak)	74	80	87	94	101	7,4
Primak/BPGd (%)	0,30	0,29	0,30	0,30	0,32	
Langileak						
Guztira	8.106	7.816	8.382	8.625	9.234	7,1
Osasun langileak	7.938	7.653	8.205	8.450	9.051	7,1
Medikuak	6.592	6.346	6.720	6.900	7.223	4,7
OLT / EUD	466	429	434	461	507	10,0
Laguntza jarduera						
Anbulatorioko kontsulta kop.	1.197.201	1.235.331	1.270.526	1.298.127	1.312.198	1,1
Kontsultak mila aseguraturako	3.848	3.863	3.813	3.751	3.556	
Ospitaleratzeak	46.922	49.236	50.318	52.205	52.818	1,2
Ebakuntzak	32.185	33.117	33.122	35.219	34.030	-3,4
Jarduera ekonomikoa						
Gastuak guztira (mila euro)	160.778	168.694	177.792	192.986	200.217	3,7
Diru-sarrerak guztira (mila euro)	168.129	179.722	196.283	211.541	231.744	9,6

* EUSTATek 2006 eta 2007ko datuak berrikusi ditu eta horrek haiek berraztertzea ekarri du.

** Guztizkoa zenbait erakunderi dagokie, zenbait lurraldetan jardun badezakete ere.

Iturria: EUSTAT. Datu baseak.

III.3.1. Grafikoa. Aseguratuaren kopuruaren eta aseguratuengatikoko sarien bilakaera, poliza motaren arabera



Iturria: Eustat, Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika.

ebakuntza (%-3,4), eta haietatik ohikoenak kirurgia orokorreko, barruko medikuntzako eta traumatologiako espezialitatekoak izan ziren.

3.3. Osasun sistemaren gastua eta finantzaketa

3.3.1. Osasun Sailaren gastua

EAEn aurrekontuaren likidazio datuen arabera, Osasun eta Kontsumo Sailaren gastu partida 3.508,9 milioi

eurokoa izan zen 2009an. Bestalde, Sail honen 2010eko gastuen aurrekontua 3.530,1 milioi euro izan zen.

2009an likidaturiko osasun partidak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Osasun Publikoa, Osasun Plangintza eta Antolamendua eta Farmazia eta Prestazio Ortoprotesikoa) 3.538 milioi eurokoak izan ziren; aldiz, 2010erako aurrekontuan jasotakoak 3.523,6 milioi euro, hau da, bi ekitaldien artean % 0,4ko murrizketa egon da.

Hala ere, Osasun Sailak baliabideen portzentajerik handiena du izaten jarraitzen du oraindik; baliabide guztien

III.3.22. Koadroa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak likidatutako gastuaren banakapena (mila eurotan)

	2008	2009	2010eko aurrekontua	2007-08 aldakuntza
Egitura eta laguntza	19.155	16.108	21.410	32,9
Osasun finantzazioa eta kontratazioa	2.571.048	2.843.264	2.805.309	-1,3
Osasun publikoa	29.475	35.647	34.684	-2,7
Osasun plangintza eta antolamendua	7.238	7.261	8.007	10,3
Farmazia eta prestazio ortoprotesikoa	610.630	635.685	654.213	2,9
Osasuna guztira	3.237.546	3.537.965	3.523.623	-0,4
Osasuna eta Kontsumoa guztira		3.508.917	3.530.142	0,6
GUZTIRA	9.317.300	10.304.507	10.315.210	9.317.300
BPGd	67.924.490	64.568.087	65.847.385	67.924.490
Osasunaren % GUZTIZKOaren gainean	34,7	34,3	34,2	34,7
Osasunaren % BPGd-ren gainean	4,77	5,48	5,35	4,77

Iturria: EAEko kontu orokorrak eta norberak egina.

% 34,2 du eta programa nagusia Osakidetza egindako transferentziak dira.

2010erako aurrekontu gastua BPGd-ren % 5,35 da, aurreko urtekoa baino % 5,48 gutxiago.

3.3.2. Laguntza-jardueraren gastua

Lehenago esan bezala, osasun laguntza ospitaleko edo ospitale kanpoko jardura izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jardura

publikoa Osakidetza eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

Epigrafe honetan aurkeztuko den azterketa honakoen bidez egin da:

- EUSTATEk emandako datuak, ospitaleko (ospitaleko laguntza buruzko estatistika) eta ospitale kanpoko (ospitale kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika) sektoreei dagokienez. Lehenengoaren kasuan informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri egon arren, bigarrenaren kasuan (ospitale kanpoko), sektore publikorako baino ez dago.

III.3.23. Koadroa. EAE-ko ospitale kanpoko sektore publikoko gastua

	2005	2006	2007	2008	aldak. %-tan 2007/08
Jardura ekonomikoa (mila euro)					
Gastuak, guztira	398.582	421.364	482.498	536.971	11,3
Gastu arruntak	389.928	408.984	454.732	517.350	13,8
Langileria gastuak	330.091	346.500	386.275	442.729	14,6
Beste gastu korrante batzuk	59.837	62.484	68.457	74.621	9,0
Kapital-gastuak	8.654	12.381	27.766	19.621	-29,3
Adierazle ekonomikoak					
Langileria gastua / Guztizko gastua (%)	82,8	82,2	80,1	82,4	—
Kapital gastua / Guztizko gastua (%)	2,2	2,9	5,8	3,7	—
Gastua/biztanleko (euroak)	188,4	197,7	224,7	249,1	10,9
Gastua/BPGd (%)	0,7	0,7	0,7	0,8	—

Iturria: EUSTAT. Ospitale kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika. 2010eko uztailako datuak.

III.3.24. Koadroa. Salmentak eta sarrerak (milaka eurotan)

	2005	2006	2007	2008
Salmentak eta sarrerak guztira	433.717	464.061	514.255	571.574
• Emandako zerbitzuengatikoa sarrerak	421.258	449.930	498.123	554.109
• Norbanakoak	130	152	168	170
• Aseguru erakunde pribatuak	1.352	1.232	1.359	1.381
• Lan istripuetarako mutuak	34.974	34.138	35.754	38.653
• Osasun Saila	384.633	414.241	460.657	513.722
• Beste erakunde publiko batzuk	165	162	179	178
• Emandako zerbitzuengatikoa beste sarrera batzuk	4	4	7	6
• Enpresentzat egindako lanak	433	468	874	1.261
• Ustiapenerako diru-laguntzak	1.834	1.916	1.969	2.371
• Kudeaketako beste sarrera batzuk	847	1.040	2.121	1.861
• Finantza sarrerak	523	897	1.869	2.759
• Beste sarrera batzuk	8.822	9.810	9.297	9.213

Iturria: EUSTAT. Ospitale kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika. 2010eko uztailako datuak.

- Osakidetzak ospitalekoari zein ospitalez kanpokoari buruz emandako informazioa.

3.3.2.1. Ospitalez kanpoko jarduera publikoko gastua

Euskal osasun publikoak 526.971 mila euro erabili zituen 2008an ospitalez kanpoko osasun laguntzarako. Zenbateko hori aurreko urtekoa baino % 11,3 gehiago izan zen eta urte hartarako EAEko ekonomiak izan zuen % 2,3 baino gehiago (BPGd-ren hazkuntza nominalari dagokionez).

Gastu osotik % 96,4 (517,4 milioi euro) gastu korranteetarako izan ziren eta % 3,6 inbertsio gastuetarako (19,6 milioi euro); azken zenbateko horrek % 29,3 egin du behera aurreko urtearekin alderatuta. Aurreko denboraldiko hazkundera Bizkaian eta Gipuzkoan eraikitzen ari ziren ospitalez kanpoko zentro berriengatik izan zen.

Langileengatik gastua % 82,5 da; % 14,6 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Ospitalez kanpoko laguntza jarduera EAEko BPGd-ren % 0,8 izan zen eta biztanleko batez besteko gastua 249 eurokoa, aurreko urtean baino % 10,9 gehiago.

Ospitalez kanpoko gastu publikoaren finantzazio iturri nagusia orduan ere Osasun Saila izan zen (gastu osoaren % 90: 571,6 milioi eurotatik 513,7).

3.3.2.2. Ospitaleko jarduera publiko eta pribatuko gastua

EUSTATen Ospitaleko laguntzari buruzko estatistikako datuen arabera, 2008an EAEko ospitaleko osasun gastua

(publikoa eta pribatua) 2.079,2 milioi eurokoa izan zen (1.844,1 milioi aurreko urtean), hots, % 12,8ko hazkundera aurreko ekitaldiaren aldean; euskal ekonomiaren hazkunderaren gainetik, BPGd korrantearen arabera, % 3koa izan baitzen.

Ospitaleko laguntza jarduera 2008ko euskal BPGd-ren % 3 izan zen eta biztanleko batez besteko gastua 965 eurokoa, aurreko urtean baino % 12 gehiago. Gastu guztietatik, 1.954,8 milioi gastu korranteetakoak izan ziren eta 124,5 milioi inbertsioak, aurreko urtean hasitako hazkunderari jarraituz.

Titulartasunaren arabera, hots, sare publikoa eta pribatua bereiziz, gastuaren % 85 gastu publikoa da.

Bai gastu publikoa bai pribatua hazi egin dira 2007 eta 2008 artean, % 12,8 lehenengoa eta % 12,7 bigarrena. Gastu korrantearen hazkundera % 11,4koa da lehenengoari dagokionez eta % 12,9koa bigarrenari dagokionez. Bestalde, inbertsioak, berriz ere, gehiago hazi dira sare publikoan (% 39,4) sare pribatuan baino (% 10,9). Sarrerei dagokienez (salmentak eta sarrerak) % 12,6 hazi dira sare publikoan eta % 10,4 pribatuan.

3.3.2.3. Osakidetzaren gastuak bere ospitaleko eta ospitalez kanpoko jardueran

EAEko Kontu orokorren bidez egindako Osakidetzaren aurrekontuaren likidazioak erakusten duenez, erakundeak 2009an 2.544,8 milioi euroko gastua egin zuen (+% 5,2 2008ren aldean), hots, BPGd nominalaren % 3,94. Hazkunde horien azalpena ustiapen gastuen (langileria,

III.3.25. Koadroa. EAE-ko ospitaleko sektoreko gastuaren bilakaera

	2004	2005	2006	2007	2008	aldak. %-tan 2007/08
Jarduera ekonomikoa (mila euro)						
Gastua guztira (korrantea+inbertsioa)	1.402.897	1.513.564	1.651.364	1.844.063	2.079.209	12,8
Gastu arruntak	1.350.474	1.459.257	1.590.343	1.750.667	1.954.760	11,7
Langileria gastuak	850.760	922.664	1.007.459	1.122.140	1.259.434	12,2
Beste gastu korrante batzuk	499.714	536.593	582.884	628.527	695.326	10,6
Inbertsioa	52.423	54.307	61.021	93.396	124.449	33,2
Diru-sarrerak guztira	1.331.643	1.440.098	1.585.618	1.745.731	1.956.902	12,1
Sarrera korranteak	1.300.697	1.406.996	1.552.128	1.712.408	1.922.149	12,2
Salmentak	1.290.505	1.395.618	1.541.772	1.702.646	1.905.818	11,9
Diru-laguntzak	10.192	11.378	10.356	9.762	16.332	67,3
Kapital sarrerak	30.946	33.102	33.490	33.323	34.753	4,3
Adierazle ekonomikoak						
Gastua/biztanleko (euroak)	659	716	776	861	965	12,0
Gastua/BPGd	2,6	2,6	2,7	2,8	3,0	

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. 2010eko uztaileko datuak.

III.3.26. Koadroa. EAE-ko ospitaleko sektoreko gastuaren bilakaera (mila euro)

	2006			2007			2008			2007-08 aldakuntza		
	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua
Gastua guztira (korrantea+inbertsioa)	1.651.365	1.394.888	256.476	1.844.063	1.566.257	277.806	2.079.209	1.765.990	313.220	12,8	12,8	12,7
Salmentak eta gastu korranteak guztira	1.590.343	1.351.927	238.416	1.750.667	1.492.932	257.735	1.954.760	1.663.806	290.954	11,7	11,4	12,9
Erosketak	454.546	371.510	83.035	494.983	405.144	89.840	547.947	447.508	100.439	10,7	10,5	11,8
Langileria gastuak	1.007.459	891.158	116.301	1.122.140	995.521	126.619	1.259.434	1.117.471	141.964	12,2	12,2	12,1
Inbertsioak guztira	61.022	42.961	18.060	93.396	73.325	20.071	124.449	102.184	22.266	33,2	39,4	10,9
Salmentak eta sarrerak guztira	1.552.128	1.307.908	244.220	1.712.408	1.447.070	265.339	1.922.149	1.629.100	293.050	12,2	12,6	10,4

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika. 2010eko uztaileko datuak.

hornikuntza eta beste gastu batzuk) eta inbertsioen hazkundean datza.

Guztizko likidatutik, % 8,1 inbertsioei dagokie (207.074 mila euro) eta % 91,9 ustiapen gastuei. Azken horretan langileria gastuak nabarmentzen dira, erakundearen gastu guztien % 68,8.

Aurrekontuan sartutako zenbatekoak 2009an benetan egikaritutakoaren aldean izandako desbideratzeari

dagokionez, gastu likidatua aurrekontukoa baino txikiagoa da (-160.469 milioi euro), eta "langileen gastuengatiko" eta "beste gastu batzuengatiko" desbideratzeari dagokio, aurrekontukoa baino % 0,6 gutxiago burutu baita. Oro har, ustiapen gastuetan likidatutako zenbatekoa aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa da; horren arrazoia "hornikuntzak" partida da, sortutako gastua aurrekontukoa baino handiagoa delako.

III.3.27. Koadroa. Osakidetzaren aurrekontuak eta gastuen likidazioa (mila euro)

	2007			2008			2009		
	Aurrk.	Likid.	Aldea	Aurrk.	Likid.	Aldea	Aurrk.	Likid.	Aldea
Inbertsioa	123.137	113.513	-9.624	160.924	140.820	-20.104	170.079	207.074	36.995
Ustiapen gastua	2.042.700	2.049.387	6.687	2.274.953	2.277.682	2.729	2.498.142	2.507.752	9.610
Langileak	1.419.568	1.417.562	-2.006	1.603.876	1.602.115	-1.761	1.760.916	1.750.591	-10.325
Hornikuntzak	462.253	446.257	-15.996	491.605	462.124	-29.481	519.293	539.763	20.470
Beste batzuk	160.879	185.568	24.689	179.472	213.443	33.971	217.933	217.398	-535
GUZTIRA	2.165.837	2.162.900	-2.937	2.435.877	2.418.502	-17.375	2.705.216	2.544.747	-160.469
Gastuaren urteen arteko bilak. (%)	13,3			11,8			5,2		
BPGd gaineko gastua (%)	3,26			3,56			3,94		

Iturria: Norberak egina EAEko Kontu Orokorretatik hartuta.

4. Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin merkatuak 2010ean izan zuen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak % 4,9ko batez besteko gehikuntza izan duela (% 3 izan zen 2008-2009an). Bilakaera ezberdinak izan dira etxebizitza berri salgaietan (% -19,3), erabilitakoetan (% 29,4), alokairurako etxebizitza libreetan (% 21,4), babestutako etxebizitza salgaietan (% -28,7) eta alokairurako etxebizitza babestuetan (% -43,1). Horren aurrean, etxebizitza beharra edo eskaera¹, dauzkagun azken datuen arabera (2008koak), %10,2 murriztu da (2007rako beste %10,7 jaitsi zen).

Bestalde, etxebizitzetarako egindako hipoteken kopurua %12,1 hazi da 2010ean, eta zenbateko osoa %12,8. Aurreko denboraldian, ordea, %13,3 eta %23,3 jaitsi ziren, hurrenez hurren. Ondorioz, hipotekatutako finkaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa %0,5 hazi zen 2010ean. Bitartean, hipoteka merkatuko interes tipoak epe guztietan hazi ziren: Euribor, urte batean, 1,22tik (urtarrilean) 1,52ra (abenduan) igo zen (+3 hamarren). Kreditu entitateek familientzat ematen duten mailegu tipoa (UTB), berriz, 2,62tik 2,66ra igo zen denboraldi berean (+4 ehunen)².

4.1. Lurzorua eta eraikuntza kostuak


4.1.1. Lurzorua EAEn

Etxebizitzak etxebizitzaren merkatura iristeko prozesua hasteko, lurzorua erosten da. Gero urbanizazioa, promozioa, eraikuntza eta, azkenik, etxebizitzaren salmenta edo adjudikazioa datoz. Normalean, informazioa izaten dugu prozesuaren azken zatia buruz, eskaintzen den etxebizitza kopurua jakiten dugu, haien ezaugarri batzuk eta salneurria ere bai. Baina aurreko faseei buruz dagoen informazioa oso urria da eta, iturri batetik bestera, kontraesankorra ere bai.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2007an egindako inkestaren bidez EAEko sustatzaileek egin zituzten adierazpenen arabera, urte hartan (informazio hori daukagun azken urtea) lurzuaren kostua zen etxebizitzaren prezioan eraginik handiena zeukan osagaia: etxebizitzaren behin betiko balioaren erdia baino gehiago (%56). Zehazki, %39 lurzuaren kostu gordinari zegokion, eta horri urbanizazio kostuak gehitu behar zaizkio (%17). Eraikuntza kostuei dagokienez, sustatzaileek diotenez, behin betiko prezioaren %28 da. Gainerakoa (%16) kostu orokorrak, finantza kostuak eta enpresarentzako marjina dira.

Etxebizitza Ministerioaren Prezioen Estatistikako datuei erreparatuz gero, 2010eko laugarren hiruhilekoan EAEn egin ziren hiri lurren transakzioetan batez besteko prezioa

III.4.1. Grafikoa. Etxebizitza merkatuaren bilakaera EAEn¹



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta EInren datuen bidez egina.

340,80 euro izan zen m² bakoitzeko. Beraz, urtebete lehenagoko batez bestekoa baino %8,8 gutxiago, eta hirugarren urtez jaisten. Era berean, Estatu osoan egindako transakzioen batez bestekoa 227,70 €/m² izan zen, 2009ko azken hiruhilekoan izandako batez besteko prezioaren %1,8ko murrizketa, alegia.


Kopuru absolutuetan, Madrilgo Komunitateak dauka Estatuko preziorik garestiena (499,70€/m², 2009ko laugarren hiruhilekoan baino %1,9 gehiago), eta haren atzetik EAEk. EAEn izandako bilakaera lurralde historikoen arabera aztertzen badugu, azpimarratzekoa da Bizkaian prezioak igo izana. %4,5ko igoera izan du; 2010eko amaieran 412,60€/m²ko batez besteko prezioa izan zuen. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, prezioak jaitsi egin dira: %21,4 eta -11,6, hurrenez hurren.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, 2010eko azaroko "Legebiltzarrarentzako txostenean", azaldu zuen hurrengo urteetan babes publikoko 15.533 etxebizitza inguru eraikitzeko lurzoru-ondarea zeukala 2009ko amai aldera (Etxebizitza Sailak erosita zeuzkan lursailak eta erosi nahi zituen beste lursail batzuk barne). Horietatik, %63 (9.733 etxebizitza) 2013rako leudeke eskuragarri, eta gainerako %37 (5.800 etxebizitza) epe zabalagoan leudeke.

Lurzoru ondarea gure erkidegoko inguru funtzionaltako biztanleriari lotuz gero, eskuragarri dauden gehienak Zarautz-Azpeitia inguruan eta batez ere Bilbo eta Donostia hiriburu inguruetan daudela egiaztatzen da, baina

¹ Grafikoan azaltzen den eskaerak eskuratzeko behar diren etxebizitzaren kopurua erakusten du; eskaintza higiezin sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan daude salgai dauden etxebizitza libre (berriak nahiz erabiliak) m² erabilgarri bakoitzeko.

² Finantza aldagai horien bilakaerari buruzko informazio gehiago izateko Memoria Sozioekonomiko honetako kapitulu honetara jo: "II.2. Ekoizpen egitura eta berrikuntza EAEn".

III.4.2. Grafikoa. Hiri lurzorua batez besteko prezioaren bilakaera Estatuan eta EAEn (€/m²)


Iturria: Sustapen Ministerioaren datuen bidez egina.

Gasteizko inguru funtzionala EAEko batez bestekoaren oso azpitik dago.

4.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika

EUSTATen “Eraikuntza Kostuen Indizea”³ inguruabar izaerako adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energi kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hau sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileri kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez zenbatsia) indize baten bidez. Jakina, adierazle horrek ez digu uztan ekoizpenaren azken prezioaren eragiten duten kostu guztiak neurtzen, enpresa etekinak ez ezik, kapitalari lotutako faktoreak falta direlako.

2010ean, eraikuntza kostuak, beren osotasunean, %1,2 hazi ziren (abenduko urtetik urterakoa), eskulanarena %1,4 eta lehengaien kostuak %1,2 hazi ziren, bilakaera ekonomikoaren ondorioz. Aurreko ekitaldian ez bezala, lehenengoa hazi eta bigarrena jaitsi zenean, eraikuntza eta obra zibila azpisektoreek norabide bereko bilakaerak

III.4.3. Grafikoa. Eraikuntza kostuen urtetik urterako (abenduan) aldakuntza tasa EAEn. Abiapuntuko urtea: 2005

Iturria: EUSTAT. ICCE.

III.4.1. Koadroa. Eraikuntza kostuen indizearen bilakaera, azpisektoreen eta osagaien arabera. EAE.

2005eko oinarria= 100	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Lehengaiak	Eskulana
2004	95,1	95,1	95,2	94,8	95,6
2005	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
2006	104,3	104,0	105,2	104,0	105,3
2007	108,9	108,6	109,9	108,7	109,7
2008	117,0	116,4	119,3	117,2	116,6
2009	117,2	117,5	116,1	116,6	119,4
2010*	118,5	118,1	119,8	117,3	121,1

(*): behin betiko datuak

Iturria: EUSTAT. Eraikuntza kostuen indizea.

³ Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, berezia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko —eskolak, siloak, eta abar— egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena). 2008ko otsailean EUSTATek base berria egin zuen, 2000tik 2005era igaroz. Aldeaketa honek zenbait hobekuntza ekarri ditu, besteak beste, EAEko eraikuntza sektorearen produktu eta lehengai garrantzitsuenak eguneratzea, estaldura zinez gehituz.

III.4.2. Koadroa. Eraikuntzaren sektorearen magnitude nagusiak. Eguneko prezioak. (Euroak, milaka)

	2006	2007	2008	% 06/07	% 07/08
Lanean ari diren langileak	96.312	101.437	96.406	5,3	-5,0
BEGd, fakt kostuan	4.996.500	5.799.692	5.806.205	16,1	0,1
Ustiapen. soberak. gord.	1.829.851	2.276.497	2.098.205	24,4	-7,8
Egindako inbertsioak	347.103	336.036	255.285	-3,2	-24,0
Amortizazioak	246.969	281.875	269.545	14,1	-4,4
Negozioen zifra	16.615.279	19.766.324	19.762.927	19,0	0,0
Ustiapen kontsumoa	10.215.128	12.593.631	12.709.459	23,3	0,9
Kanpoko zerbitzuak	1.614.433	1.988.964	2.004.443	23,2	0,8
Langileri kostuak	3.166.649	3.523.195	3.708.000	11,3	5,2
Zergen aurretiko emaitzak	1.424.258	1.733.896	1.413.937	21,7	-18,5
Cash Flow	1.671.227	2.015.771	1.683.482	20,6	-16,5

Iturria: EUSTAT. Industriako eta eraikuntzako estatistika.

izan zituzten: lehenengoaren kostuak apur bat hazi ziren (%+0,6), eta bigarrenarenak are gehiago: %3,5 hazi ziren. Sektorean kontsumitzen diren lehengaien prezioen artean, 2010ean inflazio tasarik handienak izan dituztenak honakoak dira: Petrolioa fintzea (%+27,3), metalgintza (%16,5), energia elektrikoa eta gasa (%9) eta kautxua eta plastikoa (%4,2). Alderantziz, metalezkoak ez diren mineralen (%-3,7) eta zurgintzaren (%-0,9) sektoreko lehengaiak urtetik urterako prezio jaitsierarik handienak izan dituzte.

Bestalde, EUSTATen “*Industriako eta eraikuntzako estatistikaren*” datuek erakusten dute eraikuntza sektoreak faktore aktiboa izaten jarraitu zuela 2008an (urte hori da informazioa dugun azken urtea). Urte hartan, sektore honek balio erantsi gordineko maileri eutsi zien (%0,1eko gehikuntza), baina enplegua %5 jaitsi zen. Horrek 5.000 lanpostu galtzea ekarri zuen, batez bestez 96.406 pertsona okupatu erregistratuz.

Enpresako soberakin gordina, hau da, sortutako balio erantsiaren %36,1 (2007an %39,3), %7,8 erori zen eta langileria kostuak %5,2 hazi ziren.


Bestalde, egindako inbertsioak 255 milioi euro ziren, aurreko ekitaldian baino gutxiago (%-24); zenbateko horri amortizazioak kenduz gero, 14 milioi euroko inbertsio garbi negatiboa da. Azkenik, negozioen kopurua 19.762 milioi eurotan egonkor mantendu zen. Zergen aurretiko emaitzak, berriz, %18,5 jaitsi ziren.

4.2. Etxebizitza hutsa EAE-n. 2009ko datuak

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak “*EAEko etxebizitza hutsaren zenbaketa eta ezaugarriak buruzko 2009ko biurteko inkesta*”ren emaitzak argitaratu berri ditu. Operazio hori 1997az geroztik egiten da. Azterlan horren arabera, EAEn dauden etxebizitzaren %7,7 hutsik daude, 74.289 guztira. Haietatik, %40 (29.511) sasoiko etxebizitzatzat jotzen dira eta %60tan (44.778) ez da inor bizi. Lurraldeka, sasoiko etxebizitzaren pisurik handiena (%51) Arabari legokioke.

Gure erkidegoko etxe hutsen parkearen pisuaren bilakaera ikusteko, “hiri errolda atalak” izenekoetan daudenei (sakabanatutako biztanleria %10 baino gutxiagoa den horiek) erreparatu behar diegu, aldagai hori aztertu delako inkestaren aurreko edizioetan: adierazle horren arabera, 2009ko etxe hutsen ratioa %6,9 litzateke, 2007ko datua baino puntu bi gehiago eta 2005koaren antzekoa, grafikoan ikusten denez. Gipuzkoan eredia irregularragoa bada ere,

III.4.4. Grafikoa. Etxebizitza hutsaren pisuaren bilakaera lurralde historikoen arabera (hiri errolda ataletan*)



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitza Saila


*Hiri errolda atalak biztanleriaren sakabanaketa %10 baino txikiagoa dutenak dira.

orokorrean joera EAE osoan errepikatzen da: etxe hutsaren pisuaren erorketa 2001 eta 2005-2007 artean (Arabaren lehenago geldotzen da), harrezkero hazteko.

Lurraldeka, Arabak, 14.209 etxebizitza huts izanda, guztien %19,1 pilatzen ditu, lurralde horretako etxebizitza parkearen %10. Gipuzkoan, bestalde, 28.486 etxebizitza huts zenbati dira, EAEko etxe hutsen %38,3 eta lurralde horretako etxebizitzaren %8,9. Azkenik, Bizkaian 31.594 etxebizitza huts daude, EAEko etxebizitza huts guztien %42,5 eta lurralde horretako etxebizitza guztien %6,2.

Datu horietatik ondoriozta daiteke Arabak, balio absolutuetan etxe bizitza huts gutxien duen lurraldea izan arren, bere etxebizitza parke osoaren aldean portzentajerik handiena pilatzen du.

Udalen tamainari dagokionez, etxebizitza horien %21 2.500 biztanletik beherako udalerrietan daude. Beste %23 2.500 eta 10.000 biztanle arteko udaletan daude. Etxebizitza hutsen %18,5 100.000 biztanletik gorako udaletan, hiru lurraldeetako hiriburuetan daude. Zehazki, Gasteizen 4.634 etxebizitza huts zenbati dira, udal horretako etxebizitzaren %4,7, Donostian guztira 3.568 etxebizitza dira (%4,3) eta Bilbon proportzioa etxebizitzaren %3,6ra murrizten da, 5.519. Gainontzeko etxe hutsen %37,4 hamar eta ehun mila biztanle arteko udalei dagozkie.

III.4.5. Grafikoa. Etxebizitzaren jabetzaren helburuak lurraldeka. 2007

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Saila.


Etxebizitza huts horien jabeek haien jabetzaren helburuaz galdetuta (2007ko datuak), eta sasoiko edo bigarren bizilekuaren pisua kenduta, EAE osoan portzentajerik handienak "seme-alabentzako gordetzeak" (%43,8) eta "inbertsioak" (%33,4) daukate. Beste zio batzuk "salerosketa" (%15,2) eta "errentak sortzea" (%7,6) dira. Araban, inbertsioa nagusitzen da, Gipuzkoan seme-alabentzat gordetzea, eta Bizkaian kontzeptu biek elkarren eta batez bestekoaren pareko balioak dauzkate.

2009an etxebizitza hutsen %9,1 ageri ziren alokairu eskaintzan (%3 ozta-ozta 2007an) eta %8,6 salgai eskaintzen ziren (%7 2007an). Horrela, alokairu eta salmenta eskaintza bateratua etxebizitza huts guztien %16,1 da batez beste EAEn, hots, etxebizitza parke osoaren %1,4 (%0,5 urte bi lehenago).

Etxebizitza hutsen egiturazko ezaugarriak dagokienez, gehienak tamaina ertainekoak dira, 75 eta 99 m² artean (%38,3) eta haietako %60 inguru bost gela edo gehiago daukate (egongela eta sukaldea barne). %65,7k komun bat daukate eta %39,3k ozta-ozta daukate berogailu zentralakoak ez diren gailuak. %66,7k hodiz banatutako gasa daukate (%47 2007an), %24,5ek garajea daukate eta %29,7k trastelekua daukate. Bukatzeko, etxebizitza hutsen %80 1985 baino lehenago eraiki ziren eta %27 1950 baino lehenago.

4.3. EAE-ko etxebizitza eskaintza 2010ean

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren "Higiezin Eskaintzaren Inkestaren" datuek⁴ adierazten dute, lehenik eta behin, azken urtean etxebizitzaren eskaintza osoa (salmenta eta alokairua) %4,9 igo dela (aurreko urtean %+3), laugarren hiruhilekoan 28.921 etxebizitzatara iritsi arte. Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: %91 salgai eskaintako etxebizitzak dira eta %9 alokairuan eskaintakoak. Salmentarako etxebizitzetatik, %32 etxebizitza berriak dira eta %68 erabiliak; haietatik %44

III.4.6. Grafikoa. Etxebizitza hutsak azalera erabilgarriaren arabera (m²) lurraldeka. 2009

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Saila.

babes publiko motaren baten pean dago. Alokairuko etxebizitzetatik, %47 askeak dira eta %53 babestuek.

Datu horien arabera, 2010ean, bigarren urtez, 2004an hasi zen eskaintzaren hazkunderako joera eten zen, 2002-03 bi urtekoan merkatuan zeuden etxebizitzaren kopurua gutxitu ondoren. 2010erako nabarmendu behar dugun beste ezaugarri bat da 2008 eta 2009an alokairuko etxebizitzaren eskaintzan gertatu zen gehikuntza ez dela errepikatu: Hura %24 jausi zen 2009aren aldean, baldintza horietan eskaintako etxebizitza pribatuaren eta publikoaren (babestua) batura hartuta.

Azken hamarkadako bilakaerari erreparatuta, ikusi da eskaintako etxebizitza tipologia hazkunde proportzionalik handiena etxebizitza erabilian gertatu dela. Horrela, 2010ean eskaintako parkearen %62,9 erabilia da; 2001-2010 aldi osoan, aldiz, %49,9 izan zen (13 puntuko aldea). Eskaintako etxebizitza guztietan babes ofizial eta sozialeko etxebizitzaren eskaintza jaitsi da gehien: 2010ean parke eskuragarri osoaren %12,3 izan zen, eta hamarkada osoan %20 (ia 12 puntu gutxiago).

Joera bi horien emaitzek (13 puntu gora, 12 behera) azaltzen dituzte azken hamarkadan eskaintako etxebizitza tipologiaren pisuan egondako gorabehera gehienak.

Prezioei dagokienez, etxebizitza aske salgaien (berrien nahiz erabilien) batez besteko prezioa %4 igo zen 2009ko batez bestekoaren aldean; aurreko urtean %7 jaitsi zen. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, prezioak %3,4 jaitsi ziren; bestalde, bigarren eskuko etxebizitzaren zatiarenak %6,5 igo dira. Bestalde, babestutako etxebizitza berriaren batez besteko prezioa %4,4 jaitsi zen azken urtean; alokairu askeko batez besteko errenta, ordea, %5,3 igo zen. Bestetik, babestutako etxebizitzaren alokairuko batez besteko errenta 204 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %7,2 gutxiago.

Azkenik, azpimarratu behar dugu higiezin enpresek etxebizitza bat saltzeko behar duten denbora, batez bestez, 2010ean 9,2 hilabete zirela, aurreko bi urteetan 8,6 ziren bitartean.

⁴ Datu hauek lortzeko, inkesta egin zaie etxebizitza eskaintza daukaten etxebizitza sustatzaileei eta higiezin jabetzen agenteei (bost etxebizitzatik gorako sustapenak), 171 sustatzaile eta 119 higiezin-enpresa; beraz, ez da eskaintza osoa jaso. Inkesta horren emaitzetan benetan garrantzia duena, datu absolutuak baino gehiago, horren ondorioz, bilakaerari buruzko datuak izango dira.

III.4.3 Koadroa. EAE-ko etxebizitza eskaintzaren bilakaeraren laburpena

	Guztira	Etxebizitzak salgai					Etxebizitzak alokairuan		
		Salgai guztira	Etxebizitza berriak			Etxebizitza erabiliak	Alokairuan guztira	Askea	Babestuta
			Guztira	Babestuta	Askea				
2005	16.138	14.602	8.078	3.919	4.159	6.524	1.536	521	1.015
2006	18.045	15.913	8.977	5.065	3.912	6.936	2.132	578	1.554
2007	22.048	20.051	9.421	5.093	4.329	10.630	1.997	485	1.512
2008	26.766	23.767	10.373	5.424	4.949	13.395	2.999	603	2.396
2009	27.560	24.180	10.127	5.010	5.117	14.053	3.380	1.000	2.380
2010-I	28.422	24.881	9.946	4.916	5.030	14.936	3.541	1.073	2.468
2010-II	28.495	25.195	9.046	4.246	4.801	16.149	3.300	1.113	2.187
2010-III	28.226	25.208	8.107	3.410	4.698	17.101	3.016	1.146	1.872
2010-IV	28.921	26.353	8.169	3.573	4.596	18.184	2.568	1.215	1.354

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

4.3.1. Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, etxebizitza aske eta eraiki berri salgaien eskaintza, 2010eko laugarren hiruhilekoan, 4.596 alera iritsi da, 2009an baino %10,2 gutxiago. Ondoko banaketa dauka lurraldez lurralde: Bizkaia %44 hartzen ditu, Gipuzkoak %36 eta Arabak %20. Banaketa hori aurreko urtekoaren antzekoa da baina, oraingoan, Gipuzkoak pisu erlatiboa irabazi du (4 puntu).


EAEko etxebizitza aske berrien ezaugarriak dagokionez, gehienak honelakoak dira: etxebizitza kolektiboak (%91), eta akabera "jaso"tzat jotzen da (%60), akabera normalaren (%32) eta luxuzkoaren (%8) aurrean. Azalera erabilgarriari dagokionez, 76 eta 90 m² arteko azalera daukatenek guztien %36 hartzen dituzte; apartamentuak, ordea, oso gutxi dira eskaintako lagin osoa kontuan hartzen badugu. Horrela, guztien %12k baino ez daukate 60 m² baino gutxiagoko tamaina.

Etxebizitza aske eraiki berrien batez besteko prezioa, 2010eko laugarren hiruhilekoan, 3.877,4€/m² zen, hau da, 2009ko batez bestekoa baino %3,8 gutxiago. Lurraldez lurralde aztertzen badugu, Araban batez bestekoa txikiagoa da (3.532€/m²), Bizkaian 3.899€/m² eta Gipuzkoan 4.034€/m². Bilakaerari begira, Gipuzkoak %7,7 egin du atzera, Bizkaian batez besteko prezioa %3,4 murriztu da eta Araban %1,9ko igoera txikia egon da. Etxebizitza bakoitzeko prezioak aztertuta, batez bestekoa honakoen artean dago: Gipuzkoan 337.000€/etxebizitza eta Araban 294.000€. Bizkaia beste bien artean dago: 313.000€.

Babestutako merkatuari dagokionez, gogora ekarri behar dugu 2006an gizarte etxebizitza salgaien eskaintza desagertu zela; etxebizitza horiek alokairurako soilik hasi ziren eskaintzen. 2010eko laugarren hiruhilekoan, BOEren eskaintza 3.573 unitatera iritsi da, aurreko urtean baino %28,7 gutxiago, izan ere, aurreko urtean 5.000 etxebizitza baino gehiago izan ziren.

Salgai eskaintako BOEren batez besteko prezioa 1.474,3€/m² zen 2010ean, aurreko urtean baino %0,4 gehiago. Lurralde historikoen arabera ez dago ia ezberdintasunik. Arabak preziorik altuena dauka (1.491,2€/m²), gero Bizkaia (1.476,9€/m²) eta azkenik Gipuzkoak (1.463,8€/m²).

III.4.7. Grafikoa. Etxebizitza berri salgaiaren eskaintzaren bilakaera EAEn, motaren arabera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika..

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes araubideren bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza hauek babestutako etxebizitza baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza askearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

(b) Erabilitako etxebizitza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu guztira bigarren eskuko 18.184 etxebizitza eskaini zirela, aurreko urtean baino %29,4 gehiago⁵. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %50, Araban %25 eta Gipuzkoan gainontzeko %25.

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 3.891€/m² zen 2010ean, aurreko urteko batez bestekoa baino %3 gehiago. Lurraldeka, bilakaera nahiko ezberdina ikus daiteke, izan ere, Araban batez besteko prezioa %5,1 erori zen bitartean, 3.368,2€/m² arte,

⁵ Laginketa-datuak diren arren, informazio horrek erakusten du eskaintzen diren etxebizitza erabilien stockaren gehikuntza dagoela; higiezin-merkatuan jardun motela dagoenean hau gertatu ohi da.

III.4.4. Koadroa. EAEko etxebizitza salgaien batez besteko prezioaren bilakaera. €/m² erabilgarria.


	Etxebizitza askea				Babestutako etxebizitza**	
	Askea guztira*	Erabilia	Berria	Etxebizitza mota	BOE	Soziala
2004	3.327,1	3.596,4	2.905,2	2.785,7	1.129,0	670,3
2005	3.715,0	3.935,5	3.369,0	2.960,2	1.245,8	756,5
2006	4.046,9	4.272,8	3.646,3	3.153,6	1.285,1	
2007	4.286,0	4.356,4	4.113,2	3.221,4	1.322,9	
2008	4.160,4	4.199,0	4.053,8	3.428,4	1.372,0	
2009	3.846,6	3.778,9	4.032,5	3.338,1	1.468,9	
2010 I	3.872,6	3.830,4	3.998,1	3.288,0	1.466,7	
2010 II	3.892,8	3.870,0	3.969,4	3.418,9	1.469,7	
2010 III	3.899,9	3.892,2	3.928,0	3.467,4	1.471,0	
2010 IV	3.888,3	3.891,0	3.877,4	3.496,2	1.474,3	

* Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa.

** 2006az geroztik etxebizitza sozial salgaiaren modalitatea desagertu zen.

Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

III.4.8. Grafikoa. Saldu eta alokatzeko babestutako etxebizitzaren bilakaera EAEn

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

(*) Mota hau 2006an desagertu zen.

III.4.5. Koadroa. Erabilitako etxebizitza salgaiak, m² erabilgarri bakoitzeko prezioarekin (eurotan), eta batez besteko prezioak (euroak milaka), lurralde historikoen arabera

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Kop.	m ² aren prezioa	Prezioa/etxebizitza	Kop.	m ² aren prezioa	Prezioa/etxebizitza	Kop.	m ² aren prezioa	Prezioa/etxebizitza	Kop.	m ² aren prezioa	Prezioa/etxebizitza
2005	6.524	3.935,5	297,0	1.769	3.630,4	304,4	3.824	3.978,2	289,8	932	4.342,4	316,7
2006	6.936	4.272,8	320,5	2.124	3.871,0	307,8	3.722	4.365,3	324,0	1.090	4.748,7	335,2
2007	10.630	4.356,4	350,7	3.031	3.834,6	311,4	6.067	4.490,9	357,3	1.533	4.847,1	404,4
2008	13.395	4.199,0	339,5	4.366	3.591,2	290,3	6.906	4.393,7	352,4	2.123	4.809,0	398,4
2009	14.053	3.778,9	310,1	4.009	3.550,0	295,2	7.378	3.581,7	294,1	2.666	4.686,4	374,3
2010	18.184	3.891,0	330,3	4.526	3.368,2	272,7	9.085	3.752,3	325,6	4.574	4.685,5	398,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

Bizkaian % 4,8 igo zen (3.752,3€/m²) eta Gipuzkoan ez zen aldaketarik gertatu (4.685,5€/m²). Etxebizitza bakoitzeko prezioetan, EAEn batez bestekoa 330.300 euro da etxebizitza bakoitzeko. Gipuzkoako 398.500 eta Arabako 272.700 euroren artean etxebizitza bakoitzeko. Bizkaia beste bien artean dago: 325.600 euro etxebizitza bakoitzeko.

Bestalde, etxebizitzaren prezio tarte handien arabera banaketa oso sakabanatuta dago hiru lurraldeetan,

baina prezio tarterik altuenetako pilaketa handiagoa da Gipuzkoan beste lurralde bietan baino.

4.3.2. Alokairu erregimena

2010eko laugarren hiruhilekoari buruzko higiezin eskaintzaren inkestaren arabera, 2.568 etxebizitza eskaini ziren alokairurako, aurreko urtean baino %24 gutxiago. Zati askea, aldiz, %21,4 hazi zen, 1.000 unitatetik 1.215era, eta alokairuko etxebizitza babestuarena %43,1 jausi zen;

horrela, alokairu babestua 2009an %70 izatetik 2010ean %53 izatera igaro zen.

Hasteko, 2009an (azken datu eskuragarriak) alokairuan eskainitako etxebizitza babestuak honela zeuden banatuta lurraldez lurralde: %29 Araban, %53 Bizkaian, eta %18 Gipuzkoan. Babes modalitateari dagokionez, ikusi zen Gipuzkoan BOEen eskaintza etxebizitza sozialena baino handiagoa zela; beste bi lurraldeetan, aldiz, etxebizitza soziala gailentzen zen argi eta garbi. Tipologiaren arabera banaketa honen bilakaerak alokairuko etxebizitza sozialaren pisu erlatiboaren igoera mailakatua (BOEen kaltetan) erakusten du.

EAEko alokairuko babestutako etxebizitzaren batez besteko errenta, 2010ean, 204 euro zen hilean, aurreko urtean baino % 7,2 gutxiago.

BOEen modalitatea 277€/hileko kopurura iritsi da, gizarte etxebizitzak, batez beste, 122,7 euroan kokatu ziren bitartean. Bilakaerari dagokionez, BOE modalitatean errenta jaitsiera gertatu zen (%-14,8); etxebizitza sozialean, ordea, igoera gertatu zen (%+1,1, 2009aren aldean). Epe luzerako azterketa eginda, alokairu babestuen batez besteko errentaren atzerakada handia ikusten da, alokairuan eskainitako guztien artean gizarte etxebizitza gehiago egotearen ondorioz.

Bestetik, 2010eko laugarren hiruhilekoan alokairuan eskainitako etxebizitza askeen lagina, esan dugunez, 1.215 unitatekoa izan zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %63, Araban %18,6 eta Gipuzkoan gainontzeko %18,4.

Eskaintako etxebizitzaren azalera erabilgarriari dagokionez, Higiezin eskaintzaren estatistikak agerian utzi du alokairuan eskainitako etxebizitza erabilien tamaina salgai jarritako etxebizitza tipologia berean ikusitakoa baino askoz txikiagoa dela (80 m² eta 88, hurrenez hurren). Bestalde, ikusienez, alokairuko etxebizitzaren erdiek 75 m²tik beherako tamaina daukate, laurdenen azalera erabilgarria 76 y 90 m² artekoa da eta beste laurdenek 90 m² baino gehiago daukate.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 921 euroko errenta zeukaten 2010ean, aurreko urtean baino %5,3 gehiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (1.004,9€ hilean); gero Bizkaia, 923,8€ hilean eta azkenik Arabak (827,6€ hilean). Bilakaeraren azterketak igoera handiagoa erakusten du Gipuzkoan (%+6,8), apur bat txikiagoa Bizkaian (%+4,9) eta Araban batez besteko errenta %1,1 murriztu da.


Etxebizitzaren errenta tarte handien arabera banaketari dagokionez, sakabanaketa handia dago, lehenago saltzeko merkatuan ikusitakoaren ildotik. Hala ere, tarte

III.4.6. Koadroa. EAE alokairurako eskaintzen diren etxebizitzaren errentaren bilakaera. (Euroak hilean)

	Babestutako merkatua			Merkatu askea
	BOE	Sozialak	Guztira	
2004	385,4	164,4	257,3	724,4
2005	397,5	147,6	278,2	807,4
2006	384,9	141,0	263,2	819,6
2007	325,3	131,7	194,1	890,2
2008	380,3	118,0	233,8	968,9
2009	325,0	121,4	219,8	875,3
2010	277,0	122,7	204,0	921,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

III.4.9. Grafikoa. Alokatzeko etxebizitza eskaintzaren eta alokairu askearen hileko batez besteko errentaren bilakaera (€)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezinaren eskaintzaren estatistika.

batek etxebizitza proportziorik handiena batzen du: 840-960€/hilean; gainera, gero eta gehiago dira (%24 egun, %19 urtebete lehenago). Horren aurre-aurreko tarte, aldiz (720-840€/hilean) murriztu egin da eta azken urtean %26tik 22,5era jaitsi da.

4.3.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa autonomia erkidegoen arabera

INE 2008an hasi zen "Etxebizitzaren Prezioen Indizea" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle honek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzaren (berriak

III.4.7. Koadroa. Alokairuan eskainitako etxebizitza askeak eta hileko batez besteko errenta

	Etxebizitza				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2004	512	108	308	96	724,4	828,2	687,4	747,0
2005	511	123	273	116	778,9	850,3	749,3	788,7
2006	578	184	241	153	819,6	866,8	795,7	802,8
2007	485	181	212	92	890,2	908,5	875,4	901,5
2008	603	227	247	130	968,9	895,0	968,8	1.086,5
2009	1.000	395	387	218	875,3	836,7	881,0	941,1
2010	1.215	226	767	222	921,5	827,6	923,8	1.004,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Higiezin eskaintzaren estatistika.

III.4.8. Koadroa. Etxebizitzaren prezioen indizea: lau hiruhilekoetako urteko aldakuntza tasak

	2007	2008	2009	2010
ESTATUKO BATEZ BESTEKOAK	5,7	-5,4	-4,3	-1,9
Andaluzia	11,1	-2,9	-1,7	-2,1
Aragoi	0,9	-6,7	-6,8	-4,3
Asturias	8,5	-1,6	-0,5	-1,0
Balear Uharteak	7,2	-6,3	-5,6	-1,3
Kanariar U.	8,6	-2,4	-2,5	-3,2
Kantabria	6,6	-2,6	-6,0	-7,2
Gaztela eta Leon	9,3	-2,5	-2,5	-1,3
Gaztela-Mantxa	9,6	-1,5	-2,1	-0,8
Katalunia	1,3	-10,3	-7,0	-2,8
Valentziako E.	8,8	-2,1	-4,9	-3,3
Extremadura	9,3	-2,0	1,9	1,7
Galizia	9,8	-0,4	-1,5	-1,4
Madril	0,6	-8,1	-6,6	1,7
Murtzia	13,0	-0,8	0,0	-2,6
Nafarroa	1,8	-5,6	-8,3	-5,9
EAE	4,1	-8,0	-7,1	-1,4
Errioxa	8,6	-3,8	-3,1	-6,2
Ceuta	11,7	-5,7	-1,7	-2,6
Melilla	14,5	-0,2	3,0	-1,1

Iturria: EIN, EPI.

nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, beraren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Beraren eremutik kanpo daude, hortaz, babestutako etxebizitzak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

EPIk Notariotzaren Kontseilu Nagusiak (Ziurtapeneko Notariotza Agentziaren bidez) emandako datu-baseetatik datorren informazioa erabiltzen du. Administrazio

erregistroak erabiltzeak, batetik, ahalbideratzen du biztanleria osoaren informazio osoa edukitzea. Horrela, ez dago laginketa teknikak erabili beharrik; bestetik, salerosketako eragiketa ororen informazioa, sortzen den unean, indizearen kalkuluan sartzea ahalbideratzen du, eta hori funtsezkoa da koijuntura-adierazlea izan nahi duen indize batentzat.

2010eko datuen arabera, orokorrean, 2008an eta 2009an etxebizitzaren batez besteko prezioetan gertatutako erorketa orokorra leundu zen, baina merkatuaren egoerak eta adierazlearen berritasuna direla-eta, hori geroko hiruhilekoetan baietsi beharko da. Gure autonomia erkidegoak urtetik urtera %1,4 jaitsiz amaitu du, Estatuako batez besteko %–1,9ren aurrean. Autonomia erkidegoen arabera, urtean pilatu ziren prezioen beherakadarik handienak Kantabrian (%–7,2), Errioxan (%–6,2) eta Nafarroan (%–5,9) izan ziren. Gainera, esan behar dugu prezioak oro har erori ziren arren Madrilgo erkidegoan %1,7 igo zirela, Extremaduran bezala.

4.3.4. Eraikuntza jarduera

EAEn hasitako etxebizitza kopuru osoak, 2008an %32,9ko erorketa eta 2009an %43,4ko erorketa eduki eta gero, zeinua aldatu zuen 2010ean, %6,7 haziz. Guztira 7.522 etxebizitza hasi da; horietatik 2.572 askeak dira (%34,2) eta 4.950 babestuak (%65,8). Azken horietatik 3.756 BOE dira (%+27,8, 2009tik) eta 453 gizarte etxebizitzak dira (%+398).

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren 2006-2009 Etxebizitza Plana abian jarri zenetik, babestutako etxebizitzaren merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hasi dela 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik tasatutako etxebizitza autonomikoak. Denbora horretan, guztira 589 dotazio alojamendu eraikitzen hasi da, alokairuko 100 udal etxebizitza tasatu eta 1.776 jabetzarako, eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren 51 etxebizitza tasatu.

III.4.9. Koadroa. Eraikuntza jarduera EAEn: hasitako eta amaitutako etxebizitzak

		2006	2007	2008	2009	2010
Etxebizitza askeak	Hasita	9.815	11.269	6.203	3.855	2.572
	Amaituta	9.794	10.793	9.083	8.782	6.409
Etxebizitza babestuak	Hasita*	5.339	7.310	6.259	3.196	4.950
	Amaituta	4.829	4.631	5.000	4.672	4.991

Iturria: Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.


* Babestutako etxebizitzaren figura berriak sartzen dira hemen: etxebizitza tasatuak eta dotazio alojamenduak.

III.4.10 Koadroa. EAEn hasitako etxebizitza babestuen bilakaera, tipologiaen arabera

	EJren kalifikazioaren pean daudenak			EJren kalifikazioaz kanpokoak			Guztira
				Dotazio alajamenduak	Udal etxebizitza tasatuak		
	BOE	Sozialak	Tasatuak			Alokairua	
2005	3.839	817	—	—	—	—	4.656
2006	4.822	392	—	125	—	—	5.339
2007	5.302	590	—	361	100	957	7.310
2008	4.793	847	—	103	—	516	6.259
2009	2.939	91	37	—	—	129	3.196
2010	3.756	453	14	—	—	174	4.950

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren datuen bidez egina.

III.4.10. Grafikoa. Etxebizitza amaituen kopuruaren bilakaera EAEn



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.

Bestalde, EAEn 2010ean amaitutako etxebizitzak 11.400 dira, aurreko urtean baino %15,3 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (%-27) eta babestutakoen beherakadaren (%+6,8) ondorioz. Horietatik 4.233 BOE dira (%-6,1) eta 758 sozialak (%+356,6, aurreko urtetik).

2010eko datuek, bestalde, erakutsi dute 2009an aurreko urtearen aldean etxebizitza babestuak EAEko eraikuntza jardueran duen parte hartzean gertatutako beherakadaren ostean, portzentaje hori leheneratu egin dela: amaitutako etxebizitzaren artean babestutako etxebizitzaren pisua %34,7tik %43,8ra igaro da.

Azkenik, EUROSTATEk Europako egoitza eraikuntzaren erkaketa argitaratu berri du emandako eraikitze baimenei buruzko datuen bidez. Datuotatik ondorioztatzen denez, azken hamarkadan eraikuntza etengabe hazi zen 2001eko amaieratik 2007ko hasiera arte, eta harrezkero erori egin da, zenbait neurritan, Batasun osoan. Datu irmoak oraindik eskuragarri egon ez arren, ematen du emandako baimen kopuruaren hazkunde tasa 2009ko bigarren seihilekoan hasi zela leheneratzen; artean zenbateko negatiboak eman zituen, baina txikiagoak.

III.4.11. Koadroa. EB-n hasitako etxebizitza kopuruaren urteko aldakuntza (%tan), emandako eraikitze baimenen arabera*

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
27 EB	9,7	4,5	5,9	-9,8	-27,1	-23,4
EUROGUNEa	9,1	5,3	5,9	-10,3	-25,5	-22,9
Belgika	15,1	14,2	3,3	-12,0	-3,5	-13,2
Bulgaria	102,1	54,6	61,4	20,9	-23,1	-59,3
Txekiar E.	4,7	49,0	8,7	2,1	0,2	-17,2
Danimarka	8,2	19,3	-1,5	-33,5	-37,0	-52,9
Alemania	-10,4	-10,5	2,4	-27,6	-5,4	3,0
Estonia	174,9	-2,7	40,4	-30,9	-38,7	-61,8
Irlanda	29,5	-2,3	-20,7	7,2	-20,0	-40,1
Grezia	-5,1	69,1	-39,7	-18,8	-23,2	-25,5
Espainia	15,2	11,1	21,9	-15,1	-57,2	-51,0
Frantzia	21,4	11,2	8,2	-4,2	-14,9	-18,5
Txipre	31,6	19,4	0,9	8,2	-2,0	-17,1
Letonia	60,8	63,0	32,3	5,2	-61,0	-40,2
Lituania	36,2	40,4	40,7	16,4	-17,3	-52,6
Luxemburg	18,2	21,3	-6,0	12,2	-18,7	-8,4
Hungaria	1,4	-9,8	-13,5	-0,3	-0,4	-34,1
Malta	9,2	35,6	14,5	9,2	-40,0	-22,5
Holanda	5,2	9,3	15,7	-8,7	-0,9	-16,7
Austria	5,7	2,4	8,5	-7,8	-13,6	-9,3
Polonia	14,0	9,5	38,6	47,4	-7,0	-23,6
Portugal	-12,9	-1,0	-4,2	-7,2	-27,5	-42,6
Errumania	24,0	27,0	17,3	10,8	7,7	-20,1
Eslovenia	19,9	2,5	18,6	22,1	-18,7	-29,7
Eslovakia	53,9	21,7	3,0	-9,8	59,7	-30,3
Finlandia	-1,1	6,3	-4,1	-7,2	-20,4	-1,5
Suedia	19,5	18,5	39,2	-34,4	-15,6	-13,2
Erresuma Batua	9,9	-0,5	1,5	-5,7	-35,2	-24,0

Iturria: EUROSTAT. Statistics in focus 55/2010.

(*) Ez dago Itailari buruzko daturik.

Datu horiek aztertzerakoan, EUROSTATEk Europako herriei zenbait neurritan eragin dieten eragileak aipatu ditu. Bestek beste, aurreko aldiko gain-produkzioa, kontsumitzaile

eta enpresen konfiantzaren jaitsiera, horrek proiektuetan dakarren atzerapenarekin, kredituaren murrizketa eta gastu publikoaren jaitsiera, krisiaren ondorioz.

4.4. Etxebizitza eskaria EAE-n

4.4.1. EAEko etxebizitza beharrari eta eskariari buruzko 2008ko inkesta

Eusko Jaurlaritzak 2008an egin zuen "EAEko etxebizitza beharraren eta eskariaren inkesta"⁶ren emaitzen arabera, erreferentziazko urtean %8,98 ziren lehenengo etxebizitza eskuratu behar zutela zioten pertsonak. Kopuru absolutuetan zenbatesten dugu beharrian hori adierazten duten pertsonen kopurua 74.461 familiaraino iristen dela, hau da, aurreko urtean baino %10,1 gutxiago. Eskariari dagokionez, jotzen da 50.954 etxebizitzakoa dela lau urteko epean eta 15.547 etxebizitzakoa urtebeteko epean (epe laburrean). Era berean, inkestak erakusten du EAEko familien %4,9k ohiko etxebizitza aldatu beharra dutela; hau da, 40.894 etxebizitza behar direla. Eskariari dagokionez, aurreikuspena 19.678 etxebizitzakoa da 4 urteko epean eta 8.207 etxebizitzakoa epe motzean (urtebete). Etxebizitza eskuratzeko beharrian dagoenean gertatzen den bezala, aldaketa egiteko beharrian konpontzeko probabilitatea, epeen arabera, azken urteetako mailarik txikienetan dago.

Bestalde, inkestak erakutsi du etxebizitzak birgaitu beharra daukaten familien proportzioa 2008an %14,2tik %15,5era igo zela, hau da, 128.669 familia. Eskariaren aldetik, familia hauetako %61,6k uste dute oso edo nahiko posiblea dela datozen lau urteetan etxebizitza birgaitu ahal izatea, eta %26,6k urtebeteko epean berrikuntzak egiteko asmoa dute.

Etxebizitza aldatu behar duten familien kasuan eta lehenbiziko etxebizitza eskuratu beharra duten gazteen kasuan, gizarte eta etxebizitza ezaugarriak aurreko urtekoenen oso antzekoak ziren 2008an. Hasteko, eskuratzeko beharra duten pertsonen erdiak baino gehiago 25 eta 34 urte artekoak dira eta lan kontratu finkoa daukate. Gainera, emakumeen %53k unibertsitate ikasketak daukate; gizonen kasuan %24,4 baino ez dira. Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familietako buruak 48,6 urte dituzte batez bestez, eta batez bestez 2,81 kide dauzkan

familia bateko kide da. Haiek bizi diren etxebizitzak batez bestekoa baino zaharragoak (39 urte batez bestez; EAEko etxebizitzaren batez bestekoa 35 urtekoa da) eta txikiagoak (68 m²) dira. Era berean, etxebizitza aldatu nahi duten familia errentarien portzentajea batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da (kolektibo honen %37k alokairuko etxebizitza bat okupatzen du; EAEn %5 dira). Etxebizitza kontuen beharrianak azaltzen dituzten arrazoiak, independizatzeko nahia da garrantzitsua (%69,2) etxebizitza eskuratzeko beharria duten pertsonen kasuan (2007an %76,1). Aldiz, ezkontzeko edo bikotean bizitzeko asmoek garrantzia galtzen segitzen dute (gaur egun %27,4, eta orain hamar urte, %50). Bestalde, etxebizitza aldatu beharra duten familien artean, etxebizitzaren tamaina desagokia oraindik ere arrazoirik aipatuena da (2008an %30 eta 2007an %29,7); bigarrenik, etxebizitzaren egoera txarra dago (%16,6).

Era berean, kasu guztietan, nahi diren etxebizitzaren batez besteko azalera modu mailakatuan murrizten ari dela nabarmendu behar dugu. Horren arrazoiak da higiezin-merkatuaren baldintzei egokitu beharra dagoela eta etxebizitzaren prezioa mugatu beharra dagoela.

Etxebizitza beharra duten pertsonen egin beharreko finantza ahaleginari dagokionez, Etxebizitza beharraren eta eskariaren inkestak agerian utzi du 2008an etxebizitza librearen prezioek etxebizitza beharra duten taldeentzat eskuragaitzak diren mailetan jarraitzen zutela, batez ere lehenengo etxebizitza eskuratu behar zutenentzat. Urte horretan, etxebizitza eskuratu beharra zuten pertsonen batez bestez 1.389 euro garbi irabazten zituzten hilean (2007an baino %15,4 gehiago). Horrek erakusten du kolektibo honek kaudimen handiagoa zeukala.

Era berean, 2008an familia horiek bere gain har zezaketen gehieneko prezioa gehitu zen, 168.072 eurotaraino, hau da, 2007an baino %6,4 gehiago. Gehikuntza horren arrazoiak da, batez ere, beharrian duten eta 180.000 euro baino gehiagoko pisuak eros ditzaketen pertsonen proportzioa handiagoa dela. Lurraldez lurralde, deigarria da gehieneko ordain daitekeen prezioa EAEko hiru

III.4.12 Koadroa. Etxeak, etxebizitza beharraren arabera eta lurralde historikoaren arabera. 2005-2008.

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Eskuratzeta (1)	Aldaketa	Zaharberritze	Eskuratzeta	Aldaketa	Zaharberritze	Eskuratzeta	Aldaketa	Zaharberritze	Eskuratzeta	Aldaketa	Zaharberritze
2005	90.815	49.559	111.469	13.217	6.061	15.152	49.348	26.260	60.748	28.290	17.173	35.566
2006	92.788	47.851	134.028	13.156	6.304	18.112	48.613	26.169	70.975	31.019	15.382	44.950
2007	82.891	64.393	113.396	12.424	7.559	13.957	46.299	34.255	63.181	24.167	22.584	36.264
2008	74.461	40.894	128.669	10.992	6.813	18.231	39.052	21.714	71.544	24.417	12.367	38.893

Indizeak. Datuak, ehunekotan, etxebizitza kopuruari buruz (2):

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Eskuratzeta (1)	Aldaketa	Zaharberritze	Eskuratzeta	Aldaketa	Zaharberritze	Eskuratzeta	Aldaketa	Zaharberritze	Eskuratzeta	Aldaketa	Zaharberritze
2005	11,69	6,38	14,35	12,10	5,55	13,88	11,80	6,28	14,52	11,35	6,89	14,27
2006	11,79	6,08	17,03	11,82	5,67	16,28	11,48	6,18	16,76	12,30	6,10	17,82
2007	10,37	8,06	14,19	10,92	6,64	12,27	10,77	7,97	14,70	9,45	8,83	14,17
2008	8,98	4,93	15,52	9,25	5,73	15,34	8,77	4,88	16,07	9,21	4,66	14,66

(1) Eskuratzeko kasuetan, 18 eta 44 urte arteko pertsonen eskatzen dituzten etxebizitzak hartu ditugu kontuan.

(2) Memoria honetako aurreko edizioen datuei dagokionez, Etxebizitza Sailak 2005etik 2007ra arteko balioak birkalkulatu ditu, erabilgarri dauden familien datu berrien arabera; beraz, ez datoz bat.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharren eta eskariaren inkesta.

⁶ EBEI. Inkesta hau 1994. urteaz geroztik urtero egiten da, EAEko 3.200 familia esanguratsutan. 2008ko emaitzak ezin izan dira eguneratu eta, beraz, Memoria honek 2009ko edizioan sartutako edukien laburpen bat sartu du. Informazio gehiagorako edizio hartara jo.

III.4.13. Koadroa. Eskuratu edo aldatu beharra adierazi duten familiek behar dituzten etxebizitzaren ezaugarriak

	Aldatzea (1)			Eskuratzea (1)		
	2006	2007	2008	2006	2007	2008
Baldintzak						
Berria	16,5	27,8	21,0	17,9	23,4	17,3
Erabilia	2,2	6,9	4,7	1,9	5,4	2,0
Bata nahiz bestea	77,1	60,6	70,2	79,5	70,0	80,2
Ed/Ee	4,2	4,7	4,1	0,7	1,2	0,5
Azalera erabilgarria						
40 m ² tik behera	2,0	5,6	2,9	4,3	1,9	5,6
41-60 m ²	17,4	16,8	27,1	34,5	26,7	40,8
61-75 m ²	37,3	22,2	28,3	36,5	34,0	34,4
76-90 m ²	26,8	33,4	26,6	19,4	26,4	13,9
91-120 m ²	11,7	12,5	9,4	2,4	3,1	0,7
120 m ² baino gehiago	3,0	2,1	2,6	0,0	0,0	0,0
Ed/Ee	1,8	7,1	3,1	2,9	7,8	4,5
Edukitze araubidea						
Jabetza	73,4	75,2	63,5	66,2	67,8	57,6
Alokairua	12,0	11,4	16,9	7,5	8,3	9,2
Bata nahiz bestea	14,6	13,3	19,6	26,3	23,9	33,2


(1) % bertikala (beharrizana duten mota bakoitzeko pertsonen kopuru osoan).
Iturria: Eusko Jaurlaritza. EBEI 2008.

hiriburuetan txikiagoa dela gure erkidegoko gainerako udalerrietan baino.

Finantzazio formulei dagokienez, hipoteka-maileguak dira gazteek etxebizitzaren erosketa finantzatzeko erabili nahi duten finantzazio iturri nagusia. Hain zuzen ere, %94ak mailegua eskatzeko asmoa zeukan (2007an %99ak). Gainera, %39,3ak aurrezkiak erabili nahi zituen eta gutxi batzuek familiaren laguntza ere espero zuten (%17,3). Nabarmendu behar dugu, halaber, gazteetako askok aurreikusita zeukatela bankuek baimentzen zieten mugaraino zorretan sartzea: %53k espero dute etxebizitzaren prezioaren %75 eta %100 artean kreditu bidez finantzatzea.

Bestalde, etxebizitza aldatu beharra zuten familiek, 2008an hilean 1.625 euro irabazten zituztenak (2007an baino %0,4 gehiago), muga onargarria 214.369 eurotan ezarri zuten (aurreko urtean baino %6,4 gutxiago). Finantzazio formulak aztertzeke unean, kontuan izan behar da familia horietako gehienek badutela etxebizitza bat jabetzan eta asmoa daukatela hura saltzetik lortzen duten dirua etxebizitza berria erosteko erabiltzeko. Zehazki, 2008ko inkestak erakusten du familien %41,1ak asmoa duela salmentaren bidez lortutako baliabideak erabiltzeko,

III.4.11. Grafikoa. Aitortutako gehieneko erosketa prezio onargarriaren eta hileko batez besteko soldata kostuaren bilakaera (€)



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Elnren datuen bidez egina.
Oharra: Soldata kostuen sail osoa EINK 2009an argitaratutako atzera begirako zenbatespenen bidez eguneratu dira, urte horretako I. hiru hilabeteetan metodologia aldatu zelako.

eta %2,9k alokatzeko asmoa dutela. Gainera, %54,9k hipoteka-mailegua eskatzeko asmoa dute.

Beharizan babesgarriak diskriminatzeko balio kritikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak erreferentziako bi puntu planteatzen ditu: 96.000 euroko muga, babes ofizialeko etxebizitzak saltzeko prezioei aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatzeko, eta 150.000 euroko muga etxebizitza librea eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen multzoarentzat.

Lehenengo mugari dagokionez, 2008ko inkestaren emaitzek erakusten dute etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen %3,8k (2007an %8,2k) 96.000 euro baino gutxiagoko etxebizitza baten erosketari aurre egin ahal diotela (2.850 etxebizitza) eta haietako %14k 120.000 baino gutxiagoko etxebizitza baten erosketari aurre egin ahal diotela. Etxebizitza aldatu beharra duten eta etxebizitza erosi ahal duten familien proportzioa, prezio segmentu berbererako, %6,2koa da (1.302 etxebizitza); aurreko urtean %7,9 izan zen. Beraz, guztira, beharizan horien %20,2k gizarte izaerako laguntzak jaso beharko lituzkete etxebizitzarako (2007an, %13,2k).

Segmentu babesgarria nabarmen igotzen da 150.000 euroren bigarren mugari erreparatzean. Horrela,

III.4.14. Koadroa. Arreta behar duen etxebizitza beharra eta segmentu babesgarria. 2008

	Eskuratzea		Aldatzea		Guztira	
	Etxebizitza	%	Etxebizitza	%	Etxebizitza	%
Beharriaz guztira	74.461	100,0	40.894	100,0	115.355	100,0
Arretaren xedea	74.461	100,0	19.976	50,0	94.437	82,0
Segmentu babesgarria gehieneko prezioaren arabera *						
< 72.000 euro	703	0,9	—	—	703	0,7
< 96.000 euro	2.850	3,8	—	—	2.850	3,0
< 120.000 euro	10.429	14,0	1.302	6,2	11.731	12,3
< 150.000 euro	22.861	30,7	2.829	13,4	25.690	26,9

* Kopuru pilagarriak etxebizitza behar duten mota bakoitzeko pertsonen %.

Iturria: EAEko 2008ko Etxebizitza Beharriaz eta Eskuratzeko Oinarriko Inkestak datuekin egina. Eusko Jaurlaritza.

etxebizitza eskuratu behar duten pertsonen %30,7k eta aldaketa behar duten familien %13,4k ez lukete gaitasunik etxebizitza prezio honetan erosteko. Horrenbestez, 2008ko inkestak atzemandako beharizanen %44,1k adierazi zuten zailtasun handiak zituztela etxebizitza libre eskuratu ahal izateko (2007an, %60,3k).

Nolanahi ere, ondorio hauek apur bat ezberdinak dira familien diru-sarrera gordin ponderatuen mailarekin lortzen direnetatik (ofizialki irizpide horixe erabiltzen da etxebizitzarako laguntza publikoak emateko). Horrela, etxebizitza eskuratu beharra duten gazteen %9ak eta etxebizitza aldatu beharra duten familien %6k 2008an 15.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak izan zituzten. Horrenbestez, gizarte laguntzen eremuan sartzen dira (2007an %9,5 eta %6,5 izan ziren). Era berean, lehenengo etxebizitza eskuratu gura zuten gazteen %61ak eta etxebizitza aldatu beharra zuten familien %54k urte hartan 33.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera gordin ponderatuak jaso zituzten; beraz, laguntza ofizialak jaso zitzaizkion eta BOE baten adjudikaziodun suerta zitezkeen (2007an %61 eta %27,2).

4.4.2. Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria


Etxebizitzaren Euskal Behatokiak duela gutxiko txosten batean agerian utzi duenez, EAEn Etxebiden, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan, erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria hazi egin da 2010ean, 2006az geroztik etengabe egin duen legeaz. Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroaren arabera, EAE osoan 94.865 eskaera zenbatu zituen 2010eko hirugarren hiruhilekoan, 2009an baino %3 gehiago; horrela, grafikoan ikusten denez, 2003an eskariak lortu zuen maila gorenera itzuli zen.

Eskuragarri dauden azken datu irmoen arabera, 2009an Etxebiden erregistroan 19.134 espediente berri eman zitzaizkien alta etxebizitza babestuaren eskatzaile; kopuru hori 2004an iritsitako kopuru gorena (25.251) baino txikiagoa da, baina 2008koa (15.404 erregistro berri) baino handiagoa. 2009an erregistratutako eskari berria EAEko urte horretako etxebizitza babestuaren eskari osoaren %20 izan zen; proportzio hori aurreko urtekoa (%16,6) baino handiagoa da. Bestalde, 2009an, guztira, altak bajak baino gehiago izan dira Etxebiden erregistroan eta, horrela, lehenengoen eta bigarrenen arteko proportzioa %116 da; indize hori askoz handiagoa izan zen 2006an (%151) eta txikiagoa 2005ean (%75), urte hori baita erregistroan bajak altak gainditu zituzten bakarra. Lurraldez lurralde, etxebizitza babestuaren eskaeren arteko bajak gainditu zituzten bakarra Bizkaia izan zen (%165,3), Gipuzkoan eta Araban espedienteen bajak espediente berriak baino gehiago izan baitziren.

Etxebiden eskatzaile erregistratutako pertsonen nahiago duten etxebizitza motari dagokionez, azken urteetan baietsi denez, alokairuko etxebizitza mota guztien eskaria handitu da, batez ere azkenarena. Horrela, eskarien %56k gizarte alokairua hautatu zuten, %58k BOE bat alokatzea eskatu zuten eta %39k Bizigune programako etxebizitza bat eskatu zuten. Programa hori Etxebizitza Sailarena da eta etxebizitza hutsak mugiarazi eta baliabide urriak dituztenei alokairuan eskuratzeko errazteko sortu zen.

Bestalde, alokairuko etxebizitza bakarrik eskatzeko eskaerak 2010ean erregistratutako espediente guztien %29 izan ziren (%23 2009an); 2006an %19 baino ez ziren.

III.4.12. Grafikoa. Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestuaren eskatzaileen bilakaera




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren Behatokia.

III.4.15. Koadroa. Etxebiden erregistroko alta espedienteak lurraldez lurralde. 2009.

	Alta kop.	Eskari berriaren % bertikala	LH-etako eskari osoaren gaineko %	Alten % baje gaine
Araba	3.334	17,4	20,8	78,9
Bizkaia	10.924	57,1	23,3	165,3
Gipuzkoa	4.876	25,5	14,9	85,0
EAE guztira	19.134	100,0	20,0	115,5

Iturria: Etxebide. Eusko Jaurlaritza.

III.4.13. Grafikoa. Etxebiden erregistratutako eskaera txostenen bilakaera



Iturria: Etxebide. Eusko Jaurlaritza.

Etxebizitzaren Behatokiak agertu duenez, eskariaren joerak edukitzeko araubide aukera baterantz edo besterantz egitea gehien baldintzatzen duen aldagaia diru-sarrera maila da. Orokorrean, familiek jabetza nahiago ohi dute, baina norberaren egoera eta ekonomiaren egoera direla-eta, etxebizitza eskuratzeko finantza ahalegin txikiagoa eskatzen duten aukeretarantz jotzen dute. Horrela, diru-

III.4.16. Koadroa. Etxebiden erregistratutako pertsonen eskatutako etxebizitza mota urteko diru-sarreraren arabera (€). 2010

	Erosketa			Alokairua			Erosketa bakarrik (h %)	Alokairua bakarrik (h %)	Bata zein bestea (h %)
	Etxebizitza berria	Etxebizitza erabilia	Etxebizitza tasatuta	Soziala	BOE	Bizigune			
< 3.000	23,5	16,8	8,2	84,9	77,3	61,0	7,0	76,0	16,9
3.000-9.000	26,8	19,0	9,9	82,4	75,0	56,7	8,7	72,8	18,5
9.000-12.000	57,7	40,0	22,2	69,8	66,8	47,1	20,0	41,2	38,8
12.000-22.000	79,8	52,9	33,8	54,0	56,3	36,1	34,7	19,2	46,2
22.000-28.000	90,9	58,9	37,0	39,7	47,7	27,0	45,9	8,2	45,9
28.000-35.000	93,9	61,2	39,2	34,7	43,3	24,4	50,7	5,1	44,2
35.000-45.500	91,3	58,4	42,2	29,2	36,6	22,0	57,1	3,4	39,5
Sarrerarik frogatu gabe	26,4	19,2	10,6	84,6	71,2	60,3	8,3	73,0	18,7
Eskatzaileak guztira	70,1	46,5	29,1	56,4	57,5	38,6	32,1	28,8	39,1

Iturria: Etxebide. Eusko Jaurlaritza.

sarrerarik txikiak dituzten gehienek alokairua hautatzen dute eta, diru-sarrerak handitu ahala, balantzak jabetzaren aldera egiten du. Alokairua baino hautatzen ez duten eskaera kopuruari erreparatuz gero, proportzioa urtean 3.000 euroko sarreretara iristen ez direnen %76 eta diru-sarrera mailarik altueneko (35.000-45.000€) eskatzaileen %3ren artean mugitzen da.

Adinaren arabera, ikusten denez, eskatzailearen adina hazi ahala alokairua bakarrik eskatzen dutenen proportzioa handitzen doa, batez ere 50 urtetik gora. Salbuespen bakarra, gazteenek (25 urtetik behera) gehiago hautatzen dute alokairua (%28,3) hurrengo taldekoek baino (25 eta 29 urte artekoak, %16,1).

4.5. Etxebizitza politika

4.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

Etxebizitza, Herri Lan eta garraio Sailaren aurrekontu gastua joan den hamarkadan Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu osoaren %2,8 izan zen. 1997-2001 denboraldian, sail honek Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu gastu osoaren %2,2 izan zuen. 2002ko ekitalditik aurrera, aurrekontu mailari dagokionez egoera hau apur bat zuzendu zen; horrela, sail honen aurrekontua osokoaren %3 ingurukoa izatera iritsi da.


Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan betearazitako gastua, azken urteetan asko hazi ondoren, %5,6 murriztu zen 2010ean, 197,9 milioi eurora iritsita. Gastu hori EAEko BPGd-ren %0,3 izan zen, behin behineko datuen arabera. Tasa horrek ez du ia aldaketarik izan 2002tik. 2010ean programa honen baitan egindako inbertsioen bolumena ere erori egin da, guztira 150 milioi euro zenbatuz (2009ko kopuruaren aldean % -7,9). Edonola ere, programa honen inbertsio izaera mantendu egiten da, gauzatu diren inbertsioak gastuen % 75,8 baitira (% 88,1 batez beste 1987-2010 aldirako).

2006-2009ko Etxebizitza-plan zuzentzailearen indarraldia amaituta, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren balantzearen arabera, aldiaren azken zatian ekonomia egoera txarrak baldintzatu du, eta horrek zaildu egin du jarritako helburuak betetzea.

Planeko jarduketara ardatz estrategiko nagusietako baten xedea babestutako etxebizitza publikoa zabaltzea da, bai bolumenari bai mota ugaritasunari dagokienez. Hasitako bolumen osoari dagokionez (22.098 etxebizitza), laurteko osoan betetze maila %82koa izan da.

Planeko bigarren ardatz estrategikoaren xedea babestutako etxebizitzaren sustapenean alokairua nagusitzea zen; hasitako etxebizitza guztien %32, hots, 8.500 etxebizitza, alokairu araubidekoak izatea jarri zen helburu. Ematzei begira, alokairu araubideak ez du lortu

III.4.14. Grafikoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza programaren gastu eta inbertsioen bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitzaren Behatokia.

III.4.17. Koadroa. Eusko jaurlaritzaren etxebizitza programaren gastu likidatuaren bilakaera eta BPGd-n duen pisua.

	Etxebizitza programaren gastua		EAEko BPGd prezio arruntetan		Programaren % BPGd-n
	Milaka eurotan	% Hazk.	Milaka eurotan	% Hazk.	
2005	157,43	2,0	57.289	7,5	0,27
2006	171,56	9,0	61.761	7,8	0,28
2007	188,88	10,1	66.427	7,6	0,28
2008	198,81	5,3	67.924	2,3	0,29
2009	207,39	4,3	64.568	-4,9	0,32
2010*	197,91	-4,6	65.847	2,0	0,30

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren eta EUSTATEN datuekin egina.

(*) Behin-behineko datuak.

nahi zen hedapena: alokairu araubidean 4.936 etxebizitza hasi dira, hots, guztien %22. Erosketa araubideak, aldiz, betetze maila handiak lortu ditu. Hasitako 17.222 etxebizitzak ezarritako helburuaren %93 dira.

Planeko lehentasuneko beste jarduketak baten xedea etxebizitza hutsen parkea alokairu merkatuan jartzeko mugiaraztea zen. Zehazki, planak ezarritako helburua merkatuan 5.000 etxebizitza jartzea zen; helburu horretarako tresna Bizigune programa izan da. 2009 iterakoan, Bizigunek partikularren 4.557 etxebizitza huts zeuzkan Etxebiden erregistratuta babestutako etxebizitza eskatzen zutenei alokatuta. Etxebizitza tasatuei dagokienez, udalenen %75 bete dira, baina eraikitako autonomiakok helburuaren %5 baino ez dira izan.

Eraberritze politikei erreparatuta, ezarritako helburuak gainditu egin dira: 2009ko ekainean, Eusko Jaurlaritzak premiazko zenbait neurri hartu zituen eraikuntza sektorea berpizteko. Besteak beste, Eraberritzeko Laguntzen Plan

Bereziak eraberritzeko laguntzetarako urteko aurrekontua asko handitu zuen, eta planean hasieran ezarritako jarduketa helburua handitu zuen. Horri esker, aldi osorako 41.500 jarduketako helburutik 51.250era igaro zen. Epigrafe horretan planaren %113 bete zen.

2010eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza-plan zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetarako zuzendu da. 2010-2013 aldirako diseinatu zen eta helburua alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eta hiri zaharberritze eta eraberritze politika berria bultzatzea da, itenbide eraginkor eta iraunkorra izateko. Halaber, lurzorua kudeaketa politika aktiboa izan nahi du, etxebizitza berriaren eraikuntza sektoreari bizitasuna emateko eta lurraldeen arteko banaketa orekatuagoa lortu asmoz, hori dena etxebizitza politikaren zerbitzurako baliabideei erabilera eraginkorragoa emanaz. Agiri estrategiko berriak gogoan hartu du etxebizitza-

III.4.18 Koadroa. EAE-ko etxebizitza-plan zuzentzaileetako helburu orokorren bilakaera. Jarduketa kopurua.

Jarduketak	2000-03	2002-05	2006-09	% Δ 02-05ean
Etxebizitza sustapena	14.000	16.200	27.000	67
— Alokatzeko	6.800	7.300	8.500	16
— Saltzeko	7.200	8.900	18.500	108
Etxebizitza hutsaren alokairua	2.200	5.000	5.000	—
Babestutako etxebizitza sailkatutako lokalak	—	—	750	—
Etxebizitza erabiliak landa inguruetan erostea	—	—	500	—
BETETAKO ESKARIA	20.300	25.400	33.250	31
Hiri zaharberritze eta eraberritzea	25.000	29.000	41.500	43
Lurzorua eskuratzea	18.000	22.600	24.000	6
GUZTIRA	63.300	77.000	98.750	28

Iturria: Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.

merkatuaren egoera erabat aldatu dela: finantza krisiak eta higiezin burbuilaren eztandak oso zaildu dute kreditua eskuratzea eta horrek, ekonomia eta enplegu krisiari lotuta, oso geldiarazi du merkatua.

2010-2013ko Etxebizitza eta hiri zaharberritze plan zuzentzaileetako kalkulaturako aurrekontu kostua 1.193 milioi euro baino apur bat gehiago da. Haietatik, 644 milioi 2010 eta 2013 artean egin beharreko jarduketari dagokie eta 549 milioi etorkizunari begira (2037 arte) hartuko diren betebeharrei.

2010an gauzatutakoei dagokienez, babestutako etxebizitzaren eraikuntza handitu egin zen: zehazki, 4.966 etxebizitza hasi da, 2009an baino % 55,4 gehiago. Arrazoiak BOEek jasandako hazkundeak (% 27,8) eta gizarte etxebizitzaren (%)

III.4.19. Koadroa. 2006-2009ko etxebizitza-plan zuzentzailearen finantza baliabideak. Betetze maila. Euroak milioika.

	Aurreikus.	Gauzatzea	Betetzea (%)
Alokatzeko sustapena	375,35	216,62	57,7
Saltzeko sustapena	798,60	952,25	119,2
Zaharberritzea	39,84	26,79	67,2
Lurzorua eskuratzea	72,60	13,83	19,0
Dotazio alojamenduak	—	16,65	—
Alokatzeko eskuratzea	—	88,63	—
GUZTIRA	1.268,39	1.314,77	103,7

Iturria: Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.

829,7; 846 unitate hasi da, aurreko urtean hasitako 91en aldean) izan da. Babestutako etxebizitzaren figura berriei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuen arabera, 2010ean ez zen zuzkidura erako alojamenduen eraikuntzarik hasi eta tasatutako 364 etxebizitza hasi ziren, horietako gehienak udalekoak.

Gainera, sailak eraikitzeke lurzorua eskuratzeko egin dituen jarduketak %58 murriztu dira: 1.248 etxebizitza berri eraikitzeke lurzorua eskuratu da (2009an baino 1.723 gutxiago).

Eskaera eta eskaintza pizteko mailegu eta diru-laguntza gisa ematen diren laguntzei dagokienez, 2010ean guztira % 42,3ko erorketa antzematen da, batez ere diru-

laguntzetarako erabiltzen diren fondoak murriztu direlako (% -43,8) eta, neurri txikiagoan, maileguak ere murriztu direlako (% 7,8 erori dira). Guztira, emandako 308 milioi euroak honela banatu dira: 287 milioi maileguetarako (%93) eta 21 milioi diru-laguntzetarako (%7).

Lehenik eta behin, azken urtean emandako maileguen kopurua %38,7 murriztu da (6.536tik 4.006ra jaitsi da jarduketa edo etxebizitza terminoetan). Haien batez besteko zenbatekoa, 71.628 euro, %8,3 jaitsi da. Bestalde, diru-laguntzak %5 murriztu dira espediente kopuruan, eta esan dugu dagoeneko zenbateko osoa %7,8 jaitsi dela. Batez besteko diru-laguntza 1.062 eurokoa izan da, 2009an baino 32 gutxiago.

III.4.20. Koadroa. Etxebide planaren errealizazioak (urteko jarduketa kopurua)

	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Egiten hasi diren babestutako etxebizitzak	4.625	5.273	6.628	7.117	3.196	4.966
— Babes ofizialeko etxebizitzak	3.830	4.828	5.302	4.793	2.939	3.756
— Gizarte etxebizitzak	795	320	590	847	91	846
— Dotazio alojamenduak	—	125	361	997	0	0
— Udal etxebizitza tasatuak	—	—	1.057	480	129	350
— Etxebizitza tasatu autonomikoak	—	—	—	—	37	14
Lurzorua eskuratzea (etxebizitza kopurua)	3.890	3.625	5.483	3.751	2.971	1.248
Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko jarduketak	15.471	13.905	11.798	16.027	20.534	19.496
Erabilitako etxebizitza librea eskuratzeko laguntzak	645	31	11	44	22	24
Etxebizitza hutsa alokatzeko eta alokatzeko asmoz erosteko laguntzak (Bizigune)	889	2.619	689	800	1.186	184

Iturria: Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.

III.4.21. Koadroa. 2010-2013ko etxebizitza-plan zuzentzailearen helburuen betetze maila, etxebizitza motaren arabera, 2010ean.

Gauzatzeak etxebizitza motaren arabera	2010-13 EPZ helburua	2010 Helburua	2010 Gauzatzea	Betetzearen %
Alokairua	8.100	750	952	126,9%
ADA	3.500	100	0	0,0%
Gizarte etxebizitza alokairuan	3.700	550	795	144,5%
Alokairuan itundutako BOE	900	100	157	157,0%
Salgai	11.900	2.700	3.998	148,1%
Salgai itundutako BOE	9.000	2.300	3.650	158,7%
Alokairuko BOE erosteko aukerarekin	1.000	100	0	0,0%
Autonomiako etxebizitza tasatua	400	100	14	14,0%
Udal etxebizitza tasatua	1.500	200	334	167,0
GUZTIRA	20.000	3.450	4.950	143,5%

Iturria: Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.

4.5.2. Foru aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Horri buruz dauzkagun azken datuak 2007ko ekitaldiari buruzkoak dira. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinazioko Organoaren 2008ko "Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua" da.

Hiru foru aldundien PFEZko likidazioetan oinarrituta, ondorioztatzen da ohiko etxebizitzaren kenkarien zenbatekoa (alokairua eta inbertsioa), kuantitatiboki lehenengo kenkaria izan zirenak (kenkari guztien %22), 2007an 538,7 milioi euro izan zirela guztira, aurreko urtean baino %19,8 gehiago. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzako

Etxebizitza Programak urte horretan burututako gastu osoaren %285 da, aurreko atalean ikusi dugunez.

Kenkari horiek pisu handiagoa daukate errenta ertainetan (oinarri kitagarria) hots, 39.000 eta 49.000 euro artekoetan; haietan kenkari guztien %30 dira batez bestez. Errentaren mailak gora egin ahala, kenkarien pisuak behera egiten du: %29,4 66.000 euroekin, eta portzentaje txikiagoak errenta maila altuenetan. Lurraldez lurralde, kenkari guztien %25,6 izan zen Araban, %22,9 Bizkaian eta %18,9 Gipuzkoan.

Grafikoan ikusten denez, ohiko etxebizitza bakoitzeko kenkarien zenbatekoa etengabe hazi da azken urteotan. 1999 eta 2000. urteen artean asko handitu zen (%40,3), epigrafe honetan etxebizitza alokatzeagatik kenkariak sartzen hasi zirelako, ordura arte kenkari familiar eta pertsonalen barruan sartzen zirenak. 2007ko ekitaldian kenkari hori desagertu egin da.


III.4.22. Koadroa. EAEko etxebizitzako plan zuzentzailearen maileguak eta diru-laguntzak, helburuaren arabera.

Helburua	2009		2010	
	Etxebizitza kop.	Zenbatekoa (€ milaka)	Etxebizitza kop.	Zenbatekoa (€ milaka)
MAILEGUAK*				
Sustatzaileak	4.173	364.600	1.489	130.251
Babestuen eskuratzailerak	1.150	119.461	741	78.020
Alokatzeko eskuratzeara	166	8.238	864	34.857
Zaharberritzea	690	5.028	761	6.144
Dotazio alojamenduak	271	16.650	88	6.057
Lurzoria eta hirigintza				25.000
DIRU-LAGUNTZAK**				
Eskuratzailerak	22	49	24	80
Zaharberritzea	20.534	22.440	19.496	20.647
Diru-lag.+Maileguak	27.092	532.966	23.526	307.667
GUZTIRA	20.556	22.489	19.520	20.727


* Egindako maileguak (subrogatuak + subrogatu gabeak)

** Diru-laguntzak: Ebazpen guztiak

Iturria: Etxebizitza saila. Eusko Jaurlaritza.

III.4.15. Grafikoa. PFEZ kenkarien ehuneko banaketa errenta tartearen arabera. EAE. 2007

Iturria: Zergak Koordinatzeko Organoa.

III.4.16. Grafikoa. PFEZ-ko etxebizitzagatikoa kenkarien zenbatekoaren eta kenkari guztien gaineko pisuaren bilakaera

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Zergak Koordinatzeko Organoa.

5. Aisia eta kultura

5.1. EAE-ko biztanleriaren ohiturak denboraren gizarte erabileran

5.1.1. Komunikabideen eragina

AIMCK (Hedabideen Ikerkuntzarako Elkartea) “*Hedabideen Esparru Orokorra Espainian*” izenarekin 2010. urteari buruz egindako txostenean bildu dituen datuen arabera, hedabideen barkeratzeak¹ EAE-n joera ezberdina ageri du zinemaren eta, batez ere, interneten, eta gainontzeko hedabideen artean, lehenengo kontsumoa hazi eta besteena murriztu egin baita.

Gauzak horrela, 2010ean, telebistaren sarrera % 89,8ra iritsi zen, estatuko % 87,9ko portzentajearen gainetik eta ehuneko 2,5 puntu jaitsiz aurreko ekitaldiaren aldean. Irratiak %60,2 erregistratu du, estatuko %56,9ko batez bestekoaren gainetik eta 2,3 puntu beherantz eginez aurreko urtearekiko. Egunkarien sarrera biztanleriaren % 51,8koa da, estatuko batez bestekoa baino portzentaje altuagoa (% 38) eta ehuneko 4,8 puntu gutxiago aurreko urteko ratioaren aldean. Aldizkariak % 46,7 hartu dute, estatuko ratioaren azpitik ehuneko 3,7 puntu eta aurreko aldiaren baino 3,5 puntu gehiago. Eranskinak sarrera murriztu dute, %50,6tik 43,2ra, eta estatuko %19,2ko batez bestekoaren oso gainetik kokatuz.

Internet ez dago hain hedatuta, baina nabarmen egin du gora, haren sarrera ratioa %37,1etik %56,2ra igo baitu (azken 30 eguneko erabilera). Zinemaren sarrera %2,4tik 2,7ra igo da (zinemara asteen behi doazen pertsonak), Estatuan ez bezala, bertan %4,3tik 3,9ra jaitsi baita.

5.1.2. Biztanleen ohiturak denboraren gizarte erabileran: Aisia

EUSTATEN denbora aurrekontuei buruzko Inkestako azken datuek, 2008ari buruzkoak, erakutsi dute 2003. urtearekin alderatuta, EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleek denbora gehiago erabiltzen dutela aisialdirako eta beste pertsona batzuen zaintzarako eta gutxiago gizarte bizitzarako eta behar fisiologikoak eta zaintza pertsonalak betetzeko. Lanari edota prestakuntzari, etxeko lanei eta joan-etorriei eskainitako denbora antzekoa da.

Aipatutako inkestan aintzat hartu diren jardueren artean aisialdia sartzen da, bai aisialdi aktiboa, bai pasiboa. Aisialdi aktiboaren barruan kirol praktikak, paseoak eta txangoak, ordenagailuaren eta beste ekipamendu informatiko batzuen erabilera nahiz Interneten erabilera sartzen dira. Aisialdi pasibo gisa hedapen eta informazio bideak (irakurketa, telebista ikustea eta irrati entzutea), ezer ez egitea, emankizunetara joatea, jolasak eta arte zaletasunak kokatzen dira.

Datuek agerian uzten dutenaren arabera, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleriak 23 minutu gehiago eskaini zizkion 2008. urtean 2003. urtean baino (4 ordu eta 19 minutu, 3 ordu eta 56 minuturen aldean). Gainera, aisialdi pasiboa nahiago dute, aktiboa baino: 2008. urteko datuek erakutsi dute lehenengoari, egunero, 2 ordu eta 58 minutu eskaintzen zaizkiola batez beste, aisialdi aktiboak hartzen dituen ordubete eta hogeita bat minutuen aldean².

5.2. Kultura eta aisialdiko jardueren eskaintza EAE-n

5.2.1. Bisitarien bertaratzeko kultura ekipamenduetara

EAE derrigorrez bisitatu behar den tokietako bat bihurtzen ari da nazioarteko testuinguruan, hain zuzen ere bultzatzen ari den kultura ekipamenduen kopuru eta aniztasunagatik. Ekipamendu horiek ondare etnografiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumentalaren adierazpen eskaintza anitzaren bitartez gauzatzen dira, museo, liburutegi eta artxibo aniztasunaren eta aberastasunaren bitartez bezalaxe.

Adierazle gisa museo jarduera hartuz eta, zehazki, Lurralde Historikoetako museo nagusietako bisitari kopurua, ikusten da Guggenheim Bilbao Museoa dela oraindik erakargarritasun puntu nagusia, 2009. urtean edukitako 905.048 bisitariarekin (urte hori da informazioa eskura duen azkena). Hala eta guztiz ere, horrek %4,9ko jaitsiera suposatzen du aurreko urtearen aldean, aurreko urteko % 5,1ekoati batu zaiona.

Bigarren taldea, berriz ere, Donostiako Aquariumak, Bilboko Arte Ederren museoak eta Donostiako Zientziaren Kutxa Espazioak osatu zuten. Lehenengoak 310.541 bisitari izan zituen, eta horrek 2003an hasitako bisitari kopuruaren beherantzko joeran 2008an gertatutako haustura berretsi du, 2007 eta 2008 artean, kopuru hori %2,7 hazi baitzen, eta %12 2009an. Haren atzean, bisitari kopuruaren arabera, Bilboko Arte Ederren museoa dator, 207.978 bisitariarekin (%-6,8 2008aren aldean), eta horren atzean, Zientziaren Kutxa Espazioa. Azken honek hazkundea izan du, 2008an 112.734 bisitari izan baitzituen eta 2009an 138.264 (%+22,6).

Hirugarrenik Artiuma, Santa Maria Katedralaren Fundazioa, Chillida Leku Museoa eta Bilboko Euskal Museoa leudeke; kultura ekipamendu horiek 105.232 (%+1 aurreko urtearen aldean), 108.086 (%+4,1), 45.462 (%-25,4) eta 60.105 (%-2,8) bisitari erakartzea lortu dute, hurrenez hurren, 2009. urtean.

¹ Hedabide jakin batek eskuratu duen biztanleria portzentajea da. Hedabidearen arabera, irakurle guztiak, ikusle guztiak, entzule guztiak edo internauta guztiak izango dira.

² EUSTATEN Denbora aurrekontuen inkestako aisiari buruzko emaitzen gaineko informazio gehiagorako, irakurleak Memoria sozioekonomiko honen 2009ko ediziora jo behar luke.

III.5.1. Koadroa. Hedabideen barneratzea. EAE, Estatua eta EB (% horiz.)

	Biztan. >14 (milaka)			Egunkariak			Eranskinak			Aldizkariak					
	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010			
EAE	1.851	1.869	1.872	59,2	56,6	51,8	49,2	50,6	43,2	54,6	50,2	46,7			
Guztira Estatuan	38.261	39.462	39.435	42,1	39,8	38,0	21,7	21,9	19,2	53,3	51,3	50,4			
Andaluzia	6.554	6.929	6.932	32,8	30,5	28,1	9,8	11,2	9,3	43,0	41,2	40,8			
Aragoi	1.105	1.151	1.155	46,9	44,3	42,3	31,7	31,5	27,0	56,1	53,0	52,9			
Asturias	946	957	953	57,0	55,7	54,3	38,6	30,1	29,9	55,7	52,5	53,5			
Balear U.	880	918	918	48,6	46,7	46,3	24,9	24,7	20,0	58,5	52,5	50,4			
Kanariar U.	1.707	1.796	1.788	37,1	36,5	33,9	16,9	17,0	15,9	56,5	52,2	55,8			
Kantabria	498	508	5,9	51,3	46,8	47,5	38,9	35,2	30,8	50,6	49,1	36,9			
G. eta Leon	2.187	2.236	2.232	44,0	43,2	40,5	25,5	27,5	25,7	56,5	56,2	56,4			
G.-Mantxa	1.659	1.740	1.758	26,7	27,2	25,5	14,3	11,9	10,4	51,7	46,7	49,6			
Katalunia	6.114	6.246	6.233	45,8	43,6	42,4	20,9	22,8	15,9	58,7	58,8	53,8			
Valentziako E.	4.132	4.314	4.310	34,2	31,0	30,6	16,3	15,7	15,8	54,5	50,4	51,7			
Extremadura	923	935	935	31,2	31,9	30,9	13,4	14,0	13,0	43,4	46,3	43,5			
Galizia	2.418	2.447	2.442	49,4	48,4	46,4	26,6	30,8	27,9	50,1	51,2	49,6			
Madril	5.253	5.407	5.375	47,9	43,7	43,1	24,4	22,0	20,9	58,3	56,0	57,8			
Murtzia	1.153	1.210	1.216	32,7	32,3	27,0	13,1	16,1	15,3	50,5	49,0	48,9			
Nafarroa	515	526	531	61,5	57,8	54,4	52,5	46,2	45,0	61,4	52,3	41,1			
Errioxa	269	274	275	52,3	52,9	44,9	32,8	42,8	37,7	59,1	57,3	54,1			
	Irratia (*)			Telebista (*)			Zinea (**)			Internet (***)			Ikusitako publizitatea aurreko egunean		
	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010	2008	2009	2010
EAE	62,8	62,5	60,2	89,4	92,3	89,8	2,6	2,4	2,7	29,9	37,1	56,2	68,5	74,9	58,3
Guztira Estatuan	53,1	55,3	56,9	88,5	89,0	87,9	4,2	4,3	3,9	31,8	34,3	53,0	50,9	52,9	51,6
Andaluzia	49,3	52,6	53,2	89,7	89,4	87,8	3,3	2,9	2,9	25,0	29,8	48,5	41,9	42,8	43,9
Aragoi	57,9	58,8	59,3	91,7	91,3	90,9	3,4	3,8	3,8	29,1	36,2	54,7	41,0	41,2	46,2
Asturias	56,9	57,5	58,8	90,5	89,4	88,6	4,0	2,6	3,0	29,1	34,5	53,7	37,9	66,2	54,2
Balear U.	50,1	53,3	56,0	83,7	86,3	84,5	5,7	6,8	7,0	32,4	31,4	60,2	44,0	45,4	39,1
Kanariar U.	51,0	54,0	55,9	87,5	87,8	85,9	4,1	4,3	4,5	32,1	38,6	56,7	57,4	55,8	59,3
Kantabria	59,0	58,4	59,1	85,6	90,8	89,6	1,5	0,0	0,7	22,4	30,5	56,3	76,2	66,6	59,0
G. eta Leon	57,1	57,1	61,4	90,0	91,1	89,0	4,8	3,9	2,7	26,4	30,5	45,4	47,3	43,2	44,5
G.-Mantxa	49,9	51,6	53,3	88,8	89,1	87,0	4,1	3,9	3,4	21,7	27,9	45,0	36,8	38,0	42,4
Katalunia	52,5	56,1	57,8	87,1	87,0	85,7	5,4	5,7	4,7	36,1	40,0	59,4	49,5	52,2	50,1
Valentziako E.	50,7	52,0	55,2	89,8	89,8	89,3	4,1	5,3	5,8	27,8	32,6	52,1	61,0	62,2	57,8
Extremadura	47,5	52,2	53,0	93,3	92,2	93,0	2,6	2,9	2,9	21,4	26,4	45,9	31,2	33,3	38,2
Galizia	53,3	54,4	57,7	86,0	87,1	87,1	2,1	5,2	3,5	24,8	27,8	44,3	41,9	41,6	35,4
Madril	56,5	59,0	60,0	86,7	88,1	88,2	5,5	4,4	4,4	39,3	42,4	60,3	62,0	64,0	62,0
Murtzia	47,4	50,4	54,2	89,6	89,7	87,3	3,0	5,1	3,2	23,5	24,5	43,9	64,6	68,1	78,4
Nafarroa	63,8	61,3	58,3	90,2	90,4	89,0	4,4	5,1	5,1	27,9	35,3	52,4	52,6	55,3	67,5
Errioxa	53,7	65,4	62,6	87,2	85,4	90,3	8,1	7,9	1,8	30,2	40,5	60,9	43,4	58,7	75,7

(*) Egunean pilatutako entzuleak, (**) Astean behin gutxiene, (***) Azken 30 egunetako erabilera.

Biztanleria milaka pertsonetan.

Iturria: AIMC, Hedabideen esparru orokorra, zenbait urte.

III.5.2. Koadroa. Batez besteko gizarte denbora, aisialdiko jardura motak eta sexua. EAE

	1998			2003			2008		
	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.
Kirol praktikak	0,09	0,13	0,06	0,1	0,13	0,07	0,12	0,18	0,07
Paseoak, txangoak	1,03	1,1	0,57	1	1,04	0,57	0,55	1,02	0,49
Ordenagailu. eta informat. beste tresna batzuen erabilera	0	0	0	0,03	0,04	0,02	0,03	0,05	0,02
Interneten erabilera	0	0	0	0,04	0,06	0,02	0,1	0,14	0,07
Aisialdi aktiboa eta kirolak guztira	1,12	1,23	1,02	1,17	1,27	1,08	1,21	1,38	1,05
Irakurketa, telebista eta irratia	2,26	2,31	2,21	2,05	2,11	2	2,38	2,48	2,28
Jarduerarik gabe	0,09	0,08	0,09	0,19	0,16	0,21	0,07	0,06	0,08
Emankizunak	0,05	0,05	0,04	0,05	0,06	0,05	0,04	0,04	0,03
Jokoak	0,14	0,18	0,1	0,08	0,1	0,05	0,07	0,09	0,06
Zaletasun artistikoak eta bestelakoak	0	0	0	0,02	0,03	0,01	0,02	0,02	0,02
Aisialdi pasiboa guztira	2,54	3,03	2,45	2,39	2,46	2,33	2,58	3,1	2,48
AISIALDIA GUZTIRA	4,06			3,56			4,19		

Unitatea: Biztanleriak jardura baterako erabiltzen duen batez besteko denbora >= 16 (ordu eta minutu eguneko)

Iturria: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta.

III.5.3. Koadroa. Batez besteko gizarte denbora eguneko, jarduerako, lurraldeko, aldiko eta sexuko. EAE

	1998			2003			2008		
	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.	Guztira	Gizon.	Emak.
Behar fisiologikoak	11,34	11,3	11,37	11,5	11,51	11,48	11,41	11,43	11,38
Lana eta prestakuntza	3,21	4,16	2,26	3,23	4,14	2,35	3,23	3,6	2,49
Etxeko lanak	2,25	1,1	3,37	2,23	1,1	3,31	2,24	1,19	3,25
Zaintzak etxeko pertsonen	0,2	0,14	0,26	0,21	0,12	0,29	0,28	0,19	0,36
Gizarte bizitza	1,03	1,08	0,58	0,58	1,04	0,52	0,38	0,41	0,36
Aisialdi aktiboa eta kirolak	1,12	1,23	1,02	1,17	1,27	1,08	1,21	1,38	1,05
Aisialdi pasiboa	2,54	3,03	2,45	2,39	2,46	2,33	2,58	3,1	2,48
Joan-etorriak	1,1	1,15	1,05	1,08	1,14	1,03	1,06	1,09	1,03

Unitatea: biztanleriak jardura baterako erabiltzen duen batez besteko denbora >= 16 (ordu eta minutu eguneko, kontuan hartu minutuak batzerakoan)
Iturria: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta

III.5.4. Koadroa. Bisitariak kultura ekipamenduetara bertaratzearen bilakaera EAEn

	2005	2006	2007	2008	2009	Inc. %1998/08	Inc. %2008/09
Arabako Arte Ederren Museoa	34.473	32.568	14.513	13.443	15.917	-72,8	18,4
Artium	92.267	97.106	99.500	104.197	105.232	16,0	1,0
Eliz Museoa	32.186	37.141	37.034	32.951	:	-11,3	:
Arabako Arkeologia Museoa	22.875	23.843	15.961	8.791	61.406	-61,3	598,5
Karten Fournier Museoa	32.866	39.794	20.585				
Santa Maria Katedralaren Fundazioa	87.671	98.790	103.258	100.967	108.086	162,1	4,1
Arrantzalearen Museoa	28.878	21.896	15.105	13.610	15.900	-53,5	16,8
Bilboko Arte Ederren Museoa	142.067	144.085	164.903	223.197	207.978	87,2	-6,8
Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoa	115.235	70.124	73.455	48.242	61.502	-58,1	27,5
El Pobaleko Burdinola	13.700	13.238	13.921	15.060	15.244	13,8	1,2
Euskal Herria Museoa	18.414	12.269	10.057	9.612	8.695	-67,1	-9,5
Bilboko Euskal Museoa	41.756	54.280	37.996	60.909	45.462	18,4	-25,4
Gernikako Bakearen Museoa	19.410	25.560	35.111	24.755	26.057	27,5	5,3
Guggenheim Museoa	965.082	1.008.774	1.002.963	951.368	905.048	-26,8	-4,9
Santimamiñe koba	—	—	—	8.816	11.460	—	30,0
Agorregiko burdinola eta errotak	14.626	14.510	12.447	13.788	10.518	-8,1	-23,7
Chillida Leku Museoa	83.603	83.718	78.532	61.854	60.105	-27,1	-2,8
Donostiako Aquariuma	301.828	300.256	270.098	277.285	310.541	-29,1	12,0
Igartubeti baserria	7.197	6.148	5.765	7.176	9.665	0,4	34,7
Burdin Harana	18.450	20.522	23.979	20.718	16.497	16,8	-20,4
San Telmo Museoa	49.413	49.179	12.717	94.391	98.973	51,0	4,9
Burdinbidearen Euskal Museoa	40.017	40.857	14.813	36.175	37.980	-7,7	5,0
Itsas Museoa	12.447	10.516	9.365	13.838	11.721	-4,0	-15,3
Zientziaren Kutxa Espazioa	135.158	127.344	117.750	112.734	138.264	-45,1	22,6
Zumalakarregi Museoa	5.399	9.117	17.298	5.482	10.317	-24,8	88,2

Iturria: BASQUETOURL, Turismoaren euskal agentzia, Eusko Jaurlaritzak.

5.2.2. Biltzar eta azoka jardura

Biltzarren jardura

EAEn, 2008 eta 2009. urteen artean, egondako biltzarren jarduerak, BASQUETOURL Eusko Jaurlaritzaren Turismoaren Euskal Agentziak emandako datuen arabera, bilakaera ezberdina eduki du Lurralde Historikoen arabera. Guztira egindako bilera kopurua % 4,1 areagotu da Bizkaian eta % 1,4 eta % 20,2 murriztu Araban eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. Gauzak horrela, 1.021 bilera egin zen Bizkaian (2008. urtean baino 40 gehiago), 344 Araban (aurreko ekitaldian baino 5 gutxiago) eta 67 bilera Gipuzkoan (2008an baino 17 gutxiago).

Gipuzkoan, guztira, aurreko urtean baino %24 gehiago izan dira bertaratuak, 20.143 izatetik 24.977 izatera igaroz. Bilera gehienak bat datoz biltzarren kategoriarekin, hain zuzen ere guztien %82 hartzen dituzte eta ordezkarien

%93,9 pilatu. Jarduerari dagokionez, berriz nagusitu dira mediku-osasuneko bilerak (%29,9) eta teknologia sektorekoak (guztien %23,9).

Bizkaian egindakoen artean, toki nabarmenari eusten dion lurraldea hain zuzen, bilera gehienak (%78,4) jardunaldiak, mintegiak eta sinposiumak dira (801). Guztira 156.981 ordezkari bertaratu dira, hots, 2008an baino %18,3 gutxiago, eta emankizuneko ordezkari ratioa 154koa izan da (aurreko urtean baino 42 ordezkari gutxiago emankizuneko). Bileren jarduerari dagokionez, mediku-osasuneko sektorekoak nabarmendu dira (guztien %25,7), eta haien atzean teknologia sektorea (%24,8).


Azkenik, Araban 344 bilera egin ziren guztira, eta haietara 154.824 ordezkari bertaratu ziren (2008an baino %199,1 gehiago); batez beste, 450 ordezkari egon zen emankizuneko, %200etik gorako hazkundera.

III.5.5. Koadroa. EAE-ko biltzarren jardueraren bilakaera (2007-2009)

	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa*				Estatua 2008
	2007	2008	2009	08/09 % bar.	2007	2008	2009	08/09 % bar.	2007	2008	2009	08/09 % bar.	
BILERAK GUZTIRA	53	349	344	-1,4	1.007	981	1.021	4,1	117	84	67	-20,2	18.204
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	25	47	20	-57,4	768	712	801	12,5	48	22	5	-77,3	9.864
Biltzarrak	23	80	66	-17,5	94	93	116	24,7	56	51	55	7,8	3.363
Konbentzioak	2	1	5	400,0	145	176	104	-40,9	13	11	7	-36,4	4.977
Beste batzuk	3	222	253	14,0	..	..	..	..	..	..	..	..	..
ORDEZ. GUZTIRA	8.745	51.762	154.825	199,1	185.035	192.110	156.981	-18,3	27.169	20.143	24.977	24,0	3.356.431
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	3.695	5.133	3.590	-30,1	117.922	106.921	99.421	-7,0	8.064	3.487	632	-81,9	1.309.683
Biltzarrak	4.570	21.542	8.810	-59,1	26.856	42.873	26.293	-38,7	16.958	13.395	23.450	75,1	1.251.981
Konbentzioak	480	55	908	1.550,9	40.257	42.316	31.267	-26,1	2.147	3.261	895	-72,6	794.767
Beste batzuk	—	25.087	141.517	464,1	..	..	..	..	..	..	..	..	..
ORDEZ./EMANKIZUNA	166	148	450	204,1	184	196	154	-21,4	232	240	373	55,4	..
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	148	109	180	65,1	154	150	124	-17,3	168	159	126	-20,8	133
Biltzarrak	199	269	133	-50,6	286	461	227	-50,8	303	263	426	62,0	372
Konbentzioak	240	55	182	230,9	278	240	301	25,4	165	296	128	-56,8	160
...Bestelakoak	..	113	559	394,7	..	..	..	..	..	..	..	..	..
JARDUERA (%)													
Mediku-osasunekoa	—	—	—		20,0	19,8	25,7		28,0	26,2	29,9		21,0
Zientziaren sektorea	—	—	—		6,0	0,0	0,0		10,0	8,3	9,0		6,2
Kulturaren sektorea	—	—	—		12,0	17,0	14,1		7,0	7,2	4,5		8,4
Ekon-merkataritza sek.	—	—	—		17,0	19,4	11,4		30,0	22,6	9,0		20,0
Sektore publikoa	—	—	—		8,0	9,7	10,4		5,0	4,8	9,0		6,7
Sektore teknologikoa	—	—	—		28,0	21,6	24,8		10,0	15,5	23,9		8,0
Unibertsitatea	—	—	—		6,0	5,3	7,1		8,0	11,9	4,5		8,2
Beste batzuk	—	—	—		3,0	7,2	6,5		2,0	3,6	10,5		21,7

* Emankizun tipologiaren arabera bildu diren Gipuzkoako datuak SPAIN CONVENTION BUREAUk ezarritako irizpideak zorrozki jarraituz bildu dira.
Iturria: BASQUETOURL, Euskal turismo agentzia, Eusko Jaurlaritza.

III.5.1. Grafikoa. BEC. Bisitarien bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta BEC.

Azoken jarduera

Merkataritzako azokak eta erakusketak azken urteotan indar gehien edukitzen ari den sustapen elementuetako bat dira. Ekonomia orokorreko ikuspuntu batetik, jarduera ekonomikoaren sortzailetzat jo dira, izan ere, produktuak

barreiatu eta saltzea erraztu dute, garapen teknikoak suspertu eta nabarmendu dute eta irudi nazionala eta nazioartekoa hobetzen duten lankidetzako sinboloak ere badira. Enpresen ikuspegitik aukera paregabekoa dira, izan ere, azoken saio batean erakusmahaiak eta bisitariak zuzenean eta bitartekaririk gabe irudikatzen dute edozein merkataritza sektoreko eskaintza eta eskaria.

Azokek enpresei emandako zerbitzuak, erakusteko gaitasunagatik eta kontratazioa sustatzeko, azoketan eta horrelako saioen garapenean inbertsio handiak eginez betetzen ari den eskari garrantzitsua sortzen ari dira eta horiek jardura ekonomikoa sustatu eta bultzatzeko politikaren zati bihurtzen ari dira. Ondorioz, ia ez dago hiriburu garrantzitsurik erakusmahaien erakargarritasun aukerengatik eta hirigintzaren eta teknologiaren aldetik gorentasuna emateagatik nazioartean erreferentziako puntu bihurtu daitekeen azoka esparrurik gabe. Tradizio gehienekoa, adibidez Hannoverrekoa, Birminghamekoa, Milangoa, Madrilgoa, Bartzelonakoa eta Bilbokoa, berrikuntza, zabalkunde edo hobekuntza prozesuetan murgilduta egon dira edota daude gaur egun instalazioei dagokien horretan.

Azoka Espainiarren Elkarteak (AFE) emandako datuen arabera, BEC-Bilbao Exhibition Centrek (2004an Bilboko Nazioarteko Azokaren txanda hartu zuen proiektua) zazpigarren postua betetzen zuen 2008. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtea) Azoka Esparruen

III.5.6. Koadroa. Bilbao Exhibition Centre oinarritzko adierazleak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Erakusketak	16	19	20	24	17	21	20
Zuzeneko erakusketariak	3.323	1.978	2.551	3.555	2.354	2.253	1.936
Azalera garbia	196.811	120.865	176.720	152.699	158.436	106.141	119.596
Bisitari profesionalak	105.086	37.143	89.206	84.877	102.202	45.696	70.963
Jendea, orokorrean	899.487	891.313	1.118.166	1.127.188*	1.006.974	1.182.191	1.221.111

*Jendea, orokorrean: Arena pabiloian + BEC Konbentzioetan egindako emankizunetara bertaraten direnak biltzen ditu.
Iturria: BEC.

hurrenkeran, bertan garatutako saio kopuruaren arabera, 16 (urtebete lehenago). Aurretik Madrilgo Azoka (71), Bartzelonakoa (40) eta Valentziakoa (29), Zaragozako eta Elkek (biak 26rekin) eta Malagakoa (17rekin) izan zituen eta Balear Uharteak parean eduki zituen.

BECek azoken jardueraren bilakaerari buruz emandako datuek agerian uzten dute zuzeneko erakusketarietan, azalera garbian eta bisitari profesionalen kopuruan jazotzen aritu den bi urteko aldaketa, Makina-erreminta eta Ferroforma urte bikoitietan egitearen ondorio zuzena³. Aitzitik, ahalik eta parte-hartzaile profesional gehien erakartzeko xedez, Ferroformak data aldatu zuen, nazioarteko egutegian toki pribilegiatua betetze aldera. Gauzak horrela, Ferroformaren 17. edizioa ez zen 2006. urtean egin eta, aldiz, 2007. urtera eraman zen.

Erakundearen beraren datuen arabera, 2010ean 20 saio egin zen BECen eta gertakizun-konbentzio multzoak 70.963 bisitari profesional bildu zituen guztira (aurreko urtean baino %55,3 gehiago). Jende orokorreko 1.221.111 pertsona ere bertaratu zen.

5.3. Argitaletxeen ekoizpena

EINen "Argitaletxeen Ekoizpenaren Estatistikaren" datuen arabera, EAEk bosgarren postua zuen 2009. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtea) argitaletxeen ekoizpenaren rankingean (bi postu igo ditu aurreko urtearen aldean), 2.545 izenburu (liburuak eta liburuxkak) argitaratuta, Estatuko kopuru osoaren % 3,4. Madrilgo Erkidegoaren (23.972 izenburu, guztien % 32,2),

Kataluniaren (20.871 izenburu, guztien % 28), Andaluziaren (8.590) eta Galiziaren (3.180) atzetik dago. 2.545 izenburu horiek 2008an baino %9,5 gutxiago dira. Bestalde, 2009. urtean argitaratutako ale kopurua 4.220 milakoa izan da, aurreko urtean baino % 25,1 gutxiago. Horrek esan nahi du batez besteko inprimaketan (ale izenburu bakoitzeko) % 17,2ko beherakada egon dela, 2002tik 1658 alera.

Izenburu guztietatik 2.187 (% 86) liburuak dira eta 456 (% 14) liburuxkak. Liburuen kasuan, izenburu kopuruak beherantz egin du % 7,2an, aleen kopuruak % 27,2an beherantz egin duen bitartean. Ondorioz, batez besteko inprimaketak beherantz egiten du % 21,5ean, guztira 1.571 alera iritsi arte. Liburuxkei dagokienez, izenburuek (% -21,1) eta ale kopuruak (% -14,3) beherantz egin dute, beraz, horien batez besteko inprimaketak beherakada jasan du % 9,1ean.

EAE 2009. urtean argitaratutako liburu kopurua, Kultura Ministerioak argitaratutako ISBNren datuen arabera⁴, 4.327koa izan zen (EINeko kopurua baino altuagoa, ziurrenik azken kasu horretan ez direlako berrinprimatzeak sartzen), % 4,9ko erorketa aurreko urteko kopuruaren aldean. Beherakada horren arrazoia Gipuzkoako argitaletxeen ekoizpenean murriztapena egon izana da (%-25,1), izan ere, Bizkaian eta Araban aldakuntza tasa positiboak erregistratzen dira (% 4,2 eta 12,3 hurrenez hurren). Bizkaia eta Gipuzkoa dira oraindik argitaletxeen ekoizpen handiena erregistratzen dutenak, EAEko ekoizpen osoaren % 55,7 eta % 34,6arekin hurrenez hurren. Arabak ekoizpen osoaren % 9,8 baino ez du zenbatzen.

III.5.7. Koadroa. Argitaletxeen ekoizpenaren bilakaera EAE-n

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	Aldak. 2007-08	Aldak. 2008-09
GUZTIRA											
Izenburuak	2.338	2.329	2.553	2.485	2.460	2.360	2.767	2.813	2.545	1,7	-9,5
Aleak (milakoetan)	5.214	5.098	5.620	5.366	5.613	5.574	5.456	5.632	4.220	3,2	-25,1
Batez besteko inprimaketa	2.230,1	2.188,9	2.201,3	2.159,4	2.281,7	2.361,9	1.971,8	2.002,1	1.658,2	1,5	-17,2
LIBURUAK											
Izenburuak	2.008	2.004	2.157	2.024	2.039	1.920	2.283	2.357	2.187	3,2	-7,2
Aleak (milakoetan)	4.188	4.228	4.510	4.167	4.393	4.456	4.472	4.717	3.436	5,5	-27,2
Batez besteko inprimaketa	2.085,7	2.109,8	2.090,9	2.058,8	2.154,5	2.320,8	1.958,8	2.001,3	1.571,1	2,2	-21,5
LIBURUXKAK											
Izenburuak	330	325	378	461	421	440	484	456	358	-5,8	-21,5
Aleak (milakoetan)	1.026	870	1.110	1.199	1.220	1.117	984	915	784	-7,0	-14,3
Batez besteko inprimaketa	3.109,1	2.676,9	2.936,5	2.600,9	2.897,9	2.538,6	2.033,1	2.006,6	2.189,9	-1,3	9,1

Iturria: : EIN, Argitaletxeen ekoizpenaren estatistika.

³ 2004ko ediziotik, ohiko sektoreei indar izugarriko merkatu berriak sartu zituen, azokan euren protagonismo eske baitzetozen. Horrela, aldi berean Bricofarma, Brikolajearen azoka, burutu zen.

⁴ ISBN - INTERNATIONAL STANDARD BOOK NUMBER – argitaletxe jakin baten izenburuak zenbatu eta identifikatzeko nazioarteko sistema bat da, eta softwareari ere aplikatzen zaio. Behin identifikazioa emanda, zenbaki hori obra horri bakarrik eman ahalko zaio eta ezin izango da berrerabili.

III.5.8. Koadroa. Argitalpenaren banaketa geografikoa, inskribatutako ISBN-ak gorabehera

	2005	2006	2007	2008	2009		Aldak. %a, 2008-09
					z	%	
Andaluzia	6.328	6.307	10.933	11.678	15.439	14,0	32,2
Aragoi	1.287	1.342	1.556	1.354	1.979	1,8	46,2
Asturias	551	530	575	895	860	0,8	-3,9
Balear Uharteak	798	744	836	757	808	0,7	6,7
Kanariar Uharteak	957	985	1.738	1.000	1.314	1,2	31,4
Kantabria	356	345	445	349	400	0,4	14,6
Gaztela eta Leon	2.833	3.173	2.977	3.046	3.491	3,2	14,6
Gaztela-Mantxa	536	591	733	701	803	0,7	14,6
Katalunia	28.201	30.608	29.323	34.512	32.081	29,1	-7,0
Valentziako Erkidegoa	4.286	4.635	5.915	5.771	5.798	5,3	0,5
Extremadura	313	438	524	537	1.130	1,0	110,4
Galizia	3.044	3.229	3.396	3.690	4.069	3,7	10,3
Madril	29.647	29.429	32.432	33.230	35.496	32,2	6,8
Murtzia	658	895	736	682	591	0,5	-13,3
Nafarroa	792	973	985	1.262	1.268	1,2	0,5
EAE	3.585	3.307	3.475	4.548	4.327	3,9	-4,9
• Araba	355	336	352	405	422	0,4	4,2
• Gipuzkoa	1.632	1.127	1.167	1.998	1.497	1,4	-25,1
• Bizkaia	1.595	1.844	1.956	2.145	2.408	2,2	12,3
Errioxa	128	188	176	170	282	0,3	65,9
Ceuta	14	11	9	10	26	0,0	160,0
Melilla	21	10	6	31	43	0,0	38,7
Guztira	84.332	87.740	96.770	104.223	110.205	100,0	5,7

Iturria: ISBN.

Argitaletxeen ekoizpenaren gaian autonomia erkidegoek betetzen duten rankingean, EAEk, lehen ere esan dugun moduan eta aurreko urteko postua errepikatuz, bosgarren toki betetzen du, Kataluniaren, Madrilen, Andaluziaren eta Valentziaren atzetik. Kopuru osoan duen parte-hartzea % 3,9koa da. Gainera, tarte garrantzitsua dago lehenengo bi erkidegoen eta gainerako arteen. Gauzak horrela, Madril 35.496 izenburu argitaratu zen (kopuru osoaren % 32,2), eta Katalunian % 29,1 (32.081 izenburu).

Bestalde, Andaluzian Estatu mailako izenburu guztien % 14 argitaratu zen eta Valentziako Erkidegoan % 5,3. Argitalpenen hizkuntzari erreparatuz gero, 2009. urtean, euskaraz, Estatuan argitaratutako izenburu guztien % 1,4 argitaratu da EInen datuen arabera, hau da, 1.027 liburu eta liburuxka. Aurreko urtean erregistratu zen portzentaje berdina izan da. Horietatik % 41,7 Literatura, Historia eta Kritika literarioa kategorian argitaratu da. Garrantziari dagokionez, haren atzean datoz Natur Zientziak, %8,9;

III.5.9. Koadroa. Izenburu kopurua (liburuak eta liburuxkak) aldika eta gai kategoria gorabehera

	2006			2007			2008			2009			% aldak., eusk.	
	Guztira	Euskera		Guztira	Euskera		Guztira	Euskera		Guztira	Euskera		2007-08	2008-09
		z	%		z	%		z	%		z	%		
Testu liburuak	3.066	176	34,0	3.282	183	37,0	3.082	166	31,9	2.347	150	31,6	-9,3	-1,0
Haurrentzakoak	4.035	217	41,9	3.931	241	48,8	4.541	285	54,7	4.316	240	50,5	18,3	-1,6
Argi. ofizialak	9.639	71	13,7	9.770	70	14,2	11.619	70	13,4	9.417	85	17,9	0,0	2,1
Guztira	17.913	518	100	16.983	494	100,0	19.242	521	100,0	16.080	475	100,0	5,5	-0,9

Iturria: EIN, Argitaletxeen ekoizpenaren estatistika.

III.5.10. Koadroa. Inskribatu diren ISBN-ak argitaratze hizkuntzaren arabera

	2006	2007	2008	2009		2008-09 aldakuntza
				z	%	
Gaztelania	66.822	74.002	79.017	86.318	78,3	9,2
Kataluniera	9.335	9.615	10.750	10.526	9,6	-2,1
Euskara	1.525	1.552	2.156	2.040	1,9	-5,4
Galiziera	194	198	131	117	0,1	-10,7
Valentziera	988	1.351	1.488	1.397	1,3	-6,1
Beste hizkuntza espainiar batzuk	52	54	266	87	0,1	-67,3
Beste hizkuntza batzuk	175	204	214	211	0,2	-1,4
Eleanitzak	3.168	3.594	4.078	3.509	3,2	-14,0
Guztira	87.440	96.770	104.223	110.205	100,0	5,7

Iturria: Kultura Ministerioa, ISBN.

III.5.11. Koadroa. Argitalpena itzulpen hizkuntzen arabera*

	2006	2007	2008	2009	08-09 %
Gaztelania	3.729	4.409	3.725	3.501	-6,0
Kataluniera	691	1.049	821	662	-19,4
Euskara	96	102	100	106	6,0
Galiziera	194	198	131	117	-10,7

(*) Inskribatutako ISBNen arabera.
Iturria: Kultura Ministerioa.

Historia eta biografia, %7,1; eta Filologia, hizkuntzak eta hizkuntzalaritza, %4,9. Garrantzitsuak dira Etxeko Zientzian (%+500), Filologia eta Psikologian (%+72,2), Kudeaketa, Administrazio eta Antolakuntza (%+42,9) eta Lurraldearen egokitzapena, hirigintza eta arkitektura (%+25) egondako hazkundeak.

Gai kategorien arabera azterketak (testu liburuak, haurrentzakoak eta argitalpen ofizialak) agerian uzten du euskaraz argitaratutako liburu kopuruan murriztapena egon dela (% -1), aurreko aldiko % 9,3ko beherakadari pilatzen zaiona. Haurrentzako liburuek ere beherantz egiten dute (% -1,6), aurreko urtean ezagututako hazkundearen aldean (% +18,3). Bestalde, euskarazko argitalpen ofizialek % 2,1 egin dute gora.

ISBNaren arabera, Estatu espainiarrean argitaratu diren izenburuetatik %78,3 gazteleraz izan ziren, %9,6 katalunieraz, %1,9 euskaraz eta %1,3 valentzieraz.

Euskarazko argitalpenak %5,4 murriztu dira 2008 eta 2009 artean. Aitzitik, kopuru osoaren gainean duen pisua areagotu egin da, %1,7tik %1,9a igarotzeagatik.

Bestalde, beste hizkuntza batzuetara itzultzen den euskarazko izenburu kopurua, bai liburuena, bai liburuxkena, areagotu egin da 27ra iritsi arte, hain zuzen ere aurreko urtean jazotako beherakada eta gero. Aurrekoen zati handi batek literatura gaiak izan ditu izendatzaile komun bezala. Gauzak horrela, Literatura, Historia eta Kritika itzultitako izenburuen % 70,3 dira, 19 izenbururekin. Bigarrenik, Natur Zientziekin zerikusia duten izenburuak daude.

Azkenik, euskarara itzuli den izenburu kopurua, ISBNaren datuen arabera, % 6 hazi da. Gauzak horrela, 2009. urtean, 106 izenburu argitaratu zen euskara itzultita. Horrela, euskarara egindako itzulpenak gaztelerara, katalunierara eta galizierara egindakoen atzetik kokatzen dira. Valentzierari buruzko informaziorik ez dago.

5.4. Finantziarioa eta gastu publikoa kulturaren

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisuaren zenbatespena zeharkako iturrien bitartez egiten da, aurreko urteetan bezala. Zehazki, Kultura Ministerioak argitaratzen duen "Estatistika Kulturaren Urtekariaren" bitartez⁵.

Urtekari horrek Estatuko Administrazio Orokorra, Administrazio Autonomikoak eta Tokiko Administrazioak

III.5.12. Koadroa. Administrazio Autonomikoen kulturaren likidatu duten gastua, Autonomia Erkidegoen arabera

	Balio absolutuak (milioi €-tan)		Estatuan, kulturaren, likidatu den gastuaren %		Autonomia Erkidegoek guztira likidatutako gastuaren %			BPGaren %			Batez besteko gastua biztanle bakoitzeko (€)		
	2007	2008	2007	2008	2006	2007	2008	2006	2007	2008	2006	2007	2008
Estatua Guztira	1.976,4	2.129,0	100	100	1,21	1,22	1,21	0,18	0,19	0,20	41,3	44,4	47,0
Andaluzia	299,7	309,4	15,2	14,6	0,97	1,0	0,93	0,19	0,2	0,21	33,8	37,9	38,5
Aragoi	48,4	50,6	2,4	1,4	1,00	1,0	0,95	0,15	0,2	0,15	36,9	37,9	39,0
Asturias	41,1	71,6	2,1	3,4	1,38	1,0	1,72	0,25	0,2	0,30	48,9	38,9	67,6
Balear Uharteak	19,0	17,8	1,0	0,8	0,49	0,6	0,49	0,06	0,1	0,07	14,7	18,7	17,0
Kanariar Uharteak	53,8	63,2	2,7	3,0	0,73	0,8	0,84	0,12	0,1	0,15	23,5	26,6	30,9
Kantabria	31,3	33,6	1,6	1,6	1,36	1,5	1,41	0,23	0,2	0,24	49,8	55,5	59,0
Gaztela eta Leon	138,7	146,6	7,0	6,9	1,42	1,4	1,45	0,25	0,3	0,25	53,6	55,8	58,6
Gaztela-Mantxa	88,0	103,2	4,4	4,8	1,00	1,1	1,14	0,23	0,3	0,28	41,4	45,6	52,2
Katalunia	388,3	400,6	19,6	18,8	1,27	1,4	1,30	0,18	0,2	0,20	46,7	54,8	55,3
Valentziako E.	178,0	181,6	9,0	8,5	1,15	1,4	1,29	0,15	0,2	0,17	30,0	37,4	37,1
Extremadura	66,4	75,8	3,4	3,6	1,39	1,4	1,44	0,38	0,4	0,42	57,7	61,8	70,2
Galizia	138,9	167,7	7,0	7,9	1,40	1,3	1,42	0,28	0,3	0,30	52,8	51,0	61,3
Madril	214,5	190,5	10,9	8,9	1,23	1,2	1,04	0,12	0,1	0,10	34,3	35,4	30,8
Murtzia	71,5	99,7	3,6	4,7	2,17	1,7	2,01	0,32	0,3	0,36	61,4	52,1	70,6
Nafarroa	64,1	70,0	3,2	3,3	2,03	1,5	1,59	0,46	0,4	0,38	127,5	107,5	115,4
EAE	108,0	112,3	5,5	5,3	1,20	1,3	1,21	0,15	0,2	0,16	44,2	50,8	52,5
Errioxa	15,0	17,7	0,8	0,8	1,19	1,2	1,39	0,19	0,2	0,22	45,0	48,9	56,8
Ceuta	7,0	10,2	0,3	0,5	2,91	3,3	4,37	0,40	0,4	0,63	82,2	96,2	141,6
Melilla	5,0	6,4	0,3	0,3	2,85	2,5	3,05	0,38	0,4	0,43	77,3	74,6	91,6

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzario eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kultura, Estatistika Kulturaren Urtekaria.

⁵ Ikerketa honen esparruan sartutako kultura sektoreak hauek dira: Kultura ondasun eta zerbitzuak (monumentuak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, agiritegiak eta liburutegiak), arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza, antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoa eta grabatutako musika), diziplina artekoa (kultura sustapena eta barreiapena, administrazio eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza politika).

(Tokiko Erakundeak: Udalak eta Aldundiak, Kontseiluak edo Kabiloak eta mendeko erakunde autonomoak) kulturaren esparruan egindako gastu publikoari eta erabilitako finantzazioari buruzko kapitulu bat jasotzen du. Estatuko Administrazio Orokorrari buruzko datuak ez dira Autonomia Erkidegoka xehatzen, bai, ordea, beste bien datuak. Datu hauek aurkeztu aurretik, bi ohartarazpen egitea besterik ez da falta: batetik, aintzat hartu behar da Urtekariako ohar metodologikoen argitu egiten dutela Autonomia Erkidegoen eskatutako informazio guztia eman ez dutenean egokitzen jotako zenbatespenak egin direla. Bestetik, argitalpenak berak ohartarazi egiten du ezinezkoa dela iturri ezberdinetako datuak bateratzea Autonomia Erkidegokako informazio orokorra emateko. Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak Kulturako Gastu Publikotzat jo du honakoa: *“kulturari zuzendutako gastu likidatua, administrazio publiko ezberdinek aitortutako betebeharren fasean; ondorioz, finantzazioa egiten duenaren izaera da, eta ez hartzailearena, gastuaren izaera publikoa edo pribatua finkatzen duena”*. Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek, kultura erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, eta abarregatik eduki ditzaketen zerga aringarriak ere ez dira gastu gisa sartzen. Euskal Autonomia Erkidegoak, 2008an, kulturaren likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuEN ARABERA, 112,2 milioi eurokoa izan zen, 2007an baino 4,3 milioi gehiago. Horrek esan nahi du %4ko hazkuntza dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoen, 2007an, kulturaren likidatu zuten gastu osoaren %5,3 hartu du (%5,5 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte

horretan egindako gastu osoaren %1,21 (%1,26 aurreko urtean). Gainera, gure Erkidegoko BPGaren %0,16 da, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren —%0,20— azpitik. Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 50,5 eurora iritsi zen 2008an, 2007an baino 1,7€ gehiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (47€).

Gastuaren xedeari begiratuta, EAEn, 12,2 milioi euroen %26,8, 2008an, kultura ondasun eta zerbitzuetan erabili zen (%29 aurreko urtean); %13,3 arte plastiko, eszeniko eta musikaletan; %7,6 liburu eta ikus-entzunezkoetan; eta ez dago informaziorik gainontzeko %52,3ri buruz. Autonomia erkidego guztien artean, kultura ondasun eta zerbitzuetan %38,6 erabiltzen da (%39,6 aurreko urtean); arte plastiko, eszeniko eta musikaletan %23,4; eta liburu eta ikus-entzunezkoetan %5,8.

Gastuaren izaera ekonomikoari helduz gero, %79,2 gastu korranteak dira (Estatuko batez bestekoaren %56,6aren aldean), %17 kapital gastuak (%41,6 Estatu osoan) eta gainerako %3,7 Aktibo eta Pasibo Finantzarioen kontusailean sartzen da (%1,7 Estatuan).

Bestalde, Urtekariak EAEn “Tokiko Administrazio” gisa katalogatzen duenak likidatutako kulturako gastua aurkeztu du; 2008. urterako 398,3 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino %7,1 gehiago. EAEko Tokiko Administrazioaren barruan, 289,2 milioi euro udalei dagozkie (kopuru osoaren %72,6) eta 106,7 milioi Foru Aldundiei⁶. Gastuaren xedeari dagokionez, %90,7 kultura sustatu eta barreiatzeko erabili da eta gainerakoa Arkeologiarako eta Ondare Historiko Artistikoa Babesteko.

III.5.13. Koadroa. Tokiko administrazioen kulturaren likidatu duten gastua, erakunde mota eta xedearen arabera. Milioi eurotan

	Gastua erakunde motaren arabera						Gastua xedearen arabera					
	Toki Erakundeak		Udalak		Aldundiak, kontseiluak eta kabiloak		Guztira		Kultura sustatu eta hedatzea		Arkeologia eta ondare historiko artistikoa babestea	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Guztira Estatuan	3.623.324	3.906.526	3.076.067	3.214.886	624.611	668.663	3.623.324	3.906.526	3.284.871	3.576.197	338.453	330.329
Andaluzia	501.146	519.985	454.505	448.600	60.931	70.058	501.146	519.985	465.678	474.487	35.468	45.498
Aragoi	108.524	132.095	85.198	92.150	26.211	32.515	108.524	132.095	96.684	119.325	11.839	12.769
Asturias	69.503	77.341	69.503	77.185			69.503	77.341	63.729	74.854	5.774	2.487
Balear U.	102.182	108.653	68.406	75.701	35.378	32.952	102.182	108.653	91.786	95.553	10.396	13.100
Kanariar U.	228.331	287.677	120.011	168.061	112.441	119.616	228.331	287.677	201.810	263.374	26.521	24.304
Kantabria	29.934	26.998	29.943	26.998			29.934	26.998	26.855	25.156	3.079	1.842
Gaztela eta Leon	191.088	240.475	163.141	203.549	31.618	36.724	191.088	240.475	183.340	213.663	7.748	26.812
G.-Mantxa	147.108	145.593	126.902	123.026	22.602	22.406	147.108	145.593	138.997	137.329	8.111	8.264
Katalunia	662.100	736.031	574.041	600.507	113.126	126.540	662.100	736.031	605.156	677.717	56.944	58.314
Valentziako E.	395.757	388.262	340.884	319.999	64.146	67.894	395.757	388.262	334.665	326.680	61.093	61.583
Extremadura	58.460	65.670	42.690	50.727	17.185	14.312	58.460	65.670	54.478	58.925	3.982	6.745
Galizia	157.345	201.947	122.087	162.924	40.412	38.929	157.345	201.947	142.416	182.332	14.929	19.615
Madril	430.947	421.117	430.949	421.049			430.947	421.117	402.607	417.957	28.339	3.160
Murtzia	105.458	90.462	105.461	90.462			105.458	90.462	98.691	83.417	6.768	7.045
Nafarroa	43.023	46.403	43.098	45.149			43.023	46.403	43.023	46.403	0	0
EAE	371.802	398.252	278.622	289.235	100.560	106.717	371.802	398.252	315.399	361.338	56.403	36.914
Errioxa	20.615	19.565	20.626	19.565			20.615	19.565	19.556	17.686	1.059	1.879

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzazio eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kulturaren, Estatistika Kulturaren Urtekaria.

⁶ Ikus daitekeen moduan, Administrazioaren bi mailen batura ez dator bat “Tokiko Erakunde” gastu osoarekin. Arrazoiak datu bateratuak izatea da.

5.5. Etheen gastua kultura kontsumoan

Kultura Ministerioaren datuen arabera, euskal etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu,a 2008. urtean, 833,6 milioi eurokoa izan zen, 2007an baino 9 milioi

euro gutxiago. Horrek %1,1eko murriztapena ekarri zuen. Gastu honek EAEko ondasun eta zerbitzuetan erabilitako kopuru osoaren %2,9 hartu du, Autonomia Erkidego guztien batez bestekoaren —% 3,1— 2 hamarren azpitik.

III.5.14. Koadroa. Etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, Autonomia Erkidegoen arabera

	Balio absolutua (milioi €-tan)		Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu osoaren % (milioi €-tan)		Batez bestekoa etxe bakoitzeko (eurotan)		Batez bestekoa pertsona bakoitzeko (eurotan)	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Estatua Guztira	16.612,5	16.694,6	3,2	3,1	1.020,4	997,2	372,2	368,3
Andaluzia	2.374,8	2.555,5	2,9	3,0	870,3	904,1	298,6	316,6
Aragoi	451,0	464,0	3,1	3,0	913,2	920,4	354,0	358,6
Asturias	387,7	435,1	3,3	3,4	947,3	1.049,0	368,6	413,4
Balear Uharteak	435,8	417,3	3,2	3,1	1.127,5	1.137,9	425,3	396,1
Kanariar Uharteak	752,2	709,5	3,6	3,4	1.069,8	971,7	373,9	345,6
Kantabria	214,2	201,8	3,3	3,1	1.053,5	988,4	380,4	354,4
Gaztela eta Leon	795,9	794,3	2,9	2,8	833,2	823,7	322,9	320,6
Gaztela-Mantxa	506,9	553,1	2,6	2,8	742,3	777,7	261,3	278,2
Katalunia	3.383,1	3.233,7	3,7	3,4	1.262,5	1.173,7	474,7	447,3
Valentziako E.	1.897,0	1.820,0	3,4	3,3	1.044,6	970,1	394,5	369,2
Extremadura	249,1	235,5	2,5	2,4	652,1	606,9	233,0	219,6
Galizia	802,8	815,9	2,8	2,7	832,5	820,4	295,8	299,6
Madril	2.797,7	2.871,2	3,4	3,4	1.279,1	1.276,5	459,5	462,0
Murtzia	358,6	373,0	2,4	2,5	759,0	764,5	258,6	261,9
Nafarroa	242,8	244,8	3,1	3,0	1.069,7	1.072,1	409,2	406,2
EAE	842,6	833,6	3,0	2,9	1.016,4	989,8	398,6	393,0
Errioxa	85,1	103,1	2,5	3,0	728,3	868,3	277,6	331,4
Ceuta eta Melilla	35,3	33,3	2,7	2,6	825,2	762,6	254,3	237,3

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzazio eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kulturean, Estatistika Kulturaren Urtekaria..

III.5.15. Koadroa. Etxeek egindako gastua kultura ondasun eta zerbitzuetan, gastu taldearen arabera, Autonomia Erkidegoen arabera (Eurotan)

	Batez besteko gastua pertsona bakoitzeko										Batez best. gastua etxe bakoitz.		
	Guztira (euroak)		Liburuak eta aldizkako argitalpenak		Kultura zerbitzuak (emankizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk hartzen ditu)		Informazioa tratatzeke ikus-entzunezko ekipoak eta osagaiak		Bestelako ondasun eta zerbitzuak		Kultura zerbitzuak (2008. urtea)		
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	Guztira	Emanki- zunak	Beste batzuk
Estatua Guztira	372,2	368,3	72,1	71,6	111,4	107,3	151,4	159,6	37,2	29,8	290,6	110,3	180,3
Andaluzia	298,6	316,6	51,9	53,7	83,9	89,0	133,3	145,2	29,5	28,6	254,2	95,2	159,0
Aragoi	354,0	358,6	78,4	82,4	95,7	85,7	139,2	156,1	40,6	34,5	219,9	77,7	142,2
Asturias	368,6	413,4	88,6	82,4	98,5	109,3	144,1	173,6	37,3	48,1	277,3	63,1	214,2
Balear Uharteak	425,3	396,1	83,9	67,8	124,7	115,1	184,1	175,8	32,7	37,4	301,5	117,4	184,1
Kanariar Uharteak	373,9	345,6	62,1	47,5	104,7	101,9	168,2	170,9	38,9	25,2	286,6	81,9	204,8
Kantabria	380,4	354,4	95,8	82,8	112,7	97,7	149,9	147,9	22,1	26,0	272,6	83,7	188,9
Gaztela eta Leon	322,9	320,6	71,5	72,1	87,4	82,6	128,0	137,7	36,0	28,2	212,2	93,3	118,9
Gaztela-Mantxa	261,3	278,2	49,3	47,8	72,7	93,5	104,2	112,1	35,1	24,8	261,2	93,7	167,5
Katalunia	474,7	447,3	74,5	80,2	161,1	126,1	187,9	203,7	51,2	37,3	331,0	144,9	186,1
Valentziako e.	394,5	369,2	63,6	59,3	131,2	122,9	164,9	161,0	34,9	26,0	323,0	109,2	213,8
Extremadura	233,0	219,6	36,0	36,3	53,3	56,5	110,6	111,8	33,1	15,0	156,2	55,6	100,6
Galizia	295,8	299,6	79,0	66,5	79,8	83,8	114,1	126,1	22,9	23,3	229,3	65,8	163,5
Madril	459,5	462,0	94,2	103,2	141,9	141,5	177,3	184,0	46,1	33,3	391,1	152,0	239,0
Murtzia	258,6	261,9	45,9	56,0	78,6	84,0	103,6	100,8	30,5	21,0	245,4	105,3	140,1
Nafarroa	409,2	406,2	113,5	97,4	117,7	134,5	143,1	147,2	34,9	27,1	355,0	161,7	193,3
EAE	398,6	393,0	121,0	108,1	93,3	105,5	151,2	152,0	33,2	27,5	265,6	111,7	153,9
Errioxa	277,6	331,4	60,9	72,1	70,9	83,3	119,2	144,9	26,7	31,1	218,3	101,9	116,5
Ceuta eta Melilla	254,3	237,3	51,0	32,1	58,8	55,8	120,5	133,5	:	:	179,3	84,2	95,1
Melilla	5,0	6,4	0,3	0,3	2,85	2,5	3,05	0,38	0,4	0,43	77,3	74,6	91,6

Iturria: Kultura Ministerioa, Finantzazio eta Gastu Publikoaren Estatistikak Kulturean, Estatistika Kulturaren Urtekaria

Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Asturias, Katalunia, Kanariar Uharteak eta Madril dira (%3,4 guztietan).

Etxe bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE, 2008an, seigarren tokian dago rankingean, 989,8 euroekin; haren aurretik daude Madril (1.276,5€), Katalunia (1.173,7€), Nafarroa (1.072,1€), Asturias (1.049,0€) eta Balear Uharteak (1.037,9€). Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 393 eurora iritsi zen 2008an, 2006an baino 5,6€ gutxiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino %6,7 gehiago da, eta EAE gehien gastatzen duen seigarren erkidegoa bihurtu du, Madrilen (462€), Kataluniaren (447,3€), Asturiasen (413,4€), Nafarroaren (406,2€) eta Balear Uharten (396,1€) atzetik.

EAEko gastu motari begiratuaz gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banako ekipo eta osagaiak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 393 euroetatik %27,5 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2008an, %26,8 kultura zerbitzuetarako, %38,7 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipo eta osagaietarako eta

%7 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatuko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Gauzak horrela, Estatu osoan EAEn baino gutxiago gastatzen da liburuetan eta aldizkako argitalpenetan (%19,4) eta, aldiz, gehiago kultura zerbitzuetan (%29,1) eta informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipo eta osagaietan (%43,3).

Kultura zerbitzuetan egindako gastuaren barruan sartzen da emankizunetan egindako gastua. Azken hori neurtu ahal izateko, Urtekariak etxe bakoitzeko kultura zerbitzuetan egindako batez besteko gastuari buruzko informazioa ematen du (eta ez pertsona bakoitzeko egindakoa). Kultura zerbitzuetan egindako gastu horiek 265,6 eurora iristen dira EAEn, Estatuko batez bestekoa 290,6 eurokoa den bitartean. EAEn etxe bakoitzak emankizunetan 111,7 euro gastatu ditu 2008an, aurreko urtean baino %9,4 gehiago. Estatu mailan, emankizunetan egindako gastua etxe bakoitzeko altuagoa da, 110,3 eurokoa hain zuzen. Emankizunetan etxe bakoitzeko gehien gastatzen duten autonomia erkidegoak Nafarroa (161,7€), Madril (152€), Katalunia (144,9€) eta Balear Uharteak (117,4€) dira.

6. Pobrezia eta gizarte bazterkeria

Gizarte bazterkeriaren arazoa egungo gizarteetan jazotzen ari den egoera bat da. Erakundeek eta ikertzaileek urte askotan erabili duten “pobrezia” kontzeptuak ez ditu barne hartzen guztiz gizarte bazterkeriaren egoera eta horrek dakartzan dinamikak. Horregatik, azken bi hamarkadetan adostasun handia dago gizarte arloko ikertzaileen eta kudeatzaileen artean, pobrezia-aren kategoria “gizarte bazterkeria” kategoriara zergatik zabaldu den azaltzean: pobrezia ekonomikoaren ideia hertsia gainditu delako, eta, batez ere, egungo gizarteetan aldaketa sakonak jazo direlako, aurrerapen teknologikoek, bizimodu aldaketek eta bidean diren gizarte arloko aldaketek eraginda.

Honako tesi hau oso hedatua dago: aurreko hazkunde ekonomikoaren urteek ez dituzte herrialde aberatsetako herritarren errenten desberdintasunak leundu, ezta pobrezia tasak murriztu ere. Aitzitik, horietako gehienetan desberdintasuna eta pobrezia ugartu egin dira, gutxi bada ere, faktore demografiko, ekonomikoengatik eta, batez ere, politikoengatik. Hori ELGEk¹ berriki egindako txostenaren ondorioa ere bada. Bertan, joera horietan gizarte eta politika eragileek duten jarduteko gaitasuna azpimarratzen da, hain zuzen, birbanatzeko politikak indartuta —alegia, selektiboagoak eginez— eta herritarrei lan merkatuan sartzen lagunduta.

2009. urtean, Europar Batasunean 81 milioi herritar, alegia, guztizkoaren %16,3, pobrezia-arriskuan zegoen eta %8,4k lana izan arren egoera hori pairatu zuen. Gai horri buruz 2009. urtean egindako eurobarometro monografikoari jarraiki, europarrek pobrezia ulertzeko zenbait modu dituzte: europarren laurden baten ustez (%24), pertsonak pobreak dira euren baliabideak mugatuak direnean, hau da, bizi diren gizarteetan behar bezala parte hartu ezin dutenean. %22ren iritziz, ordea, pobrezia bizitzeko behar diren funtsezko ondasunak ezin edukitzea da; halaber, %21ek pobrezia karitatearen edo laguntza publikoen mendeotasunarekin lotzen du. Kontuan hartu beharreko gutxiengoak (%18) uste du pertsonak pobreak direla pobrezia-aren ezaugarritzat jotzen direnak baino hileko baliabide gutxiago dituztenean. Horrez gain, %84k uste du pobrezia ugartu egin dela azken hiru urteetan bere herrialdean eta erdiak baino gehiagok “modu nabarmenean” jazo dela.

Egoera horren aurrean, Europako erakundeek “Pobrezia-aren eta gizarte bazterkeriaren kontrako Europako Urtea” izendatu zuten 2010. urtea, gertaeraz ohartarazteko eta

konponbideak biltzeko ahaleginak bateratzeko xedeaz. Hauexek izan ziren Europar Urterako helburu zehatzak:

- Pertsona guztiek duintasunez bizitzeko eta gizartearen parte hartzeko duten eskubidea aintzatestea, eta batez ere pobrezia eta bazterkeria jasaten dutenek.
- Erantzukizun eta partaidetza partekatuak, banakoek eta taldeek pobrezia-aren eta gizarte bazterkeriaren kontra duten erantzukizuna azpimarratuz.
- Kohesioa sustatzea, pobrezia errotik desagerrarazteak eta gizarteratze handiagoak gizarte osoarentzat dakartzaten onurak azpimarratuz.
- Lankidetzak bultzatzea administrazio maila guztiguztietan, zertarako-eta pobrezia eta bazterkeria errotik desagerrarazteko ekintza zehatzak abiarazteko.

Urtea amaitutakoan, EBko² Kontseilua pozik azaldu da, zeren eta ekimenari esker maiz gutxietsitako edo gaizki ulertutako errealitatea argitzeko balio izan baitu munduko eskualderik aberatsenetako batean, baita maila guztietako erakundeak eta gizarte eragile guztiak mobilizatzeko ere. Emandako bultzada dela-eta, lehen aldiz ezarri da partekaturiko helburu bat, hau da, Estatukideen eta Batasunaren jarduketa bideratuko duena gizarte bazterkeriaren eta pobrezia-aren kontrako borrokaren arloan: 2020³ baino lehen gutxienez 20 milioi europar pobrezia-aren eta gizarte bazterkeriaren arriskutik urruntzeko helburua “Europa” Estrategian sartzea (egoera horretan dauden 113 milioi europarretatik 20 milioi).

Jarraian, EAEko pobrezia-aren egoerari buruz eta gizarte bazterkeriaren arazoari buruz egindako deskribapen laburra egingo da, 2009ko EInko “Bizi-baldintzen inkesta” eta Eusko Jaurlaritzako “Pobrezia-aren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta 2008” izeneko datuak oinarri hartuta. Emaitzak diruzko eta ez diruzko terminoetan gure erkidegoko herritarrei eragiten dieten zenbait ongizate arazo neurtzen dituzte, hain zuzen estatuko eta Europako beste herrialde batzuen egoerarekin lotuta.

6.1. Pobrezia eta gizarte desberdintasunen 2008ko inkestaren emaitzak: pobrezia eta kolokatasunak lurraldean duten eragina

Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin Pobrezia-aren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta (PGDI) egiten du. Horren bidez pobrezia-aren gure gizarteetan daukan eraginaren, pobrezia-aren eragiten dioten arrisku faktoreen eta banaketa geografiko desberdinen berri ematen da. EAEko

¹ “Growing unequal” Income distribution and poverty in OECD countries” (2008) izeneko txostenak ELGEko 30 herrialdeak aztertzen ditu eta agerian jarri du diru-sarreraren inguruko desberdintasuna handitu egin dela 70. hamarkadatik aurrera eta hazkunde horrek herrialde ia guztiei eragin diela. Adibidez, berriki Kanadan eta Alemanian hazkunde nabarmenak jazo dira, beste herrialde batzuetan, aldiz, hala nola, Mexiko, Grezia eta Erresuma Batua murrizketak jazo dira.

² Europar Batasunaren Kontseiluaren Adierazpena, Pobrezia-aren eta Gizarte Bazterkeriaren Kontrako Europako Urteari buruzkoa. “Elkarrekin lan egitea pobrezia-aren kontra 2010ean eta ondoren” (2010/C 333/06).

³ “Europa Estrategia 2020” delakoaren ondorioetarako, pertsona bat pobrezia eta gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dago langabezi arazoak dituzten famili unitate batekoa bada, pobrezia arriskuan badago gizarte transferentzien ondotik edo gauzak baliatzeko muga larriak baditu (ikus kapitulu honetako 5.2. atala).

III.6.1. Koadroa. Pobrezia bizitzeko edo gizartean baztertuak izateko arriskua duten europarrak, "Europa estrategia 2020" delakoaren irizpideen arabera


	Ehunekoak		Absolutuak (milioiak)	
	2006	2009	2006	2009
EB 27	25,0	23,1	122,7	113,8
Belgika	21,5	20,2	2,2	2,1
Bulgaria	61,3	46,2	4,7	3,5
Txekiar Errep.	18,0	15,3	1,8	1,4
Danimarka	16,7	16,3	0,9	0,9
Alemania	20,2	20,0	16,4	16,2
Estonia	22,0	23,4	0,3	0,3
Irlanda	23,3	23,7	0,9	1,2
Grezia	29,3	28,1	3,1	3,0
Espainia	23,3	23,4	10,2	10,7
Frantzia	18,8	18,4	11,2	11,2
Italia	25,9	25,3	15,3	14,8
Zipre	25,4	22,2	0,2	0,2
Letonia	41,4	37,4	0,9	0,8
Lituania	35,9	29,5	1,2	1,0
Luxenburgo	16,5	17,8	0,07	0,09
Hungaria	31,4	29,9	3,1	3,0
Malta	19,0	20,2	0,08	0,08
Herbehereak	16,0	15,1	2,6	2,5
Austria	17,8	17,0	1,5	1,4
Polonia	39,5	27,8	14,9	10,5
Portugal	25,0	24,9	2,6	2,6
Errumania	..	43,1	..	9,1
Eslovenia	17,1	17,1	0,3	0,3
Eslovakia	26,7	19,6	1,4	1,1
Finlandia	17,2	16,9	0,9	0,9
Suedia	16,3	15,9	1,5	1,5
Erresuma Batua	23,7	22,0	14,1	13,4

Iturria: EUROSTAT-en datuekin eginikoa.

pobreziaren eragina neurtzeko aukeratutako adierazlearen arabera da. Inkestak bi dimentsio erabiltzen ditu: alde batetik, metatze pobrezia eta, bestetik, mantentze pobrezia eta bigarren horren barruan pobreziaren arrisku-egoerak eta ongizaterik ezaren arrisku-egoerak.

- Metatze pobreziatzen honako hau hartzen da: epe luzean behar bezalako maila izateko eta oinarritzko zenbait ondare baliabide metatzeko behar diren oinarritzko ondasunak eskuratzeko familien ezintasuna.
- Mantentzearen dimentsioari dagokionez, pobreziaren arrisku-egoerak honako hauek dira: premia funtsezkoen erantzuna emateko nahikoa diru-sarrerarik ez edukitzea (janaria, etxebizitza, arropa eta oinetakoak), ongizaterik ezaren arriskua, berriz, gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko mailak mantentzeko behar diren gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikoak ez izatearekin lotzen da. Azken adierazle hori pobrezia erlatiboaren tasei edo EBko diru-sarrera baxuei parekagarria da. Tasok aurreko atalean adierazitako familiako diru-sarrera ertainen %60ko tarteari jarraiki ezarri dira ("pobreziaren tartea" izenekoa),

III.6.1. Grafikoa. Mantentze-eta metatze-pobreziaren arriskuiko egoerak EAEn. 2008. Ehuneko datuak



Iturria: PGDI 2008

autonomia erkidegoen arabera datuekin, hain zuzen, bizi-baldintzen inkesta oinarri hartuta.

Halaber, 2008ko PGDIk pobreziari buruzko kontzeptu berria sartu du, benetako pobrezia-adierazle objektiboa eta doituak, arrisku-egoeren multzoak epe luzera izango duen eraginaren gaineko azterketari hobeto egokitu zaiona, hain zuzen ere lehenago aintzat harturiko bi dimentsioei egokituriko eragin osoa bilduko lukeena. Azterketaren xedeko hutsuneak osotasunean aintzat hartuta, 2008ko PGDIren ustez, EHAEko 39.737 etxetan pairatzen zuten aintzat harturiko egoeretako bat 2008. urtean (mantentze edo metatze pobrezia), guztizkoaren %5ek. Ukituriko banakoak, guztira⁴, 100.250, guztizko biztanleriaren %4,7 dira. Ratio hori %3,2ra murrizten da benetako pobreziaren tasa aintzat hartzen badugu.

"1984-2008. Euskadiko pobrezia 25 urtez aztertzea" txostenean, Eusko Jaurlaritzak, 2008rako Inkestaren emaitza handiak aurkezteaz gain, intereseko zenbait arlotako zatikako beste azterketa mota bat egiten du. Gizarte-ekonomiako memoriaren edizio honetan, pobreziak eta kolokatasunak lurraldean duten eragina izango da gure aztergaiaren ardatza (erabateko ongizaterik ezari deritzo kolokatasuna), baita denboran duen bilakaera ere, EHAEko pobreziaren arazoak lurralde eta eskualde dimentsioa baitakar.

(a) Lurralde Historikoen arabera egoera

Lehenik eta behin, PGDIren datuek erakusten dutenez, Bizkaia da oraindik ere kolokatasun edo ongizaterik ezaren arazo gehien duen lurraldea. Biztanleen %22,9k ez du erabateko ongizaterik eskuratzeko modurik, %20,3k baino gehiagok Araban eta %18,5ek Gipuzkoan (EHAEko batez bestekoa %21,1ekoa da). Denboran izan den bilakaera, ordea, hobe da Bizkaian, zeren eta ratio hori pixkanaka murriztuz joan baita 1996an %44,1ekoa izan zenetik. Izan

⁴ PGDI 2008koaren emaitza nagusien mantentze eta metatze pobreziari eta aurreko urteekiko bilakaerari buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, Gizarte-ekonomia memoria honen 2008 eta 2009ko edizioetara jo beza irakurleak.

III.6.2. Koadroa. Pobrezia eta kolokatasun egoerak lurraldeen arabera. 2008.

Famili etxebizitzetan dauden biztanleen ehunekoa

	Mantentze pobrezia	Metatze pobrezia	Benetako pobrezia	Ez ongizate osoa
Araba	3,7	0,5	2,9	20,3
Gipuzkoa	2,9	0,2	2,3	18,5
Bizkaia	5,0	1,0	3,8	22,9
EHAEE	4,1	0,7	3,2	21,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza. PGDI 2008.

ere, hiru lurraldeak bateratzeko prozesua ikus daiteke, eta nabarmen murriztu dira 2000an eta 2004an zeuden alde handiak. Bizkaia beste bi lurraldeekiko duen aldea ehuneko %8-%9 murriztu zen 2000 eta 2004 bitartean, eta %2,5 Arabarekiko eta %4,5 Gipuzkoarekiko 2000 eta 2004 bitartean. 1996an %44,1ekoa izan zenetik.

Bestalde, 2004-2008ko laurtekoan, Bizkaiko benetako pobrezia-tasak beste lurraldetakoetara hurbildu dira. Nahiz eta 2008an Bizkaian bildu pobrezia-tasarik handiena artean, %3,8koa, beste lurraldeekiko aldeak txikiagoak dira: Arabakoa (%2,9) eta Gipuzkoakoa (%2,3). Gure Erkidego osorako batez bestekoa %3,2koa da. Izan ere, Bizkaiko bilakaera ona gertatu da, eta etengabe egin du behera benetako pobrezia-tasak: 1996an %7,1ekoa izan bazen, %6,6koa zen 2000an, %5,4koa 2004an eta %3,8koa 2008. urtean. Beste bi lurraldeetan, aldiz, ñabardurak egin behar dira haien joerei dagokienez.

1996-2000ko epealdiko beherakada handien ondotik (Bizkaioak baino askoz handiagoak), zifrek goranzko joera ematen dute 2000 eta 2004 bitartean. Hazkunde hori beherantz zuzendu da pixka bat Gipuzkoan 2004 eta 2008 bitartean, eta azkenean %2,3koa da benetako pobrezia-tasa. Araban, ordean, goranzko joerari eusten zaio: 1996 eta 2000 bitartean %5,4 eta %0,9 jaitsi ondoren, benetako pobrezia %2,8 egin du gora 2004an eta %2,9 2008an.


Mantentze pobrezia dagokionez, ezaugarri bertsuak ikus daitezke Bizkaian eta Gipuzkoan: Pobrezia horrek etengabe eta nabarmen egin du behera. Tasa murriztu egin zen Bizkaian, %10,4tik %5era, eta %7,8tik %2,9ra Gipuzkoan. Hala, bilakaera horrek beheranzko joerak erakusten ditu epe luzera benetako pobrezian bi lurralde horietan. Araban, ordea, pobrezia dimentsio guztietan hobekuntza nabarmena izan ondoren 1996 eta 2000 bitartean, 2000-2008ko epealdian egoerak okerrera egiten duela ikus daiteke. Mantentze pobrezia 1996 eta 2000 bitartean %8,6tik %2,24ra jaitsi bazen ere, 2004an %5,3ra egin du gora, eta oraindik %3,7ko tasari eusten zaio 2008an (EHAEEren batez bestekoa %4,1ekoa da). Izan ere, Araba da mantentze pobrezia-tasen epe luzerako beheranzko etengabeko jaitsierarako joeraren kontrako bilakaera duen EHAEEko lurralde bakarra, Bizkaian eta Gipuzkoan dagoen joeraren kontra hain zuzen ere.

Nolanahi ere, hauxe da hiru lurraldeek duten ezaugarria: metatze pobrezia nabarmen egin duela behera, eta lurralde guztietan 2008an %1en inguruko edo txikiagoko tasak izan ziren. 1996an, berriz, bi halako tasa zegoen ia (Bizkaian, esaterako, famili etxebizitzetako biztanleen %2,4koa zen).

Pobrezia eta kolokatasunak gure Erkidegoan duten banaketari erreparatzen badiegu, Bizkaia EAEko pobrezia inguruko arazo gehien dituelako (pobrezia eragin handiagoa du oraindik) nahiz pisu demografiko handiagoa duelako. Lurralde horretan biltzen da benetako pobrezia arazoen %63,4, metatze pobrezia %77,1 eta mantentze pobrezia %64,2. Joera horrek Bizkaian 2000tik hona indarra galdu duela ikus daiteke, ordea.


Baina kontrara, Araba pobrezia errealitate egoeren igoeragatik nabarmentzen da. Nahiz eta pobrezia egoeretan zuen partaidetza pisu demografikoa baino askoz txikiagoa izan 2000 eta 2004 bitartean eta haren pisua %12,6 ingurukoa izan, egoera okertu dela nabarmena da. Gipuzkoak antzeko prozesua izan du, eta 2000an %15,7ko pobrezia-tasa bazuen, 2008an %23,5ekoa izan

III.6.2. Grafikoa. Ongizaterik ezaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera. Famili etxebizitzetako biztanleen ehunekoa



Iturria: Eusko Jaurlaritza. PGDI 2008

III.6.3. Grafikoa. Egiatzko pobrezia egoeren banaketa Lurralde Historikoen arabera



Iturria: Eusko Jaurlaritza. PGDI 2008

zuen. Araban, aldiz, partaidetza txikiagoa dago biztanleen kopuruarekin alderatuta.

(b) Eskualdeen araberako egoera


Lehenik eta behin, erabateko ongizate maila lortzerik izan ez duten etxeetan bizi diren pertsonen buruzko adierazleak aztertuta ikus daitekeenez, 2008an kolokatasun-tasarik handienak, %25etik gorakoak eta, beraz, EAEko batez bestekoak gainditzen dituztenak (%21,1), Bilbori eta Ezkerraldeari dagozkio (%28,1 eta %25,3 hurrenez hurren). Maila horiek nabarmen urruntzen dira kolokatasun-tasarik handiena duten gainerako mailetatik; izan ere, talde horretan daude Gasteiz, Durangaldea eta Donostialdea. Eskualdeotako tasak %20 edo %21ekoak dira eta, beraz, Erkidegoko batez besteko mailetan daude. Aiara eta Deba Barrena eskualde horietatik hurbil daude: %17 eta %19 bitarteko kolokatasun ratioak dituzte. Zifra horiek txikiagoak dira Eskuinaldean, Bizkaiko Kostaldean eta Tolosa-Goierrin. Deba Goienak EAEko mailarik txikiena du: %8,3.

Aipaturiko aldeak alde batera utzita, eskualde guztietan kolokatasun-tasen beherakada nabarmena ikus daiteke 1996-2008ko epealdian: %16ko gutxieneko maila Donostialdean eta %25,2ko handiena Ezkerraldean. 2004-2008ko laurtekoaren bilakaera bereziki ona da Bizkaiko eskualdeetan.

Benetako pobrezia adierazleen azterketak berriz ere agerian uzten duenez, Bilboko eskualdeak egoerarik okerrera du. %6,1 inguruko tasa du 2008an, gainerako eskualdeetako datuak baino askoz altuagoa (EAEko batez besteko %3,2koa da), are gehiago: Ezkerraldeko %4,1ekoa baino altuagoa. Gasteiz, Bizkaiko Kostaldea eta Donostialdea %2,5 eta %3 bitarteko tasan kokatzen dira, eta %2tik beherakoa da Aiaran eta Deba Barrenean eta Eskuinaldeko, Durangaldeko, Tolosa-Goierriko eta Deba Goieneko %1ekoa baino baxuagoa.

Berriki izan den bilakaera, ordea, bereziki onuragarria da Bilbon eta Ezkerraldean, baina 2000-2004ko laurtekoan Ezkerraldean izandako hobekuntza handia izateko 2004-2008ko epealdira arte itxaron behar izan da Bilbon. Izan ere, benetako pobrezia-tasak gora egin du azken laurtekoan (%3,5etik %4,1era pasatu da). Goranzko datu negatibo hori beste hiri eskualde batzuetan ere ikus

III.6.4. Grafikoa. Egiatzko pobrezia bialakera eskualdeen arabera. 1996-2008



Iturria: Eusko Jaurlaritza. PGDI 2008

daiteke, Gasteizen eta Donostialdean adibidez. EAEko eremurik urbanizatuenean, soilik Eskuinaldean gertatu da Bilboko pobrezia tasan izandako pobrezia tasan beherakada handia.

Benetako pobrezia adierazleen azterketak erakusten duenez, ageriko polarizazioa dago eremurik urbanizatuenean eta gutxien urbanizatuenean artean 2008. urtean. Urbanizazio mailarik txikieneko eskualdeetan, baxua da pobrezia tasa, eta kasurik gehienetan %2tik beherakoa da. Eremurik urbanizatuenean, pobrezia tasa %3tik gorakoa da, eta gehienekoa Bilbon dago:

III.6.3. Koadroa. Mantentze- eta metatze-pobrezia egoerak eskualdeen arabera. Famili etxebizitzetako biztanleen ehunekoa

	Mantentze pobrezia				Metatze pobrezia			
	1996	2000	2004	2008	1996	2000	2004	2008
Gasteiz	9,1	1,9	5,9	3,8	1,8	0,1	0,8	0,4
Aiara	5,7	3,8	1,5	3,0	2,5	0,8	0,5	1,1
Eskuinaldea	8,3	3,3	7,0	3,0	0,0	2,1	0,0	0,0
Bilbo	12,5	11,8	10,0	8,2	2,7	4,8	5,6	1,2
Ezkerraldea	12,4	10,7	7,3	4,0	3,5	5,8	1,7	1,2
Bizkaiko kostald.	5,2	6,0	6,0	2,7	1,4	0,4	2,7	1,1
Durangaldea	4,2	3,2	1,9	3,4	1,8	0,9	1,7	0,5
Donostialdea	10,0	4,2	4,5	3,5	1,2	1,0	2,5	0,4
Tolosa-Goierrri	2,7	5,0	4,8	1,8	0,0	2,1	0,1	0,0
Deba Goiena	2,4	2,1	1,5	0,5	0,0	1,1	1,9	0,0
Deba Barrena	5,8	5,0	2,6	2,5	0,5	3,8	0,2	0,0
OROTARA	9,3	6,3	6,1	4,1	1,8	2,6	2,2	0,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza. PGDI 2008.

%6,1ekoa. Eskualde horietatik soilik Eskuinaldea urruntzen da maila horietatik.

Azken finean, EAEko benetako pobrezia zen zifren bilakaeraren atzetik, oso bilakaera ezberdina dago lurralde mailan; izan ere, zenbait eskualdetan nabarmen hobetzen da egoera eta beste batzuetan, berriz, egoeraren okerrera joera deigarria gertatzen hasi da azken urteotan. Berriki izan diren hobekuntzak gorabehera, bestalde, Bilboko eskualdeko egoera okerragoari eusten zaio EAEren testuinguruan.

6.2. Bizi-baldintzen inkestaren emaitzak 2009

Illo horretan, eta azkenik, benetako pobrezia gainera arazok ukituriko populazioaren banaketan bereziki nabarmentzen da pobrezia hori gehienbat eremurik urbanizatuenetan metatzen dela. Hala, benetako pobrezia egoeren %56 Bilbon eta Ezkerraldean biltzen da eta, osotasunean, Eskuinaldea, Gasteiz eta Donostialdea barne hartuta, benetako pobrezia %91 izango genuke (metatze pobrezia %83,3 eta mantentze pobrezia %86,5). Eskualde urbanizatuenak ere erabateko ongizate maila eskuratzen ez duten etxeetan bizi diren pertsonen ardatz nagusia dira, guztizkoaren %82,2. %42,2 Bilbori eta Ezkerraldeari dagokie, eta beste %34,3 Gasteizi eta Donostialdeari.

INEren Bizi-baldintzei buruzko Inkesta Europar Batasunak Errentari eta Bizi-baldintzei buruz dituen estatistikak bateratzeko prozesuaren barruan sartzen da; *"Statistics on income and living conditions"* (EU-SILC) deritzo inkesta horri. Helburu nagusi horietako bat pobrezia eta gizarte bazterketa aztertzea ahalbidetzen duen informazioa ematea da. Askotariko informazioa ematen du; etxebizitzari, etxebizitzak dakartzan gastuei, sarrerei, etxeko ekipamenduari, egoera ekonomikoari, helduen jarduerari, osasunari, osasun laguntza eskuratzeari eta hezkuntzari buruzko datuak eta datu biografikoak biltzen ditu.

Inkestaren emaitzek, lehenik eta behin, hauxe nabarmentzen dute: batez besteko errenta 2008an 31.348 eurokoa zen etxeko EAE-n (2007an baino %7,3

gehiago), Estatuko batez bestekoa, 26.500 euro, baino %18,3 gehiago. Bi erkidegotan baino ez da gaintitzen datu hori: Nafarroako Komunitatean (batez besteko sarrerarik handiena duena etxeko, 33.559 eurokoa) eta Madrilgoan (31.903).

Pertsonako batez besteko errenta kontuan hartzen badugu, Inkestaren arabera, urtean 12.566 euroko zifra dago EAE-n (aurreko urtean baino %8,8 gehiago), eta berriz Nafarroako Komunitateak bakarrik gaintitzen du: Estatuko batez bestekoa baino %27,4 gehiago. Rankingaren beste muturrean, bi aldagaietarako eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Gaztela-Mantxa eta Andaluziako erkidegoak daude. Gainera, eta aurreko urtearekin alderatuta, Katalunia eta Murtziako erkidegoak nabarmentzen dira, errenten beherakada izan duten bakarrak baitira, familiakoenak nahiz pertsonalenak.

Bestalde, errenta-tarteen arabera etxeen banaketatik ondoriozta daitekeenez, etxeen %56k 25.000 eurotik gorako sarrerak ditu urtean gure erkidegoan, eta ehuneko horrek %1,6 egin du gora azken urtean.

Horietatik %37,4k 35.000 eurotik gorako sarrerak dituzte urtean, eta %18,6k, berriz, 25.000 - 35.000 eurokoak. Gainera, %26,8k 14.000 - 25.000 bitarteko sarrerak ditu eta gainerako %17,3k 14.000 eurotik gorako sarrerak ditu (%8,5ek, aurreko urteko ehuneko bera, horietatik 9.000 eurotik beherakoak). Estatu mailan, %44,9k du 25.000 eurotik gorako errenta maila (2007an baino 1,2, puntu gehiago), %29,5 errentaren segmentu ertainean kokatuko litzateke eta etxeen laurdenak baino gehiagok (%25,6k) 14.000 eurotik beherako sarrerak dituzte urtean.


Etxetako bizi-baldintzak eta errenta maila erakusten dituen beste adierazle bat hilearen amaierara iristeko zailtasunak dituztenen ehunekoari buruzkoa da: 2009an gure Erkidegoko familien %43,3 zegoen egoera horretan, aurreko urtean baino %1,7 gehiago. Estatuko batez bestekoa %59koa da, eta puntu bat murriztu da 2008ko datuekiko. Nafarroa, Aragoi eta EAE daude egoerarik onenean bizi-baldintzen adierazle honetan. Murtzia eta Uharte Kanariarretan dira rankingeko azkenak, %75,1 eta %72,8ko ratioak hurrenez hurren.

Bestalde, adierazle horrek azken urteetan izandako bilakaerari erreparatu gero, tasako jaitzierarik handienak Madril, Asturiasen eta EAE-n ditugu, zeren eta hilearen azkenetara iristeko zailtasunak dituzten etxeen ehunekoak murriztu egin baita 2004 eta 2009 bitarteko epealdian %6,6, %6,4 eta %5,7 hurrenez hurren. Balearretan, Ceutan eta Melillan, berriz, gora egin du ratioak epealdi berean, %8,3 eta %5 hurrenez hurren.

Halaber, zenbait gasturi aurre egiteko modurik ez dutela adierazten duten etxeen ehunekoak kalkulatu du Inkestak: EAEko etxeen %20,6k dio ezin duela urtean astebetez oporretan joan (%38,9koa Estatuan) eta %20,5ek ez du ahalmenik ezusteko gastuei aurre egiteko (%34 batez beste Estatuan, eta etxeen %64,6an lan egiteko moduan dauden pertsona guztiak langabezian daude). Halaber, Estatuko etxeen %1,7k ezin du okela, oilasko edo arrainik jan gutxienez bi egunik behin (EAEko etxeen %1), eta %6,3k ezin dio eutsi etxeen tenperatura egokiari (%4,9 EAE-n). Azken batean, taulan ikus daitekeenez, familiek nabarmen galdu dute erosteko ahalmena, baldin eta ondoko adierazle hauei erreparatu badiogu.

Egoera hori eta Europa mailako datuak alderatuz ikus dezakegunez, Europako familien %35ek ezin zien egin aurre ezusteko gastuei 2009. urtean (%20,5ek EAE-n) eta


III.6.5. Grafikoa. Egiatzko pobrezia egoeren metaketaren bilakaera EAEko hiri eskualdeetan




III.6.4. Koadroa. Urteko batez besteko errentaren bilakaera, etxeko eta pertsonako eta Autonomia Erkidegoen arabera. 2007-2008. Euroak

	Batez besteko errenta etxeko			Batez besteko errenta pertsonako		
	2007	2008	% Ald.	2007	2008	% Ald.
Estatuko batez best.	26.101	26.500	1,5	9.594	9.865	2,8
Andaluzia	22.180	22.849	3,0	7.755	8.100	4,4
Aragoi	26.784	27.719	3,5	10.453	10.774	3,1
Asturias	26.052	27.213	4,5	10.070	10.676	6,0
Balears (Illes)	26.840	28.221	5,1	10.445	10.829	3,7
Uharte Kanariarrak	23.300	23.371	0,3	8.233	8.420	2,3
Kantabria	27.471	27.639	0,6	9.781	10.036	2,6
Gaztela-Leon	24.172	24.971	3,3	9.397	9.806	4,4
Gaztela-Mantxa	23.155	23.716	2,4	8.167	8.470	3,7
Katalunia	28.611	28.046	-2,0	10.816	10.770	-0,4
Valetziako Erk.	24.927	25.381	1,8	9.449	9.684	2,5
Extremadura	19.397	20.878	7,6	7.021	7.551	7,5
Galizia	24.088	24.429	1,4	8.727	9.098	4,3
Madril	31.965	31.903	-0,2	11.497	11.703	1,8
Murtzia	24.063	23.686	-1,6	8.186	8.092	-1,1
Nafarroa	32.236	33.559	4,1	12.121	12.701	4,8
EAE	29.212	31.348	7,3	11.546	12.566	8,8
Errioxa	24.751	25.054	1,2	9.507	9.572	0,7
Ceuta eta Melilla	28.310	26.978	-4,7	8.790	8.331	-5,2

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta 2009.

III.6.6. Grafikoa. Etxeen banaketa (ehunekotan), urteko sarreraren arabera. 2008

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta 2009.

III.6.7. Grafikoa. Hilaren azkenetara iristeko zailtasunak dituzten pertsonen ehunekoa

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta 2009.

III.6.5. Koadroa. Hainbat gasturi ezin aurre egin diezaioketen etxeen ehunekoa. EAE-estatuko batez bestekoaren arteko konparazioa

	Oporrak urtean behin gutxienez		Okela, oilaskoa edo arraina jatea gutxienez bi egunik behin		Etxebizitza tenperatura egokiarekin mantentzea		Ezusteko gasatuei aurreko egiteko ahalmena	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
2004	43,9	25,5	2,5	1,0	9,4	4,0	39,2	20,0
2005	40,4	27,2	2,5	1,5	9,0	4,9	33,8	24,0
2006	38,3	22,3	4,0	0,8	9,3	4,6	31,2	18,9
2007	35,8	19,2	2,3	0,5	7,9	3,9	30,5	19,4
2008	33,5	14,6	2,0	1,0	5,3	2,6	28,1	15,8
2010	38,9	20,6	1,7	1,0	6,3	4,9	34,0	20,5

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

%9k ezin zion eutsi etxean tenperatura egokiari ere (%4,9 gure erkidegoan). Herrialdeen arteko aldeak handiak dira, eta nabarmentzekoa da bizi mailaren okertzea Bulgarian, Portugalen eta Lituaniaren ezusteko gastuen aldetik, eta Bulgarian eta Portugalen etxearen mantentzean.

Ildo beretik, gauzen baliatze-indizea zehaztu du EUROSTATEk, bederatzi gastu eta hornidurako zerrenda batetik gutxienez hiru ezin eskura ditzaketan pertsonen kopuruak emanda: INEK ematen dituen lau gastu kontzeptuez gain, hipoteka gastuak egunean izatea eta garbigailua, koloreko telebista, telefonoa eta autoa edukitzea sartzen dira. Definizio horren arabera, EBko biztanleen %17,1ek ezin balia zitzakeen zenbait gauza 2009. urtean, eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat EBko kide berrien eta gainerakoen artean. Alde batetik, biztanleen %4 baizik ez dago egoera horretan Luxenburgon, eta %10etik behera Europako herrialdeetan eta Holandan (Espainiak %11,3ko ratioa dauka). Bulgarian eta Errumanian, aldiz, biztanleen %50ek gutxi gorabehera ezin ditu zenbait gauza baliatu, eta %40ek baino gehiagok Hungarian eta Letonian.

Azkenik, Bizi-baldintzen Inkestan, pobrezia buruzko azalpen-azterketa egiten da (hots, moneta pobrezia erlatiboa) eta horretarako, biztanleria pobreak direnen eta pobreak ez direnen artean sailkatzeko erabilitako metodoa moneta pobrezia erlatiboko lerro bat ezartzean oinarritzen da. Erabilitako pobrezia lerroaren oinarria etxeko kontsumo unitateko sarrera garbiak dira; etxeko guztizko sarrera garbiak (errenta eskuragarria) zati kontsumo unitateen kopurua egin behar da kalkulua egiteko. Hortik abiatuta, %60koa da pertsonen esleituriko kontsumo⁵ unitateko sarreraren banaketaren erdikoaren pobrezia lerroa edo pobrezia atalasea. Beraz, kontsumo unitateko atalase horretatik beherako sarrerak dituen pertsona orori deritzo "pobre" (halako molde ezin bereko kide guztiak sailkatuko baitira modu berean: pobreak edo pobreak ez direnak). Atalase hori, EB mailan herrialde⁶ bakoitzerako kalkulatu da eta, beraz, herrialde bakoitzaren ikuspegi erlatiboa lortzea ahalbidetzen du, baina ez da zuzenean konparagarria haien artean.

III.6.6. Koadroa. Zenbait gasturi aurre egiteko modurik ez duten europako familien ehunekoa. EAE-erriko konparazioa. 2006-2009

	Ezusteko gastuei aurre egitea		Etxe tenperatura egokiarekin mantentzea	
	2006	2009	2006	2009
EB 27	34	35	10	9
EB 25	34	34	10	8
Belgika	21	24	14	5
Bulgaria	..	58	..	64
Txekiar Errep.	40	38	9	5
Danimarka	24	26	9	2
Alemania	41	35	6	6
Estonia	27	30	2	2
Irlanda	38	49	4	4
Grezia	31	27	12	16
Espainia	30	33	9	6
Frantzia	33	33	6	6
Italia	27	33	10	11
Zipre	43	40	34	20
Letonia	69	71	25	16
Lituania	57	58	28	24
Luxenburgo	18	25	1	0
Hungaria	52	75	15	9
Malta	32	28	11	11
Herbehereak	23	19	2	1
Austria	27	25	4	3
Polonia	57	50	28	16
Portugal	16	28	40	29
Errumania	..	42	..	22
Eslovenia	43	41	3	5
Eslovakia	49	36	10	4
Finlandia	30	30	2	1
Suedia	14	19	3	1
Erresuma Batua	29	31	5	6
EAE	19	20,5	5	4,9

Iturria: EIN eta EUROSTAT-en datuekin eginikoa.

⁵ Hauxe da kontsumo unitateko sarrera edo sarrera baliokidea: etxeko guztizko kontsumoa zati "kontsumo unitatea" eginda; hala ere, sarreraren kontzeptu horrek ezberdintasun bat du per capita sarrerarekiko: etxe bateko kide guztiei ez zaie esleitzen sarrera bera, baizik eta beste faktore batzuk hartzen dira kontuan hala nola eskala ekonomiak. Hots, etxeko kideen kopurua igotzearekin batera ez dago zertan sarreraren igoera proportzionalik izan ongizate maila berari eusteko, eta gainera kontsumorako ildok ez dira berdinak etxeko kide bakoitzaren adinaren arabera.

⁶ Esana dugunez, %60koa da pertsonen esleituriko kontsumo unitateko sarreraren banaketaren erdikoaren pobrezia lerroa edo pobrezia atalasea EBko herrialde bakoitzean. Hortaz, herrialde bakoitzaren barruan aztertzen da errentaren banaketa, ez EB osorako.

Hortik abiatuta, pobreziaren atalasearen azpitik dauden pertsonen ehunekoa kalkulatzeko du Inkestak. Estatuko batez bestekoan, ehuneko hori ia ez da aldatu estatistika egiten den bost urteko epean, eta 2008. urtean %19,5eko tasa izan da, aurreko urtekoa baino hamarren bat txikiagoa. Gure Erkidegoan, %9,4koa da

“pobre”tzat hartutako pertsonen tasa —egoera hori Nafarroako Erkidegoan baizik ez da hobea—, eta azken urtean ia puntu bat egin du gora. Gainera, pobrezia atalase horretatik beherako sarrerak dituzten pertsonen ratio horrek behera egin du gure Erkidegoan, %16,1 azken bost urteetan.

III.6.7. Koadroa. Pobreziaren mugatik behera dauden pertsonak Autonomia Erkidegoen arabera (%)

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	% 2003-08	% 2007-08
Andaluzia	31,1	27,7	29,7	29,2	28,9	29,3	-5,8	1,4
Aragoi	12,5	16,2	12,9	14,0	13,3	12,7	1,6	-4,5
Asturias	12,6	15,2	13,2	13,8	12,5	12,8	1,6	2,4
Baleareak	15,2	16,8	11,5	16,0	13,8	17,3	13,8	25,4
Valentziako Erk.	19,6	20,0	17,1	16,3	20,2	17,3	-11,7	-14,4
Uharte Kanariarrak	24,1	28,5	28,3	26,8	24,8	27,5	14,1	10,9
Kantabria	11,9	14,9	13,3	13,6	12,0	13,9	16,8	15,8
EAE	11,2	9,5	9,8	11,6	8,5	9,4	-16,1	10,6
Gaztela-Mantxa	29,4	29,6	29,3	28,1	20,4	27,4	-6,8	34,3
Gaztela-Leon	25,1	25,5	24,7	22,6	28,0	19,2	-23,5	-31,4
Katalunia	12,5	12,7	12,1	13,4	12,8	12,9	3,2	0,8
Ceuta eta Melilla	37,3	33,8	31,7	33,6	32,7	36,6	-1,9	11,9
Extremadura	37,0	34,6	38,6	39,3	38,4	36,2	-2,2	-5,7
Galizia	21,2	19,7	23,2	20,9	21,0	19,1	-9,9	-9,0
Madril	9,5	12,0	12,9	13,3	14,5	13,6	43,2	-6,2
Estatuko batez best.	19,9	19,8	19,9	19,7	19,6	19,5	-2,0	-0,5
Murtzia	24,5	24,7	26,4	25,4	25,0	28,6	16,7	14,4
Nafarroa	12,7	9,9	9,8	6,3	6,5	7,4	-41,7	13,8
Errioxa	18,5	19,6	20,2	19,4	19,3	22,7	22,7	17,6

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.



04

GIZARTE BABESA EAE-n



Europako Gizarte Babesaren Estatistika Sistemak (SEEPROS) honela definitzen du gizarte babesa: *“erakundeek familia eta banakoentzat zenbait arriskuk edo premiek dakartzaten zamak arintzera zuzendutako jarduera guztiak, aldibereko, elkarrekiko edo banakako akordiorik egon ezean”*.

EAEko Memoria Sozioekonomikoaren kapitulu honek gure erkidegoko gizarte babesari dagozkion eremu nagusiak birpasatuko ditu. Lehenbizi, EAEko gizarte zerbitzuen egoera aztertuko dira; horretarako haien zenbateko

nagusiak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak sistemaz egiten duen balorazioa aurkeztuko dira. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazioek langabeziagatik babesteko dituzten zenbatekoak aurkeztuko dira EEZPk kudeatutako Gizarte Segurantzako prestazioa). Ondoren, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legetik eratorrita txirotasunaren eta gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko dauden tresnak aurkeztuko dira. Azkenik, EAEko gizarte aurreikuspeneko sistema aztertuko da.

1. EAE-ko gizarte zebitzuak

Hasteko, EAEko gizarte zerbitzuetako gastua, 2008an (informazioa eskura daitekeen azken urtea) 1.861 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %15 gehiago, EUSTATen “Gizarte zerbitzuen eta gizarte ekintzaren estatistika”ren arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGd-ren %2,7 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 860 euroko gastua, 2007an baino %13,9 gehiago. Herri-administrazioen ahalegina 1.347 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %72, eta sektore pribatuak, aldiz, gainontzeko %28 eman zuen. Erabilitako lau eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Sektoreko enpleguari dagokionez, 2008an gizarte zerbitzu guztietan 480 enplegu garbi sortu ziren, 24.683 pertsonari zuzenean enplegua emanez (landunen %2,6); horien artean %70 emakumeak dira. Horrez gain, borondatez lagundu zuten langileak, eskuzabal lan egiten dutenak hain zuzen ere, aipaturiko urtean 18.958 lagun izan ziren, hau da, arduraldi osoko 1.762 enpleguren pareko ahalegina.

Gizarte zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten arloak, bien artean gastuaren %68 hartzen baitute. Biztanleria osoarentzako baliabideen artean nabarmenak dira familiei egindako transferentziak, zehazki Oinarrizko Errentaren programak —egun Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izenez ezagutzen da— (203 milioi euro, +%17 aurreko urtearekin alderatuta) eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (45 milioi, +%9).

Adineko pertsonen dagokionez, batez ere egoitzetako zerbitzuak, laguntzeko eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza dira gehien jasotzen dituzten arreta motak. 2008an 18.108 plaza eskaini ziren egoitzetan, hau da, 65 urtetik gora zituzten 100 pertsonako 4,4 plaza eman ziren. Herri-administrazioak plaza horien %34 eskaini zituen titulartasun publikodun zentroetatik eta beste %30 adostu zituen instituzio publikoekin.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak (GZEK) 2010ean egindako “EAEko gizarte zerbitzuen egoerari buruzko lehen txostena” delakoari esker¹ herritarrek eta sektoreko langileek (herritar guztientzako inkesta baten eta sektoreko teknikarientzako beste baten bidez) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zelan baloratzen duten ezagut dezakegu.

Lehenbizi, nabarmentzekoa da sektoreko langileek eta herritarrek gizarte zerbitzuak garatzen jarraitzearen alde egiten dutela: herritarren %75en (eta profesionalen %90en) ustez, krisia gorabehera, gizarte zerbitzuetako gastua handitzen jarraitu behar da. Halaber, gehienek ontzat jotzen dituzte azken arau aldaketak: %71k Gizarte Zerbitzuen Legeari eta Estatuko Mendekotasun Legeari dagokionez, %69,9k Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legeari dagokionez. Profesionalentzat,

IV.1.1. Koadroa. EAE-ko gizarte zerbitzuak magnitude nagusien bilakaera

	2007	2008	%08/07
GASTUA (euroak milaka)	1.622.565	1.861.067	14,7
Gastu korrontekak	1.212.025	1.342.916	10,8
Familientzako transferentziak	332.250	425.215	28,0
Kapital-gastuak	78.289	92.936	18,7
Gastua/biztanleak (eurotan)	755,5	860,4	13,9
Gastua/BPGd (%)	2,4	2,7	—
FINANTZAKETA			
Finantzaketa publikoa	1.142.199	1.346.932	17,9
Finantzaketa pribatua	480.366	514.135	7,0
GIZA BALIABIDEAK			
Langileak guztira	42.965	42.641	1,6
Norberaren langileak	24.203	24.683	2,0
Borondatezko langileak	18.762	18.958	1,0
BALIABIDE MATERIALAK			
Erakunde kopurua	1.348	1.370	1,6
Zentroen kopurua	2.783	2.944	5,8
Egoitza kopurua	897	994	10,8
Egoitzetako plazak	23.563	24.081	2,2

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko estatistika.

koordinazioa eta sistema egituratzea sistemak aurre egin behar dien erronka nagusiak dira.


Bigarrenik, deigarria da iritzia eman duten lautik batek txarto edo oso txarto baloratzea genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei emandako arreta. Balorazioen beste muturrean, herritarrek hoberen baloratzen dituzten gizarte zerbitzuak adinekoei emandakoak dira. Zehazki, eguneko egoitzek eta jubilatuen elkarteek kritiken %10 baino gutxiago jaso dituzte. Egoitzei buruzko iritzia dagokionez, aldiz, ia %18 dira halakoak.

Bestalde, herritar gehienek uste dute gizarte zerbitzuen kudeaketak publikoa behar lukeela: %44,5ek dute iritzi hori; %20k, aldiz, uste dute hobe dela erakunde pribatuek ematea zerbitzu horiek. Zentzu horretan, egoitzako edo eguneko arreta behar izanez gero zer zentro mota hautatuko luketen galdetuta, %49,6k kudeaketa zuzeneko zentro publikoen alde egin dute.

Era berean, herritarrek, orokorrean, uste dute ez dela nahikoa adinekoei euren etxeetan ematen zaien laguntza: ia %60k adierazi dute EAEn ez dagoela zerbitzu nahikorik pertsona horiek euren etxean independentzia bizi ahal izateko eta, bestalde, ia erdiek uste dute pertsona horiek zaintzen dituzten senideei ez zaiela laguntza nahikorik ematen. Halaber, profesionalak etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak eskatzen dituzte batez ere, eta herritarren ustez, aldiz, lehentasuna, arestian adierazitakoaren ildotik, adineko pertsonentzako zerbitzu

¹ Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeko 48. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua (Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren ordezkoa) sortu zuen eta erakunde horri, besteak beste, honako eginkizuna esleitu zion: “Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistemaren esparruan jasotako datuetan oinarrituta urteko txostena egitea”.

IV.1.1. Grafikoa. Gizarte Zerbitzuen balorazioa EAEko biztanleriaren aburuz, 2010



Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

IV.1.2. Koadroa. EAE-ko gizarte zerbitzuak gastuaren bilakaera eta banaketa biztanle mota bakoitzeko

	2007	2008	%08/07
GASTUA (euroak, milaka)	1.622.565	1.861.067	14,7
Biztanleria oro har	586.943	715.722	21,9
Familiarentzako transferentziak	328.716	421.093	28,1
Haurrak-Gazteak	69.532	79.189	13,9
Egoitzak	46.093	58.869	27,7
Adineko pertsonak	493.680	547.685	10,9
Egoitzak	424.471	456.165	7,5
Pertsona ezinduak	384.213	414.423	7,9
Egoitzak	66.896	80.442	20,2
Okupazio-zentroak eta EZB (1)	248.631	258.330	3,9
Emakumeak	11.137	15.625	40,3
Gizarte-bazterketa	77.060	88.423	14,7

(1) Enplegu-zentro bereziak

Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko estatistika.

mota oro gehiago garatzea da, eta aldi berean Eusko Jaurlaritzari parte hartze aktiboagoa eskatzen diote gizarte zerbitzuen kudeaketan. Gehienek (%60) uste dute administrazioek lehentasuna eman behar lieketela zerbitzuei prestazioen gainetik.

Beste kontu batzuei dagokienez, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2011ko urtarrilaz geroztik Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa bere egitea hobetzeko aukeratzat jo dute. %82k uste dute enplegu zerbitzuen eta gizarteratzeko gutxieneko errenten kudeaketaren arteko lotura handiagoak eragin ona izango duela gizarte zerbitzuetan.

Bestetik, txostenak azpimarratu duenez, krisiaren ondorioak EAEko gizarte zerbitzuetan ere sentitu dira: profesionalek ondorio horiek utzi dituzte agerian galdera irekiei emandako erantzunetan, bai eskariaren igoerari dagokienez, bai, kasu batzuetan, eskura daitezkeen ballabide ekonomikoen murrizketari dagokienez; kasu askotan, ordea, sistemak testuinguru hain kaskarrean eusteko izan duen gaitasuna azpimarratu da. Edonola ere, profesionalen %31entzat, krisiak eragin handia izan du


euskal gizarte zerbitzuetan, eta %47entzat nahiko eragin du.

Profesionalei galdetutako hamabi taldeetatik, haien aburuz hiruk daukate babes maila txikia: etxerik gabekoek, mendeko pertsonen zaintzaileek eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonak.

Bere txostenean, GZEK-k azpimarratu du arreta estaldurek gora jarraitu dutela, baina adineko eta ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitza plazei dagokienez geldialdia gertatu dela. 2008an (azken datu eskuragarriak), guztira 131.864 lagun desberdini eman ziren arreta sistemak, dauden prestazioen erabiltzaileak eta arreta plazak batuz gero; 2007an 124.000 izan ziren. Horri Estatuko Mendekotasunaren Legeko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak erantsi behar litzaizkioke. Urte horretarako kalkulatu da 8.000 izan zirela eta, beraz, 140.000 onuradun inguru aipatu behar lirateke (jakina, ez dira pertsona desberdinak, pertsona berak prestazio edo zerbitzu bat baino gehiago jaso ditzakeelako).

Horrela kalkulatu, 1998 eta 2008 artean %125 onuradun gehiago batu dira; zenbaki erlatiboetan, batez ere eguneko laguntza zentroen erabiltzaileak gehitu dira. 2007 eta 2008 artean 15.000 lagun inguru gehitu dira eta ia guztiak txirotasunaren aurkako borrokarako eta mendekotasunarentzako arretarako prestazio ekonomikoen erabiltzaile berriak dira.

Bestalde, zenbait forotatik agerian utzi da profesionalak kezkatuta daudela gizarte zerbitzuen sistemari prestazioetarako joera eman zaiolako, prestazio ekonomikoak arretazuzeneko plazak baino askoz azkarrago hazten ari baitira. Gastuaren ikuspuntutik, 2007 eta 2008 artean prestazio ekonomiko nagusietara zuzendutakoa (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Gizarte Larrialdiko Laguntzak eta Mendekotasunaren Legeko prestazio ekonomikoak) %40 hazi zen, eta gizarte zerbitzuetako gastu publikoa, aldiz, guztira %17 hazi zen. Erabiltzaileen ikuspuntutik, bestalde, epe luzeagoa erreferentzia hartuta, txostenak adierazi du 1998an arreta zuzeneko zerbitzuak eskaintzaren %53 eta prestazio ekonomikoak %46 baziren, egun proportzioa kontrakoa dela. Krisi ekonomikoak diru-sarrerak bermatzeko prestazioen jasotzaileen kopuruan eta mendekotasunarentzako arreta

IV.1.2. Grafikoa. Talde ezberdinen babes-maila, gizarte zerbitzuetako profesionalen aburuz. EAE, 2010

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.

sistemaren garapenean 2009 eta 2010 urteetan izandako eraginak —urte horietarako datu gutxiago daude—, prestazioek zerbitzuen aldean duten pisua handitu baino ez du egin, GZEKren txostenak dioenez.

Bestalde, dokumentu horrek ARARTEKOak duela gutxiko txosten batean oinarizko gizarte zerbitzuei buruz ateratako ondorioak gogorarazi ditu², haietan agerian utzi baitzen EAEko oinarizko gizarte zerbitzuak gainezkatzeko arriskua dagoela eta, egoera horren ondorioz, erabiltzaileentzako arretaren kalitatea murrizteko arrisku gero eta handiagoa ere. Azkenik, txostenak nabarmentzen du Mendekotasunaren Arretarako Estatu Legearen ondotik mendekotasunarentzako arreta sistema zabaldu egin dela³, eta agerian uzten du EAEk beste autonomia erkidego batzuetan baino garapen handiagoa duela, dela baloraturiko pertsonen ehunekoari dagokionez (%3,7), dela emandako prestazioei dagokienez (populazioaren %1,69 izango litzateke 2010eko abenduan). Beste erkidego batzuetako mailara iritsi ez bada ere, emandako prestazio gehienak Familia Inguruneke Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoari (FIZPE) dagozkie; Mendekotasunaren Legearen arabera, ordea, hura salbuespeneko kasuetan baino ez litzateke eman behar. 2010ean prestazio horiek guztien %42 izan ziren (%49 Estatu osoan). 2008an, laguntza horien finantzazioaren %90 (EAEen guztira 55 milioi euro izan ziren) foru aldundiei dagozkie, eta gobernu zentralak, aldiz, %10 hartu zuen.

IV.1.3. Koadroa. Mendekotasunaren kalifikazioak erkidegoen arabera: onuradunen ehunekoa eta ebaluazioaren emaitzak. 2010eko abendua

	Onuradunen %	Ebaluazioa*
Gaztela-Mantxa	1,76	9,0
Gaztela eta Leon	1,86	9,0
EAE	1,69	8,5
Aragoi	1,89	8,5
Errioxa	2,37	8,0
Andaluzia	2,17	7,5
Nafarroa	1,40	7,0
Katalunia	1,47	6,5
Kantabria	2,35	6,5
Galizia	1,18	5,5
Murtzia	1,53	5,0
Extremadura	1,56	5,0
Balear U.	0,83	4,0
Asturias	1,19	4,0
Ceuta eta Melilla	1,15	3,0
Madril	0,72	2,0
Valentziako E.	0,72	2,0
Kanariar U.	0,41	0,5
ESTATUKO BATEZ BESTEKOAK	1,40	..

Iturria: Mendekotasunaren Behatokia.

(*) Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarrekin Mendekotasunarentzako Arreta Sistemaren hedapen mailari eta funtzionamenduari buruz sei hilean behin emandako 0 eta 10 arteko puntuazioa.

² ARARTEKOA (2010): "Oinarizko Gizarte Zerbitzuen egoera EAEen. Eusko Legebiltzararentzako txosten berezia". 2009ari buruzko EAEko Memoria Sozioekonomikoa, "Gizarte Babesa EAEen" kapitulu berean haren ondorio nagusien laburpena dakar.

³ 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, norberaren autonomia sustatu eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen arreta ematekoa.

2. Langabeziagatiko babesa: EEZP

Langabeziako prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta horren ondorioz lana galtzen dutenak edo soldatak modu antzekoan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatik subsidioa) daude.

Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariak Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeko lehenengo 6 hiletan langabetuaren kotizazio oinarriaren %70 da (gainontzekoan %60), muga batzuekin, langabetu bakoitzaren familia egoeraren arabera.

Langabeziagatikotako subsidioa familia egoeraren arabera IPREMen (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2010erako IPREM hileko 532,51 eurotan ezarri zen.

2.1. Prestazioen jasotzailea eta langabeziarako estaldura

2010ean langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 78.400 lagun izan ziren EAEn, aurreko urteaz baino %9 gehiago. Hamargarren urtez jarraian hazi da jasotzaileen kopurua, 90eko hamarkadan nabarmen murriztu ondoren. Estatuan, jasotzaileak tasa handiagoan gehitu dira: %13,5; horrela, EAEk onuradun guztien kopuruan duen parte hartzea murriztu egin da, %3,2tik 2,6ra. 85.400 pertsona horietatik %52,7 Bizkaian bizi dira, %32,2 Gipuzkoan eta gainerako %15,1 Araban.

Jasotzaileen hilabeteko bilakaeran arreta jarri gero, eta irailean beharakada eman zela ikus daiteke (2008an eta 2009an bezala), eta urteko azken hilabeteetan etengabe hazi da, abenduan guztira 82.921 jasotzaile guztira izan arte. Kopuru hori haren aurreko hilabetean baino %0,7 gehiago da, eta 2009ko abenduan baino %3,2 gutxiago. 2010eko abenduko datuei dagokienez, jasotzaileen %62k kotizaziopeko prestazioak jaso zituzten, %36k


IV.2.1.Koadroa. Langabeziagatiko prestazioak EAE-n. 2010eko abendua

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE	ESTATUA	EAE / ESTATUA %
Onuradunak guztira	12.418	26.803	43.700	82.921	3.015.462	2,75
Kotizaziopeko prestazioa	7.451	16.626	27.461	51.538	1.417.525	3,64
Subsidioa	4.787	9.534	15.319	29.640	1.295.092	2,29
Txertaketarako Errenta Aktiboa	180	643	920	1.743	302.845	0,58
ESTALDURA TASA	64,64	69,63	61,99	64,88	76,85	
Hileko prestazioa (euroak milaka)	14.481	32.374	50.107	96.962	2.617.883	3,70
Urtean metatutakoa (euroak milaka)	189.250	410.772	624.669	1.224.691	32.207.915	3,80
Batez besteko gastua onuradun bakoitzeko (€/hileko)*	1.166,10	1.207,80	1.146,60	1.169,30	868,20	135,0


Iturria: EEZP oinarri hartuta egindakoa.

(*) Estatuko datuak Behin Behineko Nekazarien Diru Laguntza hartzen du barne.

IV.2.1. Grafikoa. Langabeziagatiko prestazioetarako gastuaren lurraldekako banaketa EAE-n eta Estatuko guztirako kopuruarengan duen ehunekoa



Iturria: LIM. (*) 2010eko datuak behin-behinekoak dira.

IV.2.2. Grafikoa. EAEn langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren hileroko bilakaera milakoetan, eta erregistratutako langabeziaren gaineko estaldura tasa

Iturria: LIMko datuekin egina.

subsidioak eta gainerako %2k Txertaketarako Errenta Aktiboa. Abenduan prestazioen 82.921 jasotzaile zeuden guztira, hortaz, EAEko langabetuen estaldura-tasa %64,9 zen —%66,8 2009ko abenduan— (EEZPn erregistratutako langabetuak kontuan izanik); Estatuan, aldiz, estaldura-tasa batez beste % 76,9 zen. Lurralde Historikoei begira, Gipuzkoak du estaldura zabalena (%69,6).

Datu horiek kontuan izanik, esan liteke 2010eko abenduan EAEko 100 langabetutik 39k ez zutela inolako prestaziorik jaso (33 2009an). Bai ordea, ehunetik 67k, eta horien artean 38k kotizaziopeko prestazioa jaso zuten,

22k subsidioa eta batek bakarrik Txertaketarako Errenta Aktiboa.

Langabeziagatiko prestazioen estaldura-tasak autonomia erkidegoen arabera aldatzen dira. Balear Uharteetan, eskuragarri dauden datuen arabera, langabetu guztiek jasotzen dute nolabaiteko prestazioen bat eta, aldiz, Ceutan eta Melillan gutxi gorabehera langabetuen erdiek jasotzen dute prestazioen bat. 2010eko abenduko datuen arabera, Estatuko batez bestekoa %73,5 izan zen (2009ko abenduan baino 3,8 puntu gutxiago). Horrekin alderatuta, EAEko datua baxuagoa da (hilabete horretan erregistraturiko langabetuen %61¹).

IV.2.2. Koadroa. Langabeziagatiko prestazioen gastuaren eta estalduraren adierazleak Autonomia Erkidegoen arabera. Abendua

	Estaldura-tasa*			Batez besteko gastua onuradun bakoitzeko (€/hileko)		
	2008	2009	2010	2009	2010	Ald. %-tan, 09/10
Andaluzia	82,9	86,8	82,2	729	697	-4,4
Aragoi	76,0	78,4	73,6	1.022	985	-3,6
Asturias	68,5	72,8	69,2	916	917	0,1
Balear U.	112,2	111,3	114,6	1.029	917	-10,9
Valentziako E.	67,0	69,3	65,1	958	890	-7,1
Kanariar U.	65,9	73,1	69,4	758	745	-1,7
Kantabria	69,1	70,7	67,7	954	966	1,3
EAE	63,9	66,8	61,0	1.234	1.190	-3,6
Gaztela-Mantxa	64,3	68,5	66,3	960	920	-4,2
Gaztela eta Leon	60,0	62,9	64,3	874	825	-5,6
Katalunia	83,9	86,0	81,6	1.057	1.019	-3,6
Ceuta	39,4	54,8	50,5	..	..	..
ESTATUA	74,1	77,3	73,5	914	868	-5,0
Extremadura	87,2	89,6	88,2	652	633	-2,9
Galizia	61,3	68,1	64,6	862	884	2,6
Errioxa	70,1	74,7	69,1	1.043	985	-5,6
Madril	68,8	70,9	66,2	1.084	1.014	-6,5
Melilla	33,9	46,4	42,5	..	..	..
Murtzia	70,0	70,2	67,9	987	901	-8,7
Nafarroa	71,2	77,9	71,3	1.107	1.084	-2,1

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

(*) Estaldura-tasak kalkulatzeko hilaren azken egunean alta egoeran zeuden prestazioen onuradunen kopurua erabili da.

¹ Estaldura datu horiek ez datoz bat aurreko orrialdeko koadrokoekin —hark lurralde historikoetako, EAE osoko eta Estatuko batez besteko datuak dauzka—, hark 2010eko abenduko batez besteko balioak darabiltzalako eta autonomia erkidegoen arteko erkaketa dakarrenak, aldiz, hilaren azken hilean alta egoeran zeuden prestazioen onuradunen kopuruak.

IV.2.3. Koadroa. EAE-ko langabeziako gastuaren eta EEZP-ren gizarte segurantzako kotizazioen ondorioz diru sarreraren bilakaera (euroak milioika)

	2007	2008	2009	2010	% Var 09	% Var 10
Langabeziako gastua	594,54	692,46	1.188,80	1.124,69	70,6	0,6
EEZP-rentzat bildutako kuotak	1.130,51	1.187,94	1.125,88	1.126,70	-5,2	0,1
Saldoa	594,54	491,00	-62,92	2,01	..	..
Diru sarrera/gastua	1,90	1,70	0,95	1,00	-44,1	5,3

Iturria: EEZPren eta GSDOren datuekin egindakoa. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.

2010eko abenduan langabeziagatiko prestazioen onuradun bakoitzeko batez besteko gastua 1.190 euro zen EAEn (urtebete lehenago baino %3,6 gutxiago). Kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino handiagoa da (868€, 2009ko abenduarekin alderatuta %-5). Beste era batera esanda, onuradun bakoitzeko gastua Estatu osokoa baino %37 handiagoa izan zen EAEn. EAE, Katalunia, Madril eta Nafarroa datu horren zerrendan lehenak dira.

2.2. Langabezia babesteko gastua eta sarrera


EAEn 2010ean langabezia prestazioetarako gastua, behin-behineko datuen arabera, 1.124,69 milioi eurokoa izan zen, 2009an baino %0,6 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-ren %1,86 da. Aurreko urtean %1,84 izan zen.

Horrez gain, Estatuko gastu osoaren %3,8 da, aurreko urtean bezala. Tasa hori 1995etik joan zen murrizten,

%5,8 zenean, 2008 arte; 2009an hazi eta 2010ean eutsi egin zuen. Gastu horretatik, %15,4 Arabari dagokio, zenbatekoa %6 murriztuta 2009aren aldean. Bizkaiari %51 dagokio (%+1,4 2009aren aldean) eta Gipuzkoari %33,6 (%+2,6).


Beste alde batetik, enpresek eta soldatuko langileek ordaindutako eta EAEko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak bildutako EEZPrenzako Gizarte Segurantzaren kotizazioen diru-sarrerak 2010ean, behin-behineko datuen arabera, 1.226,70 milioi euro izan ziren guztira, aurreko urtean baino %0,1 gehiago. Hortaz, EAEko langabeziaren arriskua estaltzeko diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea murriztu egin da. Aurten, 2 milioi euroko saldoa dago ozta-ozta, 2009ko 63 milioi euroko defizitaren ostean, langabeziako gastuak hazkunde handia izan baitzuen orduan (%+70,6). Bestela esanda, 2010ean diru-sarrera eta gastua parekatu egin ziren, aurreko ekitaldian ratioa 1en azpikoa izan ondoren.

IV.2.3. Grafikoa. Langabeziagatiko prestazioak EAEn: jasotzaileen kopuruaren eta gastuaren bilakaera



Iturria: GZEKarekin datuekin egina.

IV.2.4. Grafikoa. Langabeziagatiko prestazioek EAEn eragindako gastuak eta diru-sarrerak



Fuente: GZEKarekin eta EUSTATEko datuekin egina.

3. Gizarte segurantzaren prestazioak EAE-n

IV.3.1. Koadroa. Gizarte Segurantzaren pentsioak EAE-n, mota bakoitzeko. Taula-laburpena

	2007	2008	2009	2010	08/09%	09/10%
ONURADUNAK (urteko batez bestekoa)						
Kotizaziopeko pentsioak	471.900	479.400	487.600	494.800	1,7	1,5
Kotizazio gabeko pentsioak	9.850	9.658	9.741	9.949	0,9	2,1
Laguntzako pentsioak*	1.341	1.341	1.341	1.341	0,0	0,0
MGLko diru-laguntzak*	759	680	680	680	0,0	0,0
GUZTIRA	483.850	491.079	499.362	506.770	1,7	1,5
Biztanleen %	22,7	22,9	23,1	23,4	1,0	1,2
GASTUA (milioika)						
Kotizaziopeko pentsioak	5.934,51	6.298,43	6.406,17	6.692,37	1,7	4,5
Kotizazio gabeko pentsioak*	43,08	44,41	45,87	47,32	3,3	3,2
Laguntzako pentsioak*	2,70	2,50	2,41	2,41	0,0	0,0
MGLko diru-laguntzak*	1,52	1,40	1,40	1,40	0,0	0,0
GUZTIRA	5.981,81	6.346,74	6.455,85	6.743,50	1,7	4,5
BPGd %	9,0	9,3	10,0	10,2	7,0	2,4

Iturria: Lan Eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa. Lan Estatistiken Aldizkaria.
(*) Datu eguneratutik gabe. Zenbatespena.

2010ean, milioi erdi lagun pasatxo (506.770 lehen zenbatespenaren arabera, informazio irmorik ezean) izan ziren gure erkidegoko Gizarte Segurantza sistemako pentsioen onuradunak; hori aurreko urtean baino %1,5 gehiago da, orduan ere %1,7 hazi ondoren. Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan, orokorrean, jasotzaileen kopuruak murrizteko joera izan du. EAEn Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoek estalitako biztanleak guztira %23,4 dira.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %98 dira eta gastuaren %99), 2010ean batez beste 494.800 onuradun egon ziren (%+1,5) eta hileko batez besteko zenbatekoa, 966,10€, %3 hazi da 2009aren aldean; horrela, kalkulatu da urtean 6.692 milioi euro gastatu zirela, 2009an baino %4,5 gehiago.

Labur esanda, EAEn pentsioenetako gastua 2010ean, behin-behineko hasierako hurbilketa eginez, 6.743 milioi eurokoa izan zen guztira, 2009an baino %4,5 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea hamarren bi hazi da, 2009ko %10etik %10,2ra (EUSTATen behin-behineko datuak hartuta).

3.1. Kudeaketa transferitu gabe duten gizarte segurantzaren prestazioak


EAEra besterendu ez diren Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileek kudeatzen dituzten prestazio ekonomikoak (oro har, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, eta Itsasoko Gizarte Institutua Itsas Langileen Erregimen Berezia aplikatzen den kasuetan) bi motatakoak izan daitezke:

- Ordaindutakoaren arabera, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik eta Gizarte Babesaren gastu osoaren %50 dira gutxi

gorabehera. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: Baldintza jakinak betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonen errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean.

- Ordaindutakoaren arabera ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliaezintasun pentsioak (ordaindutakoaren arabera ez direnean) eta amatasunagatik eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.

IV.3.1. Grafikoa. Gizarte Segurantzaren Kotizazioen* Bilketaren bilakaera EAEn



* Langabezia, LH eta FOGASA gabe
Iturria: GSDO kontuan hartuta egina.

IV.3.2. Koadroa. Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorraren kuoten bilketaren bilakaera. (euroak milioika)

	Euroak, milioika				%	Aldakuntzaren %		
	2006	2007	2008	2009		2006-07	2007-08	2008-09
Orokorra	4.143	4.475	4.682	4.623	71,2	8,0	4,6	-1,3
Autonomoak	568	588	616	618	9,5	3,5	4,8	0,3
Nekazaritzakoa*	15	16	4	3	0,0	6,7	-75,0	-25,0
Itsas langileak	30	30	30	29	0,4	0,0	0,0	-3,3
Etxeko langileak	23	22	24	26	0,4	-4,3	9,1	8,3
Ikatz-meatzaritzakoa	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	0,0
LI/LG kuotak (Diruzaintza)	8	6	7	6	0,1	-25,0	16,7	-14,3
EEZPko langabetuak	374	396	418	553	8,5	5,9	5,6	32,3
GSDO-REN KUOTAK GUZTIRA	5.160	5.533	5.781	5.858	90,2	7,2	4,5	1,3
LI/LGengatiko mutualitateak	435	468	479	444	6,8	7,6	2,4	-7,3
KArengatiko mutualitateak	150	164	189	193	3,0	9,3	15,2	2,1
MUTUALITATEAK GUZTIRA	585	632	668	637	9,8	8,0	5,7	-4,6
GS-REN SISTEMAREN BILKETA GUZTIRA	5.745	6.165	6.449	6.495	100,0	7,3	4,6	0,7
Langabeziarako bildutako kuotak	1.078	1.131	1.188	1.126	17,3	4,9	5,0	-5,2
FOGASA	42	29	30	29	0,4	-31,0	3,4	-3,3
Lanbide-prestakuntza	109	117	124	122	1,9	7,3	6,0	-1,6

Iturria: GSDOren datuekin egindakoa: Urteko memoriak.

(*) Uztailaren 4ko 18/2007 Legearen bidez, Nekazaritzako Erregimen Bereziko norberaren konturako langileak Langile Autonomoen Erregimen Berezira pasa dira; horren ondorioz 2007 eta 2008 artean izandako Nekazaritzako Erregimenaren bilketak beherakada handia izan zuen.

2009an (datu ofizialak eskuragarri dauden azken urtea) Gizarte Segurantzako Sistemak 6.495 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, 2008an baino %0,7 gehiago, hau da, Estatuan guztira bildutakoaren %6,2 (2008an %6). Zenbateko hori gure erkidegoko urte horretako BPGd-ren %9,9 da, behin-behineko datuen arabera (%10 aurreko urtean). Bildutako kopuru horretatik 1.087 milioi Arabari dagozkio (%17), 2.123 Gipuzkoari (%33) eta 3.286 milioi Bizkaiari (%50).

Zenbateko horren %90,2 Gizarte Segurantzaren kuotei dagokie; gainerako %9,8, ordea, lan-istripuen mutualitateetatik eratorritakoa da. Kuoten %71,2ren jatorria erregimen orokorrak dira eta 4.623 milioi euro dira guztira (aurreko urtearekin alderatuta %-1,3). Halaber, Gizarte Segurantzak langabeziari, FOGASari eta lanbide-prestakuntzari dagozkien kuotak ere biltzen ditu. EAEn horien zenbatekoa guztira 1.277 milioi euro izan ziren 2009an, aurreko urtean baino 65 gutxiago.

EAEn Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunen kopuruari dagokionez, 2010ean guztira 494.800

lagun izan ziren, 2009an baino %1,5 gehiago. Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkoragatiko jasotzaile kopurua ez da hazi azken urtean; aldiz, erretiroagatiko jasotzaileak %2,1 hazi dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak %0,8. Azkenik, zurtasunagatiko kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen datuak egonkor iraun du, 15.800 lagun.

2010ean batez besteko zenbatekoak gora egin zuen, 27,7 euro/hileko, eta hileroko zenbatekoa 966,10 euro izan zen, hau da, 2009an baino %3 gehiago.

Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen %61,4k jasotzen dutena, hain zuzen ere), azpimarratu behar da 2010ean batez besteko zenbatekoa 1.101,50€ izan zela hilean, 2009an baino %3 gehiago. Urte hartako batez besteko zenbatekoa (1.069,50€) EAEko Lan Kostuaren "soldata eta lansariak" osagarriaren hileko batez besteko zenbatekoaren %49,4 izan zen. Lan Kostua EINK kalkulatzan du bere Lan kostuaren urteko inkestan. Osagai hori, hileko 2.165,62 euro izanik, 2009ko (ez dago

IV.3.3. Koadroa. EAE-n gizarte segurantzaren kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoa eta jasotzaile kopurua

	2008	2009	2010	2010 %	2010eko LGSren %	2008-09	2009-10
Jasotzaile kopurua							
GUZTIRA	479.400	487.600	494.800	100,0		1,7	1,5
Ezintasun iraunkorra	44.400	44.600	44.600	9,0		0,5	0,0
Erretiroa	290.800	297.500	303.600	61,4		2,3	2,1
Alarguntza	128.500	129.800	130.900	26,5		1,0	0,8
Zurtasuna / Familiaren alde	15.700	15.800	15.800	3,2		0,6	0,0
Batez besteko zenbatekoa (Euro/Hileko)							
GUZTIRA	898,3	938,4	966,1	100,0	152,6	4,5	3,0
Ezintasun iraunkorra	1.033,4	1.070,2	1.090,0	112,8	172,1	3,6	1,9
Erretiroa	1.023,7	1.069,5	1.101,5	114,0	173,9	4,5	3,0
Alarguntza	628,4	656,0	674,7	69,8	106,5	4,4	2,9
Zurtasuna / Familiaren alde	401,4	418,4	431,0	44,6	68,1	4,2	3,0

Fuente: LAN ETA IMMIGRAZIO MINISTERIOAREN "Lan Estatistiken Aldizkaria" oinarri hartuta egindakoa.

IV.3.4. Koadroa. Erregimen bakoitzeko batez besteko zenbatekoen eta Pentsioen kopurua. EAE-Estatua konparazioa. 2010eko abendua

	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	
		Zenbatekoa (€)	Estatuaren %
Orokorra	343.912	1.128,34	120,8
Autonomoak*	80.976	632,11	114,7
Nekazaritzakoa*	1.295	503,74	97,1
Etxeakoa	6.030	475,72	100,0
Itsasoa	13.223	1.029,56	121,2
L.I. eta L.G.	15.102	1.006,37	112,6
SOVI	37.658	355,88	99,2
Ikatzia	251	951,25	69,7
GUZTIRA	498.447	973,44	123,9

Iturria: GSIN.

*Uztailaren 4ko 18/2007 Legearen bidez, Nekazaritzako Erregimen Bereziko norberaren konturako langileak Langile Autonomoen Erregimen Berezira pasa dira.

urte horretatik aurrerako daturik) EAEko batez besteko soldataren hurbilketatzat har daiteke.

Bestalde, pentsioen batez besteko zenbateko guztiak hazi ziren 2010ean, zenbait intentsitatearekin: erretiroagatiko eta zurtasunagatiko pentsioak %3 hazi badira, ezintasun iraunkorreko pentsioa gutxiago hazi da, %1,9, eta alarguntzakoa %2,9, hilean 674,70 eurora iristeko.

Zentzu horretan, batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata baino askoz tasa altuagotan hazi da, baita KPIren gaintik ere. 1983ko batez besteko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldata (193,29€) baino zertxobait baxuagoa zen (157,38€ EAEEn eta 138,29€ batez beste Estatuan). 2010eko abenduan EAEko batez besteko pentsioa (973,44€) %3 hazi zen 2009ko abenduarekin alderatuta. Aldiz, urte arteko KPIren aldakuntza %2,8 izan zen hilabete horretara arte. Bestalde, pentsioetako gastu osoaren zenbatekoa %4,5 hazi zen.

3.2. Kudeaketa transferituta duten gizarte segurantzaren prestazioak: kotizazio gabeko prestazioak

Kotizazio gabeko prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharizan-egoeran dauden pertsonen ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte-zerbitzuak

jasotzeko eskubidea ere badute, hortaz, beharizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Pentsio horien jatorria abenduaren 20ko Estatuko 26/1990 Legean dago. Lege horrek Gizarte Segurantzaren Babes Ekintza eta Egitura Arrazionalizatzeko presazko neurriak buruzko 26/1985 Legearekin hasitako berrikuntza osatu zuen. Horren bidez, babeserako kotizazio gabeko prestazio maila antolatu zen, lanbide edo kotizazio-sistemarako sarbiderik ez duten eta beharizan-egoeran dauden pertsonen prestazioak ematea ahalbidetuko duena. Hala, adinekoen edo ezinduen aldeko eskubide subjektiboa sortu zen.

Gizarte-babesaren sistema unibertsala denez, ez da beharrezkoa prestazioa jasotzeko eskubidea baliatzeko aurrez kotizatu izana, eta kotizazio gabekoa denez, Estatuko Aurrekontu Orokorren Urteko Legeetan zehazten da. Prestazio hori erabat finantzatzea Estatuari dagokio, eta Gizarte Segurantzak bertatik jasotzen ditu kasuan kasuko transferentziak, 26/1990 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eta Toledoko Ituneko gomendioekin bat etorritik.

Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena, aldiz, EAEEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea Foru Aldundiei dagokie. Kotizazio gabeko prestazioak hiru motakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak, laguntza pentsioak eta MGL prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da¹.

3.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizazio gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizazio gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrerak nahikoak ez dituzten pertsonen daude zuzenduta (diru sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreraren batuketak pentsioaren urteko zenbatekoa baino baxuagoa izan behar du) eta zenbatekoak urtetik urtera gora egiten du.

EAE bizilekua duten kotizazio gabeko pentsioaren onuradun gehienak emakumeak dira (2008ko datuak), guztien %64 inguru; proportzio hori 8 puntu txikiagoa Estatuko batez bestekoa baino. Feminizazio tasa hori Estatuko txikiena da, Ceuta hiri autonomoaren ondoren. Bestalde, IMSERSOK bere datu fitxategiaren bidez erakutsi

IV.3.5. Koadroa. EAE-n pentsioen arloko ahaleginaren hurbilketa

Urteak	Kotizaziop. pentsioak (1)	Batez besteko zenbat., €/hileko (2)	Zenbatekoa guztira, €/hileko (3) = (1)*(2)	Gizarte Segurantzaren afiliatutakoak (4)	Ahalegina: €/hileko afiliatu bakoitz. (3) / (4)
2005	449.200	771,8	346.692.560	911.900	380,19
2006	464.400	806,1	374.352.840	933.200	401,15
2007	471.900	843,0	397.811.700	957.900	415,30
2008	479.400	898,3	430.630.638	967.900	444,91
2009	487.600	938,4	457.563.840	934.700	489,531
2010	494.800	966,1	478.026.280	925.800	516,339
Ald. %-tan, 09	1,7	4,5	6,3	-3,4	10,0
Ald. %-tan, 10	1,5	3,0	4,5	-1,0	5,5

Iturria: Lan eta immigrazio ministerioaren datuekin egindakoa.

¹ 2009az geroztik Lan eta Immigrazio Ministerioak prestazio horiei buruz ematen dituen datuak baino ez daude eta, beraz, atal honetan jasotako informazioa murriztu egin da Memoria honen aurreko edizioen aldean.

du pertsona horietatik gehienak “ezkongabe” daudela, ia %50. Datu hori salbuespena da Estatuko kotizazio gabeko pentsiodun gehieneko egoera zibilar dagokionez, Gaztela eta Leon, Errioxa eta Galiziarekin batera. Gainerako erkidegoetan ezkonduak dira nagusi. Halaber, EAEn emakume alargunak emakume pentsiodun guztien %9 dira, egoera zibil horretan dauden gizonak baino askoz gehiago, haien pisua gizonenak baino askoz gehiago da. Era berean, emakume banandu eta dibortziatuak egoera berean dauden gizonenak baino askoz gehiago dira. Bestalde, erretiro pentsioen jasotzaile gehienak 70 eta 79 urte artekoak dira (guztien %50). Gainera, emakumeen nagusitasuna adin talde guztietan agertu da, %80 inguruko proportzioekin, eta 85 urtez gorako titularren %90 emakumeak dira. Ezgaitasuneko pentsioen onuradunei dagokionez, %73 30 eta 49 urte artekoak dira, eta adin tarte ugariena 35 eta 44 urte artekoak biltzen dituena da. Halaber, 50 urtez gorako ezgaitasuneko kotizazio gabeko pentsiodun gehienak emakumeak dira.

Ezgaitasun mailari dagokionez, ezgaitasuneko kotizazio gabeko pentsiodunen %65ek EAEn %65 eta %74 arteko ezgaitasun maila daukate (gainontzeko %35ek %75 ego gehiagoko ezgaitasun maila daukate); proportzio hori bigarren txikiena da autonomia erkidego guztien artean, Gaztela-Mantxaren ondoren.


2010ean batez beste 9.949 kotizazio gabeko pentsio onartu ziren, 2009an baino 208 gehiago (%+2,1). Erretiro pentsioak batez beste 4.311 izan ziren eta ezgaitasunekoak 5.638. Estatuari dagokionez, 9.494 pentsio horiek %2,2 dira, 2009an baino hamarren bat gehiago.

Kotizazio gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2010erako hilean 339,70 eurotan ezarri ziren erretiro eta %65 edo gehiagoko mailako ezgaitasunerako. %75 edo gehiagoko maila eta beste pertsona baten laguntza premia dituen ezgaitasuneko pentsioentzat %50eko osagarria ere onartzen da. Halaber, onuradunak bere errentak edo sarrerak baditu eta haien zenbatekoa pentsioen %25 baino handiagoa bada, hura aipatu %25 gainditzen duen kopuruan murriztuko da. Norberaren sarrerak %25 baino gehiago ez badira, pentsioari osorik eusten zaio. Zenbateko horietatik, urtean 47,3 milioi euro inguruko gastua ondoriozta daiteke halako prestazioetarako, 2009an baino %3,2 gehiago, baina ez da zenbateko horren kopuru zehatza ezagutu Memoria hau ixterakoan.

3.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak

Foru Aldundiei transferitutako Gizarte Segurantzaren laguntza pentsioak banakako laguntza ekonomikoak dira, aldi behingoak eta mugagabeak, adinekoen (65 urtez gorakoak) eta gaizen edo erabateko ezgaitasun iraunkorra dutenen alde, bizirauteko bitarteko ekonomikorik ez badute (euren urteko diru-sarreraren batura batez besteko pentsioen urteko zenbatekoa baino txikiagoa denean). Kotizazio gabeko pentsioetarako Estatuan lege bidezko irizpidea eskatzen den bitartean (gutxienez 10 urtez bizi izana —5 urtez ezgaitasunaren kasuan—, haietatik gutxienez bi eskaera egin aurre-aurretik), laguntza hauetan ezartzen den bakarra onuradunak EAEko udalen batean errolatuta egotea da, erkidegoan bizi zeko baimena duten atzerriarrek, aterpetuak eta aberriak gabeak barne. Prestazio horiek pixkanaka murriztu dira, 5/1992 ELDa indarrean sartu ondoren indargabetuta geratu direlako

IV.3.2. Grafikoa. EAEn Gizarte Segurantzaren Kotizazio gabeko Pentsioak jasotzen dituzten pertsonen banaketa sexuaren eta egoera zibilararen arabera. 2008



Iturria: Eusko Jaurlaritza LIMaren datuekin.

IV.3.6. Koadroa. Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak EAE-N: adierazle nagusiak

	Onuradunak (urteko batez bestekoa)			Hileko zenbat. (€)
	Erretiroa	Ezgaitas.	Guztira	
2005	4.703	5.236	9.939	288,79
2006	4.618	5.323	9.941	301,55
2007	4.461	5.389	9.850	312,43
2008	4.339	5.318	9.658	328,44
2009	4.301	5.439	9.741	336,33
2010	4.311	5.638	9.949	339,70
Ald. %tan 07/08	-2,7	-1,3	-1,9	5,1
Ald. %tan 08/09	-0,9	2,3	0,9	2,4
Ald. %tan 09/10	0,2	3,7	2,1	1,0

Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuekin egindakoa. Lan Estatistiken Aldizkaria.

eta, beraz, harrezkero alta berririk gertatu ez delako; horrela, ordura arte onartutako pentsioei baino ez zaie eutsi, orokorrean zenbateko handiagoa duten kotizazio gabeko pentsioak jasotzea hautatu ez badute.

Informazio eguneraturik ez dagoenez gero, Lan eta Immigrazio Ministerioak kalkulatu du halako pentsioen jasotzaile kopuruak egonkor iraun duela 2007tik, urtean batez beste 1.341 lagun inguru. Haietatik, 886k “zahartzarua” kontzeptuagatik eta 255ek “gaixotasuna” kontzeptuagatik jasotzen dituzte. 2010ean laguntzaren zenbatekoa, 2000az geroztik bezala, 149,86€ hilean da, eta pertsona horiek, gainera, ordainketa gehigarri bi daukate onartuta urtean; beraz, EAEko Foru Aldundien Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntza pentsioen zenbatekoa, 2010ean, gutxi gorabehera, 2,8 milioi euro da gutzira.

3.2.3. MGL prestazioak

Minusbaliatua Gizarteratzeko 13/82 Legean (MGL) onartutako prestazioak, izenak adierazten duenez, gutxienez %65eko ezgaitasunak jota dauden 18 urtez gorako pertsonen daude zuzenduta, urtean pertsona

bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren %70 baino baliabide gutxiago badauzkate (euren ardurapeko pertsonak badauzkate, mendeko bakoitzeko %10 handitzen da).

Subsidio horiek 26/1990 Estatu Legea indarrean sartu zenean indargabetu ziren. Lege haren bidez Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko prestazioak ezarri ziren. Dena dela, data horren aurretik subsidio horien onuradunak zirenek haien onuradunak izaten jarraitu ala kotizaziopeko pentsioa eskatzea hauta dezakete, baina ez dira indargabetutako babes ekintza gehiagorik onartuko. Hori dela-eta, Gizarte Ongizateko Funtzaren laguntza prestazioetan gertatu lege, MGL prestazioen onuradunak urtetik urtera murriztu dira.

Laguntza horiek honako lau motetan jaso daitezke:


1. Gutxieneko diru-sarrera bermearen subsidioa (GDBS). Prestazio horren arduradunak %65etik gorako ezgaitasuna duten 18 urtez gorako pertsonak dira, haien baliabide pertsonalak Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoaren (IPREM) %70 baino gutxiago badira, edo %100ekoa euren ardurapeko pertsonak badauzkate.
2. Hirugarren pertsona bati laguntzeko subsidioa (HPLS). Aldian aldiko prestazioa da, arestiko ataleko baldintzak beteta, %75etik gorako ezgaitasuna dute pertsonentzat.

3. Mugikortasun eta garraio gastuetarako konpentsazio subsidioa (MGGS). Ohiko bizilekutik at joateko sortutako gastuei aurre egiteko da. Pertsonak 3 urtez gorakoak izan behar dute, garraio kolektiboak erabiltzeko zailtasun handiak eduki, %33etik gorako ezgaitasun maila izan, eta ez dute baliabide ekonomikorik izan behar.

4. Osasun laguntza eta farmaziako prestazioa. Foru Aldundiek onartzen dute prestazio hau, baina Osakidetza osasun zerbitzuek burutzen dute. Beraz, haientzako kostu ekonomikoa dakarte. Prestazioa jasotzeko, pertsonak %33etik gorako ezgaitasun maila izan behar dute eta ez dute Gizarte Segurantza sistemaren aplikazio eremuan bilduta egon behar. Zehazki, haren helburua onuradunen osasuna zaindu eta leheneratzeko zerbitzuak ematea da, kasu bakoitzean erabakitako osasun-errehabilitazio eta farmazia laguntzaren bidez.

2008an (datuak dauden azken urtea), MGLren 680 onuradunak honela banatu ziren EAE: 603 lagun GDBSren prestazioetan, 77 HPLSrenetan eta 28 MGGSrenetan. Subsidio horien murrizketa garrantzitsua izan da, duela hamarkada bat 5.000 pentsio baino gehiago baitzeuden onartuta. 2008an prestazio horientatik guztira 1,4 milioi euro ordaindu ziren, 2007an baino %8 gutxiago.

IV.3.3. Grafikoa. MGL Prestazioak:
GDBS eta HPLS subsidioen onuradunen kopuruaren eta guztirako gastuaren bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egina. GDBS: Gutxieneko diru-sarrera bermearen subsidioa. HPLS: Hirugarren pertsona bati laguntzeko subsidioa.


4 Txirotasunaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako neurriak EAE-n

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarrera maila txikiagoko biztanleria-kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera —bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak— marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk piztu dituzte gizarte bazterkeria prozesuak. Egun, txirotasunez mintzatzeak errealitate mosaiko konplexu batera hurbiltzea esan nahi du. Ekonomia desberdintasunetik harago, errealitate horiek “bazterkeria” kontzeptua biltzen dute, honela ulertuta: “gizarte eskubideak, batez ere lanerako eskubidea, baina baita hezkuntza, prestakuntza, kultura, osasun, etxebizitza duin eta gizarte babeserako eskubideak erabiltzeko ezintasuna edo ezigaitasuna”¹.

EAE-n txirotasuna, marjinazioa eta gizarte bazterkeria borrokatzeko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira biak.

Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (txertaketarako enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez. Tresna horiek batez ere AUZOLAN programaren bidez garatzen dira. Programa horiek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako eskubidearen titularrei, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako eskubidearen titularren elkarbizitza unitate ekonomiko independentearen kideei edo bazterkeria arriskuko egoeran dagoen edozeini daude zuzenduta, gizarteratzeko eta laneratzeko hitzarmen bat sinatu badu. 2009ko hastapenean Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea sartu zen indarrean. Haren helburuak honakoak dira: alde batetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomoa izanda —haren kudeaketan gizarte eta enplegu zerbitzuek hartzen dute parte eta herri-administrazioaren beste arlo batzuek ere laguntzen dute—; bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren funtzionamendu printzipioak eta egitura oinarriak ezartzea eta herritarrek prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eskura ditzaketela bermatzea, berdintasun eta zuzentasuneko irizpideen arabera, lurralde osoan era homogeneoan aplikatuko dela bermatzeko behar diren neurriak hartuz.

IV.4.1. Grafikoa. Diru-sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioetako gastuaren bilakaera (milioi eurotan)



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritzako datuak kontuan hartuta egina. Eusko Jaurlaritza.

Lege berriak funtsezko berritasun bi dauzka:

1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) oinarriko irizpideen arabera bereizitako modalitate bitan egituratzen da: elkarbizitza unitatean lanetik datozen diru-sarrerak egotea ala ez egotea eta, bestetik, modalitate bakoitzaren txertaketarako hitzarmenaren arteko lotura mota.
2. Bigarren berritasuna Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) da. Haren xedea premia handiena duten pertsonen —hots, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei— etxebizitza lortzea erraztea da. Horrela, prestazio horrek ordura arte Gizarte Larrialdiko Laguntzek (GLL) estaltzen zituzten premietako asko estali zituen, baina azkenak ez bezala, eskubide bihurtu da; haiek sarteak, bestalde, aukera emango du GLLei ezohiko izaera itzultzeko.

Eskumen esparruari lotutako beste elementu azpimarragarria eta funtsezkoa honakoa da: bai DBE bai EPO prestazio subsidiarioak dira eta, behar izanez gero, titularri edo haren elkarbizitza unitateko edozein kideri legokiokkeen indarreko legedian xedatutako baliabide eta prestazio ekonomiko mota guztien osagarriak. Horrela, prestazio horiek azken babes sarea dira eta, horren ondorioz, ezingo dituzte beste prestazio edo laguntza batzuek osatu.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2010ean, 389,9 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean

¹ Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea.

baino %22,9 gehiago. Honelaxe daude banatuta: 314,8 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako (guztizkoaren %82), 24 milioi Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako (%5) eta 51,1 milioi euro Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarri berrirako (%13). Azken hori arautzen duen dekretua urte horretako urtarilean argitaratu zen.

4.1. Diru-sarrerak bermatzeko sistemako prestazioak

4.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak aurreko Oinarrizko Errenta izenekoak ordeztu du. EAEn errolatuta gutxienez urtebete eman duten pertsonen ematen zaie, oinarrizko premiei eta gizarteratze eta laneratzeko prozesutik datozenei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez badute.

Laguntza hori jasotzeko premia egoeraren ziurtagiria —oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten dute— eta —salbuespenak salbuespen— txertaketarako hitzarmenetan parte hartzea behar da, gizarteratzea eta laneratzeko eta premia egoera horretatik irteera errazteko xedez. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko betekizun orokorren artean, erreferentziako urtean, 23 urtez gorakoa izan behar da eta jasotako zenbatekoa honakoa: hamabi hileko kuotetan lanbideen arteko gutxieneko soldataren %88ko urteko diru-sarrerak bermatzeko behar dena, gehi haren %25 bigarren pertsonarentzat eta %10 gehiago pertsona bakoitzarentzat hirugarrenetik aurrera.

2010ean 55.020 familiak jaso zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (abenduko datua); hori aurreko urtean baino %13,8 gehiago da, orduan lagundutako elkarbizitza unitateak 48.489 izan baitziren. Unitate jasotzaile guztietatik, %34,6 diru-sarrerarik gabeko egoerei dagozkie, %30,15 laneko errentak osatzen dituzten pertsonen eta gainontzeko %35,25 euren pentsioak osatzen dituzten pertsonen.

Lurraldeka, Bizkaia dauka jasotzaile gehien, 37.955 guztira, EAEko guztien %69; Gipuzkoak, ordea, jasotzaileen %18 biltzen ditu eta Arabak %13. Bestalde, 2009aren aldean Bizkaian hazi da gehien unitate jasotzaileen kopurua: %15,7 hazi da aurreko urtearen aldean; Gipuzkoan, berriz, %7,6, eta Araban %10,3. 2010ean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentagatik 314,815 milioi euro ordaindu ziren guztira (2009an baino %19,8 gehiago); izan ere, hasieran aurrekontuan 284,4 milioi euro jaso ziren, eta ondoren sailari 33,415 milioi erantsi zitzaizkion.


EAEko %19,8ko hazkunde heterogeneoki dago banatuta autonomia erkidegoko lurraldeetan. Horrela, hazkunde hori nabarmen handitzen da Araban (%+32,7) eta Bizkaian, aldiz, EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da (%+17,1). Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, 2010ean, txosten bat egin zuen. Bertan, 2009ko

datuak erabilia, diru-sarrerak bermatzeko prestazioek EAEko eta Espainiako Ongizatearen Estatuan izandako ondorioak erkatu². Nabarmentzekoa da diru-sarrerak bermatzeko euskal prestazio eredua salbuespena dela Estatuan, bai duen estaldura handiagatik (familia unitateen %7,5 2009an), bai diru-sarrerak osatzeko politikari lotuta egoteagatik. Lan horrek azpimarratu du, lehenbizi, 90ko hamarkadagutxieneko errenta autonomikoak orokortzeak desberdintasun sakona ezkutatzeko duela, erkidegoetan programa horiek dituzten ondorioei dagokienez. 2009ko lehen sei hilekoan, EAEk Estatuko DBE-en titularren %38,4 pilatzen zituen eta programa horiei lotutako gastuaren %40,2, txirotasun arriskuko egoeran zeuden espainiar biztanleen %2,4 baino izan ez arren.

Desberdintasun horiek direla-eta, alde handiak daude EAEko eta Estatu osoko txirotasun arriskuko familia bakoitzeko gastu mailen artean: gure erkidegoan adierazle hori batez beste hileko 374 eurotan dagoen bitartean, Estatu osoan ozta-ozta iristen da 22 eurotara. EAEko mailetara Nafarroa baino ez da hurbiltzen, familia bakoitzeko batez beste 238 euroko gastuarekin. Oso azpitik dago Asturias, 67€. Gainontzeko erkidegoetako gehienezko mailak 35 eurokoak dira arriskuko familia bakoitzeko; haietan Madrilgo Erkidegoa (17€/familia) eta Katalunia (27€/familia) ere sartzen dira.

Txostenak agertu duenez, EAEn DBE, GLL eta EPO uztartuta sistemaren onuradunak premia-atalasetik gertuko zenbatekoak dauden bitartean, gainontzeko

IV.4.2. Grafikoa. Diru-sarrera propioak eta lanagatik diru-sarrerak izanda GGD/GOE/DBE laguntzen onuradun diren familien ehunekoa, EAEn



* Lanaren ondorioz, Gizarte Segurantzaren prestazioen ondorioz edo langabeziagatik subsidioren ondorioz lortutakoak.
Iturria: Eusko Jaurlaritza.

IV.4.1. Koadroa. Diru-sarrerak bermatzeko errenta: gastuaren bilakaera lurralde historiko bakoitzean. Euroak, milaka

	2007	2008	2009	2010	Ald. %-tan, 08/09	Ald. %-tan, 09/10
Araba	16,28	19,43	30,27	40,16	55,8	32,7
Gipuzkoa	23,53	26,08	37,62	46,51	44,2	23,6
Bizkaia	128,75	151,78	194,84	228,15	28,4	17,1
EAE	168,56	168,56	262,72	314,82	55,9	19,8

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarteratzearen Zuzendaritza.

² Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2009ko edizioa.

autonomia erkidegoetan ez da gauza bera gertatzen. Daturik azpimarragarria Espainiako BPGd eta biztanleria bolumenik handiena duten erkidego bietan, Madrilen eta Katalunian, oso zenbateko txikiak ezarri direla: EAEn 2009an pertsona bakar batentzat ezarritako bermeko 640,64 euroen aurrean, Katalunian 410,02€ ezarri ziren eta Madrilen 370€.

4.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzea, sistemaren funtsezko osagai bihurtu du eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea da, hots, gastu bereziak estaltzera; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldian aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inola esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonen bano ezin esleitu zaizkiola baino.

EPOren xehetasunak etxebizitza gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarilaren 12ko 2/2010 Dekretuak arautzen ditu. Hark xedatzen duenez, haren helburua honakoak estaltzea da: *“etxebizitzari lotutako beharrak, etxebizitza edo ohiko bizilekua alokatzeko gastuak, alokairu, berrakura, alokairukidetzak, ostatu eta gelen alokairuko modalitate gutxietan”*.

Indarrean egon den lehen urtean, EPOk 51,107 milioi euroko gastua ekarri du (43,1 milioi hasierako aurrekontuan, eta 8 ondoren erantsiak), eta abenduan guztira 16.047 jasotzaile zeuden; haietatik, %206 Araban bizi dira, %60,5 Bizkaian eta %18,9 Gipuzkoan.


4.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian aldikoak eta oinarrizko premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.

Laguntza horiek honakoei lotutako gastu zehatzei heltzen diete: ohiko etxebizitza edo bizilekua gozatu eta mantentzea, ohiko etxebizitza edo bizilekuaren epeluzerako bizigarritasuna eta oinarrizko ekipamendua (altzariak, linea zuriko etxetresnak, oinarrizko instalakuntzak edo haiek egokitu edo konpontzeko gastuak), baita sistema publikoek estaltzen ez dituzten jantziari, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun arretari lotutako lehen mailako premiei lotuta dauden premia berezi, bat-bateko eta ezohikoak estaltzekoak eta, oinarrizko gizarte zerbitzuen aburuz, gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko heldu behar zaien antzeko guztiak ere.

EPO abiatu ondoren, GLLek jatorrizko helburua berreskuratu dute eta haien aurrekontu saila asko murritzuta da. Horrela, 2010ean, hasiera batean, 17,3 milioi euro

IV.4.3. Grafikoa. EPO jasotzen duten titularren hileroko bilakaera lurraldeka. 2010



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

bideratu ziren laguntza horietara. Horiek, erantsitako 6,7 milioiekin batera, 22 milioi euroko gastua batzen dute, aurreko urteko 54,5 milioi euroen aldean. Memoria ixterakoan, ez da ezagutzen 2010eko lurraldekako banaketa ezta jasotzaile kopurua ere. 2009an guztira 38.018 titular jasotzaile egon ziren eta onuradun bakoitzeko batez beste 1.434 euro ordaindu ziren urtean.

4.2. Gizarteratzea errazteko programak

4.2.1. Hirugarren sektorearentzako laguntza programa

“649/2009 Dekretua, abenduaren 29koa, zeinen bidez Euskadiko gizarte esku-hartzearen eremuan hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen baitira” delakoak eremu horretan ematen ziren diru-laguntzak aldatu ditu; izan ere, haren xedea Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei erakunde horiek, euren ekimenez, gizarte esku-hartzearen eremuan, burutzen dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko ematen dizkien diru-laguntza ekonomikoen esparrua arautzea da.

Diruz lagundu daitezkeen ildoei dagokienez, Dekretu horretan xedatutako diru-laguntzak honako ildotan sartzen diren jarduerak (eta ez langileen egiturei egonkor eusteak edo erakundeen azpiegitura fisikoetan inbertitzeak) jasoko dituzte:

1. Gizarte esku-hartzeko jarduerak: pertsonen autonomia eta komunitateko txertaketa sustatu eta babestera zuzendutako jarduerak, batez ere esperientziazko edo berrikuntza dakartenak eta, edonola ere, halakoak izateagatik, Gizarte Zerbitzuen Legean eta ura garatzeko araudian erantzukizun publiko gisa estandarizatu eta bermatutako prestazio eta zerbitzuen katalogoa osatzen ez dutenak.
2. Borondatezko ekintza eta gizarte esku-hartzeko elkarre parte hartzea indartzeko jarduerak. Ildo honetan baino ez dira sartzen erakundeei bazkide edo langile lotutako pertsonak hartzaile dituen jarduerak, erakunde horiek, borondatezko ekintzarako eta elkarre parte hartzerako bide gisa, berez gizarte balioa dutelakoan.

3. Gizarte esku-hartzerako erabilgarria den ezagutza sortu eta eskuratzera zuzendutako jarduerak, hala nola prestakuntza programak, ikerkuntza proiektuak, argitalpenak egin eta hedatzea, dokumentazioari lotutako jarduerak edo gertakizun teknikoak, hala nola ikastaroak eta mintegiak.

2010eko balantzearen arabera 395 erakundek 1.098 laguntza eskatu zituzten; haietatik 444 proiektu hautatu ziren (guztien %40) eta batez beste 22.000 euro jaso zituzten. Guztira laguntzetan 9,66 milioi euro eman ziren (eskatutakoaren %28,1). Haietatik, 8 milioi (guztia %82,8) pertsona, familia talde eta komunitateekiko esku-hartzeetara bideratu ziren, 1,2 milioi (%12,2) elkarteak sendotzera eta gainontzeko 480.000 euroak (guztia %5) ezagutzaren kudeaketari lotutako ekimenetara.

4.2.2 AUZOLAN programa

Programa hori prestazio ekonomikoen (DBE eta GLL) jasotzaileen eta ahuleziako egoeran dauden beste pertsona batzuen laneratzea errazteko abiarazi zen. Programa uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren eta gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak laneratzeko abuztuaren 31ko 166/2004 Dekretuak sartutako aldaketaren bidez dago araututa.

2009an, informazioa dagoen azken urtean (2010ean ez da jaso programa horren azpian laguntza deialdirik egon zenik), bazterkeria arriskuan zeuden 915 lagun kontratatatzeko laguntzak eman ziren, 2008an baino 93 gehiago. Guztira, 106 proiektu (aurreko urtean baino 8 gehiagok) jaso zituzten deialdi horretako laguntzak, EAEko 58 erakunderen bidez, udalak edo mankomunitateak zein udaletako zerbitzu taldeak izan. Erakunde horiei guztira 10,6 milioi euro eman zitzaizen (2008an baino %11 gehiago). Guztira, azken hamar urteetan programak 63 milioi euro bideratu ditu diseinatu zen helburuetara, eta 7.000 lagun inguru izan dira onuradun.


4.2.3. Txertaketarako programen kudeaketa errazteko indartze programa

Programa honen xedea oinarritzko gizarte zerbitzuetan teknikariak eta laguntzeko langileak kontratatatzeko laguntza ekonomikoak ematea da, txertaketarako hitzarmenen eta txertaketarako beste programa batzuen kudeaketa errazteko. 2009an (ez da jaso 2010ean programa horren azpian laguntza deialdirik egon denik), 192 teknikari eta 131 administrari (+54 eta +48, hurrenez hurren, aurreko urtearen aldean) lanaldi osoan edo lanaldi erdian, EAEko udaletan, mankomunitateetan, kuadrilletan, partzuergoetan edo udaletako zerbitzu taldeetan kontratatatzeko laguntzak onartu ziren. Erakunde horiei —EAEko udal gehienak biltzen dituzte—, guztira, 8 milioi euro eman zitzaizen, aurreko urtean baino %9,4 gehiago.

4.2.4. Txertaketarako enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

Azken urteetan, espainiar Estatuan, txertaketarako enpresei dagokienaz, asko sortu dira. Alde batetik, zenbait autonomia erkidegok (haien artean EAEk) mota hau arautu dute eta onarpena eta berriazko diru-laguntzak eman dizkiote; gainera, enpresa kopurua esponentzialki hazi da³. Txertaketarako enpresak definitzeko esan daiteke haien helburu nagusia lan merkatuan sartzeko zailtasunak

IV.4.4. Grafikoa. Auzolan Programa. Onuradun eta proiektu bakoitzagatik gastuaren bilakaera. Eurotan



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin egina.

dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzea dela. Haien ezaugarri nagusia haien gizarte helburu bikoitza da: alde batetik, enpresa eratu den jarduera ekonomikoa burutzea; bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

Gure erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduak txertaketarako enpresak sortu eta irauteko laguntzak arautu ditu. Agindu hori txertaketarako enpresen kalifikazioa arautu, haietan sartzeko prozedura ezarri eta txertaketarako enpresen erregistroa sortzeko abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua garatzeko ezarri zen. 305/2000 Dekretua azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak indargabetu zuen, txertaketarako enpresen araubidea arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legearen eskakizunetara egokitzeko. Laguntza horien helburua halako enpresei euren ezaugarri eta premia berezietara egokitutako laguntza bideak eskaintzea da, haientzat berriaz diseinatutako laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak xedatuz. Haren esparruan, txertaketarako enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta txertaketarako enpresei euri, irauteko, zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira. Tresna horien bidez, Eusko

IV.4.2. Koadroa. EAE-ko txertaketarako enpresentzako laguntza Programaren bilakaera. 2003-2009

	Erakundeak	Aurrekontua (euroak milaka)	Onuradunak
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
Guz. 2003-2009	234	40.105	1.986

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

³ Retolaza et al (2008): "Eficiencia en las empresas de inserción y apoyo público". Zerbitzuan aldizkaria, 2008ko abendua. Eusko Jaurlaritza.

Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, txertaketarako enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenetan, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik eratortzen da. 2003tik 2009 arte, Eusko Jaurlaritzak, laguntza lerro horren bidez, 40,1 milioi euro banatu ditu, urtean batez beste 32 laguntza eta ia 2.000 lagunek jaso dituzte.

2009an txertaketarako 39 enpresari eta txertaketarako enpresen sorkuntza sustatzen duten 3 erakunderi eman zitzaizkien laguntzak. Laneratzea egiten duten 447 laguni

eragin zieten, enpresa horiek kontratatuta, merkatu normalizaturako biderako urrats gisa. 2009rako laguntzak 2.11 milioi eurokoak izan ziren, eta 2009-2012 aldirako sinatutako laguntza konpromisoa, guztira, 7,24 milioi eurokoa izan zen.

Bukatzeko, 2010eko apirilaren 30eko Aginduaren bidez, urte horretan txertaketarako enpresak sortu eta irauteko laguntzetarako deialdia egin zen. 10,28 milioi euro esleitu zitzaizkion gehienez aurrekontuan. Horretarako, 2010eko ekitaldirako 4,43 milioiko ordaintzeko kreditua ezarri zen, 2,6 milioikoa 2011rako, 2,4koa 2012rako eta 850.000 eurokoa 2013rako. Memoria hau ixterakoan ez da ezagutzen ekimen horren balantzea.

5. Gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarriak EAE-n

EAE-n, gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema pribatua protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitopenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren %92 inguru BGAE-etara bideratzen dute. Gainerako %8 beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratuetara, mutualitateetara, etab. EAEko BGAE-ei dagokien araudiaren arabera, erakunde horiek, derrigorrezko Gizarte Segurantzza osatzen duten aurreikuspen sistemen esparrutik kanpo, irabazi asmorik gabeko xede nagusia borondatezko eta gizarteko aurreikuspen modalitatea erabiltzea daukate, haien kideak edo ondasunak halabeharrezko edo aurreikusteko moduko inguruabar edo gertaeren aurka babesteko.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten gerri guztietan bezala, EAE-n plan modalitate nagusi bi daude: enplegu edo lanbide aurreikuspenekoak, langileei zuzenduak, eta lan harremanen esparruan lan-hitzarmen kolektiboaren tresnaren bidez egituratuak; eta finantza erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, haietara edozein pertsona fisiko bazkidetu daiteke. Bestalde, gure legedian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen planak; haien bazkideak elkarte baten, sindikatu baten... kideak dira eta ez daude hain zabaldua.

Enplegu aurreikuspen planetan, halaber, alde handiak dauzkaten modalitate bi daude: prestazio definituko

planak (PD) eta ekarpen definituko planak (ED). PD planak gizarte babeseko sistema publikoak osatzeko modurik hedatuena dira, antzeko ezaugarriak dauzkatelako: bazkideak erakunde babesleari transferitzen dio arriskua eta prestazioak langilearen lan-bizitzaren arabera kalkulatu ohi da. Hori dela-eta, gizarte aurreikuspeneko sistema pribatuetan tradizioa duten herrietan modalitate horien hedatuena da.

Plan tradizional horien aurrean, ekarpen definitukoek gero eta garrantzi handiagoa daukate. Haien ezaugarria da biometria eta finantza arriskua batez ere bazkideak jasaten duela eta aldagai determinantea ekarpenaren zenbatekoa dela; kobratuko den prestazioa, aldiz, ezezaguna da, ordaindutako kuoten kapitalizazioak lortutako errentagarritasunaren arabera izango baita. Haien abantaila da ez dutela langileen lan mugikortasuna oztopatzen, langileak enpresa aldatzen duenean metatutako eskubideak berekin daramatzalako¹.


Gizarte aurreikuspeneko euskal sistema osagarrian enplegu plan gehienak ekarpen definitukoak dira: 2007ko datuekin, 174 ED plan eta 49 PD plan. ED planen nagusitasuna are argiagoa da bazkide (atxikipen) kopurua aintzat hartzen badugu: enplegu planen bazkideen %87k ekarpen definituko plana daukate, eta %13k, aldiz, prestazio definituko (aurreko urteko ratio berberak).

2009ko behin-behineko datuen arabera, EAEk 184 BGAE dauzka EAEko BGAE erregistroan inskribatuta, 2008an baino hiru gutxiago. 1,34 milioi bazkide dauzkate (gure erkidegoko biztanleriaren %62); haietatik, %60,7 banakako BGAE-en bazkide dira eta %30,3 enplegu erakundeenak; ondarea 18.285 milioi eurokoa da (BPGd-ren %27,6, behin-behineko datuekin).

2008ko joera (gure erkidegoko BGAE-ei dagozkien magnitude nagusiei buruzko behin betiko informazioa dagoen azken urtea) EAE-n gizarte-aurreikuspen osagarria ezartzeko prozesua moteltzekoa da, haren forma nagusiari dagokionez, behintzat: BGAE. Izan ere, atxikipenak %7,3 hazi arren, gure erkidegoko BGAE-en ekarpenak eta ondare osoa murriztu egin dira (%-3,2 eta -2,4, hurrenez hurren) urte horretan.

2008an bazkideak 1,33 milioi baino gehiago ziren, baina kontuan izan behar da atxikipenetan bikoiztasunak egon

IV.5.1. Grafikoa. BGAE-en bilakaera EAE-n.
Oinarri-urtea: 2002



Iturria: Eusko Jaurlaritzako datuekin egina.

IV.5.1. Koadroa. BGAE-en datu irmoak EAE-n,
2008-12-31N (euroak milaka)

	Kop.	Bazkideak	Ekarpenak	Ondarea
Enplegu BGAE	51	404.102	574.637	8.732.260
Banakako BGAE	44	808.093	817.038	8.376.857
Gainerako BGAE	92	120.526	12.236	120.331
BGAE Guztira	187	1.332.721	1.403.911	17.229.448

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Ekonomia eta Ogasun Saila.

¹ Modalitate biek dauzkate abantailak eta eragozpenak, eta biak uztartzeko sistema mistoak ere diseinatu dira. Haien helburua arriskuak alderdi bien artean banatzea da, gutxieneko errentagarritasunak bermatzeko edo prestazioak zenbait aldagai sozioekonomikoen portaeraren arabera indizeen pean jartzeko... tresnak erabiliz.

IV.5.2. Koadroa. BGAE-en magnitude nagusiak EAE-n. Datu irmoak

	2005	2006	2007	2008	2005-06 %	2006-07 %	2007-08 %
Bazkideak*	1.162.565	1.225.429	1.241.510	1.332.721	5,4	1,3	7,3
Ekarpenak (€, milaka)	1.278.994	1.397.278	1.450.530	1.403.911	9,2	3,8	-3,2
Ondarea (€, milaka)	14.469.881	16.216.923	17.659.170	17.229.448	12,1	8,9	-2,4
Errenta finkoko inb. (€, milaka)	7.069	8.373	8.676	:	18,4	3,6	:
Errenta aldagar. inb (€, milaka)	2.471	2.864	3.096	:	15,9	8,1	:
Gastua pentsioetan (€, milaka)	272	316	349	:	16,2	10,4	:
BGAE kopurua	199	185	185	187	-7,0	0,0	1,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila.

(*) Pertsona bera BGAE batean baino gehiagotan egon daiteke. Bikoiztasunak ezabatuko balira, atxikitako pertsonen benetako kopurua txikiagoa litzateke.

daitezkeela. Haietatik, %60,6 banakako erakundeei dagozkie, %30,3 enplegu BGAE-ei eta gainerako %9,1 bestelako erakundeei. Ekarpinak, bestalde, 1,4 milioi eurokoak izan ziren, eta ondarea 17.229 milioi euro. Hura ia erdi bana dago banatuta enplegu eta banakako erakundeen artean.

5.1. Estalitako biztanleria

Eusko Jaurlaritzaren "Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin, 2007" izeneko txostenak erakutsi zuenez, guztira 1,26 milioi lagun egon ziren BGAE-ek eskaintzen dituzten aurreikuspen planetara bazkideguta. Kopuru handi horrek, ordea, ez du islatzen aurreikuspen planak dituzten banakakoen kopurua, pertsona berak plan bat baino gehiago izan dezakeelako BGAE berean edo BGAE bat baino gehiago izan eta, beraz, estatistika horretan behin baino gehiagotan agertuko delako zenbatuta. Hala ere, eta esan denez, 2009rako behin-behineko datuak eskuan, %60,2ko estalduta tasa kalkulatzen da.

2007ko datuak hartuta berriz ere, aurreikuspen planen bazkide guztietatik, 746.149 "aktiboak" ziren, hots, kotizatzen edo planari ekarpena egiten zioten (%60), 41.246 "pasiboak", hots, aurreikuspen planetako prestazioren bat jasotzen zuten (%3), eta 470.569 "etendako" bazkideak ziren, hots, aktibo egonda ez dute ekarpenik egiten baina erakundeen metatutako eskubideei eusten diete² (%37). Modalitateen arabera, banakako aurreikuspen planek, data horretan, nagusitasun handia zuten sistema osoan, haien 829.668 bazkideak enplegu planek estalitako bazkideak halako bi baino gehiago direla kontuan hartzen badugu.


Bestalde, aurreikuspen planetan bazkideguta pertsonen adina kontu garrantzitsua da. Orokorrean, enplegu aurreikuspen planen biztanleria banakako planena baino gazteagoa da; 35 urtez azpikoek bazkide guztien artean duten pisua ia bi aldiz handiagoa da enplegu planetan (%30,7) banakakoetan baino (%16,2). Horrela, enplegu planetan 45 urtez azpiko biztanleria da nagusi, eta banakako planetan, aldiz, 45 urtez gorakoa. Sexuaren arabera, gizonezkoak nagusi dira aurreikuspen osagarriko sistema pribatuetan; zehazki, BGAE-etan bazkideen %60 dira. Urte berean, Gizarte Segurantzako sistema publikoan emakumeen afiliatuak, aldiz, %41,3 dira.

Sektore publiko eta pribatuari dagokionez, enplegu planen bazkide gehien-gehienek, %74,4k sektore pribatuan egiten

dute lan. Gizarte-aurreikuspen osagarriaren ezarpena, ordea, askoz sendoagoa da sektore publikoan enpresa pribatuan baino: Euskadiko BGAE-en Federazioaren arabera, 2010ean enplegu aurreikuspen planak zituzten herri-administrazioetako langileak 118.000 baino gehiago ziren, ia langile publiko guztiak. Hori sektoreko lan-hitzarmen kolektiboaren emaitza da, eta honakoak sortzea ekarri du: ELKARKIDETZA BGAE toki eta foru erakundeen esparruan, ITZARRI BGAE Eusko Jaurlaritzaren esparruan, eta Estatuaren Administrazio Zentralaren Pentsio Plana administrazio zentralaren mendeko langile publikoentzat. Gizarte-aurreikuspen mota horretako planak dituzten enpresa pribatuak langileak, ordea, 290.000 baino gehiago izanda, EAEko ekonomiaren sektore pribatuko langileen %30 dira, ozta-ozta, Gipuzkoako Lurraldean, sektoreko lan-hitzarmen kolektiboaren bidez, GEROA BGAE sortu zen arren. GEROA BGAEk 232.153 bazkide dauzka eta haietatik 123.165 kuotak ordaindu zituzten 2010ean.

Bestalde, suteak edo ehorzketak bezalako beste arrisku batzuk estaltzen dituzten erakundeak alde batera utzita, BGAE-ek 66.756 prestazio eman zituzten 2007an (%+3,3

IV.5.2. Grafikoa. EAEn BGAEei lotutako pertsonak: atxikipenak eta biztanleria osoaren aldean duten ehunekoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EUSTATEko datuekin egina.

² Eusko Jaurlaritzaren txostenak, aurreko urteetan bezala, ohartarazten du asko direla urtean ekarpenik egin ez duten "etendako" bazkideak; banakako planei dagokienez, aurreikuspen plana dutenen %44 baino gehiagok ez zioten ezer eman euren planari 2007an (%41 2006an) Azalpena askotariko kontabilizazioa da; jende askok, BGAE berean edo beste batean aurreikuspen plan baino gehiago daukanez, haietako bati baino ez dio ekarpena egiten. Hala ere, bikoiztasun horien eragina kenduta ere, urtean ekarpenik egiten ez duten bazkide kopuru hain handiak, Eusko Jaurlaritzaren txostenaren aburuz, BGAE-en bazkide askok aurreikuspen osagarriarekin duten konpromiso falta maila adierazten du.

IV.5.3. Koadroa. BGAE-ek emandako prestazio kopurua. 2007. urtea

	Banakako BGAE	Enplegu BGAE	BGAE bazkideak	BGAE guztira
Erretiroa	9.255	15.651	448	25.354
Ezintasun iraunkorra	1.868	3.779	9	5.656
Alarguntasuna	3.112	6.487	27	9.626
Zurztasuna	194	410	8	613
PENTSIOAK GUZTIRA	14.429	26.327	493	41.249
Gaixotasuna	127	22.577	43	22.747
Langabezia	1.810	863	8	2.681
Bestelako prestazioak	17	62	0	79
BESTELAKO PRESTAZIOAK GUZTIRA	1.954	23.502	51	25.507
GUZTIRA	16.383	49.829	544	66.756

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin, 2007.

2006aren aldean), pentsioen eta "beste prestazio batzuen"³. Datu horri dagokionez, gogoratu behar da emandako prestazioen kopurua ez datorrela bat prestazioak jaso dituzten pertsonen kopuruarekin, pertsona berberak BGAE beretik edo batzuetatik prestazio bat baino gehiago jaso dezakeelako.

BGAE-ek, kopuruari eta gastuaren zenbatekoari begira, ematen duten prestazio motari garrantzitsuena pentsioak dira eta, haien barruan, ugarienak erretiro pentsioak dira. Pentsio publikoak osatu ez ezik, BGAE-ek luzaroko langabezia arriskua edo bestelako arriskuak, hala nola ezintasun iraunkorra, babestu ohi dituzte. Prestazio mota horren kopurua handia bada ere, haren garrantzi erlatiboa txikiagoa da sortzen duten gastuari begiratzuz gero, askoz txikiagoa baita.

BGAE-en prestazioak kobratzeko moduari dagokionez, BGAE-ek urtero ordaintzen dituzten prestazioen %69 (pentsioak eta langabezia prestazioa) errenta moduan kobratzen dira. Enplegu planei dagokionez, portzentaje hori %83 arte igotzen da. PDko enplegu planek ordaindutako pentsioak bizi osorako errenta gisa ordaintzen direla suposatuta, 2007an bizi osorako pentsioen jasotzaileak 15.140 izan ziren, enplegu planen pentsioen %57,5 eta pentsio guztien %36,7

5.2. Babesaren intentsitatea

"Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin, 2007" txostenaren kalkuluen arabera, hasteko, 2007an BGAE-en aurreikuspen planetako urteko batez besteko ekarpena 1.930 eurokoa izan zen, 2006an baino %3,7 gehiago, Kontabilitatearen Estatistika Agiriaren arabera (KEA). Banakako planen kasuan zenbatekoa txikiagoa izan zen, 1.890€ (%-0,8), eta handiagoa enplegu planetan: 1.918€ (%+12,4 2006aren aldean) Urteko 1.930-2.400€ horiek, 138-172€ hilean, EAEko langileen soldata gordinaren %7,1-8,8 da, 2007an. Irizpidea da, egungo babes publikoko parametroekin, soldata gordinaren %6 inguruko ekarpenak, 30 urtez erregularitasunez eginda, nahikotzat jo daitekeen pentsio osagarria emango lukeela. Aurreikuspen planen bazkide gehienek, ordea, diru oso gutxi sartzan dute. Haietatik %76k urtean 1.800 euro baino gutxiago sartzan dute, hots, batez bestekoa (1.930€) baino gutxiago, eta %40k 600 euro baino

gutxiago, tamaina nahikoko pentsio osagarria sortzeari begira askitatz jo ezin daitekeen kopurua.

Bestalde, enplegu sistemetan ekarpen "nahikoak" lortzeari begira, garrantzi handia dauka bazkide babesleak, gehienetan enpresariak, banakako bazkidearekin ekarpen ahalegina partekatu eta aurreikuspen plana jarrita. EAEn 2007an enplegu planetako ekarpenen %83 bazkide babesleak ordaindu zituzten (aurreko urteko ehuneko bera⁴).

Beste alde batetik, BGAE-en aurreikuspen planen bazkideek metatutako ondarea 13.996 euro per capita zen 2007an, aurreko urtean baino %3,7 gehiago. BGAE baten bazkideak zenbait aurreikuspen plan izan ditzakeenez, gizarte-aurreikuspen osagarriko sisteman metatuta izango duen ondarea handiagoa izango da. Kasu hori gehiago gertatzen da banakako planetan, eta horrek azaltzen du, neurri batean, aurreikuspen plan bakoitzean metatutako zenbateko txikiagoa.

Pentsioen azken zenbatekoa metatutako funtsen inbertsio politikak asmatzen duen neurriaren arabera da, neurri handi batean; politika horrek errentagarritasun handiena lortzea eta ahalik eta arriskurik txikiena izatea uztartu behar ditu. Errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko erlazioa positiboa denez, hots, zenbat eta arrisku handiagoa errentagarritasun handiagoa, plan bakoitzaren bazkideen ezaugarriek kasu bakoitzeko errentagarritasun eta arrisku uztartekarik egokiena ekarriko dute. Bazkideen premia eta gustuak ase ahal izateko, BGAE-ek arrisku profil desberdinak dituzten plan mota asko eskaintzen

IV.5.4. Koadroa. BGAE-en prestazioen urteko batez besteko zenbatekoa. 2007. urtea

Prestazioak	Banakako planak	Enplegu eta bazkide planak	BGAE guztira
Erretiroa	8.214	10.073	9.395
Ezintasuna	5.678	6.953	6.532
Alarguntasuna	8.544	6.616	7.239
Zurztasuna	5.337	8.034	7.180
Pentsioak guztira	7.918	8.761	8.466
Gaixotasuna	10.495	1.501	1.551
Langabezia	2.588	4.455	3.194

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin, 2007.

³ Prestazioen jasotzaileak bazkide pasiboak edo "onuradunak" izan daitezke, BGAE-en bazkideak izan gabe, bazkide batek sortutako eskubideen kausadunak direnak, adibidez, alarguntasuneko pentsioak edo "eratorritako" bestelako pentsioak jasotzen dituztenak.

⁴ Batez besteko horrek errealitate oso desberdinak ezkutatzan ditu; BGAE batzuetan kotizazioa erdi bana banatzen da bazkide babeslearen eta bazkide arruntaren artean; beste batzuetan %100 bazkide babeslearen kargura zenbatzen da; eta beste batzuetan, euren arautegiaren arabera erdi bana egin arren, langilearen ekarpena borondatezkoa denez, bazkide babesleak derrigorrez ordaindutako kuotak ordaindutakoaren %90 dira.

IV.5.5. Koadroa. BGAE-en aurreikuspen planen kopurua inbertsioaren orientazioaren arabera. 2007. urtea

Inbertsioaren orientazioa	Banakako planak	Enplegu planak	Bazkide planak	Aurreikuspen planak guztira
Bermatua	48	1	0	49
Errenta finkoa	97	101	11	209
E. aldagarria gehienez %15	17	17	1	35
E. aldagarria gehienez %30	38	85	4	127
E. aldagarria gehienez %75	34	10	1	45
E. aldagarria %75-85	42	9	2	53
GUZTIRA	276	223	19	518

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin, 2007.

IV.5.6. Koadroa. BGAE EAE-n: sektorearen dimentsio ekonomikoa

	2006	2007	2008	2009P
BGAE kuotak / BPGd %	2,25	2,20	2,05	2,05
BGAE prestazioak / BPGd %	0,59	0,60	:	:
BGAE ondarea / BPGd %	26,26	26,84	25,18	27,62
BGAE kuotak / Giz. Seg. kuotak %	26,77	25,90	:	:
BGAE gastua / Gizarte S. gastua %	6,27	6,10	:	:

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin, 2007 eta geuk egindakoa.

dituzte. 2007an, BGAE-en bazkideen %45ek inbertsio joera “kontserbadorea” duten aurreikuspen planak hautatu zituzten: plan bermatuak edo errenta aldagarrian %15 baino gutxiago inbertitzen dutenak. %50 “arrisku ertain”eko planetan daude (euren funtsen %15 eta 75 artean errenta aldagarrian inbertitzen dute) eta %5ek baino ez dute egiten “arriskuko” planetan (%75 baino gehiago errenta aldagarrian). Bazkide gehien dauzkan plana errenta aldagarrian %15 eta 30 artean inbertitzen duena da.

Bukatzeko, BGAE-ek ematen dituzten prestazioak, funtsean, Gizarte Segurantzaren osatzeko pentsioak dira: erretiro, ezgaitasun, alarguntasun eta zurtasun pentsioak. 2007an BGAE-en gastuaren %88 izan zuten; gaixotasunagatiko prestazioek (EI), aldiz, gastuaren %9 izan zuten, eta luzerako langabeziakoek %2. BGAE-ek pentsioetan ordaindutako 349 milioiak 2007an Gizarte Segurantzak EAEn pentsioetan gastatutakoaren %6,1 izan ziren. BGAE-ek gutxi gorabehera EAEko biztanleriaren heren bat eta Gizarte Segurantzak biztanleria guztia estaltzen dutenez, estaldura maila berean portzentajea %18 ingurukoa litzateke.


5.3. Babes erakundeak, haien dimentsio ekonomikoa

Gizarte Segurantzaren osatzeko prestazioak ematen dituzten 94 BGAE-ei helduta, 2007an batez beste 11.925 bazkide zeuzkaten BGAE bakoitzeko; 16.364 banakako BGAE-ei dagokienez, eta 7.691 enplegu eta bazkidekoei dagokienez. Banakako BGAE-en tamaina enpleguakoa halako bi da. 2007an BGAE baten batez besteko ondarea 188 milioi eurokoa zen (%+11,2 2006aren aldean). Aldagai horren arabera ia ez dago alderik enpleguko eta banakako erakundearen artean, batez beste antzeko ondarea

baitaukate. Laburbilduta, banakako BGAE-en bazkide kopurua enpleguakoa halako bi da, baina antzeko ondarea dute. Bestalde, tamaina bazkide kopuruaren arabera aztertzerakoan bezala, ondarea oso pilatuta dago erakunde gutxi batzuetan; hori ohikoa da egiten dituen jardueretan eskalako ekonomia handiak dauden sektorean: finantzakoak eta epe luzerako aurrezkitxoak, mundu osoko pentsio funtsen tamainak erakusten duenez. Bestalde, BGAE-en garrantzi makroekonomikoa nabarmendu egiten da kudeatzen dituzten aktiboen bolumenari begiratuz gero. Pentsio funtsekin gertatu bezala, finantza sisteman garrantzi handia duten herri askotan —pentsio funts handien kasuan ere eginkizun funtsezkoa dute nazioarteko finantza merkatuetan—, BGAE-ek kudeatutako ondarea garrantzitsua da nazio errentako zenbakietan adierazita, EAEko BPGd-ren %25,2 azken datu irmoen arabera —2008koak—, eta %27,6 2009rako kalkuluen arabera.

Ekarpenen araberrako diru-sarrera korranteak aintzat hartzen ditugunean, ordea, BGAE-en garrantzia murriztu egiten da, BPG-d-ren %2,20 2007an (%2,05 2009an behin-behineko datuen arabera), baita gizarte prestazioetako gastua aintzat hartzen dugunean ere, BGd-ren %0,6 (2007ko datua). Magnitude horiek testuinguruan kokatu eta esanahi handiagoa emateko, osatu nahi duen Gizarte Segurantzaren sistema publikoak kontzeptu berberetan dauzkan diru-sarrera eta gastuekin erkatzea komeni da: BGAE-entzako ekarpenak Gizarte Segurantzak EAEn

IV.5.3. Grafikoa. BGAEak EAEn: administrazio-gastuek ondarearengan duten ehunekoa. %



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarte-aurreikuspen osagarria Euskadin, 2007.

gizarte kotizazioengatik kobratutakoaren %25,9 dira. Portzentajea, ordea, askoz txikiagoa da sistema biak ematen dituzten prestazioei begiratzen diegunean, orduan BGAE-en sistema pribatua ozta-ozta delako Gizarte Segurantzaren sistema publikoaren %6,1⁵.

Bestalde, BGAE-en aurreikuspen planek, batez beste, %2,92ko errentagarritasuna lortu zuten 2007an (%5,12 2006an). Enplegu planek %3,10 lortu zuten eta banakakoek %2,77. Eusko Jaurlaritzaren txostenak pobretzat jotzen ditu emaitzak: benetako errentagarritasunak ozta-ozta dira ehuneko hamarren batzuetakoak, urte horretako inflazioa %2,78 izan zela kontuan hartzen badugu.

Bukatzeko, BGAE-ek lortutako azken errentagarritasuna, neurri handi batean, BGAE-en gastu operatiboen zenbatekoaren arabera da: ekarpenak eta prestazioak kudeatzeko gastuak, aktiboak kudeatzeko gastuak, langile independenteen —besteak beste aktuarioak, auditoreak— zerbitzuengatik gastuak, etab. 2007an BGAE-ek 176 milioi euro gastatu zuten administrazioan, euren ondarearen %1 (%0,79 2006an). Ratio hori askoz txikiagoa da enpleguko BGAE-etan banakakoetan baino: %0,38, %1,63ren aurrean. Alde hori banakako planetan erakundeak bere bazkideekin daukan banakako harremanaren izaerari berari datxekio, kudeaketa, komertzializazio... kostu handiagoak sortzen baititu.

5.4. Araubide fiskala

BGAE-ek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoieta bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezpen bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat),

baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko). EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiek eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Orokorrean, zenbakiko bazkideak egindako ekarpenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarritik ken daitezke⁶. Bestalde, errenta geroratzat jotzen direnez, BGAE-etatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna gertatu aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren osoko errendimendutzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere⁷.

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2008ko bere txostenaren bidez emandako 2007ko PFEZren likidazio datuen arabera, BGAE-ei eta gainerako aurreikuspen formulei egindako ekarpenengatik kenketa 1.200 milioi eurokoa izan zen, 2006an baino %2 gehiago —hori EAeko urte horretako BPGd-ren %1,81 da, eta 2006an %1,90 izan zen—, guztira 513.222 aitortzerentzat, aurreko urtean baino %2 gehiago eta aitortzeen %45,4.

Horrek, batez beste, 2.333,13 euroko kenketa dakar, aurreko urtearen antzera, honako balioekin: errenta mailarik baxuenen (30.000 euro arteko oinarri likidagarria) batez besteko ekarpena 1.665 eurokoa izan zen, eta zergapekoen %39,5ek baino ez zituzten ekarpenak egin; 30.000 eta 90.000 euro arteko oinarria zuten zergapekoen batez besteko ekarpena 3.560 eurokoa izan zen, eta haietatik %71,5ek egin zituzten ekarpenak; eta errenta mailarik altuenetan batez besteko ekarpena 9.100 eurokoa izan zen, eta zergapekoen %69k egin zituzten ekarpenak.

⁵ BGAE-ek gizarte babeseko diru-sarrera eta gastuen duten eginkizun garrantzitsuan dagoen alde handi horren interpretatzeko balizko azalpen bi daude; lehenengoa, sistema pribatua sistema publikoa baino askoz gazteagoa da edo ez dago hain helduta, eta bigarrena: sistema pribatuko diru-sarrera asko ez dira gizarte prestazio bihurtzen euren helbururako erabili aurretik erreskatatzen direlako.

⁶ Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitortzea aurkeztu behar den erabakitze baina ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitatzeko jo eta, beraz, haren zerga-oinarria osatu ez arren.

⁷ Hala ere, prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, %40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, osorik sartzen da zerga-oinarrian.



05

ARAUGINTZA EAE-n



MEMORIA
EAEko sozioekonomikoa
2010

EAErako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarritzko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurilaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorritz, Legebiltzarrak Eusko Jaurilaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komun en eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurilaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu, besteak beste: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komun en eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarrari izendatzen du lege maila duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuan lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorritz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez. Esparru honetan, **Eusko Legebiltzarrak**, bere funtzio legegilea betez, 2010ean 6 lege onetsi zituen guztira, 2009an baino 3 gehiago.

Ekimen legegilea, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, hauen proposamena izan daiteke:

- Legebiltzarreko taldeena, edo legebiltzarkide batena, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Jaurilaritzarena.
- Lurralde historikoak ordezkatzten dituzten erakundeena.
- Herri ekimen legegilearena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurilaritzarena denean lege proiektua izena jasotzen du; gainerako kasuetan, lege proposamena da.

Hona hemen **2010ean** Eusko Legebiltzarrak **onetsitako legeen edukiaren laburpena**:

- **1/2010 Legea, martxoaren 11koa, Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzen duena.**

Juridikoki, honela zehazten dira parke naturalak: beren paisaien edertasuna, beren ekosistemen ordezkartza edo beren flora, fauna edo aniztasun geologikoa direla eta (eraketa geomorfologikoak barne), balio ekologiko, estetiko, hezitzaile eta zientifikoak kontserbatzeko adinako garrantzia duten gunen naturalak.

1994ko Legearen aldaketa honen helburu nagusia klausula bat ezartzea da, babestutako espazio natural en eragin eremuaren eta mugen barruan erauzteko ustiapenak egiten direla saihesteko, industria mota horrek eragin handia baitauka ingurumenean.

- **2/2010 Legea, apirilaren 22koa, urriaren 25a Día del País Vasco-Euskadiko Eguna aldarrikatzeari buruzkoa.**

“Día del País Vasco-Euskadiko Eguna” aldarrikatu da urriaren 25a, Euskadiko Autonomiako Estatutuaren onesp enaren urteurrena, hain zuzen ere. Horrela, jai ofizial bihurtuko da ondore guztietarako, lanekoak barne.

- **3/2010 Legea, ekainaren 24koa, 2010eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onetsi zituen Legea aldatzen duena.**

Maiatzaren 20ko 8/2010 Legegintzako Errege Dekretuak hainbat xedapen jasotzen ditu, defizit publikoa murrizteko, zehazki, Espainiak Diru Batasuna eta eurozonako ekonomiak babeste aldera Europar Batasunean hartu dituen konpromisoak bete ahal izateko beharrezko moldaketen aparteko neurriak.

8/2010 Legegintzako Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen eragina medio, berau aplikatu ahal izateko araudi aldaketak egin behar dira. Neurri horietako batzuen ondorioz, Eusko Legebiltzarrak neurriok autonomia mailan egokituko dituen legea ezarri behar du, arau honen esparruan. Halaber, egokitza jo da antzeko asmoa izanda aurrekontu politika gainerako erakunde, nazio eta erkidegoetako mailekin parekatzen duten beste neurri batzuk ezartzea.

Lege honek gastua murrizteko aurreikusten duen neurri nagusiak EAEko sektore publikoaren menpeko langileen ordainsariei eragiten die, urtean % 5 murriztu baita soldata masa.

- **4/2010 Legea, urriaren 21ekoa, Euskal Estatistikari buruzko 2010-2010 Planari buruzkoa.**

Euskadiko Autonomia Estatutuan xedatutakoaren arabera, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du estatistikaren alorrean bere helburu eta eskumen propioetarako, besteak beste.

Estatutuan xedatutakoa aplikatzeko, Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea onetsi zuen. Horrek, bere lurralde eremuan jarduera estatistikoa arautzeaz gain, jarduera hori antolatze ko tresna Euskal Estatistikari buruzko Plana (legearen

bidez onetsiko dena) izatea aurreikusten du. Era berean, urteko programa estatistikoek garatuko dute plana.

Lege honen bidez, Euskal Estatistikari buruzko 2010-2012 Plana onetsi da. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko antolakuntza estatistikoak hirurtekoan gauzatu behar dituen estatistikak eta antzeko jarduerak jaso dira.

- **5/2019 Legea, abenduaren 23koa, 2011ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onesten dituen.**

- **6/2010 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzkoa.**

Estatutuko 10. artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du autogobernuko instituzioen antolaketa, araubide eta funtzionamenduan, barneko hauteskunde legedian eta publizitatean.

Lege honek publizitate eta komunikazio instituzionalaren xedea mugatzen du. Hori horrela, garapen eremua ezartzen du, hedatu daitezkeen eduki eta mezu posibleak adierazita, bai eta eremu subjektiboa ere, bere aplikazio eremuan dauden administrazio eta erakunde publikoak definituta.

Bestalde, publizitate instituzionalaren jarduerako edukia arautuko duten betekizunak eta errespetatu beharreko debekuak ezartzen ditu.

Halaber, gai honetan egiten diren kontratuak adjudikatzeko irizpide orokorrak zehazten ditu, hauteskunderi buruzko indarreko araudian xedatutakoaren arabera hauteskunde garaian jarduera hau azaltzen duten arauekin batera.

Azkenik, Publizitate Instituzionalaren Sail arteko Batzordea eratzen du, Lege honetan xedatutakoaren arabera araututako subjektu publikoen publizitatea eta komunikazioa planifikatu, teknikoki babestu, ebaluatu, koordinatu eta kontrolatzeko organo arduradun.

Euskal EGABek, Eusko Legebiltzarreko kontsulta erakundea den aldetik, 2010ean onetsitako legeetako bati buruzko iritzia azaldu zuen. Hori horrela, Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzko Legearen (6/2010 Legea) aurreproiektuaren gaineko 3/10 irizpena idatzi zuen.

Bestetik, **Eusko Jurlaritzak**, arauak egiteko ahalmenaz baliatuz, guztira 365 dekretu onetsi ditu 2010ean.

Aurreko urtean bezala, 2010ean ez da Legegintzako Dekreturik onetsi.

Euskal EGABek, Jurlaritzako kontsulta erakundea den aldetik, 2010ean onetsitako dekretuetatik 3ren gaineko irizpena eman zuen. Honakoak hain zuzen ere:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen Dekretu Proiektuari (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua) buruzko 2/10 irizpena.
- Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzeko Dekretu Proiektuari (azaroaren 23ko 309/2010 Dekretua) buruzko 4/10 irizpena.
- Enpresei ingurumena babesteko inbertsioetarako diru-laguntzak ematea arautzen duen Dekretu Proiektuari (urriaren 19ko 260/2010 Dekretua) 5/10 irizpena.


Lurralde historikoetako Batzar Nagusiei dagokienez, 2010. urteko araugintza, onetsitako foru arauen arabera neurtuz gero, aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa izan da.

Arabaren, zehazki, 16 foru arau onetsi dira 2010ean, iaz onetsitako 14en aldean pixka bat gehiago.

Era berean, Gipuzkoan 5 arau onetsi dira, 2009an onetsitako 4en aldean.


Hala ere, Bizkaia hazkunde handiagoa izan du, 2010ean 8 arau onetsi baitira guztira, hau da, iaz onetsitakoen bikoitza.

V.1. Grafikoa. Eusko Legebiltzarren eta Eusko Jurlaritzaren araugintza



Iturria: Geuk egina, EHAAn oinarrituta.

V.2. Grafikoa. Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek onetsitako foru arauak



Iturria: Geuk egina, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldizkari ofizialekin oinarrituta.



06

LABURPENA ETA GOGOETA OROKORRAK



1. Laburpena

1.1. Demografia eta immigrazioa

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak 2010eko urtarileko erreferentziari buruz emandako azken datuen arabera, biztanle kopuruak 2000n hasitako goranzko bideari jarraitu dio, hazkundera gero eta txikiagoa bada ere. Zehazki, 2010ean 2.178.339 biztanle zituen (% 0,3, 2009aren aldean), hots, aurreko urtean baino 6.164 gehiago eta 2005ean baino 53.000 gehiago. Lurralde Historikoei dagozkien datuek biztanleria Araban (% 1,1 azken urtean) gehiago, Gipuzkoan (% 0,2) gutxiago, eta Bizkaian (% 0,1) oso gutxi hazi dela islatzen dute.

Zenbateko horiekin batera, bestalde, EAEn erroldatutako atzerritar biztanleen pisua % 7,7koa da, 2009ko urtarilaren 1ean % 7,3koa zen bitartean. 2009an, atzerritar biztanleriaren pisua ia ez da handitu Estatu osoan (% 13,8tik 14ra igaro da), baina EAEko datua oraindik oso urrun dago Espainiako batez bestekotik —eroldaren azken eguneratzean 6,5 milioi atzerritar izan dira— eta, batez ere, beste erkidego batzuetatik; besteak beste, Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoan eta Madrilén atzerritarrak bertako biztanleriaren ehuneko oso handia dira.

Bestalde, EUROSTATEk kalkulatu du 501,1 milioi lagun bizi direla Europar Batasunean, 2010eko urtarileko erreferentzia hartuta, 2009ko urtarilean baino 1,4 milioi gehiago. Milako 2,7ko hazkunde horri esker —aurreko urtean milako 4,4koa izan zen— beste urte batez eutsi zaio 1960az geroztik gertatu den etengabeko goranzko joerari. Orduan Batasuneko biztanleak 400 milioi ziren. Beste urte batez, bilakaera positiboa immigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren % 40 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkundeari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

EAEn berriz, 2009rako behin-behineko datuek hazkunde begetatibo (jaiotzen eta heriotzen arteko alde) positiboa erakutsi dute, seigarren urtez jarraian, gure erkidegoan 1986az geroztik gertatzen ez zen zerbait. Urte horretan 20.928 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 1,8 gutxiago, eta 19.045 heriotza, 2008an baino % 2 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa +1.883koa izan da, hots, milako 0,8koa. EAEko hazkunde begetatiboak 14 urtez jarraian behera egiteko joera adierazi zuen eta, behin betiko daturik lortu ezean, azkenean ere badirudi 2004an gelditu egin zela. Hala ere, joera hori baieztatu egin beharko da hurrengo urteetan. 60ko hamarkadan eta 70ekoaren hastapenetan gertatu ziren saldo begetatibo indartsuen ostean, 1990a negatiboa izan zen lehen aldiz 1937tik, eta 1996an saldirik txikienera iritsi zen, urte hartan EAEk 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen.

Beraz, ikusten denez, saldo begetatiboa positiboa izan da 2009an jaiotzak heriotzak baino gutxiago jaitsi direlako: % -1,8 eta -2 hurrenez hurren. Bestalde, ohikoa denez, 2009ko portaerak aldeak izan ditu lurraldeen arabera:

Bizkaia, saldo positiboak berreskuratzeko atzeratuago egonda, urte horretan biztanle bat irabazi du, behin-behineko datuen arabera, Gipuzkoak eta Arabak beste urte batez euren joera positiboak sendotu dituzten bitartean, hurrenez hurren, 1.033 eta 851 biztanle gehiago izanik.

EUSTATen datuen arabera, 2009an EAEn sexu desberdinetako egoiliarren 9.103 ezkontza egon ziren (eta 128 sexu bereko pertsonen artean), aurreko urtean baino 607 gutxiago (% -6,3). Azpimarratzekoa da azken urteotan elkartze zibilek izandako hazkunde handia, 1990an % 23,3 izatetik 2009an % 59 izatera igaro baitira. Guztira, 5.335 elkartze zibil gertatu dira, 3.751 ezkontza katolikoen eta beste erlijioei dagozkien 17en aurrean.

Bestalde, EUSTATen 2009ari buruzko Migrazio mugimenduen estatistikak 13.254 laguneko hazkundera zenbatu du gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino % 21,1 gutxiago), eta hamar urtez jarraian migrazio saldoa positiboa izan da. Lurraldeka, Bizkaia, 7.394 lagun irabazita, migrazio saldirik handiena dauka zenbaki absolutuetan, baina % 16 jaitsi da 2008aren aldean. Bestalde, Arabak 3.670 lagun irabazi ditu (% -16) eta Gipuzkoak 2.190 (% -40). Era berean, azken 20 urteetan bigarren urtez jarraian EAEn beste erkidegoetatik iritsitako immigrazio gehiago gertatu dira haietarako emigrazioak baino, eta horrela Estatuarekiko migrazio saldoa positiboa izan da (+3.452).

Bestalde, udal erroldako datuek erakusten dutenez, azken urtean EAEn bizilekua duen atzerriko biztanleriak hazten jarraitu du. 2005. eta 2010. urteen artean EAEn erroldatutako atzerritarren bolumena % 130 hazi da. 2005ean gure erkidegoan 72.894 etorkin bizi ziren; 2010eko urtarilaren 1ean udal erroldak 167.382 zenbatu zituen, aurreko urtean baino % 4,9 gehiago.

Bestalde, Lan eta Immigrazio Ministerioaren datuek erakusten dutenez, 2009ko abenduaren 31n, 106.658 atzerritarrek zeukaten EAEn bizilekua izateko baimena, aurreko urtean baino 10.023 gehiagok. Datuok 2010eko urtarilaren 1ean erroldatutakoenekin erkatuz gero, erregularizazio tasa edo indizeak erakusten du atzerritar erroldatuen % 64k bizitzeko baimena zeukala erreferentziazko datan. Erregularizazio tasa hori 3 puntuz igo da aurreko urtearen aldean; gauza bera gertatu da Estatu mailan (% 73ko tasa dauka, 2009an baino lau puntu gehiago), aurreko urtean tasa horiek lurralde bietan jaitsi ondoren.

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2007an egindako inkestak erakutsi zuen EAEn bizi ziren atzerritar gehienak zuela bi eta sei urte artean iritsi zela gure erkidegora. Bestalde, atzerritarren % 22,8k zion egoera irregularrean zegoela eta % 63,8k bizileku baimen motaren bat zeukan data hartan. Gainerakoek Espainiako herritartasuna edo Europako beste herrialde batekoa zuten.

1.2. Hezkuntza

EUSTATEk 2010-2011 ikasturteari buruz emandako datu aurrerapenaren arabera, EAEn areagotu egin da unibertsitate aurreko matrikulazio kopurua (Helduen Hezkuntza Iraunkorra zenbatu gabe). Kopuru horretan Hezkuntza Berezia sartuz gero, hazkundea % 1,1 izan da eta sartzen ez badugu, beriz, % 3,4.

Bigarren horri helduz, hazkundearen arrazoia beheko mailetan gertatu den hazkundea (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn) nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) izandakoa da; lehenengoan, hezkuntza berezia kanpo utziz gero, 281.427 ikasle zegoen matrikulatuta (% 2,1) eta bigarrenetan % 4,6koa izan da hazkundea. Hazkunderik handienak Lanbide Heziketan, goi mailako Lanbide Heziketan (% 7,4) eta erdi mailako Lanbide Heziketan (% 6) gertatu dira. Urruti, Batxilergoa kokatuko litzateke (% 2,5).

2010-2011 ikasturtean erdi mailako ikasketak egiten ari diren 59.229 ikasleetatik, 29.692 ikaslek, hau da, % 50,1, Batxilergoa aukeratu zuen derrigorrezko hezkuntza amaitu eta gero. Aldiz, % 49,9k LH aukeratu zuen.

EAEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasle kopurua, guztira, 2009-2010 ikasturtean, 62.773koa izan zen; kopuru hori % 1eko murriztapena da aurreko urteko kopuruaren aldean eta, gainera, azken 15 urteetako joera jarraitzen du.

Matrikulazioen bilakaeraren azterketa, 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan, bereziki konplexua da, 2009. urtean Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrutik etorritako unibertsitate mailako irakaskuntzen egitura berria finkatu izanaren ondorioz (gradua, masterra eta doktoregoa). Hala ere, esan dezakezu kopuru osotik % 87,8 lehen eta bigarren zikloko ikasketetan matrikulatzen dela (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniariak, diplomaturak eta arkitektura eta ingeniari teknikoak), % 5,2 graduoko ikasketetan eta % 7 graduondokoetan (hirugarren zikloa edo doktoregoak, ULren arabera (Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa) eta EGMHEtik etorritako graduondoko programa ofizial berrietan (master ofizialak eta doktoregoa)).

Matrikulatu diren % 55 emakumeak dira, eta gizonak, aldiz, % 45. Emakumeen agerpena ohikoagoa da ikasketak mota guztietan: lehen eta bigarren zikloetan (% 55), graduokoetan (% 54) eta graduondokoetan (% 57).

Lehen eta bigarren zikloan gehien eskatzen diren titulazioak hauek dira: Irakasle (5.579), Industriako ingeniari teknikoa (4.941), Enpresa administrazio eta zuzendaritza (4.869), Diplomatura enpresa zientzietan (3.543), Industria ingeniari (2.663), Zuzenbidea (2.454), Psikologia (2.184) eta Medikuntza (1.503).

Hona hezkuntza adierazleen araberrako datuak:

- Ikasleak talde eta irakaslearen arabera. El-ren *Hezkuntzaren Estatuko Adierazle Sistema. 2010eko edizioa* izeneko txosteneko datuen arabera, 2007-2008 ikasturteko datuekin egin, EAEn ikasle kopuru handiena taldeka Batxilergoan dago, % 22,4rekin. Atzetik, Lehen Hezkuntza du, 19,9rekin eta DBH 19,7rekin. Estatuan, lehenengo tokian, DBH eta Batxilergoa daude (24 bakoitzak); ondoren, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza daude, 20 eta 21 inguruko batez bestekoekin. Bestalde, irakasle bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua estatu osoarentzat 11koa da. Asturias, Galizia eta Kantabria dira ratio txikienekoak,

10ekin. Kontrako aldean, Andaluzia ageri da, 13 ikasleekin. EAEk 10,5 ikasle ditu irakasle bakoitzeko.

- Ikaskuntza iraunkorreko parte-hartzea. EUROSTATen datuen arabera, ikaskuntza iraunkorreko parte-hartzea egonkorra da azken urteotan, eta 2008an % 10,9koa zen EB15ean, % 10ekoa EB25ean, eta % 9,5ekoa EB27an. Ondorioz, zaila da helburu hau lortzea: 2010ean % 12,5 izatea. Europako Berrikuntzako 2009ko indizearen datuen arabera, EUSTATEk argitaratu zuena 2010ean, EAEk lortu egin du 2010erako aurreikusitako helburua, izan ere, portzentajea % 13,5 izatera iristen da.
- Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gasturako jarritako partida 2010eko aurrekontuetan, 2.751.210 mila euroan kokatzen da. Horrek esan nahi du aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean % 2,6ko murriztapena egon dela. Gastu hori EAEko BPGaren % 4,18 da. 2009. urtean erregistratu zen portzentajearen aldean ehuneko 0,19ko murriztapena da.
- Hezkuntza Ministerioak argitaratu dituen azken datuen arabera, 2008koak hain zuzen, Hezkuntza Administrazioek BPGaren gainean egindako gastua % 3,83koa izan da EAEn (% 3,06 Unibertsitatekoa ez den Hezkuntzan eta % 0,14 Unibertsitatekoan) eta % 4,08koa, aldiz, Estatuan (% 2,7 Unibertsitatekoa ez den Hezkuntzan eta % 0,95 Unibertsitatekoan).
- Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastu ratioak ikasle bakoitzeko (ikasle kopuru osoa, hau da, araubide orokorrekoa nahiz berezikoak) hazkundea izan zuen 2008. eta 2009. urteen artean, hain zuzen ere 5.353 eurotik 6.346,5 eurora. Aldiz, 2009. eta 2010. urteen artean, kopurua murriztu egin da adierazleak 6.014 euroko balioa erregistratu zuelako ikasle bakoitzeko.
- HZMren *Hezkuntzako Kopuruak Espainian, 2011* txostenaren arabera, ikasle bakoitzarengatik (publiko eta itundu) 2008. urtean egindako gastu publikoa Unibertsitatekoa ez den Irakaskuntzan, Lanerako Prestakuntza kanpo utzita, 7.151 eurokoa izan zen EAEn. Horrek gure Erkidegoa jartzen du ikasle bakoitzeko gastu handiena erregistratzen duen erkidego bezala. Estatuko batez bestekoa 5.539 eurokoa da.
- PISAren (Programme for International Student Assessment-Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa) 2009., 2006. eta 2003. urteetako emaitzetan aztertutako datuetatik zera ondorioztatzen da EAEko hezkuntza sistemari buruz:
 - ELGAko beste herrialde batzuen batez besteko puntuazioaren inguruan kokatzen da.
 - ELGAko batez bestekoa baino bidezkoagoa da, baina
 - batez bestekoa baino bikaintasun gutxiagokoa irakurketa gaitasunean eta gaitasun zientifikoan.
- Egokitasuna ikaslearen adinean. Arreta berezia eman behar zaie lehenengo adinei, izan ere, eskola atzerapenak eta, ondorioz, egokitasun ezak areagotu egiten dira eta pilatu egiten dira urteek aurrera egin ahala, eta horrek eskola porrota eragin dezake azkenean. Are gehiago esatearren, erreferentziako biztanle taldearen adina areagotu ahala, egokitasunaren portzentajeak behera egiten du. Gauzak horrela, 2008-2009 ikasturtean, ikusi da 7 urteko biztanleria osotik % 98,9 matrikulatuta zegoela teoriarik zegoen ikasturtean; 13 urteko biztanleria osoaren portzentajea % 82,9 zen, eta 17

urteko biztanle guztietatik teoriar zegoen ikasturtearen matrikulatuta zegoen portzentajea % 59 zen.

Alderdi positibo gisa, 2008-2009 ikasturtearen egokitzapen portzentajeak alderatzen baditugu 2007-2008 ikasturteko datuekin, ikusiko dugu egokitasun tasak areagotu egin direla 12 urteetatik aurrera eta 17 urteetara arte mantentzen direla. Aitzitik, aintzat hartzekoa da ez dela gauza bera gertatzen 7 eta 12 urteen artean.

- Eskola behar baino lehenago lagatzea. Lisboako 2000ko martxoko Kontseilu Europarra eta gero, 2010erako helburu bat finkatu zen: estatu kide guztiek erdira jaitsi beharko zuten gutxienez eskola uztearen tasa (2000ko datuen aldean). Horrela, EBn % 10 baino gehiagokoa izango ez zen batez besteko indizea lortuko zen. Egia da Europako herrietan eskola behar baino lehenago uztearen bilakaerak beheranzko joera daukala, baina helburua asmo handikoa da, zenbait Estatu kide % 10eko helburutik urrun dagoelako. ISEI-IVEIren eta HZMren datuen arabera, eskola behar baino lehenago uzten dutenen tasak beheranzko joera ageri du EAEn ere, 2003ko % 15,8tik 2008ko % 14,7ra. Aitzitik, helburua ez da lortu.
- Goi mailako Zientzietan, Matematiketan eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa. EUROSTATEk argitaratutako datuek agerian utzi dute EAEko tasa EBko herrietako altuenetakoa dela.

1.3. I+G+B jarduerak eta IKT-ak

EUSTATEN arabera, I+G jardueretan 2009. urtean egindako gastua 1.281 milioi eurokoa izan da, eta horrek aurreko urteko kopuruaren aldean % 1,3ko hazkundea esan nahi du. Gastu hau BPGaren % 1,98 da. Horrela, EAE estatuko batez bestekoaren (% 1,38) eta EB27ko batez bestekoaren (% 1,9) gainetik dago I+G gaian egindako esfortzuan, baina gaian erreferentzia diren herrialdeen azpitik.

I+G alorrean enpresek gauzatu dutena EAEn (zentro teknologikoak kanpo utzita) Estatuan sektore honetan egindakoa baino pixka bat altuagoa da. EINen arabera, enpresek I+G gaian egindako gastuaren % 51,9 gauzatu dute (EAEko datua: % 54,9). EB27n, EUSTATEN arabera, enpresek gastuaren % 64 egin zuten 2007. urtean.

I+G gaian egindako gastuaren finantzazioari dagokionez, azken urteetan sektore pribatuak edukitako pisua apur bat galdu dela ikusi bada ere, sektore pribatua da oraindik ere finantzazio iturri garrantzitsuenak. Sektore pribatuak I+G gaian egindako gastu osoaren % 54 finantzatzeko du, eta Administrazioak, berriz, % 40. Gauzak horrela, EAE Lisboako helburutik 12 puntura dago: I+Gn egiten den gastu osoaren % 66 funts pribatuekin finantza dadila. I+Gn egindako gastuan finantzazio pribatuko ratio altuak edukitzeagatik nabarmentzen dira, besteak beste, Japonia (% 77,7), Hego Korea (% 73,7), Finlandia (% 68,1), EEBB (% 67,3), Alemania (% 67,3), Suedia (% 64) eta Danimarka (% 60,2).

I+Gko jardueretan lanean hartutako pertsona kopuruak gorantz egiten jarraitzen du. Lanaldi osoko kopuru baliokideetan neurtuta, 2009. urtean lanean zegoen biztanleriaren % 15 zen, Estatuan erregistratutakoaren (% 11,7) eta EBn erregistratutakoaren (% 10,4) aldean milako horrenbeste altuagoa. Gainera, lurralde dinamikoan erregistratzen diren balioetatik gertu eta haien gainetik

ere kokatzen dira; hona hemen lurralde dinamikoak: Frantzia (% 14,1), Alemania (% 12,3), Japonia (% 14,3). Bestalde, ikerlariak % 10,6 dira, Estatuan % 7,1 diren bitartean.

EUSTATEN Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkestak agerian uzten du 2007-2009 aldian, eta 10 langile eta gehiagoko enpresak bakarrik aintzat hartuz (EIN, EUROSTAT,... bezalako beste estatistika erakunde batzuekin alderaketa egitea ahalbidetzen digu), enpresa berritzaileen portzentajea (berrikuntza teknologikoak eta ez teknologikoak) % 38,9 izatera iritsi zela. Estatuan, EINen arabera, aldi berdinerako portzentajea % 33,9koa da. ISZ 2008ren arabera, EB27n, portzentajeak Alemaniaren % 65,1etik (zerrendaren lehenengo postuan) Bulgariaren % 16,1era doaz. Estatu espainiarrak % 34,7 erregistratu du. Herrialde dinamikoak, Alemaniak gain, hauek dira: Austria (% 52,5), Luxenburgo (% 52,5), Irlanda (% 52,5), Islandia (% 52) eta Danimarka (% 52).

EUSTATEN arabera, 9 langiletik gorako enpresek berrikuntza teknologikorako egindako jardueren gastu osoa areagotu egin da 2009. urtean % 1,2, eta BPGaren % 3,3 hartzen du (% 3,1 aurreko aldian). Beste urtebetez, gastu honen zati handiena barne I+Gkoa da (BPGaren % 1,7) eta makineria erostekoa (BPGaren % 0,7).

Europako Berrikuntza Indizearen (SII) arabera, EUSTATEk landutakoa, 2009. urtean EAEk 10. postua du EB27n, 0,51ko puntuazioarekin. Hain zuzen ere, EB27ren batez bestekoaren gainetik kokatu da, haren batez bestekoa 0,48koa baita. "Berrikuntzan lider diren herrialdeen" artean, hauek daude: Suedia, 0,64rekin; Finlandia, 0,62rekin; Alemania, 0,60rekin; Erresuma Batua, 0,58rekin, eta Danimarka, 0,57rekin. Europar Batasuneko izan zein ez aintzat hartzen ez bada, talde horretan Suitza ere sartuko litzateke, 0,69rekin.

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten den I+G+b jarduerari dagokionez, ikusi da jarduera horrek gora egin zuela 1997. eta 2003. urteen artean, beherantz egin zuela 2004. ean eta, ondoren, 2008an apurtu zen eta 2009an jarraitu zuen hazkunde bide bati ekin ziola. 2007. eta 2008. urteen artean, % 9,9 erori zen, eta 2008. eta 2009. urteen artean, % 1. Azkenean, 54,2 milioi euroko baliora iritsi da. Zientzia arloen arabera, I+G+b jardueretan egindako gastua arlo berdinetan pilatzen da oraindik. 2009. urtean, zientzia esperimentera kopuru osoaren % 39,6 izan ziren 21,5 milioi euroarekin. Tekninen kopurua 15,1 milioi eurokoa izan zen eta % 27,9 hartu zuten, eta gizarte zientziek eta zientzia juridikoek kopuru osoaren % 14,8ko balioa, 8 milioi euroarekin.

IKTen sarrerari eta erabilerari dagokionez, eta EUROSTATEn datuen arabera, etxean Internetera sartzeko aukera duen 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez baduen etxe portzentajea, 2010. urtean, % 70 da EB27n eta % 59 Estatuan. EAEn ratioa areagotu egin zen, baina 2010. urtean, EUSTATEN arabera % 55 izanez, aurreko batez bestekoaren azpitik kokatzen da pixka bat. Kopuru hori erreferentziako herrialdeetan igartzen diren balioetatik urrun dabil. Erreferentziako herrialde horiek Danimarka, Alemania, Herbehereak, Austria, Finlandia eta Suedia izango lirateke.

Bestalde, IKTen sarrerari dagokionez, zabaltzen jarraitzen du ere 14 urtetik gorako biztanleen artean. Hala eta guztiz ere, EUROSTATEn eta EINen datuak gurutzatuz gero, ikus daiteke Internet erabiltzeari dagokionez EAEk, Internet gutxienez asteen behin inkesta egin aurretiko azken hiru

hilabeteetan erabili duten pertsonen % 60,7rekin, Estatuko batez bestekoaren (% 58,4) gainetik geratzen den tokia betetzen duela. Aitzitik, EB27ren (% 65), EB25en (% 66) eta EB15en (% 69) batez bestekoaren azpitik geratzen da. Transakzio elektronikoei dagokienez, eta Internet bidez erosi ez duen pertsona portzentajea aintzat hartuta, ondorioztatu daiteke EAEk, % 44,9rekin, kokaleku ona duela gainerako autonomia erkidegoen aldean, izan ere, Balear Uharteek bakarrik dute portzentaje txikiagoa (% 42,4). Hala eta guztiz ere, datuak erabat homogeneoak ez badira ere, Europarekiko alderaketak merkataritza elektronikoen zabalkunde txikiagoa erakusten du EAEn. Enpresetako IKT ekipamenduei dagokienez, Enpresetako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak agerian uzten du IKTak euskal enpresetan sartzeko prozesuak gorantz egiten jarraitzen duela.

Beste urtebetez ere ikusi da enpresaren tamaina bereizketako funtsezko elementu bat dela. Gauzak horrela, enplegu estratu guztietan sarrera adierazgarriak gertatu izan badira ere, establezimenduek, enplegu tamaina handiagokoak izan ahala, hazkunde murriztagoak dituzte. Arrazoiak ekipamenduetan eduki dezaketen hobekuntza tarte eskasa da. Eta, bigarrenik, aipatutako aldeak gehiago igartzen direla establezimenduei dagokienez, enpleguari dagokionez baino. Arrazoiak, besteak beste, establezimendu txikiek edukitako garapen handiagoko da, eta, halaber, establezimendu handietan langile guztiek ez dutela ekipamendu horietara iristeko aukerarik.

Joera hau Europa mailan ere igartzen da. Bertan, EUROSTATen datuen arabera, Interneten sarrera saturazio puntura iritsi da, bai enpresa handien artean (% 100era iritsiz ia), bai ETEen artean (% 96 ingurukoa EB15en eta % 94koa EB27n), eta baita sektoreen zati handiengan ere. Euskal enpresek Interneti emandako erabilera motari dagokionez, lehenik eta behin dokumentazio bilaketa dago (% 97,1); bigarrenik, bankuetako informazioa edo informazio finantzarioa eskuratzea (% 76,2) eta, hirugarrenik, bankuko transakzioak edo transakzio finantzarioak egitea (% 65,6). Bigarren talde bat hurrengoak egiten dituztenak osatuko lukete: Administrazio Publikoko izapideak (% 61,4); prestakuntza: prestakuntza materialak eskuratzea (% 45, jaitsi egin bada ere 6,1 puntu); hornitzaileen edo bezeroen datu baseetara iristea (% 40,7, nahiz eta urtebete lehenago % 43,7koa izan) eta produktu digitalak jaso edo beheara kargatzea (% 35,9). Internet bidezko edo bide elektronikoko merkataritzako transakzioei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, gorantz egiten jarraitzen dute sortutako kopuru ekonomikoei dagokienez, nahiz eta merkataritza elektronikoa horretan parte hartzen duen enpresa kopurua murriztu egiten den. Are gehiago esatearren, merkataritza elektronikoa egiten duen establezimendu portzentajeak (zentzu zabalean) atzera egin du, 2008. urteko kopuru osoaren % 15etik 2009ko % 14,9ra.

1.4. Ingurumena

Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, airearen kalitatea "ona" edo gutxienez "onargarria" da aztertutako azpigune guztietan. Horrenbestez, 2009. eta 2010. urteen artean, 11 laginketa estazioetan airearen kalitate oso txarra edo txarra duten egunak % 0,35etik % 0,1era jaitsi dira, egun guztien aldean; balio absolutuetan, 14 egunetik 4 egunera murriztu da. Bestalde, neurrizko kalitateko airea dagoen egunen portzentajea ere murriztu

egin da, % 2,2tik % 0,8ra, zenbaki absolututan 89 egunetik 31ra.

Klima aldaketari eta berotegi-efektuko gas (BEG) isuriei dagokienez, 2008-2012 aldirako abiapuntu urtearen (1990) aldean isuri zuzenen igoera % 15ez mugatzeko konpromisoa ezarri dio Kyotoko protokoloak Espainiako estatuari. Autonomia Erkidegoek ez daukate BEG murrizteko helburu juridikoki loteslerik; baina Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko 2008-2012 Euskal Planak ezartzen duenez, EAEko isuriak mugatuko dira aldi horretan, ez dezaten abiapuntu urteko kopurua % 14 baino gehiago handitu. EAEko BEGen emisio guztia (zuzeneko eta zeharkakoa, hau da, inportatutako elektrizitatearekin lotura dutenak barne) 2009. urtean, "EAEko 1990-2009ko berotegi-efektuko gasen emisioei buruzko inbentarioko" datuen arabera, 22,6 milioi tona CO₂ baliokidekoa izan zen. Beraz, 2008ko emisioak baino % 10 gutxiago, eta oinarritzko urtean baino % 6 gehiago. Horrek planaren helburuaren azpitik 8 puntura kokatzen gaitu.

Uren kalitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, ibaietan, MBI indizearen bidez (makroornogabe betikoen bilakaera) lortutako balorazioak oinarri hartuta, Ingurumenaren II. Programa Esparruaren (2007-2010) eremuan planteatutako helburuen betearazpen maila baxua da eta azken urteetako emaitzen egonkortasuna islatzen du. Hala eta guztiz ere, MBik adierazitako helburu biologikoen betearazpen maila baxua izan bada ere, ingurumen helburuekin bat datozen erkidego biologikoak garatzeko aukera ematen duten baldintza fisiko-kimiko orokorreki buruzko egoera azaltzen duen FKI-E indizeak hobetzeko joera ezarri du, 1999ko datuekin alderatuta. Trantsizio uretan (estuarioak), egoera gehiagotan ez dituzte ingurumen helburuak betetzen, azken urteotan hoberako joera sumatu arren. Kostaldeko uretan, ordea, egoera guztiz aldekoa da, laginketa estazioen % 100etan betetzen baitira helburuak. Lakuetan eta barnealdeko hezeguneetan bilakaera positiboa antzeman da, nahiz eta oraindik ez den nahikoa. Eta, bainurako urei dagokienez, 2009an egindako azterketak adierazten duenez, bainurako 9 gune hobetu dira eta 4 kaltetu: hiru 2 mailatik 1era igaro dira (Zarautz-eskuinaldea, Bakio-erdialdea eta Ea-erdialdea); eta bat 1etik 0ra igaro da (Saturrar-erdialdea).

Iraunkortasunaren kontzeptuari erreparatzean, kontuan hartu behar dira baliabidearen kontsumoa eta horien erabileran dagoen eraginkortasun maila. Uraren kasuan, zehazki, EINEk emandako datuen arabera, banaketa sarean galdutako ura % 0,1 igo da 2007. eta 2008. urteen artean eta eskuragarri dagoen kopuru osoaren % 16,1 osatzen du. Estatuan, erabilgarri zegoen ur guztiaren % 16,7 banaketa sare publikoetan, ihesetan, apurketetan eta abar galdu zen. Bestetik, gure erkidegoan uraren per capita kontsumoa (Estatuan kontsumitutako batez bestekoa baino txikiagoa da EAEn, 154 pertsona/litro/eguneko 139) % 11,2 igo da 2007. eta 2008. artean; hazkunde hori ez da estatuan erregistratu, kontsumoa % 1,9 jaitsi da eta. EAEn, 2008ko uraren aleko balioa 0,94 eurokoa da m³-ko, hau da, aurreko urteko balioa baino % 8 altuagoa. Estatuan, batzaz besteko prezioa handiagoa da, 1,31 eurokoa m³-ko.

Bestalde, 2009an energiaren barne kontsumo osoa edo eskaria % 7,1 murriztu da (% 1,3 izan zen 2008. urtean), eta 7.313 Ktep-etan kokatzen da. Amaierako kontsumoa 5.259 Ktep-ekoa izan zen, % 8,7 murriztuz. Murrizketa horretan industriaren (% -16) eta garraioaren

(% -6,4) sektoreak izan dira nagusi. Industria eta eraikuntzaren sektorea da kontsumoan eragin handiena duena (kontsumo osoko % 42,9) eta bere kontsumoa 2.684 Ktep-etik 2.254ra jaitsi du. Eragin handiena duen hurrengoa garraioaren sektorea da, 1.906 Ktep-tik 1.784 igaroz.

Energia motaren arabera amaierako kontsumoari dagokionez —oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina izateagatik— ikus daiteke petrolio eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, % 39,7rekin. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, % 7,3koa hain zuzen. Lehen mailako energiaren ekoizpena % 5,2 jaitsi da, 420 Ktep-etik 399ra. Egun, ekoizpen hori, funtsean, energia berriztagarrietan oinarritzen da (iturri propio nagusia) eta energi mota hori % 2,8 jaitsi zen (393 Ktep-etik 382ra) 2008. eta 2009. urteen artean.

Lehen mailako energiako norberaren ekoizpen eskas horrek EAEko energia eskariaren (7.872 Ktep) % 5,5 bakarrik asetzea ahalbidetzen du. Ondorioz, EAEk kanpoaldearekiko duen energia mendetasuna % 94,5eko portzentajea kokatzen da.

BPGren unitate bakoitzeko amaierako kontsumo gisa neurtutako intentsitate energetikoak adierazten duenez, 2009an intentsitatea 2000. urtekoaren % 86 da eta, aurreko urtearekin alderatuta, 5 portzentaje-puntuz hobetu da.

Hondakinak sortu eta kudeatzeari dagokionez, EInen Industria Sektoreko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestako azken datuen arabera, EAEko hondakin ez arriskutsuen sorkuntza % 24,2 jaitsi da 2007. eta 2008. urteen artean eta industria hondakin arriskutsuena % 32,1. Halere, EAE industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen bigarren erkidegoa da (205,4 tona) berriro ere. Lehenengoa Katalunia da, 423,6 tonarekin. Estatu osoan, aipatu hondakin arriskutsuak % 22,5 jaitsi dira.

Hiri-hondakinen alorrean eta per capita balioetan, EInen Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkestako datuen arabera, 2008. urtean EAEn 493,4 kg hiri-hondakin nahastu bildu ziren. Hau da, estatutako batez besteko kopurua (464,8) eta aurreko urtean erregistratutakoa (487,9) baino zenbateko altuagoa. Bilketa selektiboari dagokionez, EAEk kasu guztietan (papera eta kartoia, beira, plastikoak eta ontzi mistoak) erregistratu ditu Estatuko batez bestekoen gaineko bilketa balioak.

Bestetik, industria enpresek ingurumena babesteko egiten duten gastuari buruzko EInen inkestaren azken datuek erakusten dute 2008. urtean EAEn enpresa horiek ingurumena babesteko egindako gastua % 1,1 igo zela, 2007. urtean erregistratutako datuen aldean. Gastua BPGren portzentaje bezala neurtuta, 2008an beste murrizketa bat ikusten da, % 0,34ko portzentajea geldituz. Horrela, EAE zortzigarren postuan dago berriz, aurretik Asturias (% 0,86), Galizia (% 0,6), Gaztela eta Leon (% 0,52), Aragoi (% 0,45), Kantabria (% 0,43), Nafarroa (% 0,41) eta Gaztela-Mantxa (% 0,38) dituela.

1.5. EAE-ko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuingurua

Munduko jarduera ekonomikoa, 2009. urtean zehar atzeraldi sakon eta orokorra jasan duena joan den

mendeko erdialdetik hona, berriro aktibatzen hasi zen urte horretako bigarren seihilekoan, eta osatzen jarraitu zuen 2010. urtean. Munduko BPGa, eskuratzeko ahalmenaren parekotasunaren arabera haztatua, areagotu egin zen % 5, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) zenbatespenen arabera. Ekonomia aurreratuak % 3 areagotu dira: EEBBetako BPG % 2,8 hazi da; Eurogunekoa % 1,7, eta Japoniakoa % 3,9. Garatzeko bidean dauden ekonomiak, batez ere Asiakoak, India eta Txina buru izanez, % 7,3 ingurukoa den tasaraino hazi ziren. Txina eta India % 10,3 eta % 10,4 hazi ziren, hurrenez hurren.

Laneko merkatuari dagokionez, aurreko bi urteetan gertatutako lan galera orokorrak eta gero, enplegu adierazleak pixkanaka hobetu ziren urte osoan zehar.

Aldi berean, mundu mailako merkataritzak % 12,4ko hazkundea jasan zuen aurreko urteko kopuruaren aldean, nahiz eta dezelerazioa igarri den bigarren seihilekoan lehenengoaren aldean.

Izan ere, urteko bigarren seihilekoan, lehengoratzeko ekonomikoak aldi batez galdu zuen bere bultzadaren zati bat, hain zuzen ere izakinen zikloaren laguntza desagertzeagatik eta pizgarri fiskaleko neurriak kentzeagatik. Hainbat herrialdek, halaber, egokitzapen neurriak iragarri zituzten, finantza publikoen egoera kaskarrari aurre egite aldera. Hainbat sektoretan balantzeak egokitzeko prozesuak eta laneko merkatuen atoniak, batez ere ekonomia aurreratueta, mundu mailako ekonomia osatzea mantsotu zuten.

Prezioei dagokionez, lehengaitan prezioen pixkanakako hazkundea egon bada ere (bereziki altua urteko bigarren seihilekoan), inflazioaren presioak arinak izan ziren oraindik 2010ean ekonomia aurreratueta, eta % 1,6ko hazkundea egon zen (aurreko urteko % 0,1aren aldean). Egoera hau ezberdina izan zen garatzeko bidean dauden ekonomien kasuan ikusi zenaren aldean. Haien kasuan, inflazioaren presioak adierazgarriagoak izan ziren (% 6,2), neurri batean lehengaien prezioek gora egin zutelako eta ekoizteko gaitasunean muga gehiago egon zirelako.

Testuinguru horretan, 2010. urtean zehar, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak beren interbentzio tasak mantendu zituzten 2009. urtean (eta baita 2008. urtean ere) itxi zuten modu berdinean: lehenengoak % 0,25en eta bigarrenak % 0,1en. Bestalde, Europako Banku Zentralak ere egonkor mantendu zuen tasa % 1en; erreferentziako interes tasa horrekin amaitu zuen 2009. urtea.

Diru merkatuko interes tasei dagokionez, horiek areagotu egin ziren epe guztietan. Horrela, hilabete bateko Euriborra % 0,42n kokatzen da urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 0,81en amaitzen da laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra % 0,66tik % 1,02ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, eta urtebeterako Euriborra % 1,23n hasi zen eta % 1,52n amaitu.

2010eko azken hilabeteetan, inflazioaren tentsioak orokortu egin ziren lehengaien eta petrolioaren prezioen bilakaeragatik (abenduarien 6an, Brent kupelaren prezioa 2008ko urritik izandako maila altuenera iritsi zen; horrela, hilabeteko batez bestekoa 91,8 eurora iritsi zen), eta garatzeko bidean dauden ekonomietako banku zentral batzuk diru politika hertsatzaileagoak aukeratu zituzten.

Truke eta burtsa merkatuei dagokionez, dibisen merkaturak EEBBetako dolarren benetako truke tasa erreala tokia irabazi zuen eta, ondorioz, euroak balio pixka bat galdu zuen. Zehazki, dibisa europarrak balioa galdu zuen

dolarraren, libera esterlinaren eta yenaren aldean. Burtza merkatuetan, IBEX 35 indizeak % 17ko urte arteko erorketa jasan zuen 2009an jasandako % 30eko hazkundearen aldean. Japonian, Nikkei indizea % 4 jaitsi zen 2009an izandako % 17ko hazkundearen aldean. Estatu Batuetan, Dow Jones indizeak aurrerantz egin zuen % 15, 2009ko % 9ko portzentajearen aldean.

EBri arreta emanez, eta, zehazkiago, euroguneari arreta emanez, 2009. urtean jarduera ekonomikoak jasandako uzokidura eta gero (% -4,1), 2010. urtean euroguneko BPG errealak % 1,8 areagotu zen. Hala eta guztiz ere, 2010eko laugarren hiruhilekoan eurogune osoko BPGa, hiruhileko arteko tasa gisa neurtua, % 0,3 areagotu zen, hirugarren hiruhilekoaren berdina hain zuzen ere. Horrek esan nahi du bigarren hiruhilekoan erregistratutako % 1aren aldean dezelerazioa gertatu dela.

Sektorekako ikuspegi batetik begiraturik gero, ekoizpenaren zabalkundea bultzatu egin zen nagusiki industria jarduerarekin. Gauzak horrela, industriaren BEG areagotu egin zen (eraikuntza kanpo utzita) % 5,9, merkatuko zerbitzuetan izandako % 1,3ko hazkundearen eta eraikuntzan izandako % 4,3ko murriztapenaren aldean.

Eurogunean lan merkatuak duen egoera, 2009an izandako hondamen adierazgarria eta gero, egonkortu egin da 2010eko amaiera aldera. Horrela, enplegua % 0,2 hazi zen laugarren hiruhilekoan, eta langabezia tasa % 10eko balioan kokatzen da.

Ekonomia espainiarrari dagokionez, EINen datuen arabera, 2010. urtea BPGren urteko batez besteko murriztapen errealekin itxi zen, % 0,1ekoa hain zuzen, eta aurreko urtean izandako hazkunde negatiboa ehuneko 3,6 puntutan murriztu zen (2009. urtean % 3,7 erori zen). Ingurune europarrari dagokionez, Irlanda (% -1), Grezia (% -4,5), Letonia (% -0,3) eta Errumania (% -1,3) ezik, herrialde guztiek aldakuntza tasa erreal positiboak eduki zituzten 2010. urtean. EB27ko, EB15eko eta euroguneko batez bestekoa % 1,8n kokatu zen, eta EB25ekoa % 1,9n. Gastuaren ikuspegitik, estatuko barne eskariaren ekarpena BPGaren hazkundera -1,2 puntukoa izan zen 2010. urtean, eta hori aurreko urtean -6,4 puntukoa izan bazen ere. Amaierako kontsumo pribatuaren portaera hobeaz itateak azaltzen du hori (hazkunde tasa % -4,3tik % 1,3ra igaro zen), eta baita kapital finkoan egindako inbertsioak jasandako uzokidura txikiagoak ere (bere aldakuntza tasa % -16tik % -7,6ra igaro zen). Bestalde, Administrazio Publikoek amaierako kontsumoan egindako gastua murriztu egin zen (% 3,2tik % -0,7ra).

Bestalde, kanpoko eskariak BPGren hazkundera egindako ekarpena positiboa izan zen (1,1 puntu). Bai esportazioek, bai inportazioek hazkundeak jasan zuten 2009. eta 2010. urteen artean. Lehenengoek % 10,3ko hazkundeak ageri dute eta bigarrenak % 5,4koa. Aurreko urtean, aldiz, biek behera egin zuten, % 11,6 eta 17,8 hurrenez hurren.

Eskaintzaren aldetik, azpimarratzekoa da industriako adar erantsien hazkunde positiboa (2010ean % 0,9, aurreko urteko % 13,6ren aldean) eta zerbitzuena (% 0,5ekoa aurreko urteko % -1en aldean). Halaber, azpimarratzekoa da lehen sektorearen (% -1,3) eta eraikuntzaren (% -6,3) hazkunde negatiboa. Hala eta guztiz ere, industriaren sektorearen bilakaeraren hiru hileko profilak dezelerazioa ageri du bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, eta laugarrenean jarraitzen du (bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean, % 2,5eko urte arteko aldakuntza tasa errealetik % 1,4kora igarotzen da). Bestalde, eta zerbitzuei

dagokionez, merkatu zerbitzuen eta merkatukoak ez diren zerbitzuen arteko portaera ezberdina da. Izan ere, lehenengoan profila hiruhilekoa den bitartean, hiruhilekotik hiruhilekora haziz eta urtea % 1,3ko hazkundearekin amaituz, bigarrenak hazkundeak mantsotu zuten bigarrenaren eta hirugarrenaren artean, eta dezelerazio horrek jarraitu egiten du laugarrenean.

Jardueraren bilakaera honekin batera, enplegu mailaren murriztapen berria etorri da, nahiz eta 2009. urtean jasandakoa baino txikiagoa. Gauzak horrela, 2009. urtean lanaldi osoan betetako lanpostu kopuru osoa % 6,6 murriztu bazen ere, 2010. urtean % 2,4ko murriztapena zenbatu zen. Soldatapekoen murrizketa ere antzekoa izan zen, % 2,2koa. Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia tasa % 2,1 hazi dela, alegia, % 18,01etik % 20,06ra. Tasa baxueneko autonomia erkidegoak hauek dira: EAE, % 10,6rekin, Nafarroa % 11,9rekin, Kantabria % 13,9rekin, Errioxa % 14,3rekin eta Aragoi, % 14,8rekin. Estatuko batez bestekoaren gainetik daude Andaluzia (% 28), Kanariar Uharteak (% 28,7), Gaztela-Mantxa (% 21), Valentziako Erkidegoa (% 23,3), Extremadura (% 23), Murtzia (% 23,4), Ceuta (% 24,1) eta Melilla (% 23,8).

Kanpoko sektoreak egindako ekarpen positiboarekin batera, Espainiako ekonomiak finantza egoera hobetu du gainontzeko munduarekiko. Ekonomiaren finantzazio beharra (defizita) BPGren % 5,1etik (2009an) % 3,9ra (2010ean) igarotzen da, hau da, 41.045 milioi euro, iaz baino 12.933 milioi gutxiago.

Bestalde, aurrekontuan gastuari eusteko sartutako neurrien eta 2010eko maiatzean hartutako ezohiko neurrien emaitza gisa, defizit publikoa (Estatuko Administrazio Publikoaren multzoarena), Estatuko Kontabilitate modura neurtua, 98.276 milioi eurokoa da, hau da, BPGren % 11,1etik % 9,2ra igaro da 2009. eta 2010. urteen artean. Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek eta tokiko korporazioek, hurrenez hurren, % 5, % 3,4 eta % 0,6ko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak. Bestalde, Gizarte Segurantzaren BPGren % 0,8ko superabita edukizetik (2009an), % 0,2ko defizita izatera igaro zen (2010ean).

Horrela, kutxaren aldetik, Estatuko Administrazio Zentralak (Estatua eta Erakunde Autonomoak) 52.954 milioi euroko defizita erregistratu zuen 2010. urtean, hain zuzen ere 2009. urtean erregistratutako 98.568 milioi baino % 46,3 murriztagoa. Ekonomia eta Ogasuna Ministerioaren "Adierazle Ekonomikoen Sintesia, 2011ko otsaila" Testuinguru Ekonomikoaren Txosteneko datuen arabera, emaitza honen arrazoia sarrerak % 24,8 areagotu izana izan zen, ordainketak % 5,1 murriztu ziren bitartean.

EUSTATen 2011ko otsaileko Hiruhileko Kontu Ekonomikoen datuen arabera, EAEko ekonomiak urte arteko hazkundeak jasan zuen 2010. urtean, kopuru errealean, hain zuzen ere % 0,3koa. Aurreko urtean % 3,8ko hazkundeak izan zen. Horrez gain, BPGa, kopuru korranteetan, 65.847,4 milioi eurora iristen da.

Eskariaren aldetik, hobekuntza hori azaldu egiten da, nagusiki, kanpoko sektorearen portaerarengatik. Bertan, esportazioak % 8,5 hazi ziren eta inportazioak % 6,5. Horrek eragina du kanpoko eskariak BPGren hazkundera ekarpena egitean, % 0,9koa hain zuzen, eta barne eskariaren % 0,7ko ekarpen negatiboarekin orekatzen da. Atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzaren datuek, Aduanetako Erregistroetan oinarrituta Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak eskainitakoak, adierazi egiten

dute esportazioen balio korrontea txikitu egin zela % 17,4an 2010. urtean. Energiakoek izandako hazkundeak % 18,9koa izan zen, eta energiakoak ez direnena (guztien % 91,3) % 17,3koa. Bestalde, inportazio osoek gorantz egin zuten % 24,1. Bertan, energia inportazioen balioak, guztiaren % 34,8, hazi egin ziren % 24,7, eta energiakoak ez diren kasuan % 23,8koa izan zen hazkundeak. Energiakoak ez diren esportazioen aduanako tarifa multzoen arabera azterketak zera erakusten du: urtebete lehenago gertatutakoa ez bezala, ekipo ondasunen esportazioak, esportatutako guztiaren % 42,6 izaki, % 11,6 areagotu dira, nagusiki garraio materialaren esportazioagatik (% 20,5), nahiz eta makinena eta bestelako gailuena ere areagotu egin den (% 2,5). Bigarrenik, metal komunak eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren % 26,9rekin. Horren hazkundeak % 29,3koa izan da. Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, azpimarratzekoak dira metalak eta haien manufakturak. Horiek inportazio guztien % 22,3 hartzen dute, eta % 42,3 hazi dira. Bigarrenik, ekipo ondasunak inportazio guztien % 19,4 dira, eta % 11,2 areagotu dira, garraio materialean (% 13,9) nahiz makina eta gailuetan (% 10,5) izandako inportazioaren hazkundeak dela eta.

Energiakoak badiren eta energiakoak ez diren ondasun eta produktuak bereiziz, ondorioztatu egiten da energiaren saldoak defizita duela (-3.789,8 milioi euro). Aldiz, energiakoak ez diren produktuenak superabita erregistratzen du, 6.078,5 milioi euro, BPGaren % 9,2 hartuz. Kopuru hori aurreko urtean izandako kopuruaren (% 8,7) gainera ehuneko 5 hamarrenenak ratioa da.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen destinoko eremu geografikoen arabera, ELGari zuzendutakoak eta eremu horren barruan EB15i zuzendutakoak dira, berriz ere, garrantzitsuenak: kopuru osoaren % 59,3 dira, eta % 18,4ko hazkunde tasa ageri dute. Bereziki azpimarragarriak dira Frantziarantz, Alemaniarantz, Italiarantz eta Erresuma Baturantz egindako esportazioak, EAEk EB15erantz egindako esportazioen % 75,8 izanez. Inportazioei dagokienez, haietako gehienak ELGatik datoz eta, zehazki, EB15eko herrialdeetatik, funtsean, Alemaniatik, Frantziatik eta Italiatik, EB15etik egindako inportazio guztien % 62,7 hartuz. Neurri txikiagoan ageri dira Erresuma Batua eta Belgika.

Eskaintzaren aldetik, hazi egin dira industriaren sektorea (% 0,4) eta zerbitzuena (% 0,8), eta murriztu, aldiz, lehen sektorea (% -2,8) eta eraikuntzarena (% -5,9, murriztapena zorrotz aurreko aldiaren aldean: % -3,6). Orokorrean, BEGa % 0,1 hazi da, 2009an erregistratutako % 4ko murriztapenaren aldean.

Amaizteko, eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn areagotu egin da 2009. eta 2010. artean, hain zuzen ere % 49 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero. Guztira, EAEk 149,9 milioi euro eskuratu ditu, eta EAEk Estatuko kopuru oso horren aldean hartzen duen proportzioa areagotu egiten da 2009ko % 0,8tik 2010eko % 1,3ra. Horrela, EAEk bosgarren tokia betetzen du inbertsio bolumenean, Madril, Kataluniaren, Andaluziaren eta Balear Uharten atzetik. Sektoreka eta energia elektrikoa, gasa, lurra eta airea hornitzeko sektorea alde batera utzita, bereziki azpimarragarri dira, kopuru osoan duten pisuagatik, hurrengoetan egindakoak: Eliektrikoak, Edariak eta

Tabakoa; Metalurgia eta produktu metalikoen Fabrikazioa; Higiezin agentek; Farmaziako produktuen fabrikazioa eta jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Lurralde ikuspegitik begiraturaz gero, inbertsioaren azken titularrak bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen % 90etan, eta % 80,4tan EB15ean. Euskal inbertsioa atzerrian, ABEEak kanpo utzita, hazi egin da 1.377 milioi eurotik 1.911 milioi eurora. Atzerrian egindako inbertsioaren alorrean, EAEk bigarren tokia betetzen du autonomia erkidegoen hurrenkeran. Madril bakarrak gainditzen du. Sektoreen aldetik, eta Eraikuntza, Energiaren sektorea eta Finantza jarduerak eta aseguruak alde batera utzita, hurrengoak dira azpimarratzekoak: jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; handizkako merkataritza, txikizkako eta ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa; ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa; metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, eta material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa. Herrialdeka, gure kanpo inbertsioaren destino nagusiak hauek dira: Txina, EAEren kanpo inbertsioaren % 61,6rekin eta EEBBak, euskal kanpo inbertsioaren % 29,8rekin. EB15aren barruan, destinoko herrialde nagusiak Herbehereak, Italia, Grezia, Irlanda eta Portugal dira.

1.6. Sektore publikoa

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien multzoak likidatutako diru-sarrera osoak (15.474 milioi euro) areagotu egin dira 2010. urtean % 7,2, aurreko ekitaldiko hazkunde ezaren aldean. Arrazoia, funtsean, zuzeneko zergen (% -2,5) eta transferentzia korronteen (% -3,1) erorketa neurri batean zeharkako zergen bilketaren hazkundearekin orekatzea da (% 6,4). Horri gehitu egiten zaio sarrera finantzarioen % 34,5eko hazkundeak, batez ere 2.387 milioi euroko zenbatekoan zorra jaulki izanaren ondorioz.

Emaizta orokor honetan lagundu egin dute, batez ere, Eusko Jaurlaritzaren kontuek; bere sarrerak hazi egin ziren, ehunekoan, foru erakundeak baino lau aldiz gehiago. Itundutako Zergen arabera diru bilketari dagokienez, horiek eratzen baitute diru-sarrera zuzen eta zeharkako multzo handiena eta kopuru osoaren % 90 baino gehiago, 2010erako emandako behin-behineko datuek % 8,4ko hazkundeak erakutsi dute, eta hori euskal ekonomiak egungo krisian jasan duen hondamenak murriztapen garrantzitsua eragin izan badu ere diru bilketan, bai 2008an (% -6,8), bai 2009an (% 15,9). Orokorrean, diru bilketaren hazkundeak zeharkako zergetatik etorri da (% 19,5), eta, aldiz, zuzenekoak erori egin dira, esan bezala, % 2,5.

Partida handien artean, PFEZek aldakuntza tasa positiboak erregistratu ditu (% 3,8), soldata publikoak merkatu egin badira ere eta kapital higigarriaren errentak % 15,6 erori baziren ere, nagusiki bankuko deposituak murriztu izanagatik. Aitzitik, 400 euro arteko kenkaria neurri batean kendu izanak, kapitaleko errenten gaineko atxikipen tasa % 19a igo izanak eta tarifa inflazioaren arabera ez deflatatzeak orekatu egiten dituzte beste osagaien murriztapenak. Bestalde, sozietateen gaineko zerga da zuzeneko ezarpenaren bilakaera negatiboaren arduradun nagusia, izan ere, tasa negatiboetan jarraitzen du (% -19,9), nahiz eta erorketa hori arinagoa den 2009ko murriztapenaren aldean (% -27,2) enpresetako mozkinen pixkanaka hoberantz egitearen joerari esker.

Zeharkako ezarpen multzoak hobetu egin du bere diru bilketa % 26,1, aurreko urteko kopuruaren aldean. Bere irudi nagusiak, BEZak hain zuzen, dinamismo oso sendoa mantentzen du, zerga tasen hazkundea, zerga oinarriaren hazkundea (zerga tasen igoera indarrean jarri baino lehen erosketak aurreratzeetik etorrira), itzulketen murriztapen adierazgarria (hileroko itzulketen sistema orokor bihurtzearen ondorio) eta aurreko ekitaldietako atzeratzeengatik diru-sarreraren hazkunde sendoa dela-eta.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 11.700 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPG arruntaren % 17,8 izan da 2010. urtean (2009an % 16,7). Bildutako diruaren % 34,8 PFEZari dagokio, % 38,6 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza), % 8,4 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 18,2, zenbait zerga bereziri.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa, 15.245 milioi eurokoa (Tokiko erakundeak kanpo utzita), murriztu egin da 2010. urtean % 3,3, aurreko urteko % 4,4ko balioaren aldean. Gastuaren bilakaera, aldiz, positiboa izan da bai Eusko Jaurlaritzan (% 0,2 inguru besterik ez), bai aldundietan (% 3,6), izan ere, partida batzuk orekatu egiten dira erakundearen artean (transferentzien zati bat, esate baterako).

Halaber, 2010eko Aurrekontuak Gauzatzearen Estatistikak erakutsi egiten du Eusko Jaurlaritzaren gehi-ori aldundien arteko zorpetze garbia nabarmen areagotu dela 2010. urtean. Ekitaldiaren amaieran, zorraren bolumena 6.493 milioi eurokoa da, 2009. urtean baino % 49,6 gehiago (urte hartan % 58,9 adierazgarri bat ere areagotu izan zen). Gehikuntza hau batez ere Eusko Jaurlaritzan gertatu da, zor bizia % 58,8 gehitu zuena urtearen amaieran. Foru aldundietan neurri txikiagoan gertatu da (% 28,9). Horrela, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren % 73,6).

1.7. Gizarte ekonomia

Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2001 Lege onetsi berriaren arabera, gizarte ekonomiaren erakunde dira "kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enplegu zentro bereziak, arrantzaileen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak", eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie.

EAEko, Gizarte Ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuaren arabera, 2007-2008 bi urtekoari dagozkionak, gizarte ekonomia guztira 2.203 enpresak osatzen dute, EAEko 2.986 establezimendu dauzkatenak.

Aipatutako denboraldian 62.615 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,3) eta 2.928 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren % 4,3).

Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren 2009ko Emaizen Aurrerapenak agerian uzten du Gizarte Ekonomia enplegua galtzeko joera sakontzen ari dela.

2006-2008 aldian enplegua % 1,4 erori bazen ere, 2008. eta 2009. urtearen artean % 4,4ko murriztapena ikusi da. Horrek 59.385eko kopuruan kokatuko luke enplegu bolumen osoa, 2006ko eta 2008ko kopuruak baino

nabarmenki murriztagoa nahiz eta 2002 eta 2004an sektoreak edukitako enplegu datuetatik hurbil geratzen den. Enpleguaren dinamika negatiboarekin paraleloan, EAEko Gizarte Ekonomia eratzten duten enpresa establezimenduen aurreikuspenek % 5,7ko erorketa erakusten dute 2008ko kopuruaren aldean fakturazio kopurutan. Horrek 9.205 milioi euroko fakturazio bolumena erakutsiko luke.

1.8. Lan merkatua

Lehenengo eta behin, Biztanleria Jardueraren Araberako datuek (BJA) adierazten dute, oro har 2010ean, biztanleria aktiboa zertxobait hazi dela urteko batezbestekoan. Horrela, 2009an lan merkatuan % 55,6ko portzentaiarekin esku hartzen zuenean, 2010ean zenbateko hori % 55,9ra iritsi da, EUSTATEN serie historiko osoko jardueratararik altuena. Eboluzio horretan funtsezkoa izan da emakumeak lan merkatura inkorporatzea (% 48,3ko urteko batezbestekoko jarduerata-tasa erregistratu da, 2009koa baino 7 hamarren handiagoa); horri dagokionez mantendu egin da egiturazko joera, hau da, gizonezkoen baloreetara hurbiltzekoa, nahiz eta artean bi sexuen arteko diferentzia 15 puntutik gorakoa izan. Beste alde batetik, gizonezkoen biztanleriari dagokionez esan behar da datuak ia ez direla aldatu 2009koekin erkatuta (% 64ko batezbestekoa bi urteetan), nahiz eta urtean zehar gorabeheraren batzuk erregistratu.

Enpleguari dagokionez, EAEko 2009ko abenduaren eta 2010eko abenduaren artean gertatu den okupazioaren jaitziera % 0,6koa izan da eta guztira 9.000 postu inguru galdu dira. Gizonezkoen enplegua izan da bilakaerarik txarrena izan duena eta hori ikusteko nahiko da adieraztea azken urtean gizonezkoek 11.100 okupazio galdu dituztela eta, emakumeen kasuan, ordea, 1.900 enplegu gehiago daudela. Halaber, azken urtean 25 urtetik beherako pertsonen enplegua % 9,9 jaitzi da eta 25 eta 44 urte arteko pertsonena % 3,2; ordea, 44 urtetik gorako pertsonen egiten duten lanari dagokionez hazkuntza % 3,4koa izan da. Baldin eta urteko batezbesteko baloreak aintzat hartzen baditugu 2010 urtean galdu ziren 2.600 lanpostuetatik gizonezkoek 5.800 galdu zituzten eta emakumeek 3.200 irabazi zituzten; horrek esan nahi du enpleguaren feminizazio-indizea puntu erdi hazi dela, % 44,7ra iritsi arte.

Sektoreen arabera, gogoan eduki behar da 2009an industria izan zela krisiaren eraginak gehien pairatu zituen sektorea eta 2010ean eraikuntza izan da gehien erori dena (urteko batezbesteko baloreak), hala lanpostuen kopuruari dagokionez (-5.300) nola portzentaiari dagokionez (% -6,8). Egiatan industria bere horretan mantendu da (ia ez du ezer galdu, termino garbietan 300 lanpostu) eta zerbitzuek enplegu garbia sortzea lortu dute (3.300 lanpostu, % 0,5). Lehen sektorearen kasuan adierazi behar da atzera egiteko bere aspaldiko egiturazko bilakaerarekin jarraitu duela (200 enplegu galdu ditu, % 0,3).

Denborazkotasun maila aztertuz gero BJAren datuek adierazten dute, aldi baterako kontratadun soldatako pertsonen garrantziak etenik gabe zazpi urtetan behera egin ostean, bada 2010ean ratio hori handitu egin dela eta % 20,2koa izan dela, 2009an baino 6 hamarren gehiago. Gehikuntza, halaber, bi sexuen kasuan gertatu da: gizonezkoen artean 1,4 puntu hazi da eta emakumeen kasuan hazkuntza hori 1,8ra iritsi da. Horren ondorioz denborazkotasunean sexuen artean

egon dagoen arraila areagotu egin da, 2010 urtean, gure Erkidegoan eta portzentajezko 6 puntukoa da, aurreko urtean baino 4 hamarren gehiago. Gure Erkidegoak duen denborazkotasun portzentaia % 20 ingurukoa da; batezbestekoa Europar Batasunari dagokionez % 14koa da eta euroaren aldean % 15,7koa. Denborazkotasun ratorik altuena Espainian gertatzen da (% 24,9) eta, gero, Polonian (% 27,3).

Beste alde batetik, 2010ean egin diren kontratazioen analisiak gaur egungo abagune ekonomikoa islatzen du. Berbarako, aurreko bi urteekin erkatuta leheneratzea gertatu dela jaso da (harpidetut diren kontratu berriak % 5,6 hazi dira); gogoan eduki behar da 2003-2007 aldian ere eboluzioa positiboa izan zela. Joera aldaketa hori 2010eko uztailaren indarrean jarri zen lan-erreformaren osteko aldi baterako kontratuen aurrerakuntzaren bultzadari esker gertatu da.

SPEEek (Espainiako Servicio Público de Empleo Estatal) ematen dituen datuen arabera 2010ean guztira 710.042 lan-kontratu egin ziren (eta multzo horren barruan sartzen dira hala berriak nola konbertsioak), eta hori aurreko urtekoa baino % 5,3 gehiago da (+36.035). Horietatik % 51,5 emakumeek sinatu dituzte (aurreko urtean portzentaia hori % 54,1ekoa izan zen) eta horiek, 2009an, kontratatu ziren pertsonen % 46,5 ziren (eskura dagoen azken datua). Lurraldeka aztertuta, Gipuzkoan egin ziren kontratuen % 29,3 (% 29,5 2009an), pisua irabazten duen Bizkaian % 53,6 (+1,4 puntu) eta Araban % 17,1 (2009an kontratuen % 18,3 bertan egin ziren). Estatuan 2010 urtean guztira 14.421.063 kontratu erregistratu ziren, aurreko urtean baino % 2,8 gehiago. Horrek esan nahi du EAEn gertatu den bezala, han ere aldatu egin dela aurreko urteetako joera negatiboa.

Beste alde batetik, EAEn erregistratu diren irazpenen kopurua, guztira, 48.694 izan da. Lan Ministerioaren datuak kontuan hartuta gogoan eduki behar da joera behera egitekoa izan zela 2002 eta 2007 urteen artean, 89.154 irazpen gertatu zirela 2009an (% +355,5, 2008arekin erkatuta) eta egineran erdira jaitsi dela 2010ean arestian adierazi diren 48.694 langile ukitu horiekin, hau da, % 45,4 gutxiago). Joera hori estatu osoan errepikatu da (% +156,8 2009an eta % -39 2010ean); hori ez ezik, zenbateko oso hori erreferentzia moduan hartuta EAEko irazpenen pisua, 2009an hazi egin zena, jaitsi egin da 2010ean, eta azken urte horretan % 12,3tik % 11ra etorri da.

2010eko irazpenen kopuruaren jaitsiera modalitate guztietan gertatu da; mantendu egin da enplegua erregulatze espedienteen ondorioz ukituak izan diren langileen pisu nagusia, zenbateko osoaren % 90; iazko urtearekin konparatuta horien jaitsiera % 47,3koa izan da. Beste alde batetik artekaritza, arbitraje edo adiskidetze gaiekin zerikusia izan duten langileen munta % 39,8 jaitsi da eta lan arloko gaitan inplikaturik egon direnak % 8,1 jaitsi dira. Irazpenen kasuetan kalteordainen kontzeptuetan adostu diren zenbatekoei dagokienez munta osoa, 2010ean, 82,5 milioi eurokoa zain da, 2009 urtean baino % 4,6 gehiago. Kalteordainen batezbesteko zenbatekoa 17.174 eurokoa izan da eta horretan hazkuntza % 26,5ekoa izan da 2009koarekin erkatuta.

Beste alde batetik, laneko ezbeharren gaineko datuetara jotzen badugu, hau da, EAEn kasuan OSALAN, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen erregistratu direnak, ikus daiteke 2010ean laneko 39.153 istripu edo ezbehar gertatu zirela, hau da, 2009an baino % 2,8 gutxiago (aintzat hartzen direnak istripuaren edo ezbeharren ostean baja jaso dutenak dira eta horien barruan sartzen dira lansaioan eta “*in itinere*” gertatzen diren ezbeharrek eta gaixotasun profesionalak). Estatu osoan datu horrek izan duen jaitsiera aztertzen badugu esan behar da jaitsiera % 9,9koa izan dela Lan eta Inmigrazio Ministerioaren arabera. Adierazi dugun jaitsiera hori gure Erkidegoan 2009an aurreko urtearekin erkatuta gertatu zen jaitsiera handiari batu behar zaio (% -20,5), estatuan oraindik ere handiagoa dena (% -23,8).

Azkenik, LHKren 2010 urteko “*Negoziatio kolektiboaren balantzea*” deritzonak erakusten du urte horretan zehar ezarrita zegoela gure Erkidegoan lan egiten duten pertsonen % 77,1ek berritu behar zituela hitzarmen kolektiboak. Portzentaia hori 2009koa baino handiagoa da (% 58,2), eta baita aurreko urteetako baino handiagoa ere (% 50,8 2008an eta % 69,4 2007an), eta argi islatzen ditu gizarte eragileen arteko negoziatio prozesuetan izan diren zailtasunak. Zailtasun horiek azaleratzeko nahiko da gogoraraztea 2010eko hamabi hileetan bakarrik lortu zirela langileen %16,5 ukitu zuten akordioak (% 15,9 2009an), hau da, benetan gertatu eta lortu behar ziren akordioen laurdena baino gutxiago.

Urtea amaitu zenean negoziatio kolektiboari lotuta dauden pertsona langileen % 60,6ak ez zuen hitzarmen kolektibo berriturik (% 42,3 2009an). Hori gorabehera, LHKk ohartarazi du kopuru horren barruan indarrean dauden eragingarritasun mugatuko hitzarmenak sartzen badira, hau da, langileen % 12,5 ukitzera iritsi daitezkeenak, bada portzentaia hori % 48,1era murriztuko litzatekeela.

1.9. Talde zaurgarri batzuen bizi baldintzak

Europar Batasunean, sei pertsonatik batek arina eta larria bitarteko ezgaitasun bat dauka. Horrenbestez, 80 milioi pertsonak, sarritan, ezin dute osoki parte hartu gizartearen eta ekonomian, dela oztopo fisikoengatik, dela gainerako gizartearen jarrerengatik. Pertsona horiek, gaixotasun, nahaste, traumatismo edo lesioen baten ondorioz, edo adina, jaiotzetiko anomalia jakin batzuk edo beste arrazoi batzuen ondorioz, gainerako pertsonen inolako zailtasunik gabe egin ditzaketen lanak edo jarduerak gauzatzeko mugak dituzte. Aipatzekoa da, era berean, kolektibo honetan pobrezia-tasa batez bestekoa baino % 70 altuagoa dela, lana lortzeko aukera gutxiago dutelako, neurri batean¹.

EINen “*Mendetasunaren, Autonomia Pertsonalaren eta Mendetasun-egoeren Inkestak*” (EDAD) adierazten duenaren arabera, EAEn bizi diren eta ezgaitasunen bat dutela adierazten duten pertsonen kopurua honakoa da guztira: 169.400; alegia, biztanleriaren % 8,4. Sexuari dagokionez, EAEko 101.200 emakumek du ezgaitasun bat; gizonezkoak, berriz, 68.200 dira. Hortaz, emakumezkoak/gizonezkoak ratioa 60/40koa da, Estatuko ratioaren antzekoa, hain zuzen. Gainera, emakumeen ezgaitasun-tasak gizonezkoenak baino

¹ COM (2010) 636 azkena. Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa: “Ezintasunari buruzko estrategia europarra 2010-2020: konpromiso berritua oztoporik gabeko Europarentzat”.

altuagoak dira 45 urtetik gorako pertsonen kasuan; aurreko tartean, ordea, gizonezkoena da altuagoa. Halaber, ezgaitasun-talde nagusiak honakoak dira: mugikortasuna (biztanleriaren % 6k pairatzen du, eta ezgaitasunak dauzkaten pertsonen % 70 dira, guztira), etxeko bizitza (% 4,9) eta norbere burua zaintzea (% 4,3). Are gehiago, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen erdiak baino gehiagok dauzka arazoak bere jardueran hiru arrazoi horietakoren baten ondorioz. 80 urtetik gorako pertsonen taldeari dagokionez, hiru ezgaitasun-talde nagusi horiek ezgaitasunak dauzkaten 10 pertsonatik 7ri eragiten diote. Gainera, ezgaitasunak dauzkaten 6 urtetik gorako pertsonen kopuru osoaren % 74k adierazten du zailtasunak dauzkala eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak gauzatzeko²: horien erdiak ezin du jarduera horietakoren bat laguntzarik gabe egin. Sexuaren arabera, ezgaitasunak dauzkaten emakumeen % 80,3k eta gizonezkoen % 64,6k du arazo horietakoren bat. Adina zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoak dira mugak; hortaz, 6 eta 44 urte bitartean hamarretik seik ditu zeregin horiek egiteko arazoak, baina 80 urtetik gorakoek kasuan 10etik 8,6k ditu arazoak. Bestalde, Inkestaren arabera, zailtasunak dauzkaten pertsonen % 80,5ek jasotzen du laguntza, eta, ondorioz, beren mugen larritasun-maila nabarmen murrizten da.

EDAD 2008ko inkestaren datuen arabera, EAEn ezgaitasunak dauzkaten eta lan egiteko adina duten pertsonen taldean % 31 lanean zegoen, % 3,6 langabezia zegoen, % 39,4k ordaindutakoaren arabera prestazioak edo kotizaziorik gabekoak jasotzen zituen eta % 8,1 lan egiteko ezinduta zegoen. Gainerakoak jarduerarik gabeko bestelako egoeraren batean zeuden. Ezgaitasunak dauzkaten pertsona langabetuen prestakuntzari dagokionez, azpimarratzekoa da altua dela ezgaitasunak dauzkaten pertsonen biztanleria osoarekin alderatuta. Bigarren mailetan da altuagoa eta biztanleria orokorraren prestakuntza-maila ere gainditzen du; izan ere, ezgaitasunak dauzkaten pertsona langabetuen % 23,3k dauzka ikasketa profesionalak, eta % 16k dauzka bigarren mailako hezkuntza ez profesionalak, eta EAEko biztanleria orokorraren batez bestekoak % 19,3 eta % 13 dira, hurrenez hurren.

Bestalde, etxebizitzarekin lotutako beharrei dagokienez, Euskal Etxebizitzako Behatokiaren arabera, etxebizitza aldatu behar dutenak pertsona ezgaituak dauzkaten familien % 5,5 ziren 2008an; familia guztien kasuan, aldiz, % 4,9 ziren. Etxebizitzan konponketa-lanak egiten behar zituztenei dagokienez, % 20,9 eta % 15,5 ziren, hurrenez hurren.

Behar horiek lotuta daude pertsona ezgaituek sarritan beren etxebizitzetan pairatzen dituzten mugikortasun-arazoekin: EINen EDAD inkestak diotenaren arabera, gure Autonomia Erkidegoko pertsona ezgaituen % 45,9k zailtasunak dauzka bere etxebizitzako tokiren batean mugitzeko; gehienek eskaileretan (% 41,5), komunean (% 23,7) eta etxeko atarian (% 23,7) mugitzeko dituzte arazoak. Pertsona zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta altuagoak dira ratio horiek; hori dela eta, 80 urtetik gorako pertsona ezgaituen % 60k dauzka zailtasun horiek.

Bestalde, kolektibo honen bizi baldintzei dagokienez, Gure Erkidegoan, eskuragarri dauden azken datuen arabera³ ezgaitasunak dauzkaten pertsonen erdia, gutxi gorabehera, ekonomikoki independentea da. Beste erdia, zati batean edo erabat dago beste pertsona baten menpe, kopuru berdinetan. Gainera, alde handia dago ezgaitasun-mailaren arabera; hortaz, % 33-34kotzat jotako ezgaitasun bat duten pertsonen ia % 50ek ditu lanaren ondoriozko diru-sarrerak; % 65-74 graduko ezgaitasuna dutenen kasuan, berriz, ehunekoa % 17,3ra murrizten da; eta >% 74koa dutenen kasuan % 15,5eraino jaisten da. Bi kasuetan, diru-sarreraren iturri nagusiak ezgaitasun-pentsioak eta Pertsona Ezgaituak Gizarteratzeko Legearen (PEGL) arabera kotizaziorik gabeko pensioak dira. Independentziaren profila, laburbilduz, erretiro- edo ezgaitasun-pensio bat edo lanpostu ordaindu bat duten pertsonen dagokie. Gainera, independentzia ekonomikoak lotura handia du generoarekin; izan ere, ezgaitasunak dauzkaten gizonen bi heren guztiz independenteak dira, baina emakume ezgaituen heren bat baino ez da guztiz independentea.

Horrez gain, pertsona guztien bizi-kalitatearen funtsezko zati bat, lotuta dago haiek gizartean duten integrazio-maila eta parte-hartzearekin, bai beren herritartasun-eskubideen ikuspuntutik, bai harreman pertsonalei dagokienez. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kolektiboak arazo bereziak dauzka, bere ezaugarrien ondorioz, bere harreman sozialak modu egokian garatzeko eta aisialdiko jarduerara pozgarriak egiteko. EDAD inkestaren arabera, kolektiboaren hiru laurdenek adiskide berriak egiteko aukera gutxi dauka, edo batere ez, eta hirutik biri gauza bera gertatzen zaio ezagutzen ez dituen pertsonengana jotzearekin lotuta. Hortaz, pertsona horien harreman sozialak, kasu gehien-gehienetan, beren senide eta hurbileko pertsonetara soilik hedatzen dira.

Bukatzeko, EDAD inkestak azpimarratzen du gure Autonomia Erkidegoan ezgaitasunak dauzkaten pertsonen % 3,1ek bakarrik adierazi zuela, 2008an, osasun edo gizarte zerbitzuren bat behar izanda ez zuela jaso, % 56,5ek zion bere beharra ase zuela, eta gainerako % 42,9ak zion ez zuela inolako zerbitzurik behar izan. Ase gabeko beharren ratio hori Estatuko baxuena da.

Horren harira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren arabera, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen arretarako zerbitzuek herritarren % 0,6ri eskaintzen dio arreta (58,4 plaza 10.000 biztanleko), eta ratioak % 0,5 eta % 0,7 artekoak dira Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. EAE osoan estaldurarik altuena lan-zentro bereziei dagokien arren, zerbitzuen egitura nahiko desorekatua da hiru lurraldeetan: Gipuzkoako egoera hobea da, nagusiki, lan-zentro bereziei esker; Araban, berriz, tarteko egoera bat dago egoitzetako plazen estaldura altuaren ondorioz. 2008ari buruzko txostenean adierazten du EAEn ezgaitasunak dauzkaten pertsonentzako lan-zentroen gastua 2008an 392,5 milioi eurokoa izan zela, eta horietako 216 (% 55) finantzaketa pribatuko iturrietatik zetozen, bai erabiltzaileen familien ekarpen gisa, bai enpresa eta partikularren ekarpen gisa, lan-zentro

² Inkestak Eguneroko Bizitzako Oinarritzko Jarduera hauek aintzat hartzen ditu: norberak bere burua garbitu eta higiene pertsonaleko beste jarduerak batzuk egitea, jantzi eta erantztea, jan eta edatea, norberaren osasuna zaintzea, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea, otorduak prestatzea, etxeko lanak egitea, etxe barruan eta hartatik kanpo mugitzea eta ataza sinpleak egitea, funtsean.

³ CIDEK (2009).

bereziak eskaintzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak erosteagatik. EAEn, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen arretara bideratutako gastu publikoa, aipatutako urtean, 81,9 eurokoa zen biztanle bakoitzeko. Gastu horren % 73 Foru Aldundiei dagokie, % 19 Administrazio Zentralari, % 6,2 Eusko Jaurlaritzari eta % 1,7 EAEko udalei.

1.10. Osasuna eta osasun sistema

EINen datuen arabera, EAEko jaiotze uneko bizi itxaropenak (BI) gorako joera izan du, bai emakumezkoen artean, bai gizonezkoen artean. Hala, BI 80,3 izatetik 81,9 izatera pasa da 2003. eta 2009. urteen artean. Gizonen kasuan 76,8 urtetik 78,5 urtera pasa da (+1,7 urte) eta emakumeen kasuan 84,1 urtetik 85,6 urtera (+1,4 urte). 2009an Autonomia Erkidego hauek izan zuten bizi itxaropen altuena: Madril (83 urte), Nafarroa (82,9 urte), Errioxa (82,5 urte), Gaztela eta Leon (82,5 urte), Gaztela-Mantxa (82,2 urte), eta Kantabria, Katalunia, Aragoi eta EAE (laurek 81,9 urte).

Bestalde, Eurostaten datuen arabera, estatuko osasun oneko BI 63,2 urte izango litzateke emakumeentzat eta 63,7 urte gizoneentzat 2008an. Aldiz, osasun oneko bizi itxaropena 65 urterekin 8,6 urte izango litzateke emakumeen kasuan eta 9,8 urte gizonen kasuan. Honako hauek dira osasun oneko bizi itxaropen oso altua duten Europako herrialdeak: Norvegia (14,8 urte emakumeek eta 14,1 urte gizonek), Islandia (14 urte emakumeek eta 13,8 urte gizonek), Suedia (13,8 urte emakumeek eta 12,9 urte gizonek), Danimarka (12,3 urte emakumeek eta 12 urte gizonek), Luxenburgo (11,6 urte emakumeek eta 10,8 urte gizonek) eta Malta (11,4 emakumeek eta 10,4 gizonek). Erikortasunari dagokionez (gaitz batek biztanleria batengan dauzkan ondorioen ikerketa da, toki eta denbora jakin batean gaixotzen diren pertsonen proportzioari dagokionez) haurdunaldi, erditze eta erdiberriarogatiko ospitaleratzeak kontuan hartu gabe, 2009an EAEn ospitaleratzeak arrazoi nagusiak nerbio-sistemako eta zentzumen organoetako gaixotasunak (kataratak gehienbat) izan ziren. Gaixo guztien artean % 11,8 izan ziren eta mila biztanleko 17,2 kasu eman ziren. Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak ere ospitaleratzeak arrazoi nagusietako bat izan ziren (% 11,7 eta 1.000 biztanleko 17 kasu). Haurdunaldi eta erditzeagatik ospitaleratzeak direla-eta, ospitaleratutako emakumeak gizonezkoak baino gehiago dira: % 51,7 eta % 48,3, hurrenez hurren. Mota horretako ospitaleratzeak kontuan hartu gabe, % 47,3 emakumezkoak dira eta % 52,7 gizonezkoak.

Ospitalez kanpoko jarduera publikoari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, aldakuntzek duela urte batzuk hasitako gora egiteko joera dute oraindik.

- Ospitalez kanpoko 472 zentro publikok 14,5 milioi kontsulta hartu zituzten 2008an, aurreko urtean baino % 5 gehiago. Hazkunde hori enpleguaren hazkundera baino txikiagoa da, % 6koa 2007. eta 2008. urteen artean.
- Osasunaren alorreko langile kopuruaren hazkundeak eragin du mediku bakoitzeko biztanle kopuruak medikuntza orokorrean (mediku bakoitzeko 1.397 biztanletik 1.263 biztanlera pasa da) zein pediatrian (844tik 805era) behera egitea.
- 2008an mediku bakoitzeko batez besteko kontsultak 4.863 izan ziren. Medikuek orokorrek eta pediatrik zenbateko hori gainditu zuten, izan ere, 6.011 eta 5.385 kontsulta hartu zituzten, hurrenez hurren. Gainerako

medikuen kasuan, batez bestekoa txikiagoa da: dermatologoei 4.739 kontsulta, traumatologoei 4.026, endokrinologoei 3.812 eta oftalmologoei 3.550.

- Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 6,7 izan zen batez beste, aurreko urtean baino apur bat gehiago.

Ospitaleko jarduerari (publikoa eta pribatua) erreparaturik gero, honako hau agertzen dute EUSTATen datuek:

- 2007. eta 2008. urteen artean gora egin dute sektore publikoan baliabideen arloko (ospitaleak, oheak, inkubagailuak, ebakuntza gelak, erditzeko gelak, kanpoko kontsulten gelak eta langileak) aldagai guztiek, ohe kopuruak (behera egin dute) eta ospitaleen eta erditzeko gela kopuruak (berdin mantentzen dira) izan ezik. Bestalde, sektore publikoan behera egin du ebakuntza gela kopuruak, ospitale eta inkubagailuen kopurua berdin mantendu da eta gainerakoek gora egin dute.
- 100 oheko mediku kopuruak gora egiten jarraitzen du, bai ospitale publikoetan, bai pribatuetan; 2008an 100 oheko 52,8 mediku zeuden lehenengoetan eta 24,2 bigarrenetan. Era berean, 100 oheko erizaintzako langileak ere areagotu dira, bai sare pribatuan, bai publikoan. Hala ere, bi sareen artean ere aldeak daude: sare publikoan 88,3 eta pribatuan 41,8.
- 1.000 biztanleko ohe kopurua murriztu egin da apur bat eta 3,7 ohe dira.

Osakidetza ospitaleko eta ospitalez kanpoko jardueraren inguruan,

- Batez besteko okupazio indize orokorrak behera egin du berriz ere 2009an (2008arekin alderatuta ehuneko -1,6 puntu) eta % 81,1 da. % 100 gaindituta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gainetik, digestioarekin loturiko espezialitatea dago (% 119 eta 2008ekin alderatuta gora egin du). % 100en azpitik baina batez bestekoaren gainetik daude honako zerbitzu mediko hauek: barruko medikuntza (% 97,8), psikiatria (% 94,7), hematologia (% 92,9), pneumologia (% 91,6), kardiologia (% 90), errehabilitazioa (% 82,7) eta zaintza aringarriak (% 81,6); baita kirurgia-zerbitzuak ere: bihotz-hodietako kirurgia (% 91,2), neurologia (% 89,1) eta urologia (% 84).
- Egonaldiko batez besteko egunek berriz ere egin dute behera, 6 egun izatetik 5,8 egun izatera pasa baitira. Errehabilitazioa (28), zaintza aringarriak (15,4), psikiatria (15,5), hematologia (10,1) eta barruko medikuntza (8,1) batez bestekoaren oso gainetik daude, baina haietan guztietan jaitsiera egon da aurreko urtearen aldean.

Azkenik, EAEren aurrekontuaren likidazio datuen arabera, Osasun eta Kontsumo Sailaren gastu partida 3.508,9 milioi eurokoa izan zen 2009an. Bestalde, Sail honen 2010eko gastuen aurrekontua 3.530,1 milioi euro izan zen. 2009an likidaturiko osasun partidak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Osasun Publikoa, Osasun Plangintza eta Antolamendua eta Farmazia eta Prestazio Ortoprotesikoa) 3.538 milioi eurokoak izan ziren; aldiz, 2010erako aurrekontuan jasotakoak 3.523,6 milioi euro, hau da, bi ekitaldien artean % 0,4ko murrizketa egon da. Hala ere, Osasun Sailak baliabideen portzentajerik handiena izaten jarraitzen du oraindik; baliabide guztien % 34,2 du eta programa nagusia Osakidetza egindako transferentziak dira. 2010erako aurrekontu gastua BPGren % 5,35 da, aurreko urtekoa baino % 5,48 gutxiago.

EAEko Kontu orokorren bidez egindako Osakidetzaren aurrekontuaren likidazioak erakusten duenez, erakundeak 2009an 2.544,8 milioi euroko gastua egin zuen (% 5,2koa 2008aren aldean), hots, BPG nominalaren % 3,94. Hazkunde horien azalpena ustiapen gastuen (langileria, hornikuntza eta beste gastu batzuk) eta inbertsioen hazkundera datza.

1.11. Hirigintza eta etxebizitza

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren "Higiezin Eskaintzaren Inkestaren" datuek adierazten dute azken urtean etxebizitzaren eskaintza osoa (salmenta eta alokairua) % 4,9 igo dela (aurreko urtean % 3), laugarren hiruilekoan 28.921 etxebizitzetara iritsi arte. 2010. urtean, beraz, 2004an hasitako eskaintzaren hazkunde joerari eutsi zitzaion, 2002-2003 artean erori izanaren ondorioz. Joera horren ezaugarriak hauek dira:

- Etxebizitza libre eraiki berrien eskaintza % 10,2 erori zen, eta 2010eko laugarren hiruilekoan 3.877 €/m² zen, hau da, 2009ko batez bestekoa baino % 3,8 gutxiago. Lurraldez lurralde aztertzen badugu, Araban batez bestekoa txikiagoa da (3.532 €/m²), Bizkaian 3.899 €/m² eta Gipuzkoan 4.373 €/m² baino.
- Saltzeko eskaintzako BOEen batez besteko prezioa 1.474 €/m² zen 2010ean, aurreko urtean baino % 0,4 gehiago. 2010eko laugarren hiruilekoan, eskaintza 3.573 unitatera iritsi da, aurreko urtean baino % 28,7 gutxiago, izan ere, aurreko urtean 5.000 unitateen kopurua gainditu zen.
- Eskaintzako bigarren eskuko etxebizitzaren stockean % 29,4ko hazkundera igarri da, eta batez besteko prezioa, 2010ean, 3.891 €/m² izan da, aurreko urtean erregistratutako batez bestekoa baino % 3 gehiago. Lurraldeka, bilakaera nahiko ezberdina ikus daiteke, izan ere, Araban batez besteko prezioa % 5,1 erori den bitartean, Bizkaian % 4,8 areagotu da eta Gipuzkoan ez da aldaketarik gertatu.
- Alokairuan eskaintzako 2.568 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino % 24 gutxiago. Etxebizitza libreen zatia % 21,4 gehitu da, 1.000 etxebizitzetatik 1.215 etxebizitzetara. Alokairuko etxebizitza babestua, ordea, % 43,1 jaitsi da. Horrenbestez, babestutako alokairua 2009an % 70 izatetik 2010ean % 53 izatera igaro da; beraz, alokairuko eskaintzaren presentzia ia 17 puntu galdu ditu.
- EAEko alokairuko babestutako etxebizitzaren batez besteko errenta, 2010ean, 204 euro zen hilean, aurreko urtean baino % 7,2 gutxiago. BOEen modalitatea 277€/hileko kopurura iritsi da, gizarte etxebizitzak, batez beste, 122,7 €-an kokatu ziren bitartean.
- Azkenik, alokairuan eskaintzako etxebizitza libreen laginak 921,5 €-ko batez besteko errenta du hilero, urtebete lehenago baino % 5,3 gehiago. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak dauka preziorik garestiena (1.004,9 € hilean); gero Bizkaia, 923,8 € hilean eta azkenik Arabak (827,6 € hilean).

Ondorioz, EAEn hasitako etxebizitza kopuru osoak, 2008an % 32,9ko erorketa eta 2009an % 43,4ko erorketa eduki eta gero, zeinua aldatu zuen 2010ean, % 6,7 haziz. Guztira 7.522 etxebizitza hasi da; horietatik 2.572 askeak dira (% 34,2) eta 4.950 babestuak (% 65,8). Azken horietatik 3.756 BOE dira (% 27,8, 2009tik) eta 453 gizarte etxebizitzak dira (% 398). Bestalde, EAEn 2010ean

amaitutako etxebizitzak 11.400 dira, aurreko urtean baino % 15,3 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (% -27) eta babestutakoen beherakadaren (% 6,8) ondorioz. Horietatik 4.233 BOE dira (% -6,1) eta 758 sozialak (% 356,6, aurreko urtetik).

1.12. Pobrezia eta gizarte bazterketa

Eusko Jaurlaritzak lau urtean behin "Pobreziaren eta gizarte arloko desberdintasunen inkesta" (PADI) egiten du. Horren bidez pobreziak gure gizartean daukan eraginaren, pobreziari eragiten dioten arrisku faktoreen eta haren banaketa geografiko desberdinen berri ematen da. Azterketaren xedeko hutsuneak osotasunean aintzat hartuta, 2008ko PGDIren ustez, EAEko 39.737 etxetan pairatzen zuten aintzat harturiko egoeretako bat 2008. urtean (mantentze edo metatze pobrezia), guztizkoaren % 5ek hain zuzen ere. Ukituriko banakoak, guztira, 100.250, guztizko biztanleriaren % 4,7 dira.

Gizarte Ekonomiaren Memoria honen ardatza interes bereziko gai bat izan da: pobreziaren eta kolokatasunaren banaketa. Lehenik eta behin, PGDIren datuek erakusten dutenez, Bizkaia da oraindik ere kolokatasun edo ongizaterik ezaren arazo handiena duen lurraldea. Biztanleen % 22,9k ez dauka erabateko ongizaterik eskuratzetik, % 20,3k baino gehiagok Araban eta % 18,5ek Gipuzkoan (EAEko batez bestekoa % 21,1ekoa da). Denboran izan den bilakaera, ordea, hobe da Bizkaian, zeren eta ratio hori pixkanaka murriztu joan baita: 1996an % 44,1ekoa izan zenetik. Beraz, hiru lurraldeak bateratzeko prozesua gertatu da.

Bestalde, Bizkaiko benetako pobreziaren tasetan nolabaiteko hurbilketa ikus daiteke azken urteetan. Nahiz eta 2008an Bizkaian bildu artean pobreziaren tasarik handiena, % 3,8koa, beste lurraldeekiko aldeak txikiagoak dira: Arabakoa (% 2,9) eta Gipuzkoakoa (% 2,3). Gure Erkidego osorako batez bestekoa % 3,2koa da. Izan ere, Bizkaian bilakaera ona gertatu da, eta etengabe egin du behera benetako pobrezia-tasak: 1996an % 7,1ekoa izan bazen, % 6,6koa zen 2000an, % 5,4koa 2004an eta % 3,8koa 2008. urtean. Beste bi lurraldeetan, aldiz, ñabardurak egin behar dira haien joerei dagokienez. 1996-2000ko epealdiko beherakada handien ondotik, Bizkaikoetakoak baino jaitsiera handiagoen ostean, nolabaiteko igoera ikus daiteke.

Mantentze pobreziari dagokienez, ezaugarri bertsuak ikus daitezke Bizkaian eta Gipuzkoan: pobrezia horrek etengabe eta nabarmen egin du behera. Tasa murriztu egin zen Bizkaian, % 10,4tik % 5era, eta % 7,8tik % 2,9ra Gipuzkoan. Hala, bilakaera horrek beherantzko joerak erakusten ditu epe luzera benetako pobreziaren bi lurralde horietan. Araban, aldiz, EAE osoan eta Bizkaian eta Gipuzkoan dagoen joeraren kontrako bilakaera ikus daiteke. Nolanahi ere, hauxe da hiru lurraldeek duten ezaugarri komuna: metatze pobreziak nabarmen egin duela behera, eta lurralde guztietan 2008an % 1 inguruko edo txikiagoko tasak izan ziren. 1996an, berriz, bi halako tasa zegoen ia (Bizkaian, esaterako, famili etxebizitzetako biztanleen % 2,4koa zen).

Aldagai horiek eskualde mailan aztertuta ikus daitekeenez, lehenik eta behin, kolokatasun edo ongizaterik ezaren tasarik handienak 2008an daude, % 25etik gorakoak eta, beraz, EAEko batez bestekoaren (% 21,1) gainetik Bilbon eta Ezkerraldean (% 28,1 eta % 25,3 hurrenez hurren). Maila horiek nabarmen urruntzen dira kolokatasun-tasarik

handiena duten gainerako mailetatik; izan ere, talde horretan daude Gasteiz, Durangaldea eta Donostialdea. Eskualdeotan % 20 eta % 21 bitarteko tasak daude. Aiara eta Deba Barrena eskualde horietatik hurbil daude: % 17 eta % 19 bitarteko kolokatasun ratioak dituzte. Zifra horiek txikiagoak dira Eskuinaldean, Bizkaiko Kostaldean eta Tolosa-Goierri. Deba Goienak EAEko mailarik txikiena du: % 8,3.

Adierazitako aldeak bazter batera utzita, 1996-2008ko epealdian kolokatasun tasen jaitiera nabarmena ageri da eskualde guztietan.

Ildo horretan, eta azkenik, benetako pobrezia gainerako arazoen ukituriko populazioaren banaketan bereziki nabarmentzen da pobrezia hori gehienbat eremurik urbanizatuenera metatzen dela. Hala, benetako pobrezia egoera % 56 Bilbon eta Ezkerraldean biltzen da eta, osotasunean, Eskuinaldea, Gasteiz eta Donostialdea barne hartuta, benetako pobrezia % 91 izango genuke (metatze pobrezia % 83,3 eta mantentze pobrezia % 86,5). Eskualde urbanizatuena ere erabateko ongizate maila eskuratzen ez duten etxeetan bizi diren pertsonen ardatz nagusia dira, guztizkoaren % 82,2. % 42,2 Bilbori eta Ezkerraldeari dagokie, eta beste % 34,3 Gasteizi eta Donostialdeari.

1.13. Gizarte babesa

2010ean langabeziagatiko prestazioen onuradunak ziren pertsonen batezbesteko zenbatekoa EAEn 85.400 pertsonakoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino % 9 gehiago. 2010 urtea hamargarrena izan da jarraian pertsona jasotzaileen taldearen hazkuntza gertatu dena, hau da, 90eko hamarkadan nabarmen behera egin ostean. Estatuari dagokionez jasotzaileen taldea hazi egin da eta tasa gurean baino altuagoa da: % 13,5. Horrek esan nahi du EAEk pertsona onuradunen zenbateko osoarekiko duen esku hartzea jaitzi egin dela eta lehen % 3,2koa zena % 2,6ra etorri dela. 85.400 pertsona horietatik % 52,7 Bizkaiko egoiliarak dira, % 32,2 Gipuzkoakoak eta gainerako % 15,1 Arabakoak.

2010eko abenduko datuak aintzat hartzen baditugu jasotzaileak diren pertsonen % 62k ordaindutakoaren arabeko prestazioak jasotzen zituen, % 36k sorospenak eta gainerako % 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa. Abenduan prestazio hartzaileak, guztira, 82.921 ziren eta horrek esan nahi du estaldura-tasa (beti ere SPEEn erregistratuta dauden datuak kontuan hartuta) EAEko langabetu guztien taldearen % 64,9koa zela —% 66,8koa zen 2009ko abenduan—; estatuan, ordea, batezbesteko estaldura hori % 76,9koa da. Lurralde Historikoen arabera estaldurarik handiena Gipuzkoari dagokio (% 69,6).

Bada, datu horiek kontuan hartuta, esan daiteke 2010eko abenduan EAEko 100 langabetutik 39k ez zutela inolako prestaziorik jasotzen (33 ziren 2009an) eta, prestazioak jasotzen zituzten 61 horietatik 38k ordaindutakoaren arabeko prestazioak jasotzen zituztela, 22k langabeziagatiko sorospen bat eta, bakarrak baino ez, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

EAEko Gizarte Segurantzako prestazioei dagokionez 2010ean miloi erdi pertsona baino apur bat gehiago izan ziren (lehen hurbilketa arabera, 506.770) Gizarte Segurantzaren sistemako prestazioen onuradunak izan zirenak. Zenbateko horrek esan nahi du aurreko urtekoak baino % 1,5 gehiago dela, ahaztu gabe orduan % 1,7 hazi zela. Azken urte hauetan gertatzen ari denaren ildotik hazkuntza hori

ordaindutakoaren arabeko prestazioak jasotzen dituzten pertsona onuradunen taldearen eboluzioari esker da, beste modalitateetan, oro har, joera pertsona onuradun horien taldeen kopurua murriztea delako. EAEren biztanleria osoa kontuan hartuta Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoak dituzten pertsonak, beraz, % 23,4 dira.

Ordaindutakoaren arabeko pentsioetan (prestazioen % 98 eta gastuaren % 99 direnak), pertsona onuradunen batezbesteko zenbatekoa 2010ean 494.800 zen (% +1,5) eta horien batezbesteko zenbatekoa hileroko, 966,10 €. Munta hori handitu egin da, % 3, 2009koarekin erkatuta. Beraz, zenbatetsi den urteko gastua 6.692 milioi eurokoa da, 2009an baino % 4,5 gehiago.

Jubilazioagatiko pentsioei dagokionez (horrelakoak dira Gizarte Segurantzako ordaindutakoaren arabeko pentsioen jasotzaileak diren pertsona guztien % 61,4) lehenengo eta behin azpimarratu behar dugu horien batezbesteko zenbatekoa 2010ean 1.101,50 €-koa dela hileroko, hau da, 2009an baino % 3 gehiago. Urte horretako batezbesteko zenbatekoa (1.069,50 €) EAEko hileroko batezbesteko zenbatekoaren % 49,4 zen INEk Lan Kostuaren Urteko Inkestan kalkulatu duen Lan Kostuaren “soldadak eta ogibidesariak” osagaiari dagokionez. Osagai horren zenbatekoa 2.165,62 €/hileroko da eta gure Erkidegoan 2009ko batezbesteko ogibidesariari egiten zaion hurbilketa moduan har daiteke (hori delako eskura dauden datuei dagokien azken urtea). Azken finean, pentsioengatiko gastu osoa EAEn eta 2010 urtean, behin-behineko lehen hurbilketa arabera, 6.743 milioi eurokoa da. 2009ko urtearekin erkatuta hazkuntza % 4,5koa da eta horrek esan nahi du bi hamarren hazi dela BPGren gainean duen portzentaia, 2009an portzentaia hori % 10ekoa zelako eta aurreko % 10,2koa.

Beste alde batetik, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan funtsezko prestazioa da Sarrerak Bermatzeko Errenta (SBE) deritzona (hori horrela da Sarreraren Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen ostean). 2010 urtean SBE jaso duten etxeen kopurua 55.020 izan da (abenduko datua) eta horren arabera gehikuntza % 13,8koa izan da aurreko urtearekin erkatuta, orduan arreta jaso zuten elkarbizitza-unitateak 48.489 izan zirelako. Jasotzaileak diren unitate horien kopuru osoa erreferentzia moduan hartuta % 34,6 sarrerarik gabeko egoerei egon zen lotuta, % 30,15 lan errentak osotzen zituzten pertsonen eta gainerako % 35,25 euren pentsioak osotzen zituzten pertsonen. 2010 urtean Sarrerak Bermatzeko Errentaren kontzeptuan ordaindu zen zenbatekoa, guztira, 314,815 milioi euro izan zen (2009an baino % 19,8 gehiago).

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak egin duen azterlan batek azpimarratu egiten du sarrerak bermatzeko prestazioa salbuespena dela estatuko testuinguruan, hala bere estaldura altuaren ondorioz (2009an unitate familiarren % 7,5 izan zen) nola sarreraren osagarri izateko politikari lotuta egotearen ondorioz. Lan horrek, lehenengo eta behin, agerian uzten du 90eko hamarkadan gertatu zen autonomia mailako gutxieneko errentak orokor bihurtzearen atzean Erkidego guztietan egitarau hauen eragina erabat dela desberdina. 2009 urteko lehen hiruhilekoan EAEk Estatu osoko SBEen % 38,4 zituen eta egitarau horiei lotuta dauden gastuen % 40,2, nahiz eta pobrezia arrisku egoeran dagoen Espainiako biztanleria aintzat hartuta % 2,4 baino ez izan.

Halaber, 2010ean eta arestian ere aipatu den 18/2008 Lege hori garatzearen ondoreetarako, Etxebizitzako Prestazio Gehigarria (EPG) jarri da abian. Prestazio honen helburua beharizanik handiena duten pertsonen -hau da, sarrerak bermatzeko errenten titularrei- etxebizitzara iristeko erraztasunak ematea da. Beraz, horrela prestazio hori egunera arte Gizarte Larrialdietarako Laguntzek (GLL) estaltzen zituzten beharizanei aurre egitera igaro da, baina egon dago alde bat, hain zuzen ere eskubide moduan eratu dela. Prestazio honen sarrerarekin, halaber, era birtualean GLLk berriz ere aparteko izaerara itzuliko dira. Indarrean egon den lehen urtean EPGek 51,107 milioi euroko gastua eragin du (hasieran aurrekontuetan sartu ziren 43,1 milioiak gehi gero egin zen beste 8ko zabalkuntza), eta abenduan jasotzaileen kopurua, guztira, 16.047 zen. Horietatik % 20,6 Arabako egoiliarak ziren, % 60,5 Bizkaikoak eta % 18,9 Gipuzkoakoak.

EPG abian jarri ostean GLLek euren hasierako xedea berreskuratu zuten eta nabarmen murriztu da dagokien aurrekontuetako partida. Ildo horretatik, gogoan eduki behar da 2010ean hasieran mota horretako laguntzarako 17,3 milioi euroko hornikuntza egin zela eta, zabalkuntzak izan zuen 6,7 milioiko muntarekin, bada guztira gastua 24 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean gastu hori bera 54,5 milioikoa izan zenean.

Beraz, Sarreraren Bermerako Euskal Sistemak guztira 389,9 milioi euro gastatu zituen 2010ean, aurreko urtean baino % 22,9 gehiago. Zenbateko hori era honetan banatu zen: 314,8 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentan (zenbateko osoaren % 82), 24 milioi Gizarte Larrialdietarako Laguntzan (% 5) eta 51,1 milioi euro Etxebizitzako Prestazio Gehigarriko (% 13).

2. Gogoetak

2.1. Demografia eta immigrazioa

EUSTATEk EAErako proiektzio demografikoak egin ditu eta, 2020. urteko mugari begira, biztanleriaren bilakaera orokorra kalkulatu dute, baita hartan eragiten duen aldagai bakoitza ere⁴. Heriotzen, ugalkortasunaren eta migrazioen etorkizunari buruz egindako hipotesiak oinarri hartuta, epe laburrera mende aldaketarekin hasi zen hazkunde txikiaren joerari eutsiko zaiola aurreikusi da, eta ondoren biztanleriaren kopuruak egonkorak izango dira. Horrekin batera, eta haur kopurua apur bat igo arren, euskal biztanleria hazi eta zahartzeko prozesuak aurrera jarraitzen du.

EAEko egoera demografikoak Europako batez bestekoak baino ezaugarri biziagoak dauzka bi adierazle horietan (adinekoen pisu handiagoa biztanleria osoaren gainean eta jaiotze-tasa txikiagoa), eta 2020rako aurreikuspenak ez dira oso baikorrak. Zehatz esateko, 16 eta 64 urte arteko taldean beherakada handia aurreikusten da (% -4) eta 64 urtez gorakoak % 22,7 haziko dira.

Kontu horiei dagokienez, EGABen iritziz, “Aurreikusitako bilakaera demografikoaren ekonomia eta gizarte ondorioak EAE” (2011) izeneko berezko ekimeneko azterlanean adierazi duenez, gizarte garatu garaikideetan, pertsonen bizi kalitatearen hobekuntza eta bizi itxaropenaren begi bistako luzapena gizarte aurrerapentzat eta Ongizatearen Estatuaren arrakasta argitzat jotzen dira; hala ere, prozesu hori beste prozesu demografiko eta ekonomiko batzuekin uztartzeak agerian utzi du aldaketak sartu beharra. Zahartzea eta jaiotze-tasa baxuak batera gertatzen ari dira. Honen ondorioz, lanerako adina duten taldeak txikiagoak dira eta adinekoen proportzio handiagoa dago gizartearen; horrek ondorio ekonomiko argiak ditu.

Horregatik, Kontseilu honek, bere azterlanean, uste du gure gizarteak erronka sailhestezin biri egiten diela aurre: lana egiteko adinean dagoen biztanleriaren beherakada eta biztanleria zahartzea; horrek eragina du ongizate estatuaren iraunkortasunean eta erantzun global, zehatz eta zeharkakoa behar da eta oraindik ez da horrelakorik egin ez Estatuan ez EAE.

Hori dela-eta, gure erkidegoak ikuspegi globalizatzailea ezarri behar du gertaera horiei heltzeko garaian, euskal biztanleriaren bizi kalitateari eragingo dioten ekimenak arrazionalizatzeko ezinbesteko bide gisa. Ezinbestekoa da ikuspegi integralaren gabezia, zatitutako eta sakabanatutako politikak eta epe laburreko ikuspegiak gainditzea. Ikuspegi demografikoak lan merkatuan, pentsioen sisteman, osasunean eta osasun sisteman, mendetasunean eta gizarte zerbitzuetan eta hezkuntza sisteman izango dituen ondorioei aurre egiteko epe luzerako estrategia integralaren definizioa gainditu gabe dauka gure Erkidegoak.

Bestalde, lan egiteko adinean dagoen biztanleria murriztea egiturazko arazoa da eta ikuspegi aldaketa eta enplegu eta enpresetako giza baliabideen politikak birplanteatzea eskatzen du. Zahartzeak biztanleria aktiboaren beherakadan duen eraginari aurre egiteak esan nahi du enplegu-tasa oro har hazi beharra dagoela eta, zehatz esateko, emakumeena eta 55 urtez gorakoena. Era berean, helburu honi lagundu egin behar zaio gazteak lan munduan lehenago sartuta eta etorkinak lan munduan sartuta, balio handiko giza kapitala baitira. Immigrazio integratuaren alde egin behar da, eskariaren eta eskaintzaren kualifikazio profilak behar bezala egokituta. Bestalde, erakundeetan aldaketak egin behar dira: giza taldeen esperientziaren eta aniztasunaren balorazio berria egin behar da, “adina” aldagaia sartu behar da plantillen kudeaketan eta lan-baldintzetan (malgutu), laneko bizi-tza eta bizi-tza pertsonala uztartzeko programak eta babesteko zerbitzuak garatu behar dira, adin helduan lan merkatuan egotea sustatu behar da, etab.

2.2. Hezkuntza

EAE unibertsitate aurreko matrikulazioetan bilakaera positiboa ikusten dugu berriro ere; izan ere, EUSTATEN 2010-2011ko datuen aurrerapenaren arabera, matrikulazio horiek % 1,1 areagotu dira, eta, gainera, beheko mailetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Osteko irakaskuntzan (DBHO) nahiz Irakaskuntza Ertainetan gertatu da.

Azpitarratzekoa da LHko matrikulazioek edukitako hazkunde eta, halaber, EAE irakaskuntza ertainak egiten dabilzan ikasleetatik % 49,9k LH aukeratzea derrigorrezko irakaskuntza amaitu eta gero (goranzko joera ageri da gainera). Beste era batera esatearren, banaketa proportzionaleranzko bilakaera berretsi egiten da, % 50en Lanbide Heziketaren eta Batxilergoaren artean. Lehenengoak kideak irabazten dabil. Hala eta guztiz ere, emakumeak ikasketa profesionalean duen parte-hartzea gizonezkoek dutena baino baxuagoa da oraindik, batez ere profil teknikoko lanbide familetan.

Goi Mailako Irakaskuntzan izandako matrikulazioei dagokienez (lehenengo bi zikloetan), argi utzi nahi dugu matrikulazioak, kopuru absolutuetan, beherantz egiten ari badira ere, unibertsitateko populazioak 18 eta 25 urte arteko populazio osoaren aldean ageri duen kopurua hazi egin dela eta 2008-2009 ikasturtean, EINen arabera, % 31,9n kokatu da. Estatuan, bestalde, portzentajea % 31,7koa da. Bestela esanda, Estatuan unibertsitateko populazioak 18 eta 25 urte bitarteko biztanlerian daukan pisua EAE baino apur bat txikiagoa da baina hark ere goranzko bilakaera dauka.

Hezkuntzako adierazleei dagokienez: Atseginez egiaztatzen dugu:

⁴ EUSTATEN proiektzioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2008ko edizioa.

- EAEk, taldeko ikasle kopuruari eta irakasleei dagokienez, Estatuko batez besteko ratioak baino ratio txikiagoak ageri dituela.
- Helduek ikaskuntza iraunkorrean duten parte-hartzea, Berrikuntzaren Indize Europarraren (2009) datuen arabera (EUSTATEk argitaratua 2010ean), EBk 2010erako aurreikusitako helburua gainditzen duela (% 12,5) eta % 13,5era iritsi dela. Edonola ere, gai honetan erreferentzia diren herrialdeetan topatzen ditugun ratioetara iristeko oraindik bidea gelditzen zaigu egiteko.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren datuen arabera, Unibertsitatekoa ez den Irakaskuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (ikastetxe publikoan edo itunduan) 2008. urtean, Lanerako Prestakuntza kanpoan utzita, 7.151 eurokoa da EAEn. Horrela, gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko gastu handiena ageri duena.
- PISA 2009ko datuen arabera,
 - Gure hezkuntza sistema ELGAko batez bestekoa baino bidezkoagoa da.
 - Gaitasun matematikoan, ELGAren multzorako hobekuntzarik egon ez bada ere PISA 2006an eta 2009n eskuratutako batez besteko emaitzetan, EAEk aldaketa positiboa egin du eta ELGAren batez bestekoa ere gainditu du 14 puntutan eta Estatukoa 27 puntu baino gehiagotan. Bestalde, bilakaera positiboa ikus daiteke ere, bai ekitateari dagokionez, bai gorentasunari dagokionez.
- Goi mailako Zientzietan, Matematiketan eta Teknologian graduatutako pertsonen tasa EBko herrialdeetako altuenetarikoa da.

Eta atentzioa erakarri nahi dugu hurrengo alderdietara:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat jarritako aurrekontu partida jaitsi egin da 2010ean % 2,6, aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean. Gastu hori EAEko BPGaren % 4,18 da. 2009. urtean erregistratu zen portzentajearen aldean ehuneko 0,19ko murriztapena da.
- Hezkuntza Ministerioak argitaratu dituen azken datuen arabera, 2008koak hain zuzen, Hezkuntza Administrazioek BPGaren gainean egindako gastua % 3,83koa da EAEn (% 3,06 Unibertsitatekoa ez den Hezkuntzan eta % 0,14 Unibertsitatekoan) eta % 4,08koa Estatuan (% 2,7 Unibertsitatekoa ez den Hezkuntzan eta % 0,95 Unibertsitatekoan).
- Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzarengatik egindako gastuaren ratioa hazi egin da 2009. eta 2010. urteen artean, hain zuzen ere 5.353 eurotik 6.346,5 eurora. Aitzitik, 2009. eta 2010. urteen artean (aurrekontuen arabera) murriztu egin da kopuru hori, izan ere, adierazleak 6.014 euroko balioa erregistratu du ikasle bakoitzeko.
- Adin goiztiarrago batzuetako edo hezkuntza maila ez hain aurreratuetako hezkuntza adierazle batzuen bilakaera.
 - Eskola behar baino lehen uzten dutenen tasa Estatuko portzentaje baxuena izan zen, % 14,7koa 2008. urtean hain zuzen (estatuko batez bestekoa: % 31,9koa 2008. urtean). Ondorioz, pentsa daiteke zaila litzatekeela EBk 2010erako finkatutako helburua lortzea, hain zuzen ere % 10eko portzentajearen kokaturikoa.

- Egokitasun tasen bilakaera ez da egokia, eta horiek izugarri igotzen eta areagotzen dira denboran zehar Lanbide Heziketarentzat eta, batez ere, Erdi Mailako Lanbide Heziketarentzat, batez besteko tasak % 95ekoak izanez. Hala eta guztiz ere, honakoa aintzat hartu beharko litzateke ere: egokitasun faltaren tasa areagotu egiten da Lanbide Heziketan helduen portzentaje altu batekin; horiek, laneko bizitzara sartu izan eta gero, Lanbide Heziketako ikasketak egiten dituzte berriro ere. Gauza bera gertatzen da unibertsitateko ikasketak egiten saiatu diren eta jarraitzeari uko egin dioten gazteekin, izan ere, horiek Goi Mailako Lanbide Heziketako ikastaro bat egin ohi dute ere, lan mundura irteteko modu bezala.
- PISA 2009ko txosteneko datuen arabera, EAEn atzerapausoa ikusi da gorentasunean 2006ko *irakurketa gaitasunari* dagokionez. *Gaitasun zientifikoan*, batez besteko puntuazioaren emaitzak 2006ko probaren ia berdinak mantentzen dira, baina ELGAren batez bestekoaren azpitik kokatzen dira. Gorentasunari dagokionez ere atzerantz egin dugu.

Ikasle batzuek hezkuntzari dagokionez daukaten desabantaila horren jatorria maiz egoera pertsonal edo soziokulturaletan dago, eta askotan bizi diren ingurunezko arrisku edo bazterkeria egoerei daude lotuta. Hortaz, hezkuntza denon erantzukizuna da gero eta gehiago, bizitza osoan garatu behar da eta bizi den lurralde eta gizarte testuinguruaren eragin handia dauka.

Bestalde, guztientzako kalitatezko hezkuntza lortzeko zuzenean zerikusia duten hezkuntza komunitateko kideen eta hezkuntza gauzatzen den gizarte ingurunearen ahalegina behar da. Ondorioz, berriro ere azpimarratu egiten dugu beharrezkoa dela adin goiztiarrenetan edota hezkuntza maila ez hain aurreratuetan prestakuntza eta kualifikazioa hobetzea, izan ere, ezagutzen oinarritzen den gizarte batek beharrezkoa du biztanleria osoak hezkuntza eta prestakuntza-maila komenigarria eta egokia edukitzea.

2.3. I+G+B jarduerak eta IKT-ak

- EUSTATEN, EUROSTATen eta EINen datuen arabera, I+G+B adierazle nagusiek EBko eta Estatuko autonomia erkidego dinamiko eta berritzaileen artean jartzen dute EAE. Aitzitik, oraindik bidea dugu egiteko gaian erreferentzia diren herrialdeek duten mailara iristeko. Hala,
- Azpimarratzekoa da mundu mailako krisi ekonomiko larria eduki duen urtean (2009), hain zuzen ere Euskadiko BPGk % 3,8 atzera egitea eragin zuena, I+G alorreko jardueretan egindako gastua % 1,3 areagotu izana EAEn.
 - I+G alorrean egindako esfortzua, EAEn EB27ren batez besteko balioaren gainetik eta guzti kokatzen dena (% 1,98koa % 1,9koaren aldean, EAEko datua 2009an eta EBkoa 2008an), hazi egin da EAEn ere aurreko urteko kopuruaren aldean, izan ere, BPGren % 1,86tik (2008) % 1,98ra (2009) igaro da.
 - Pozgarria da I+G jardueretan lanean hartutako pertsona kopuruak gora egiten jarraitzea eta Estatuan eta EBn erregistratutako balioen gainetik kokatzea, eta baita gaian dinamikoaren diren lurraldeetatik gertu ere. DOBn neurtua, 2009. urtean lanean zegoen biztanleriaren % 15era iritsi zen. Estatuan % 11,7koa da eta EBn % 10,4koa.
 - I+G gaian egindako gastuaren finantzazioari dagokionez, azken urteetan sektore pribatuak edukitako pisua apur

bat galdu dela ikusi bada ere, sektore pribatua da oraindik ere finantzazio iturri garrantzitsua. Sektore pribatuak I+G gaian egindako gastu osoaren % 54 finantzatzen du, eta Administrazioak, berriz, % 40.

- 9 langiletik gorako enpresek berrikuntza teknologikorako jardueretan egindako gastu osoa % 1,2 areagotu da 2008ko kopuruaren aldean. BPGren % 3,3 da.
- Enpresa berritzaileen (berrikuntza teknologikoak eta ez teknologikoak) portzentajea (9 langiletik gorakoak) % 38,9ra iritsi da. Estatuan, EINen arabera, aldi berdinerako portzentajea % 33,9koa da. ISZ 2008ren arabera, EB27n, portzentajeak Alemaniaren % 65,1etik (zerrendaren lehenengo postuan) Bulgariaren % 16,1era doaz. Estatu espainiarrak % 34,7 erregistratu du. Herrialde dinamikoak, Alemaniak gain, hauek dira: Austria (% 52,5), Luxenburgo (% 52,5), Irlanda (% 52,5), Islandia (% 52) eta Danimarka (% 52).

Europako Berrikuntza Indizearen (SII) arabera, EUSTATEk landutakoa, EAE azpimarragarria da honengatik:

- Zientzia eta Ingeniaritza eta Gizarte Zientzia eta Giza Zientzien ikasketetan lizentziadun izatera iritsi den 20 eta 29 urte arteko gazteen tasa altua, 46,7 milako, EBren 40,5 milakoren aldean.
- Goi mailako heziketa duen 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren portzentaje altua (Unibertsitatekoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketakoa): % 42,2, Batasuneko batez bestekoaren (% 24,3) ia bikoitza.
- Prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzen duen 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren portzentajea altua da (% 13,5), Europan % 9,6koa den bitartean.
- Ezagutza maila altuko zerbitzuen sektoreetan lanean ari den pertsona portzentajea altua da, enplegu osoaren % 19 baita, Europan % 14koa den bitartean.
- Enpresen berritze portzentajea, % 12,4koa, Europako % 5,1eko portzentajearen aldean.
- Erdi eta goi mailako teknologien esportazio adierazgarria, kopuru osoaren % 51,5ekoak EBren % 47,4ko portzentajearen aldean.
- Banda zabalaren barreiapena, 10 langile edo gehiagoko enpresen % 92k banda zabalerako sarbidea du, EBko % 81eko portzentajearen aldean.
- Eraginkortasuna, izan ere, enpresa berritzaileek % 19,6 murriztu dituzte langile kostuak eta % 9,4k materialen eta energiaren kontsumoa murriztu du, Europan portzentaje horiek % 18,0 eta % 9,6koak diren bitartean, hurrenez hurren.
- Berrikuntza teknologikoren bat garatu duten ETEak: % 30,5ek, EBko % 33,7ko portzentajearen aldean.
- Arrisku Kapitalari zuzendutako BPGaren portzentajea altua da (% 0,18koa % 0,14ko portzentajearen aldean).
- I+G gaian egindako gastu pribatua altua da, % 15ekoa EAEn, EB27ko % 1,21eko portzentajearen aldean.

Aitzitik, tokia dago hobetzen jarraitzeko, izan ere:

- I+Gn egindako gastu publikoa BPGaren aldean % 0,35etik beherakoa da, EB27ko % 0,67ko portzentajearen aldean.
- EPO patenteen kopurua milioi bat biztanleko 6,7koa da EAEn, Europako 10,7ko kopuruaren azpitik.
- Berrikuntza ez teknologikoak (marketingekoak edo antolamendukoak) dituzten ETEen portzentajea, % 21,7, EBn erregistratutakoa baino (% 40,0) baxuagoa da.

Etxeetako edota biztanleriaren IKT ekipamenduei dagokienez, esan behar dugu zorionez EAEk hazten jarraitzen duela. Aitzitik, Europako batez bestekoen azpitik gaudela ikusi dugu pixka bat. Gauzak horrela, Interneterako sarbidea duen 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez duen etxebizitza portzentajea % 70ekoa da EB27n 2010. urtean, EAEn % 55ekoa den bitartean.

Bestalde, eta IKTen sarrerak aurrerantz jarraitzen badu ere 14 urtetik gorako biztanleen artean, EUROSTATen eta EINen datuak gurutzatuz gero, ikus daiteke Internet erabiltzeari dagokionez EAEk, Internet gutxienez astean behin inkesta egin aurretiko azken hiru hilabeteetan erabili duten pertsonen % 60,7rekin, Estatuko batez bestekoaren (% 58,4) gainetik geratzen den tokia betetzen duela. Aitzitik, EB27ren (% 65), EB25en (% 66) eta EB15en (% 69) batez bestekoaren azpitik geratzen da.

Enpresetan dauden IKTen ekipamenduei dagokienez, ikusi dugu horiek barneratzeko prozesuak hazten jarraitu duela eta, enplegu tamaina handiagoa eduki ahala, hazkunde murriztagoak daudela, izan ere, hobetzeko tarte eskasa da.

Deigarria da enpresa establezimenduek Internet erabiltzeko jarduera guztietatik, murriztapen handiena prestakuntza produktuak eskuratzeari dagokionez gertatu izana. Sarea edukitzearen funtzionaltasunetako bat prestakuntza errazago eskuratzeara da, joan-etorrien, ordutegien eta denbora edukitzearen oztopoetatik harago, baina hori nabarmen murriztu da 2009. eta 2010. urteen artean, eta, gainera, hiru jarduera sektore nagusietan gertatzen da gauza bera.

Internet bidezko edo bide elektronikoko merkataritzako transakzioei dagokienez, EUSTATEN datuen arabera, gorantz egiten jarraitzen dute sortutako kopuru ekonomikoei dagokienez, nahiz eta merkataritza elektronikoko horretan parte hartzen duen enpresa kopurua murriztu egiten den.

Ondorioz, uste dugu geroz eta beharrezkoagoa dela informazioaren teknologia berrien erabilera eta dinamika gutxieneko taldeen arteko komunikazioa sustatzea (seme-alabarik gabeko familiak edo bakarrik dauden pertsonak, adin tarte aurreratuenak eta kualifikazio eta laneko egonkortasun gutxiagoko biztanle taldeak). Gainera, konexio, eduki eta banaketa aukera egokien konbinazioan oinarritutako politika publiko batek lagundu egingo luke IKTen onurak areagotzen.

2.4. Ingurumena

Azken urte hauetan zehar, ingurumenaren egoera orokorra hobetu egin da, gizartearen kontzientziazio orokorraren eta garapen iraunkorra lortze aldera gauzatutako jarduera publiko eta pribatuen ondorioz.

Horrenbestez, bilakaera positiboa egon da honako alor hauetan:

- Airearen kalitatea ona edo gutxienez onargarria da aztertutako azpigune guztietan.
- EAEn, 2008. eta 2009. urteen artean, berotegi-efektuko gas isuri osoa (zuzeneko eta zeharkakoa, hau da, inportatutako elektrizitateari lotutakoak barne) % 10 jaitsi da eta, abiapuntu urtearekin alderatuta, hazkundera % 6koa da, hots, Planean ezarritako helburua (% 14) baino baxuagoa.
- Uren kalitatea.
 - Ibaiena itxaropentsua da.

- Trantsizio urean, oraindik arazoak dauden arren, bilakaera positiboa da.
- Kostaldeko uretan egoera guztiz aldekoa da, laginketa estazioen % 100etan betetzen baitira helburuak.
- Lakuetan eta barnealdeko hezeguneetan bilakaera positiboa antzeman da, nahiz eta oraindik ez den nahikoa.
- Bainurako uretan, 2009an egindako azterketak erakusten duenez, bainurako 9 gune hobetu dira eta 4 kaltetu.
- Intentsitate energetikoa 2009an 2000. urtekoaren % 86 da eta, 2008aren aldean, 5 portzentaje-puntuz hobetu da.
- Hondakin ez arriskutsu eta arriskutsuen sorkuntza murriztu egin da: % 24,2 lehenengoetan eta % 32,1 bigarrenetan.

Hala ere, honakoak nabarmentzekoak dira:

- Uraren per capita kontsumoa % 11,2 hazi da 2008an eta 139 pertsona/litro/egunekoa da; eta, % 8 hazi da bere aleko balioan eta 0,94 euro/m³-koa da.
- Banaketa sarean galdutako ura eskuragarri dagoen kopuru osoaren % 16,1 da.

Eta kezka pizten diguten joerak honakoak dira:

- Energiaren amaierako kontsumoa, krisiaren ondorioz murriztu egin den arren (2008. eta 2009. urteen artean % -8,72, 5.259 Ktep-etara iritsiz), kontuan hartu beharrekoa da, gure mendetasun energetikoa eta lehen mailako energiaren euskal ekoizpen urria direla medio (399 Ktep, eskariaren % 5,5; horietatik 382 Ktep energia berriztagarrietakoak dira). Gainera, aintzat hartu behar da EBk 2009ko apirilaren 21ean Politika Energetikoa onetsi zuela, 2020an iturri berriztagarrietatik energia ekoizpenaren % 20 lortzeko, energiaren kontsumoa % 20 murrizteko eta BEG isuriak % 20 murrizteko (Kyotoko Protokoloan planteatutakoa baino anbizio handiagoko helburua: % 15eko murrizketa Espainiaren kasuan, 2012rako).

Ondorioz, ahaleginak ez dira ahuldu behar, kontrakoa baizik. Eta, hori lortze aldera, Euskal EGABen ustez ezinbestekoa da herritarrak sentsibilizatzeko eta hiru aldagaien (ingurumena, gizartea eta ekonomia, hau da, teknologiaren berrikuntza babesteko ildoak) integrazio egokia helburu duten ekoizpen prozesu garbiak martxan jartzeko lan egiten jarraitzea, horretarako talde desberdinetan ingurumen sentsibilizaziorako ekintzak babestuz, eta abar.

2.5. EAE-ko egoera ekonomikoa eta kanpoko testuinguruak

2009an munduko ekonomiak joan den mendeko erdialdeaz geroztik izandako atzeraldirik sakon eta orokorrera bizi izan du. Aitzitik, bigarren seihilekoan, mundu mailako ekoizpen eta merkataritza aktibatu egin ziren berriro ere, eta munduko jarduera ekonomikoa osatzen jarraitu zuen 2010. urtean zehar.

Hala eta guztiz ere, lehengoratzearren erritmoa apur bat desberdina izan zen lurraldeen arabera. Ekonomia aurreratueta, gorakada ahula izan zen. Bestalde, garatzeko bidean dauden ekonomiak, ekonomia asiarrak batez ere, munduko lehengoratzearren buruan jarri ziren,

hainbat herrialdetan ekonomia gainberotzeari buruzko kezkak sortzera eta guzti iritsiz.

2010eko lehen seihilekoan, gorakada ekonomikoa diru eta zerga pizgarrietan oinarritu zen, mundu mailako finantzazio baldintzen nolabaiteko normalizazioan, eta enpresen eta kontsumitzaileen konfiantza hobetzean. Gainera, lehengoratzek izakinen ziklo luze baten babesu eduki zuen, izan ere, enpresek beren stockak birjarri zituzten ikuspegi ekonomiko orokor itxaropentsuenei erantzunez. Are gehiago esatearren, izakinen birjartzeak lagundu egin zuen BPGren hazkundean ekonomia nagusietan aldi honetan.

Egoera ekonomikoaren hobekuntza orokorra eta jardueraren gorakada, manufakturen sektoreak bultzatuta, mundu mailako merkataritzaren osatze sendo batek lagunduta egon ziren. Hazkundea % 12,4koa izan zen aurreko urteko kopuruen aldean.

Aitzitik, urteko hirugarren hiruhilekoan, mundu mailako jardueraren aurrerapena, FMLren zenbatespenen arabera, pixka bat mantsotu zen, hiruhileko arteko % 0,9ko tasaren inguruan kokatzeraino, bigarren hiruhileko % 1,2 eta gero. Halaber, inflazioaren tentsioak orokor bihurtu ziren, eta inflazioaren aurrean horrelako kezka iraunkorreko giroan, ekonomia gainberotzearen ondorio, garatzeko bidean dauden ekonomien hainbat banku zentralik likidezia pizteko ezohiko neurri batzuk kentzea erabaki zuten, horiek krisiari erantzuteko hartuak izan ondoren. Halaber, beren diru politikei orientazio hertsatzaileagoa ematea erabaki zuten.

Europar Batasunak goiko lerroetan deskribatu den osatze ekonomikoaren hiruhileko eredu berdina du. Hala, euroguneko BPG erreala % 1,8 areagotu zen 2010. urtean, baina bere hazkundea atzerantz doa urteko azken hiruhilekoan.

Jardueraren urteko osatze hori hainbat arrazoiengatik azaldu daiteke. Lehenik eta behin, kanpoko eskariaren bultzada dago, esportazioen hazkundea eragin zuena. Edonola ere, areagotze horrek ez zuen ekarri kanpoko eskari garbiaren ekarpen positiboa, inportazioen hazi egin zirelako, erritmo pixka bat biziagoan jarraitu baitzuten. Bigarrenik, izakinen ekarpen positiboa dago, izan ere, enpresetako izakinak murrizteko erritmoan dezelerazioa ikusi da. Eta, hirugarrenik, barne eskariaren lehengoratzearina dago, izan ere, kontsumo publikoak hazten jarraitu du eta inbertsioa eta kontsumo pribatua egiteari utzi zaio, 2009an gertatu bezala. Kontsumo publikoaren hazkundeak 2010eko jarduera ekonomikoa eusten jarraitu zuen, baina 2009an baino arinagoa izan zen. Aldagai honetan igarritako moderazioa aurrekontu publikoetako saldoen hondamena mugatzera zuzendutako zerga finkapeneko esfortzuen ondorio izan zen. Bestalde, inbertsio eta kontsumo pribatuaren hobekuntza, neurri batean, aurreko mailen aldean egondako konfiantza areagotzearen ondorio izan zen.

Gauzak horrela, EBren zor publikoaren bilakaera ezegonkorra eta aldagarria izan da finantza publikoen iraunkortasunari buruzko ziurtasun ezen, zenbait herrialderen bankuko kaudimenaren eta zorraren aurkako jarrera espekulatzailen ondorioz. Izan ere, kezka handienak Grezian, Irlandan eta Portugalen oinarritu baziren ere, tentsioek azkenean Espainia eta Italia bezalako beste herrialde batzuei eragin zieten. Espekulazioko mugimendu hauek geldiarazteko, bai dibisen merkatuan, bai lehengaienean, hainbat neurri hartzea proposatzen

ari da eremu ezberdinetatik. Horietako asko bat datoz inbertsioak egiten dituztenen gardentasun betebeharrei buruzko akordio europar bat lortzearekin. Akordio horrek mugak edukiko lituzke jarrera espekulatzailentzat.

Defizitari dagokionez, Egonkortasunari eta Hazkundeari buruzko Hitzarmenean finkatutako BPGaren % 3ko muga gainditu ez zuten Estatu bakarrak hauek izan ziren: Suedia (% 0), Estonia (% 0,1), Luxenburgo (% 1,7), Finlandia (% 2,5) eta Danimarka (% 2,7). Defizit handienak Irlanda (% 32,4), Grezia (% 10,5), Erresuma Batua (% 10,4), Espainia (% 9,2) eta Portugalen (% 9,1) gertatu ziren. Eurogunearen multzoan, Estatu Kideen defizitaren batez bestekoa BPGaren % 6ren baliokide den mailan kokatu zen.

Ekonomia espainiarrari dagokionez, EINen datuen arabera, ekonomia espainiarrak 2010eko laugarren hiruhilekoan sortutako BPGk % 0,6ko urte arteko hazkundea erregistratu zuen, aurreko hiruhilekorako zenbatetsitakoa baino lau hamarren altuagoa. Horrela, urtearen bigarren erdian, ekonomia espainiarrak urte arteko hazkunde arina ageri du. Hori deigarria da, urteko lehenengo zatiko erregistro negatiboak eta nazioarteko joera ikusita. Hiruhileko arteko kopuruetan, BPG % 0,2 hazi da, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago.

Bestalde, defizit publikoa (Estatuko Administrazio Publikoen multzoarena), Estatuko Kontabilitate modura neurtuta, 98.276 milioi eurokoa da, alegia, BPGaren % 11,1etik % 9,2ra igaro zen 2009. eta 2010. urteen artean. Emtatza horrek hamarren bat hobetzen du % 9,3ko hasierako aurreikuspena. 2010eko helburua bete eta gero, Gobernuak bere defizit aurreikuspena mantentzen du Administrazio Publikoen multzoarentzat eta defizit hori % 6koa da 2011rako, % 4,4koa 2012rako eta % 3koa 2013rako.

2010ean defizitaren helburua bete egin zen, Administrazio Nagusiak kontuak % 5eko defizitarekin itxi izanaren ondorioz, aurreikusitako % 5,9aren azpitikoa. Aldiz, Gizarte Segurantzaren eta autonomia erkidegoen Administrazioak erabakitako bidetik irten ziren. Aldiz, tokiko korporazioek % 0,6ko helburua lortu zuten. Zehazki, Gizarte Segurantzaren Administrazioek, laneko merkatuaren ahultasuneko testuinguru batean, % 0,2ko defizita erregistratu zuten, aurreikusitako % 0,2ko superabitaren aldean. Bestalde, autonomia erkidegoek aurreikusitako % 3,1 baino altuagoa den % 3,4ko defizita eduki zuten, haletako lautan (Katalunia, Balear Uharteak, Murtzia eta Gaztela-Mantxa) desbiderapen altuak eragiten zituzten (% 3,5etik gorakoa) eta beste lautan (Aragoi, Nafarroa, Errioxa eta Valentzia) desbiderapen adierazgarriak edukitzeagatik (% 3 eta 3,5aren artean).

2010. urtea amaitzerako, Administrazioen multzoaren zorra BPGren % 60,1ekoa da. Kopuru hau 2011ko Aurrekontu Orokorretan zenbatetsitakoa baino 3 puntu txikiagoa da, eta esan nahi du Espainiako zor publikoaren mailak euroguneko herrialdeetako batez bestekoaren azpitik kokatzen direla (% 80).

Autonomia erkidegoka datuak xehatuz gero, EINen Eskualdekako Kontabilitatearen arabera, BPGaren aldetik guztiak EBren batez bestekoaren azpitik (% 1,8) hazi baziren ere, zazpik hazkunde positiboa jasan zuen: Asturias (% 0,3), Kantabria (% 0,2), Gaztela eta Leon (% 0,8), Katalunia (% 0,1), Galizia (% 0,1), Nafarroa (% 1,2, hazkunde handiena ageri duen autonomia erkidegoa) eta EAE (% 0,8). Hiruk zero ko hazkundea eduki zuten: Extremadurak, Madrilak eta Ceutak. Gainerakoek,

aldiz, hazkunde negatiboa eduki zuten. Per capita BPG nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 31.314 euroko BPGrekin, batez bestekoa baino % 35,8 gehiago. Haren atzetik datoz Nafarroa, 29.982 euroko per capita BPGrekin, Madril (29.963 euro per capita), Katalunia (27.053 euro biztanleko), Errioxa (25.020), Aragoi (24.886), Balear Uharteak (24.672) eta Kantabria (23.464). Haiek guztiak estatuko batez bestekoaren gainetik daude, 23.063 eurokoa baita.

EUSTATen 2011ko otsaileko Hiruhileko Kontu Ekonomikoen datuen arabera, EAEko ekonomiak urte arteko hazkundea jasan zuen 2010. urtean, kopuru errealetan, hain zuzen ere % 0,3koa. Aurreko urtean % 3,8ko hazkundea izan zen. Horrez gain, BPGa, kopuru korranteetan, 65.847,4 milioi eurora iristen da.

Jarduera ekonomikoaren hobekuntza, nagusiki, kanpoko sektorearen portaeragatik gertatu bada ere, egia da modu berean barne eskaera aurreko urtean baino gutxiago erori dela (% -0,7, aurreko urteko % -5,7aren aldean). Eskariaren osagaien arabera bereizketa eginez, etxeetako kontsumoaren gastua hazi egin da 2010eko bigarren hiruhilekoan, hain zuzen ere tasa negatiboekin sei hiruhileko egin eta gero. Gainera, hazkunde horrek hirugarren eta laugarren hiruhilekoan jarraitu du, pixka bat mantsotzen bada ere. Administrazio Publikoen gastuak, bestalde, ez du azken urteotan hazkunde tasa negatiborik agertu. Aitzitik, bere hazkundearen mantsotzea dezente garrantzitsuagoa da kopuru erlatiboetan, etxebizitzaren kasuan ikusitakoaren aldean. Inbertsioari dagokionez, hazkunde tasa negatiboak erakusten jarraitzen du, baina jarraikako erorketak txikiagoak dira: lehenengo hiruhilekoa aldakuntza tasa negatibo batekin hasten da, % 9,8koa hain zuzen, eta % -3,2koarekin amaitzen da.

Eskaintzari dagokionez, hazkundea industriaren portaera positiboarengatik (BPGren hazkunde: % 0,4) eta zerbitzuarenarengatik (% 0,8) azaldu daiteke, izan ere, lehen sektoreko eta eraikuntzako BEGak behera egin du.

Industri Produkzioaren Indizearen urteko batez besteko aldakuntzak, EUSTATEk 2011ko apirilean argitaratutako datuen arabera, jardueraren hazkundea erakusten du EAEren multzoarentzat, % 2,1ekoa hain zuzen aurreko urteko % 21,8ko erorketaren aldean. Aipatutako hazkundearen jatorria ekipoko ondasunen ekoizpenaren erorketaren mantsotzean (% -23,2tik -2,7ra) nahiz energiarena ere moteltzean (% -7tik -5,2ra) dago, eta baita kontsumoko ondasunen ekoizpenaren nahiz bitarteko ondasunetan (lehenengoaren kasuan % 0,9ko erorketa aurreko aldiko % 14,6ren aldean eta bigarrenaren kasuan % 7,1ekoa aurreko urteko % -26ren aldean) gertatutako hazkundeetan ere. IPren sektoreko azterketatik ondorioztatzen da EAErentzat garrantzitsuen diren hiru industria sektoreak (Metalurgia, Makineria eta ekipoa, eta Garraio materiala) osatu egin direla 2010ean, hurrenez hurren % 6,1, -5 eta 7ko aldakuntza tasak agertuz, 2009. urtean izandako -29,4, -30,2 eta -15,1ekoan aldean.

Inflazioari dagokionez, EAE, 2010. urtean zehar, prezioek hazkunde jarraitua jasan zuten, nagusiki energiako produktuek eta lehengaiek nazioarteko merkatuetan zuten bilakaeraren mendeko. Hori dela eta, BPGaren deflatoarea nahiz KPI aurreko hiruhilekoetakoak baino nabarmen altuagoak diren balioetan kokatu ziren. Kontsumoko prezioak, 2009an eskaintako moderazioaren aldean (% 0,3koa batez beste), % 1,7ko hazkundea eduki zuten batez beste (KPIH-k neurtuta % 16raino igo zen batez

beste), eta horretan eragina eduki zuten elementu nagusiak hauek izan ziren: batetik, petrolio eta lehengaiak garestitu izana eta, bestetik, gobernu espainiarrak zergak irmotzeko hartutako neurri multzoaren barruan kokatu diren tasen gorakadak; azken horien artean azpimarragarri dira BEZen tasa berriak, tabakoaren igoera eta elektrizitatearena.

Inflazioaren aipatutako aurrerapena biziagoa izan zen EAEn eurogunean baino, beraz, diferentziala zabalduz joan zen urtea puntu erdi bat baino gehiagorekin itxi arte. Diferentzial horretan arrazoi ezberdinak ezkutatzan dira, adibidez, araututako prezioak igotzea, zerga tasen igoera eta erregaiek euskal ekonomian eragin handiagoa edukitzea.

EAEko lan merkatuari dagokionez, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, enplegua jaitsi egin da 2009. eta 2010. urteen artean, nahiz eta urtebete lehenago baino gutxiago: % -0,8koa izan da % -3,4ren aldean. Bestalde, lanaren ageriko produktibitatea hobetu egin da aurreko urtekoaren aldean; % 1,1eko hazkundea eduki du, aurreko urtean jasandako % 0,4ko murriztapenaren aldean. Produktibitate errealearen bilakaera hau Europar Batasunaren multzoan erregistratutakoa baino baxuagoa da (bai EB27n, bai eurogunean, izan ere, jarraikako bi ekitaldi emaitza negatiboak edukita, berriro ere balio positiboetara itzuli da % 2,4 eta % 2,3 hurrenez hurren). Aldi berean, estatu espainiarra Europako joeren antzekoa den tasa erreala eskuratu du, % 2,3koa (behin-behineko datuen arabera) hain zuzen. Arrazoiak aurten gertatu den enplegu galera garrantzitsua izan da.

Bestalde, 2010erako behin-behineko datuek adierazten dute gure ekonomian, aurreko urtearen aldean, Unitateko Lan Kostu (ULK) korranteak ez direla horrenbeste hazi (% 0,3, 2009ko % 4,6ren aldean). Murriztapenak izan dira industrian (% -1,8) eta nabarmen areagotu da eraikuntzan (% 8), 2009an erorketa jasan zuen bitartean. Zerbitzuek, bestalde, ULK korranteen hazkundea eduki dute, % 1,5ekoa, aurreko urtean % 6,6ko hazkundea izan zuten bitartean. Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatu dena, areagotu egin ziren 2010. urtean % 0,7 (EB27) eta erori egin dira proportzio berdinean eurogunean (% 0,8 aurreko urtean). ULK errealek aintzat hartuz gero, 2010eko datuak negatiboak dira Batasunaren multzoarentzat (% -1,6) nahiz eurogunearentzat (% -1,1). Bestalde, EUSTATen datuen arabera, eta 2008. eta 2009. urteak alderatzuz gero, ikusi da eduki teknologiko altu eta ertain-altuko sektoreen pisua areagotu egin dela enplegu kopuruaren, BEGaren eta salmenten aldetik. Aitzitik, eduki baxukoak ere areagotu dira.

Hala eta guztiz ere, aintzat hartu behar da hainbat egile sektorekako sailkapena bera ñabartzen hasi direla, ELGak erabilitako intentsitate teknologikoari jarraiki. Izan ere, produkzio jarduera ezberdinek aurrerantz egiten dute, eta ez dira zenbait teknologiatan harrapatuta geratzen. Zientziak eta teknologiak produkzio sare osoan eta industria tradizionalako sektoreetan zehar hedatzen dira, adibidez ibilgailu eta makineriak geroz eta gehiago patentatzen dute elektronikaren sektorean; eta, orokorrean, teknologia baxukotzat sailkatutako sektoreak haien erabiltzaile nagusi bihurtzen dira, zientzian oinarritutako sektore bihurtuz.

Euskadiko EGABek uste du funtsezkoa dela produktibitatearen eta lehiakortasunaren alorrean aurrerantz egitea, garrantzi handiagoa emanez hezkuntza eta prestakuntza, ikerkuntza, ezagutza, berrikuntza,

teknologiaren barreiapena eta transferentzia eta balio erantsi eta kalitate altuko ondasun eta zerbitzuen ekoizpena bezalako alderdiei. Horiek garatzeko beharrezkoa da konpromiso irmoa hartzea, baina ez bakarrik enpresa sarearen konpromiso irmoa, baizik eta, baita ere, eta, batez ere, Gobernuarena eta ingurune zientifiko eta teknologikoarena, Hezkuntzaren eta I+G+b eta IKT Jardueren epigrafeetan adierazi izan dugun moduan.

2.6. Sektore publikoa

EAEko sektore publikoko jarduerari dagokionez, lehenik eta behin azpimarratzekoa da diru-sarrera publikoak osatu egin direla, 2008an % 2,3ko erorketa eduki eta 2009an aldaketarik gabe iraun eta gero. 2010ean, % 7,2ko saldo positiboa eduki du. Arrazoiak zuzeneko zergen erorketa (% -2,5) eta transferentzia korranteena (% -3,1) zeharkako zergen bilketaren hazkundearekin neurri batean orekatu izana da (% 6,4). Horrek eragin egiten du finantzakoak ez diren diru-sarrerak % 3,3 areagotzea. Gainera, horri diru-sarrera finantzarioen % 34,5eko hazkundea erantsi behar zaio, batez ere 2.387 milioi euroko zorra jaulki izanaren ondotik (% 35,2, 2009aren aldean). Emaitza modura, EAEko sektore publikoko diru-sarreraren multzoa (15.474 milioi euro) puntu bat baino pixka bat gehiago hazi da BPGaren aldean. Horrela, 2009ko % 22,35etik % 23,50era igaro da, behin-behineko datuen arabera.

Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa murriztu egiten da, bestalde, % 3,3 (2009an % 4,4 izan da), batez ere Gobernuan gastuari eutsi izanagatik (% 0,2) eta neurri txikiagoan baita foru aldundietan eutsi izanagatik ere (% 3,6). Horrela, gastuak BPGan hartzen duen portzentajea 1,26 puntu gehitu da, eta % 23,15eko portzentajea kokatzen da.

Euskal Jaurilaritzaren gastua oinarri hartuta, eskura dauden azkeneko datuak 2010eko aurrekontuenak dira. Horiek % 0,1 eskas baten hazkundea erakusten dute 2009ko ekitaldiko aurrekontu likidazioari dagokionez. Sail guztietan gastuari eustea izan da nagusi. Hala eta guztiz ere, 2009ko erdi aldera legegintzaldia aldatzetik etorritako gastuaren berrantolamenduak zaildu egiten du zenbait ataletan egindako gastuaren kopuru handien bilakaera jarraitzea. Bi sail nagusiak, gastu bolumenari jarraiki, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila (kopuru osoaren % 26,7) eta Osasun Saila (% 34,2) dira oraindik. Lehenengoa % 2,6 erori da, bigarrenak % 0,6ko hazkundea eduki duen bitartean 2009ko kopuruaren aldean. 2010erako aurrekontuetan sartu den gastu osoa 10.315 milioi eurokoa izan da, hain zuzen ere aurten gure Erkidegoak edukitako BPGaren % 15,7koa, behin-behineko datuen arabera.

Euskal Sektore Publikoko diru-sarrera korranteak % 2,5 hazi dira 2010. urtean; aldiz, izaera berdineko gastuak % 2,8 murriztu dira. Ondorioz, aurrezpen gordinaren hazkundea gertatu da 338,1 milioi balio positibo bateraino, eta hori 2009an negatiboa bazen ere 338,6 milioi euroko kopuruan. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGren % 0,51 hartzen du (behin-behineko datuak).

Gainera, defizit publikoa erregistratu da (finantzazio beharra), 1.751 milioi euro baino gehiagokoa (BPGren % 2,66), izan ere, finantzarioak ez diren gastuek (korranteak gehi kapitalekoak) izaera berdineko sarrerak dituztenak gainditzen dituzte. Aurreko ekitaldian, defizita 2.554 milioi eurokoa izan zen, beraz, % 31,5eko murriztapena egon da. Aldagai finantzarioa sartuta, eta funtsean zorpetzeari

esker, 2010eko defizit publikoa aurrekontuko superabit bihurtu da (229 milioi euro, BPGaren % 0,35), nahiz eta aurreko ekitaldian 1.300 milioi eurotik gorako balioa duen saldo negatiboa eduki.

Datu hauetatik neurri bateko kezka ondorioztatzen da finantza publikoen aldetik aurrean, 2009an jasaten ari garen testuinguru konplexuaren ondorioz erorketa izan ondoren. Horrek esan nahi du baliabide eskasia dagoela eta horien destinoa arrazoiz antolatu behar dela ahal den heinean. Testuinguru honetan, azpimarratu egin behar dugu beharrezkoa dela funtzionamenduko gastuak bezalako partidetan gastuari eusteko esfortzua egitea; aldiz, herritarren ongizatean eragin zuzena duten horiek, adibidez inbertsio errealek eta transferentzia korranteak (lehenengoak batez bestekoaren azpitik erortzen dira (% -1), baina bigarrenak gainetik geratzen dira % 6), gure Erkidegoko bizi kalitatea mantentzeko funtsezko tresna diren heinean, ez dituzte egungo aurrekontu egoeraren eraginak jaso behar.

2.7. Lan merkatua

Hamabost urtez enplegua sortu ondoren, 2009an EAEko lan merkatuak jaitsiera nabarmena pairatu zuen okupazio zenbakiei dagokionez. Ekonomiak pairatzen dituen zailtasunak enpleguaren arloa iritsi ziren eta enplegu hori 2006ko mailetara itzuli zen. 2010ean baieztatu egin daiteke okupazioaren jaitsieraren erritmoa moteldu egin dela; gertaera horretan bat datoz, intentsitate desberdinekin, estatistikako iturriak.

Nahiz eta enpleguaren jaitsiera % 0,8koa izan Kontu Ekonomikoen arabera, eta % 1koa Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera, okupazioa % 0,3 murriztu da urteko batezbestekoan BJAk adierazi duenaren arabera; datu horrekin esan behar da urtero batezbeste 2.600 lanpostu galde direla (-35.600 2009 urtean). INEk egiten duen Biztanleria Aktiboaren Inkestak, ordea, adierazten du enpleguak % 0,7 irabazi duela batezbeste. Hau guztia gorabehera, lau estatistikak bat datoz adierazten dutenean urtearen bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan oro har enpleguak hobekuntza izan zuela eta, ordea, laugarrenean lan merkatuak berriz ere txarrera egin zuela. Aldi berean, biztanleria aktiboaren tasaren hazkuntzarekin batera zertxobait baxuagoa den langabezia tasa gertatu da (urteko batezbestekoan % 9,2koa dena, laugarren hiruhilekoan % 10eraino iritsiz).

Azken hiru urteetan EAEko 2007 urtearen amaieran zuen enpleguaren % 3,2 galdu du eta hori Europar Batasunean (% 1,2) eta euroaren aldean (% 1,9) gertatu den enplegu galera baino askoz gehiago da. Estatu europarren artean enpleguaren jaitsierarik gordinenak izan dituzten herriak Baltikokoak, Irlanda eta Espainia izan dira, % 10 inguruko eta baita horik gorako beherakadekin. Krisiak dituen hiru urteetan gizonezkoen enplegua % 8,5 jaitsi da; ordea, emakumeen kasuan mantendu egin da eta horren ondorioz emakumeek EAEko enplegu osoari dagokionez duten pisua gero eta handiagoa da: 2010 urtearen amaieran pisu hori % 44,8koa zen, krisiaren aurretik % 42,7koa eta duela hamarkada bat % 36,6koa. Halaber, 2007tik aurrera gazteenen enplegua 19.200 okupatutan jaitsi da, 25 eta 44 urte dituzten pertsonen artean 50.600 pertsonatan jaitsi da, eta 44 urtetik gorako pertsonen kasuan hazkuntza 21.900 enplegukoak izan da. Azken finean, gizonezko gazteak dira gaur egungo krisiaren eraginak gordinen pairatzen dituztenak.

Enpleguaren iraupenari dagokionez krisiaren hasieran eraginak gehien igarri zituen aldi baterako enplegua izan bazen ere (lehen urte erdian aldi baterako lau enplegutik bat desagertu egin zen) une jakin honetan kalteak gehien pairatzen ari dena mugarik gabeko enplegua dugu. Krisiaren unerik larrienaren ostean sortu den enplegua aldi baterako enplegua izan da; ordea, mugarik gabekoa da, artean, gehien jaisten ari dena. Une honetan aldi baterako enplegua krisiaren hasieran zuen egoeraren oso antzekoan dago eta, ordea, mugarik gabekoak % 5,7 egin du atzera. Enpleguaren jaitsieraren eta biztanleria aktiboaren gehikuntzaren ondorioz langabezia hazi egin da 2010ean, nahiz eta hazkuntza hori ez heldu 2009kora. BJAren langabezia-tasa urte amaieran % 10era iritsi da eta lau hiruhileketako batezbestekoa % 9,2ra, eta datu horien modukoak aurkitzeko 2001 urtearen hasierara jo behar da. Datuok erkidegoaren barruko batezbestekotik hurbil mantentzen dira (% 9,6 EB-27an eta % 10,1 euroaren aldean). European, langabeziak hartzen dituen baloreen aukera zabala da oso eta, adibidez, Espainian gertatzen den % 20tik gorako baloreak daude, edo Baltikoko estatuetan dauden % 16 eta % 18 artekoak, baina baita % 5 eta hortik beherako ratioak ere, barbarako Austria, Holanda edo Luxenburgoren daudenak. USAn langabezia tasa euroaren aldekoaren baliokidea da; Frantzia eta Polonian Europako batezbestekoaren ingurukoa dute eta, adibidez, Alemania, hiri puntu behetik dago, adibide batzuk aipatzearren.

2010 urtean hirugarrenez jarraian hazi egin gure Erkidegoan langabezian dauden pertsonen kopurua. Inguruabar horrek adinen lerrun guztietan du eragina baina batez ere biztanleria gazteenaren artean eragin du eta lerrun horren barruan langabezia tasa batezbeste % 25 ingurukoa da, baina urtearen azken lauhilekoan % 28ra iritsi zen. European gazteen arteko langabezia tasak apur bategatik gaintitzen du % 20a Batasun osoa aintzat hartzen bada; balore horiek % 30etik gorakoak dira Baltikoko herrietan edo Eslovakian, eta % 40tik gorakoa Espainian. Beste muturrean daude Holanda eta Austria, hurrenez hurren % 8,7-%8,8ko ratioekin.

Langabezia gehien hazi den lerruna 44 urtetik gorakoetan da, hala termino absolutuetan (+7.300) nola erlatiboetan (% +39,7). Horrek esan nahi du urteko batezbestekoa EAEko langabetuen artean % 26,8a 44 urtetik gorako tarte horretarako dela, urte bat arinago ratio hori % 21,9koa zenaren. Ardurata ikusten dugu talde bakarra delako langabetuen zenbateko absolutuan 93ko krisian izan zuen tasa baino altuagoa duena.

Azterketa sektoreka egiten bada langabetuen % 58,2 zerbitzuen sektorekoa da, eta horretan langabezia % 18,2 hazi da (2009an hazkuntza hori % 108koa izan zen). Halaber, eraikuntzan langabezia % 23,3 hazi da (batezbestekoa % 13,9tik gora) eta, aldi berean, industrian langabetuen zenbakiak % 3,3 egin du behera (kopuru garbietan, 700 pertsona). Beste alde batetik, lehen enpleguaren bila dauden pertsonen taldean hazkuntza 500 pertsonakoa izan da, eta urteko batezbestekoa zenbatesterakoan esan behar da 4.500 direla.

Illo beretik, lehen mailako hezkuntza duten langabetuak guztira 8.900 dira eta multzo horren barruan hazkuntza % 30,9koa da, eta horiek pairatzen duten langabezia-tasa % 8,7koa da. Ikasketa ertainak dituzten pertsonak, beste alde batetik, 67.200 dira (zenbateko osoaren % 70) eta %

11,3 handitu da, harik-eta batezbestekoa baino altuagoa den langabezia-tasara iritsi arte: % 11,4. Azkenik, goi mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, nahiz eta batezbestekoa gainditu (% 17,2), langabezia-tasa baxuena dute, hau da, % 5,6koa.

Laneko osasunari dagokionez OSALANek eman dituen datuen arabera 2010 urtean laneko 39.153 istripu gertatu ziren, hau da, 2009 urtean baino % 2,8 gutxiago (aintzat hartzen direnak istripuaren edo ezbeharraren ostean baja jaso dutenak dira eta horien barruan sartzen dira lansaioan eta *"in itinere"* gertatzen diren ezbeharrak eta gaixotasun profesionalak). Ordea, estatuan jaitsiera % 9,9koa izan da Lan eta Inmigrazio Ministerioaren datuen arabera. Adierazi dugun jaitsiera hori gure Erkidegoan 2009an aurreko urtearekin erkatuta gertatu zen jaitsiera handiari batu behar zaio (% -20,5), estatuan oraindik ere handiagoa dena (% -23,8).

Ezbeharra lansaioan izan duten pertsonak aztertzen baditugu azken urtean behera egin dute larritasun gutxieneko modalitateetan: ezbehar arinen % 3,1 eta % 3,4 larriak; ordea, istripu mortalak handitu egin dira, % 2,9. Baldin eta zenbateko horiek eta sektore bakoitzeko enpleguaren bolumena erkatzen baditugu eboluzioa antzekoa da: istripuen indizea 35,9koa da mila okupatuko (37 milako 2009an eta horrek esan nahi du % 2,8 jaitsi dela) eta jaitsierarik handiena nekazaritzan (% -5) eta industrian gertatu da, azken horretan eragina % 4 jaitsi delarik, eta sektorean 55,4 istripu egon dira mila okupatuko. Dena dela, istripu-tasen ratiorik handienak eraikuntzan ematen dira (milako 79,6) eta baita nekazaritzan ere (milako 76,7). Beste alde batetik kontratu motak kontuan hartuta istripu edo ezbeharren datuak aztertzen baditugu ikus daiteke istripu-tasa aldi baterako kontratua duten pertsonen kasuan kontratu mugagabea duten pertsonen halako bikoia dela. Hori agertzen da jasota 2009 urteari buruzko Lan eta Inmigrazio Ministerioaren azken datuetan. Zehatzago esanda, mugagabea kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea % 35,1 izan zen eta, ordea, aldi baterako kontratua duten pertsonen gaineko eragina % 76,3 izan zen. Dena dela, nahitaezkoa da jakitea istripu eta ezbehar horiek sektore, adin eta okupazio moten arabera izan duten banaketa behin betiko ondorioak ateratzen ahal izateko. Egoera horri dagokionez guk bat egiten dugu Europar Batasunak bere "Europa 2020" estrategian erakutsi duen ardurarekin, hau da, krisiari dagokionez zaurgarritasun handiaren duten taldeen lan egoerari buruzkoan (besteak beste, gaitasun gutxiko langileak, adinekoak, emakumeak, gazteak) eta hori horrela da arriskua dagoelako lan merkatutik urrun edo lan merkatu horrekiko erlazio ahulak dituzten pertsonen erlazio eta aukera horik behin betiko galtzeko. Hori gertatu ez dadin merkatuak eskatzen dituen gaitasun eta prestakuntzak eskuratzeko edo hobetzeko erremintak erraztu eta bideratu behar zaizkie.

Estrategia 2020 deritzonak berariazko garrantzia ematen dio enpleguaren sorkuntzari eta, beraz, bere ustez nahitaezko baldintza da ongizatearen eredu europarra artatzeko eta, aldi berean, garrantzitsua da azpimarratzea krisi ekonomikoaren ondorioz Europako ekonomia guztiak euren enplegu-helburuetatik gero eta urrunago daudela.

EAEn erakunde askotan (tokikoak, autonomikoak, estatukoak eta Europakoak) eta baita eragile askotan ere (SPEE, Eusko Jauriaritza, Foru Aldundiak, elkarteak eta irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuak, enpresa antolakuntzak eta sindikatuak, prestakuntza zentroak,

eskualdeetako agentziak...) era askotako egitarauak ari dira garatzen, hala prestakuntzaren arlokoak nola enplegua sustatzekoak. Argi ikusten da, beraz, enpleguaren arloko politika aktiboei ematen zaien garrantzia eta berehala igartzen da politika horri lan merkatu iristeko eta, ondorioz, gizartearen ongizatea lortzeko, elementu gako moduan ematen zaien garrantzia.

Erakunde eta eragile askoren esku hartzeari esker aukera dago era askotako jarduketak egiteko eta antolatzeke eta helburu guztiei era askotan ekiteko. Hori gorabehera, horrek guztiak nahitaez eskatzen du koordinazio beharrezan handiagoa, hau da, jarduketa guztien eta erakunde guztien mailen artekoa, zertarako eta bikoiztasunak ekiditeko eta eragingarritasuna bermatzeko.

Hori guztia berariaz da egia gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaren egoeran, hain zuzen ere nabarmenak direlako lan merkatuan egon dauden arazoak eta zailtasun bereziak, eta horregatik guztiagatik, nahitaezkoa da erakunde publikoek eta pribatuek egiten duten ahalegin hori finkatzea eta, hori ez ezik, baita areagotzea ere. Halaber, nahitaezkoa da esparru horretarako diren bitartekoak eta baliabideak koordinatzea, gero eta zentzuzkoagoa eta eragingarriagoa izango den erabilera bideratuz.

Illo horretatik aipatu egin behar da, izan ere, azken urte hauetan eta krisiaren eraginez areagotu egin dela eragile askoren esku hartzea, hau da, langileen artean hazi egin delako lanaren eta laneratzearen arloko orientazio ekintzen eskaria, batez ere langabetuen artean. Zehatzago esanda, 2009 eta 2010ean handiagoa izan da oro har enpleguaren arloko zerbitzu administratiboek eskaintzen duten arrera eta jaramona baino azkarragoa eta malguagoa eskatzen duten erabiltzaileen garrantzia.

2.8. Zenbait kolektibo zaurgarriren bizi baldintzak

Hasteko, Europar ezgaitasunak dauzkaten pertsonen egoera ikusirik, azpimarratzekoa da Batzordeak, "Europako Estrategia 2010-2020 Ezgaitasunari buruz" estrategian behin eta berriz errepikatzen duela funtsezkoa dela kolektibo honek bizitza ekonomikoan eta sozialean osoki parte hartzea, eta *Europako Estrategia 2020k* arrakasta izateko beharrezko baldintza dela adierazten du, hazkunde adimentsua, iraunkorra eta barne-hartzailea sortu ahal izateko.

Hala ere, onartzen du esparru politikoak eta arauak sarritan ez dituztela ezgaitasunak dauzkaten pertsonen beharrik behar bezala islatzen, eta produktu eta zerbitzu asko, eta eraikitako inguruaren zati handi bat, ez direla behar bezain irisgarriak adierazten du. Lanak kolektibo hau gizarteratzeko eta haien parte-hartze soziala normalizatzeko duen garrantzia azpimarratzeaz gain, Batzordeak jardura-esparru batzuk zerrendatzen ditu, eta horietako bi gailendu nahi ditugu: irisgarritasuna eta diskriminazioa.

2006an Eurobarometroak adierazten zuen herritarren % 91k uste duela gehiago inbertitu beharko litzatekeela ezgaitasunak dauzkaten pertsonen oztopo fisikoak kentzeko. Arazo horri dagokionez, azpimarratzekoak dira Memoria honetan aipatu diren datu batzuk:

- EInen *"Mendetasunaren, Autonomia Pertsonalaren eta Mendetasun-egoeren Inkestak"* (EDAD) adierazten du etxebizitzetako irisgarritasun-arazoei eragin handiagoa dutela ezgaitasunak dauzkaten pertsonen artean: etxebizitza igogailudun gutxiago, etxebizitza irisgarri

gutxiago eta irisgarritasun-arazo gehiago inguruetan. Ezgaitasunak dauzkaten pertsonak dauzkaten etxean % 38k ez dauka igogailurik, % 56k uste du etxebizitzaraino doan bidea ez dela irisgarria eta % 64k uste du beraren etxebizitza ere ez dela irisgarria.

- Gainera, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen % 42,5ek dio zailtasunak dauzkala kaletik doanean, eta, gehienetan, espaloitik jaitsi edo igotzeko dituzte arazoak (% 32,6). Zailtasun horiek handiagoak dira zenbat eta zaharragoa izan, eta 80 urtetik gorako pertsona ezgaituen erdia baino gehiagorengan dute eragina. Espaloien inguruko arazoez gain, honako hauek dituzte, garrantzi-ordenan: oztopoak gainditzea (% 28,5), kalea zeharkatzea (% 27,2) eta kaleak, bidegurutzeak eta seinaleak identifikatzea (ezgaitasunak dauzkaten pertsonen % 17,5).
- Azpimarratzekoak dira, halaber, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen garraio publikoarekin lotuta dituzten arazoak, horrek beren autonomia eta bizi-kalitatea serioki mugatzen ditu eta: % 51,6k dio garraio publikoarekin arazoak dauzkala (eta % 68,2k, 80 urtetik gorako pertsonen kasuan). Zailtasun nagusiak ibilgailuetatik jaitsi eta igotzea (% 37,5) eta geltoki, gero eta nasetara iristea dira (% 26,8, eta 80 urtetik gorakoek artean, % 47,2ra iristen da).

Gainera, oztopoak ez direla fisikoak soilik adierazi behar dugu. Izan ere, kolektibo honek irisgarritasuna zailagotzen dioten askotariko oztopoei egin behar die aurre, irisgarritasuna gizartean eta ekonomian esku hartzeko alde aurretiko baldintza gisa ulertuz. Beraz, "irisgarritasuna" da ezgaitasunak dauzkaten pertsonen gainerako herritarren baldintza beretan erabili ahal izatea inguru fisikoa, garraio publikoak, teknologiak eta IKTak, eta orotariko instalazio eta zerbitzuak.

Bigarrenik, ezgaitasunak dauzkaten pertsonen diskriminazioari dagokionez, EINEk dioenez, % 7,4k dio batzuetan diskriminatuta sentitzen dela bere egoeratik, eta % 2,6k dio askotan sentitzen duela. 6 eta 64 urte bitarteko taldearen kasuan, berriz, bi kategorien batuketan pertsona horien % 19,3ra iristen da. Gainera, gure ustez, egoera horiek eragina dute kolektibo horrek harreman sozialak izatearekin lotuta dauzkan arazoetan: kolektiboaren hiru laurdenek adiskide berriak egiteko aukera gutxi dauka, edo batere ez, eta hirutik biri gauza bera gertatzen zaie ezagutzen ez dituzten pertsonengana jotzearekin lotuta.

Zentzu horretan, 2009ko Eurobarometro baten arabera, europarren erdiak baino gehiagok uste du Europar Batasunean ezgaitasunaren edo adinaren ondoriozko diskriminazioa oso zabaldua dagoela. Gai horri dagokionez, Batzordeak dio beharrezkoa dela arreta berezia eskaintzea ezgaitasunak dauzkaten pertsonen jasan lezaketan diskriminazioaren pilaketa-eraginari beste diskriminazio-arrazoi batzuk pairatzen dituztenean (nazionalitatea, adina, sexua, orientazio sexuala, etab.), eta gu ere bat gatoz kezka horrekin.

Bukatzeko, EUROSTATEk adierazi du Europar Batasunean 300 milioi pertsona dagoela lan egiteko adinean eta horietako 50 milioi duela ezgaitasunaren bat. Pertsona

horietako asko lan egiteko gai dira guztiz. Baina, hala eta guztiz ere, jarduerarik gabe dauden tasa biztanleria osoaren⁵ tasaren bikoitza ere izatera iristen da 2003an ezgaitasunak dauzkaten europarren % 78k ez zuen inolako lan-jarduerarik gauzatzen; epe luzerako osasun-arazorik edo ezgaitasunik gabeko biztanleriaren artean, berriz, tasa hori % 27koa zen.

Gure ustez, gizabanakoaren sozializazioarekin lotura handiena daukan esparrua lana denez, kolektibo horren egoera are okerragoa da pertsona horien jardueraren tasak txikiak direlako. Lanpostu bat lortzen dutenean, batetik, autonomia pertsonala eskuratzea eta laguntza sozialen zirkuitutik irtetea lortzen dute, eta bestetik, sozializazio-prozesuan parte hartzen dute, harreman pertsonalak dituzte eta trebetasunak eta gaitasunak bereganatzen dituzte⁶.

2.9. Osasuna eta osasun sistema

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu zera aipatzea: hainbat estatistika iturrik (EUSTAT esaterako) jaiotzeko bizi itxaropenak gorako joera duela eta emakumeena gizonezkoena baino altuagoa dela adierazi arren, EUROSTATEn datuen arabera, adierazle hori osasun onari dagokionez aztertuz gero, emakumeak gizonak baino urte gutxiagoz bizi dira osasun onean.

Halaber, heriotzen arrazoen inguruan indartzen ari den aldaketa nabarmena iruditzen zaigu. Berez, EUSTATEn datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira (% 30,3 2009an) eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren (% 29,4). 2007. urtea baino lehenagoko urteetan zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zuten heriotza gehien.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2008an emakumezkoen hilkortasun goiztiarrerako arrazoi nagusiak, ordenaren arabera, honakoak izan ziren: bularreko tumore gaiztoak; trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak, eta ondoren garuneko hodien gaixotasunak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, zirkulazioa eta gibelaren gaixotasun kronikoak, eta koloneko tumore gaiztoa. Gizonezkoen dagokienez: trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, ibilgailu motorduneko trafikoko istripuak, zirkulazioa eta gibelaren gaitz kronikoak, garuneko hodien gaitzak, eta istripuzko erorikoak izan ziren.

Baliabideen eta laguntzeko jardueraren alorretan atseginez egiaztatu dugu hau: 100.000 biztanleko mediku eta psikiatra kopurua Europako beste herrialde batzuetako kopuruak baino handiagoa da, 100.000 biztanleko haginlari kopurua handituz doa eta 100.000 biztanleko erizain eta emagin kopuruak etengabe egin du gora. Hala ere, adierazi nahi dugu azken bi kasuetan oraindik ere ahalegina egin behar dela, alor horretan herrialde erreferenteak direnek (Danimarka, Alemania, Frantzia, Herbehereak eta baita Ekialdeko herrialde batzuk ere) lortutako balioetatik urrun gaudelako oraindik.

EUSTATEk emandako datuetan modu positiboan baloratu dugu honako hau: ospitalez kanpoko jardueraren publikoan mediku kopurua handitzeak mediku bakoitzeko biztanle kopurua murriztea eragin du, bai medikuntza orokorrean

⁵ EB (2008): "Europe's policy response to the issue of disability". SOCIAL AGENDA aldizkaria, 2008ko abendua.

⁶ CIDEK (2009).

(mediku bakoitzeko 1.397 biztanletik 1.263 biztanlera pasa da) zein pediatrian (844tik 805era). Ospitaleko jardueran ere 100 oheko mediku kopurua hazi izana ere positiboa da. Hala eta guztiz ere, bi sareen arteko aldeak ere agertu nahi ditugu: sare publikoan 100 oheko 52,8 mediku daude eta pribatuan 24,2 mediku; sare publikoan 100 oheko 88,3 erizain daude eta sare pribatuan 41,8 erizain.

Horrez gain, ospitalez kanpoko jarduera publikoan biztanle bakoitzeko hartutako kontsulta kopuruak apur bat gora egin izana azpimarratu nahi dugu; kontsulta kopurua 6,7 izan da batez beste.

Kanpoko kontsultetarako itxaron zerrenden eta atzerapen denboraren kasuan antzeman dugu, Osakidetza datuen arabera, 2009an hazi egin dela, aurreko urteko beherakadaren ondoren, itxaron zerrendan dauden pazienteen kopurua (72.507tik 95.558ra). Urte batean hazteko joera izan du eta hurrengoan murriztekoa. Zerrendetan itxaroten ari diren paziente kopuru gehien duten espezialitateak hauek dira: ginekologia (guztien artean % 13,1 eta % 105,7ko hazkundea izan du), dermatologia (% 12,3 eta % 47,14ko hazkundea) eta oftalmologia (% 11,7 eta % 3,13ko hazkundea).

2008. eta 2009. urteen arteko atzerapen denborari dagokionez, hilabete baino gutxiago itxaroten duten biztanleen portzentajeak behera egin izana (% 80,1etik % 60,47ra) eta hilabete itxaroten dutenen kopuruak gora egin izana (% 19,9tik % 39,52ra) arduratzekoa da.

2.10. Hirigintza eta etxebizitza

EAEko higiezin merkatuak 2010ean izan zuen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintza Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak % 4,9ko batez besteko gehikuntza izan duela (% 3 izan zen 2008-2009an). Bilakaera ezberdinak izan dira etxebizitza berri salgaietan (% -19,3), erabilitakoetan (% 29,4), alokairurako etxebizitza libreetan (% 21,4), babestutako etxebizitza salgaietan (% -28,7) eta alokairurako etxebizitza babestuetan (% -43,1). Horren aurrean, eskaera guztia, *“Etxebizitza behar eta eskariari buruzko inkestari”* buruz eskura dagoen azkeneko datuaren arabera, % 10,2 murriztu zen, 2007an % 10,7 erori izan zenean jada. Aldi berean, Etxebiden izena emanda dagoen etxebizitza babestuen eskatzaile kopurua % 3 areagotu da azken urtean.

Egunoa bezalako krisi ekonomikoko eta krisi finantzarioko agertoki batean, eraikuntza sektorean eragin berezia duena bere jarduera nabarmen murriztu baita, etxebizitzaren politika publikoak garrantzi berezia du. Aitzitik, eta administrazioek aurre egin beharreko aurrekontu murriztapenen testuinguruan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan gauzatu den gastua, azken urteetan nabarmen hazi izandakoa, % 4,6 murriztu zen 2010. urtean. Gauzak horrela, 197,9 milioi euroko zenbatekora iritsi da. 2010ean programa honen baitan egindako inbertsioen bolumena ere erori egin da, guztira 150 milioi euro zenbatuz (2009ko kopuruaren aldean % -7,9). Edonola ere, programa honen inbertsio izaera

mantendu egiten da, gauzatu diren inbertsioak gastuen % 75,8 baitira (% 88,1 batez beste 1987-2010 aldirako).

Sailak 2010ean gauzatutakoari dagokionez, eraikuntzak gora egin du: zehazki, 4.966 etxebizitza hasi da, 2009an baino % 55,4 gehiago. Arrazoiak BOEek jasandako hazkundea (% 27,8) eta gizarte etxebizitzena (% 829,7; 846 unitate hasi da, aurreko urtean hasitako 91en aldean) izan da. Babestutako etxebizitzaren figura berriei dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuen arabera, 2010ean ez zen zuzkidura erako alojamenduen eraikuntzarik hasi eta tasatutako 364 etxebizitza hasi ziren, horietako gehienak udalekoak. Bestalde, sailak eraikitzeke lurzorua eskuratzeko egin dituen jarduketak % 58 murriztu dira: 1.248 etxebizitza berri eraikitzeke lurzorua eskuratu da (2009an baino 1.723 gutxiago).

Eskaera eta eskaintza pizteko mailegu eta diru-laguntza gisa ematen diren laguntzei dagokionez, 2010ean guztira % 42,3ko erorketa antzematen da, batez ere diru-laguntzetarako erabiltzen diren fondoak murriztu direlako (% -43,8) eta, neurri txikiagoan, maileguak ere murriztu direlako (% 7,8 erori dira). Guztira, emandako 308 milioi euroak honela banatu dira: 287 milioi maileguetarako (% 93) eta 21 milioi diru-laguntzetarako (gainerako % 7).

2.11. Pobrezia eta gizarte bazterketa

2009. urtean, Europar Batasunean 81 milioi herritar baino gehiago, alegia, guztizkoaren % 16,3, pobrezia-arriskuan zegoen eta % 8,4k lana izan arren egoera hori pairatu zuen. Horrez gain, gai honen inguruko Eurobarometroaren arabera, europarren % 84k uste du pobrezia ugaritu egin dela azken hiru urteetan bere herrialdean eta erdietan baino gehiagotan “modu nabarmenean” jazo dela.

Egoera horren aurrean, Europako erakundeek “Pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako Europako Urtea” izendatu zuten 2010. urtea, gertaeraz ohartarazteko eta konponbideak biltzeko ahaleginak bateratzeko xedeaz. Urtea amaitutakoan, EBko Kontseilua⁷ pozik azaldu da, zeren eta ekimenari esker maiz gutxietsitako edo gaizki ulertutako errealitatea argitzeko balio izan baitu munduko eskualderik aberatsenetako batean, baita maila guztietako erakundeak eta gizarte eragile guztiak mobilizatzeko ere. Emandako bultzada dela-eta, lehen aldiz ezarri da partekaturiko helburu bat, Estatukideen eta Batasunaren jarduketa bideratuko duena gizarte bazterkeriaren eta pobreziaren kontrako borrokaren arloan: 2020 baino lehen gutxienez 20 milioi europar pobreziaren eta gizarte bazterketaren arriskutik urruntzeko helburua “Europa 2020” Estrategian sartzea (pobreziaren eta gizarte bazterketan dauden 113 milioi europarretatik 20 milioi)⁸.

Egoera horri dagokionez, bat egiten dugu Europako erakundeek datoen urteetarako aipaturiko erronkekin. Beraz, lehenik eta behin uste dugu pobrezia arlo anitzeko arazoa dela, eta pobreziaren kontra borroka egiteko, politika, tresna eta erakunde guztiak mugiarazi behar dira eta gizarteratze aktiboa oinarritzeko estrategia da bide horretan. Halaber, Batzorde hau bat dator esatean haurren pobreziaren kontrako borroka lehen mailako lehentasuna dela, zeren eta

⁷ Europar Batasunaren Kontseiluaren Adierazpena, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Urte Europarrari buruz. “Elkarrekin lan egin pobreziaren aurka borrokatzeko 2010ean eta ondoren” (2010C/ 333/06).

⁸ “Europa 2020 Estrategiaren” eraginetarako, pertsona bat pobreziako eta gizarte bazterkeriako arriskuan dagoela uste da langabezia arazoak dituen familia unitate batekoa denean, gizarte transferentziak eta gero pobrezia arriskuan dagoenean edo estatusun material zorrotzak jasaten dituztenean (ikusi kapitulu honetako 5.2. kapitulua).

pobrezian jaiotako haurrek are arrisku handiagoa baitute pobrezian bizitzeko bizitza osoan.

Bestalde, gure azken memorietan adierazi izan dugunez, gure Erkidegoko PGDI 2008ko datuak irakurrita (jaitsiera nabarmena erakusten dute azken urteetan pobrezia eta ongizaterik ezaren mailetan, dimentsio guztietan), hainbat galdera sortzen dira egungo egoeran, esaterako: inkesta horretako datuak zein neurritan datozen bat gizarte erakundeek arazo horien bilakaerari buruz duten irudipenarekin eta gizarte prestazioen eskarian gertatzen ari den igoerarekin. EINEn Bizi baldintzen Inkestako hainbat adierazlek, 2009an, jaitsiera erakusten dute gure Erkidegoko biztanleen ongizate mailan. Hala, esate baterako, hilaren azkenetara iristeko zailtasunak dituzten pertsonen ehunekoa % 43,3koa da (% 1,7 gehiago 2008ko datuekin alderatuta), urtean gutxienez astebetez oporretan ezin joan daitezkeen etxeen ehunekoa % 20,6koa da (% 0,6 gehiago) eta % 20,5ek ezin die egin aurre ezusteko gastuei (2008an baino % 4,7 gehiago).

Egoera hori ikusita, kezka azaldu behar dugu: jasaten ari garen krisian zein neurritaraino jarraitu ahal izango ote duen azken urteetan ongizatearen bidean eginiko aurrerapenak. Zehazkiago, funtsekoa da planteatzea langabeziaren kontrako sistemak eta errentak bermatzeko edo gizarteratzeko sistemak zein neurritan bereganatu ahal izango duten krisialdiaren eragina euskal gizarteak lorturiko ongizate mailetan atzerakada nabarmenik egin gabe. Bestela esanda, izandako aurrerapenak gorabehera, pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borroka indartu behar dela deritzogu.

2.12. Gizarte babesa

Lehenengo eta behin kontuan hartu behar da EAEen Gizarte Zerbitzuen arloko gastua 2008an (informazioa eskura dagoen azken urtea) 1.861 milioi euro izan zela, aurreko urtekoa baino % 15 gehiago, EUSTATEN "Gizarte Zerbitzuetako eta Gizarte Ekintzako Estatistikak" azterlanaren arabera. Gastu hori urte horretako gure Erkidegoko BPGren % 2,7 zen, eta biztanle bakoitzeko batezbesteko gastua 860 €-koa izan zen, hots, 2007an baino % 13,9 gehiago. Herri administrazioen ahalegina 1.347 milioi eurokoa izan zen, zenbateko osoaren % 72; ordea, sektore pribatuak gainerako % 28aren ekarpena egin zuen. Gastatu ziren lau eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta beste salmenta batzuen bidez finantzatu zen. Ildo horretatik, bada, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluak (GZEK)⁹ egin duen "EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko lehen txostena" delakoak azpimarratu egiten du arreta eta jaramonaren estaldurak artean hazten jarraitzen dutela baina, ordea, adineko pertsonen eta ezgaitasunak dituzten pertsonen egoitzarako plazei dagokionez geldialdia gertatu dela. Guztira 2008an (urte horretakoak dira eskura dauden azken datuak) sistemak arreta eta jaramona eman zien 131.864 pertsonari, zenbateko horretan prestazioak eta egon dauden arreta plazak batuta; munta hori 124.000koa izan zen 2007an. Munta hori batu behar zaizkio menpekotasunari buruzko Estatuko Legearen prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak (zenbatespenen arabera horiek urte

horretan gutxi gorabehera 8.000 ziren) eta, ondorioz, esan daiteke pertsona onuradunak gutxi gorabehera 140.000 izan zirela (oso argi dagoen bezala horiek ez dira pertsona desberdinak, pertsona bakarrak prestazio bat baino gehiago jaso dezakeelako). Horrela kalkulaturik pertsona onuradunen kopurua % 125 hazi da 1998 eta 2008 urteen artean. Hazkuntza hori berariaz da aipagarria, termino erlatiboetan, laguntzarako eguneko zentroen erabiltzaileak diren pertsonen kasuan. 2007 eta 2008 urteen artean hazkuntza hori gutxi gorabehera 15.000 pertsonakoa izan da eta egineran ia erabiltzaile berri guztiak pobrezia aurre egiteko eta menpekotasun kasuetako arretarako prestazio ekonomikoetakoak izan dira.

Halaber, txostenak azpimarratu egiten du egon daudela hiru talde artean gure ongizate sistemak ondo eta era nahikoan zaintzen ez dituenak: etxerik ez duten pertsonak, menpekotasunak dituzten pertsonen zaintzaileak eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonak. Halaber, azpimarratu egiten du krisiak eragin handiak dituela EAEko Gizarte Zerbitzuetan: sektoreko profesionalak argi azaldu dute eragin hori, hala eskariaren gehikuntzari dagokionez nola, kasu jakin batzuetan, eskuragarri dauden bitarteko ekonomikoen murrizketari dagokionez; dena dela, kasu askotan argi azaltzen dute sistemak gaitasuna erakutsi eta frogatu duela hain kontrakoa den testuinguruan eusteko. Hori guztia gorabehera, % 31rentzat krisiak ez du eragin handirik izan euskal gizarte zerbitzuetan eta % 47arentzat eragin hori nahiko handia izan da.

Halaber, txosten honek adierazten du profesionalen arloan ardua bat nagusitu eta zabaldu dela, hain zuzen ere Gizarte Zerbitzuen sistema deriba protekzionistaren menpean egotearena eta, ildo horretatik, prestazio ekonomikoen hazkuntzaren erritmoa zuzeneko arretako plazen hazkuntzaren erritmoa baino askoz ere azkarragoa izatea. Pertsona erabiltzaileen ikuspegitik txostenak esaten du 1988 urtean zuzeneko arretako zerbitzuak eskaintza osoaren % 53 zirela eta prestazio ekonomikoak % 46 eta, ordea, gaur egun proportzioa erabat dela kontrakoa. Krisi ekonomikoak sarreren bermerako prestazioen jasotzaileen kopuruaren gainean izan duen eraginak eta 2009 eta 2010 urteetan menpekotasunari arreta eskaintzeko sistemak izan duen hobekuntzak (bigarren kasu honetan datuen eskuragarritasuna ez da hain handia) prestazioek zerbitzuekin erkatuta duten pisua areagotu baino ez dute egiten, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluak baieztatzen duenaren arabera.

Azkenik, GZEKk azpimarratu du menpekotasunari arreta eskaintzeko sistema hedatu egin dela menpekotasunari arreta eskaintzeari buruzko estatuko Legetik abiatuta¹⁰ eta adierazi du EAEk beste autonomia erkidego batzuk baino garapen handiagoa duela hala pertsona baloratuen portzentaia dagokionez (% 3,7) nola eman diren prestazioei (zenbateko hori biztanleriaren % 1,69aren baliokidea litzateke 2010eko abenduan).

Beste alde batetik, gogorarazi egiten da sarreren bermerako prestazioaren euskal eredu nabarmendu egiten dela estatu mailan eta hori horrela bai estaldura zabala duelako (famili unitateen % 7,5koa 2009an) eta

⁹ Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 48. artikulua Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren sorkuntza ezarri du (Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren ondorengoa dena) eta organismo horri ematen dio, beste funtzio batzuen artean, "urtero txosten bat jaulkitzearena, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemaren esparruan jasoko diren datuekin egingo dena".

¹⁰ Abenduren 14ko 39/2006 Estatuko Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasunak dituzten pertsonen aldeko arretari buruzkoa.

bai bere maila altuagatik ere. Horrela, Sarreraren Bermerako Euskal Sistemak guztira 389,9 milioi euro gastatu zituen 2010ean, hau da, aurreko urtean baino % 22,9 gehiago. Zenbateko hori erra honetan banatu zen: 314,8 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentarako (zenbateko osoaren %82), 24 milioi Gizarte Larrialdietarako Laguntzatarako (% 5) eta 51,1 milioi euro Etxebizitzarako Prestazio Gehigarri berrirako (% 13). Azken hamarkadako balantzea egiten bada esan behar da gastua, guztira, 1.950 milioi euro izan dela eta, bilakaerari dagokionez, 2001ean 86 milioi izan zirenak 2010ean ia 390 izan ziren. Beraz, argi adierazten da gure Erkidegoan biztanleriaren ongizatea bermatzeari dagokionez sistema honek duen garrantzia.

Ilido horretatik, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak txostena egin zuen 2010ean¹¹ mendebaldeko herrietan egon dauden gutxieneko errenten egitarauari dagokionez. Txosten horretan, horien etena edo murrizketa proposatu beharrean, erabat gomendatzen du kontrakoa eta

esaten du bitarteko horiei krisiak eragiten duen eskatzaileen kopuru gero eta handiagoari aurre egiteko moduko baliabide ekonomikoak zuzkitu behar zaizkiela. Halaber, aztertu eta baloratu egiten du zein neurritan gutxieneko errenten sistema horiek enpleguaren arloko sistema publikoetan integratu behar diren edo, besterik ezean, nola hurbildu behar zaizkien sistema horiei. Ilido horretatik azpimarratu egin du nazioarte mailan gero eta ohikoagoa dela leihatila berean biltzea enplegua bilatzen dutenentzako zerbitzuak eta laguntzen arloko prestazioak eskatzen dituztenentzako zerbitzuak, horrek areagotu egiten duelako irisgarritasuna, aukera ematen duelako eskalako ekonomien onura jasotzeko eta murriztu egiten duelako gutxieneko errentak jasotzeko lotuta egoten den bereizkeria. Dena dela, ohartarazi egiten du horrek guztiak ez duela beti koordinazioa hobetzen eta esaten du ahalmen eta gaitasun handiagoa eskatzen duela ematen diren zerbitzuak erabat askotariko profil eta beharrianak dituen biztanleriaren beharrian indibidualei egokitzeko.

¹¹ OCDE (2010): Minimum income benefits in OECD countries: Policy design, effectiveness and challenges.